

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



GIZA ADIMENARI BURUZKO  
ENTSEIUA I



J. LOCKE

# Giza adimenari buruzko entseiua I



Jatorrizko izenburua:  
*An Essay Concerning Human Understanding*  
Euskaratzailea: Alberto Gabikagogeaskoa  
Berrikuslea: Andoni Ibarra  
Hitzaurregilea: Andoni Ibarra

Lehen argitalpena: 1998ko abenduan

© Itzulpenarena: Alberto Gabikagogeaskoa  
© Klasikoak, 1998  
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1998-XII-28

ISBN: 84-88303-42-4 (Obra osoarena)  
ISBN: 84-88303-40-8 (Lehen liburuaarena)  
Lege gordailua: BI.-2878-98

Fotokonposaketa: ABA, O.E.  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

# HITZAURREA

*Giza adimenari buruzko entseiua (Entseiua)* epistemologia eta ezagutzaren teoriaren historian zehar egin den lanik gailenena dugu. Berehalako onarpena izan zuen bai britaniar uharteetan bai europar kontinentean ere, eta aditzera emandako ideiek modernitate filosofikoaren eraikuntzan oinarri bilakatu ziren. Adibiderako: Leibnizek 1701-1704 urteren bitartean *Entseiuan* agertutako ideiei bere *Nouveaux essais sur l'entendement humain* ean puntuz puntu erantzuteko lanari ekin zion, azken hau ere Klasikoak bilduman argitaratuta daukaguna<sup>1</sup>. Onarpenaren arrakasta berretsirik dago argitaratu ziren argitaraldien kopuruagatik<sup>2</sup>. *Entseiua* 1960ean argitaratu zen lehenbizi eta Locke bizirik zegoela beste argitaraldi batzu ere izan ziren: bigarrena 1694an, hirugarrena —funtsean aurrekoaren berrargitaraldia zena— 1695ean eta laugarrena 1700ean. Egileak berak prestatu zuen hurrengo argitalpena, bera hil eta bi urtera, hots, 1706an argitaratuko zena. Bitartean, Locke frantsesezko bertsioan ere parte hartu zuen, Pierre Costek atonduko zuena ingelesezko laugarren argitalpenetik abiatuta, eta 1705ean argitaratua izan zena<sup>3</sup>.

Euskarazko edizio honek oinarritzat hartu duen testua Alexander Campbell Fraser-ek *Entseiua*ren laugarren argitalpenetik abiatuta 1894an argitaratutakoa da<sup>4</sup>.

### *Egilea eta bere garaia.*

John Locke 1632an jaio zen Bristoldik hurren dagoen Wringtonen, Ingalaterran. 1652an Oxfordko Unibertsitateko Christ Church Collegean sartu zen. 1659an aipatu Collegearen irakasle izendatua izan zen zegozkion graduak lortu ondoren, Grekoko eta Erretorikako lektoraduen arduradun aritu zen eta Filosofia moraleko Zentsore. Unibertsitateko egonaldia laburra izan zen, baina zentzu bikoitz batean emankorra:<sup>5</sup> alde batetik, Oxforden nagusi zen eskolastizismoari zion amorruan sakondu ahal izan zuelako, ildo filosofiko berriak arakatzeko bilaketa pertsonalean sakonduz; eta bestetik, bide batez ezagutu ahal izan zituelako Robert Boyle-ren (1626-91) zirkuluko fisikari eta kimikari ospetsuak edo Thomas Sydenham (1624-89) bezalako osagileak; hor piztu zitzaion zientziaren azterketarako grina<sup>6</sup>.

*Entseiuaren* «Irakurlearentzako gutunean» Lockek bere garaiko zientziaren eta filosofiaren arteko errealitate urrunduak erkatzen ditu. Aipatu berri ditugun adinako zientzilariek, Huygens, Newton eta beste batzurekin batera «ezagutzaren errepublikaren» sustapenean dihardute. Sustapen horretan arrakasta izateko eskakizuna mintzaira ilun eta zirriborrotsu batek bere iharduera intelektualaren aurrean jar ditzakeen oztopoetatik aske egongo den pentsamolde batean zertzen da.

«asko aurreratuago zegokeen munduan, baldin gizaki argi eta langileek zientzietan sarturiko eta arte mailara jasotako termino lan-gabe, artifizial edo ulertezinen erabilera eskolatu baina azalekoan oztopo handiegiak aurkitu ez balituzte. Izan ere erabilera hau hain izan da kaltegarria, non filosofia, gauzen egiazko ezagutza baino ez den arren, hezkuntzadun jendearekin eta gizabidezko solasaldietan erabiltzeko desegokitzen egon den. Esamolde lanbrotsu eta esanahi gabeak eta hizkuntz abusuak hain luzaro hartu dira zientzietako misteriotsat, eta hitz sail eta gaizki aplikatuek, esanahi gutxiko edo gabekoek, hain eskubide handia ukan dute gizakiek, inoren aginduz, jakintza sakontzat eta goi espekulaziotzat har ditzaten, non ez den erraz izanen horiek darabiltzatenei edo entzuten dituztenei termino horiek ezjakintasunaren estalki eta egiazko ezagutzarako behaztopo baino ez direla sinestaraztea. Harropuzkeriaren eta ezjakitearen santutegian brasta sartzea, nik uste, giza adimenaria eskainitako zerbitzua izanen da, oso gutxi diren arren uste izan dezaketenak hitz horiek erabiliz



beren burua edo besteenak engainatzen dituztela, edo beraiek darabilzkiten sektako hitzek aztertu eta zuzendu beharreko akatsak dituztela, halako mailan eduki ere, non uste dudan barkatuko zaidala, Hirugarren Liburuan puntu honi buruz hain luze aritzea, nire asmoa ez baita izan haxe argi uzten ahalegintzea besterik, alegia, ez gaitza oso errotua egotea ez modaren gailentasuna ezin direla zurigarri izan beren hitzen esanahiaren ardurarik hartzen ez dutenentzat eta beren adierazpenen esanguraren araketa jasateko prest ez daudenentzat».

Lockerren esanetan, kartesiarra ez izan arren, Descartesen obrak pentsamolde argi eta ordenatu baterako eredu eta ekarpen eraginkorra osatzen du, filosofiaren bilakaeran mesedegarri suerta daitekeena<sup>7</sup>.

Irakaskuntza alde batera utzirik Lockek parte hartzen du garai hartako Ingalaterrako politikagintza nahasian, Estuardotarren dinastiaren amaiera eta Orangekoaren hasiera ekarriko duena, «the Glorious Revolution» izenarekin ezaguturiko gertaera historiko ospetsuan. Lockek zeregin politiko ezberdinak izan zituen. Urte bitan Brandeburgoko elektoregoaren aurrean enbaxada bateko idazkari gisa aritu zen, 1667an geroan Shaftesburyko lehen kondea izango zenaren zerbitzupuan aritzeko<sup>8</sup>. Kondea 1672an Lord Kantzelari bihurtu zenean Locke eliz onuren aurkezpenerako idazkari izendatua izan zen, eta urte bat beranduago Merkataritza eta Nekazaritzako Batzordeako idazkaria. Bere osasun makala dela eta Frantzian jarraitu behar du 1675etik 1680ra. Bost urte hauetan kartesiarren aldeko eta aurkako polemiketan parte hartu ahal izan zuen, haren ondorioz eta bereziki, aurrerago ikusiko den legez, Gassendiren ezagutzaren teoriak eranginda izango zelarik<sup>9</sup>.

Ingalaterrara itzultzean Shaftesburyko kondearen zerbitzupera bueltatzen da berriz ere. Baina, Yorkeko kondearen —geroan James II.a erregea izango zenaren— aurkako konspirazio bat azalean jartzekoan, Shaftesburyk Holandara ihes egiten du, 1683an heriotzak ermaten duen arte. Heriotz honek kolokan jartzen du Lockerren segurtasuna Ingalaterran eta, ondorioz, urte horretan bertan Herri Beheretara ihes egiten du<sup>10</sup>. Han orangetar zirkuluekin eta filosofo kontinentalekin harremanak ditu<sup>11</sup>. 1688ko iraultzak Orangeko Gillermo jartzen du Ingalaterrako tronuan eta Locke berriz ere itzultzen da. Ordutik aurrera, bizitza publikoa ia bazterturik, aurreko hamarkadetan landutako

testuen argitalpen ezberdinak prestatuko ditu, bai eta hezkuntza, politika, ekonomia, erlijioa edo epistemologiari buruzko idazlan berriak idatzi ere, hauetariko batzuk bera hil ostean argitaratuko direnak.

Lockek landuko dituen alor ezberdinak bereziki Shaftesburyko kondearen zerbitzupuan garatutako tutoretza eta politikagintza lanek eragindakoa dira<sup>12</sup>. Halere, Lockeren teoria politiko eta hezkuntzazkoak gutxiestea litzateke hauek *whig* alderdiaren, Estuardotarren aurkaria, adierazpen instrumental hutsalak edo konde gazteen hezkuntzaren zerbitzupuan jarritako adierazpen gisa hartuko bagenu<sup>13</sup>. Izan ere, jakintzaren alor hauetan, Locke Ilustrazioaren izenik nagusienetarikoa bat dugu, frantses entziklopedistengan eragin zuen, eta baita Montesquieu bezalako pentsalari politikoengan ere<sup>14</sup>. Hemen ez dugu gai horietan sakontzeko lekurik, beraz nahikoa izango dugu *Entseiuaren* egilearen teoria politikoa eta sozialaren aipamen laburbilduak agertzearekin.

Lockek *Glorious Revolutionaren* ondoren Orangetarrek Ingalaterran ezarriko duen pentsamolde politiko eta soziala funtsatu, sistematikotu eta terrorizatzen du<sup>15</sup>. Gaztaroan oraindik, 1660 eta 1664aren artean, *Essays on the Law of Naturen* zortzi entseiuak idatzi zituen<sup>16</sup>. Lockeren abiapuntua gizakien jatorrizko egoera naturalean kokatzen da, gero, hala nahita, gizarte politiko baten partaide izatea erabakitzen duten arte. Baina, Hobbesen egoera naturalean ez bezala, Lockerenean ez dago gerra egoerarik, naturaren lege moralak nagusi diren egoera baizik, arrazoimenaren bitartez idoro daitezkeenak<sup>17</sup>. Lege natural horien existentziak eskubide naturalen existentzia ere determinatzen du, Estatuen eta bertako legedien gainetik gorde behar direnak<sup>18</sup>. Lockek eskubide horiek aztertzen ditu eta horiei eusteko forma politiko egokienak ere bere *Gobernu Zibilaria buruzko bi Entseiuak* idazkietan, 1679 eta 1681ean bukatuak izanik 1690erarte argitaratuko ez zirenak<sup>19</sup>.

Azterketaren menpe jarritako eskubideak, beste batzuren artean, norberaren iraupenaren eta norberaren biziaren babeserako eskubideak, askatasun eskubidea eta, bereziki eta denaren gainean, jabe goaren eskubidea dira<sup>20</sup>. Eskubide hauek eginbehar korrelatiboak daramatzate eurekin; adibidez, batek ez du bere buruaz beste egiteko eskubiderik, nahita esklabutzara joateko eskubiderik edo beste inoren bat baldintza horren menpe jartzeko eskubiderik, edo amairik

gabe bere onura bakarrerako ondasunak pilatzeko eskubiderik<sup>21</sup>. Eskubide hauek guztiak bat datoz gauzen kokapen naturalean adierazitako borondate jainkotiarrarekin. Egokitzapen hau modu berezian agertzen da jabegoaren eskubidean. Bestelako eskubideen aldean, ondasun kopuru jakin baten jabegoaren atribuzioa ez dago *abinitio* emanda, oster, lana da haren gauzatze efektiboaren jatorrizko iturria. Lanaren bidez gizakiek egoera naturalean zenbait fruitu lortzen dituzte beren lur alorretik eta, ondorioz, haien jabetzat hartu ahal dute bere burua<sup>22</sup>.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta aipatutako eskubideek kontzientziaren bitartez agintzen gaituzten, horretatik ez dator beti, ezinbestez, betetzen direnik. Egoera naturalean gizakiak bakoitza bere kabuz bizi dira. Eskubideei eusteko —eta denaren gainean beste guztiak uztartzen dituen jabegoaren eskubideari eusteko— modurik onena gizartearen barnean da. Gizakiak elkartu egiten dira eta gizarteak osatzen dituzte, elkarte txikietatik abiatuz, politikoki gobernatutako gizarte zibilak osatu arte. Bilakaera hau razionala da, gizabana-koen adostasunaren arabera finkatzen baita: hauek egoera naturalaren askatasun osoari uko egiten diote, bere buruak gehiengoaren nahiaren menpean jarritz, hau da, gobernuan ordezkaturako gehiengoaren adostasunaren menpe, bere askatasun eskubidea ziurtasun haundiago batez bermatzeko —orain murriztuagoa dena, ordea<sup>23</sup>—. Monarkia absolutua, beraz, gobernu zibil razionalaren aurkako da, bertan ez baita gehiengoaren adostasunaren betekizuna aintzat hartzen.

Hobbesen aldean, zeinentzat gizarte zibila eraikitzeko ahalbide-baldintza gisa, gizakiak diren subiranoaren esku boterea jartzen dutenak, Lockeek gizarte horren aurretiazko eraikuntza aldarrikatzen du eta hortik aparte gobernu forma zehatza finkatzeko akordioa<sup>24</sup>. Hortik dator botere legegileak gizarteko beste botereen aurrean duen garrantzia, hots, hauek haren ondorio dira eta bere menpean daude<sup>25</sup>. Hortik datorkio gizarteari botere exekutibo-judizialaren aurka egiteko —edota hura iraultzeko ere— eskubidea, honek, zelan edo halan, gizarteak adostutako oinarriak hausten dituenen<sup>26</sup>.

Xehetasunetan sartu gabe azaldutako Lockeren teoria politiko hau nahikoa da egilearen bizipen pertsonalen eta bere ideien arteko harreman estua agerian jartzeko, nahiz eta beren baliagarritasuna sortu ziren une historiko-sozialaren esparrutik haraindi dagoen. Zentzu

honetan, zalantzarik ez dago Lockeren ekarpena berezia izan dela pentsamolde liberalaren sorreraren jatorrian. Izan ere, askatasun printzipioaren nagusitasuna berrestean eta autoritate printzipioa baztertzearn, bere ekarpena erabakigarria izan zen jatorrizko pentsaera liberala besotelako alorretan zehar barreiatzeko —hala nola, pedagogian, ekonomian, erlijioan edo etikan—<sup>27</sup>. Arrazoimenaren askatasunerako betekizunak *Entseiuaren* egilearen teoria epistemologikoa ere oinarritzen du.

### ***Lockeren eza gutzaren teoriaren problematika.***

Lockek ikuspuntu berri bati ematen dio hasiera arazo filosofikoaren plazaraketan. Abiapuntua filosofian metafisikaren jorraketan dago, berau giza adimenaren azterketaren behetik pasatuz, hau da, arazo metafisikoen azterketa giza adimenaren zabalera, gaitasunak eta mugak finkatuz. Locke plazaratutako egikera *berri* honen garrantziaren jakinaren gainean dago, *Entseiuaren* Pembrokeko kondeari zuzendutako «Eskaintza»n zera ohartarazten duenean:

«Ezaguna zara zu, jauna, gauzen ezagutza abstraktu eta orokorrenetan espekulazio oso aurreratueta heldu zarelako ohiko metodoen irispidetik harago, halatan heldu ere, non zuk tratatu honetako ahaleginari emandako oniritziak eta baieztokak irakurri gabe gaitzetsia izatek babestuko baitute eta ohiko bidetik kanpo egotearren aintzat hartu gabe utziko liratekeen zenbait atal nolabait balioetsiak izatea eraginen baitute. Berritasun egozpena akusazio izugarria da, gizakien buruaz berauen ileordeaz bezalaxe, modaren arabera erran nahi baita, juzgatzen dutenek erabiltzen dutena, onarturiko doktrinetatik aldentzen den inork arrazoi ukan dezakeenik inoiz ametitu gabe. Egia, berriren berri aurkezten denean, ia inoiz ere ez da bozketaz onartzen eta, horregatik, iritzi berriak susmagarriak izaten dira beti eta aurkatuak eskuarki, oraindik ohikoak ez direlako besterik gabe. Baina egia, urrea bezala, ez dago egiatik urrunago, meazulotik atera berria delako. Probak eta azterketak eman behar diote balioa, eta ez inongo anti-gualeko modak».

Filosofiaren ikuspuntu berri honen jatorria Shaftesburyko kondearen zerbitzupuan egon zeneko lehenengo urteetatik dator. Kondearen lagunarteko batzarretan eta moraltasun eta errebelatutako erlijioaren arazoak aztertzeko erabilitako ikuspuntu filosofikoaren desegokitasunari buruz zera ohartzen du Lockek *Entseiuaren* «Irakurlearentzako Gutunean»:

«Aldi batez lanbro artean eta noraezean murgildurik ginduzkaten zalantzen konponbidera hurbiltzea lortu gabe ibili ondoren, pentsatzen hasi nintzen okerreko bidea hartu genuela eta, halako gauzak ikertzen jarri aurretik, gure gaitasunak aztertu eta gure adimena zein *objektu* ikertzeko baden eta ez den gauza ikusi beharra zegoela».

Hau da, zeintzu *ideiak* izan ditzaketen gizakiek, eta zeintzu dira haien artean finkatu daitezkeen erlazioak, ziurtasun osoz edo, gutxieneko probabilitate batez behintzat. Ontologia epistemologiaren menpe dago: filosofiaren lehenbiziko galdekizuna ez dago Izateari dagozkion materiei buruz aritzean, gure adimenean, hau da, gure ideien esparruan dauden haiei buruz aritzean baino. Lockek *ideia* hitza erabiltzen du «gizaki batek pentsatzen duenean adimenaren objektua denaren ordeztatzeko (*to stand for*)» (*Entseñua I*, sarrera § 8). Ideietara heltzeko «bide berria» gogameneko edukiaren izaera eta jatorriaren azterketaren bitartez egin behar da, hots, gogameneko azterketaren bitartez. Azterketa zehatz batek erakusten digu, Descartesen razionalismoaren aldean, ideiak ez direla sortzetikoak, sentipenaren (*sensation*) eta hausnarketaren (*reflection*) ondorio baizik.

Lockeren ideien azterketa filosofikoa ez dago ulertzerik Descarteseekin eta kartesiarrekin ideien jatorriaz eta estatus ontologikoaz izan zuen lehiatik at. Izen ere, eta hasteko, kartesiar erroa duen razionalismoak eta Lockek puztu eta Berkeleyy eta Humek jarraitutako razionaltasun eredu enpiristak ardura komun bat badute ukan, hots, zientzia modernoak —eta, bereziki, horretan matematikak duen garrantziak— plazaratutako arazoan ikerketa filosofikoan, eta zientziak gizakiari izadian eskaintzen dion kokapen berrian dagoena. Galileo eta Descartesen zientzigintzak bere baliozkotasuna zentzuenean baino matematikan jartzen du. Paradigmatikoki, mundu errealeko fenomenoaren ezagupenerako sarbidea matematikak eskaintzen digu —eta ez soilik eremu matematikoaren entitate abstraktuena—. Ondorioz, mundu fisikoaren ezagutza atzemateko era matematikaren ezagutza atzemateko era berbera da, hau da, arrazoimenaren bidez. Esperientzia gure teoriak —matematikoak zein enpirikoak— egiaztatzeko bide bat baino ez da, eta ez, haietara heltzeko bide gorena. Orokorrean, teoria epistemologiko honen aurka zentzunean oinarritutako enpirista britaniarrena jarri ohi da; honetan, kanpoko mun-

duaren ezagutza zuzenean hautematearekin lotzen den sentimenezko esperientziatik dator. Honela azalduz, razionalismoa eta enpirismoa erabat aldendurik agertzen dira.

Enpirismoaren ezagutzaren teoriak, ostera, razionalismo era berri bat ezartzen du. Teoria epistemologiko berri batek zeintzia moderno hartu behar du ikergaitzat ezinbestez, eta ez zientzia aurrenewtondarra. Azken honen aldean, Galileo eta Newtonen zientziek gauzen propietate matematikoak dituzte beren ikergaitzat, eta ez sentimenetatik zuzenean hautemangarri diren propietateak eta magnitudeak. Filosofikoki garrantzia duen ausia, beraz, munduaren ezagutza atzemateko mekanismo kognitiboa modu onargarri batez azaltzearena da, eta ez gure sentimenez hautemangarri izan daitezkeen koalitete edo propietateen arabera, entitate matematikoen azpian dauden, eta soilik arrazoimenaren bitartez lortu daitezkeen, erlazioen arabera baizik. Jokaera hau erabat errepresentazionala dugu: entitate matematikoek eta beren erlazioek, modu batera edo bestera —finkatzear dagoena—, munduko gauzen egoera, mundu errealearen izaera, alegia, ordezkatzin dute. Izan ere, horrelaxe bakarrik atzeman daitezke gauzak *egiazkidiren legez*, eta *ez agertzen zaizkidan legez* edo esperientziatzen ditudan legez.

Gure ohiko hautemateek ez damaigute beti mundu fisikoari buruzko egia. Esaterako, nik hotz edo beroaren sentipena izan dezaket eskua uretan sartzen dudanean. Ostera, nire sentipenetatik ez ondorioztatutako kontzeptu batek, tenperatura kontzeptuak alegia, munduari buruzko *egia objektiboagoa* eskaintzen dit. Lockek bere egiten duen teoria atomistaren arabera, adibidez, —hotz edo bero sentitzen dugun— gorputz bat osatzen duten oinarritzko partikulen higiduraren neurri gisa definitzen du tenperatura<sup>28</sup>. Tenperatura, beraz, osagai bik determinaturik dago, materia eta higidura; eta hauen azalpena emateko Lockek teoria mekaniko egokiak zituen bere esku. Bietariko bat ere ez da maila atomikoan hautemangarria, baina, gauzak *egiazki diren bezala* osatzen dituzte.

Razionalismo biren, kartesiarraren eta enpiristaren, arteko aurkakotza, ez da soilik arazo komun batetik abiatzen. Komuna da, era berean, zientzia modernoaren sorrera ulertzeko erabilitako matrize epistemologikoa, eta honako ezaugarriak dituen: (i) ziurtasuna azpimarratzen da ezagutza razionalaren betekizun gisa, (ii) egia

nabarien bereizkuntza egiten da ezagutzaren teoriaren oinarritzko euskarri gisa, eta (iii) ezagutzaren azalpen onargarri batek gogamenaren eta ideien arteko harremanen azalpena eskatzen duenaren uste sendoa. Arazo hauei emandako bi erantzun ildoek XVII. mendetik dirauten epistemologia nagusi biak irudikatzen dituzte, hau da, modernitatearen Scilla eta Charybdis. Enpirismoaren ekarpenaren berritasuna sentimenez mundu fisikoaren —eta esparru matematikoaren— egien atzematean duten funtzioa modu onargarri batean finkatzean datza. Lockeren ekarpen oinarritzkoena (i)-(iii)n adierazitako baldintzak asetuko dituen sentimenezko esperientziaren ikusmolde berri bat plazaratzearena da.

Locke kanpoko munduaren existentziaren egiaztapenetik abiatzen da, zergatik eta bertan dauden gauza anitzen hautemate edo perzeptzioak ditugulako. Alabaina, nola hel naiteke hautemate hoiek izatera? Kartesiarren arabera sortzetiko ideiak ditugulako. Lockek, ordea, uste du esperientzia dela gure ezagutza osoaren oinarria:

«Gizaki oro bere pentsamenduaz konturatzen denez eta pentsatzen ari denean bere gogamenak hantxe dauden ideien inguruan diharduenez gero, ez dago dudarik gizakiek beren gogamenean zenbait ideia dituztela... Lehenengo eta behin, orduan, gizakia *horiek eduki - tzer a nola heltzen den* jakin beharko da. Badakit doktrina onartua dela gizakiek sortzetiko ideiak eta jatorrizko karaktereak dituztela beren gogamenetan sorrerako...

Jo dezagun, bada, gogamena, esan ohi dugun moduan, paper zuri bat dela karaktererik gabekoa, inolako ideiarik ez duena. Nola heltzen da horiek edukitzera? Nola heltzen da gogamena gizakiaren irudimen lantsu eta mugarik gabeak ia amaigabeko aniztasunez bere baitan pintatu dion ugaritasun hori guztia edukitzera? Nondik ateratzen du arrazoimenaren eta ezagutzaren material hori guztiori? Galderoi hitz bakar batez erantzunen diet: esperientziatik» (*Entseia*, II.i.1 eta 2).

Lockek Descartesi egiten dion kritikaren abiapuntuak, printzipioz behinik behin, zentzunarekin bat datorrela dirudi. Nola esan dezakegu modu onargarri batean gure ideiak, bakunenak direnak, jaioberrian jadanik grabatuta daudela? Galdera beste hau litzateke, alegia, nola azal daiteke ideien jatorria esperientziaren bidez? Zentzunarekin lotuta dagoen kritika hau, oster a, azalekoa baino ez da.

Galdera bietan plazaratzen den auzia ezagutzaren jatorriari dagokiona baino orokorragoa da. Bai Descartesengan bai Lockerengan «ideia» terminoa gogamenaren edukia osatzen duenari dagokio. Hau da, pentsamenduei dagokie, baina baita sentimenduei, sentipenei, emozioei eta kontzeptuei ere. Dugun auzia, beraz ez da gizabanakoak nola ezagutzen duen, baizik eta gogamenak nola, orokorrean, heltzen den eduki hori —dena delakoa izanda ere— eskuratzera. Honela planteiatu- turik kartesiarrek emandako aterabidea ez dago erabateko onargarri- tasunik gabe eta, hortaz, ez dago auzitan jartzerik intuizioz edo zen- tzunez soilik emandako iritziez. Teoria epistemologiko bat behar dugu: (i) gogamenaren eta ideien arteko harremana aurkituko duena, biak ere entitate independente gisa harturik, (ii) gogameneko ideien jatorria argituko duena, eta (iii) ezagutzaren fenomenoa gogamenaren ideiekiko eraginaren emaitza gisa azalduko duena. Teoria hori eratzea da Lockeren einkizuna.

Idea guztien jatorria diren ezagutzaren iturri biak kanpoko objektu sentigarrien pertzepzioa eta geure gogamen barneko eragiketen pertzepzio dira. Lehengoari «sentipen» deritzogu eta bigarrenari «hausnarketa». Lehenengoak honelaxe dihardu:

«Gure sentimenek, objektu sentigarri partikularrekin ari direla- rik, gauzen hainbat pertzepzio ezberdin daramatzate gogamenera, objektu horiek egiten dizkien eragin mota ezberdinen arabera. Eta horrexetara heltzen gara *hori, zuri, bero*,.... eta koalitate sentigarri dei- tzen diegun horien ideiak edukitzera. Eta horiexek direla sentimenek gogamenera daramatzatenak diodanean, esan nahi dut sentimenek kanpoko objektuetatik gogamenera pertzepzio horiek han sortzen dutena daramatela» (*Entseñua*, II.i.3).

Hausnarketa sentipenaren antzerako ideien lorpenerako iturria dugu, baina gure gogameneko barne eragiketen gainean eraginez, horregatik «barne sentipen» gisa bereizi daiteke. Lockek «eragiketa» horiek zentzu zabalean ulertzen ditu, bai gogamenak bere ideiekiko duen eraginaren bitartez nola baita haiekin elkartuta gerta daitezkeen irriken bitartez ere —hala nola, ideia batek eragindako atsegina edo atsegineza—. Honela bada:

«aipaturiko eragiketek, arimak haiei buruz hausnarketan eta pentsaketan diharduenean, beste mota bateko ideiez hornitzen dute gogamena, alegia, kanpoko objektuetatik, erdietsi ezin direnez.



Hauexek dira horiek: *hautematea*, *pentsatzea*, *dudatzea*, *uste izatea*, *arrazoitzea*, *ezagutzea*, *nahi izatea*, eta gure gogamenaren egintza diferente guztiak. Eta horien ohartun izan eta geure baitan hautematen ditugularik, berorietatik, geure sentimenetan eragina duten gorputzetatik hartzen ditugunak bezain bereiziak diren ideiak hartzen ditugu» (*Entseiuua*, II,i,4).

Sentipena eta hausnarketa giza pertzepzioaren modu bi dira. Lockeren teoria epistemologikoak beraz, ezagumenaren azalpena lortzen du hautematearen teoria baten bidez. Izan ere, Locke pentsatu eta hauteman arteko bereizketa arindu egiten du, kanpoko objektu sentigarrien behaketa pentsatu edo ideiak edukitzearekin berdindu arte. Kanpoko objektu bat behatzea ideia bat edukitzea da eta ideia bat edukitzea pentsatzea da. Behatzea eta pentsatzea ideien bitartez errepresentatzeko modu bi dira.

Lockeren teoria epistemologikoaren aurkezpen hau zehaztu beharrean gaude. Bere pertzepzioaren teoria ez da soilik hautematearen teoria psikofisiologiko bat. Bere teorian behin kanpoko objektuen errealitatearen existentzia ezarririk —gogamena eta ideien independentziaren euskarria dena—, pertzepzioak errealitate hori eta gogamena uztartzen ditu —ideiak gogamenean zergatik sortzen diren azalduz—. Ezagutzazko mekanismoaren alderik garrantzitsuen dago, beraz, azaltzeaz, hain zuzen, gogamenean landugabeko materialaren harrerarekin, hots, «inpresio» sentigarriekin, hasten den hura. Hautematea ez da inpresio hutsa, egia nabariak atzemateko gaitzen gaituen lehen urrats epistemikoa baizik. Honela hautemateak karte-siarren intuizioa baztertzen du egiazko ezagutzaren oinarri lege: eza-gupen bat erreala da —hau da, gauzen errealitatearekin ados dago— ez sentimenezko inpresio bat delako (edo bertatik datorrelako), baizik eta giza ezagutzak mundu hura eta gure gogamenaren artean dagoen bitartekaritzaren ondorioz, pertzepzioak ideiak sor ditzan kanpoko mundu errealaaren existentzia behar duelako.

Bitartekaritza hori izaera errepresentazionalakoa da erabat. Sarritan ispiluaren analogiaren bitartez ere azaldu ohi da: gogamenak objektuak pasiboki *islatzen* ditu. *Entseiuaren* irakurketa sakonago batek, ordea, konplexutasun handiagoa agertzen digu. Inpresioak ez du egiazko eraginik pertzepzio bihurtu ezean, hots, bere gaitasun aktiboaren bitartez gogamenak inpresioen izaera osatzailea onartu ezean:

adibidez, inpresio jakin batzuk loreontzi gorri baten inpresio osatzai-leak direla onartu artean. Pertzepzioak ez dira isla espekularrak edo zantzu hutsalak argazki plaka batean. Ideiek mundua errepresentatzen dute mintzairak ideiak hitzen bidez errepresentatzen dituen antzera. Batean zein bestean, errepresentazioek esanahia dute esperientziaren objektuei badagozkie. Bestela, ideia edo errepresentazio «fantastiko edo kimerikoen» aurrean gaude. Hauxe da Lockek ezartzen duen eza-gutzaren teoria ennpiristaren muina.

### ***Giza adimenari buruzko entseiua liburuaren edukia.***

*Entseiua* 1690ean argitaratzen den arren, ernatze prozesua bi hamarkada lehenago hasi zen<sup>29</sup>. «Irakurlentzako gutunean» idaztaroan etenaldi luzeak tartekatu zirela diosku, gaiei berriz anabasean ekinez, eta hauek, gehien batean, Frantziako azken egonaldian atondu zituela. Hori dela eta errepikapenak aurki ditzakegu liburuan, bereziki luzea suertatuz. Are gehiago, egile askok konsistentzia ezak edota kontrae-sanak ikusi nahi izan dituzte obraren hainbat pasarteetan.

*Entseiua* lau liburuz osatuta dago. Lehenengo biek ideiak aztertzen dituzte. Lehen liburuan Lockek sortzetiko ideien teoria kritikatzen du. Bigarrenean, ideien jatorria, izaera eta eginkizunari buruzko bere teoria epistemologikoaren berri ematen da. Hirugarren liburuan ideia eta hitzezko zeinuen, hots, hitzen arteko lotura aztertzen da, zeinak bere lehen edo berehalako esanahian haiek erabiltzen dituen ideiak ordezkatzen (*stand for*) dituzten zeinu sentigarriak baino ez diren (*Entseiua*, 3.ii.2). Hau da, ideiek gauzak errepresentatzen dituzte, eta hitzek ideiak errepresentatzen dituzte. Azkenik, laugarren liburuan Lockek ideiek damaiguten ezagutzaren irismena eta baliagarritasuna ikertzen du, eta, era berean, ziurra ez den, ezagutzetik, hots, probabilitatetik ondorioztatutako sineste praktikoentzako fundametzio bat ezartzen du.

*Entseiuren* teoriaren eginkizun eraikitzailea erralitateari buruz ditugun egiazko judizioen egiaztapen intuitibotik dator. Nola izan daiteke hori? Gure ideiak *oinarrian* sentimenezko pertzepzioak damaizkigun esperientziez osatuta daudelako eta esperientziok munduaren eta gure gorputzaren arteko elkarreraginaren ondorio direlako. Oinarrizko ideia horiei Lockek *ideia bakunak* deitzen die. Ideia horiek ez dira fikzio hutsak,

«zeren gugan eragiteko gai diren itxuren pean irudikatzen (*represent*) baitizkigute gauzak, itxuron bidez substantzia partikularren espezieak bereizteko, substantziok zein egoeratan dauden somatzeko eta, ondorioz, geure premietarako hartu eta erabiltzeko gaitzen garelarik. Horrela, zurtasunaren edo mingostasunaren ideiak, gorputz batek berau gogamenean dagoen moduan eragiteko duen ahalari erantzunez, eduki ahal duen edo behar lukeen bat etortze guztia dauka gugandik kanpoko gauzekin. Eta gure ideia bakunen eta gauzen existentziaren arteko bat etortze hori nahiko da ezagutza errealerako» (*Entseiua*, IV.iv.4).

Pasarte honetan zurtasuna ideia bakuneko adibide bat da. Halere, beste batzutan lore jakin bateko zurtasuna aipatzen du halako ideia baten adibide gisa (*Entseiua*, II.ii.1). Lehen kasuan unibertsal baten aurrean gaude; bigarrenean, partikular abstraktu baten aurrean. «Lore honen zurtasuna» bezalako partikular abstraktuak (*tropoak*) eta unibertsal abstraktuak («zurtasuna») edo partikular konketuak («lore hau») oso ezberdinak dira. Egile batzuk Lockeren teorian inkonsistentzia bat aurkitu dutela uste izan dute. Zenbait egilek ideia bakunak partikular abstraktuekin lotzen ditu, beste batzuk, unibertsalekin. Halere, bere teoria errepresentazionalaren arabera, bereizketa ez da Lockerentzat arazo iturri<sup>30</sup>.

Aipatutako egileek pertzepzioa inpresio hutsa dela ulertzen duen ikusmoldean sostengatuz, ideia isla bat bailintzan arinki definitzen dute. Sentipenak ez dira gogamenean inprimatzen argizariko xaflatxo batean bezala. Bere barnean eraldatzen dira gogamenaren izaera aktiboaren, pentsatzailearen, indarragatik. Hau kolore jakin bateko inpresioa, adibidez, zurtizat hartzen den prozesua da. Errepresentazio prozesu bat non, sentipen landugabea pertzepzio esanguraduna bihurtzen den. Bestela esateko: inpresio batek partikular baten estatusa du, pertzepzio sentigarrian, ordea, gauzen kontzientzia dugu hauek partikular abstraktuak bailiran. Modu honetan azaltzen du Locken esperientzia konketuetatik konzeptuetara garamatzan bidearen hastapena, gure intelektzioa, pentsamendua eta mintzamenaren esperientzian gertatutako oinarrizko entitateetatik eraikiak direla azpimarratzen duen ikusmolde enpiristari eutsiz.

Aipatutako bidea bestelako ideiez osaturik dago ere, *ideia konplexuez*, hain zuzen. Hauek ideia bakunen elkarketez gertatzen dira.

Esaterako, zurtasuna, goxotasuna eta solidotasunaren ideia bakunek azukre-kozkor baten ideia konplexua osatzen dute, Lockek ideia mota biak ezberdintzen ditu gogamenak haiek egiteko erabili dituen prozedura ezberdinen arabera: ideia bakunen kasuan gogamenak *pasiboki* dihardu, eta *aktiboki* ideia konplexuen kasuan (*Entseiuua*, II.xii.1). Azalpen honek okerkuntzara eramán gaitzake. Aipatu den legez, pertzepzio esanguradunak gogamenaren jardueraz behar du. Ideia konplexuen ekoizpenean gogamenak duen izaera aktiboa ideia konplexu ezberdinetara eramango gaituzten ekintza berezien burutzapen ezberdinetik dator. Ideia bakunen eta ideia konplexuen arteko oinarritzko aldea honetan datza gehien bat: ideia bakunak errealitate fisikoak determinaturik daude (berrikiago esango genuke errealitate hori ez dagoela objektuez soilik osaturik, *egituratutako* objektuez baizik), ideia konplexuak, printzipioz bederen, nahi dugun eran osa genitzakeen artean.

*Entseiuua*n ideia mota ezberdinen ezaugarritze bat eskaintzen da, bai bakunena bai konplexuena. Lehenengoen artean sentipenaren ideiak bereizten dira, hau da «kanpoko» sentimenen bidez lortutakoak, eta hausnarketaren ideiak, hau da «barneko» sentimenaren bidez lortutakoak, hots, hautemana, gogamena eta nahimena bezalako ideiak. Atseginak eta atsekabeak, gozamenak edo larritasunak ideia bakunen modu ezberdinak osatzen dituzte ere bai.

Lockek, bestalde, ideia konplexuen tipologia bi eskaintzen ditu. Lehenengoa aztertutako objektu mota ezberdinei dagokie (sustantziei, moduei, edo erlazioei). Bigarrena gogamenak ideia bakunak elkartzekoan egiten dituen eragiketa ezberdinen arabera zertzen da (elkartzea, elkartu gabe erkatzea edo ideiak bata besteetatik bereiztearen arabera).

Halere, sailkaketa hauen ulerkuntza egokia Lockeren teoriaren beste alde garrantzitsu bati so egitean soilik lor daiteke, koalitateren eta bigarrenen teoriari, hain zuen. Teoria hau *Entseiuaren* zientziaren filosofiari dagokio bereziki.

Descartesek sentipenen eta gauzetan egiazki dagoenaren artean, hots, sentipen horiek eragiten dituzten koalitateren artean desberdindu zuen. Zientziari dagokio, jatorrian, koalitateren ikerkuntza. Lockek, alderantziz, zientzia sentipenekin lotzerik badagoela onargarri egiten saiatzen da. Pertzepzioak halako pertzepzioak eragiten

dituzten gorputzen modifikazioetatik aldendu ondoren, Lockeek ideia eta koalitateak bereizten ditu:

«Gogamenak *bere baitan* hautematen duen oro edo pertzepzio, pentsamendu edo adimenaren zuzeneko xede den oro da nik *ideia* esaten diodana; eta gure adimenean ideia bat sortarazteko ahalmenari ahalmen hori duen subjektuaren *koalitatea* deitzen diot. Horrela elurbola batek gure baitan zuri, hotz eta biribilaren ideiak sortarazteko ahala duelarik, ideia horiek gudan sortarazteko ahalmenei elurbolan daudenez koalitateak deitzen diet; eta gure adimeneko sentipen edo pertzepzioak direnez *ideiak* deitzen diet, eta batzuetan *ideia* horiez objektuetan eurretan aurkituko balira bezala mintzo baldin banaiz ere, ideia horiek sortarazten dizkiguten objektuen koalitateez ari naizela ulertzea nahi nuke» (*Entseiuia*, II.vii.8).

Behin esperientziaren azkenengo osagarriak norbanakoaren esperientzia erreala ez direla finkaturik, esperientziatzen ditugun gertakariak ez direla, alegia, objektuen koalitateak baizik, Lockeek koalitate mota biak bereizten ditu, lehenak eta bigarrenak. Gorputzetik, edozein egoeratan dagoela ere, erabat banaezinak direnak halakoak non, gorputz horrek bere gain eragindako edozein indarren ondorioz izan ditzakeen gora-behera eta aldaketa guztietan koalitateok etengabe atxikitzen dituen koalitate *lehenak* deritze. Ideia horiek solidotasun, hedadura, irudia, higidura edo atsedena, eta kopuruaren ideia bakunak eragiten dute gudan. Koalitate bigarrenak, bere aldetik, objektuetan eurretan ezer izan gabe haien lehen koalitateen bidez, hau da, beren alde sentigaitzak diren kolore, hots, zapora eta horrelakoen bolumen, irudi, ehundura eta higiduraren bidez, gudan sentipen ezberdinak sortzeko ahalmenak dira.

Koalitate mota biek ekoiztutako ideiak ezberdinak dira bere jatorri kausalekiko duten antzekotasuna dela eta:

«gorputzen lehen koalitateen ideiak koalitate horien antzekotasunak dira eta berorien ereduak gorputzetan eurretan existitzen dira egiazki, baina bigarren koalitateek gudan sortarazten dituzten ideiek ez dute haien inolako antzekotasunik. Ez dago gure ideien antzeko ezer, objektuetan eurretan existitzen denik. Ideia horien arabera kalifikatzen ditugun gorputzetan gure baitan sentipenak eragiteko ahalmena baino ez dago; eta ideian gozoa, urdina, beroa dena zati sentigaitzen halako edo horrelako bolumena, irudia eta higidu-

ra besterik ez da horrela kalifikaturiko gorputzetan euren» (*Entseia*, II.viii.15).

Arazo gaitza da lerro horietan antzekotasunaz dioena ulertzea. Zein zentzutan errepresentatzen dute antzerako moduan koalitate lehenen ideiek eta zeinetan ez dute koalitate bigarrenak egiten? Auzia honako galderaren antzekoa da, hots: zein zentzutan da koadro bat irudikatzen duenaren antzekoa? Egindako galderak badu bere garrantzia ezagutza erreala izateko baldintza finkatzen baitu: ezagutza erreala da gauzen (beraien koalitate lehenen) antzerakoak diren ideiei dagokien ezagutza delako. Modu honetan kartesiarraren jeinu maltzurretik salbu gelditzen da teoria.

Baina koadroaren auzia hari esker ezagutzen badugu, nola esan genezake beraren antzekoa dela? Ideia bakunak sortzeko printzipio enpiristaren aipamen soilarekin ez dugu nahikoa. Antzekotasunaren eskakizuna estrukturala dirudi erabat, hau da: ezberdina den ideia bakun orok bere ezberdintasunaren egokitzapena izan behar du objektuen munduan. Auzia ideia bakunek kanpoko munduan errepresentatutako diferentziak gogameneko diferentzia erlazioan mantentzen diren «enpirikoki» aztertzean datza. Eta auzi hau ideia konplexuetan ere aurki dezakegu.

Aldea honetan datza, ideia bakunen kasuan ondo eta estuki mantentzen dela eskakizun hori, ideia horien izaera dela eta, hau da, kanpoko objektuen (haien koalitate lehenen) diferentziek determinaturik daudela eta. Ideia konplexuen kasuan adimenak diferentzia sistema ezberdinak, munduari buruzko teoria ezberdinak, alegia, osa ditzake —gaurko hitzetan, sortutako errepresentazioak ez dira bakarrik—. Haietariko batzuk ez dira bat etorriko —ez dira antzekoak izango— gure mundu errealekin.

Azalpen hauek Lockeren zientziaren filosofiaren oinarri atomistak finkatzen dituzte<sup>31</sup>. Atomisten fisika gorpuzkularrak mundu fisikoa azal dezake azken hau materia higikorreko zatiki txikiez osaturik dagoelako, gertakari fisikoak materiako zatiki edo partikula horien propietate geometriko edo dinamikoen bitartez errerepresentatuz azal daitezkeelarik. Fisikak fenomeno fisikoak azaltzeko erabiltzen dituen entitate epistemikoak bat datoz, hain justu, objektuen bulkadak (kontaktoz sortutako higidura) gudan eragindako modu bakunen jatorrizko ideiekin (ideia bakun bat eta beraren eraldakuntzarik soilik sor-

tutako ideia konplexuekin, alegia), hau da: hedadura, solidotasuna. higigarritasuna edo higitua izateko ahala, antzemangarritasuna edo antzenticateko, pentsatzeko ahala, existentzia, iraupena eta zenbakia (*Entseiuua*, II.xxi.75). Honela bada, hedadura, solidotasuna, higigarritasuna etabarreko ideiak hedaduraz, solidotasunaz, higigarritasunaz etabar osatutako objektuek eraginda daude, eta horrek gudan kolorea, dastamena, hotza, beroa etabarren ideiak eragiten ditu.

Oraintxe uler genezake Locke eta Descartes elkarrengandik urruntzen duena zer den zientziaren zereginari dagokionean. Descartesek esanda zuen hautematen ditugun sentipenak eragiten dituzten koalitaten ikerketa —eta ez sentipenena beraiena— zela zientziaren jatorrizko zeregina. Lockek orain dioena da koaltate lehenak eta baita haiek eragiten dituzten sentipenak (ideiak) direla mundua den bezalako errealitate objektiboa osatzen dutenak Zientziari beraz, jatorrizko ideia hauen azterketa dagokio.

Arestiko zehaztapenak eginda Lockek *ezagumena* ideien arteko adostasuna edo desadostasunaren pertzepzioa bezala definitzen du. Ezagutzarik ziurrena ezagutza intuitiboa da, hots, gogamenak ideia ezberdinen artean bereizi eta heien artean erlazionatzeko duen gaitasunetik ondorioztatutakoa dena. Intuizioak ezagutza nabaria damaigu: adibidez, zirkulu bat ez dela lauki bat. Ezagutza ez nabariren artean *gauza errealean ezagutza* eta *soilik abstraktoak diren ideien ezagutza* bereiz genitzake.

Sustantzien (ideien *substratuma* direnaren) kasuan, ezgutzaren lehen mota objektuen esentzia errealei dagokiona da —hau da, koaltate lehenen arabera aditzera eman daitekeen barne egikera—; bigarrrena esentzia nominalei dagokiona da. Hark soilik eragin dezake ezagutzaren gehikuntza, sustantzien esentzia nominalen ezagutzak ideiei zeinu berriak (hitzak) soilik gehitzen dizkien bitartean. Adibidez, «urrea»z urrearen esentzia nominala ulertzen badugu, hau da, horia, metalikoa eta abar den zerbait, berari buruz horia dela esatea horizat jotzen dugun zerbait hori horia dela esatearen parekoa da.

Idea bakunen eta moduen (adibidez, moralaren eta matematikaren ideien) ezagutzan alderantziz, esentzia errealek bat egiten dute esentzia nominalekin. Honela, hiru lerroen arteko hutsunea duen irudia triangeluaren esentzia erreala bezain nominala dugu. Ez da soilik izan orokorra atxikitzen diogun ideia abstraktua, baizik eta baita

gauza beraren egiazko esentzia bera ere (*Entseiua*, III.iii.18). Haatik, ideien ezagutza *erreal*a izan dadin ez da nahikoa esentzia errealean ezagutza soilarekin; izan behar du, horrez gainera, haren esanahia barnehartzeko nahikoa, eta ez hitzen ordezkaketa hutsala soilik.

III. liburuan hitzen azterketa egiten du Lockek, hizkuntzaren izaera eta zeregina, alegia. Ideiak gauzen zeinuak, gauzen errepresentazioak, diren bezala, hitzak ideien zeinuak dira, haiek errepresentatzen dituzte, komunikatu ahala izateko. Irudikatze zeregin biren arteko aldea honetan dago: ideiek objektuek eragindako zeinu naturalak diren heinean errepresentatzen dute, hitzak, ordea, adostutako eta hitzarmenezko zeinuak dira, zeinen esanahia «hautatuz» ezartzen dugun:

«...hitzek gizakien bere ideia partikularrak soilik adierazten dituztela, hau *erabat hautazkoa* (*arbitrary*) den ezarketaren bidez gertatzen delarik, begi-bistakoa da gogoan izanez gero ideia horiek maiz ez dituztela besteengan (hizkuntza bera darabiltenengan ere) pizten hitz horiek zeinu moduan adierazitzat ditugun ideiak. Eta gizaki orok dauka hitzak nahi dituen ideien ordain bihurtzeko askatasun kenezina, halakoa, non inork ez duen ahalmenik bestea, berak erabilitako hitz berak darabiltzanean, gogamenean berak dituen ideia berberak edukitzera behartzeko» (*Entseiua*, III.ii.8).

Alabaina, hitzen esanahia ez dator ideia jakin batzurekin hitzarmenez ezarritako lotura hutsez finkatuta. Ezinbestekoa da entzuleak eta hizlariak ideia berbera antzematea. Hau ez da beti gertatzen. Adibidez, hitzak ideia oso konplexu bat irudika dezakeelako eta, kasu horretan, beraz, zaila izango delako gizaki guztiengan bere esanahiari eustea. Hortik, ondoriozta genezake auzi bat dela hitz batek esanahia duela esatea eta beste auzi ezberdin bat hau edo beste esanahia duela.

Zailtasun hau areagotu egiten da gainera, sarritan hizkuntz «abusuak» gertatzen direlako. Esterako, ideia argi eta bereizirik adierazten ez duten hitzak asmatzen direnean, edota hitz bat adierazpen ezberdinekin erabiltzen denean eta abar.... Orokorki, bukatzen du Lockek, zeinuen erabilpen zuzena ikertuko duen zientzia berezi bat behar dugu eta, bereziki, artikulatutako soinuena; zientzia hau *semiotika* da (*Entseiua*, IV.xxxi.4).



### *Argitaraldi honi buruz.*

*Entseiuak* ezagutzaren teoria errepresentazionalista baten adibiderik argienetariko bat osatzen du. Ezagutzen dugu ideiek eta mintzairak mundua errepresentatzen dutelako. Irudikapen hori, ikusi den legez, era ezberdinez gertatzen da. Ideia batzuk objektuak errepresentatzen dituzte haiekin duten antzekotasuna dela eta; beste batzuk, ordea, ez dute errealtatearekin zerikusirik. Egiazki garrantzitsua dena errealtatean dauden diferentziak mantentzeko funtzio identifikatzailearen betekizuna bete dezatela da. Ideiek, beraz, izenek legez, objektuak adierazteko, errepresentatzeko edo izendatzeko balio dute. Betekizun hau erabat ordezkapenekoa edo bikariala da. Ideiek eta objektuek errepresentatutako objektuen *lekuan dauden* heinean errepresentatzen dute.

Ideien eta mintzairaren betekizun bereizi hau adierazteko terminoa *to stand for* da «-en ordezk egon». *Entseiuaren* itzulpenetan «adierazi», «erreferitu», «esan nahi» eta abar parekoen gisa agertzen da hizkuntza ezberdinetan. Aukera hauek «-en ordezk egon»-aren berezitasun ordezkatzailea, bikariala, estaltzen dute, hain zuzen, ordezkapen politikoaren analogiaz azal daitekeena, eta Lockeren ikerketa zehatzaren gaia ere izan zena.

Honako edizioan «to stand for» «-en ordezk egon», «ordezkatu», «ordain izan» gisa itzuli izan da, nahiz eta zenbaitetan esaldi korapilatsuak eragin. Era berean, orokorrean Leibnizen *Nouveaux Essais*ean euskararako itzulpenean erabilitako terminologia erabili izan da. Berau, *Sarrera* honen hasieran adierazi dugun legez, *Entseiuaren* solasaldi-iruzkina da, non solaskide batek Lockeren obraren letra —eta ez soilik izpiritua— zintzoki bereganatzen duen.

Andoni Ibarra  
Logika eta Zientziaren Filosofia Saila  
Euskal Herriko Unibertsitatea



# Oharrak

<sup>1</sup> G.W. Leibniz, *Giza adimenari buruzko entseiu berriak*, itzul. Imanol Unzurrunzaga, Bilbo, Klasikoak 1996. Halere, Leibnizen gogarpen kritikoak ez ziren 1765. urtearte argitaratuko. Alemaniar filosofoak ez zuen begi onez ikusten haiek argitara ateratzea Lockek (hain justu 1704an hil zenak) osteratzeko aukerarik izan gabe. Idazlan biren arteko alderaketa baterako, N. Jolley, *Leibniz and Locke: A Study of the New Essays on Human Understanding*, Oxford, Clarendon Press, 1984.

<sup>2</sup> Lockeren ideiak (eta ez bakarrik epistemologikoei) Frantzia izan zuten lehen harreraren ikuspegi baterako honakoak ikuska daitezke R. Hutchison, *Locke in France: 1688-1734*, Oxford, Voltaire Foundation at the Taylor Institution, 1991, J. Schosler, *La Bibliothèque raisonnée, 1728-1753: les reactions d'un périodique français à la philosophie de Locke au XVIII<sup>e</sup> siècle*, Odense, Odense University Press, 1985, J. Schosler, *John Locke et les philosophes français: la critique des idées innées en France au dix-huitième siècle*, Oxford, Voltaire Foundation, 1997, M.P. Thompson

(argit.), *John Locke und Immanuel Kant: historische Rezeption und gegenwärtige Relevanz*, Berlin, Duncker & Humblot, 1991.

<sup>3</sup> J. Locke, *Essai philosophique concernant l'entendement humain*, E. Naert-ek prestatutako berrargitalaldia. Paris, 1972. Zalantzarik gabe Leibnizek frantsesezko bertsio hau bere eskutan izan zuen, idazten ari zen bitartean, bere *Entseiu berriak* egiteko. Frantsesezko argitalpenak idazlanaren zati batzuren edukia aldatu zuen, eta bere egitura ere bai, Lehen Liburua, adibidez, «Sarrera»-tik aldenduz,; «Sarrera» eta gainontzeko *Entseiuaren* arteko erlazioa hobeto egokitzen zuen aldaketa suertatu zen hau. Ingelesezko seigarren argitaraldiak aldaketa gutxi ditu frantsesezko argitalpen honen aldean.

Locke zirkulu kartesiar eta gassendiarrekin zituen harreman estuak, frantsesez ere liburuaren *Epitome* («Laburpen») bat argitaratzea eragin zuen, *Entseiuaren* lehen argitalpena baino bi urte lehenago. Le Clerc-ek bere *Bibliothèque universelle* (Amsterdam, 1688, urtarila) aldizkari ospetsurako prestatutako lauogeita hamar orrialde baino gehiago dituen *Epitome* honen izenburua

zen: «Extrait d'un livre Anglais, qui n'est pas encore publié, intitulé: Essai Philosophique concernant l'Entendement, où l'on montre quelle est l'étendue de nos connaissances certaines, et la manière dont nous y parvenons. Communiqué par Monsieur Locke».

<sup>4</sup> *An Essay Concerning Human Understanding*, A.C. Fraser-en argitalpena eta oharra (Dover argitalpena), Oxford, Oxford University Press, 1959, (2.bol.).

<sup>5</sup> Lockek ezagutu zuen giro akademikoari buruz, ikus. E.G.W. Bill, *Education at Christ Church, Oxford 1650-1800*, Oxford, Oxford University Press, 1988, eta W.N. Hargreaves-Mawdsley, *Oxford in the Age of John Locke*, Norman, University of Oklahoma Press, 1973. Ingalaterrako garaiko kulturaz, R. Ashcraft, R. Kroll, P. Zagorin (argit.), *Philosophy, Science and Religion in England 1640-1700*, Cambridge, Cambridge University Press, 1992.

<sup>6</sup> Azkenean ere Lockek osagile titulua eskuratuko zuen 1674an, profesionalki inoiz arituko ez bazen ere; ikus P. Romanell, *John Locke and Medicine: A New Key to Locke*, Buffalo, N.Y. Prometheus Books, 1984, eta K. Dewhurst, *John Locke 1632-1704, Physician and Philosopher*, New York, Garland, 1984 (jatorrizko argit. 1963). Lockeren eta Boylen arteko harreman zientifikoaz bereziki, Ikus M.A. Steward, «Locke's Professional Contacts with Robert Boyle», *Locke Newsletter* 12 (1981), 19-44 eta P. Alexander, *Ideas, Qualities,*

*and Corpuscles: Locke and Boyle on the External World*, Cambridge, Cambridge University Press, 1985.

<sup>7</sup> Cf. P.A. Schouls, *The Imposition of Method: A Study of Descartes and Locke*, Oxford, Clarendon Press, 1980.

<sup>8</sup> Lan honetan Locke sasoi batez (1686-1689) lehen kondearen biloba-ren prezeptore gisa aritu zen, etorkizunearan Shaftesbury (1671-1713) filosofoa izango zena eta *Moralistaken* egilea. (Klasikoak bilduma honetan argitaratuta dago, itzul. Xabier Arregi). Shaftesbury Lockeren ikasleztat hartu ezin den arren, bere tutorearekin bat dator Hobbesek gizakiari buruz zuen interpretazioaren aurka, haren iritzia gizakia oinarrian izaki berekoa baizen. Baina Locke kritikatzin du grekoen oreka eta harmoniaren idealik urruntzen delako. Bere iritzian gizakiaren izaera sozialari buruzko Aristotelesen teorien ezagutza sakona goak gaituko zukeen Locke eginbehar morala nahikunde jainkotiarrengandik bereizteko, eta ongia, funtsean, gizakien eginbehar gisa ulertu ahal izateko, arrazoiak gidatutako sentimenen harmonia gisa.

Lockerren filosofia moralari buruz, cf. J. Colman, *John Locke's Moral Philosophy*, Edinburgh. Edinburgh University Press, 1983, eta J.M. Vienne, *Experience et raison: les fondements de la morale selon Locke*, Paris, Vrin, 1991.

<sup>9</sup> Cf. J. Lough, *Locke's Travels in France*, Cambridge, Cambridge University Press, 1984.

<sup>10</sup> M. Goldie, «John Locke's Circle and James II», *Historical Journal* 35 (1992), 557-582, M. Goldie, «John

Locke and Anglican Royalism», *Political Studies* 31 (1983), 61-65.

<sup>11</sup> C.D. van Strien, *British Travellers in Holland During the Stuart Period: Edward Browne and John Locke as Tourists in the United Provinces*, Leiden, E.J. Brill, 1993.

<sup>12</sup> Ingeles liberalismoaren jatorrirako harreman horren emankortasunari buruz, cf. F. Hugelmann, *Die Anfänge des englischen Liberalismus; John Locke und der first Earl of Shaftesbury*, Frankfurt am Main, P. Lang, 1992.

<sup>13</sup> Cf. I. Harris, *The Mind of John Locke: A Study of Political Theory in its Intellectual Setting*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994.

<sup>14</sup> Cf. P.A. Schouls, *Reasoned Freedom: John Locke and Enlightenment*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1992 eta A.P.F. Sell, *John Locke and the Eighteenth-Century Divines*, Cardiff, University of Wales Press, 1997. Lockek amerikar konstituzioaren idazketan izan zuen eraginari buruz, T.L. Pangle, *The Spirit of Modern Republicanism: The Moral Vision of the American Founders and the Philosophy of Locke*, Chicago, The University of Chicago Press, 1988, eta S. M. Dworetz, *The Unvarnished Doctrine: Locke, Liberalism, and the American Revolution*, Durham, Duke University Press, 1990.

<sup>15</sup> Lockeren pentsamendu politikoa-rean sarrera baterako, hauexek ikus daitezke: V. Cappel (argit), *John Locke: Political Philosophy*, New York, Garland, 1992, J.W. Gough,

*John Locke's Political Philosophy: Eight Studies*, Oxford, Clarendon Press, 1973, P.C. Myers, *Our Only Star and Compass: Locke and the Struggle for Political Rationality*, Lanham, Md., Rowman & Littlefield, 1998, J. Tully, *An Approach to Political Philosophy: Locke in Contexts*, Cambridge; Cambridge University Press, 1993, F. Aguilar Viquez, *Orígenes del liberalismo: teoría política de John Locke*, Puebla, México, Ed. de la Universidad Popular Autónoma del Estado de Puebla, 1992, A. Pezoa Bissieres, *Política y economía en el pensamiento de John Locke*, Iruñea, EUNSA, 1997, R. Polin, *La política moral de John Locke*, New York, Garland, 1984. Lockeren testu politiko garrantzizkoen bilduma baterako, ikus M. Goldie (argit.), *Locke: Political Essays*, Cambridge, Cambridge University Press, 1997.

<sup>16</sup> John Locke, *Essays on the Law of Nature*, Wolfgang von Leyden-en argitalpena, Oxford, Clarendon, 1954.

<sup>17</sup> Lege hauei buruz Lockek ulertzen zuenaz, ikus R. Horowitz, J.S. Clay, D. Clay, *Questions on the Law of Nature*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1990. Egoera naturalari buruzko Lockeren eta Hobbesen ikusmoldeen alderaketa baterako, ikus W. von Leyden, *Hobbes and Locke, the Politics of Freedom and Obligation*, New York, St. Martin's Press, 1982.

<sup>18</sup> Lockeren iusnaturalismoari buruz, cf. C.B. Macpherson, *The Political Theory of Possessive Individualism: Hobbes to Locke*, Oxford, Clarendon Press, 1962 (gaztelaraz, *La teoría*

política del individualismo posesivo, Bartzelona, Fontanella, 1979), N. Bobbio, *Locke e il diritto naturale*, Torino, G. Giappichelli, 1963, A.J. Simmons, *The Lockean Theory of Rights*, Princeton, NJ, Princeton University Press, 1992, J. Tully, *Locke: droit naturel et propriété*, Paris, Presses Universitaires de France, 1992, J. Herrera Madrigal, *Jusnaturalismo e ideario político en John Locke*, Iztapalapa, México D.C., Universidad Autónoma Metropolitana, 1990.

<sup>19</sup> Horietan dagoen teoria politikoari buruz kontsulta daitezke, R. Ashcraftenak, *Locke's Two Treatises of Government* (Londres, Allen & Unwin, 1987) eta *Revolutionary Politics & Locke's Two Treatises of Government* (Princeton, NJ, Princeton University Press, 1986; frantsesez: *La politique révolutionnaire et les «Deux traités du gouvernement»*, Paris, Presses Universitaires de France, 1995) eta J. Dunn-en, *The Political Thought of John Locke: An Historical Account of the Argument of the «Two Treatises of Government»* (Cambridge, Cambridge University Press; frantsesez, *La pensée politique de John Locke: une présentation historique de la thèse exposée dans les «Deux traités du gouvernement»*, Paris, Presses Universitaires de France, 1991). Bi entseien interpretazio ezberdinen ebaluaketa baterako, ikus E.J. Harpham (argit.), *John Locke's Two Treatises of Government: New Interpretations*, Lawrence, Kan., University Press of Kansas, 1992. Entseien ikerketarako gida egokia da: D.Ll. Thomas, *Routledge*

*Philosophy Guidebook to Locke on Government*, Londres, Routledge, 1995.

<sup>20</sup> Ikus M.H. Kramer, *John Locke and the Origins of Private Property: Philosophical Explorations on Individualism, Community, and Equality*, Cambridge, Cambridge University Press, 1997.

<sup>21</sup> Eskubideek dituzten muga hauei buruz, cf. C.K. Rowley (argit.), *Property Rights and the Limits of Democracy*, 1993, G. Sreenivasan, *The Limits of Lockean Rights in Property*, Oxford, Oxford University Press, 1995.

<sup>22</sup> Marxek esplizituki aipatuko du Locke lan-balioaren teoriaren aintzindari gisa. Cf. J.T. Peters, *Der Arbeitsbegriff bei John Locke im Anhang: Lockes Plan zur Bekämpfung der Arbeitslosigkeit von 1697*, Frankfurt 1997.

<sup>23</sup> Adostasunak ondorioztatutako murrizkuntzei buruz, ikus K.M. McClure, *Judging Rights: Lockean Politics and the Limits of Consent*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1996, A.J. Simmons, *On the Edge of Anarchy: Locke, Consent and the Limits of Society*, Princeton, NJ, Princeton University Press, 1993.

<sup>24</sup> Lockeren hitzarmen sozialaren eta bestelako hitzarmenaren teorien arteko alderaketa baterako, ikus C.W. Christopher (argit.), *The Social Contract Theorists: Critical Essays on Hobbes, Locke, and Rousseau*, Lanham, Md., Rowman & Littlefield, 1998, R.M. Lemos, *Hobbes and Locke: Power and Consent*, Athens, University of Georgia Press, 1978, A.

Rapa-czynski, *Nature and Politics: Liberalism in the Philosophies of Hobbes, Locke and Rousseau*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1987, J. Steinberg, *Locke, Rousseau and the Idea of Consent: An Inquiry into the Liberal-Democratic Theory of Political Obligation*, Westport, Conn., Greenwood Press, 1978.

<sup>25</sup> Lockeren botere hirukotea ez da, osteria Montesquieuk ezarritakoaren berdina. Halere, Lockeren botere legegileak frantses pentsalariak adierazitakoarekin bat egiten du. Cf. R. Meyer, *Eigentum, Repräsentation und Gewaltenteilung in der politischen Theorie von John Locke*, Frankfurt am Main, P. Lang, 1990, M. Rostock, *Die Lehre von der Gewaltenteilung in der politischen Theorie von John Locke*, 1974.

<sup>26</sup> Cf. J.H. Franklin, *John Locke and the Theory of Sovereignty: Mixed Monarchy and the Right of Resistance in the Political Thought of the English Revolution*, Cambridge, Cambridge University Press, 1978, J. Marshall, *John Locke: Resistance, Religion, and Responsibility*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994.

<sup>27</sup> Askatasuna helburu izanik hazteko Lockeren ikusmolde pedagogikoari buruz, ikus N. Tarcov, *Locke's Education for Liberty*, Chicago, University of Chicago Press, 1984, L.N.C. de Loughlin, *La educación en Locke*, Buenos Aires, Editorial Huemul, 1966. Bere teoria ekonomikoari buruz, P. Kelly, *Locke on Money*, Oxford, Clarendon Press, 1991 (2 bol.), K.I. Vaughn, *John Locke: Economist and Social Scientist*,

Chicago, University of Chicago Press, 1980 (gaztelera: *John Locke, economista y sociólogo*, México, Fondo de Cultura Económica, 1983), B.P. Priddat, *Das Geld und die Vernunft: die vollständige Erschliessung der Erde durch vernünftige Ermässen Gebrauch des Geldes Über John Lockes Versuch einer naturlich begründeten Ökonomie*, Frankfurt am Main, P. Lang, 1988, N. Wood, *John Locke and Agrarian Capitalism*, Berkeley, University of California Press, 1984. Gizarte zibilaren sekularizazioa eta askatasun erlijiosoari buruz, F. Veci Rodríguez, *La política secularizadora de John Locke*, Barcelona, Universidad de Barcelona, M. Teddeschi (biltz.), *La libertà religiosa nel pensiero di John Locke*, Torino, Giappichelli, 1990. Tolerantziaren printzipio moralari buruz, J.I. Solar Cayón, *La teoría de la tolerancia de John Locke*, Madrid, Universidad Carlos III, 1996, J. Horton & S. Mendus (argit.), *John Locke, «A Letter Concerning Toleration»*, in Focus, Londres, Routledge, 1991, A. Wolfson, *Locke's Defense of Toleration*, Chicago, University of Chicago (doktorego tesia), 1993.

<sup>28</sup> Cf. J.L. Kraus, *John Locke. Empiricist, Atomist, Conceptualist, and Agnostic*, New York, Philosophical Library, 1969.

<sup>29</sup> 1671ean zirriborro bi idatzi zituen, idazketa prozesu luzearen hasiera izango zirenak: *An Early Draft of Locke's Essay* eta *An Essay Concerning the Understanding, Knowledge, Opinion and Assent*. Biak dira euskaragarriak P. Nidditch eta G.A.J. Rogersen argitalpenean (ikus bibliografia).

<sup>30</sup> Bereizketa hau da gaur egungo filosofian eztabaida iturririk eman-korrenetarikoa. Cf. K. Campbell, *Abstract Particulars*, Oxford, Blackwell, 1990.

<sup>31</sup> Hein handi batean Gassendik eta frantses materialismoak eraginda.

Cf. R.W. Puster, *Britische Gassendi-Rezeption am Beispiel Johann Lockes*, Stuttgart-Bad Cannstatt, Frommann-Holzbood, 1991 eta J.W. Yolton, *Locke and French Materialism*, Oxford, Oxford University Press, 1991.



# Bibliografia

## 1. John Lockeren lanak

### 1.1. Ingelesez

*The Works of John Locke* (P. Nidditch-en eta J.W. Yolton-en argitalpena, G.A.J. Rogers-en begiradapean). Oxford, Clarendon Press, 1997.

*A Letter Concerning Toleration* (J. Tully-ren argitalpena). Indianapolis, Hackett Pub. Co., 1983.

*Epistola de tolerantia = A Letter on Toleration* (argitalpen elebiduna, R. Klibansky-ren itzulpena eta hitzaurrea, J.W. Gough-en sarrera eta oharra). Oxford, Clarendon Press, 1968.

*A Paraphrase and Notes on the Epistles of St. Paul* (A. Waimwright-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1987.

*An Essay Concerning Human Understanding* (J.W. Yolton-en argitalpena eta sarrera). Londres, etab., Dent, etab., 1967-1968.

*An Essay Concerning Human Understanding* (P. Nidditch-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1975.

*Drafts for the 'Essay Concerning Human Understanding' and Other Philosophical Writings* (P. Nidditch & G.A.J. Rogers argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1990.

*Essays of the Law of Nature* (W. von Leyden-en argitalpena). Oxford, Clarendon, 1954.

*Some Thoughts Concerning Education* (J.W. eta J. Yolton-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1989.

*Two Tracts on Government* (P. Abram-en argitalpena). Cambridge, Cambridge University Press, 1967.

*Two Treatises of Government* (P. Laslett-en argitalpen kritikoa). Cambridge, Cambridge University Press, 1963-1987.

*The Reasonableness of Christianity as Delivered in the Scriptures* (J. C. Higgins-Biddle-ren argitalpen kritikoa). Oxford, Clarendon Press, 1998.

### 1.2. Gastelaniaz

*Carta sobre la tolerancia* (P. Bravo Gala-ren itzulpena). Madril, Tecnos, 1991.

*Dos ensayos sobre el gobierno civil* (F. Giménez Gracia-ren itzulpena). Madril, Espasa Calpe, 1997.

*Ensayo sobre el entendimiento humano* (E. O'Gorman-en itzulpena). Mexico, Fondo de Cultura Económica, 1956.

*Ensayo sobre el entendimiento humano* (M.E. García-ren itzulpena, S. Rábade-ren sarrera eta oharra). Madril, Editora Nacional, 1980.

*Ensayo sobre el entendimiento humano* (L. Rodríguez Aranda-ren itzulpena). Madril, Aguilar, 1987.

*Ensayo sobre el Gobierno Civil* (A. Martínez Paraíso-ren itzulpena), Madril, Ediciones Alba, 1987.

*Ensayo sobre el gobierno civil* (A. Lázaro Ros-en itzulpena). Madril, Aguilar, 1990.

*Ensayo sobre el gobierno civil* (A. Lázaro Ros-en itzulpena eta L. Rodríguez Aranda-ren sarrera). Bartzelona, Orbis, 1985.

*La conducta del entendimiento y otros ensayos póstumos* (A.M. Lorenzo Rodríguez-en itzulpena, sarrera eta oharra). Bartzelona, Anthropos, 1992.

*La racionalidad del cristianismo* Madril, Ediciones San Pablo, 1977.

*Pensamientos acerca de la educación* (D. Barnes-en itzulpena eta oharra, H. Quick-en hitzaurrea eta biografia kritikoa). Bartzelona, Humanitas, 1982.

*Pensamientos sobre la educación* (R. Lasalea-ren itzulpena). Madril, Akal, 1986.

*Segundo tratado sobre el gobierno civil: un ensayo acerca del verdadero origen, alcance y fin del gobierno civil* (C. Mellizo-ren itzulpena, sarrera eta oharra). Madril, Alianza, 1990.

*Segundo tratado sobre el gobierno civil* (C. Mellizo-ren itzulpena). Ediciones Altaya, 1995.

### 1.3. Frantzesez

*De la conduite de l'entendement* (Y. Michaud-en sarrera, itzulpena eta oharra). Paris, Vrin, 1975.

*Deux traités du gouvernement* (B. Gilson-en aurkezpena eta itzulpena). Paris, Vrin, 1997.

*Essai philosophique concernant l'entendement humain* (E. Naert-en argitalpena, P. Coste-ren itzulpena). Paris, Vrin, 1989.

*Lettre sur la tolérance* (J. Le Clerc eta J.-F. Spitz-en itzulpena, J.-F. Spitz-en sarrera, bibliografia, kronologia eta oharra). Paris, Flammarion, 1992.

*Quelques pensées sur l'éducation* (G. Compayré-ren itzulpena, J. Chateau-ren sarrera eta oharra). Paris, Vrin, 1992.

*Textes sur la loi de nature, la morale et la religion* (J.-F. Spitz-en aurkezpena, itzulpena eta oharra). Paris, Vrin, 1990.

*Traité du gouvernement civil* (D. Mazel-en itzulpena, S. Goyard-Fabre-ren kronologia, sarrera, bibliografia eta oharra), Paris, Garnier-Flammarion, 1984.

### 2. Biografia eta korrespondentzia

G. BONNOT. *Les relations intellectuelles de Locke avec la France (d'après des documents inédits)*. Berkeley, University of California Press, 1955.

M.W. CRANSTON: *John Locke, a Biography*. Oxford, Oxford University Press, 1985.

E.S. DE BEER (argit.): *The Correspondence of John Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1979-1989 (8 bol.).

P. LASLETT & J. GOUGH: *The Library of John Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1965.

U. THIEL: *John Locke mit Selbstzeugnissen und Bilddokumenten dargestellt*. Reinbek bei Hamburg, Rowohlt Taschenbuch Verlag, 1990.

J. YOLTON: *A Locke Miscellany: Locke Biography and Criticism For All*. Bristol: Thoemmes, 1990.

### 3. Bibliografiak

J.C. ATTIG: *The Works of John Locke: A Comprehensive Bibliography from the Seventeenth Century to the Present*. Westport, Conn., Greenwood Press, 1985.

H.O. CHRISTOPHERSEN: *A Bibliographical Introduction to the Study of John Locke*. New York, B. Franklin, 1968.

R. HALL & R. WOOLHOUSE: *Eighty Years of Locke Scholarship: A Bibliographical Guide*. Edinburgh, Edinburgh University Press, 1983.

P. LONG: *A Summary Catalogue of the Lovelace Collection of the Papers of John Locke in the Bodleian Library*. Oxford, Oxford University Press, 1959.

J.S. YOLTON (biltz.): *John Locke: A Descriptive Bibliography*. Bristol, Thoemmes Press, 1996.

### 4 Irudkin eta Gida Liburuak okorrak

V. CHAPPELL (argit.): *The Cambridge Companion to Locke*. Cambridge, Cambridge University Press, 1994.

J.W. YOLTON: *A Locke Dictionary*. Oxford, Blackwell, 1993.

J.W. YOLTON: *The Locke Reader Selections from the Works of John Locke with a General Introduction and Commentary*. Cambridge, Cambridge University Press, 1977.

J.S. YOLTON & J.W. YOLTON: *John Locke: A Reference Guide*. Boston, Mass., D.K. Hall, 1985.

### 5. Monografiak okorrak

R.I. AARON: *John Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1971.

R. ASHCRAFT (argit.): *John Locke: Critical Assessments*. Londres, Routledge, 1991 (4 bol.).

M. AYERS: *Locke: Epistemology and Ontology*. Londres, Routledge, 1993 (2 bol.).

V. CHAPPELL (argit.): *Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1998.

J. DUNN & I. HARRIS: *Locke*. Cheltenham, E. Elgar Pub., 1997.

E. GARCIA SANCHEZ: *John Locke (1632-1704)*. Madrid, Ediciones del Orto, 1995.

N. JOLLEY: *Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1999.

J.D. MABBOTT: *John Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1980.

J.L. MACKIE: *Problems from Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1976.

W.M. SPELLMAN: *John Locke*. New York, St. Martin's Press, 1997.

T.E. WEBB: *The Intellectualism of*

*Locke: An Essay* (J. Yolton-en sarra-  
ra berriarekin). New York, B. Fran-  
klin, 1973.

R.S. WOOLHOUSE: *Locke*. Brigh-  
ton, Harvester Press, 1983.

J.W. YOLTON: *John Locke and the  
Way of Ideas*. Oxford, Oxford  
University Press, 1956.

J.W. YOLTON: *Locke, an Introduc-  
tion*. Oxford, Blackwell, 1985.

## **6. Entseiuaz eta Lockeren ezagu- tzaren teoriaz**

W. CARROLL: *A Dissertation upon  
the Tenth Chapter of the Fourth Book  
of Mr. Locke's 'Essay Concerning  
Human Understanding'* (J.W.  
Yolton-en sarrera berriarekin).  
Bristol, Thoemmes Press, 1990.

V. CHAPPELL (argit.). *John Locke:  
Theory of Knowledge*. New York,  
Garland, 1992.

J.J. DENKINS: *Understanding  
Locke: An Introduction to Philo-  
sophy Through John Locke's Essay*.  
Edinburgh, Edinburgh University  
Press, 1983.

F. DUCHESNEAU: *L'empirisme de  
Locke*. Le Haye, M. Nijhoff, 1973.

A. GONZALEZ GALLEG0: *Lo-  
cke: empirismo y experiencia*. Bar-  
tzelona, Montesinos, 1984.

P.J. HERRAIZ MARTINEZ: *La  
conciencia en el 'Ensayo sobre el  
entendimiento humano' de J ohn  
Locke: actividad y pasividad*.  
Madrid, Universidad Complutense-  
Dpto. de Filosofía I (Doktorego  
Tesia), 1993.

E.J. LOWE: *Routledge Philosophy  
Guidebook to Locke on Human*

*Understanding*. Londres, Routledge,  
1995.

T. MELEND0: *John Locke: ensayo  
sobre el entendimiento humano*.  
Madrid, E.M.E.S.A., 1978.

I.C. TIPTON (argit.): *Locke on  
Human Understanding. Selected  
Essays*, 1977. Gaztelaratua: *Locke y  
el entendimiento humano: ensayos  
escogidos*. Mexico, Fondo de  
Cultura Económica, 1981.

K.-F. WALTER: *Der Sachverhalt  
bei John Locke*. Hamburg, Kovac,  
1995.

N. WOOD: *The Politics of Locke's  
Philosophy: A Social Study of 'An  
Essay Concerning Human Under-  
standing'*. Berkeley, University of Califor-  
nia Press, 1983.

R.S. WOOLHOUSE: *Locke's  
Philosophy of Science and  
Knowledge: A Consideration of  
Some Aspects of 'An Essay Concer-  
ning Human Understanding'*. New  
York, Barnes & Noble, 1971.

J.W. YOLTON: *Locke and the  
Compass of Human Understanding;  
a Selective Commentary on the  
'Essay'*. Cambridge, Cambridge  
University Press, 1970.

## **7. Locke testuinguru enpiristan**

M. ATHERTON (argit.): *The  
Empiricists: Critical Essays on  
Locke, Berkeley and Hume*.  
Lanham, MD, Rowman &  
Littlefield Publishers, 1998.

J.F. BENETT: *Locke, Berkeley,  
Hume: Central Themes*. Oxford,  
Clarendon Press, 1971.

J.D. COLLINS: *The British  
Empiricists: Locke, Berkeley, Hume*.

Milwaukee, Bruce Pub. Co., 1967.

R.A. MALL: *Der operative Begriff des Geistes: Locke, Berkeley, Hume*. Freiburg, K. Alber, 1984.

I. MARTINEZ LIEBANA: *El problema del conocimiento del mundo externo en Descartes, Locke y Berkeley*. Madril, Eos, 1996.

D. MORILLO-VELARDE TABERNE: *Locke y Hume. El empirismo: conocimiento y ética*. Madril, Mare Nostrum Ediciones Didácticas, 1992.

H. PANKNIN: *Die transzendente Bedeutung der Kraft in der*

*Erkenntnislehre Lockes und Humes*. Frankfurt am Main, P. Lang, 1992.

S. PRIEST: *The British Empiricists: Hobbes to Ayer*. Londres, Penguin Books, 1990.

J.J. RICHETTI: *Philosophical Writing: Locke, Berkeley, Hume*. Cambridge, Mass., Harvard University Press, 1983.

#### **8. Lockear ikasketen aldizkaria**

*The Locke Newsletter: An Annual Journal of Locke Research*.

(Editorea: Roland Hall). Summerfields, The Glade, Escrick, York YO4 6JH, Erresuma Batua.



# GIZA ADIMENARI BURUZKO ENTSEIUA

Lau liburutan

J. LOCKE

Aitonon semeak idatzia

Bizi-arnasa haurdunaren sabelean nola sartzen den eta haurra nola hezurmamitzen den ez dakizun bezala, ez dakizu ere nola diharduen gauza guztien egile den Jainkoak. Koh.11,5.

Quam bellum est velle confiteri potius nescire quod nescias, quam ista effutientem nauseare, atque ipsum sibi displicere. Ziz. *De Natur. Deor.* I,i.

LONDRES

Eliz. Holt-ek inprimatua, Thomas Basset-entzat, George in Fleet  
Kalean, St. Dunstan Elizaren ondoan

MDCXC





# TOMAS, PEMBROKE ETA MONTGOMERYko Konde Jaun Ohoragarriari

Cardiffko Herbert Baroia

Jauna:

Zeure begiradapean hazi eta zeure aginduz munduan zehar ibil-tzera jalgi den Tratatua hau, berezko eskubidez bezala dator berriro zugana duela zenbait urte agindu zenion babesaren bila. Ez dut nik, ez, inola ere uste liburu baten hasieran jarritako ezein izenek, handiena izanda ere, estal litzakeenik bertan aurki daitezkeen ments-akatsak. Inprimaturiko gauzek beren balioaren edo irakurleen gustuen arabera behar dute behin dela zutik iraun behin erori. Baina egia erdiesteko nahi izan daitekeen gauzarik onena norbaitek norberari zintzotasunez eta inolako aurreiritzirik gabe entzutea delarik, ez da inor egokiagorik zu neure jaun hori baino, niri mesede hori eskaintzeko, egiaarekin harreman hertsian izateko aukera ukan baituzu haren gordeleku ezku-tuenetan. Ezaguna zara zu, jauna, gauzen ezagutza abstraktu eta orokorrenetan espekulazio oso aurreratuetara heldu zarelako ohiko metodoen irispidetik harago, halatan heldu ere, non zuk Tratatua honetako ahaleginari emandako oniritziak eta baieztokak irakurri gabe gaitzetsia izatetik babestuko baitute eta ohiko bidetik kanpo egotearren aintzat hartu gabe utziko liratekeen zenbait atal nolabait balioetsiak izatea eraginen baitute. Berritasun egozpena akusazio izugarria da, gizakien buruaz berauen ileordeaz bezalaxe, modaren arabera erran nahi baita, juzgatzen dutenek erabiltzen dutena, onarturiko doktrinetatik alden-tzen den inork arrazoi ukan dezakeenik inoiz ametitu gabe. Egia,

berriren berri aurkezten denean, ia inoiz ere ez da bozketaz onartzen eta, horregatik, iritzi berriak susmagarriak izaten dira beti eta aurkatuak eskuarki, oraindik ohikoak ez direlako besterik gabe. Baina egia, urrea bezala, ez dago egiatik urrunago, meazulotik atera berria delako. Probak eta azterketak eman behar diote balioa, eta ez inongo anti-gualeko modak; eta publikoki onarturiko molderik ez ukan arren, natura bera bezain zaharra izan daiteke hala ere, edonola ere benetakotasun gutxiagokoa izan gabe. Zuk, jauna, honen adibide garrantzitsu eta sinesgarriak eman ditzakezu, egien aurkikuntza handi eta zabalak, gaurdaino —zerbait jakinarazi nahi izan diezun gutxi batzuentzat izan ezik— ezezagunak izan direnak, erabat esutalita eduki barik jendaurrean aurkeztea ontzat har dezazunean. Hauxe ere arrazoirik aski litzateke, besterik ez banu ere, *Entseiu* hau zuri dedikatzeko. Eta lan honek baduenetz nolabaiteko adostasun txikiren batzuk hain araketa berri, zehatz eta irakasgarritz landu dituzun zientzien sistemako atal batzuekin, ohore handia litzateke niretzat utziko bazenit harrokeriaz agertzen zureetatik oso ezberdinak ez diren pentsamenduetara heldu naizela han eta hemen. Zuk, neure jaun horrek, zeuk emandako bultzadaz nire lan hau munduan agertzea egoki ikusiz gero, espero duket hau arrazoi bat izatea zuk noizbait aurrerago jotzeko; eta utziko didazu esaten hori eginaz munduari, irakurtzeko pazientzia badute, beraien itxarobidea egiazki mereziko duen zerbaiten bahia emanen diezula. Honek, jauna, argi uzten du nolako oparia dagizudan; gizon txiro batek bere auzo handiki eta aberatsari egiten diona bezalakoa dela, zeinek ez duen gaizki hartzen hark eskaintzen dion lorez edo fruitaz beteriko otzara, nahiz eta bere baratzean askoz gehiago eta hobekak ukan. Baliorik gabeko gauzak ere balioa hartzen dute begirunea, estimua, eta esker ona adierazteko eskaintzen direnean; zuganako sentimendu horiek mailarik gorenean edukitzeko hain arrazoi asko eta indartsuak eskaini dizkidazu, jauna, non, horiek dauzkanari nik eskainitakoak horien neurriko baliorik gehitu ahal balio, harrokeriaz esanen bainuke eta seguru zuk hartu duzun oparirik aberatsena egin dizudala. Honetaz bai nagoela ziur: argi ibili behar dudala zugandik hartu ditudan mesedeen zerrenda luzea aitortzeko abagune ororen bila, mesedeok berenez handi eta garrantzitsuak izan arren, are handiago bihurtu baitira euren lagun beti izan dituzten zure prestasun, ardura eta onberatasunagatik eta lagundu nahiagatik. Honi guztiari gainerakoari pisu eta atsegin handiagoa ematen dion zerbait gehitu nahi izan

diozu: ontzat duzu ni zure begiko izatea eta tartetxo bat utzi didazu zure pentsamendu onetan, zure adiskidetasunean esatera nindoan. Hau, jauna, zure hitzek eta egintzek halatan adierazten dute abagunea dagoen guztian, beste batzuei, ni han ez nagoela, mintzo zatzaizkie-nean ere, non ez den harropuzkeria nik edonork dakiena aipatzea; aitzitik, gizabide falta litzateke hainbeste lekukok egunero esaten didatena ez aitortzea, hots, asko direla zurekiko zordun egiten nauten zure mesedeak. Esker oneko izaten lagun diezadaten nahi dut, zureki-ko ditudan erantzukizun handi eta hazkorrez konbentzitzen nauten erraztasun beraz. Honetaz behintzat ziur nago: *Adimenari* buruz adi-men izpirik gabe idatziko nukeela erantzukizun horiekiko sentikortasun biziena ez banu eta une honetan daukadan aukera galduko banu munduaren aurrean testigantza eman eta argi uzteko zenbateraino izan behar dudan eta naizen.

Neure jaun hori,  
zure zerbitzari apalen eta esanekoena.

JOHN LOCKE.

DORSET COURT, 1689ko maiatzaren 24an



# IRAKURLEARENTZAKO ESKUTITZA

Irakurle:

Zeure eskuetan jartzen dut nire ordu aspertu libreetakoa dibertimendua izan dena. Zuretzat ere horrela bada eta liburu hau irakurtzean nik idaztean ukan dudana atseginaren erdia zeuganatzen baduzu, gastaturiko diruaz gutxi gogoratuko zara, ni lan honek ekarritako nekeez bezain gutxi nonbait. Ez hartu hau nire lanaren gomendiotzat; gustura egin dudala diotsudalako, ez atera ondorio moduan bukatua denean begikoegi dudala. Belatzaz hegatzabaletan eta txolarretan dabilenak ez dauka entretenimendu txikiagoa —ehizaki asko urriagoa bai baina—, beste zerbait handiagotan ari denak baino. Eta tratatu honen gaiaz, ADIMENAZ, gutxi daki, arimaren ahalmenik gorena izanik, beste guztiak baino atsegin handiagoz eta iraunkorragoz erabiltzen dela ez dakienak. Adimenak egiari buruz egiten dituen bilaketak belatzaz edo bestela egindako ehizaren antzekoak dira, jazartzea bera delarik atseginaren zati handi bat.

Gogamenak ezagutarantz egiten duen urrats bakoitzean aurkituntzaren bat egiten du, berria ez ezik, une horretarako bederen onena ere badena.

Izan ere, adimena, begia bezala, objektuei buruz begiratu hutsez juzgatuz, deskubritzen duenaz pozik aurkitzen da eta ihes egiten dionagatik, ezezagun zaiolako, atsekaberik sentitu gabe.

Horregatik eskaletza gainditu eta, eskaturiko iritzietatik alferkerian bizitzearekin kontentatu gabe, bere pentsamenduak egia bilatzeko eta egiairi jarraitzeko lanean ipintzen dituen, aztertzen duena aztertu, ez da geratuko ehiztariaren plazerrik gabe; jazarpenaren une bakoitzean haren nekeak atseginen baten saria ukanen du, eta, gauza handiren bat lortu duela esaterik ez duenean ere, arrazoiz pentsatuko du ez duela denbora alferrik galdu.

Hau, irakurle, beren pentsamenduak aske utzi eta beraiei jarrai idazten dutenen etretenimendua duzu; baina zuk ez duzu haien inbidiarik ukan behar entretenimendu hori dela eta, zeren antzeko olgetarako aukera eskaintzen baitizute zeure pentsamenduek, irakurtzean zure zeure pentsamenduez baliatu nahi baduzu. Berauei nagokie, zeureak badituzu, baina inorengandik maileguz hartuak badituzu, bost axola zer nolakoak diren, ez baitaibiltza egiaaren atzetik, ilunago den zerbaiten atzetik baizik; eta beste batek agindurikoa dioenak edo pentsatzen duenak ez du merezi esaten edo pentsatzen duenaz inor ardurartzerik. Zeure kabuz juzgatzen baduzu badakit zintzo zabiltzala, eta edozein kritika eginda ere ez dut minik edo irainik jasoko. Zeren, Tratatu honetan ageri den ororen egiaz erabat konbentziturik nagoela egia den arren, nik neure burua errakuntzak egiteko gaitzat daukat, zeu eduki zaitzakedan neurrian, eta badakit liburu honek, zuri dago-kizunez, zutik badirau edo behera badator, ez dela izanen nik berone-taz dudan iritziagatik, zuk zeuk daukazunagatik baizik. Liburu hone-tan gauza berri askorik edo zerikasi handirik aurkitzen ez baduzu, ez niri egotzi horren errua; ez dut idatzi gaia menperatzen dutenentzat eta beren adimena ondo ezagutzen dutenentzat, neure informazioara-ko eta gai hau behar bezainbatean ez zutela ezagutzen aitortu izan didaten neure lagun gutxi batzuentzat baizik.

*Entseiu* honen historiaz zuri gogait eragitea beharrezko balitz, esanen nizuke bospasei lagun neure langelan bildurik ginela gai hone-tatik oso urrun dagoen arazo batez eztabaidatzen eta ez aurrera ez atzera geratu ginela berehala alde guztietatik sortzen ziren zailtasu-nengatik. Aldi batez lanbro artean eta noraezean murgildurik ginduz-katen zalantzen konponbidera hurbiltzea lortu gabe ibili ondoren, pen-tsatzen hasi nintzen okerreko bidea hartu genuela eta, halako gauzak ikertzen jarri aurretik, gure gaitasunak aztertu eta gure adimena zein objektu ikertzeko baden eta ez den gauza ikusi beharra zegoela.

Lagunei hau proposatu nienean, nire iritziarekin ados agertu ziren berehala, eta gure lehen ikerketa huraxe izanen zela erabaki genuen. Lehenago inoiz pentsamenduan erabili gabeko gai bati buruz presaz eta ongi eho gabe idatziriko zenbait pentsamendu izan ziren diskurtso honetarako lehen sarbidea. Eta horrela kasualitatez hasi zenak lagun-ek eskatuta jarraitu zuen, eta loturarik gabeko ataletan idatzi zen; tarte luzeetan albo batera utzita egon ondoren, berriz hartzen nuen neure aldartearen edo abaguneen arabera eta, azkenean, osasun arazo-ekin erretiratuta egon beharrak astia eskaini zidanean, orain ikusten duzuen ordenan antolatu nuen.

Idazteko era desjarrai honek bi akats ekarri ditu besteak beste: balitekeela gutxiegi eta gehiegi esatea lan honetan. Zerbait falta dela aurkitzen baduzu, pozik ikusiko dut idatzi dudanak nik aurrerago jo nezan gura izatera eraman zaituela. Gehiegi baderitzozu, gaiari egotzi behar diozu errua, zeren luma paperean jartzen hasi nintzenean pentsatu bainuen gai horri buruz esan behar nuen guztia orri bakarrean sartuko zela, baina aurrerago eta zeresan gehiago neukan; aurkikuntza berriek are aurrerago ninderamaten, eta gaia, ezarian, hazi egin zen orain daukan bolumenera heldu arte. Ez dut ukatuko orain duen baino zabalera txikiagora ekar daitekeenik eta atal batzuk labor daitezkeenik, idazteko erabili den era, tarteka-marteka eta eten luzeak eginda, oso egokia baita behin eta berriz gauza bera esaten ibiltzeko. Baina, egia den moduan aitorturik, orain nagiegi edo lanpetuegi sentitzen naiz hau laburtzeko.

Badakit zein gutxi zaintzen dudan neure izen ona, liburu hau burutsuenak —eta irakurle jatorrenak beti— atsekabetzeko moduko akatsekin ateraz. Baina nagikeria edozein aitzakiaz kontentatzen dela dakienak barkatuko dit neureari gailentzen utzi badiot, kontra ez egiteko arrazoi on bat daukadala uste dudan honetan. Ez dut, beraz, neure defentsan hemen azalduko ezen, nozio berak alderdi diferenteak ditunez, komenigarri izan daitekeela diskurtso beraren atal ezberdinak frogatu edo argitzeko nozio bat bera erabiltzea eta horrelaxe gertatu dela diskurtso honen atal askotan. Baina, hau albo batera utzita, ez dut eragozpenik garbi aitortzeko batzuetan luze ekin diodala argumentu berari eta era diferenteetan adierazi dudala oso asmo ezberdinarekin. Nik *Entseiu* hau ez dut argitaratzen pentsamenduz luzeak eta atzematez azkarrek diren gizakien informaziorako. Ezagutzaren

maisu horien aurrean ni ikasle sentitzen naiz eta, beraz, aldeztu aurretik abisatzeko diet ez espero izateko ezer hemendik, guztia neure pentsamendu lakarren lanketatik ateratakoa denez, neure neurriko gizakientzat baita egokia. Hauek agian ontzat joko dute nik nekea hartu izana, egia batzuk, batez ere gizartean erroturiko zenbait aurreiritzik edo ideien euren abstraktutasunak zail bihurtzeko, molde argi eta ulerterrazean aurkezteko. Objektu batzuk alde batera eta bestera bueltatu eta ikusi behar dira; nozioa berria denean, eta aitortzen dut hauek batzuk niretzat badirela, edo bide arruntetik aldentzen denean, beste batzuei gertatuko zaien moduan, nozio horren ikuspegi sinple bat ez da aski izaneren guztien adimenarekin onartu izatea lortzeko eta inpresio argi eta iraunkorrez bertan finkatzeko. Gutxi dira, nire ustez, euren edo besteen esperientzia ikusi ez dutenak era batera proposaturik oso iluna zen nozioa, beste era batera adierazita argi eta ulergarri gertatzen dela, nahiz eta gero gogamenak alde txikia idoro esaldi horien artean, eta ulertu ezinik geratu zergatik egin zaion zailago bata atzematea, bestea baino. Baina gauzek ez dute eragin bera gizaki bakoitzaren irudimenean. Gizakiok adimenetan ez gara aho-sabaietan baino berdina, eta pentsamendu bat era berean aurkeztuta denei era berean gustatuko zaiela uste duenak espero dezake, halaber, jaki beraz gizaki ezberdinak era berean gustura uztea; janaria berbera izan daiteke eta elikagaia ona eta, hala ere, gozagarria denek onartu ez; eta beste era batera prestatu beharko da, batzuek, are gorpuzkera sendokoek, onartzea nahi bada. Eta egia da ezen, lan hau argitara nezan aholkatu zidatenek, aipaturiko arrazoiagatik, dagoen dagoenean argitaratzeko aholkatu zidatela; eta aurrera egitea erabaki dudanez gero, irakurtzeko nekea har dezan guztiak ulertu ahal izatea nahi nuke. Gutxi gustatzen zait inprimaturik irtezea eta, polito-polito sinestarazi ez balidate *Entseiu* hau besteentzat ere baliagarri izan zitekeela, nerontzat izan den modura, lehenengotan idaztera bultzatu ninduten zenbait lagunak irakurketara mugatu nukeen. Nire lan hau inprimaturik agertzeak, beraz, besteentzat ahalik eta baliagarriena izatea duenez xede, uste dut beharrezko dela esan behar dudana ahal dudarik ulerterrazean aurkezteko, mota orotako irakurleak aditzeko moduan. Eta askoz nahia go izan dut espekulaziora ohituriko eta adimen zorrotzeko jendea atal batzuetan gogaikarria dela-eta kexatzea, espekulazio abstraktuetara ohitu gabekoek edo aurretik nozio ezberdinak tinko dituztenek okerrak aditzea edo zer esan nahi dudanez ez ulertzea baino.



Agian harropuzkeria eta ozarkeria handitzat joko da gure aro jakitun honi irakatsi nahi izatea, zeren horixe egiten dudala ematen baitu *Entseiu* hau beste batzuentzat baliagarri izateko asmoarekin argitaratzen dudala diodanean. Baina eurak idatzitakoa, apaltasun faltasuz, baliagarritasun gabekotzat gaitzesten dutenei buruz askatasunez hitz egiten uzten bazait, esanen dut harropuzkeria eta ozarkeria handiagoa deritzodala hau ez den beste xede batekin liburu bat argitaratzeari; izan ere, publikoari zor dion errespetuan akats handia dauka, liburua horrela argitaratuz, eurentzat eta besteentzat baliogabekotzat aurkezturiko liburu hori besteek irakurtzea espero duenak; eta Tratatu honetan beste ezer onargarririk ez balego ere, ez nuke amorerik emanen horretarako ahaleginean, eta nire asmo on horrek nonbait ere desenkusatu beharko luke egindako lanaren baliorik eza. Horrexek babesten nau nagusiki kritikaren beldurretik, zeini ni baino idazle hobeek baino urrunagotik ihes egiteko esperantzarik ez daukadan. Gizakien printzipioak, nozioak eta gustuak hain dira ezberdinak, non nekez aurki daitekeen gizaki guztiek gustuko zein desgustuko duten libururik. Aitortzen dut gure aro hau ez dela ezjakinena eta, beraz, ez eta kontentaerrazena ere. Nire lan hau denei gustatzeko zortea ez edukita ere, inork ez luke nirekin haserretu behar. Argi diotset nire irakurle guztiei, dozena erdi kenduta, Tratatu hau hasieran ez zela beraientzat, eta, horregatik, ez direla kopuru horren barruan egoteko arduraz ibili behar. Baina norbaitek egoki baderitzo haserretzeari eta nire lanaz txakurrenak esateari, lasai egin dezake hori, zeren nik neuk aurkituko dut horrelako autu-mautuetan aritzea baino denbora emateko modu hoberik. Beti ukanen dut, erarik apalenean bada ere, egia eta baliagarritasuna bilatu izanaren poztasuna. Ez daukagu aldi honetan obra-maisu barik gure errepublika, eta horiek zientzien aurrerakuntzan jarrita dituzten proiektuek monumentu iraunkorrak utziko dituzte ondorengoen mirespenerako. Baina edonork ezin dezake Boyle bat edo Sydenham bat izatea espero. Eta Huygenius handia eta paregabe-ko Newton jauna bezalako maisuak eta ezpal bereko beste batzuk sortu dituen mende batean, handinahirik nahikoa da menpeko langile moduan ingurua zaborrieriaz garbi uzten eta ezagutzarako bidean traba egiten duten obra hondakinak kentzen lan egitea. Aipatu ezagutza, berriz, asko aurreratuago zegokeen munduan, baldin gizaki argi eta langileek zientzietan sarturiko eta arte mailara jasotako termino langabe, artifizial edo ulertezinen erabilera eskolatu baina azalekoan

oztopo handiegiak aurkitu ez balituzte. Izan ere, erabilera hau hain izan da kaltegarria, non filosofia, gauzen egiazko ezagutza baino ez den arren, hezkuntzadun jendearekin eta gizabidezko solasaldietan erabiltzeko desegokitzat egon den. Esamolde lanbrotsu eta esanahi gabeak eta hizkuntz abusua hain luzaro hartu dira zientzietako misteriorizat, eta hitz zail eta gaizki aplikatuek, esanahi gutxiko edo gabe-koek, hain eskubide handia ukan dute gizakiek, inoren aginduz, jakintza sakontzat eta goi espekulaziotzat har ditzaten, non ez den erraz izanen horiek darabiltzatenei edo entzuten dituztenei termino horiek ezjakintasunaren estalki eta egiazko ezagutzarako behaztopo baino ez direla sinestaraztea. Harropuzkeriaren eta ezjakitearen santutegian brasta sartzea, nik uste, giza adimenari eskainitako zerbitzua izanen da, oso gutxi diren arren uste izan dezaketenak hitz horiek erabiliz beren burua edo besteak engainatzen dituztela, edo beraiek dabiltzan sektako hitzek aztertu eta zuzendu beharreko akatsak dituztela, halako mailan eduki ere, non uste dudan barkatuko zaidala Hirugarren Liburuan puntu honi buruz hain luze aritzea, nire asmoa ez baita izan haxe argi uzten ahalegintzea besterik, alegia, ez gaitza oso errotuta egotea ez modaren gailentasuna ezin direla zurigarri izan beren hitzen esanahiaren ardurarik hartzen ez dutenentzat eta beren adierazpenen esanguraren araketa jasateko prest ez daudenentzat.

Norbaitzuek esan didate Tratatu honen laburpento bat, 1688an inprimatua, irakurri gabe gaitzetsi zutela, sortzetiko ideiak ukatzen zituela eta, beste ondorio hau ere arrapaladan atera zutelarik, alegia, Tratatuan sortzetiko ideiak onartzen ez baziren, espirituen noziorik edo beraien existentziaren froga modurik ere ez zela onartuko. Norbaitek Tratatu hau irakurtzen hasterakoan oztopo hori aurkitzen badu, osorik irakur lezan nahi nuke eta orduan konbentzituko dela espero dut oinarri faltsuak kentzea egiaren kaltetan barik mesedetan doala, egiari ez baitzaio arrakala handiagorik egiten inoiz, ez eta arrisku handiagotan jartzen ere, faltsutasunaz nahasten eta beronen gainean eraikitzen denean baino.

Bigarren argitarapenean jarraian datorrena gehitu nuen.

Ez lidake barkatuko liburu-saltzaileak argitarapen berri hone-taz ezer esanen ez banu, bigarren hau lehenengoa baino zehatzagoa izanik, hemen aurrekoaren huts ugariak zuzenduko direla agindu baitu. Jakinarazi nahi luke, halaber, kapitulu oso bat berria duela,

Identitateari buruzkoa, eta gehikuntza eta zuzenketa asko beste atal batzuetan. Azken hauetan —irakurleari jakinarazi behar diot— ez da gai berririk sartzen, gehienak edo esandakoaren berrespena edo azalpenak baitira aurrekoan inprimatuaren zentzua inork oker uler ez dezan, aurreko argitarapenarekiko nik izandako inolako iritziz aldaketarik inplikatzeko ez dutelarik.

Salbuespen bat egin behar dut, hala ere: II. Liburuko XXI. kapituluari egin ditudan aldaketak.

Han askatasunari eta nahimenari buruz idatzi nuenak ahalik berrikuspen zehatzena merezi zuela pentsatu nuen, gai hauek munduko jende ikasi guztia kezkatu baitute aro guztietan, galdera, auzi eta zailtasun asko planteatzera eramanez, etikan eta teologian, gizakiei argi edukitzea hainbeste interesatzen zaien jakintza arloetan, ez bai ugari sortarazi dituztenak. Giza gogamenaren funtzionamendua zehatzago arakatu eta beronen eragile diren zergatien eta ikuspegien azterketa hertsia egin ondoren, nahimenari nahitako ekintzetan azken erabakimena ematen dionari buruz lehenago nuen pentsaera aldatzeko arrazoiak aurkitu ditut. Aldaketa horren berri eman nahi diot munduari, lehen zuzen zela neritza publikatzeko izan nuen askatasun eta prestasun beraz, zeren, interes handiagoa baitaukat, ene ikusiz, neure iritzia uko egin eta bertan behera uzteko, inorena aurkatzen jarduteko baino, egia nirearen kontra ageri denean. Zeren egia baita bilatzen dudana gauza bakarra, eta egia beti izanena da niretzat ongi etorria, datorrela datorrenean eta datorrela datorren aldetik.

Baina, errakuntzaren baten frogarik izanez gero, eduki nezakeen edozein iritziri uko egiteko edo idatzi dudana edozer atzera botatzeko prest nagoen arren, esan behar dut, hala ere, nire liburuaren atalen baten kontra argitaratuta ikusi ditudan kritiketan ez dudala argitasunik neureganatzeko aukerarik ukan eta beronen kontra argudiatu den ezertan ere ez dudala aurkitu auzitan jarritako ezein puntutan neure ikuspegia aldatzeko arrazoirik. Dela eskuartean darabildan gaiak azaleko irakurleek, edo behintzat aurreiritzidunek, eman nahi dizkioten baino gogoeta eta arreta sakonagoak behar dituelako maiz, dela nire adierazpenen ilunak lainoztaturik uzten duelako, dela besteek nozio horiek atzematen, nik beroriek planteatzeko daukadan eragatik, zail dutelako, kontua da esan nahi dudana oker ulertzen zaidala maiz eta ez dudala beti zuzen interpretatua izateko zortetik.

Honen azken adibide bat, besterik ez aipatzearren, *Discourse Concerning the Nature of Man* obraren autore argiak eman dit. Izan ere, beronen adierazpenen gizabideak eta beronen ordenari dagokion xalotasunak galarazi egiten dit pentsatzea autore honek bere hitzaurrea jarraian datorrena iradokiz ixten duela, alegia, nik II. Liburuko XVII. kapituluak gizakiek beren ekintzak zuzentzeko dituzten hiru arauak azaltzean bertutea bizio eta bizioa bertute bihurtzen dudalako, nik esan nahi dudana gaizki ulertu ez badu; eta hau ezin zukeen egin, baldin kontuan ukan balu zein argumenturi buruz ari nintzen orduan, eta zein zen kapitulu horren xede nagusia, laugarren atalean eta hurrengoetan garbi asko agertzen dena. Zeren ni han ez nenbilen arau moralak ezartzen, baizik ideia moralen jatorria eta izaera azaltzen eta erlazio moraletan gizakiek erabiltzen dituzten arauak zerrendatzen, arau egiazkoak zein faltsuak izan; eta honi jarrai bertutea eta bizioa nonahi zeri deritzan azaltzen dut, honek ez duelarik «gauzen natura aldatzen», gizakiek eskuarki beren egintzak, eurak bizi diren lekuan eta kide diren sektan egintzoi buruz dagoen balioespenaren eta usadioaren arabera juzgatzen eta izendatzen dituzten arren.

Nik esandakoaz (I. Lib. II. kap. 18. at. eta II. Lib. XVIII. kap., 13, 14, 15 eta 20. at.) hausnarketa egiteko lana hartu izan balu, jakin zukeen nik ongiaren eta gaizkiaren izaera betiereko eta aldaezinari buruz uste dudana, baita zeri deitzen diodan bertutea eta zeri bizioa ere. Eta ohartu bazen aipatzen duen leku horretan nik egitatezko arazo moduan besteei bertutea eta bizioa zeri deitzen dioten jakinarazi besterik ez dudala egiten, ez zukeen hartu kritika handirik egiteko puntu-tzat. Izan ere, nik uste dut ez nagoela guztiz oker diodanean erlazio moralen oinarri edo neurritzat munduan erabiltzen diren arauetako bat gizarte ezberdinetan zenbait motatako ekintzek duten balioespen edo erreputazio ezberdina dela, beronen arabera deitzen diotelarik bertute edo bizio. Eta Lowde jaunak bere *Old English Dictionary*-ri ematen dion autoritatea nolanahikoa izanik ere, ausartuko naiz esatera hiztegi horrek (liburu horretara jo behar banu) ez diola inon ere esaten ekintza bera ez dagoela toki batean bertutetzat, hala deitzen diotelarik, beste batean, erreputazioa galdu duelako, bizi-tzat jotzen eta hala deitzen dioten bitartean. Gizakiek ekintzei bertute edo bizio izena erreputazioaren arau honen arabera ematen diotela konturatzea izan da nik egin dudana guztia edo lepora dakidakeen guztia, bertutea bizio edo

bizioa bertute bihurtzeari dagokionez. Baina gizon onak, bere bokazioari dagokion modura, ongi egiten du puntu horietan argi ibiltzea, eta aparte eta euren baitan hartuta arraroak eta susmagarriak diruditen adierazpenen aurrean alarma piztea.

Bere profesioan onargarri den ardura horixe kontuan hartuta bakarrik barkatzen diot autore horri nire hitzak (XXVIII. kap., 11. at.) aipatzen dituen moduan aipatzea: «doktores inspiratuek ere ez dute izan eragozpenik euren aholkuetan erreputazio komunera jotzeko»: «Maitagarri dena, izen oneko dena, bertuterik bada, gorespenik bada», etab. (Fil.4,8) «albo batera utzita aurretik datorrena eta horren sarbide dena: «eta horregatik ongi zaindu dira, ohiturak ustelduen zeudenean ere, bertute eta bizioaren arau izan behar duen lege naturalaren mugak, halatan non...». Hitz horietatik eta ataleko gainerakoetatik, argi agertzen da San Pauloren pasarte haren aipamena ez nuela nik ekarri gizakiek bertutea eta bizioa deitzen diotenaren arau orokorra munduko gizarte partikular bakoitzaren barruan ekintzak duen erreputazioa eta bertako usadioa direla frogatzeko, baizik ikusarazteko, horrela balitz ere, nik han emandako arrazoiengatik, gizakiek izena jartzeko eran ez liratekeela gehiegi aldenduko lege naturaletik, berau delarik beren ekintzak onak ala txarrak diren juzgatzeko eta horren arabera bertute ala bizio izendatzeko duten arau finko eta aldagaitza. Lowde jaunak hau aintzat hartu izan balu, ez zukeen bere xederako abantailarik atera pasarte hau nik erabili ez nuen zentzuan aipatzetik, eta gehitzen duen azalpena aurreztu zukeela uste dut, ez baitzen beharrozkoegia. Baina espero dut bigarren edizio honek konforme utziko duela aipatu puntuari buruz eta uste dut oraingo honetan gaia, errezelarako motiborik ez zegoela hari adierazteko moduan idatzita dagoela.

Nahiz eta beharturik nagoen hark bere hitzaurrearen amaieran nik bertuteaz eta bizioaz esandakoari buruz adierazten dituen beldurretatik urruntzera, berak uste baino adosago gatoz biok «inskribaketa naturala eta sortzetiko nozioak» jorratzen dituen haren hirugarren kapituluari dagokionez (78 or.). Ez diot ukatuko bere buruarentzat galdatzen duen auzia nahi duen moduan planteatzeko pribilegioa, batez ere nik esandakoaren kontrako ezer sartu gabe planteatzen duenean. Zeren hark dioenaren arabera «sortzetiko nozioak baldintzazko gauzak dira, aldi berean gertatzen diren beste zirkunstantzia batzuen menpe daudenak arimak agertaraz ditzan» eta, horregatik, «nozio sor-

tzetiko, inprimatu, grabatuen» alde dioena (zeren sortzetiko ideiei buruz ezer ez baitio) haxe besterik ez da: arimak lehenengotatik edo gizakia jaiotzen denetik ezagutzen ez dituen proposizioak direla, baina, «kanpoko sentimenen urgazpenez eta aldez aurreko nolabaiteko lanketaren laguntzaz», haien egia ziurtasunez ezagut daitekeela *geroago*; eta hau ez da nik neure Lehenengo Liburuan esan dudana besterik. Izan ere, «arimak nozio horiek agertarazteko» ekintzaz, arima haiek ezagutzen hastea besterik ez duela ulertzen suposatzen dut, edo bestela «arimak nozioak agertaraztea» esakune erabat ulertezina litzaidake, eta onenean ere oso desegokia, desbideratu egiten gaituelako nozio hauek «arimak agertarazi» aurretik gogamenean daudela pentsaraziz, egia, ordea, izan alderantzizkoa denean: haiek ezagutu aurretik ez dago ezer gogamenean, haiek ezagutzeko gaitasuna besterik, autore argi honek «arimak nozio horiek agertarazteko» beharrezkotzat jotzen duen «aldi berean zirkunstantzia horiek gertatzeak» noziook ezagutzera ematen dizkigunean.

Honelaxe adierazten duela hau aurkitzen dut 52. orrialdean: «Nozio natural hauek ez dira inprimatzen ariman, berez agertuz (haur eta ergelengan ere) kanpoko sentimenen urgazpenik gabe edo aldez aurreko nolabaiteko lanketaren laguntzarik gabe». Hemen berez agertzen direla dio, 78. orrialdean arimak agertarazten dituela dioten bitartean. «Arimak sortzetiko nozioak agertaraztea» edo «berez agertzea» zer den, eta nozioak ager daitezen behar diren «aldez aurreko lanketa eta zirkunstantzia horiek» zer diren bere buruari eta besteei azaldu ondoren, ikusiko du, nik uste, ezen, berak «nozioak agertzea» deitzen dionari nik esamolde arruntagoz «ezagutzea» deitzea salbu, alde txikia dagoela puntu honi buruz gu bion artean; hartara, badut arrazoirik uste izateko nitaz gizabidez mintzatzeko aukera izateko baino ez duela aipatzen nire izena bere liburuan; eta esker onez aitortu behar dut aipatzen nauen guztian egin duela hori, beste idazle batzuek bezala ni merezi ez dudana tituluz ohoratu naularik.

Hain dira asko honen adibideak, non bidezko deritzodan neure irakurleentzat eta neuretzat bitarik bat konkluditzeari: edo nire liburua argi idatzita dagoela, irakurtzeko lana hartzen duen orok irakurketan behar lukeen arretaz eta aurreiritzietatik askatasunaz aztertzen duten guztiek zuzen ulertzeko moduan, edo bestela hain ilun idatzi dudala, non alferreko den zuzenketak egiten saiatzea.

Horietako bata zein bestea izanik ere egia, neurea beste inoren arazoa ez da, eta, horregatik, ez diot gogait eraginena irakurleari nire liburuaren hango eta hemengo zatiei jarritako objektzio ezberdinei erantzuteko zer esan daitekeen azalduz, zeren konbentziturik bainago horiek egiazkoak ala faltsuak ote diren arduraz ibiltzeko bezain garrantzitsuak direla uste duenak ikusi ahal izanen duela esandakoa ez dagoela ongi oinarriturik edo ez dela nire doktrinaren kontrakoa, ni eta nire aurkaria norberak esandakoa elkarri ongi ulertaraztera helduz gero.

Baldin beste autore batzuek, beren pentsamendu baliotsuetariko bat bera ere gal ez dadin arduraz, nire *Entseiuari* buruz gaitzespenak argitaratu badituzte, entseiua dela ez onartzeko ohorea egin diotelarik, publikoari uzten diot hain luma kritikoeikiko duten loturaren balioespena, eta ni ez naiz ibiliko neure irakurlei denbora alferrik galarazten neurea alferrik edo makurki erabiliz, norbaitek nik idatzitakoaren hain errefusapen lasterrean hartzen duen atsegina edo beste batzuei eman diezaikeena gutxitzeko lanean.

Nire *Entseiuaren* laugarren argitarapena prestatzera zihoazen liburu-saltzaileek jakinarazi zidaten aukera nuela, aztia izanez gero, egoki ikusten nituen gehikuntzak edo zuzenketak egiteko. Honi buruz uste dut komeni dela irakurlea ohartaraztea, neure lanean zehar han hemenka egin ditudan hainbat zuzenketez aparte, aldaketa bat dagoela hemen aipatu behar-beharrekoa, liburu guztian zehar agertzen delako eta berau ongi ulertzea garrantzitsua delako. Honi buruz esan nuena jarraian datorrena izan zen.

*Idea argi eta bereiziak* jendeak ahotan arrunki eta usu darabil-tzan terminoak dira, baina badut arrazoirik pentsatzeko beraietaz baliatzen den orok ez dituela zehazki ulertzen. Eta baliteke han hemenka banaka batzuek baino ez hartzea termino horiek aztertze-ko lana, berak eta besteek termino horiez zehazki zer esan nahi duten jakiteko. Horregatik tokirik gehienetan *argi eta bereiziak* hitzen orde-z nahiago izan dut *zehatzak* edo *zehaztuak* erabili, pentsatzen dudana jendeari hobeto ulertarazteko termino egokiago moduan. Termin- horien bidez gogamenean daukadan objektua esan nahi dut eta, beraz, zehaztua, hau da, bertan ikusten eta hautematen den bezalakoxea. Idea bati, nire ustez, egokiro dei dakioko idea zehatza edo zehaztua, gogamenean aldioro objektiboki dagoen bezalaxe izen edo soinu artu-

kulatu bati lotzen zaionean eta aldaketarik gabe zehaztua denean, izen horrek gogameneko objektu edo ideia zehaztu berberaren zeinu iraunkor izan behar duelarik.

Hau doitasun handiagoz azaltzeko esan behar dut *zehatz* hitzaz, ideia bakunari aplikatzen zaionean, zera adierazi nahi dudala, alegia, gogamenak ideia bertan dagoela esaten denean bistan duen edo bere baitan hautematen duen agerpen bakuna; *zehaztu* hitzaz, aldiz, ideia konplexuari aplikatzen zaionean, beste hau esan nahi dut, alegia, ideia hori gogamenean presente dagoenean edo norbaitek izena ematean presente egon behar lukeenean, hark bistan dituen proportzio eta egoera berean bilduriko ideia bakunen edo ez hain konplexuen kopuru zehatz batek osaturiko ideia konplexua. Presente egon *behar lukeela* diot, ez dutelako denek, eta agian batek ere ez, beren hizkuntza halatan zaintzen, non ez duten hitzik erabiltzen, harik eta ideia doi zehaztuaren zeinu egitea erabaki duten hitz hori gogamenean ikusi arte. Hau ez zaintzeak iluntasun eta nahasmendu handia sortzen du gizakien pentsamendu eta diskurtsoetan.

Badakit ezein hizkuntzatan ere ez dagoela gizakien diskurtso eta arrazoinamenduetan sartzen diren hainbeste ideia ezberdini erantzuteko adina hitz. Baina honek ez du eragozten norbaitek terminoren bat erabiltzen duenean bere gogamenean ideia zehaztua edukitzea, ideia honen zeinu egiten duena eta diskurtso berean zehar beti beroni lotuta erabiliko duena. Eta hau egiten ez badu edo egin ezin badu, alferrik eduki nahi izanzen ditu ideia argi eta bereiziak; argi dago berarenak ez direla. Eta, beraz, zehaztapen doi hori ez duten terminoak erabiltzen diren guztian ezin daiteke iluntasuna eta nahasmendua besterik espero.

Horrexetan oinarriturik pentsatu izan dut ideia zehaztuak terminoa erabiltzeak errakuntzarako arrisku gutxiago duela, ideia argi eta bereiziak erabiltzeak baino; eta gizakiek arrazoitzen, ikertzen eta argudiatzen duten guztiaren ideia zehaztuak erdiesten dituztenean, bukatuak ikusiko dute euren zalantzen eta eztabaiden zati handi bat, gizateria nahasten duten auzi eta eztabaida gehienak hitzen erabilera zalantzarri eta ziurtasunik gabekoaren ondorio baitira edo, gauza bera dena, hitz horiek ordezkatzeko dituzten ideia zehazgabeena. Termino horiek honexetarako aukeratu ditut: Lehenik, gogamenak objektuaren zeinu izateko erabiltzen duen soinutik bereizita arartega-



be hautematen duen eta aurrean daukan objektu oro adierazteko. Bigarrenik, aditzera emateko horrela zehazturiko ideia hori, hau da, gogamenak bere baitan daukan eta ezagutzen eta bertan ikusten duen ideia hori, aldaketarik gabe izen horrixe loturik dagoela eta izen hori ideia zehatz horrixe loturik. Gizakiek beren ikerketa eta diskurtsoetan horrelako ideia zehaztuak edukiz gero, beren ikerketak eta diskurtsoak noraino hedatzen diren ikusiko lukete eta besteekin dituzten eztabaida eta auzi-mauzi gehienak ekidinen lituzkete.

Honez gain, liburu-saltzaileak beharrezko ikusiz gero, irakurlea ohartaraziko nuke bi kapitulu zeharo berri gehitzen direla, bata *Idéien Elkar lotzeaz* eta bestea *Irrikitasunaz*. Berak hartu du eransketak hauek eta inoiz inprimatu gabeko beste batzuk inprimatzeko ardurara, *Entseiu* honen bigarren inprimaketan egin zen moduan eta xede beraz. Seigarren argitarapenean oso gutxi gehitu edo aldatu da, Berriren berri sarturikoaren zatirik handiena Bigarren Liburuaren hogeita batgarren kapituluan dago eta, baten batek merezi duela pentsatuz gero, lehenengo argitarapenean orri bazterrean idatz lezake lan handirik gabe.



# SARRERA

1. Adimena denez gizakia beste izaki sentimendun guztien gainetik jartzen duena eta haiekiko gailentasuna eta domeinua ematen diona, adimenaren gaia, gorentasun horrengatik, ahalegin lantsuz ikertzea merezi duenetakoa da. Adimenak, begiak bezala, beste gauza guztiak ikusarazten eta hautemanarazten dizkigunean, ez da bere buruaz ohartzen, eta antze eta ahalegin handiak behar ditu gizakiak adimena, distantziara jarritz, adimenaren objektu izatea lortzeko. Baina ikerketa horren bidean dauden zailtasunak handienak izanik ere, eta dena dela geure buruarekiko hain ilunbe handian gauzkana, ziur nago araketa horrek gure gogamenean barrea dezakeen argitasuna, gure adimenari buruz erdiets dezakegun ezagutza guztia, oso atsegina izatez gain, oso baliagarria ere izanen dugula beste gauza batzuen bilaketan ari garenean gure pentsamenduak bide zuzenetik gidatzeko.

2. Nire helburua giza ezagutzaren jatorria, ziurtasuna eta hedadura ikertzea delarik, eta horrekin batera baita fede, aburu eta baiespenaren oinarriak eta mailak ere, oraingo lan honetan ez naiz sartuko gogamenaren araketa fisikoa egiten edo haren esentzia zertan datzan aztertzen; ez naiz ariko gure adimenean organoen bidezko sentipenak nahiz ideiak edukitzera gure espirituaren zer nolako higidurez edo gure gorputzaren zein aldaketez heltzen garen arakatzeko, ez eta ideia horien, batzuen edo guztien, eraketa materiaren menpe dagoen ala ez ikusten. Espekulazio hauek, bitxiak eta jakingarriak izan arren,

albo batera utziko ditut hemen, nire oraingo xedetik kanpo daude eta. Nik orain dudan helbururako nahikoa izanen da gizakiak dituen ezagutzeko ahalmen ezberdinak aztertzea, giza gogamenari aurkezten zaizkion objektu ezberdinetan erabiltzen ditugun heinean. Eta hemen egindako pentsamenduetan denbora ez dudala guztiz alferrik galdu pentsatuko dut, baldin, era argi eta historikoan aztertuz, gure adimena dauzkagun gauzen nozio horiek erdiestera nola heltzen den azaltzerik eta, gure ezagutzaren ziurtasunaren neurriak markatu ondoren, giza-kien artean aurkitzen ditugun persuasio anitz, ezberdin eta erabat kontraesankorrak, baina era batera edo bestera ziurtasun osoz baietsiak, esplikatzerik badut. Persuasio horiek, izan ere, hain konfiantza handiz dira baieztatuak, non gizateriak dituen aburuei begiratu, beraien artean dagoen aurkakotasunari erreparatu eta aldi berean nolako sentimendu gartsuaz berenganatzen eta nolako indar eta suaz defendatzen dituzten ikusten duenak bitako bat susmatzeko arrazoirik aski ukanen duen, hau da, edo ez dagoela inon egiarik edo gizateriak ez duela egia-  
ren ezagutza ziurrera heltzeko modurik.

3. Benetan merezi du, beraz, aburuaren eta ezagutzaren arteko mugak bilatzeari eta, ezagutza ziurrik ez daukagun gauzetan, zer nolako arauz baliatu behar dugun ikertzeari ekiteak, geure baiespena erregulatzeko eta geure persasioari neurria bilatzeko. Horretarako, metodo haxe erabiliko dut.

Lehenik, gizakiak bere gogamenean, bertan dauzkala ohartzuz, hautematen dituen ideia, nozio edo nahi duzun modura deritzen horien jatorria zein den eta adimenak nola bereganatzen dituen aztertuko dut.

Bigarrenik, saiaturiko naiz azaltzen zer nolako ezagutza erdiesten duen adimenak ideia horien bidez, eta nolakoa den ezagutza horren ziurtasuna, nabaritasuna eta hedadura.

Hirugarrenik, fedea edo aburua deritzan horren izaera eta oinarriak ikertzeari ekinen diot; hitz horiez zera esan nahi dut, proposizio baten egiaz ziurtasunik eduki gabe, proposizio horri egiazko moduan ematen diogun baiespena. Eta atal honetan baiespenaren arrazoiak eta mailak aztertzeko aukera ukanen dugu.

#### *4. Gure ulermenaren hedadura ezagutzeko baliagarria.*

Baldin, adimenaren izaerari buruzko ikerketa honen bidez deskubritu ahal badut adimenaren ahalak zein diren eta noraino iristen

diren, zeri eta zein mailatan erantzuteko gai diren eta zein mailatatik gora huts egiten diguten, uste dut azterketa honek balioko digula gure ulermenaren gaitasunarekin duten gauzetan kontuzago ibiltzeko, geure adimenaren ahalaren muturrera heltzean harago joan gabe geratzeko eta, aztertu ondoren, gure gaitasunez haraindi ikusten ditugun gaiei buruz ezjakintasunean kezkarik gabe egoteko. Ez ginateke, orduan, hain ausart ibiliko agian, ezagutza unibertsalerako gai bagina bezala, gure adimenaren neurritik gorako gauzei buruz galderak sortzen eta haien gaineko eztabaidez geure buruak eta besteak nahasten, horiei buruz inolako pertzepzio argi eta bereizirik eratzetik ez baitugu, sarri, berri, —sarri beharbada— horien inolako noziorik ere ez daukagularik. Aurkitu ahal badugu adimenak noraino heda dezakeen bere ikuspegia, norainoko ahalmenak dituen ziurtasuna erdiesteko eta zein kasutan uste izan edo antzeman besterik ez dezakeen egin, orduan mundu honetako gure egoeran erdiesgarri dugunarekin konformatzen ikasi ahal izanen dugu.

5. Gure gaitasuna, mundu honetako gure egoeraren eta ardu-  
ren araberakoa.

Izan ere, gauza asko eta asko diren arren gure adimenak ulertu ezin dituenak, badugu arrazoirik gure Egile eskuzabala handiesteko, gure bizileku honetako beste biztanleen gainetik eman digun ezagutzaren neurri eta mailagatik. Gizakiek badute arrazoirik Jainkoak eurentzat egoki ikusi duenaz pozik egoteko, zeren San Pedrok dioen bezala, πάντα πρὸς ζῶην καὶ ἐνσέβειαν, bizitza erosorako eta bertuterako behar den guztia eman baitie, bizitza honetako beharritzane-tarako behar duten guztia eta bizitza hobera daraman bidea deskubritzeko moduko egoeran ipini dituelarik. Existitzen den guztia ulertze-tik lekutan egonda ere, gizakion ezagumena guk geure interes nagusi-ei erantzutea segurtatzeko modukoa da, geure Egilea ezagutzera eta geure betebeharrak zein diren jakitera heltzeko behar dugun argitasu-naren jabe baikara. Gizakiek aurki dezakete behar adina gai ezberdin euren buruak eta eskuak berorien inguruan atseginez eta pozik erabil-tzeko, oro atzemateko gai ez direlako euren izaeraren kontra jarritzeko eskuak betean jasotako onurak bazterrera jaurtiki ezean. Ez dugu arra-zoi askorik ukanen geure gogamenaren laburraz kexatzeko, baliagarri zaigunerako erabiltzen badugu, zeren horretarako oso gai baita. Eta ume-egosgogorkeria barkaezina litzateke guk geure ezagumenaren

abantailak gutxiestea eta beroni jarritako xedeetarako hobetu gabe uztea, gauza batzuk beronen irispidetik harago daudelako. Eta desenkusarik ez luke, eguzki betearen argia galdatuta, bere zereginak kandelargiaz betetzeari uko egingen liokeen zerbitzari alfer eta managaitzak. Gure baitan jarritako kandelak gure helburu guztiak betetzeko adina argi dauka. Argi horrekin egin ditzakegun aurkikuntzek pozik utzi behar gaituzte. Eta gure adimenaren erabilera zuzena egiten ariko gara beti, objektu guztiak gure ahalmenen neurriko diren heinean eta eran eta guri proposatzeko modukoak diren ikuspegitik kontsideratzen ditugunean, frogapena eta ziurtasun osoa derrigorrez eta inolako neurritasunik barik galdatzen ibili gabe, gure interes guztiak kudeatzeko aski den probabilitatea besterik lortu ezin denean. Gauza oro ziurtasunez ezagutu ezin dugulako ezertan sinesten ez badugu, hegaz egiteko hegali ez duelako jezarrita hiltzea erabakiko lukeenaren zuhurtzia beraz dihardugu.

*6. Geure gaitasunak ezagutzea eszeptizismoaren eta alferkeria - ren sendabide dugu.*

Geure indarrak ezagutuz gero, hobeto jakinen dugu zeri ekin arrakasta izateko esperantzarekin, eta geure adimenaren ahalak aztertu eta berauengandik zer espero dezakegun ebaluatu ondoren, ez dugu ukanen, ezer ezagutzeko gai ez garela eta, isilik eta pentsamenduak lanean ipini gabe etsita egoteko gogorik; eta, bestetik, gauza batzuk ulertzerik ez dugulako, ez dugu dena auzitan jarriko eta ezagutza oro ukatuko. Marinelarentzat emendio handikoa da sokaren luzera ezagutzea, nahiz eta beraz ozeanoko sakonera guztiak zundatu ezin. Nahikoa du marinelak bidaian pasa beharreko lekuetan soka hondoraino luzatzen zaiola egiaztatzea, ur azalegietan untziak hondoa jo eta galbidean jartzea ekiditeko neurriak egin ditzan. Gure eginkizuna, honetan, ez da gauza guztiak ezagutzea, geure jokabidearekin zerikusia dutenak baizik. Kreatura arrazoidunok, gizakiak mundu honetan duen egoeran, geure aburuak eta euron menpe dauden geure ekintzak zuzentzeko erabili ahal eta behar ditugun arauak zein diren aurkituz gero, ez genuke kezkatu beharrik beste gauza batzuek gure ezagumenari ihes egiten diotelako.

*7. Entseiu honen zioa.*

Arestian aipaturikoa da lehenbizi bultzatu ninduen adimenari buruzko *Entseiu* hau lantzerantz. Zeren uste bainuen gizakiak gogoz egin

nahi lituzkeen zenbait ikerketari erantzuteko lehen urratsa geure adimenaren ikuspegi bat lortzea, geure ahalmenak aztertzea eta euron neurrikoak zein gauza diren ikustea zela. Hau egin gabe jokatzea okerreko muturretik hastea zela susmatzen nuen, eta alferrik genbiltzala gehien interesatzen zaizkigun egien jabetza lasai eta seguruak emandako gogobetetasunaren bila, izakiaren ozeano zabal handian zehar geure pentsamenduak hedatuz, mugarik gabeko hedadura hori guztia gure adimenaren zalantzarik gabeko jabetza naturaleko lurraldea balitz bezala, haren erabakitik kanpo edo ulermenetik harago ezer ere ez daukan lurraldea. Era honetan gizakiek ikerketak beren gaitasunez haraindi hedatzen eta beren pentsamenduak oinak hondorik aurkitzerik ez duen sakoneretan sakabanatzen dituztenez, ez da harritzekoa auziak sortaraztea eta eztabaidak ugaltzea; eta eztabaidok inolako ebazpide argitara inoiz heltzen ez direnez, gizakien zalantzak areagotu eta gehitzeko eta haiek eszeptizismoan finkatzeko baino ez dute balio. Baina horrela jokatu beharrean, gizakiok geure adimenaren gaitasunak ongi aztertuz gero, gure ezagumenaren irispidea norainokoa den aurkitu eta gauzen alderdi argien eta ilunen arteko muga, hau da, guk adi dezakegunaren eta ez dezakegunaren artekoa idoroz gero, orduan errazago onartuko genuke aditzerik ez dugunari buruzko geure ezjakintasuna, eta geure pentsamenduak eta diskurtsoa adi dezakegunari buruz erabiliko genituzke abantaila eta fruitu handiagoz.

#### *8. Ideia hitzak zer ordezkatzan duen.*

Horixe da giza adimenari buruzko ikerketa honen zioari buruz esan nahi izan dudana. Baina gai honi buruz pentsatzen dudana azaldu aurretik, hemen atarian, barkatzeko eskatu behar diot irakurleari ideia hitza hain maiz darabildalako, jarraian datorren tratatuan berak aurkituko duen bezala. Termino horixe delarik nire ustez gizakiak pentsatzen duenean adimenaren objektu den oro ongien ordezkatzan duena, berori erabili dut fantasia, nozioa, espeziea edo pentsatzean gogamenaren jardungai dugun oro adierazteko, eta ezin izan dut ekidin maiz erabiltzea.

Uste dut erraz onartuko zaidala ideia horiek badirela gizakien gogamenetan. Nork bere baitan sentitzen ditugu, eta besteen esanek eta ekintzek besteengan ere badirela ziurtatzen digute. Lehenik, hortaz, ideia horiek gogamenera nola datozkigun aztertuko dugu.





# I. LIBURUA

## Printzipioak ez ideiak ez dira sortzetikoak

## LEHENENGO LIBURUAREN LABURPENA

*Entseiuaren* lehenengo Liburuan, Lockek giza ideien jatorri eta historiari buruz eta berauek sortzen duten ezagutza ziurrari eta presuntzio probableari buruz landutako txostenari bidea irekitzen zaio, gizakiek orori buruz ezjakin *jaiotzen* direla agerian jarritz. Hau oinarri hauexen gainean argudiatzen du: 1) ez dago proposiziorik —ez espekulatiborik ez praktikorik— gizaki bakoitzak jaiotzean kontzienteki egiazkotzat hartzen duenik; 2) ez eta arrazoimena garaturik duten guztiek ere; 3) ideiak sortzetik gogamenean izan behar dutela gogamena horretaz kontziente izan gabe suposatzeak kontraesana inplikatzeko du; 4) nahiz eta ezagutzak, eratua denean, printzipio berez nabariak («self evident») inplikatu, haien berezko nabaritasunak ez duela sortzetikoa direla frogatzen (kontrakoa frogatzen duela gehiago); eta 5) haien sortzetikotasunaren hipotesia ez dela beharrezko, frogatu daitekeelako ezagutzarako eta baiespenerako egiazko urratsak ez daudela gu alegaturiko inolako sortzetiko printzipioren esanahi eta egiaz kontziente jaiotzearen menpe. Are, ezin liteke izan sortzetiko printzipiorik, sortzetiko ideiarik gabe; baina guk ditugun identitatearen, kantitatearen substantziaren eta (batik bat) Jainkoaren ideiak —Jainkoarenak (ezereza izatekotan) sortzetikoa izan behar duen arren—, esperientziaren menpe daude argiro. Sortzetiko printzipioak suposatzea, era horretan, egitateen aurka eta sobera dagoen arren, modan jarri da, «horrek nagiak ikertzeko lan neketsutik libre uzten» dituelako, eta horrela onartzen den guztiari buruzko ikerketa gerarazten du, halatan non «printzipioen printzipio bihurtu den honako hau: printzipioak ez dira auzitan jarri behar».

# I. KAPITULUA

## Ez dago sortzetiko printzipio espekulatiborik

*1. Edozein ezagutza nola erdiesten dugun azaltzea nahikoa da ezagutza hori sortzetikoa ez dela frogatzeko.*

Zenbaitzuen artean tinko ezarritako iritzia da adimenean sortzetiko printzipio batzuk daudela, halako lehen nozio batzuk, zenbait κοινὰ ἔννοια, karaktere batzuk, gizakiaren gogamenean —nola-bait esateko— estanpaturik daudenak, arimak bere izatearen hasiera-hasieran jaso eta mundura aldean dakartzanak. Aurreiritzi gabeko irakurleak suposizio horren faltsutasunaz konbentzitzeko aski ukatzen nuke frogatzea (Diskurtso honen hurrengo ataletan egitea espero dudan moduan) gizakiak, inolako sortzetiko inpresioaren beharrik gabe, bere ahalmen hutsez eskura dezakeela bereganatzen duen ezagutza guztia eta horrelako sortzetiko nozio edo printzipiorik gabe hel daitekeela ziurtasunera. Izan ere, nik uste dut edonork onartuko duela, aise onartu ere, ez dela bidezko Jainkoak ikusmena eta begien bidez kanpoko objektuetatik ideiak hartzeko ahalmena eman dizkion izakiarengan kolore ideiak sortzetikoak direla uste izatea; eta hori bezain arrazoigabea litzateke zenbait egia naturaren inpresioei eta sortzetiko karaktereei iratxikitzea, geure baitan ahalmenak hautematen ditugunean, egia horien ezagutza gure gogamenean sortzetik inprimatuak balira bezalako ziurtasun eta erraztasunaz erdieste-ko gauza direnak.

Baina gizakiari egiaren bila bere-bere pentsamenduez aritzen, bide arruntetik apurtxo bat besterik kanpora irteten ez denean ere, uzten ez zaionez gaitzespenik gabe, argi azalduko ditut iritzi horren egiaz zalantzatan jartzen nauten arrazoiak, neure errakuntzaren aitzakia moduan erabili ahal izateko, errakuntzarik badut, kontu hori, nirekin batera egia non hantxe besarkatzeko prest daudenek ikus dezaten uzten dudalarik.

## 2. *Baiespen jenerala da argudio nagusia.*

Ez dago ezer honako hau baino eskuarkiago ziurtzat jotzen denik, hots, *printzipio* batzuk daudela, bai *espekulatiboak* eta bai *praktikoak* (bietaz mintzo baitira), gizateriak unibertsalki onartuak direnak; printzipiook, beraz, euren aldekoek argudiatzen dutenez, honako hau izan behar dutelarik: gizakien arimek beren existentziaren hasiera-hasieran hartu eta mundura aldean dakartzaten inpresio iraunkorrak, egiazki eta beharrezkotasunez dakartzatelarik, gizakiari datzekion edozein ahalmen bezalaxe.

## 3. *Baiespen unibertsalak ez du frogatzen ezer sortzetikoa denik.*

Adostasun unibertsaletik ateratako argudio honek akats hauxe dauka: gizateria guztia bat etorritzat onarturiko zenbait ideia egotea benetan gertatuko balitz ere, horrek ez luke frogatuko sortzetikoak direnik, gizakiek badutela bat datozen gaitan adostasun unibertsal horretara iristeko beste biderik frogatzerik egonez gero bederen, eta badago, ene ustez, hau egiterik.

## 4. *«Badena, bada» eta «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea», proposizio ez unibertsalki baietsiak.*

Baina, okerrago dena, sortzetiko printzipioak frogatzeko erabiltzen den adostasun unibertsalaren argudio hori horrelako printzipiorik ez dagoela frogatzekoa dela deritzot: bat bera ere ez dagoelako gizateria guztiak baietsia denik. Espekulatiboekin hasiko naiz eta adibidetzat harako bi frogapen-printzipio nagusi haiek erabiliko ditut: «Badena, bada» eta «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea», guztien artean sortzetikoak izateko eskubiderik gehien dutenak direla uste baitut. Ukan ere, unibertsalki onarturiko sententzien ospe hain finkatua dute, non harrigarritzat joko litzateke norbaitek horiek, itxuraz ere, auzitan jartzea. Baina askatasuna hartu nahi dut esateko proposizio horiek ez dutela, hurrik eman ere, adostasun unibertsalik

jasotzen, halatan non gizateriaren zati handi batek ezagutu ere ez baititu egiten.

*5. Printzipio horiek ez daude gogamenean naturalki inprimaturik, haurrek, tentelek, etab., ez baitituzte eza gutzen.*

Izan ere, lehenik, begi-bistakoa da haur eta tentelek ez dutela printzipioon atzemate edo pentsamendu txikienik ere. Eta gabetasun hori nahikoa da sortzetiko egia ororen ezinbesteko lagun izan behar duen bai espren unibertuala deusezteko: ia-ia kontraesan garbia baiteritxot esateari arimak berak ez hauteman ez ulertzen ez dituen egiak ariman inprimaturik daudela, zeren inprimatzea, ezer izatekotan, zenbait egia hautemanaraztea baita. Izan ere, gogamenean zerbait inprimatzea gogamenak gauza hori hauteman gabe, nekez uler daitekeena baita. Baldin, beraz, haurrek eta tentelek inpresio horiek daramatzaten arimak, gogamenak, baldin badauzkate, *beraiek* hauteman egin behar dituzte nahitaez eta egiok ezinbestez ezagutu eta baietsi; eta horrelakorik egiten ez dutenez gero, begi-bistakoa da horrelako inpresiorik ez dagoela. Zeren, naturalki inprimaturiko noziorik ez badago, nola izan daitezke sortzetikoak? Eta nozio inprimatuak badira, nola izan daitezke ezagutu gabekoak? Nozio bat gogamenean inprimatua dela esatea eta aldi berean gogamenak nozio hori ez duela ezagutzen eta are inoiz ez dela horretaz konturatu esatea, inpresio hori ezereztea da. Ez dago proposiziorik gogamenean dagoela esan daitekeenik, gogamenak sekula ezagutu ez badu, sekula haren jakitun izan ez bada. Zeren, proposizio bakar batez hori esan baldin badaiteke, egia diren eta gogamenak baiets ditzakeen proposizio guztiez, arrazoi berarengatik, gogamenean daudela eta inprimatuak direla esan daiteke; izan ere, baten batez esaterik balego gogamenean dagoela eta hau ez dela oraindik hura ezagutzera heldu, ezagutzeko gai delako soilik esan ahal izanzen litzateke, eta gogamena, jakina, egia guztiak ezagutzera hel daiteke. Ez, gogamenak inoiz ezagutu ez dituen eta ezagutuko ere ez dituen egiak ezin daitezke gogamenean inprimatu; zeren pertsona bat luzaro bizi daiteke eta azkenean bere gogamena ziurtasunez ezagutzeko gauza zen egiak ezagutu gabe hil. Era horretan, inpresio naturala defenditzeko argudioa ezagutzeko gaitasuna balitz, gizakiak ezagutzen dituen egia guzti-guztiak, horren arabera, sortzetikoak lirateke; eta puntu nagusi honek ez luke mintzatzeko modu desegokia erabiltzeko bes-

tetarako balioko; eta horrek, kontrakoa esan nahi bada ere, sortzetiko printzipioa ukatzen dutenek diotenetik ezer ezberdinik ez dio. Zeren, sekula inork ez baitu ukatu gogamena zenbait egia ezagutzeko gai denik. Gaitasuna, diote haiek, sortzetikoa da; ezagutza, erdietsia. Baina, zetarako orduan hainbeste ahalegin zenbait sortzetiko printzipioren alde? Egiak gogamenean hauteman gabe inprima badaitezke, ezin dut, beraien jatorria dela eta, alderik ikusi gogamena ezagutzeko *gai* den zenbait egiaren artean. Nahitaez, guztiak dira sortzetikoak edo guztiak erdietsiak, eta alferreko lana dateke, nonbait ere, haiek bereizten saiatzea. Adimenean sortzetik dauden nozioez mintzo denak, beraz, ezin adierazi du (egia mota berezi batez ari bada) egia horiek adimenean honek inoiz hauteman gabe eta erabat haien ezjakitun izanik daudela. Zeren, «adimenean izatea» hitzek zentzu zehatzik badute, aditua izatea esan nahi dute. Eta, era horretan, adimenean izan eta aditua ez izatea, gogamenean izan eta sekula hautemana ez izatea, gauza bat gogamenean edo adimenean dela eta ez dela esatea adina da. Horregatik proposizio bi hauek «badena, bada» eta «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea», alegia, berez inprimatuak balira, haurrek ez lukete horiek ez ezagutzerik. Umetxoek eta arimadun guztiek adimenean eduki, haien egia ezagutu eta baietsi egin beharko lituzkete.

6. *Gizakiek ezagutzen dituzte arrazoimenaren erabilerara heltzen direnean; horri erantzuna.*

Zailtasun hau ekiditeko erantzun ohi da gizaki guztiek ezagutzen eta baiesten dituztela egiok, baina *arrazoimenaren erabilerara heltzen direnean*; hau nahikoa delarik, gehitzen dute, sortzetikoak direla frogatzeko. Nik honi hauxe erantzuten diot:

7. *Dudazko adierazpenak, ia inolako esanahirik ez dutenak, arrazoi argitzat hartzen dituzte, haiek berek diotena —aurrez onarturik ukanik— aztertzeko lanik ere hartzen ez dutenek.*

Izan ere, erantzun hark beharrezko luke, guk nahi dugunera nolabaiteko zentzu onargarriz aplikatzeko, honako bi hauetako bat adieraztea. Edo, gizakiek, arrazoimenaren erabilerara heldu bezain laster, sortzetiko inskripzio omen diren horiek ezagutu eta berorietaz konturatzen direla; edo gizakien arrazoimenaren erabilpen eta trebakuntzak printzipio horiek deskubritzen laguntzen dietela eta ziurtasunez ezagutzera ematen dizkietela.

### *8. Arrazoimenak deskubrituko balitu, ez litzateke sortzetikoak direla frogatuko*

Esan nahi badute gizakiek printzipio horiek arrazoimena erabiliz deskubritzen dituztela eta hori nahikoa dela sortzetikoak direla frogatzeko, haien argudiatzeko modua hauxe besterik ez da: Arrazoimenak ziurtasunez deskubritzera eta irmoki baiestera eraman gaitzakeen egia guztiak gogamenean berez inprimaturiko egiak dirateke, zeren baiespenez unibertsal horrek, haien berezitasuna omen denak, hauxe besterik ez baitu esan nahi: Arrazoimena erabiliz haien ezagutza ziurrera heltzeko eta haiek onartzeko gai garela; eta, horren arabera, ez dateke inolako alderik matematikaren printzipioen eta bertatik eratorritako teoremen artean. Batzuek eta bestetuek esan beharke litzateke sortzetikoak direla, kasu biotan arrazoimenaren erabileraz egindako aurkikuntzak baitira eta izaki arrazoidun batek ziur ezagut ditzakeen egiak, bere pentsamendua bide horretatik zuzen gidatu besterik egin gabe, ezagutu ere.

### *9. Faltsua da arrazoimenak deskubritzen dituela.*

Baina, nola pentsa dezakete gizon horiek arrazoimena erabiltzea beharrezko dela sortzetikotzat jotzen diren printzipioak deskubritzeko, arrazoimena (haiei sinetsi behar badiugu) jada ezagunak diren proposizio edo egietatik abiatu egia ezezagunak deskubritzeko ahalmena besterik ez bada? Benetan ere ezin pentsa daiteke deskubritzeko arrazoimenaren premia duen printzipioa sortzetikoa dela, behintzat onartu ezean arrazoimenak erakusten dizkigun egia ziur guztiak sortzetikoak direla. Gure begiek objektu ikusgarriak hautemateko arrazoimenaren erabilera beharrezkoa dela pentsatzea beste hau pentsatzea adina da, alegia, arrazoimena edo bere erabilpena beharrezkoa dela adimenak bere baitan sortzetik grabaturikoa ikusteko eta adimenak hauteman aurretik ezin dela haren baitan egon. Era horretan, arrazoimenak horrela inprimaturiko egia horiek deskubritzen dituela esatea, arrazoimenaren erabilerak gizakiari lehendik zekiena deskubritzen diola esatea adina da; eta gizakiek egia inprimatu eta sortzetiko horiek sorreratik, arrazoimena erabili aurretik, badituzte eta, hala ere, arrazoimena erabil arte ezagutzen ez badituzte, hori gizakiek egia horiek aldi berean ezagutu eta ez ezagutu egiten dituztela esatea adina da.

10. *Bi printzipio horiek deskubritzeko ez da arrazoiketa era biltzen.*

Agian hemen esanen da frogapen matematikoak eta sortzetikoak ez diren beste egia batzuek ez dutela baiespenik jasotzen proposatu bezain laster, eta horrexetan bereizten direla printzipio haietatik eta sortzetiko beste egia batzuetatik. Ukanen dut aukera lehenengo proposamenarekiko baiespenaz bereziki mintzatzeko. Hemen haxe soilik onartuko dut, gustura gainera: printzipio horiek frogapen matematikoetatik diferenteak direla honexetan hara: azken hauek arrazoimena behar dute, frogak erabiliz, onartuak izateko eta gure baiespena erdies-teko, besteak, ordea, aditu ahala inolako arrazoiketarik gabe onartzen eta baiesten dira. Baina ohartarazi nahi dut hemen nabarmen ageri dela ihesbide baten ahultasuna, honexetan datzana: egia orokor horiek deskubritzeko arrazoimena erabiltzea beharrezko dela esatean, aurkikuntza horretan arrazoiketarik inola ere ez dela erabiltzen aitortu beharra baitu. Eta uste dut erantzun horiez baliatzen direnek ez dutela ausardiarik ukanen harako «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea» printzipio haren ezagutza geure arrazoimenaren dedukzio bati zor diogula baieztatzeko, zeren, naturaren printzipioen ezagutza gure pentsamenduaren ahaleginaren menpean jartzea, haren eskuzabaltasuna — dirudienez hain laket dutena— deusezteza litzateke eta. Arrazoitze oro bilaketa eta ingurura begiratzea denez eta gogoia eta dedikazioa behar duenez gero, nola pentsa daiteke, zentzu apur batekin bederen, naturak gure arrazoimenaren oinarri eta gidatzaile izateko inprimaturiko zerbaitek, deskubritua izateko, arrazoimena erabiltzea behar duela?

11. *Eta horrelakorik balitz, horrek sortzetikoak ez direla frogatuko luke.*

Adimenaren eragiketei buruz arreta pixka batekin gogoeta egiteko lana hartzen dutenek aurkituko dute gogamenak egia batzuei ematen dien berehalako baietza ez dela ez sortzetiko inskribaketa baten ondorio, ezta arrazoimenaren erabilerarena ere, baizik gauza biotatik oso ezberdina den gogamenaren ahalmen baten ondorio, geroago ikusiko dugun moduan. Arrazoimenak, beraz, ez dauka inolako zerikusirik printzipio horiekiko gure baiespenean; baldin «gizakiek arrazoimenaren erabilerara heltzen direnean ezagutzen eta baiesten dituztela» esateak beste hau esan nahi badu: arrazoimena erabiltzeak printzipio horiek ezagutzen laguntzen digula, erabat faltsua da hori; eta egia balitz, sortzetikoak ez direla besterik ez luke frogatuko.



12. *Arrazoimenaren erabilerara heltzean ez gara iristen printzipio horiek ezagutzera.*

Printzipio horiek arrazoimenaren erabilerara heltzean ezagutu eta onartzeak esan nahi baldin badu horixe dela gogamena haietaz ohartzen den unea eta hurrek ere arrazoimenaren erabilerara heldu bezain laster haiek ezagutu eta onartzera iristen direla, hori ere faltsua eta oinarririk gabekoa da. Faltsua da, lehenik, begi-bistakoa delako printzipio horiek ez daudela gogamenean arrazoimenaren erabilerara bezain goiz, eta, beraz, arrazoimenaren erabileraren etorrera oker seinalatzen da haiek deskubritzeko unetzat. Zenbat haurren adibideak ekar ditzakegu, «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea» printzipioaren ezagutzara iritsi baino askoz lehenago arrazoimenaren erabilerara heldutakoenak? Eta jende analfabetoaren eta basatien zati handi batek makina bat urte, are adin arrazionallekoak, pasatzen ditu sekula horretan ez antzeko proposizio orokorretan pentsatu gabe. Onartzen dut gizakiek egia orokor abstraktu horien ezagutzara ez direla iristen arrazoimenaren erabilerara heldu arte; baina gehitzen dut orduan ere ez direla iristen. Hau horrelaxe da, arrazoimenaren erabilerara heldu eta gero ere, errakuntzaz sortzetikotzat joriko printzipio orokor horiei dagozkien ideia orokor eta abstraktuak ez daudelako oraindik gogamenean forjaturik, aitzitik, beste hau baitira dudarik gabe: inork, — horretarako bezain nabarmena izan ez eta— sortzetikotzat hartu ez dituen beste propoposizio batzuen bide beretik eta urrats berak eman ez egindako aurkikuntzak eta gogamenean sartu eta hara ekarriko axiomak. Hau argi eta garbi frogatzea espero dut diskurtso honetan zehar. Onartzen dut, beraz, gizakiek arrazoimenaren erabilerara heldu behar dutela egia orokor horien ezagutza erdietsi aurretik; baina ukatu egiten dut gizakiek arrazoimenaren erabilerara heltzen diren unean deskubritzen dituztela.

13. *Zirkunstantzia horrek ez ditu bereizten beste egia ezagugarrietatik.*

Oraingoz komeni da ohartzea gizakiek arrazoimenaren erabilerara heltzen direnean ezagutzen eta baiesten dituztela printzipio horiek esatea, izatez, hauxe esatea besterik ez dela: arrazoimenaren erabilerara heldu aurretik inoiz ez direla ezagutzen ez hautematen, gizakiaren bizitzaren geroagoko uneren batean onar litezkeelarik; baina noiz, ez dago ziur esaterik; eta beste egia ezagugarriei ere gauza

bera gertzatzen zaienez gero, printzipio haiek ez dute, jakina, inolako pribilegiorik ez bereizpenik, arrazoimenaren erabilerara heltzen garenean ezagutuak izatearen ezaugarriagatik; eta horregatik, sortzetikoak direla ere ez da frogatzen, aitzitikoa baizik.

*14. Arrazoimenaren erabilerara heltzeko unean deskubrituko balira ere, horrekin ez litzateke sortzetikoak direla frogatuko.*

Baina, bigarrenik, gizakia arrazoimenaren erabilerara heltzen den unea printzipio horiek ezagutzen eta baiesten diren unea balitz ere, horrek ere ez luke sortzetikoak direla frogatuko. Argudiatzeko modu hori arina bezain faltsua da. Izan ere, zein logikaz defenda daiteke edozein nozio naturak sortzetik gogamenean hau lehenbizikoz eratzean inprimaturik dagoela, arlo berezia duen gogamenaren ahalmen bat jardunean hasten denean lehenbizi nozio horretaz konturatu eta gero onartzen dugulako soilik? Honen arabera, hitzaren erabilpena heltzea, printzipio horiek gure baiespena jasotzen duten unea horixe dela suposatuko balitz (une hori arrazoimenaren erabilerara heltzen garen unea dela suposatzea bezain egiazkoa izan daitekeena), sortzetikoak direla defenditzeko beste hau esatea bezain froga ona litzateke, alegia, sortzetikoak direla gizakiek arrazoimenaren erabilerara heltzean baiesten dituztelako. Orduan, bada, bat nator sortzetiko printzipioak defendatzen dituztenekin esatean gogamenean ez dagoela printzipio orokor eta berez begi-bistako horien inolako ezagutzarik, harik eta arrazoimena erabiltzera heldu arte; baina ukatu egiten dut arrazoimenaren erabilerara heltzen garen unea dela printzipio horiez lehenbizi ohartzen garen unea eta, halaber, ukatu egiten dut, unea hori balitz ere, horrek sortzetikoak direla frogatuko lukeela. Aipatu proposizioaz, alegia, «gizakiek printzipio horiei arrazoimenaren erabilerara heltzean ematen dietela baiespena» dioenaz adierazi nahi dena, egia-tan bederen, hauxe besterik ez da: ideia abstraktuak formulatzea eta izen orokorrak ulertzea ahalmen arrazionalarekin batera gertatzen direla eta ahalmen horrekin garatzen direla. Horregatik, haurrek ez dute horrelako ideia orokorrik eta ez dute ikasten horiek izendatzeko izenik, harik eta, beren arrazoimena ideia arruntago eta konkretuago-etan erabili ondoren, arrazoiz mintzatzeko gaitasuna ezagutzen zaien arte, pentsatzeko era normala eta euren egintzak kontuan hartuta. Gizakiak printzipio horiek arrazoimenaren erabilerara heltzen denean baiesten dituela dioen proposizio hori seinalaturikoaz beste zentzuren

batean egiazkoa izan ahal baledi, norbaitek frogatzea nahi nuke, edo behintzat esatea zentzu horrek edo beste edozeinek nola froga deza-keen sortzetiko printzipioak direla.

15. *Zer nolako urratsen bidez erdiesten dituen gogamenak egia ezberdinak.*

Hasieran, sentimenez sarbidea ematen diete ideia *partikularrei* eta ordura arte hutsik egon den ontzia betetzen dute, eta gogamenak, ideia horietako batzuetara poliki-poliki ohituz, oroimenean hartzen ditu eta izena jartzen die. Geroago, gogamenak abstraitu egiten ditu eta apurka-apurka izen orokorren erabilera ikasten du. Horretara, gogamena ideiaz eta hizkuntzaz hornitzen da, *material* aproposa duelarik berau, bere pentsatzeko ahalmena lantzeko. Eta arrazoimenaren erabilera egunean baino egunean nabariago du, langai dituen material horiek gehitu ahala. Baina, izenak erabiltzea eta arrazoimenaren erabilera batera garatzen diren arren, ez dut uste horrek inondik ere frogatzen duenik ideia horiek sortzetikoak direla, Onartzen dut ideia batzuen ezagutza adin oso goiztiarrean agertzen dela gogamenean; baina sortzetikoak ez direla ohartzeko moduan, zeren, adi begiraturaz, ikusiko baitugu ez direla sortzetiko ideiak, erdietsiak baizik, zeren haurrek lehenbizi erabiltzen dituzten eta beraien sentimenean bizikien markaturik geratzen diren kanpoko gauzek inprimaturiko lehenengo ideiei dagozkien eta. Horrela erdietsiriko ideietan, batzuk elkarren kide eta beste batzuk bata bestetik ezberdinak direla hautematen du gogamenak, seguraski oroimena erabiltzerik duen unetik, ideia ezberdinak atxiki eta hartzeko gai izan bezain laster. Baina, une horretan edo beste batean gertatu, aurkikuntza hori, ziur, mintzamenara iritsi baino lehen egiten da, edo eskuarki «arrazoimenaren erabilerara» deitzen dugun horretara heldu aurretik, zeren, haur batek mintzatzeko gauza izan baino lehen ere ziur daki gozotasun eta mingostasun ideien artean dagoen aldea (hau da gozoa ez dela mingotsa), geroago, mintzatzeko gai denean, absenta eta konfiteak gauza bera ez direla dakien bezalaxe.

16. *Ustezko sortzetiko egiei ematen zaizen baiespena ez dago haien sortzetikotasunaren menpe, baizik haien terminoek adierazten dituzten ideia argi eta bereizien menpe.*

Haur batek ez daki hiru gehi lau zazpi direnik, harik eta zazpiraino kontatzeko gai izan arte eta berdintasunarentzat izena eta ideia

eduki arte, eta orduantxe soilik, hitz horiek azaltzen zaizkionean, onartzen du proposizio hori, edo, hobeto esanda, horren egia haute-maten du. Baina proposizio hori gogo onez baiesten badu, ez da sortzetiko egia delako; eta haren baiespena ordura arte falta izan bada, ez da izan arrazoimenaren erabilerarik ez duelako eduki; aitzitik, bere gogamenean izen horiei dagokien ideia argi eta bereiziak ezarri bezain laster, argi agertzen zaio haien egia. Eta orduantxe ezagutzen du proposizio horren egia, lehenago makila bat eta gereziondo bat gauza bera ez direla jakiteko izan duen oinarri berarekin eta erabili dituen bitarteko beren bidez, eta geroago «gauza bera izatea eta ez izatea ezinezko dela» jakitera heldu ahal izateko ukanen duen oinarri berarekin, gero xehetasun handiagoz frogatuko dugun moduan. Horretara, zenbat eta beranduago heldu norbait printzipio horiei dagozkien ideia orokorrak edukitzera, edo haiek ordezkatzten dituzten termino orokorren esanahia ezagutzera, edo ordezkatzten diren ideiak bere gogamenean erlazionatzera, orduan eta beranduago baietsiko ditu printzipio horiek, zeren, berorien terminoak, ordezkatzten dituzten ideiekin batera, katuaren edo ogigaztaren ideiak baino sortzetikoagoak ez direlarik, itxaron egin beharko du, denbora eta behaketa bitarteko dela, ideioi berarentzat hurbilagoak izatea lortu arte. Orduantxe izanen du printzipio horien egia ezagutzeko gaitasuna, bere gogamenean ideioi erlazionatzeko eta proposizio horietan adierazten diren moduan ados dauden ala ez dauden ohartzeko parada lehenengoz sortzen zaionean. Eta horrexegatik daki gizaki batek hamazortzi gehi hemeretzi hogeita hamazazpi direla, bat gehi bi hiru direla dakien nabaritasun beraz, jakin ere. Baina haur batek lehenengoa ez daki bigarrena bezain laster, eta ez arrazoimenaren erabilerarik ez duelako, baizik hamazortzi, hemeretzi eta hogeita hamazazpi hitzek ordezkaturiko ideiak ez direlako atzematen bat, bi eta hiru hitzek adierazitakoak bezain azkar.

*17. Printzipio horiek proposatu eta ulertu bezain laster baiesteak ez du frogatzen sortzetikoak direla.*

Gizakiak arrazoimenaren erabilerara heltzen direnean printzipiook eskuarki baiesten dituztela esanez asmatutako ihesbideak benetan huts ematen duenez eta inolako alderik ezartzen ez duenez ideia ustez sortzetikoen eta geroago erdietsi eta ikasten diren beste egien artean, gizaki horiek ahalegin handiak egiten dituzte printzipioak deitzen dituzten horiekiko baiespenei unibertetsala segurtatzeko, esanez

printzipio horiek proposatu eta proposatzeko erabilitako terminoak ulertu bezain laster eskuarki baiesten direla. Ikusirik gizaki guztiek, haurrek berek ere, behin terminoak entzun eta ulertuz gero, proposizio horiek baietsi egiten dituztela, uste dute hori nahikoa dela sortzetikoak direla frogatzeko. Eta gizakiek proposiziook, behin hitzak ulertuz gero, hutsik gabe zalantzarik gabeko egiaztat onartzen dituztenez gero, hemendik atera nahi da alde z aurretik adimenean zeudela, zeren inolako irakaspenik gabe gogamenak proposatu eta berehala ezagutu eta onartzen baititu, gero ez dituelarik sekula zalantzatan jartzten.

18. *Baiespen hori sortzetikoak diren ezaugarri balitz, orduan, «bat gehi bi hiru direla, gozoa ez dela mingotsa» eta horrelako mila proposizioek sortzetikoak izan beharko lukete.*

Aurrekoari erantzunez, galdetzen dut: proposizio bati, lehenengoz entzutean eta haren hitzak ulertzean, ematen zaion berehalako baiespena sortzetiko printzipio den ezaugarri ote da, bada? Horrela ez bada, baiespen jeneral hori alferrik ekartzen da sortzetiko printzipioak direla frogatzeko; baina sortzetikoaren ezaugarri dela badiote, onartu beharko dute entzuten eta ulertzen diren une berean eskuarki baiesten diren proposizio guztiak direla sortzetikoak, eta orduan sortzetiko printzipioz gainezka aurkituko dira. Izan ere, horren arabera, hau da, printzipio horiek sortzetikoak direla onartzeko terminoak lehenengoz entzutean eta ulertzean emandako baiespenaren argudioa erabiliz gero, onartu beharko da zenbakiei buruzko zenbait proposizio ere sortzetikoak direla. Horrela, bat gehi bi berdin hiru, bi gehi bi berdin lau eta zenbakiekiko horrelako makina bat proposizioek, entzun eta terminoak ulertu ahala mundu guztiak baiesten dituenak, beren lekua izan beharko dute sortzetiko axiomen artean. Eta ez da hau zenbakiek soilik eta zenbaki batzuen inguruko proposizioek duten eskubidea; filosofia naturalak eta gainerako zientziek ere eskaintzen dituzte behin ulertuz gero berehala baiespena jasotzen duten proposizioak. «Bi gorputz ezin egon direla leku berean», inork eragozpenik jarri ezin dion egia dugu, beste proposizio hauek bezalaxe, alegia, «ezinezko dela gauza bera izatea eta ez izatea», «zuria ez dela beltza», «laukia ez dela zirkulua», «mingostasuna ez dela gozotasuna». Proposizio horiek guztiak eta beste horrelako milioi bat, edo behintzat guk ideia bereziak eratuz atzeman ditzakegun guztiak, gizaki zentzudun orok baietsi beharko ditu ezinbestez, entzun eta ezagutzean izenak zeren

ordezko diren. Gizon horiek, beraz, beren arauetikiko zintzo jokatzuz, entzun eta terminoak ulertu eta berehala baiespina ematea sortzetikoaren ezaugarri dela atxiki behar badute, zenbat ideia bereizi gizakien gain hainbat sortzetiko proposizio direla ez ezik, beste hau ere onartuko beharko dute: gizakiak ideia ezberdin elkar ukatzailez osaturiko proposizioak egiteko gai diren adina sortzetiko proposizio daudela. Izan ere, batak bestea ukatzen duen ideia ezberdin pareaz osaturiko proposizio bakoitza entzun eta terminoak ulertu eta berehala baietsiko da eskuarki honako printzipio orokor honen arabera, alegia, «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea» eta honen oinarri eta hau baino ulerterrazagoa den beste honen arabera «gauza bera ez da gauza ezberdina»; eta horretara, kontatu ezin ahala sortzetiko proposizioak izan beharko dute mota horretakoak soilik, bestelakorik aipatu gabe ere. Honi gehitzen bazaio proposizio bat ezin dela sortzetikoa izan osatzen duten *ideiak* ere sortzetikoak ez badira, suposatu beharko da guk ditugun kolore, hots, zapore, zenbaki eta abarren ideia guztiak sortzetikoak direla, hau arrazoiaren eta esperientziaren zeharo kontra-koa delarik. Baiespen unibertsal eta berehalakoa, lehenbizi entzun eta terminoak ulertu eta berehala ematen dena, proposizioaren baitako nabaritasunaren ezaugarri bat da, onartzen dut; baina berezko nabaritasun hau ez da sortzetiko inpresioek eragina, baizik zenbait proposiziori dagokion eta inork ere —horretarako bezain nabarmena izan ezin eta— sortzetikotzat jo ez duen zerbaitek sortarazia, geroago frogatuko dugun moduan.

*19. Proposizio ez hain orokorrak printzipio unibertsal horiek baino lehenago ezagutzen dira.*

Ez dago, ezta ere, esaterik proposizio berez nabari partikular horiek, lehenbizi entzutean baiesten direnak, hala nola, «bat eta bi hiru direla», «berdea ez dela gorria» eta horrelakoak, sortzetiko printzipiotzat jotzen diren proposizio unibertsal horien ondorio gisa hartzen direla; zeren, adimenean jazotzen denaz ohartzeko lana hartzen duenak ikusi ahal izanzen baitu hain orokorrak ez diren beste proposizio horiek eta antzekoak ziurtasunez ezagutu eta irmotasunez baiesten dituela beste printzipio orokorrak inondik ere ezagutzen ez dituen jendeak. Horregatik, gogamenean lehen printzipio deritzen horiek baino lehenago daudenez, ezin zaie eman horiei partikularragoei lehenbizi entzutean ematen zaien baiespina.

20. *Bat eta bat bi direla eta horrelakoak proposizio orokorrak ez baliagarriak ez direla diotenei erantzuna.*

Proposizio horiek, hala nola, «bi eta bi berdin lau», «gorria ez da urdina» eta horrelakoak ez direla orokorrak ez baliagarritasun handikoak diotenei nik ihardesten diet horrek ez diola inolako eraginik egiten entzun eta ulertuz gero eskuarki baiespena ematearen argudioari. Izan ere, hori sortzetikoaren ezaugarria dela onartzen badugu, entzun eta ulertu ahala eskuarki baiesten den proposizio oro sortzetikotzat hartu beharko da, honako printzipio honen arabera: «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea», zeren zentzu honetan berdinak baitira. Eta azken printzipio hau orokorragoa izateari dagokionez, horrek sortzetikoa izatetik oraindik urrunago jartzen du, zeren gure lehen atzematerako arrotzagoak baitzaizkigu, berez nabariak diren proposizio partikularragoak baino; eta horregatik garatzen ari den adimenak denbora gehiago behar du haiek onartu eta baiesteko. Eta kontzeptu goraiatu horren baliagarritasunari dagokionez, kontu hau dagokion lekuan zehatzago aztertzeko ordua heltzen denean, ikusiko dugu ez dela eskuarki uste den bezainbatekoa.

21. *Batzuetan printzipio horiek proposatu arte ez ezagutzeak sortzetikoak ez direla frogatzen du.*

Baina oraindik bada zerbait gehiago esateko, «zenbait proposizio entzun eta terminoak ulertu bezain laster emandako baiespenari» buruz. Komeni da lehenengo eta behin konturatzeari hori, sortzetikoak izatearen ezaugarria barik, kontrakoaren froga dela, zeren honako hau suposatzen baitu, alegia, beste gauza batzuek ulertzen eta ezagutzen dituzten batzuek ez dakitela ezer printzipio horiez harik eta norbaitek proposatu arte, eta egia horiez ohartu gabe egon daitezkeela beste batzuen ahotik entzun arte. Izan ere, sortzetiko printzipioak balira, zertarako lukete proposatu beharrik gure baiespena jaso ahal izateko, berezko eta jatorrizko inpresioz gure adimenean izanik (inpresiook badirela jota), nahitaez lehenago ezagutuak izan beharko lukete eta? Edo proposatzeak akaso naturak baino argiago inprimatzen ote ditu, bada, gogamenean? Horrela balitz, ondorioz printzipio horiek norbaitek irakatsi ondoren lehenago baino hobeto ezagutuko genituzke. Eta hemendik letorke printzipio horiek argiago jarriko lituzkeela beste norbaiten irakaspenak, naturaren inprimaketak baino; eta hau gaizki uztartzen da sortzetiko printzipioen iritziarekin eta autoritate guztia kentzen die, horrek erabat desego-

ki egiten baititu, omen diren bezala, gure beste ezagutza guztien oinarri izateko. Ez dago ukatzerik gizakiek berez nabariak diren egia horietako askoren berri, proposatzen zaizkienean jakiten dutela; baina argi dago orduantxe hasten direla lehenago ezagutzen ez zuten eta aurrerantzean zalantzatan jarriko ez duten proposizio bat ezagutzen; baina ez sortzetikoa delako, baizik hitz horiek barruan dauzkaten gauzen izaerak beste era batera pentsatzen uzten ez dielako, horretaz modu batera zein bestera gogoeta egiten duten guztian. Eta lehenengoz entzun eta terminoak ulertu ondoren baiesten dugun guztia sortzetiko printzipiotzat hartu behar badugu, orduan kasu partikularretatik oinarri onaz aterariko oharpen orok sortzetikoa izan beharko du. Hala ere, ez dira ez guztiak, adimenik zorrotzenekoak baizik, oharpen horiek egitea eta sortzetikoa barik aurretik landu eta hausnarturikoak diren kasu partikularretatik deduzituriko proposizio orokorrak diren biltzea lortzen dutenak. Proposizio horiek ohartasunez aztertzen dituztenek ohartasunik gabeko-ei proposatzean, hauek ezin ukatu die beren baiespera.

*22. Printzipio horiek proposatu aurretik inplizituki ezagutzeak gog amena beroriek ezagutzeko gai dela esan nahi du, edo bestela ez du deus ere esan nahi.*

Esanen balitz adimenak printzipio horien ezagutza *inplizitua*, baina ez *esplizitua*, duela lehenengoz entzun aurretik (defendatzen dituztenek onartu beharko dute «ezagutu aurretik daudela gogamenean»), ez legoke erraz bururatzen zer esan nahi duen gogamenean inplizituki inprimaturiko printzipioen kontu horrek, gogamena printzipio horiek ulertzeko eta irmoki baieستeko gai dela esan nahi ez badu bederen. Baina orduan frogapen matematiko guztiak, baita lehen printzipioak ere, gogameneko sortzetiko inpresiotzat hartu beharko dira; eta hau, beldur naiz, nekez onartuko dute proposizioak frogatzea frogatu ondoren baiestea baino zailago dela dakitenek. Eta matematikari oso gutxi egonen da onartzeko prest beraiek marrazturiko diagrama guztiak naturak gogamenean inprimatzen dizkien sortzetiko ezaugarrien kopia hutsa besterik ez direla.

*23. Lehenengoz entzutean baiespera ematearen ar gudioa suposizio faltsu baten gainean oinarrituta dago: alde aurretiko irakaspenik ez dagoen ustean.*

Beldur naiz aurreko argudioan beste ahulezia bat ez ote dagoen; erabili ere, gizakiok lehenengoz entzutean onartzen ditugun prin-



tzipioak sortzetikotzat har ditzagun konbentzitzeko erabiltzen duten argudioa da, aurretik ikasi gabe baiesten ditugulako eta, argumentu edo frogapenen baten indarrez barik, terminoen azalpen edo ulermen hutsez onartzen ditugun printzipioak direlako. Horren azpian, ene ustez, falazia haxe ezkutatzen da, alegia, gizakiei ez zaiela ezer irakasten eta ez dutela berriren berri, *deno vo*, ezer ikasten uste izatea, egiatan, ordea, lehen ez zekiten zerbait irakasten zaienean eta ikasten dutenean. Zeren, lehenik, begi-bistakoa baita ikasi dituztela terminoak eta berauen esanahia, inor ere ez zelarik jaio bi horiek jakinik. Baina hori ez da kasu horretan hartzen den ezagutza guztia; gizakiak ez ziren jaio, hitzekin jaio ez ziren moduan, proposizioaren ideiekin ere, geroago eskuratu baitzituzten. Era horretan, entzun baino ez baiesten diren proposizio guztietan ez terminoak, ez berauek duten esangura, ez adierazitako ideiak sortzetikoak ez badira, proposizio horietan sortzetikoa den zer geratzen ote den jakin nahi nuke. Eta baten batek badauka sortzetiko terminoak edo ideiak dituen proposizioaren bat, gustatuko litzaidake, biziki gustatu ere, zein den esanen balit. *Mailaka* jabetzen gara ideiez eta izenez eta *ikasten* ditugu beraien artean dauden lotura egokiak; gero esanahia ikasi diegun hitzetan formulaturiko proposizioen artean dauden loturak ikasten ditugu eta, gure ideietan, alderatzean, hautesmaten dugun adostasuna edo desadostasuna aintzat hartuta, entzun eta berehala baiesten ditugu, nahiz eta, berez hauek bezain egiazko eta nabariak izanik ere, hain agudo eta aise atzemangarriak ez diren ideiei buruzko beste proposizio batzuei dagokienez, ez garen izaten modu berean baiesteko gai. Izan ere, haur batek, adibidez, berehala baiesten du proposizio hau: «Sagarra ez da sua», eguneroko eza-guera arruntaz bere gogamenean bereiz inprimaturiko bi gauza ezberdin horien ideiak hartu dituenen eta sagar eta su izenak haien ordezkotz direla ikasi duenean; baina agian zenbait urte igaroko dira, haur berorrek beste proposizio honi «Ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea» baiespena eman arte; izan ere, hitzak agian neurri berean errazak izan arren, hala ere, haien esanahia haurrak inguruan dituen gauza haiei emandako izenena baino zabalagoa, abstraktuagoa eta ulertzeko zailagoa denez gero, luzeago joko dio hitz abstraktu horien esanahi zehatza ikasteak eta, jakina, denbora gehiago beharko du hitz horiek ordezkaturako ideia orokorrak gogamenean eratzeke. Hau gertatu arte, alferrik ahaleginduko gara haur batek horrelako termino abstraktuez eraturiko proposizio bati baiespena eman diezaion lortzen; ideia

horiek hartu eta dagozkien izenak ikasi bezain laster, erraztasun berberaz atzemanen ditu aipatu ditugun proposizio biak, arrazoi beragatik bata eta bestea: gogamenean dituen ideiak bata bestearekin ados edo desados direla ohartzen delako, ideiak ordezkatzeko erabilitako hitzek proposizioan elkar baieztatzen edo ezeztatzen dutela ikusita. Baina haurrari oraindik bere gogamenean ez dituen ideiak ordezkatzeko dituzten hitzez egindako proposizioak aurkezten bazaizkio, berez nabariki egiazkoenak edo gezurrezkoenak izanik ere, ez du baieztatzerik ez ezezterik ukanen, haietaz ezjakin da eta. Zeren hitzak, gure ideien zeinu izatetik aparte hots hutsak besterik ez direnez gero, baietsi egin behar ditugu gure ideiekin bat datozen heinean, baina ez hortik harago. Baina, ezagutza gure gogamenera zein urratsen bidez eta nola heltzen den eta gure baiespeneren maila ezberdinen oinarriak zein diren hurrengo Diskurtsoko gaia denez, nahikoa izan da hemen ukitzea soilik, sortzetiko printzipio horiez zalantzatan jarri ninduen arrazoietakoa bat bezala.

*24. Ez dira sortzetikoak, unibertsalki baietsiak ez dira-eta.*

Baiespen unibertsalari buruzko argudio honi amaiera emateko, bat nator sortzetiko printzipioen defendatzaileekin honako honetan, alegia, sortzetikoak baldin badira, baiespen unibertsala jaso behar dutela uste izatean. Izan ere, egia bat sortzetikoa izatea eta baietsia ez izatea, norbaitek aldi berean egia bera ezagutzea eta ez ezagutzea bezain ulertezina da ene ikusiz. Baina, kasu horretan, defendatzaileek berek aitortzen duten moduan, printzipio horiek ezin dira sortzetikoak izan, terminoak ulertzen ez dituztenek, ezta ulertu bai, baina proposizio horiek sekula entzun ez pentsatu ez dituzten askok ere baiespenerik ematen ez dietenez gero, horiek, nire iritzirako, gizateriarik erdi bederen badiarelarik. Baina kopuru hori askoz txikiagoa dela jota ere, nahikoa da baiespen unibertsalaren argudioa deusezteko eta, beraz, proposizio horiek sortzetikoak ez direla frogatzeko, haurrek bederen ez dituztela ezagutzen soilik onartuta ere.

*25. Printzipio horiek ez dira lehenbizi ezagutzen direnak.*

Baina, aurpegira ez diezadaten ezagutzen ez ditugun haurren pentsamenduetatik argudiatzen eta haien adimenetan gertatzen denaz haurrek berek ezer esan aurretik ondorioak ateratzen ari naizela, gehituko dut aipaturiko proposizio biak ez direla haurren gogamenean lehenbizi agertzen direnak, ezta nozio erdietsi eta kanpotik etorri

guztien aurretikoak ere, sortzetikoak balira gertatu behar lukeen moduan. Zein unetan agian zehatz esaterik ez badugu ere, eta honek ez du garrantzirik, bada, izatez, haurrak pentsatzen hasten diren aldi bat, eta bai haien hitzek bai egintzek segurtatzen digute hori. Pentsatu, ezagutu eta baiesteko gauza direlarik, beraz, ba al da arrazoiz uste izaterik ez dituztela ezagutzen naturak inprimatu dizkien nozio horiek, horrelakorik baldin bada? Ba al da imajinatzerik, nola-baiteko itxurazko arrazoiz, kanpoko gauzen inpresioak hartzen dituztela, aldi berean naturak berak lan hori bere gain hartuta inprimaturiko karaktere horien erabat ezjakitun direlarik? Gai ote dira haurrak kanpoko nozioak jaso eta baiesteko, aldi berean ustez beren izatearen oinarri-oinarrian ehundurikoak eta beren ezagutza erdietsien eta geroko arrazoiketa guztien oinarri eta gidargi gisa karaktere ezabaezinez han inprimaturikoak ezagutzen ez dituzten artean? Hori naturak alferreko lana egin duela edo behintzat oso gaizki inprimatzen duela suposatzea litzateke, haren karaktereak ezin dituztelako irakurri, beste gauza batzuk, hala ere, ezin hobeto irakurtzen dituzten begiek. Eta oso gaizki suposatzen da horiek egiaren zatirik argienak eta gure ezagutza osoaren oinarria direla, ez direlako lehenbizi ezagutzen ditugunak eta horiek gabe beste gauza batzuen ezagutza ziuerra erdiets daitekeelako. Haurrak dudarik gabe daki elikatzen duen inudea ez dela jolas lagun erabiltzen duen katua, ezta hainbesteraino beldurtzen duen mamurrua ere, eta ziurtasun osoz daki arbuioz ezeztzen duen piperra edo mustarda ez dela gogoz eskatzen duen sagarra edo azukrea; baina ba ote da inor esanen duenik haurrak ezagutza horiei eta beste batzuei ziurtasun osoko baiespena «gauza bera izatea eta ez izatea ezinezko dela» dioen printzipioaren indarrez ematen diela? Edo haurrak printzipio horien ulerpen edo nozioaren bat baduela dioenik, beste egia asko ezagutzen dituela argi agertzen duen adinean? Haurrak jada biberi eta txintxirrinaren adinean horrelako espekulazioetan ibiltzen direla defendatzen duena agian bidez jo daiteke adin horretako haurtxoak baino bere iritziekiko grinatsuago eta suharragotzat eta, aldi berean, ez hain egiatizat.

## 26. *Ez dira, bada, sortzetikoak.*

Horregatik, egia izanik ere badirela zenbait proposizio orokor baiespen berehalako eta iraunkorra jasotzen dutenak, gizaki heldu eta ideia orokorrago eta abstraktuagoen eta ideioi ordezkatzen dituz-

ten izenen erabilerara iritsi denari proposatzen zaizkionean, hala ere, hori adin samurrekoen kasua ez denez gero, hauek, hala eta guztiz ere, beste gauza batzuk ezagutzen dituztelarik, proposizio haiek ezin dute erdietsi adimendun pertsona guztien baiespen unibertsala eta, horregatik, ezin dira sortzetikotzat hartu; izan ere, ezinezko baita sortzetikoa den edozein ideia (horrelakorik balitz) ezezaguna izatea, beste zer edo zer ezagutzen duenarentzat bederen. Bada, sortzetiko egia badira, sortzetiko pentsamenduak izan behar dute: ez baita egiarik gogamenean inoiz hartaz pentsatu gabekorik. Hemendik begi-bistakoa da ezen, sortzetiko egiarik balego beraiek izan behar-luketela nahitaez lehenbizi pentsaturikoak, gogamenean lehenbizi agertuko liratekeenak.

*27. Ez dira sortzetikoak, sortzetikoa dena argien agertu behar litzatekeen tokian gutxien agertzen direlako.*

Aztertzen ari garen proposizio orokorrak ez dituztela haurrek, tentelek eta gizateriaren zati handi batek ezagutzen frogatua dugu jada behar bezainbatean eta, hemendik, begi-bistakoa da ez dutela baiespen unibertsalik jasotzen eta ez direla inpresio orokorrak. Baina beste argudio bat ere bada horien sortzetikotasunaren kontra: karaktere horiek sortzetikoak eta jatorrizkoak balira, garbiago eta argiago agertuko liratekeela haien lorratzik ere aurkitzen ez diegun pertsonengan; eta, ene iritziz, argudio sendoa da hau printzipioon sortzetikotasunaren kontra, zeren, sortzetikoak balira haien indar eta bizitasun handiena hartu behar luketenez gutxien ezagutzen baitituzte. Izan ere, haurrak, tente-lak, basatiak eta jende eskolagabea beste guztien artean azturek eta erdietsitako iritziek gutxien usteldurikoak dira; ikasketek eta hezkuntzak ez dizkiete sortzetiko pentsamenduak birmoldatu, eta doktrina arrotz eta kixkorrak sartzeak ez dizkie naturak han idatzitako karaktere ederrak gandutu, eta, horregatik, arrazoizko litzateke pentsatzea *haien* gogamenetan sortzetiko nozio horiek argi agertu behar luketela bakoitzaren bistara, haurren pentsamenduak agertzen diren bezalaxe. Arrazoiz espero izatekoa da gizaki naturalek printzipio horiek hobezinko ezagutzea, haien ustez ariman zuzenean inprimaturiko printzipioak baitira eta gorpuzkeraren ez organoen menpe inola ere ez daudenak, horien eta besteen artean aitor duten diferentzia bakarra berau. Printzipio horiek defendatzen dituztenek diotenaren arabera, batek uste izan behar luke sortzetiko argi-dirdiratzeko horiek guztiek (horrelakorik

balitz) ezer gordetzen ez dakienengan eta engainatzeko jokutriarik eza-  
gutzen ez dutenengan distiratuko luketela beren argitasun guztian, han  
duten presentziaz gu zalantzarik gabe uzteko, beren plazerrarekiko  
maitasunaz eta oinazearekiko atzerakadaz dudarik gabe uzten gaituz-  
ten bezalaxe. Baina, zoritxarrez, zein dira haur, tentel, basati eta zeha-  
ro eskolagabeengan aurkitzen ditugun sententzia orokorrak edo ezagu-  
tza-printzipio unibertsalak? Haien nozioak gutxi eta laburrak dira,  
gehien erabili dituen eta sentimenetan maizen inpresio biziena egin  
dioten objektuetatik ateratakoak. Haur batek bere zaintzailea eta bere  
sehaska ezagutzen ditu, eta poliki-poliki nagusitxoagoei dagozkien  
jostailuak ezagutuz joaten da; eta basati gazteak, agian maitasunez eta  
ehizaz beterik du burua, bere tribuaren azturen arabera. Baina, hezi  
gabeko haur batengan edo basati batengan sententzia abstraktu horiek  
eta zientziaren printzipio ospetsu horiek aurkitzea espero duenak bere  
burua erraturik ikusiko ez ote duen beldur naiz. Mota horretako pro-  
posizioak oso bakanki aipatzen dira indiarren txaboletan, gutxiagotan  
aurkituko ditugu haurren gogamenetan eta horrelako inpresiorik ez da  
ageri gizaki primitiboen gogamenetan. Printzipio horiek nazio ikasie-  
tako eskola eta akademietako hizketa moldeak eta kontua dira, eztabai-  
dan maiz jardun ohi dutelarik, horrelako hizketaldi eta ikasketara ohi-  
turik baitaude, printzipiook argudiaketa artifizialerako egokiak eta  
konbentzitzeko baliagarriak direlarik, baina ez hainbeste gizakia egia  
aurkitzera edo ezagutzen aurreratzera eramateko. Baina izanen dut  
parada ezagutza hobetzeko duten baliagarritasun kaxkarraz zabalago  
hitz egiteko (IV. Lib., VII. kap.).

#### 28. *Laburbilpena.*

Ez dakit honi absurdua iritziko oten dioten demostrazioko  
maisuek. Eta seguraski inork ere ez du onartuko lehen ikusian. Horregatik,  
aurreiritziari tregua eta gaitzespenari pazientzia eskatu  
behar diet, harik eta Diskurtso honen amaiera entzun arte, judizio  
hobearen pean jartzeko gogo biziz aurkitzen naizelarik. Eta egia-  
ren bila inpartzialtasunez dihardudanez gero, ez daukat eragozpenik  
neure iritzien zaleegia izan naizela onartzeko, denok izan gaitzke-  
ela horrelakoak aitor baitut, dedikazioak eta estudioak burua bero-  
tu digutenean.

Gai hau oro har aztertutik, ezin aurki dezaket oinarriarik prin-  
tzipio espekulatibo bi horiek sortzetikoak direla pentsatzeko, ez dire-

lako unibertsalki baietsiak, hain eskuarki ematen zaien baiespena sortzetikotzat hartzen ez diren beste proposizio batzuei ematen zaiena bera delako eta baiespen hori inskribaketa natural baten bidez barik, beste era batera sortzen delako, hurrengo Diskurtsoan argi erakusten ezbairik gabe saiaturiko naizen moduan. Eta ezagutza eta zientziako lehen printzipio *horiek* sortzetikoak ez direla aurkitzen baldin badugu, *beste ezein* printzipio espekulatibok ere ez du, nire ustez, eskubide hoberik izanen sortzetikoa izateko.

## II. KAPITULUA

### Ez dago sortzetiko printzipio praktikorik

1. *Ez dago printzipio moralik, aurrean aipaturiko printzipio espekulatiboak bezain argi eta eskuarki onartua denik.*

Baldin aurreko kapituluan aztergai izan ditugun printzipio espekulatiboek, frogatu dugun moduan, gizateriaren baiespen benetan unibertsala jasotzen ez badute, printzipio *praktikoei* dagokienean askoz argiago agertzen da baiespen unibertsala hartzetik urrun geratzen direla; eta uste dut nekez aurkez litekeela «Badena, bada» printzipioak bezainbateko baiespen berehalako eta orokorra jasoko duen arau moralik, edo «Ezinezkoa da gauza bera izatea eta ez izatea» den bezainbateko egia nabaririk. Hemendik begi-bistan agertzen da printzipio praktikoa sortzetikoak izateko eskubidetik urrunago daudela eta beraiei buruz besteez baino indartsuagoa dela gogamenean inprimaturiko inpresioak izateari buruz dugun zalantza. Baina ez da zalantzatan jartzen haien egia. Era berean egiazkoak dira, nahiz eta ez era berean begi-bistakoak. Printzipio espekulatiboak aldean daramate nabaritasuna; printzipio moralek, ordea, arrazoiketa eta diskurtsoa behar dute, eta adimena erabiltzea ere bai, beren egiaren ziurtasuna deskubritzeko. Ez dira agertzen gogamenean grabaturiko karaktere natural gisa, horrelakorik balego, berenez ikusgarriak eta beren argiagatik edonork ezagutzeko modukoak izan beharko luketelarik. Baina inola ere ez da hau beraien egiaren ez ziurtasunaren derogazioa, triangelu baten hiru

angeluak bi zuzen adina direla dioen egiaren derogazioa ez den bezalaxe, «osoa bere zatia baino handiagoa izatea» bezain begi-bistakoa edo lehenbizi entzutean baiesteko hura bezain egokia ez delako soilik. Nahikoa da arau moral horiek frogagarriak izatea eta, horregatik, horiek nolabait ezagutzera heltzen ez bagara, geure errua da. Baina gizaki askok horietaz duten ezjakintasunak eta beste batzuek beroriek baiesteko erakusten duten geldotasunak argi frogatzen dute ez direla sortzetikoak eta bilatu aurretik ez direla gizakien bistara agertzen.

## *2. Gizaki guztiek ez dute onartzen leialtasuna eta justizia printzipioak direnik.*

Gizaki guztiek bat etorritik onartzen duten printzipio moralik dagoen jakiteko, gizateriaren historian dokumentatu samar den eta bere etxeko tximiniaren keetik harago begiratu duen edonoren judioziora jotzen dut. Non dago unibertsalki dudarik ez eragozpenik gabe, sortzetikoa izanez gero behar duen moduan, onartua den egia praktikoko hori? *Justizia* eta kontratuak betetzea gizaki gehienek ados dauden gaiak direla dirudite. Printzipio hau lapurren gordelekuetara eta gaizkilerik handienek erkidegoetara ere hedatzen dela uste da, eta gizatasuna ukatzera heldu direnek berek ere, elkarrenganako justizia eta leialtasun legeak zaintzen dituzte. Onartzen dut gaizkileek ere egiten dutela hori elkarrekin, baina ez printzipio horiek naturaren sortzetiko legetzat hartu dituztelako. Legeok komenentziako arau moduan betetzen dituzte beren erkidegoen barruan, ezin baitaiteke burura justizia printzipio praktikotzat onartzen duenik, gaizkideekin zuzen jokatzeko duen bitartean bidean topatzen duen lehenengo gizaki onesta lumatu edo hiltzen duenak. Justizia eta leialtasuna gizateriaren lokarri komunak dira eta, horregatik, mundu guztiarekiko lotura guztiak apurtu dituzten gaizkile eta lapurrek ere emandako hitza eta ekitate arauak bete egin behar dituzte beren artean; edo bestela ez dute elkarturik irauterik. Baina ba al da inor esanzen duenik iruzur eta lapurretatik bizi direnek aintzat hartu eta baiesten dituzten egiaren eta justiziaren sortzetiko printzipioak dituztela?

## *3. Objektzioa: Gizakiek beren praktikan ukatu egiten badituzte ere, onartu egiten dituzte beren pentsamenduetan. Horri erantzuna:*

Agian defendatuko da haien gogamenen baiespen tazitua ados dagoela haien praktikak ukatzen duenarekin. Honi ihardesten



diot, lehenik, beti pentsatu izan dudala gizakien ekintzak haien pentsamenduen interpretari onenak direla. Baina, gizaki gehienek egintzek eta batzuen deklarazio nabariak printzipio horiek zalantzatan jarri edo ukatu dituztela gauza ziurra denez gero, ezin ezar daiteke adostasun unibertsalik (gizaki helduen artean soilik ere), eta hori gabe ez dago horien sortzetikotasunaren ondorioa ateratzerik. Bigarrenik, ordea, oso arraroa eta arrazoigabekoa da kontenplazio hutsean bukatzen diren printzipio praktikoak sortzetikotzat jotzea. Printzipio praktikoak, naturatik eratorriak, jokabiderako dira eta ekintza-adostasuna sortu behar dute eta ez beren egiarekiko baiespen hutsa, edo bestela alferrik bereizten ditugu printzipio espekulativoetatik. Naturak, onartzen dut, zorion desira eta zoritxarrarekiko atzerakada ezarri ditu gizakiaren baitan. Hauek benetan ere sortzetiko printzipio praktikoak dira, printzipio praktikoei dagokien bezala, iraunkorki *dihardutenak* gure egintza guztietan etengabeko eragimena gauzatuz. Pertsona guztiengan eta adin guztietan hauteman daitezke, beti eta unibertsalki; baina *apetituak joera* dira, ongirako joerak, eta ez egi inpresioak adimenean. Ez dut nik ukatzen joera naturalak daudenik gizakien gogamenetan inprimaturik; ez eta, sentimen eta pertzepzio instantziak dauden lehen unetik, gizakiei gauza batzuk laketsu zaizkiela eta beste batzuk gaizki hartzen dituztela; gauza batzuek tiratu egiten dietela eta beste batzuek alde eragin; baina honek ez dakar ezer gogamenean inprimaturiko sortzetiko karaktereen alde, hau da, gure praktika erregulatzen duten ezagutza printzipioak liratekeen alde. Hain urrun dago hau adimeneko inpresio natural horiek berrestetik, non esandakoa haien kontrako argudio gertatzen den, zeren naturak adimenean ezagutzaren printzipio moduan inprimaturiko karaktere ziurrik balego, nahitaez hauteman beharko genituzke, gure baitan etengabe jardunez gure ezagutza eragina baitute, besteak nahimenean eta apetituan eragiten hautematen ditugun bezalaxe, gure egintza guztien etengabeko motibo eta eragingailu direlarik eta beti egintzotara guri indartsu bultzaka nabaritzen ditugularik.

#### 4. *Araumoralak frogak behar dituzte; ez dira, beraz, sortzetikoak*

Beste arrazoi bat sortzetiko printzipio moralez zalantzatan jartzeko nauena hau da, alegia, uste dudala *ezin proposa daitezkeela arau moral bat bera ere, besteek horren arrazoiak eskatzeko eskubi* -

*derik eduki ga be*, hau erabat barregarria eta absurdua bailitzateke, sortzetikoak edo berez nabariak bederen balira; izan ere, horixe izan behar du ezinbestez sortzetiko printzipio orok eta ez du inolako frogarik behar guk bere egia hauteman dezagun, ezta arrazoirik ere onespena eman diezaiogun. Sen komunik gabekotzat joko litzateke gauza bera izatea eta ez izatea ezinezko *zergatik* den ulertzeko arrazoia, era batera edo bestera, eskatuko lukeena. Proposizio horrek aldean darama bere argia eta nabaritasuna eta ez du inolako frogarik behar. Terminoak ulertzen dituenak berez emanen dio baiespena proposizio horri, edo bestela ezerk ere ez dio gogoan eraginik egingen eman diezaion. Baina sekula lehenago entzun gabeko, baina ulertzeko gai den norbaiti gizarte-bertute ororen oinarri den moraltasuneko arau lokagaitz hura, «norberak besteekin besteek norberarekin jokatzea nahi lukeen bezala jokatu behar duela» dioena alegia, proposatuko balitzaio, ez ote luke galdetzerik, absurdukerian erori gabe, *zergatik* den hori horrela? Proposatzailea ez ote legoke proposizio horren egia eta arrazoizkotasuna azaltzera beharturik? Horrek argi erakusten du ez dela sortzetikoa, sortzetikoa balitz, ez lukeelako frogarik beharko ez hartuko, inork dudatan jar ezin dezakeen egia ezta baidaezin gisa hartu eta baietsia izan beharko luke eta (entzun eta ulertu bezain laster bederen). Era honetan, arau moral guztion egia beraien aurretikoa den zerbaiten menpe dago argi eta garbi eta bertatik *deduzitu* beharrekoa da, eta hori ezinezko litzateke sortzetikoak, edo berenez nabariak bederen, balira.

### 5. Adibidea: itunak bete beharra.

Gizakiek beren itunak bete behar dituztela benetan ere arau moral handi eta ukaezin bat da. Baina, hala ere, beste bizitzako zorion edo zoritxarraren ikuspegia duen kristau bati galdetuz gero *zergatik* dagoen beharturik gizakia emandako hitza betetzera, arrazoia adieraziz erantzunen du: betiko bizitzaren eta heriotzaren agintea duen Jainkoak halaxe galdatzen digulako. Baina galdera bera hobesdar bati eginez gero, erantzunen du publikoak halaxe galdatzen duelako eta, bete ezean, Leviathanek zigortu egingen duelako. Eta hori berori antzinako filosofoen bati galdetu izan balitzaio, erantzun zukeen horrela ez jokatzea desohoragarria, giza duintasunaren azpitikoa eta bertutearen, giza naturaren hobeazintasun gorenaren, kontrakoa litzatekeela.

*6. Bertutea eskuarki, sortzetikoa delako barik, probetxugarria delako da onetsia.*

Hemendik berez datoz gizakiek arau moralei buruz dituzten makina bat eratako iritzi ezberdinak, itxaroten edo erdietsi nahi duten zoriontasun mota ezberdinen arabera; eta hau ezinen litzateke gertatu printzipio praktikoak sortzetikoak eta Jainkoaren eskuak gure gogamean zuzenean inprimatuak balira. Onartzen dut Jainkoaren existentzia modu askotara ageri dela eta zor diogun obedientzia arrazoimenaren argiarekin oso kongruentea dela, halatan non gizateriaren zati handi batek lege natural honen testigantza ematen baitu. Hala ere, uste dut onartu behar dela zenbait arau moralek gizateriaren onespen oso orokorra hartzen dutela moralitasunaren benetako oinarria ezagutu gabe ere, oinarri hori ezin izan daitekeelarik beste ezer, bere eskuan sari eta zigorrak eta iraintzailerik harroena kontuak ematera deitzeko boterea dituen eta gizakia iluntasunean ikusten duen Jainkoaren nahia eta legea baino. Izan ere, Jainkoak bertutea eta gizarte-zoriona lokarri askaezinez lotu zituenetz eta bertutea praktikatzea gizarteak irauteko beharrezko eta gizaki bertutetsuarekin harremanetan daudenentzat nabariki onuragarri izatea egin zuenez gero, ez da harritzekoa arau horiek norberak aintzat hartu ez ezik, besteei gomendatu eta goraiatzea ere, haiek horiek betetzetik norberak ziur jaso uste duen abantailengatik. Ongi aldarrika daiteke, dela interesez dela konbentzimenduz, sakratutzat, behin profanatu eta zapalduz gero, ondorio gisa norbera ere salbu eta seguru ezin sentitzea dakarren oro. Honek, arau horiek nabariki duten obligazio eternal eta moralari ezer kentzen ez badio ere, hala ere argi erakusten du gizakiek beren hitzez ematen dieten kanpoko aintzatespenak ez duela frogatzen sortzetiko printzipioak direla; ez du frogatzen gizakiek beren baitan beren jokabideko lege hautsezintzat baiesaten dituztenik, zeren ikusten baitugu norbere interesak eta bizitza honetako onurek gizaki asko arau moral haiek kanpotik deklaratu eta onetara daramatzatela, nahiz eta beraien ekintzek ongi asko erakutsi ezer gutxi axola diela arau haiek agindu zituen Legegileak ez arau horien hausleak zigortzeko prestaturik duen infernuak.

*7. Gizakien egintzek sinestarazten digute bertutearen araua ez dela haien barne printzipioa.*

Izan ere, gizabidea alde batera utzita, gizonik gehienek hitzei zintzotasun handiegia iratxiki beharrean, haien ekintzak hartzen

baditugu beraien pentsamenduen interpretaritzat, aurkituko dugu arau horiekiko barne errespeturik ez dutela eta beren ziurtasun eta obligazioari buruz ez daudela guztiz konbentziturik. «Egizu zeuri egitea nahi zenukeen bezalaxe» printzipio moral nagusia gomendatu egiten da, praktikatu baino gehiago. Baina uste izatea arau hau haustea ezin izan daitekeela bizio handiagoa, besteei ez dela arau moralak ez bete beharrekoa irakastea baino, zorakeriatzat hartu behar litzateke, eta gizakiek arau hori haustean hondatzen duten interes horren aurkakotzat. Agian esanen da *kontzientziak* haserre egiten digula hauste horiengatik, era horretan barne obligazioa eta arauaren oinarria salbu uzteko.

#### 8. *Kontzientzia ez da sortzetiko ezein arau moralen froga.*

Honi ihardesten diot ez dudala horretaz zalantzarik egiten, baina, gizaki asko, beren bihotzetan idatzita ukan gabe beste gauza batzuk ezagutzera heltzen diren bezala, zenbait arau moral baiestera eta haien obligazioaz konbentzitzera ere irits daitezke. Beste batzuk heziketari, inguruko lagunei eta beren herriko ohiturei esker hel daitezke gauza berera. Eta konbentzimendu horrek, edozein bidetatik erdietsia izanik ere, kontzientzia jardunean ipintzeko balioko du, hau ez delarik geure egintzen zuzentasun edo zuzengabetasunaz dugun aburua edo judizioa besterik; eta kontzientzia sortzetiko printzipioen aldeko froga balitz, haien aurkakoak ere sortzetiko printzipioak lirateke, zeren, gizaki batzuek, kontzientzia beraz, beste batzuek ekiditen dutena bilatzen baitute.

#### 9. *Inolako arrazirik gabe egindako zigarrak erien adibideak.*

Baina ezin uler dezaket nola edonork hauts ditzakeen arau moralak konfiantza eta baretasunez, sortzetikoak eta bere gogamenean inprimaturikoak balira. Armada bati hiri baten arpilaketan begie-matea besterik ez dago dagitzan gehiegikeria guztietan printzipio moralen nolako betekizun eta sena edo nolako kontzientzia erakusten dituen ikusteko. Lapurreta, hilketa eta bahitura zigorretik eta gaitzespenetik libre uzten diren giza jarduerak dira. Ez al dira egon nazio osoak, eta zibilizatuenetakoak, haurrak basoan abandonatzeko ohitura izan dutenak, gosez hil daitezen, edo patariet janda, ohitura hau haurrak sortzea baino gaitzetsiago edo eskrupulu handiagoz egina ez delarik? Eta beste herrialde batzuetan ez al dituzte haurrak, erditzean ama hilez gero, haren hilobian sartzen, edo desagertarazten, astrolo-

goren batek zorigaiztoko izarra dutela esanez gero? Eta ez al daude lekuak behin adin batera helduz gero seme-alabek, inolako arrangurarik gabe, beren gurasoak hil edo abandonatzen dituztenak. Asiako alde batean, gaixoak, esperantza gabeko egoerara heltzen direnean, kanpora eraman eta lur gainean etzanda uzten dituzte, haizeen eta eguraldiaren pentzutari, inoren laguntzarik ez errukirik gabe hantxe hil daitezen. Mingreliarren artean, fede kristaudun herria berau, kontu arrunta da beren seme-alabak eskrupulurik gabe bizirik ehortzea. Beste leku batzuetan, berriz, gurasoek beren seme-alabak jan egiten dituzte. Karibetarrek beren seme-alabak irendu egiten zituzten loditu eta gero jateko. Eta Garcilaso de la Vega diosku Peruko herri batean umegintzarako ohaidetzat erabiltzen zituzten emakume gatibuengandik izandako haurrak loditu eta jateko ohitura zutela, eta amak eurak ere, haurrak izateko adina igaroz gero, hil eta jan egiten zituztela. Tupinanboek paradisua irabazteko bertuteak mendekua eta etsai ugari jatea zirela sinesten zuten. Jainkoaren izenik ere ez dute ezagutzen eta ez dute erlijiorik ez inolako gurtzarik. Turkiarren artean santu egiten dituztenek, lotsa apur bat duenak kontatu ere ezin lezakeen bizimodua daramate. Jarraian Baumgartenen Bidaiako pasarte interesgarri bat ekarriko dut hona idatzi zen hizkuntzan, ez baita egunero edonon aurki daitekeen liburua. *Ibi (sc. prope Belbes in Aegypto) vidimus sanctum unum Saracenicum inter arenarum cumulos, ita ut ex utero matris prodiit nudum sedentem. Mos est, ut didicimus, Mahometistis, ut eos, qui amentes et sine ratione sunt, pro sanctis colant et venerentur. Insuper et eos, qui cum diu vitam egerint inquinatissiman, voluntariam demum paenitentiam et paupertatem, sanctitate venerandos deputant. Ejusmodi vero genus hominum libertatem quandam effrenem habent, domos quos volunt intrandi, edendi, bibendi, et quod majus est, concumbendi; ex quo concubitu, si proles secuta fuerit, sancta similiter habetur. His ergo hominibus dum vivunt, magnos exhibent honores; mortuis vero vel templa vel monumenta extruunt amplissima, eosque contingere et sepelire maximae fortunae ducunt loco. Audivimus haec dicta et dicenda per interpretem a Mucrelo nostro. Insuper sanctum illum, quem eo loco vidimus, publicitus apprime commendari, eum esse hominem sanctum, divinum ac integritate praecipuum; eo quod, nec faeminarum umquam esset, nec puerorum, sed tantummodo asellarum concubitor atque mularum* Peregr. Baumgarten, II Lib., I kap., 73. or.). Santu turkiar hauei buruz Pietro

della Valle-gan aurki ditzakegu datu gehiago, haren 1616ko urtarrilaren 25eko eskutitzean.

Horren arabera, non daude justizia, jainkozaletasun, esker on, ekitate eta kastitate printzipio sortzetiko horiek? Edo non dago sortzetiko arau horiek badirela segurtatzen digun adostasun unibertsal hori? Dueluetan hilketak, modak ohoregarri bihurtu dituenen, kontzientziaren aladurarik gabe egiten dira. Are, leku askotan kontu honetan errugabe izatea desohorerik handiena da. Eta gure mugez harago begiratzen badugu gizakiak nolakoak diren ikusteko, konturatuko gara leku batzuetan eskrupuluak ukanen dituztela beste batzuetan meritu-garri dena egiteko edo egin gabe uzteko.

#### *10. Gizakiek elkarren aurkako printzipio praktikoak dituzte.*

Gizateriaren historia kontu handiz irakurri eta lurreko herri ezberdinak aztertuz haien ekintzak aurreiritzirik gabe behatzen dituen bete-betean konbentzituko da ezin dela ia printzipio moral ez arau batik ere izendatu, munduko beste leku batean lehenbiziko gizartekoen zeharo aurkako iritzi pragamatiko edo bizi-arauak gidari dituen hango gizartearen ohitura orokorrek meziprezatu eta gaitzetsia ez denik (gizarteari iraunarazteko behar-beharrezkoak salbu, eta hauek ere hautsi egiten dira gizarte ezberdinen arteko harremanetan).

#### *11. Nazio osoek arbuiatzen dituzte hainbat arau moral.*

Honen aurka agian argudia daiteke arau bat hautsia delako ezezaguna dela esatea inondiko argudioa ez dela. Ados nago objektzioarekin, legea legetzat aitortzeari utzi gabe legea hausten dutenen kasuan, desohorea, gaitzezpena edo zigorra jasotzeko beldurrez legerari nolabaiteko errespetuarekin begiratzen diotenean. Baina pentsaezina da nazio oso batek publikoki arbuiatzea eta ukatzea nazio horretako kide bakoitzak hutsezinki legetzat hartzen duena, horrelaxe egin behar bailukete sortzetik beren gogamenetan inprimaturik luketenak. Daitekeena da zenbait kasutan gizakiek beren baitako pentsamenduetan egiazkotzat ez dituzten arau moralak onartzea, arau horien obligazioaz konbentziturik daudenen artean ospea eta estimua mantentzeagatik soilik. Baina imajinaezina da gizarte oso batek publikoki eta espreski arau bat ez onartzea eta bazter uztea eta aldi berean beren gogamenen baitan ziurtasun hutsezinaz legetzat hartzea; eta halaber ez da erraz ez jakitea norbere inguruko jende guztiak bazekiela hori

horrelaxe dela, eta horregatik gizarte horretako kide bakoitzak beste-engandik gizatasunik gabeko eran agertzen direnei izaten zaien mesprezu eta gaitzerizkoa jaso beharko luke, baita on eta txarraren arau ezagun eta naturalak nahasteagatik guztien baretasun eta zoriontasunaren etsai garbitzat baino hartu ezin direnei izaten zaiena ere. Sortzetikoa den printzipio praktiko oro, justu eta ontzat hartu behar du mundu guztiak. Kontraesana baino gutxi gutxiago da, beraz, suposatzea giza nazio osoek aho batez eta unibertsalki gezurta dezaketela, hala esanetan nola praktikan, beren kide guztiek nabaritasun handienaz egiazko, bidezko eta ontzat ezagutzen dutena. Hau nahikoa dugu argi ikusteko lekuren batean unibertsalki eta onespen eta zilegi-uste publikoz hausten den ezein arau praktiko ezin dela sortzetikotzat hartu. Baina badut beste zerbaite ere arestian egindako objekzioari erantzuteko.

12. *Eskuarki onarturiko arauhausteak argi frogatzen du arau hori ez dela sortzetikoa .*

Arau bat haustea, diozue, ez da arau hori ezezaguna dela frogaz dezakeen argudioa. Ados, baina *eskuarki onarturiko* arauhaustea, diot nik, arau hori sortzetikoa ez dela frogatzen duen argudioa da. Har dezagun, adibidez, giza arrazoimenaren dedukzio bidezkoenetakoak eta gizakirik gehienen joera naturalari dagozkionak izanik, inor gutxik adore faltaz ukatzen eta ausartzia faltaz zalantzatan jartzen dituen arau horietako bat. Araurik bada sortzetikoa dela uste izateko modukorik, uste dut ez dagoela «Gurasook, zain eta maita itzazue zeuen seme-alabak» agintzen duenak baino horretarako eskubide gehiagorik duenik. Horregatik, hau sortzetiko araua dela esaten denean, zer ulertu behar da? Bi hauetako bat nonbait, alegia, edo noiznahi ere gizakien ekintzak motibatu eta zuzentzen dituen sortzetiko printzipioa dela, edo gizaki guztiek gogamenean inprimaturik duten egia dela eta horrexegatik ezagutzen eta baiesten dutela. Baina zentzu bietako batean ere ez da sortzetikoa. *Lehenik*, ez dela gizakien ekintzetan eragina duen printzipioa, aurrerago aipaturiko adibideez frogatu dut. Eta ez dago Mingrelia edo Peruraino joan beharrik beren seme-alabak abandonatu, abusuz tratatu eta are suntsitu ere egiten dituztenen kasuak topatzeko; ez eta herri basati barbaro batzuen basakeriei so jarri beharrik ere, gogoratzen dugunengan greziar eta erromatarren arteko praktika arrunt eta gaitzezkabea zela errukirik ez barne aladurarik gabe

beren haurrak bertan behera eta arrisku guztien pean uztea. *Bigarrenik*, gizaki ororentzat ezaguna den sortzetiko egia dela ere faltsua da. Izan ere, «Gurasook zain itzazue zeuen seme-alabak» sortzetiko egia izatetik hain urrun dago, non egia ere ez den, proposizioa barik, agindua delako eta, beraz, egiazkoa ez faltsua izan ezin daitekeena. Egi moduan baieستeko gai izatera heltzeko, honelako proposizio bihurtu beharko litzateke: «Haurrak zaintzea gurasoen betebeharrak da». Baina betebeharrak ezin legerik gabe ulertu; eta legea ezin legegilerik gabe edo sari edo zigorrik gabe ezagutu ez suposatu; era horretan, ezinezko da printzipio hori edo beste edozein printzipio praktikoko sortzetikoa izatea, hau da, betebeharrak bezala gogamenean inprimatua izatea, Jainkoaren, legearen, obligazioaren, zigorraren, oraingoaren ondoko bizitza baten ideiak sortzetikoak direla suposatu gabe. Izan ere, gauza berez nabaria da arau hori ez betetzetik ez datorrela bizitza honetan zigorrik eta, beraz, eskuarki onarturiko praktika kontra duen herrialdeetan ez duela lege indarrik. Baina ideia horiek (guztiak sortzetikoak izan behar dutenak, betebeharraren zentzuan ezer sortzetikorik baldin bada) sortzetikoak izatetik hain urrun daude, non gizaki ikastun eta gogoetatsuek ere ideiak argi eta bereizi aurkitzen ez dituzten, eta askoz gutxiago, jakina, beste guztiek. Eta ideion artean sortzetikoa izateko antzik gehien duena (Jainkoaren ideiaz ari naiz) ez dela sortzetikoa oso argi ikusiko du hurrengo kapituluan, hala uste dut behintzat, pentsatzen dakien orok.

13. *Gizakiek sortzetikoa zer den ez baldin badakite, sortzetiko printzipioek ez diete ziurtasunik ematen.*

Esan den guztitik uste dut ziurtasunez atera dezakegula ondorio moduan edozein lekutan eskuarki eta aurkakotasunik gabe hausten den arau praktikoa ez daitekeela sortzetikotzat jo, ezin dutelako gizakiek lasai eta bare asko hautsi lotsarik eta beldurrik gabe arau bat, arau hori Jainkoak ezarritakoa dela eta hura ez betetzea zigortu egingen duela argi dakitenean (berau jakin beharko luketena, sortzetikoak balira) arauhauslearentzat negozio eskasa izateraino zigortu ere. Horrelako ezagutzarik gabe, gizakiak inoiz ez du ziur jakinen hau edo bestea bere eginbeharrak denik. Legea ez ezagutzeak edo legeaz zalantzak izateak, legegilearen begiraletza edo botereari itzuri egiteko esperantzak eta horrelako beste gauza batzuek gizakia bere apetituei bide ematera bultzatzen dezakete. Baina jo dezagun batera ikusten direla hutse-



gitea eta harengatiko zigorra, arauhaustea eta hura zigortzera datorren  
sua, tentazioa eta Ahalguztidunaren eskua nabarmenki gora jasota  
mendeku hartzeko prest (izan ere hauxe litzateke kasua, eginbeharra  
gogamenean inprimaturiko zerbait balitz), kasu honetan, ikuspegi hau  
eta horrelako ezagutza ziurra dutelarik, esaidazue ea begiramendurik  
ez eskrupulurik gabe zapal dezaketen beren baitan karaktere ezabae-  
zinez inprimaturik dakarten eta hausten ari direla argi agertzen zaien  
lege bat. Esaidazue ea pentsa daitekeen Legegile Ahalguztidunaren  
ediktua beren baitan grabaturik sentitzen dituzten gizakiek haren  
debeku sakratuenak arinkeriaz eta eskudantziak gutxiets eta oinpera  
ditzaketela. Eta, azkenez, esaidazue ea posible den gizaki batek sor-  
tze-tiko lege bati eta Legegile gorenari desafioa botatzen dion bitarte-  
an, inguruko guztiek, herriko agintari eta gobernatzaileek ere, bai  
Lege eta bai Legegilearekiko errespetuaren jabe izan arren, gaizkide  
isil bihurtzea, beren haserrea agertu barik eta legehausleei errurik aur-  
pegiratu gabe. Ekintza printzipioak benetan ere gizakien apetituen  
baitan kokatzen dira, baina hauek urrun daude sortze-tiko printzipio  
moralak izatetik, hain urrun non, baldin askatasun osoan utziko bali-  
ra, gizakiak moraltasun guztia iraultzera eramanez lituzketen. Lege  
moralak neurritz kanpoko desira hauei galga eman eta muga jartzeko  
ezarriak dira, eta hori legea haustetik norbaitek atera uste duen aban-  
tailari kontrapisua jartzeko moduko sari eta zigorren bidez lortzen  
dute. Horregatik, gizaki guztien gogamenetan lege gisa inprimaturik  
ezer balego, gizaki guztiek jakinen lukete ziur eta ezinbestez hura  
haustea zigor ziur eta ekidinezina ekarriko lukeela. Izan ere, gizakiek  
sortze-tikoa zer den ez ezagutzea edo zalantzatan jartzea gerta baldin  
badaiteke, inolako zentzurik gabe ari gara sortze-tiko printzipioen exis-  
tentzia eta beharrianari ekiten. Izan ere, kasu horretan ez dizkigute  
egia eta ziurtasuna (haien bidez lortu nahi dena) ematen, eta gizakiak  
printzipio horiekin, beroriek gabe duten egoera zalantza-balantzatsu  
ziurgabe berean geratzen dira. Sortze-tiko lege baten ondoan hantxe  
izan behar luke beti legehaustea aukeragaitz bihurtzeko moduko zigor  
ekidinezinaren ezagutza nabari eta zalantzarik gabekoa, legea sortze-  
tikotzat jotzean Ebanjelioa ere sortze-tikotzat jo ezean behintzat. Baina  
ez dut gura inork gaizki uler diezadan esan nahi dudana, ez baitu inork  
atera behar nik, sortze-tiko legeak ukatzen ditudalako, lege positiboak  
baino ez direla uste dudala. Alde handia dago sortze-tiko legearen eta  
lege naturalaren artean; hasiera-hasieratik gure gogamenean inprima-

turik dagoen zerbaiten eta, ezagutu ez arren, gure ahalmen naturalak behar bezala erabili eta aplikatuz ezagutzea lortu dezakegun zerbaiten artean. Eta uste dut era berean aldentzen direla egiatik, ertz batera edo bestera joaz, badela sortzetiko lege bat baiesten dutenak, eta naturaren argiaz, hau da errebelazio positiboaren laguntzarik gabe, ezagut daitekeen legerik ez dagoela diotenak.

*14. Sortzetiko printzipio praktikoak defendatzen dituztenek ez dioskute zer diren.*

Hain da handia gizakien artean printzipio praktikoei buruzko iritzietan dagoen aldea, non uste dudan ez daukadala ezer gehiago esan beharrik baiespen unibertsalaren marka daukan sortzetiko arau moralik aurkitzerik ez dagoela frogatzeko; eta hori nahikoa da sortzetiko printzipio horiek iritzi apetatsu baten fruitu bakarrik ez direla sustatzeko, zeren, haietaz konfiantza osoz mintzo direnak oso uzkur baitira *zein diren* esateko. Hau, benetan ere, espero izatekoa zen doktrina hori hain indartsu azpimarratzen dutenengandik; eta horrek mesfidantza sortarazten du edo haien ezagumenaz edo haien karitateaz. Izan ere, Jainkoak gizakien gogamenean ezagutzaren oinarriak eta bizitzeko arauak jarri dituela aldarrikatu arren, hain epelki dira beren ingurukoak informatzearen edo gizateria lasaitzearen aldeko, non ez duten seinalatzen *zein diren* printzipio horiek, gizakien artean horiei buruz hain iritzi anitz eta ezberdinak egon arren. Baina, egia esan, printzipio horiek baleude, ez legoke *zein diren* irakasten ibili beharrik. Gizakiek sortzetiko proposizio horiek beren gogamenetan inprimaturik aurkituko balituzte, erraz bereiziko lituzkete gero ikasitako eta proposizio horietatik deduzituriko egietatik, eta ezer ez litzateke errazagorik zertan dautzan eta zenbat *diren* jakitea baino. Haien kopuruaz geure atzamarren kopuruaz dugun baino zalantza handiagorik ez genuke; eta sistema guztietan agertuko lirateke zerrendaturik. Baina haien katalogoa ematen nik ezagutzen dudan inor ere ez denez oraindik ausartu, printzipio horiez zalantzak egiten dituztenei ezin egotzi diet errurik, kontuan izanda gizakiek sortzetiko printzipio horietan sinetsi egin behar dutela galdatzen dutenek berek ere ez dioskutela *zein diren*. Erraz aurreikus daiteke ezen, sekta ezberdinetako gizaki ezberdinak hasiko balira sortzetiko printzipio praktiko horien zerrenda bat egiten, beren hipotesi ezberdinei dagozkienak eta beren eskola edo eliza partikularren doktrinei eusteko aproposak soilik jarriko

lituzketela, sortzetiko egia-rik ez dagoen froga nabaria berau. Areago, gizakirik asko printzipio moral horiek beren baitan aurkitzetik hain lekutan daude, non, gizateriari askatasuna ukatu eta gizakia makina bihurtzean, sortzetiko arauak ez ezik, arau moral oro arbuiatzen baitute, horietan sinesteko ahalbiderik utzi gabe agente librea ez den zer-bait legerako gai nola izan daitekeen ulertu ezin dutenei. Oinarri honen gainean, bertute printzipio oro arbuiatu beharra izanen dute *moraltasuna eta mekanizismoa*, aise uztargarri edo bateraerraz ez diren bi gauza, elkartu ezin dutenek.

#### 15. Lord Herbert-en sortzetiko printzipioen azterketa.

Hau idatzi eta gero, Lord Herbertek, *De Veritate* izeneko bere liburuan, sortzetiko printzipio horiek finkatu zituela esan zidaten, eta berehala liburu horrexetara jo nuen hain autore bikainarengan auzi horretarako erantzun egokia aurkitzekotan eta, horrela, neure ikerke-tari amaiera emateko esperantzan. *De Instinctu Naturali* izenburua duen kapitulu-uan, 76 or., 1656ko argitarapena, berak *Notitiae Communes* deitzen dienen 7 ezaugarri topatu nituen: 1. *Prioritas*. 2. *Independentia*. 3. *Universalitas*. 4. *Certitudo*. 5. *Necessitas*, hau da, berak azaltzen duen bezala: *faciunt ad hominis conservationem*. 6. *Modus conformationis*, hau da, *assensu nulla interposita mora*. Eta *De Religione Laici* izeneko bere tratatutxoaren azkenean hauxe dio sor-tzetiko printzipio horiei buruz: *Adeo ut non uniuscujusvis religionis confinio arcentur quae ubique vigent veritates. Sunt enim in ipsa mente caelitus descriptae, nullisque traditionibus, sive scriptis, sive non escriptis, obnoxiae*, 3 or. Eta geroago dio: *Veritates nostrae catho-licae, quae nunquam in dubia Dei emanant inf. oro interiori descriptae*.

Era horretan sortzetiko printzipioen edo ideia komun- en ezaugarriak eman eta gero, eta gizakiaren gogamenean Jainkoaren eskuak inprimaturikoak direla esanik, zerrendatu egiten ditu, eta hauexek dira: *Esse aliquod supremum numen*. 2. *Numen illud coli debere*. 3. *Virtutem cum pietate conjunctam optimam esse rationem cultus divi-ni*. 4. *Respiciendum esse a peccatis*. 5. *Dari praemium vel paenam post hanc vitam transactam*. Nahiz eta onartzen dudan horiek egia argiak eta, ongi azalduz gero, izaki arrazoidunak baiespena nekez ukatzeko modukoak direla, hala ere uste dut sortzetiko inpresioak *in foro interiori descriptae* direla frogatzetik urrun dabilela autorea. Zeren honako ohar hauek egiteko askatasuna hartu behar baitut:

16. *Bost proposizio horiek: edo ez dira dauden guztiak, edo daudenak baino gehiago dira, baldin horrelakorik bada.*

Lehenik, bost proposizio horiek, Jainkoaren atzamarrez gure gogamenean idatzitako nozio komunak direnak, edo ez dira dauden guztiak, edo daudenak baino gehiago dira, baldin arrazoizko balitz horrelakoren bat idatzita badagoela uste izatea. Zeren badira beste proposizio batzuk, autore horren arauen barruan ere, jatorrizkotasun horretarako eta sortzetiko printzipiotzat onartuak izateko hark zerrendaturiko bostek duten adinako eskubidea daukatenak, adibidez, «Egizu zeuri egitea nahi zenukeen bezalaxe». Eta agian beste ehundaka batzuk, ongi pentsatuz gero.

17. *Ez dituzte ustezko ezaugarri horiek.*

Bigarrenik, bost proposizio horietako bakoitzean ez daitezke topa ezaugarri guztiak; adibidez, lehenengo, bigarren eta hirugarren ezaugarria ez dagozkie bete-betean haietako bati ere; eta lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta seigarrena bete-betean ez baina hirugarren, laugarren eta bosgarren proposizioari dagozkie. Gainera, historia, aipaturiko proposizio batzuek edo guztiek zalantzak dituzten edo sinesten ez duten gizaki askoz, edo hobeto, nazio osoez mintzo zaigu. Ez dut ikusten nola izan daitekeen hirugarrena, hau da, «Bertutea jainkozaletasunarekin elkartuta Jainkoari egin dakioken gurtzarik onena dela», sortzetiko printzipioa, *bertute* izena edo hotsa ulertzeko hain zaila eta esangurari dagokionez hain ziurgabetasun handia sor dezakeena denean eta ordezkatzan duen gauza hain eztabaidatua eta jakiten zaila denean. Eta, horregatik, giza jokabideko arau hau oso ziurtasunik gabea da eta ezer gutxi balio du bizimoduko portaerarako eta oso desegokia da sortzetiko printzipio praktikotzat hartzeko.

18. *Erabilgarritasun urrikoak dira, sortzetikoak balira ere.*

Har ditzagun orain proposizio hori bere esangurari dagokionez, (hotsa barik zentzua baita eta izan behar ere baitu printzipioa edo nozio komuna). Dakusagun: «Bertutea da Jainkoari eskain dakioken gurtzarik onena», hau da, onargarrien zaion gurtza. Orain, bertutea, eskuarki gertatzen den moduan, herrialde bakoitzeko iritziazen arabera goraipagarritzat hartzen diren ekintzekin lotzen bada, proposizio hau zalantzaezin izatetik hain urrun dago, non ez baita egiazkoa ere.

Bertutea, ordea, Jainkoaren nahiari eta hark agindutako arauari egokitzen zaizkion ekintzei aplikagarritzat hartzen badugu —bertutearen egiazko neurria eta bakarra berau, hitz hau berez ona eta zuzena dena adierazteko erabiltzen denean-, kasu honetan «Bertutea Jainkoari eskain dakioken gurtzarik onena da» dioen proposizioa erabat egiazkoa eta ziurra izanen da, baina errabilgarritasun urrikoa giza bizitzarako, hauxe besterik ez baitu esan nahi: «Jainkoari laket zaiola gizakiek berak agindutakoa egitea» eta gizakiak jakin dezake hau egia dela, baina Jainkoak agindu duena *zer den* jakin gabe; eta, era honetan, lehen bezain urrun egonen da bere ekintzetarako behar duen arau edo printzipioaren jabe izatetik. Eta uste dut gutxik onartuko dutela honako hau besterik ez dioen proposizio bat, «Jainkoari laket zaiola gizakiek berak agindutakoa egitea», gizaki guztien gogamenean idatziriko sortzetiko printzipio moral bezala (denik egiazkoen eta ziurrena izanda ere) hain gutxi irakasten duenez gero. Baten batek hori onartzen badu, arrazoi izanen du ehundaka proposizio sortzetiko printzipiotzat hartzeko, asko direlako horrek adinako titulua erakusten dutenak horrelakotzat jotzeko, sortzetiko printzipioen mailan orain arte inork ipini gabekoak izan arren.

19. *Nekez izan liteke Jainkoak printzipioak dudazko esangura - dun hitzen baitan ematea.*

Laugarren proposizioak, hau da, «Gizakiek damu izan behar dutela bekatu egina» dioenak ere ez du argigarri hoberik ematen, zein ekintza diren bekatu zehazten ez den bitartean. Zeren *peccata* edo bekatuak hitza egintza txarrak, oro har, egiten dituenari zigorra dakartzatenak adierazteko erabiltzen da eskuarki; baina orduan, zein izan daiteke damutzerak eta okerra ekarriko digun hori ez egitera behartuko gaituen printzipio moral handi hori, horrelako ondorioak dakartzaten egintzak zehazki zein diren ez badakigu? Benetan ere erabat egiazko proposizioa da hori eta zirkunstantzia orotan *zein* ekintza *diren* bekatu irakatsi zaienei buruan sartzeara eta beraiek hartzea merezi duena; baina ez dago iruditzerik proposizio hau ez aurrekoa sortzetiko printzipioak direnik, ez eta inolako baliagarritasunik dutenik, sortzetikoak balira ere, bertute eta bizio guztien molde eta neurri konkretuak ere gizakien gogamenetan grabaturik egon ezean eta sortzetiko printzipioak izan ezean bederen, ene ustez oso zalantzatzen jartzeko gauza berau. Eta, horregatik, nik uste dut ez dirudiela gertagarri denik

Jainkoak gizakien gogamenetan printzipioak dudazko esangura duten hitzetan grabatzea, hau da bertuteak eta bekatuak bezalako hitzak, jende ezberdinaren artean gauza diferenteak ordezkatzten dituztenak erabiliz. Areago, printzipio horiek hitzetan daudela ere ez dago suposatzerik, zeren, horietako gehienetan izenak oso orokorrak izanik, izenok ulertzerik ez baitago, barruan dituzten nozio partikularrak ezagutu ezik. Izan ere, kasu partikularretan, egintzak berak eta haien arauak —hitzetatik aparte eta izenak jakin aurretik— ezagutzetik hartu behar dira neurriak; eta gizakiak arauok ezagutu egin behar ditu, ikastea egokitu zaion hizkuntza edozein, ingelesa zein japoniera, izanda ere, eta inolako hizkuntzarik sekula ikasi ez badu ere, gormutuen kasuan gertatzen den moduan. Honako hauek frogatzen direnean, alegia, hitzak ezagutzen ez dituztenek edo beren herrialdeetako lege edo ohi-turen irakaspenik jaso gabekoek badakitela Jainkoari zor zaion gurtzaren zati bat dela beste gizaki bat ez hiltzea; sexu-harremanak andre batekin bakarrik izatea; abortua ez eragitea, seme-alabak ez abandonatzea; hurkoarena denik ez hartzea, geuretzat desiratzen badugu ere, eta, alderantziz, hurkoaren premiak arindu eta hornitzea; eta agindu horien kontra jokatu dugun guztian, damutu, penatu eta horrelakorik gehiago ez egiteko asmoa hartu behar dugula, benetan frogatzen denean gizaki guztiek ezagutzen dituztela arau horiek guztiak eta beste mila, arestian erabili ditugun bi hitz orokorren barruan, *virtutes et peccata. bertuteak eta bekatuak*, berben barruan sartzen direnak guztiak, orduan, diot, arrazoi hoberik izanen da horiek eta antzekoak nozio komun eta printzipio praktikotzat hartzeko. Hala eta guztiz ere, bestela ezagut daitezkeen egiekiko adostasun unibertsalak (printzipio moralei buruz horrelakorik balego), nekez frogatuko luke sortzetikokoak direla, eta horixe da defendatu nahi dudana.

20. *Objekzioa: Sortzetiko printzipioak usteldu egin daitezkeela; erantzuna.*

Ezer gutxirako balioko du arrazoi eroso baina mamirik gabeko hura ekartzeak, hau da, sortzetiko moraltasun printzipioak, hezkuntza-ren, ohituren eta ingurukoen iritzi jeneralaren eraginez, ilundu eta, azkenerako, gizakien gogamenetik ezabatu egin zitezkeela dioena. Izan ere, baiespene honek, egia balitz, sortzetiko printzipioak frogatzen saiatzeko erabiltzen den adostasun unibertsalaren argudioa zeharo baliogabetzen du, behintzat defendatzaileek pentsatu ezean arrazoizko

dela beren konbentzimendu pertsonalak edo beren alderdikoenak adostasun unibertsaltzat hartzea, maiz gertatzen den gauza berau, arrazoi zuzenaren jabe bakar sentiturik, gainerako gizateriaren iritziak eta botuak ezertarako ere aintzat hartzen ez dituztenean. Eta orduan haien arrazoibidea honako hau litzateke: «Gizateria guztiak egiazkotzat onarturiko printzipioak sortzetikoak dira; gizaki burutsuak onarturiko printzipioak gizateria guztiak ontzat jotzen dituenak dira; gu eta gure aburukoak gizaki burutsuak gara; beraz, gu ados egonik, gure printzipioak sortzetikoak dira». Hau, dudarik ez, argudiatzeko modu oso polita da, eta hutsezintasunerako lasterbidea ere bai nonbait. Izan ere, bestela oso zail legoke ulertzen nola litekeen printzipio batzuk gizaki guztiek ezagutu eta onartzea, baina, ohitura gaiztoen eta hezkuntza txarraren eraginez, horietako bat bera ere ez ezabatzea gizaki askoren gogamenetik, honek esan nahi duelarik gizaki guztiek onartzen dituztela printzipio horiek, baina gizaki askok ukatu egiten dituztela eta ez dietela baiespenik ematen. Eta, benetan ere, lehen printzipio *horiek* badirela suposatzeak ez digu onura handirik ekarriko eta haiekin, haiek gabe bezain nahasirik ibiliko gara, baldin geure maisuen nahia edo lagunen iritziak bezalako giza indar baten eraginez alda edo gal baditzakegu; eta lehen printzipioez eta sortzetiko argiaz hain arranditsu ibili arren, horrelakorik ez izanda bezain ilun eta ziurtasunik gabe aurkituko gara, zeren gauza bera baita araurik ez edukitzea, zein edonorantz desbideratzen den bat edukitzea, zein arau ezberdin eta kontrakoen artean zuzena zein den ez jakitea. Baina sortzetiko printzipioen aldekoiei dagokienez, haiek hauxe esatea nahi nuke, alegia, ia printzipiook, hezkuntzaren eta ohituren eraginez, lanbro eta ezaba daitezkeen ala ez. Erantzuna ezezkoa bada, orduan gizateria guztian berdin aurkitu beharko ditugu eta gizaki bakoitzak argi izan beharko ditu; eta gero norberegaturiko nozioen eraginez alda badaitezke, ordean, argiago aurkitu behar genituzke iturburutik hur, hau da, haur eta eskola gabekoen artean, berauek baitira kanpoko iritzien eraginik txikiena izandakoak. Aukera bedi nahi den aldea, eta ikusiko da egitate nabariekin eta egunero ikusten denarekin bateraezina dela.

## 21. *Munduan elkarren aurkako printzipioak daude.*

Nik erraz onartzen dut badirela hamaika iritzi, herrialde, hezkuntza eta izaera ezberdineko gizakiek lehen printzipio eztabaidaezintzat hartzen eta berenganatzen dituztenak; hala ere, haietako asko

edo absurduak edo elkarren aurkakoak direlako, ezin dira egiazkoak izan. Baina proposizio horiek, arrazoizko izatetik urrunen daudenak ere, hain dira sakratuak tokiren batean edo bestean, non ulermenez argienak ere bizitza eta maiteen dutena emateko prest leudekeen, proposizio horien egiaz dudatzen hasi edo beste inori eztabaidan jartzen utzi baino lehen.

22. *Gizakiek nola eskuratzen dituzten eskuarki beren printzipioak.*

Arraro badirudi ere, eguneroko esperientziak berresten du hori; eta ez du agian hain harrigarri emanen, kontuan hartzen badugu nola eta zein urratsen bidez gerta daitekeen, gertatu, hautzain baten superstizioa edo atso baten autoritatea beste iturbururik ez duten doktrinak denbora iraganez eta auzokideen baiespenez erlijio edo moral-tasuneko *printzipioen* maila erdiestera heltzea. Zeren beren seme-ala-bei printzipio horiek irakasteko —berek esan ohi duten moduan— ardua handia erakusten dutenek (eta gutxi izanen dira berek sinetsiriko printzipio mordo bat ez dutenak prest-prest beren haurrei helarazteko) buru sinesbera eta aurreiritzi gabekoei (paper zuriak edozein karaktere hartzen baitu) haiek atxiki eta aitortzea nahi duten doktrinak sartzen dizkiete. Haurrei ezein atzemate dutenetik irakasten eta hazi ahala finkatzen zaizkie doktrina horiek, beraiekin harremanak dituzten guztien agerpen nabariz edo baiespen tazituz, edo jakituria, ezagupen eta jainkozaletasunaren jabe omen direlako beraiangana itzala dutenen eraginez; hauek, berriz, ez dute permititzen proposizio horiek erlijio eta ohitura onen oin eta zimentarri moduan izan ezik aipatzerik eta, horretara, sortzetiko egia eztabaidea ezin eta begi-bistako izatera heltzen dira.

23. *Sortzetikoak direla suposatzen da, ez dugulako gogoratzen noiz geureganatu genituen.*

Honi gehi dakioke ezen, horrela hezitakoak hazi eta beren gogamenaz gogoeta egiten dutenean, ez dutela beren baitan iritzi horiek baino ezer antzinakoagorik aurkitzen, iritziok oso goiz irakatsi zizkietenez gero, zehazki, oroimena eurek egindakoen oroitzapena gordetzen edo eurei gertaturiko gauza berriei data jartzen hasi aurretik; eta, horregatik, ez dute eragozpenik hortik ateratzeko proposizio horiek, beren baitara begiratu arren noiz hasi ziren aurkitu ezin dutenez gero, beren gogamenetan Jainkoak eta naturak inprima-



turikoak direla, eta ez beste inork irakatsitakoak. Aintzat eta ontzat hartzen dituzte, askok gurasoak ohi dituen bezalaxe, benerazioz. Baina ez berezkoa delako —haurrek, irakatsi ez zaienean, ez baitute portaera hori izaten—, baizik, horrelaxe hezitakoak direnez eta errespetu hori noiz hasi zen gogoratzen ez dutenez gero, berezkoa dela pentsatzen dutelako.

#### 24. *Nola norbereg anatzen diren printzipio horiek.*

Azalpen honi oso gertagarri eta ia ezinbestez jazo beharrekoa iritziko diogu, baldin gizateria eta gizakien gauzak nolakoak diren gogoan badugu; izan ere, gizakirik gehienak, bizitzeko, beren ogibideko eguneroko lanetan erabili behar dute denbora eta ezinen lukete gogoan lasai eduki *nolabaiteko* oinarri edo printzipioren bat ukan ezean beren pentsamenduen euskarri. Nekez izan daiteke inor maila batzue-taraino deserrotua eta gogamenez azala, ez behintzat begirunez pre-ziatzen dituen eta bere arrazoinamenduen oinarri moduan eta egia fal-tsutasunetik eta bidezkoa bidegabekotik bereizteko erabiltzen dituen zenbait proposizio ez edukitzeraino; baina, batzuk trebetasun eta asti faltaz, beste batzuk joera faltaz eta beste batzuk azterketarik ez dute-la egin behar irakatsi zaielako, gutxi aurkituko dira, ezjakintasun, nagitasun, hezkuntza edo presakako jokabideagatik, *horiekitsu-itsuan onartzera* beharturik ez daudenak.

#### 25. *Beste azalpen bat.*

Horixe da, bistan dago, haurren eta gazte jendearen kasua; azturak, natura baino indartsuagoa denak, hutsik gabe bultzatzen ditu jainkotiarra balitz legez gurtzera, aztura berak horretara ohituta haiek gogamena makurturik eta ulermena menperaturik onartzen dutena. Ez da harrigarri gizaki helduek, bizitzako zereginetan jardun beharra daukatelarik edo plazerren bila gartsuki ibilki, beren printzipioak gar-tsuki aztertzen ez jartzea, batez ere printzipio horietako bat printzi-pioak ez direla auzitan jarri behar denean. Eta astia, gaitasuna eta egin nahia izanez gero ere, nork izanen du ausartziarik aski bere iraganeko pentsamendu eta egintza guztien oinarriak astintzeko eta luzaro zeha-ro nahasirik eta erraturik egon izanaren lotsa bere gain hartzeko? Nor da aski bulartsu bere herrialdean edo inguruan onarturik dauden iri-tzietatik aldentzen direnen kontra nonahi aurpegiartzeko prest dituz-ten gaizkiei eusteko? Eta non topa nabarmen, eszeptiko edo ateo dei-tuz botariko destainak eroapenez jasateko prest dagoen gizakirik,

horrelakoxeak entzun beharko baititu edozein iritzi komuni eragozpenik txikiena jartzen dionak. Eta printzipiook auzitan jartzeko beldurrago izanen da, gizakirik gehienek bezala, Jainkoak beste iritzi guztien arau eta giltzarri izateko gogamenean jarritako eredutzat hartzen dituenean. Eta zerk eragotz liezaioke sakratuak direla pentsatzea, bere lehenengo pentsamenduak eta besteek errespetatuenak direla egiaztatzen du eta?

## 26. *Idolatria.*

Era horretan, erraz da imajinatzen: gizakiek beren gogamenean eraikitako idoloak gurtzea; aspalditik etxeko dituzten nozioei aparteko txera egitea; eta absurdukeria eta erroreari jainkotiartasuna iratxikitzea; zezen eta tximinoak gurtzen dituzten sektetako kide gartsu bihurtzea, eta beren ideien defentsan argudiatu, borrokatu eta hiltzeko ere gertu agertzea. *Dum solos credit habendos esse deos, quos ipse colit.* Izan ere, arimaren arrazoitzeko ahalmenek, beti zuhurtziaz eta jakituriaz ez bada ere ia etengabe jardunean direnek, nola aritu jakinen ez luketenez, oinarri eta euskarri faltaz gizakirik gehienengan, hauek nagikeria edo olgeta bitarteko ezagutzaren printzipioetaraino sakondu nahi ez dutelako, ezta egiaren arrastoari bere iturburu eta jatorriraino jarraitu ere, edo hori egiterik ez dutelako, astirik edo laguntza egokirik ezagatik edo beste arrazoiren bategatik, berezkoa da, eta ia ekidinezina, jende honek mailegaturiko zenbait printzipio onartzea, beste gauza batzuen froga nabaritzat hartuak direnez gero, inolako frogaren beharrik gabekotzat daudenak. Bere gogamenean horrelako printzipioren batzuk onartu eta printzipioei eman ohi zaien begirunearekin aintzat hartzen dituenak edozein absurdukeria har dezake sortzetiko printzipiotzat, aztertzen sekula ausartu gabe eta, aitzitik, haietan sinestera ohituz sinetsi beharrekoak direlako, bere hezieraren eta bere herriko ohituren eraginez; eta, arreta gauza bere-tan jartzearen jartzez, ikusmena zeharo lausotzen zaio, bere burmuinean baino ez dauden mustroak Jainkotasunaren iruditza eta haren eskuen lantzat hartzeraino lausotu ere.

## 27. *Printzipioak azertu egin behar dira.*

Modu eta maila anitzeko gizakiek onartu eta defenditzen dituzten askotariko printzipio kontrakoetatik erraz ikus daiteke zenbat lagun heltzen den bide honetatik berek sortzetikotzat dituzten printzipioetara. Eta gizakirik gehienek beren printzipioen egia eta nabarita-

sunaz ziurtasuna erdiesteko duten metodoa aipaturikoa dela ukatzen duenak beharbada kontu latza ukanen du beste bide bat aurkitzen, horrelako kontrako dogmak, hau da, irmoki sinetsiak, konfiantzaz baietsiak eta garai guztietan hainbat eta hainbat lagun beren odolaz zigilua jartzeko prest ukan dituztenak, egon izana azaltzeko. Eta beren autoritate hutsez, azterketarik gabe, onartu beharra benetan ere sortzetiko printzipioen pribilegioa balitz, ez dakit zer ezin daitekeen sinets, ezta nola auzitan jar daitezkeen edozeinen printzipioak. Baina aztertu eta egiaztatu ahal eta behar badira, jakin nahi dut nola egiaztatu daitezkeen lehenengo eta sortzetiko printzipioak; edo gutxienez arrazoizko da galdatzea zein diren benetakako sortzetiko printzipioak beste-etatik bereizteko ahalbidea ematen diguten *seinaleak* eta *ezaugarriak*, hain kontu garrantzitsuan hainbeste hautagai ezberdinen artean errakuntzarik ez egiteko. Hau egin eta gero, proposizio desiratu bezain baliagarriok onartzeko prest izanen naiz; eta bitartean apaltasunez baina ezbaian jarriko ditut, zeren uste baitut adostasun unibertsala, ekarritako argudio bakarra, ez dela ezaugarri nahikoa, aukera egitean gidargitzat eta sortzetiko printzipioen ziurtasuna hartzean frogatzat erabil dezadan.

Esandakotik, nire ustez dudarik gabe, ez dago gizaki orok adostasunez onaturiko printzipio praktikorik, eta, beraz, sortzetikorik ere ez.



### III. KAPITULUA

## Printzipio hala espekulatibo nola praktikoei buruzko beste zenbait gogoeta

1. *Printzipioak ezin litezke sortzetikoak izan, beren ideiak ere sortzetikoak izan ezean.*

Sortzetiko printzipioak badirela buruan sartu nahian dabilzki-gunek proposizio horiek osotara hartu beharrean, beraien osagaiak bereiz hartu izan balituzte, ez zuketena agian hain arinki sinetsi sortzetikoak direla. Izan ere, egia horiekosatzen dituzten *ideiak* sortzetikoak ez balira, haiek osaturiko *proposizioak* ezinen lirateke sortzetikoak izan edo haiekiko gure ezagupenak gurekin batera jaioak izan. Izan ere, ideiak sortzetikoak ez badira, garai batean gogamena printzipio horiek gabe izan zen eta orduan ez dirateke sortzetikoak, beste nonbaitetik eratorriak baizik. Izan ere, ideiarik ez denean, ezin da beraiei buruz ezagutzarik ez baiespenik izan, ezta pentsamenduzko ez hitzeko proposiziorik ere.

2. *Ideiak, printzipioei dagozkienak batik bat, ez dira hurrekin batera jaiotzen.*

Haur jaioberriez arretaz pentsatuz gero, ez genuke arrazoi askorik mundura jaiotzean ideia askorekin etortzen direla uste izateko. Izan ere, agian gose, egarri, berotasun ideia lanbrotsu batzuk edo amaren sabelean zeudela ukan zezaketen minen baten ideia kenduz gero, haurrek aldean inolako ideiarik dakarten itxurarik ez dago, are gutxiago *sortzetiko printzipiotzat hartzen diren proposizio unibertsal*

*horiek osatzen dituzten terminoei erantzuten dien ideiarik.* Edonork hauteman dezake ideiak, gero, mailaz maila gogamenera sartzen zaizkiela eta aurkezten zaizkien gauzen esperientziak eta behaketak emandakoak baino ideia gehiagorik ez diferenterik ez dutela hartzen; eta hau nahikoa izan dezakegu ideioek gogamenean inprimaturiko jatorrizko karaktereak ez direla frogatutzat emateko.

### 3. *Ezintasuna eta identitatea ez dira sortzetiko ideiak.*

Sortzetiko printzipiorik balitz, «Ezinezkoa da gauza bera izatea eta ez izatea» proposizioa sortzetiko *printzipioa* litzateke dudarik gabe. Baina ba al du inork pentsatzerik edo esaterik ezintasuna eta identitatea bi sortzetiko *idea* direla? Gizateria guztiak dituenak eta gizaki bakoitzak mundura jaiotzean dakartzanak ote dira? Haurren baitan lehenbizi izaten direnak eta geroztik hartutako guztien aurretikoak ote dira? Sortzetikoak balira, horrelakoxeak izan beharko lukete. Haurrak ezintasunaren eta identitatearen ideiak zuri edo beltzaren, gozo edo mingotsaren ideiak baino lehenago ote dauzka? Eta printzipio hura ezagutzetik deduzitzen ote du asentsio-belarraz igurtzitako ditiak ez duela lehenago gusturik? *Impossibile est idem esse, et non esse* ezagutzeak al darama haurra bere ama pertsona arrotz batengandik bereiztera, edo batarengana pozik hurbiltzera eta bestearengandik alde egitera? Edo, orduan, gogamenak bere burua eta baiespenak oraindik inoiz eduki gabeko ideien bidez araupetzen ote ditu, bada? Edo adimenak oraindik ezagutu ez ulertu ez dituen printzipioetatik ateratzen ote ditu, bada, ondorioak? *Ezintasun* eta *identitate* izenak ez dira, ez eta hurrik eman ere, sortzetikoak edo jaiotzean sorturiko bi ideien ordezkioak; aitzitik, gure adimenean behar bezala eratzeko kontu eta arreta handia behar duten ideiak deritzet. Mundura gurekin batera etorritako ideiak izatetik hain urrun daude, egon ere, seintzaro eta haurtzaroko pentsamenduetatik hain urrun, non uste dudana, kontu hau aztertuz gero, gizaki heldu askorengan ere haien falta topatuko dugula.

### 4. *Identitatearen ideia ez da sortzetikoa.*

Baldin *identitatearen* ideia (adibide hau besterik ez jartzearren) sortzetiko inpresioa eta, beraz, sehaskatik bertatik nahitaez ezagutu behar duguna bada, zazpi urteko haur batek edo hirurogeita hamarrek pertsona batek esan diezadan nahi nuke ea gizon bat, gorputz-ariemek osatua, gizon bera den gorputza aldatzen zaionean. Ea Euforbo

eta Pitagoras, arima bera ukan zutenak, gizon bera izan ziren ala ez, zenbait mendeko aldearekin bizi arren. Are ea arima bera ukan zuen oilarra ere bi haiek izandako bera izan zen. Hemendik beharbada aterako dugu *berberatasunaz* dugun ideia ez dela sortzetikotzat hartzeko bezain finkatu eta argia. Izan ere, sortzetiko ideioak unibertsalki eza-gutuak eta naturalki baietsiak izateko bezain argi eta bereiziak ez badira, inondik ere izan ezin diren egia unibertsal eta dudaezinen egonleku barik, ziurgabetasun betiraunkorraren kausa ekidinezin izanen dira. Zeren uste baitut mundu guztiak ez duela identitateaz Pitagorasek eta haren milaka jarraitzailek izan zuten ideia bera. Baina zein da orduan egiazkoa? Zein sortzetikoa? Ala identitatearen bi ideia ezberdin al daude eta biak sortzetikoak?

##### 5. *Zerke giten duen gizakia berbera.*

Inork ez beza pentsa gizakiaren identitateari buruz arestian planteatu ditudan galderak espekulazio hutsak direnik, zeren, balira ere, nahikoa bailirateke gizakien gogamenean sortzetiko ideiarik ez dagoela frogatzeko. Baina arreta apur batekin piztueraz gogoeta egin nahi duenak eta kontuan hartu justizia jainkotiararak, azken egunean, bizitza honetan ongi edo gaizki jarduniko pertsona berak eramanez dituela epaiketara, geroko bizitzan zoriontsu edo zorigaiztoko izateko, ohartuko da beharbada ez dela erraz bere baitan argi uztea zerk egiten duen gizaki bat berbera izatea edo identitatea zertan datzan; eta orduan ez du hain arinki pentsatuko mundu guztiak, haurrek berek ere, ideia argia duela berez-berez kontu honi buruz.

##### 6. *Osoa eta zatia ez dira sortzetiko ideiak.*

Azter dezagun orain *osoa zatia baino handiagoa dela* dioen printzipio matematikoa. Proposizio hau, nik uste, sortzetikoen artean sailkaturik dagoke. Ziur naiz beste edozeinek adina eskubide duela halakotzat hartua izateko, baina gogoan izanez gero bere baitan dauzkan ideiak, *osoaren* eta *zatiarenak* alegia, erabat erlatiboak direla, inork ere ez du sortzetiko printzipiotzat hartu ahal izanen; baina haiei propioki eta zuzenki dagozkien ideia positiboak hedadura eta kopurua dira, osoa eta zatia hauen erlazioak besterik ez direlarik. Era horretan, osoa eta zatia sortzetiko ideiak badira, hedadura eta kopurua ere gauza bera izanen dira nahitaez, ezin delako erlazioaren ideia eduki, erlazio horren egonleku eta oinarri den gauzaren inolako ideiarik eduki gabe. Orain, hedadura eta kopurua gizakiek gogame-

netan inprimaturik dituzten ala ez, hori sortzetiko printzipioen defen-datzaileek ebazteko uzten dut.

#### 7. Gurtzaren ideia ez da sortzetikoa.

*Jainkoa gurtu egin behar dela*, gizakiaren gogamenean sar dai-tekeen egiarik handienetako bat da, eta lehenengo lekua merezi du printzipio praktikoen artean. Hala ere, ez dago inola ere sortetikotzat hartzerik, *Jainkoaren* eta *gurtzaren* ideiak sortzetikoak izan ezean. Gurtza berbak ordezkatzan duen ideia ez dagoela haurren adimenean eta ez dela jatorriz gogamenean inprimaturiko ezaugarria erraz onar-tuko du, nik uste, haren nozio argi eta bereizia duten helduak oso gutxi direla kontuan hartzen duen edozeinek. Eta uste dut erabat barregarria datekeela esatea haurrek sortzetik dutela «Jainkoa gurtu egin behar dela» dioen printzipio praktikoa, eta hala ere ez dakitela zer den Jainkoa gurtzea, beren eginbeharra izan arren. Baina utz dezagun hau hurrengo puntura pasatzeko.

#### 8. Jainkoaren ideia ez da sortzetikoa.

Sortetikotzat edukitzeko moduko ideiarik bada, *Jainkoaren* ideia da hori, arrazoi askogatik; zaila baita, izan ere, bururatzea nola izan daitekeen sortzetiko printzipio moralik Jainkotasunaren sortzeti-ko ideiarik ukan gabe. Legegilearen noziorik gabe, ez dago legearen noziorik edukitzerik, ez eta lege hori betetzeko obligaziorik ere. Antzinakoek aipaturiko eta historiaren analetan laidoz markaturik geratu diren atoez gain, ez al du nabigazioak geroago ere nazio osoak aurkitu Soldaniako badian, Brasilen Boronday-n, Karibe irletan, etab., Jainkoaren ez erlijioaren inolako noziorik erakusten ez dutenak. Nicolás del Techo-k *Literis ex Paraquaria, de Caiguarum conversio - ne* izeneko eskutitzetan hauxe dio hitzez hitz: *Reperi eam gentem nullum nomen habere quod Deum et hominis animam significet; nulla sacra habet, nulla idola*. Adibideok natura, inola ere landu gabe, bere kontura utzitako nazioei dagozkien, ez letren eta disziplinaren lagun-tzarik ez arteen eta zientzien aurreramendurik izan ez dutenei. Baina badira beste batzuk, abantaila horiek hein oso handian ukan dituzten arren, beren pentsamenduak horretara ez bideratzearen, Jainkoaren ideiarik ez ezagutzarik ez dutenak. Harrigarri gertatuko zaie, dudarik ez, neuri gertatu zitzaidan moduan, siamdarrek ere horien artean dau-dela jakitea. Honetarako, kontsulta bedi Frantziako Erregeak hara azken bidalia, txinatarren euren berri hoberik ematen ez duena. Eta La



Loubère-k esandakoari sinespiderik eman nahi ez badiogu, Txinako misiolariak eta txinatarren goraipatzaileak diren jesuitek eurek ere, denek aho batez dioskute *literari*-en sektakoak hau da, Txinako erlijio zaharrari atxiki eta nagusi den alderdikoak direnak, ateoak direla guztiak. Ikus Navarrete, *Bidaïen Bilduma*, 1. Lib. eta *Historia Cultus Sinensium*. Eta hain urrun ez dugun jendearen bizitzak eta arrazoinamenduak arretaz aztertuko bagenitu, arrazoirik franko aurkituko genuke pentsatzeko, herrialde zibilizatuagoetan ere, askok ez dutela Jainkotasunaren inpresio indartsu eta argirik gogamenetan inprimaturik, eta pulpitutik ateismoaren kontra egiten diren kexuzko hitzaldiak ere ez direla arrazoirik gabekoak. Eta beren ateismoa lotsagabeki aitortzen dutenak lasaka miserable gutxi batzuk baino ez diren arren, beste askori ere gauza bera entzunen genieke, magistratuaren ezpatari edo ingurukoen gaitzespenari dioten beldurra mihia lotuko ez balie, zeren, zigorra edo laidoa jasotzeko beldurra kenduz gero, hitzez ere bizitzaz bezain ozen aldarrikatuko bailukete beren ateismoa.

#### 9. Jainkoaren izenak ez du esanahi unibertsal edo iluna.

Baina gizateria guztiak Jainko baten nozioa balu ere (historiak dioskunaren kontra dago hau), hemendik ez litzateke etorriko haren ideia sortzetikoa denik. Zeren, haren izen bat eta nozio ilunen batzuk gabeko naziorik aurkituko ez litzatekeen arren, honek ez luke frogatuko horiek gogameneko inpresio naturalak direnik, su, eguzki, berotasun edo kopuruaren izenek frogatzen ez duten bezala izen horiek ordezkatzan dituzten ideiak sortzetikoak direnik, gizakiek gauza horien izenak eta haien ideiak unibertsalki hartu eta ezagutzen dituztelako. Eta, alderantziz ere, izen horren gabezia edo gizakien gogamenetan horrelako noziorik ez egotea ez da Jainkoaren existentziaren aurkako inolako argudio, munduan imanarririk ez dagoela frogatzeko argudio ez litzatekeen bezalaxe gizateriaren zati handi batek gauza horren ez noziori ez berarentzako izenik ez daukala esatea; edo aingeru espezie ezberdin eta anitzik edo adimendun izakirik ez dagoela frogatzeko argudio ez litzatekeen moduan espezie horien ideiak edo haientzako izenak ez dauzkagula esatea. Izan ere, gizakiek norbere herriko hizkuntza arruntak hitzez horniturik, nekez ekidin ahal izanen dute solasaldietan sarri erabili eta aipatzen dituzten izenen nolabaiteko ideiarenekin bat izatea. Eta hitzok bikaintasun, handitasun edo ezohikoaren nozioa adierazten badute, nozio horrek interesa eta ardura sor-

tarazten badu eta gogamenean ahal absolutu eta euskaitzaren beldurra ezartzen badu, ideia seguraski guztiz sakon sartuko da eta oso zabal hedatuko, batez ere ideia hori arrazoimenaren argi arruntarekin bat datorrena eta gure ezagutzen edozein ataletik berez erator daitekeena baldin bada, Jainkoaren ideia kasuan gertatzen den moduan. Izan ere, hain nabariki ageri dira jakituria eta botere itzelezko baten lortzeko kreazioko lan guztietan, non horiek arretaz aztertzen dituen izaki arrazoidun oro ezin baita haietan Jainkoa aurkitu gabe geratu. Eta horrelako izakiaren aurkikuntzak hartaz behin entzun duten guztien gogamenean nahitaez ukan behar duen eragina handia denez eta pentsamendu eta komunikazio karga oso handia daramanez gero, harrigarri egiten zait nazio oso bat aurkitzea nonbait, Jainkoaren nozio-rik ez izateko bezain basatia den jendea duena, zenbakien edo suaren nozio-rik ez duena aurkitzea bezalaxe.

#### 10. *Jainkoaren ideiak eta suaren ideia.*

Izaki goi mailako, ahaltsu, jakitun eta ikusezina adierazteko Jainko izena munduko tokiren batean behin aipatzean, nozio horrek arrazoimen arruntaren printzipioekiko duen adostasuna eta gizakiek izen hori aipatzeko erakutsitako interesa aintzat hartuz gero, luze eta zabal hedatu behar nahitaez izen hori, hurrengo belaunaldi guztiengaino ere iraganez. Baina, hala ere, jendeak oro har izen hori onartzeak eta askorik pentsatu ohi ez duen gizateriaren zatiari nozio inperfektu eta zalantzakoa helarazteak ez dute frogatzen ideia hori sortzetikoa denik, hauxe bestea baizik, alegia, aurkikuntza hori egin zutenek arrazoimena zuzen erabili zutela, gauzen kausez zentzuz pentsatu zutela eta beraien lortzeko iturbururaino jarraitu zutela, ez zelarik erraz gertatuko nozio garrantzitsu hori, jende hain espekulatiboa ez denari behin jakinaraziz gero, osteraz ere galtzea.

#### 11. *Jainkoaren ideia ez da sortzetikoa.*

Horixe guztia inferi daiteke Jainko baten noziotik, gizateriaren tribu guztietan unibertsalki aurkituko balitz eta herrialde guztietako gizaki helduek onartuko balute; zeren uste baitut Jainkoa eskuarki onartua izatea ezin dela hori baino harago hedatu; eta hau nahikoa balitz Jainkoaren ideia sortzetikoa dela frogatzeko, suaren ideia sortzetikoa dela frogatzeko ere berdina balio duke, zeren nik uste baitut ez dagoela munduan inor Jainkoaren nozioa duenik eta era berean suaren ideia ere ez duenik. Ez daukat dudarik ezen, baldin surik ez dagoen

uharte batean haur talde bat bizitzen jarriko balitz, suaren noziorik ez eta harentzako izenik ere ez luketela ukanen, gainerako mundu guztian unibertsalki ezaguna eta onartua izan arren. Eta, agian, Jainkoaren noziorik ez izenik gabe ere berdin egonen lirateke, harik eta baten bat gauzen jatorria eta kausak bilatzen jarri arte, horrek, erraz asko, Jainkoaren noziora eramanez lukeelarik. Eta besteei irakatsi ondoren, arrazoimenak eta pentsamenduen joera naturalak nozio hori euren artean zabaldu eta iraunarazi egingen lukete.

12. «*Jainkoaren ontasunari dagokio gizaki guztiek Jainkoaren ideia edukitzea eta hemendik ateratzen da ideia hau Berak inprimatu digula*». *Objekzio honi erantzuna.*

Argudiatzen da, argudiatu, Jainkoaren ontasunari dagokion gauza dela gizakien gogamenean Jainkoari buruzko ezaugarri eta nozioak inprimatzea, hain garrantzi handiko auzian gizakia ilunbean eta zalantzatan ez uzteko eta, era berean, gizakia bezalako izaki adimendunak zor dion gorazarrea eta benerazioa segurtatzeko. Eta hemendik ateratzen da egin ere egin duela.

Argudio honek, indarrrik izatekotan, kasu honetan erabiltzen dutenek espero dutena baino gehiago frogatuko du. Izan ere, atera baldin badezakegu Jainkoak gizakiarentzat honek beretzat ona dela deritzon guztia egin duela hori egitea bere ontasunari dagokiona delako, orduan frogatuko da Jainkoak gizakiaren gogamenean berari buruzko ideia bat ez ezik, beste hauek ere inprimatu dituela karaktere argiekin, alegia, gizakiak Jainkoaz jakin edo sinetsi behar duen guztia eta bere nahia betetzeko egin behar duen guztia, eta Jainkoak bere borondatera egokitze moduko nahimena eta sentimenduak eman dizkiola. Mundu guztiak pentsatuko luke, dudarik ez, hau hobea dela gizakientzat, iluntasunean haztamuka ezagutzaren bila ibili beharra baino, San Paulok (Eg. XVII, 27) dioenez nazio guztiak Jainkoaren bila ibili ziren moduan, eta desirak adimenaren aurka eta apetituak eginbeharraren aurka edukitzea baino. Erromako elizaren jarraitzaileek diote gizakientzat hobea eta Jainkoaren ontasunari hobeto doakiona dela lurrean epaile hutsezina egotea gizakien arteko eztabaidetan ebatzia emateko eta, beraz, badagoela. Eta nik, arrazoi berorregatik, diotset gizakientzat hoberena gizaki bakoitza hutsezina izatea dela. Beraiei uzten diet ebaztea ia argudio honen indarrez gizaki bakoitza *horrela dela* pentsatu behar duten ala ez. Nik uste dut oso argudio ona dela esatea:

«Mugarik gabeko jakituria duen Jainkoak egin du hori eta, beraz, horixe da onena». Baina geure jakiturian kofiantza handitxoegia jartzea deritzot esateari: «Nik uste dut horixe dela onena eta, beraz, Jainkoak horixe egin du». Eta aztergai dugun auzian alferreko izanen da topiko honen bidez frogatu nahi izatea Jainkoak gure gogamenean sortzetiko ideiak inprimatu dituela, esperientzia ziurrak horrelakorik ez duela egin erakusten digunean. Baina Jainkoaren ontasuna ez da gizakiekin murrizta izan ezagumenaren jatorrizko inpresio horiek edo ideiak gogamenean ez grabatzearren, zeren bere xedea betetzeko behar dituen ezagutzeko ahalmen guztiez hornitu baitu gizakia; eta inolako dudarik ez dut bere gaitasun naturalak ongi erabiliz, inolako sortzetiko printzipiorik gabe, Jainkoaren eta berarekin zerikusia duten beste gauza batzuen ezagutza erdiets dezakeela. Jainkoak gizakiari dituen ezagutzeko ahalmenak eman dizkiolarik, bere ontasunak ez zuen behartzenago haren gogamenean sortzetiko nozioak txertatzera, giza-kiarentzat zubiak edo etxeak eraikitza baino, horiek egiteko arrazoi-mena, eskuak eta materialak eman ondoren; hala ere, badira herriak munduan, talentua ukan arren, inolako zubirik edo etxerik ez dutenak edo horien eskasia dutenak, beste batzuek Jainkoaren edo printzipio moralen inolako ideiarik ez duten edo urri duten bezala. Kasu batean zein bestean arrazoia hauxe da: beren talentu, ahalmen eta indarrak bide honetatik artaz sekula erabili barik, beren lurraldeko iritzi, ohitura eta gauzeekin zeuden zeudenean eta urrunago begiratu gabe konformatu izana. Zuek edo ni Soldaniako badian jaio izan bagina, gure pentsamendu eta nozioak ez ziratekeen seguraski han bizi diren Hotentote baldarrenak baino hobeak. Eta Apotxankana Virginiako erregea Ingalaterran hezia izan balitz, uharte honetako edozeinen pareko teologo aditua eta matematikari ona zatekeen. Izan ere, errege horren eta ingelesik aurreratuenaren artean dagoen aldea hauxe besterik ez baita: haren ahalmenen erabilerak ez ukana bere herrialdeko usadio, modu eta nozioak markaturikoa beste jardun eremurik, ez zelarik inoiz bideratu handik haragoko ikerketa sakonagoetara. Eta Jainkoari buruzko ideiarik ukan ez bazuen, hori ideia horretara eramateko moduko pentsamendurik garatu ez zuelako izan zen, eta ez beste ezergatik.

13. *Gizaki ezberdinek Jainkoarekiko ideia diferenteak dituzte.*

Onartzen dut ezen, gizakien gogamenean inprimaturiko ideiarik balego, arrazoiz espero izanen genukeela ideia hori geure

Egilearen nozioa izatea, Jainkoak bere lanaren marka moduan grabaturikoa, gizakiari bere menekotasuna eta eginbeharra oroitaraziz, eta hemendixek sortuko lirakeela giza ezagutzaren lehenengo agerkizunak. Baina zenbat denbora iragan beharra dago haurrengan ideia hori hauteman ahal izateko? Eta haiengan ideia hori ikusten dugunean, ez al da gehiago maisuak daukan iritzi eta nozioa dirudiena, egiazko Jainkoaren irudikapena baino? Haurrek beren ezagupenak erdiesteko ukan ohi duten prozesua segitzen duenak ikusiko du lehenik eta mai-zen aurkezten zaizkion gauzak direla adimenean lehenbiziko inpresioak eragiten dizkietenak, eta ez du beste ezeren lorratz txikienik ere aurkituko. Gainera, behatzailea erraz kontura daiteke haurren pentsamenduak ez direla hazten, objektu sentigarri gehiagorekin harremanetan jarri ahala izan ezean, era horretan objektu horien ideiak oroimenean atxiki, ideia horiek konbinatu, luzatu eta hainbat eratara elkartzen ditu eta. Geroago azalduko dut nola eratzen duten haurrek beren gogamenean gizakiek Jainkoaz dutena bezalako ideia.

14. *Jainkoaz aurkako ideiak eta inkonsistenteak izen bera - ren pean* .

Nola pentsa liteke gizakiek Jainkoaz dituzten ideiak hark bere atzamarrak giza gogamenean grabaturiko bere karaktere eta markak direla, ikusten dugunean lurralde berean eta izen beraren pean gizakiek Jainkoaz ideia eta ikusmolde oso ezberdinak eta are aurkakoak eta inkonsistenteak dituztela? Guztiek izen edo hots berean bat egiteak gaizki froga lezake Jainkoarekikoa sortzetiko ideia dela.

15. *Jainkoari buruzko ideia zakarrak.*

Jainkotasunaz zer nolako ideia egiazko edo jasangarririk ukan lezake ehundaka jainko aitortu eta gurtzen dituztenek? Jainko bat baino gehiago onartze hutsak erabat agerian jartzen du gizaki horiek hartaz duten ezjakintasuna eta garbi frogatzen du ez dutela Jainkoaz egiazko noziorik, batasuna, mugagabetasuna eta betierekotasuna ukatzen baitiote. Honi beste hauek gehitzen badizkiogu, alegia, Jainkoaren gorpuztasunaz zituzten ikusmolde zakarrak, beren jainkoen imajina eta irudikapenetan agertuak, eta beren jainkoei egozten zieten amodioak, ezkontzak, larrujotzeak, lizunkeriak, errietak eta horretariko keriak, horiek guztiak gehituz gero, diot, ez dugu arrazoi modurik ukanen uste izateko jentilen munduak, hau da, gizateriaren zatirik handienak, Jainkoaz hark berak moldaturiko ideia zuela, giza-

kiak berari buruz nahasi ez zitezen. Eta hainbeste aldiz argudiotzat erabilitako baiespen unibertsalak sortzetiko inpresiorik frogatzekotan, hauxe besterik ez luke frogatuko: hizkuntza beraz mintzo diren gizaki guztien gogamenetan Jainkoak bera adierazteko izen bat inprimatu zuela, baina ez inolako *ideiarik*, zeren izenean bat datorren jende horrek guztiak izendaturikoari mami oso ezberdinak atzematen dizkio eta. Eta jentilen munduak gurtzen zituen jainkoen aniztasuna izaki ulergaitz horren tasun ezberdinak edo haren probidentziaren alderdi diferenteak adierazteko modu figuratua besterik ez dela esanaz datozkidanei erantzunen diet ez dela hemen nire eginkizuna hasieran zer ziratekeen arakatzea, baina ez dudala uste inork esan lezakeenik herri-tarrek eurek hori horrela ulertzen zutela. Eta Beryteko apezpikuaren bidaia (13. kap.) (beste lekukotasun batzuk ez aipatzearren) kontsultatu nahi duenak ikusiko du siamdarren teologiak argi eta garbi onartzen duela jainko aniztasuna, edo Abbé de Choisy-k bere *Journal du Voyage de Siam*-en (107-177 or.) zentzu handiagoz ohartarazten duen moduan, ez dutela, zehaztasunez hitz eginda, inolako Jainkorik onartzen.

16. *Jainkoaren ideia ez da berbera nazio guztietan, nazio guztietako jakitunek ideia hori ukan arren.*

Norbaitek baldin badiost nazio guztietako jakitunek Jainkoaren batasun eta mugagabetasunaren egiazko ideia dutela, onartzen dut nik hori. Baina horrek:

Lehenik, izenarekiko izan ezean beste ezerekiko baiespen unibertsalik ez dagoela esan nahi du, jakitunak gutxi izanik —agian milako bat—, unibertsaltasuna urria delako.

Bigarrenik, argi frogatzen du, ene iritziz, gizakiek Jainkoaz dituzten noziorik egiazkoen eta onenak Jainkoak inprimatuak barik, haiek beren pentsaketa eta gogoetaz eta beren ahalmenen erabilpen egokiaren bidez erdietsiak dituztela, eta munduko gizaki jakitun eta gogoetatsuek, beren pentsamena eta arrazoimena zuzen eta artaz erabiliz, egiazko nozioak erdietsi zituztela honetan eta beste gai batzuetan, gizateriako gizaki nagi eta kaskarinen artekoek, askoz ugariago direnek, ordea, beren nozioak halabeharrez hartu zituzten artean, tradizio komunetik eta jende arruntaren burueratik jasoz, nozio horiei buruz beste buruhausterik ez ardurarik hartu gabe. Eta arrazoizko balitz Jainkoaren nozioa sortzetikoa izatea, gizaki zuhur guztiek ukan

dutelako, bertutea ere sortzetikoa dela pentsatu beharko litzateke, gizaki zuhurrek honen nozioa ere beti ukan dutelako.

17. *Jainkoari buruz ideia arraro, zabar eta tamalgarriak eskuarki aurkitzen dira gizakien artean.*

Hauxe izan zen, argi dago, jentileria guztiaren kasua eta Jainko bakarra gurtzen duten judutar, mahometar eta kristauen euren artean ere, Jainkoaren egiazko nozioa har zezaten jarritako ardura guztiarekin ere, ez da doktrina hori nagusi izan, hari buruz guztiek ideia bera eta egiazkoa izateko behar den heinean. Eta gure artean ere, kasuak ikertuz gero, zenbat eta zenbat ez ote dira oraindik Jainkoa zeruan jazarrita dagoen gizon bat bezala imajinatzen dutenak eta hari buruz bestelako ikusmolde zentzugabe eta ezduinak ere badituztenak? Kristauen artean turkiarren artean bezala, sekta osoak izan dira Jainkoa gorpuzduna dela eta giza forma duela seriotasun guztiarekin eta gogor baietsi eta defendatu dutenak; eta gure artean orain *antro-pomorfista* gutxi badira ere (ezagutu ditut batzuk), uste dut horren arduraz dabilen edonork iritzi honetako asko topatuko dituela kristau ezjakin eta eskolagabeen artean. Nahikoa da ia edozein adinetako nekazariekin eta ia nolanahiko gazte jendearekin hitz egitea, berehala konturatzeko, Jainkoaren izena ahotan sarri darabilten arren, izen honi aplikatzen dizkioten nozioak hain direla arraro, zabar eta tamalgarriak, non inork ere ezin imajina dezakeen ezein arrazoidun gizakik erakutsiak izan daitezkeenik eta askoz gutxiago Jainkoaren atzamarrak idatziak. Eta ez dut ikusten Jainkoaren ontasunari zergatik kentzen dion gehiago hark guri berari buruzko ideia horiek gabeko gogamena eman izanak, gu jantzirik gabeko gorputzekin munduratu izanak baino. Izan ere, hori guztia erdiesteko ahalmenez horniturik gaudenez gero, geure aldetiko ahalegin eta gogoeta falta izanen da, eta ez haren aldetiko eskuzabaltasun falta, gu horien jabe ez izatea. Jainko bat dagoena, lerro zuzen biren ebaketaz sorturiko aurkako angeluak berdinak direna bezain gauza ziurra da. Ez da inoiz izan arrazoidun izakirik, proposizio horien egia zintzo aztertzen jardun ondoren, baietsi beharra izan ez duenik, nahiz eta badiren, dudarik gabe, asko, pentsamendua bide horretatik ez eramatearren, ez bata ez bestea ezagutzen ez dutenak. Eta baten batek honi *baiespen unibertsala* (urrunen jotzea litzatekeena) deitzea egoki ikusten badu, aise onartuko dut nik hori, baina horrelako baiespen unibertsalak ez du Jainkoaren ideia sortzeti-

koa dela frogatzen, arestian aipaturiko angeluen ideia sortzetikoa dela baino gehiago.

18. *Jainkoaren ideia sortzetikoa ez bada, ez dago suposatzerik beste ezein denik.*

Izan ere, Jainkoaren existentzia giza arrazoimenaren aurkikuntzarik naturalena den arren, hala ere, hari buruzko ideia, esandakotik nire uztez garbi geratzen den moduan, sortzetikoa ez denez gero, uste dut nekez izanen dela maila horretara irits daitekeen beste ideiarik. Zeren, Jainkoak gizakien adimenean inpresio edo karaktererik grabatu izan balu, arrazoizkoena hori Berari buruzko ideia argi eta uniforme izatea bailitzateke, beti ere gure ahalmen mugatuek horrelako gauza ulergaitz eta amaigabea hartu ahal izanez gero. Baina gure gogamenek edukitzea biziki ardura digun ideia hau hasieran ez edukitzea argudio sendoa da sortzetiko beste edozein karaktereren aurka. Aitor dut, hauteman dezakedaneino, ezin izan dudala bat bera ere aurkitu eta pozik hartuko nuke norbaitek honi buruz emandako informazioa.

19. *Substantziaren ideia ez da sortzetikoa.*

Aitor dut badela beste ideia bat gizateriak edukitzea guztiontzat abantaila handi litzatekeena, baleukate bezala aipatzen baitute eskuarki; *substantziaren* ideia da, ez daukaguna eta sentipenez ez hausnarketaz geureganatu ezin duguna. Naturak gu ideiaren batzuez hornitzeko ardura hartu balu, espero izatekoa litzateke ideia horiek guk geure ahalmenez lortu ezin ditugunetakoak izatea; baina ikusten dugu, aitzitik, aipatu ideia besteak gogamenera heltzen zaizkigun bideetatatik eskuratzen ez dugunez gero, ez daukagula haren ideia *argirik*; eta, horregatik, *substantzia* hitzak ez du ezer ere esan nahi, zer den ez dakigun zerbaiten suposizioa ez bada, hau da, guk ideiarik (aparteko ideia bereizirik) ez daukagun zerbaitena, zerbait hori ezagutzen ez ditugun ideia horien *substratum* edo euskarritzat jotzen dugularik.

20. *Sortzetikoa den ideiarik ez denez, sortzetikoa den proposizioirik ere ezin izan.*

Sortzetiko printzipioez, zein espekulatiboez zein praktikoez, nahi adina hitz egin arren, ahalbide berarekin esan daitezke, alde bate-tik, gizaki batek sakelean 100 libra dituela eta aldi berean ez duela penike, txelin, koroa edo beste monetarik kopuru hori osatzeko, eta



bestetik, zenbait *proposizio* sortzetikoak direla, proposizio horiei dagozkien *ideiak* sortzetikotzat inola ere hartu ezin direnean. Proposizio batzuk oro har onartzeak eta baiesteak ez du inondik ere esan nahi han adierazitako ideiak sortzetikoak direnik, zeren, kasurik gehienetan, dena delako bidetik etorria izan ideia, beharrezko izanen baita ideia horrekiko adostasuna edo desadostasuna adierazten duten hitzei baiespena ematea. *Jainkoaren* eta gurtzaren egiazko ideia duen orok baietsiko du proposizio hau: «Jainkoa gurtu egin behar da», ulertzen duen hizkuntzan esaten bazaio; eta arrazoidun gizaki oro, proposizio horretan gaur pentsatu ez arren, bihar prest egon daiteke proposizio horri baiespena emateko; baina, hala ere, pentsa daiteke milioika direla gaur horietako bata edo biak ezagutzen ez dituztenak. Izan ere, basatiek eta nekazari gehienek Jainkoaren eta gurtzaren ideiak badituztela jota ere (beraiekin solasean jardunez gero, gehiegi sinetsiko ez dugun kontua berau), uste dut ideia horiek haur gutxik dituztela, eta, horregatik, gero une batean edo bestean edukitzen hasten dira eta orduan proposizio hori baiesten ere hasiko dira, handik aurrera auzi hori oso gutxi aztertzeko. Baina entzun eta berehala emandako baiespeneak ez du frogatzen *ideiak* sortzetikoak direnik beste honek baino gehiago, alegia, sortzetik itsua den batek (biharamunean ebaketaz kenduko zaizkion begi-lausoak duelako) eguzkiaren, argiaren, azafrairen edo horiaren sortzetiko ideiak izan dituela frogatzen ez duen baino gehiago, ikusmena erdiestean proposizio hau baietsiko duelako: «Eguzkia argitsua da, edo azafraia horia da». Eta horregatik, proposizioa entzun eta berehala emandako baiespene horrek ideiak sortzetikoak direla frogatu ezin baldin badu, gutxiago frogatu ahal izanen du ideioek osaturiko *proposizioak* sortzetikoak direnik. Eta sortzetiko ideiarik balute, pozik hartuko nuke norbaitek esanzen balit zein eta zenbat diren.

## 21. *Oroimenean ez dago sortzetiko ideiarik.*

Zilegi bekik honi guztiari haxe gehitzea: gogamenean sortzetiko ideiak baleude, gogamenak ideiotan aktualki pentsatu gabe, orduan oroimenean egon beharko lukete; eta handik oroitzapenak agerian jarriko lizkiguke, hau da, ideioek gogora ekartzean lehenago gogamenean izandako pertzepzio moduan ezagutuko genituzke, oroitzapena oroitzapenik gabe izan ezin badu behinik behin. Izan ere, oroitzea zerbait oroimenaz edo lehenago hauteman edo ezagutua dugun kon-

tzientziaz hautematea da. Hau gabe, gogamenera datorren ideia oro berria da, eta ez da gogoraturiko ideia, lehenago gogamenean izanaren kontzientzia horixe baita, izan ere, oroitzea pentsatzeko beste era guztietatik bereizten duena. Gogamenak inoiz *hauteman* ez duen edozein ideia ez da sekula egon gogamenean. Gogamenean dagoen ideia oro edo pertzepzio aktuala da edo, bestela, lehenago pertzepzio aktuala izan delarik, halatan dago gogamenean, non oroimenaz berriro ere pertzepzio aktual egin daitekeen. Oroimenaren jardunik gabe ideiaren baten pertzepzio aktuala dagoen guztian, ideia hori erabat berri eta adimenak lehenago ezagutu gabeko moduan agertzen da. Oroimenak ideiaren bat aktualki erakusten duenean, lehenago han egondakoa den eta gogamenari zeharo arrotz gertatzen ez zaion kontzientziaz izaten da. Hau horrela den ala ez, ikus beza nork bere esperientzian. Eta orduan norbaitek (geroago aipatuko ditugun bideetatik inolako inpresiorik jaso aurretik) lehenago ezaguturiko ideia bezala birsor eta gogora lezakeen sortzetiko ideia ustezko baten adibidea ekartzea nahi nuke. Izan ere, lehenagoko pertzepzioaren kontzientziarik gabe ez dago oroitzapenik, eta kontzientzia *hori* gabe gogamenera heltzen den ideia ez da gogoraturiko ideia, ezta oroimenetik etorria ere, eta ez dago esaterik agerpen horren aurretik gogamenean egona denik. Zeren, aktualki bistan edo oroimenean ez dagoena inola ere ez baita go gogamenean, eta sekula han egon ez balitz bezalaxe da. Demagun koloreak bereizteko unera arte ikusmena ukaniko haur bat, baina gero begi-lausoak ilunbetan utzi eta berrogei edo berrogeita hamar urtez ilun-ilunetan bizitakoa, koloreei buruz izandako ideiak zeharo ahanteraino. Hau behin solaskide izan nuen itsuaren kasua da; haur zela ikusmena galdu zuen nafarreraren eraginez eta ez zeukan sortzetikoitsu batek baino koloreen nozio gehiagorik. Eta galdetzen dut: ba al da inor esan dezakeenik ea gizon honek sortzetikoitsu batek baino koloreen ideia gehiagorik zuen ala ez? Eta uste dut ez dagoela inor esan duenik bata edo besteak koloreen ideiarik zuenik. Baina begi-lausoa kenduz gero, ikusmen berreskuratuaren bidez koloreen ideiak (gogoratzen ez dituenak) berriro, *de novo*, gogamenera etorriko zaizkio, ideiak aurretik ezagutu izanaren kontzientziarik gabe. Eta gero birgogoratu eta iluntasunean zegoen gogamenera ekarri ahal izanen ditu. Kasu honetan, bistan egon gabe lehen ezagutu izanaren kontzientziaz birgogora daitezkeen ideia horiek guztiak oroimenean daude, eta gogamenean daudela esaten da. Honek guztiak ondorio moduan hona-

ko hau ateratzeko balio dit, alegia, aktualki bistan egon gabe gogamenean dagoen ideia oro oroimenean egonez, ez bestela, dagoela han, eta oroimenean ez badago gogamenean ere ez dago; eta oroimenean bada-  
go, honek ezin atera izanen du gogamenetik bistara, oroimenetik dato-  
rrrela hauteman gabe, hau da, lehen ezagutu eta orain gogoratzen den  
gauza bat dela konturatu gabe. Horregatik, sortzetiko ideiarik egotera,  
oroimenean egon beharko lukete, edo bestela ez leudeke gogameneko  
beste inon; eta oroimenean badaude, birgogoratu egin litezke kanpoko  
ezein inpresioaren beharrik gabe; eta gogamenera ekartzen diren guz-  
tian gogoratu egiten dira, hau da, gogamenarentzat zeharo berriak ez  
diren pertzepzioa daramate aldean. Gogamenean eta oroimenean  
dagoenaren eta ez dagoenaren artean diferentzia hori beti dagoelarik,  
oroimenean ez dagoen oro, gogamenean agertzen denean, erabat berri  
eta lehenago ezagutu gabeko moduan agertzen da; eta oroimenean edo  
gogamenean dagoen oro, oroimenak iradokia izan denean, ez da berri  
moduan agertzen, eta gogamenak bere baitan aurkitzen du eta badaki  
lehenago hortxe egona dena. Horrexen bidez egiazta daiteke gogame-  
nean, sentipenak edo hausnarketak egindako inpresiorik egon aurre-  
tik, sortzetiko ideiarik egon den. Pozik ezagutuko nuke arrazoimen-  
aren erabilera heltzean edo bere bizitzako beste edozein garaitan  
horrelako ideiarene batzuk, hau da, jaioz geroztik inoiz ere berri iritzi  
gabekoak, gogoratuko lituzkeen norbait. Baten batek baldin badio  
oroimenean ez dauden ideiak daudela gogamenean, zer dioen esplika-  
tzeko eta ulergarri egiteko eskatuko nioke.

*22. Printzipio horiek, baliagarritasun eta ziurtasun urria dute -  
lako, ez dira sortzetikoak.*

Esan dudana gain, bada beste arrazoi bat ere aipatu ditudan  
printzipioak, edo beste edozein, sortzetikoak direla zalantzatan jartze-  
ra naramana. Nik, Jainko amaigabeki jakintsuak gauza guztiak bere  
jakituria hobezinari dagokion moduan egin zituela erabat konbentzi-  
turik nagoen honek, ezin dut lortu ulertzea zergatik suposatu behar  
den Jainkoak gizakien gogamenetan printzipio unibertsalak inprimatu  
dituela; izan ere, sortzetikotzat hartzen diren eta *espekulazioari*  
dagozkion printzipio horiek ez dira baliagarritasun handikoak, eta  
*praktikari* dagozkionak ez dira berez nabariak eta batzuk zein besteak  
sortzetikotzat ez dauden beste printzipioetatik bereiztezinak dira. Izan  
ere, zertarako egon behar dute karaktere batzuk Jainkoaren atzama-

rrak gogamenean grabaturik, geroago hara heldutakoak baino argiagoak ez badira edo haietatik bereiztezinak badira? Norbaitek uste badu argiak eta baliagarriak direlako badaudela gogamenera gero etorritako eta erdietsitako guztietatik bereizteko moduko sortzetiko ideia eta proposizioak, ez luke zail *zein diren* esaten; eta orduan mundu guztia izan liteke epaile egokia sortzetikoak diren ala ez ebazteko. Zeren, sortzetiko ideia edo inpresio horiek beste pertzepzio eta eza-gupen guztietatik erabat diferenteak baldin badira, edonork aurkitu ahal izanen baitu bere baitan hori egia dela. Sortzetikotzat dauden printzipio horien nabaritasunari buruz egin dut berba eta beraien baliagarritasunari dagokienez geroago ukanen dut hitz egiteko parada.

*23. Gizakiek egiten dituzten aurkikuntzen arteko diferentziak, beren ahalmenen erabilera ezberdinen arabera dira.*

Amaitzeko, ideia batzuk gizaki guztien gogamenera zabalzabalik aurkezten dira; beste egia batzuk, berriz, zenbait ideiatatik deduzitzen dira gogamenak proposizioetan formulatu eta berehala; beste egia batzuek ideiak hurrenez hurren ordenan jartzea, elkarrekin egokiro alderatzea eta dedukzioak arretaz egitea behar dute, egia hori aurkitu eta baietsi aurretik. Lehenengo motako batzuk, oro har eta erraz jasotzen direlako, sortzetikotzat hartu dira errakuntzaz. Baina egia honako hau da: ideiak eta nozioak ez direla gurekin batera jaioak, arteak eta zientziak diren baino gehiago, nahiz eta batzuk beste batzuk baino lehenago eta errazago aurkezten diren gure ahalmenetara, eta, beraz, jendeak eskuarkiago onartzen dituen. Baina hori ere gure gorputzeko organoen eta gogameneko ahalmenen erabileraren menpe dago, zeren Jainkoak egiak aurkitu, jaso eta atxikitzeko ahalmen eta bitartekoz hornitu zituen gizakiak, baina beti ere ahalmen eta bitarteko horien erabileraren arabera. Gizakien artean nozioei dagokienez dagoen alde itzela ahalmenak erabiltzeko era ezberdinetik dator. Batzuek, gehienek, inoren hitzaz fidatuta, baiesteko ahalmena gaizki erabili eta nagikeriaz beren gogamena beste batzuen esanaren eta nagusitasunaren pean jartzen dute, fede inplizituaz itsuan irentsi barik, beren eginbeharra delako arta handiz aztertu behar litzuketen doktrinetan. Beste batzuek beren pentsamenduak gauza gutxi batzuen inguruan erabiltzen dituzte, nahikoa aztertzen dituzte eta haiei buruz ezagutza maila handia erdiesten dute, baina beste guztietan ezjakin dira, beren pentsamenduak beste ikerketa batzuk egiten ez erabiltzea-

rrren. Horrela, triangelu baten hiru angeluek zuzen biren balioa dutela beste edozeren adinako egia da, eta, ene ustez, printzipiotzat dauden proposizio horietako asko baino nabariagoa; eta, hala ere, milioiak dira, beste gauza batzuetan adituak izan arren, egia hori ezagutzen ez dutenak, sekula ez dutelako angelu horiei buruz pentsaketan jardun. Eta proposizio hau ezagutzen duenari ere gerta dakioke beste proposizio batzuen egia ez ezagutzea —matematiketan euren ere—, aipaturikoa bezain argi eta bistakoak izan arren, egia matematikoen bilaketan aurrerago jo gabe geratu zelako. Gauza bera gerta daiteke jainkotasunaz ditugun nozioei buruz ere. Izan ere, Jainkoaren existentzia baino nabaritasun handiagoz gizakiak aurki dezakeen egirik ez dagoen arren, gauzak munduan topatzen dituen moduan onartzearekin konformatzen dena, bere plazer eta grinetakako balio diotelako, haien kasuak, xedeak eta osaera miresgarriak apur bat sakonago ikertu gabe eta kontu horri buruz arduraz eta arretaz gogoeta egin gabe, Izaki horren noziorik gabe bizi liteke luzaro. Eta baten batek harekin mintzatuz nozio hori burura sartuz gero, sinetsiko luke agian: baina, inoiz aztertu ez badu, horri buruz hark jasoko lukeen ezagutza ez litzateke hobea, triangelu baten hiru angeluek bi zuzenen balio bera dutela esan zaiolarik, esalearen hitzean fidantzia jarrita, demostrazioa aztertu gabe, proposizioa onartzen duenarena baino; eta eman diezaioke nozio hari baiespena egia izan daitekeen iritzi gisa, baina haren egia- ren noziorik ukan gabe, nahiz eta, bere ahalmenak arretaz erabili izan balitu, nozio argi eta nabariaren jabe izatera hel zitekeen. Eta honek guztiak, bide batez esanda, honako hau frogatzeko balio du: zenbateraino dagoen *gure ezagutza naturak eman dizkigun ahalmen horien erabilera onaren menpe eta zein gutxi gizaki guztien baitan, haientzat gidargi izateko, inprimaturik alferrik suposatzen diren sortzetiko printzipio horien menpe*, printzipiook, balira, gizaki guztiek ezagutu beharko lituzketelarik nahitaez, bestela alferrekoak liratekeelako. Eta gizaki guztiek ezagutzen ez dituztenez eta gero etorritako beste egia batzuetatik bereizi ezin dituztenez gero, arrazoiz esan dezakegu horrelako printzipiorik ez dela inon.

#### 24. *Gizakiek beren kabuz pentsatu eta ezagutu behar dute.*

Ondo dakit zenbaten gaitzespena jasoko dudan sortzetiko printzipioez dudatzeagatik, ezagutzaren eta ziurtasunaren oinarri zaharrak deuseztea egotziko baitzait. Nik neuk bederen konbentzimenduz ikus-

ten dut erabili dudan bideak, egiari doakiona izanik, sendotasun handi-  
diagoa demaiola oinarri horri. Eta ziurtasunez esan dezaket ondoren  
datorren diskurtsoan ez dudala hortik aldentzeko ez ezein agintariren  
menpean jartzeko asmorik. Egia izan dut helburu bakar, eta helburu  
horretara noala uste izan dudanean, nire pentsamenduek haraxe jo  
dute inpartzialtasunez, besteen urratsek bide horretan oinatzik utzi  
duten ala ez ardurarik hartu gabe. Ez dut, ez, besteen iritziekiko erres-  
petu faltarik, baina, azken batean, egiari zor zaio errespeturik handie-  
na. Eta inork harrokeriatzat ez hartzea espero dut esatea agian aurre-  
rakada handiagoa eginen genukeela ezagutza arrazional eta konten-  
platiboak aurkitzeko bidean, iturrian, *gauzak berak aztertuz*, bilatuko  
bagenu eta egia aurkitzeko besteen pentsamenduak barik geureak era-  
biliko bagenitu. Zeren uste baitut besteen begiez ikusteko baino espe-  
rantza arrazoizko handiagorik ezin dugula eduki besteen gogamenaz  
ulertzeko. Egia eta arrazoa guk geuk aztertu eta ulertzen dugun neu-  
rrian erdiesten dugu ezagutza ziur eta egiazkoa. Beste batzuen iritzia-  
k gure burmuinean hara eta hona ibiltzeak, egiazkoenak izanda ere, ez  
garamatza ezagutzaile pixka bat hobe ere izatera. Haiengan zientzia  
izandakoa gugan setakeria besterik ez da, izen ospetsuei atxikimendua  
eman eta aldi berean, haiek egin zuten bezala, gure geure arrazoime-  
na erabiltzen ez dugun artean haiek ospetsu egin zituzten egiak uler-  
tzeko. Aristoteles, benetan ere ezagutza zabaleko gizona izan zen,  
baina inork ez du sekula pentsatu beste baten iritzia-  
k itsuan onartu eta jendaurrean azaldu izanagatik zenik jakituna. Eta inoren printzipioak  
aztertu gabe hartzea izan ez bazen filosofo egin zuena, uste dut horrek  
beste inor ere ez duela filosofo eginen. Zientzietan, bakoitzak egitan  
ezagutzen eta ulertzen duen hainbat bereganatzen du. Batek sinesten  
eta inoren hitzean fidaturik onartzen dituenak zatiak besterik ez dira,  
pieza osoan balioko izan arren, haien biltzailearen edukari askorik  
gehitzen ez diotenak. Mailegaturiko aberastasun hori, maitagarrien  
ipuinetakoa dirua bezala, emailearen eskuetan urrea izan arren, orbela  
eta hautsa besterik ez da izaneren erabili behar den orduan.

## 25. *Nondik sortua den sortzetiko printzipioen aldeko iritzia.*

Ulertu bezain laster dudarik gabe onartu beharrekoak ziren  
proposizioak aurkitu zirenean, konklusiorik errazena, badakit nik  
hori, sortzetikoak zirela esatea izan zen. Behin hau onartuz gero,  
nagiak ikertzeko lan neketsutik libre geratu ziren eta sortzetiko dekla-

raturiko guztiaz zalantzak zituztenen bilaketa gerarazi zuen horrek. Eta ez zitzaien abantaila makala gertatu beren buruak maisu eta irakasletzat zutenei printzipioen printzipio bihurtzea honako hau: *printzipioak* ez dira auzitan jarri behar. Izan ere, doktrina hau, hots, badi-rela sortzetiko printzipioak, zutik jarri ondoren, horren aldekoak zenbait antzeko doktrina sortzetikotzat onartzera behartu zituen horrek; eta hori beren arrazoimen eta juzgamema galaraztea eta doktrina hori sinestera eta inoren hitzean fidaturik onartzera behartzea zen, gehiagoko azterketarik gabe. Horretara sineskortasun itsuko egoeran jarrita, hezi eta gidatzeko abilezia eta lanbidea zutenek horrelako jendea aiseago gobernatu eta beren xedeetarako erabiliko zuten. Ez da makala, izan ere, printzipioak diktatzeko, egia eztabaidea ezin irakasteko eta beste bati irakastunaren xedeetarako balio duen guztia sortzetiko printzipiotzat irentsarazteko aginpideak gizaki bati ematen dion beste batekiko boterea. Alderantziz, gizakiek egia unibertsal asko ezagutzera iristeko dituzten bideak aztertu izan balituzte, aurkitu zuketeneuren gogamenetan gauzen beren izatetik sortzen direla egiok, behar bezala aztertzen direnean, eta naturak onartzeko eta juzgatzeko emandako ahalmenez baliatuz deskubritzen direla, ahalmenok horretarako behar bezala erabiltzen direnean.

## 26. *Konklusioa.*

Ondoren datorren diskurtsoaren xedea adimenak *nola* diharduen erakustea da, eta hori aurretik honako hau azalduta gero eginen dut, alegia, geure ezagutzari buruz ukan ditzakegun nozioak eraikitzeke bakar eta egiazkotzat ditudan oinarrietarako bidea garbitzeko, orain arte beharrezko izan dudala sortzetiko printzipioez dudatzeko ukan ditudan arrazoiak ematea. Eta printzipio horien aurkako argudio batzuk eskuarki onarturiko iritzietatik sorturikoak direnez gero, zenbait gauza suposatutzat ematera beharturik aurkitu naiz, ekidinerraza ez den gauza berau, edozein doktrinaren faltsutasuna edo gertagarritasuna frogatzeko eginkizuna duen edonorentzat. Diskurtso polemikotetan, gertatu ere, hiriak erasotzean bezalaxe gertatzen da, horietan, bateriak jarri beharreko lurra irmoa izanez gero, ez baita begiratzen ez lur hori nori mailegatu zaion ez norena den, ardura bakarra nahi den xederako egokia izatea delarik. Hala ere, diskurtso honen geroko partean, neure esperientzia eta behaketak lagunduta egin dezakedan neurrian, eraikin uniforme eta bere baitan koherentea eraikitzeke helbu-

rua dut eta oinarri sendoen gainean eraikitzea espero dut, mailegaturiko oinarrien gaineko euskarri eta horma-bularrik jarri beharrik gabe; eta nirea airean eraikitako gaztelua izatea gertatuko balitz ere, pieza batekoa izan ledin eta gainbehera etor ez ledin ahaleginduko nintzateke. Bestela, irakurleari ohartarazi nahi diot ez itxaroteko nigandik frogapen konbentzigarri ukaezinik, niri ere beste batzuei sarri eman zaien pribilegioa, nire printzipioak suposatutzat jotzekoa, ematen ez bazait bederen, zeren orduan, dudarik ez dut, neuk ere jakinen baitut frogatzen. Aztergai ditudan printzipioei buruz esanen dudan guztia hauxe da: bakoitzak aurreiritzi gabeko esperientzia eta behaketara («observation») jo dezala, egiazkoak diren ala ez esateko; eta horixe da nahikoa ilunbean dagoen gai bati buruz, aurreiritzirik gabe egiaren atzetik beti ibiliz, bere aieruak lainoki eta askatasunez azaltzea beste helbururik ez duen gizon bati eska dakiokeen guztia.



## II. LIBURUA IDEIEZ

## BIGARREN LIBURUAREN LABURPENA

Bigarren Liburuan Lockek giza adimenak ezagutza eta probabilitatea aurkitzeko bide dituen ideien edo fenomenoen historia deritzona eskaintzen du, bi horiek jartzen saiatuz Lehenengo Liburuan eztabaidaturiko «iritzi ezarriaren» lekuan, hau da, gu jaiotzean ideia edo printzipio erragulatzaile ziurrez kontziente garela eta printzipiook, beraz, kritikatik eta esperientziaz egiaztatu beharretik libre geratzen direla dioen iritziaren lekuan. Giza adimenaren aztergai izan daitezkeen ideia bakun edo fenomenoak, edo bost sentimenetan agertzen direnak —guk kanpoko gauzekin lotzen ditugunak— edo geure gogoamenaren eragiketetako hausnarketa-esperientzian agertzen direnak direla planteatzen eta frogatzen da kontratesi moduan Bigarren Liburuko lehen hamaika kapituluetan. XII-XXVIII kapituluetan, aldiz, teoria hauxe egiaztatzen da, alegia, gure ideiarik abstraktuenak, sentimenen datuetatik eta gogamenaren eragiketetatik urrunen diruditenak ere, gure adimenak beretzat eratzen dituen bezalakoak direla, eratze honetarako sentimenen objektuetatik edo berauei buruz berak gauzaturiko eragiketetatik harturiko ideiak errepikatu, batu, egiaztatu eta lotu egiten dituelarik bere ahalmenen erabilpen aktiboaz baliatuz. Hainbat adibide indartsuz osatua da, honako hau agerian jartzeko, alegia, ideiarik konplexunetan ere, hala nola, *espazio*, *denbora*, *infinitutasun*, *substantzia*, *ahal*, *identitate* eta *moraltasuna* bezalako ideietan ere, jatorrizko esperientzi fenomenotik urrunen diruditenetan, adimena ez dela «espirik ere mugitzen» existitzen denari buruz hasieran dugun ezjakintasuna kentzeko bide ditugun fenomeno horietatik harago. Gure ideia bakun eta konplexuen koaliteteak —hala nola ideia argiak, bereiziak, egokiak eta egiazkoak eta horietako bakoitzaren kontrakoak— XXIX-XXXII kapituluetan azaltzen dira. Liburua XXXIII. kapituluaren amaitzen da «elkarlotze» mentalaren adibideekin, eta gure ideien koalitatea honda dezakeen elementu moduan aurkezten da elkarlotzea, ideiak ezagutza edo probabilitatea determinatzeko ezgai bihurtzen dituelako.

# I. KAPITULUA

## Ideiez oro har eta euren jatorriaz

### 1. *Ideia da pentsagaia.*

Gizaki oro bere pentsamenduaz konturatzen denez eta pentsatzen ari denean bere gogamenak hantxe dauden *ideien* inguruan diharduez gero, ez dago dudarik gizakiek beren gogamenean zenbait ideia dituztela, hala nola, *zuritasun, gog ortasun, eztitasun, pentsatu, higidura, gizon, elefante, armada, hordikeria* eta horrelako hitzek adierazitakoak. Lehenengo eta behin, orduan, *gizakia horiek edukitze-ra nola heltzen den jakin beharko da.*

Badakit doktrina onartua dela gizakiek sortzetiko ideiak eta jatorrizko karaktereak dituztela beren gogamenetan sorrerako lehen unetik inprimatuak. Luze aztertu dut jada iritzi hau eta uste dut aurreko liburuan esan dudan guztia errazago onartuko dela adimenak dituen ideia guztiak nondik har ditzakeen eta gogamenera nola eta zein mailatan etor daitezkeen azaltzen dudanean; eta horretarako bakoitzaren esperientzia eta behaketara joko dut.

### 2. *Ideia guztiak sentipenetik edo hausnarketatik datoz.*

Jo dezagun, bada, gogamena, esan ohi dugun moduan, paper zuri bat dela, karaktererik gabekoa, inolako ideiarik ez duena. Nola heltzen da horiek edukitzera? Nola heltzen da gogamena gizakiaren irudimen lantsu eta mugarik gabeak ia amaigabeko aniztasunez bere baitan pintatu dion ugaritasun hori guztia edukitzera? Nondik atera-

tzen du arrazoimenaren eta ezagutzaren material hori guztiori? Galderoi hitz bakar batez erantzunen diet: **ESPERIENTZIATIK**. Esperientzian oinarritzen da gure ezagutza guztia eta etorri ere esperientziatik dator azken batean. Hautematen ditugun eta hausnargai izaten ditugun kanpoko objektu sentigarriez edo gure gogamenaren barne jardunez egiten ditugun behaketak dira gure adimena pentsaketarako *material* guztiez hornitzen dutenak. Ondoren esanen ditudan biak dira dauzkagun edo era naturalez ukan ditzakegun ideia guztien sorburu diren ezagumenaren iturriak.

### 3. *Sentipenaren objektuak dira ideien iturri bata.*

Lehenik, gure sentimenek, objektu sentigarri partikularrekin ari direlarik, gauzen hainbat pertzepzio ezberdin daramatzate gogamenera, objektu horiek egiten dizkien eragin mota ezberdinen arabera. Eta horrexetara heltzen gara *hori, zuri, bero, hotz, leun, latz, gozo, mingots* eta koaliat sentigarri deitzen diegun horien *ideiak* edukitze-ra. Eta horiexek direla sentimenek gogamenera daramatzatenak diodanean, esan nahi dut sentimenek kanpoko objektuetatik gogamenera pertzepzio horiek han sortzen dutena daramatela. Dauzkagun ideiarik gehienen iturri handi honi, gure sentimenen menpe daudelako eta beraietatik adimenera igortzen direlako, Sentipen («sensation») deitzen diot.

### 4. *Gure gogamenaren eragiketak dira ideien beste iturria.*

Bigarrenik, esperientziak adimena ideiaz hornitzeko duen beste iturria gure gogamenaren barne eragiketak dira, dauzkan ideiei buruz ari denean; aipaturiko eragiketek, arimak haiei buruz hausnarketan eta pentsaketan diharduenean, beste mota bateko ideiez hornitzen dute gogamena, alegia, kanpoko objektuetatik erdietsi ezin direnez. Hauexek dira horiek: *hautematea, pentsatzea, dudatzea, uste izatea, arrazoitzea, ezagutzea, nahi izatea*, eta gure gogamenaren egintza diferente guztiak. Eta horien ohartun izan eta geure baitan hautematen ditugularik, berorietatik, geure sentimenetan eragina duten gorputzetatik hartzen ditugunak bezain bereiziak diren ideiak hartzen ditugu. Ideien iturri hau gizaki guztiek daukate beren baitan eta, sentimen ez den arren kanpoko objektuekin zerikusirik ez duelako, hala ere sentimenaren oso antzekoa da eta barne sentimen dei dakioke nahikoa zehaztasunez. Baina besteari sentipen deitu diodan moduan, honi **HAUSNARKETA** («REFLECTION») deituko diot, dakartzan ideiak

gogamenak bere barne eragiketei buruz hausnartuz soilik erdietsiak direlako. Hausnarketa hitza, beraz, hemendik aurrerako diskurtsoan haxe adierazteko erabiliko dut, gogamena bere eragiketez eta haien era ezberdinez ohartzea, beraien bidez adimena eragiketa horien ideiak edukitzera heltzen delarik. Iturri bi horiek, hau da, kanpoko gauza materialak, sentipenaren objektu direnez, eta gure gogamenaren barne eragiketak, hausnarketaren objektu direnez, dira, nire ustez, gure ideien hasiera eta sorburu bakarrak. Eragiketa hitza hemen zentzu zabalean darabilt, gogamenak bere ideiei buruz burutzen dituen egintzak bakarrik barik, beraietatik batzuetan sortzen diren pasio batzuk ere hartuz, hala nola edozein pentsamenduk eragin lezakeen gozamena edo artegasuna.

##### *5. Ideia guztiak sentipenetik edo hausnarketatik datoz.*

Uste dut adimenak ez duela bi iturri horietatik harturikoak beste ideiarik ezagutzen. *Kanpoko objektuek* koalitaterik sentigarrien ideiez hornitzen dute gogamena, geure baitan sortzen dizkiguten pertzepzio ezberdin horiek direlarik ideioi; eta *gog amenak* bere eragiketen ideiez hornitzen du adimena.

Ideioi eta euron moldeak (konbinazio eta erlazioak) zehatz aztertuz gero, aurkituko dugu gure ideia guzti-guztiak hartzen dituztela eta gogamenean ez dugula ezer bi bide horietako batetik edo bestetik etorria ez denik. Azter ditzala bakoitzak bere pentsamenduak eta bila dezala zehatz-mehatz bere adimenean, eta gero esan diezadala han dauzkan jatorrizko ideia guztiak ez diren edo bere sentimenen objektuei edo bere gogamenaren eragiketei dagozkienak, eragiketok bere hausnarketaren objektu dituenek. Eta han ezagutza-multzo oso handia daukala iruditurik ere, hertsiki begiratzuz gero, ikusiko du bideotako bat edo bestearen bitartez inprimaturiko ideiak besterik ez dituela gogamenean, nahiz eta agian adimenak amaigabeko aniztasunaz konbinatu eta zabalduak izan, gero ikusiko dugunez.

##### *6. Haurrengan hauteman daitekeena.*

Mundura jaioberri den haur baten egoera aztertzen duenak arrazoi gutxi ukanen du pentsatzeko haur hori geroko ezagutzen materiala izanen diren ideiez beterik dagoela. Mailaka hornitzen da ideioz. Eta, koalitaterik nabariaren eta ezagunenaren ideiak oroimena denboraren eta ordenaren erregistroa gordetzen hasi aurretik inprimatzen diren

arren, koalitate ezohiko batzuk hain berandu agertzen dira, non gutxi diren lehenengoz noiz ezagutu zituzten gogoratzen ez dutenak; eta merezi izanez gero, dudarik gabe hauteman daiteke haurrak oso ideia gutxi dituela, arruntetakoak ere, handi egin baino lehen. Baina mundura jaio guztiak etengabe eta era askotara beraian eragina duten gorputzez inguraturik daudenez, ardura hartu eta horretan saiatu zein saiatu ez, askotariko ideiak inprimatzen dira haurren gogamenean. Argia eta koloreak lantsu ari dira nonahi, begiak zabalik ukanez gero; hotsak eta zenbait koalitate ukigarri hutsik gabe ari zaizkie deika dagozkien sentimenei, eta horretara, gogamenerako sarbidea urratzen dute. Baina, hala ere, uste dut aise onartuko dela haur bat gizon egin arte zuria eta beltza beste kolorerik ikusteko ahalbiderik ez duen toki batean edukiz gero, ez lukeela gorriaren eta berdearen ideiarik ukanez, haurtzarotik sekula ostra edo ananarik dastatu gabekoak jangaion gustuaren ideiarik ez lukeen bezalaxe.

*7. Gizakiek, zein objektuekin harremanean dauden, ideia ezberdinak dituzte.*

Gizakiek, orduan, kanpotiko ideia gehiago edo gutxiagoz hornitzera heltzen dira, harremanean dauden objektuek bariedade handiagoa edo txikiagoa duten heinean; eta barne eragiketetatik sorturiko ideiez ere berdina, haiei buruz gehiago edo gutxiago hausnartzen duten neurrian. Izan ere, bere gogamenaren eragiketak kontenplazten dituenak eragiketa horiei buruz ideia xume eta argiak eduki behar dituen arren, hala ere, bere pentsamendua horixe bideratu eta ideioi arretaz begiratu ezean, ez du lortuko eragiketa horien eta hain hauteman daitekeen guztiaren ideia argi eta bereiziak edukitzea, ez behintzat paisaia batez edo erloju baten atal eta higidurez, gauzotara begiak arretaz zuzendu gabe eta beraien atalei erreparatu gabe begiratzen duenak ukanen lituzkeenak baino argiagoak. Koadroa edo erlojua gizon hori egunero haien aurretik iragan ahal izateko moduan kokaturik egon daitezke, baina, hala ere, haien osagai diren parte guztien ideia lanbrotsua ukanen du, harik eta parte horiek banan-banan arretaz begiratzen jarri arte.

*8. Hausnarketaren ideiak besteak baino geroago etortzen dira, arreta behar dutelako.*

Eta hortxe ikusten dugu zergatik igaro behar duen denbora batek haurrik gehienek beren gogamenaren eragiketen ideiak ukan

aurretik eta zergatik pertsona batzuek beren bizitzaldi guztian ere ez duten eragiketako horietako gehienek ideia guztiz argi edo hobezinik. Izan ere, ideiek, gogamenean zehar etengabe pasatzen ari diren arren, ikuskizun iheskorrak bailiran, ez dute lorratz sakonik inprimatzen, ez behintzat gogamenean ideia argi, bereizi eta iraunkorrek uzteko bezain sakonik, harik eta adimenak, bere baitara bihurtuz, bere eragiketen gainean hausnartu eta bere kontenplazioaren objektu bilakatu arte. Haurrek, mundura jaio berritan, gauza berriz inguraturik egoten dira, eta gauzok haien sentimenei etengabe deika aritzen direlarik, gogamenari euren gaitasuna tiratzen diote, berriaz ohartzera behartuz, honek objektu aldakorren barietatearekiko gustua sortarazten duelarik. Horretara, lehenengo urteak kanpora begiratzeko erabili ohi dira. Gizakion egitekoa urte horietan kanpoan dagoena ezagutzea da; eta horrela, haurra kanpoko sentimenean arreta jarrita hazten denez, bakanki egiten du hausnarketarik bere baitan gertatzen denaren gainean, heldutasunera iritsi arte; eta batzuek orduantxe ere ez.

9. *Arima hautematen hasten denean hasten da i deiak eduki ten* .

Gizakiak ideiak *noiz* izaten dituen galdetzea, hautematen *noiz* hasten den galdetzea da, *ideiak edukitzea* eta *hautematea* gauza bera direlako. Ondo dakit badela ikusmolde bat honako hau baieztatzen duena, alegia, arimak beti pentsatzen diharduela eta, diraeino, ideien pertzepzio aktuala berarengan duela, eta hain da pentsatze aktuala bereizgaitz arimarekiko, nola hedadura aktuala bereizgaitz den gorputzarekiko. Hau egia bada, gizakiaren ideien hasieraz galdetzea eta haren arimaren hasieraz galdetzea gauza bera dira, zeren, horren arabera, arima eta bere ideiak, gorputza eta bere hedadura bezalaxe, batera hasten baitira existitzen.

10. *Arimak ez dihardu beti pentsatzen, hori frogatari kez bati tigo* .

Baina arima organizazioaren hasi-masiaren edo gorputzeko bizitzaren hasieraren aurretik ala batera, ala batzuetan geroago existitzen ote den, gai horretaz nik baino hobeto pentsatu dutenek eztaba idatzeko uzten dut. Aitortzen dut bere burua etengabeko kontenplazioan iruditzen ez duen arima motela duten horietakoa naizela; baina ezin dut ulertu arimari beti pentsatzen aritzea gorputzari beti mugimenduan aritzea baino beharrezkoago zaionik, ideien pertzepzioa baitzaio arimari, ene ustez, gorputzari higidura zaiona: ez haren esentzia, haren eragiketetako bat baizik. Eta horregatik, arimaren egintzarik

bereena pentsatzea dela uste izan arren, ez dago, hala ere, uste izan beharrik beti pentsatzen, beti ekintzan, diharduenik. Hori, agian, gauza guztien Egile eta Iraunarazlearen pribilegioa da, «sekula ere erdilotan edo lotan egoten ez denarena»; baina ezein izaki finituri ez dagokio hori, edo ez behintzat gizakiaren arimari. Ziur dakigu, esperientziaz, *zenbaitetan* pentsatu egiten dugula, eta hemendik ondorio hutsezin haxe atera dezakegu: geure baitan pentsatzeko ahalmena duen zerbait daukagula; baina substantzia hori *beti* pentsatzen ari den ala ez, esperientziak dioskuna baino seguruago baiesterik ez dugu. Izan ere, pentsatze aktuala arimaren esentziari dagokiola eta haren-gandik bereizgaitza dela esatea auzitan dagoena baiestea da, inolako frogarik ekarri gabe, eta horiek ekartzea, proposizioa berez begi-bistakoa izan ezean, beti egin beharrekoa da. Baina «arimak beti diharduela pentsatzen» dioen proposizioa berez begi-bistakoa eta mundu guztiak behin entzunez gero baietsia den ala ez, gizateriaren ebatzira uzten dut. Zalantzatan jartzen da bart gau guztian pentsatzen ari izan naizen ala ez. Auzia egitate bati buruz denez, froga moduan auzitan dagoen gauza bera den hipotesia ekartzen da. Horretara edozer froga liteke; nahikoa izanen litzateke suposatzea erloju guztiek, pendulua hara eta hona erabiliz gero, pentsatu egiten dutela, nire erlojua ere bart gau guztian pentsatzen ari izan dela dudarik gabe frogatzeko. Baina bere burua engainatu nahi ez duenak bere hipotesiak egitateen gaine-an eraiki behar ditu eta esperientzia sentigarriaz frogatu, bere hipotesiaren alde egitatezko presuntzioa egin beharrean, hau da, gauza horrelaxe dela suposatu beharrean. Frogatzeko era honek haxe esan nahi du, alegia, nahitaez onartu behar dut bart gau guztian pentsatzen ari izan naizela, beste batek beti pentsatzen ari naizela uste duelako, nik neuk beti ari naizenik hauteman ezin badut ere.

Baina beren iritziak maite dituztenek auzitan dagoena suposatu ez ezik, egitate erratuak alegatu ere egiten dute. Nola bestela esan dezake inork nik, lo gaudenean gauza bat ez dugulako sentitzen, gauza hori ez dela inferitzen dudala? Nik ez diot batek lo dagoenean arimarik sentitzen ez duelako *arimarik* ez duenik; baina bai badiot ezin duela *pentsatzen* jardun inoiz, itzarrrik zein lo egon, pentsatzen ari, horren sentikor izan gabe. Sentikortasun hau gure pentsamenduetarako izan ezik beste ezertarako ez da behar; eta hauetarako beti izanen da beharrezko, ezin baitugu pentsatu pentsatzen ari garela ohartu gabe.



11. *Arima ez da beti ohartzen pentsatzen ari dela.*

Onartzen dut itzarrik dagoen gizakiaren arima sekula ez dagoela pentsamendurik gabe, horixe baita egoera horren kondizioa. Baina amets egin gabe lo egitea gizaki osoari, gorputz eta arimari, dagokiona ez izatea, itzarrik dagoen gizakiak gogoan hartzea merezi dezakeen gauza da, zaila baita pentsatzea norbaitek bere pentsaketaz ohartu gabe pentsa lezakeela. Lo dagoen gizon baten arimak bere pentsatzearen kontzientziarik ukan gabe pentsa badezake, nik galde-tzen dut ea egoera horretan pentsatzen ari denean plazer edo oinaze-rik duen edo zoriona edo zoritxarra sentitzeko gauza den. Ziur nago ez dela horretarako gauza, etzanda dagoen ohea edo lurra den baino gehiago. Izan ere, norbera ohartu gabe zoriontsu edo zorigaiztoko izateari erabat zentzugabeko eta ezinezko deritzot. Eta litekeena balitz *arimak*, gorputza lo dagoela, bere kontura bere pentsamen-duak, plazerrak, ardurak, gozamina eta oinazeak edukitzeko ahal-mena izatea, *gizakia* haietaz kontziente izan gabe, orduan gauza ziu-rra litzateke Sokrates lo eta Sokrates itzarrik pertsona bera ez direla, ezpabere, Sokrates lo dagoela eta Sokrates, gorputz eta arimak osa-tua, itzarrik dagoenean bi pertsona direla, itzarrik dagoen Sokratesek, lo eta ezer hauteman gabe dagoela, ez duelako bere ari-mak bakarrik eta bere aldetik bizi duen zorion edo zoritxar horren ezagutzarik ez axolarik, ez behintzat gehiagorik ezagutzen ez duen Indietako gizon baten zorion edo zoritxarragatik daukana baino. Ukan ere, gure egintza eta sentipenak, bereziki plazer eta oinazeak eta haiekin joan ohi den interesa erabat kontzientziaz gabeturik uzten baditugu, lanak ukanen baititugu geure identitate pertsonala non kokatu behar dugun jakiten.

12. *Lo dagoen gizakiak ohartu gabe pentsatzen badu, lo dago-en gizakia eta itzarrik dagoena bi pertsona dira.*

Arimak, lo sakonean dagoenean, pentsa egiten duela diote gizaki horiek. Pentsatzen eta hautematen duen bitartean, atsegina eta kezka, baita beste edozein pertzepzio ere, sentitzeko gai da; eta ari-mak bere pertzepzioez kontziente izan beharra du; lo dagoen giza-kia, argi dago, ez da horietako ezertaz kontziente. Demagun, orduan, Kastorren arima, hura lo dagoen artean, gorputzetik banaturik dago-ela, ni orain eztabaidan ari natzaiei ezinezko egingen ez zaien supo-sizioa berau, beste animalia guztiei, arima pentsatzailerik ez ukan

arren, eskuzabaltasun handiaz bizitza ematen baitie. Horiek, beraz, ezin dute ezinezkotzat edo kotraesankortzat ukan gorputza arimarik gabe bizi ahal izatea, ezta arimak gorputzik gabe biziraun eta pentsatu edo pertzepzioak, are zorion eta zoritxarraren pertzepzioak, eduki ahal izatea ere. Demagun, bada, Kastorren arima gorputzetik banandurik dagoela lo dagoen bitartean eta bere kontura pentsaketan ari dela. Demagun, gainera, pentsatzeko antzeztokitizat beste gizon baten gorputza aukeratzen duela, Polluxena adibidez, eta hau lo dagoela arimarik gabe. Izan ere, Kastorren arimak Kastor lo dagoela pentsatu ahal badu, Kastor inola ere horretaz kontziente izan gabe, ez dio axolarik haren arimak zein *leku* aukeratzen duen pentsatzeko. Horrela gizon biren gorputzak eta bientzat arima bakar bat ditugu hemen eta suposatuko dugu gizon bi horiek txandaka lo egiten eta itzartzen direla; arimak itzarrik dagoen gizonaren baitan pentsatzen du beti, lo dagoena hortaz inoiz ere kontziente ez delarik eta horren pertzepzio txikienik ere ez duelarik. Eta orain galdetzen dut Kastor eta Pollux, horrela bientzat arima bat ukanik, arima horrek batengan bestea inoiz kontziente ez denaz eta bost axola dionaz pentsatzen eta huraxe hautematen duelarik, ea bi *pertsona* ezberdin ez diren, Kastor eta Herkules edo Sokrates eta Platon izan ziren bezalaxe, eta ea gerta ezin litekeen bata guztiz zoriontsu eta bestea erabat zoritxarreko izatea. Arrazoi berberagatik, uste dutenek arimak bereiz eta aparte pentsa lezakeela gizakia kontziente ez den zerbaitez, arima eta gizakia bi pertsona egiten dituzte, zeren uste baitut inork ez duela gurako gizakiaren identitatea materi partikula kopuru berberari lotzerik, identitaterako hori beharrezko balitz, gure gorputzean dabilen partikula jarioa gogoan izanda, ezinezko izanen litzatekeelako gizon bat bi egun edo bi une segitutan pertsona bera izatea.

13. *Ezinezko da ametsetan egin gabe lo egiten dutenei pentsa - ketan jardun dutela sinestaraztea.*

Horregatik uste dut lo-kuluxkada bakoitzak loka jartzen duela arima beti pentsatzen ari dela irakasten dutenen doktrina. Batzuetan *amets egin gabe* lo egiten dutenei sinestarazterik ez dago beren pentsamenduak lanean ibili direla, lau ordur ere zenbaitetan, eurek jakin gabe; eta ekintzan bertan harrapatu eta lotan kontenplazioan daudela kolpera iratzarri arren ere, ez dute izaten inoiz modurik pentsaketa horren berririk emateko.

14. *Alferrik argudiatuko da gizakiek ametsa gogoratu gabe amets egiten dutela.*

Agian esanen da arimak lorik sakonenean ere pentsatu egiten duela, baina *oroimenak* ez duela pentsaturikoa atxikitzen. Baina oso zail da iruditzen lotan dagoen gizakiak une batean pentsaketan jardun ahal izatea eta hurrengo unean, gizakia itzarrik dagoenean, pentsamendu horien espirik ere ezin gogoratzea, eta horregatik baieztapen hutsa baino froga hobea beharko litzateke hori sinestarazteko. Izan ere, horixe esan zaiolako besterik gabe, nork burura lezake gizakirik gehienek pentsaketan jarduten dutela beren bizitza guztian egunero zenbait orduz, pentsamendu horietan bete-betea ari direla galdetu arren inondik ere gogoratzen ez duten gauzei buruz? Uste dut gizakirik gehienek lotan dauden denboraren zati handi bat amets egin gabe igarotzen dutela. Behin gizon bat ezagutu nuen, eskolatua zena eta oroimen txarra ez zuena, eta esan zidan bere bizi guztian sekula amets egin gabekoa zela, orduantxe osatuta zituen sukar batzuk hartu arte, eta hau hogeita bost edo hogeita sei urte zituela gertatu zitzaion. Uste dut topatu ahal direla munduan horren antzeko kasu gehiago; eta nork bere ezagunen artean badakike gaurik gehienak amets egin gabe pasatzen dituzten lagunen zenbait kasu.

15. *Hipotesi horren arabera, lo dagoen gizakiaren pentsamen - duek erabat arrazionalak izan beharko lukete.*

Maiz pentsatu eta pentsaturikoa une batez ere ez atxikitzea pentsatzeko era guztiz alferrekoa da; eta arimak, pentsatzeko egoera horretan, ezer gutxitan gaintitzen du, ezertan egiten badu, miraila, etengabe irudi edo ideia anitz hartu bai, baina, atxiki, bat bera ere atxikitzen ez duena; desagertu eta ezabatu egiten dira, lorratzik ere utzi gabe. Ispiluak ezertarako ere ez ditu aprobeztatzen ideia horiek, ezta arimak ere pentsamendu horiek. Agian esanen da itzarrik dagoen *gizakia* gorputzaren materialez baliatzen dela eta pentsatzeko erabiltzen dituela, eta pentsamenduen oroitzapena burmuinean egindako inpresioen eta pentsatu eta gero han geratzen diren aztarren bidez atxikitzen dela, baina lo dagoen gizakiak hautematen ez duen *arimaren* pentsatzeari dagokionez, kasu horretan arimak aparte pentsatzen duela eta, gorputzaren organoak erabiltzen ez dituenaz gero, inolako inpresiorik eta, beraz, pentsamendu horien inolako oroitzapenik ez duela uzten. Suposizio honetatik ateratzen den bi

pertsona ezberdinen absurdukeria berriro ez aipatzearren, erantzuten diot horri, direnak direla gogamenak gorputzaren laguntzarik gabe har eta kontenpla ditzakeen ideiak, arrazoizko dela atxiki ere laguntza hori gabe egin ditzakeela ondorioztatzea, zeren, bestela arimak, edo edozein espiritu bananduk, abantaila eskasa luke pentsatzeaz. Bere pentsamenduen oroitzapenik ez badauka, bere probetxurako metatu ezin baditu, ezta gogoratu ere behar duenean, iraganari buruz gogoetarik egin ezin badu eta aurreko esperientziez, arrazoinamenduaz eta kontenplazioez baliatu ezin bada, zertarako pentsatzen du? Arima maila honetan gauza pentsatzaile egiten dutenek ez dute izaki asko nobleagoa egiten, materiaren parterik meheena baino ez dela onartzen dutelako kondenatzen dituzten pertsonak baino. Hautsetan egindako karaktereak, lehenengo haize boladak ezabatzen dituenak, edo atomo pilo batean edo animali espirituetan egindako inpresioak hain baliagarriak dira azken batean, nola pentsatu ahala iraungitzen diren arimaren pentsamenduak, bistatik joatean beren atzean inolako oroitzapenik utzi gabe betiko desagertzen direnak, eta haiek bezain noble bihurtzen dute subjektua. Naturak inoiz ez du gauza bikainik egiten erabilpen baxuetarako, edo ezertarako ez erabiltzeko; eta ia bururatu ere ezin daiteke egin amaigabeki jakintsua den gure Kreatzaileak pentsatzeko gaitasuna den bezalako ahalmen miresgarria, bere izate ulergaitzaren bikaintasunera gehien hurbiltzen den ahalmena, guri ematea, hemen gauden denboraren laurenean gutxienez hain alferrik eta emendiorik gabe pentsaketan taigabe erabiltzeko, geure pentsamenduetako bat bera ere gogoratu gabe, eta norberarentzat ez besteentzat onuragarri izan gabe, ezta kreazioaren ezein aldetan ezertarako baliagarri ere. Hau aztertzen badugu, uste dut aurkituko dugula materia motel eta sentigabearen higidura ezin dela izan, Unibertsoko ezein aldetan, hain emendio gutxikoa eta hain alferrik galdua.

16. *Hipotesi honen arabera, arimak ez sentipenetik ez hausnarketatik sortzen ez diren ideiak ukanen ditu, inon arrastorik uzten ez dutenak.*

Badaude, egia da, lo gaudela gertatzen zaizkigun pertzepzio kasuak, eta pentsamendu horien oroitzapena atxiki egiten dugu; baina zein bitxi eta inkoherenteak diren gehienak, eta zein gaizki dagozkienak izaki arrazoidunaren perfekzio eta ordenari, ez dago zertan esanik

ere ametsetan sarri ibiliei. Gustura hartuko nuke norbaitek esatea ea arimak, horrela bere kontura eta gorputzetik bananduta balego bezala pentsatzen duenean, gorputzarekin batuta dagoenean baino arrazionaltasun handiagoz jarduten duen ala ez. Banandurik dagoen aldiko pentsamenduek arrazionaltasun murriztagoa badute, orduan arimak pentsamendu arrazionalaren perfekzioa gorputzari zor diola esan beharko lukete horiek; horrela ez bada, harrigarria da gure ametsak gehien batean hain hutsal eta irrazionalak izatea eta arimak bere baka-rrizketa eta meditazioetatik bat bera ere ez atxikitzea.

*17. Nik jakin gabe pentsatzen badut, beste inork ere ezin du hori jakin.*

Arimak beti pentsatzen diharduela lasai asko dioskutenak beste hau ere esatea nahi nuke nik, alegia, haur baten ariman, gorputzarekin bat egin aurretik edo bat egiteko unean, sentipen bidez ideiarik jaso baino lehen, dauden ideia horiek zer diren. Lo dagoen gizakiaren ideiak, nire ikusiz, itzarrik dagoenaren ideiekin egiten dira, ideia horiek gehienak era bitxian iruten badira ere. Eta, arimak sentipenetik edo hausnarketatik etorri gabeko ideiak balitu (eta horrelakoxeak eduki beharko lituzke gorputzetik inpresiorik hartu baino lehen pentsatuko balu), harrigarria litzateke bere pentsaketa pribatuan (norberak ere ez hautematerainoko pribatuan) ideia horietako bat bera ere ez atxikitzea beraietatik itzartzen den unean bertan ere, gizakia aurkikuntza berriez zoriontsu egiteko. Baina, nork aurki dezake arrazoizko arima, bere lotako bakarlekuan hainbeste ordutan pentsaketan jardun arren, inoiz ere ez ohartzea sentipenetik ez hausnarketatik mailegatu ez dituen ideiotako batzuek, edo behintzat ez atxikitzea beste ezein ideiaren oroitzapenik, gorputzetik sortuak direlako espirituarentzat hain naturalak izan ezin direnena izan ezik? Arraroa da arimak behin ere bere bizitza osoan bere-bere pentsamendu jatorrizkoetako bat bera ere, gorputzari maileguz hartu aurretik izandako pentsamendu horietako bat bera ere ez gogoratzea; itzarrik dagoen gizakiaren bistara bere kroskoaren kutsua duten eta gorputz eta arimaren batasunetik nabariki etorriak diren ideiak besterik inoiz ez ekartzea. Arimak etengabe pentsaketan badihardu eta, beraz, gorputzarekin batu aurretik eta honengandik ideiarik hartu baino lehen ideiarik izan badu, suposatu beharrekoa litzateke lotan dagoela gogoratu egiten dituela jatorrizko ideiak; eta gorputzarekin komu-

nikatu gabe dagoen bitarte horretan arima bere kontura pentsatzen ari denean darabiltzan ideiek, batzuetan bederen, bere baitan edukiriko ideia natural eta bere antzekoagoak izan behar luketela, hau da, gorputzetik ez ideioi buruzko bere hausnarketa eragiketetatik etorri gabekoak. Orain bada, gizakiak itzarrik dagoela ideia horiek inoiz gogoratzen ez dituenetz gero, bata edo bestea atera behar du: edo arimak gizakiak gogoratzen ez duen zerbait gogoratzen duela, edo oroitzapena gorputzetik etorritako ideiei edo berauei buruz gogamenak buruturiko eragiketei soilik dagokiela.

18. *Nola jakin lezake inork arimak etengabe pentsatzen diharduela? Proposizio berez begi-bistakoa ez denez gero, frogara behar du.*

Giza arimak, edo gauza bera dena, gizakiak beti diharduela pentsaketan hain seguru diotenengandik pozik entzunen nuke, halaber, ea nola dakiten hori; are, nola dakiten pentsatu egiten dutela, berek hori hautematen ez dutenez gero. Hau, beldur naiz, frogarik gabe ziur egotea da, eta hauteman gabe ezagutzea. Hau, susmatzen dut, nozio nahasi bat da, hipotesi baten zerbitzutuan erabilia, eta, inola ere ez, gure frogara propioek onartzera behartzen gaituzten edo esperientzia komunak, latsa pixkat ukanez gero, ukatzen uzten ez dizkigun egia argiak. Zeren kontu honetan gehien ere hauxe esan daiteke: balitekeela arimak beti pentsatzen jardutea, baina beti ezin duela pentsaturikoa oroimenean atxiki. Eta nik diot hori bezain gertagarria dela arimak beti ez pentsatzea; eta askoz gertagarriagoa dela batzuetan ez pentsatzea, maiz luzaro pentsatu eta lipar bat geroago pentsatu izanaz kontziente ez izatea baino.

19. *Oso nekez daitekeena da gizaki batek pentsatzen jardun eta, hala ere, lipar bat geroago pentsaturikoa ez gogoratzea.*

Gizakiak hauteman gabe pentsatzen duela uste izatea, esan dugun moduan, gizaki batengan bi pertsona egitea da. Eta arretaz aztertzen bada gizon horien mintzatzeko modua, horixe egin nahi dutela susmatzera lerratuko gara. Izan ere, *arima* beti pentsatzen ari dela dioskutenek sekula ez dioskute *gizakia* beti pentsatzen ari denik. Baina, daitekeena al da arimak pentsatzea gizakiak pentsatu gabe? Edo gizakiak pentsatzea, eta horretaz kontziente ez izatea? Horrek beharbada ahokorapiloa lirudike inoren ahoan. Gizakiak beti pentsatzen diharduela baina ez daukala beti horren kontzientziarik baldin badiote, era berean esan lezakete beren gorputza hedadura-

duna dela baina ez duela zatirik. Maila berean ulertezina da, izan ere, gorputz bat hedaduraduna baina zatirik gabekoa dela esatea eta norbaitek pentsaturikoaz kontziente izan gabe edo zer egiten ari den hauteman gabe pentsatzen duela esatea. Hori dioteneak arrazoi beraz esan dezakete, beren hipotesiak horretaratuz gero, gizon bat etengabe gose dela, baina ez duela beti gosea nozitzen, gosea sentipen horixe baita, pentsatzea norbera pentsatzen ari den kontzientzia edukitzea den bezalaxe. Gizakiak pentsatzen ari den kontzientzia beti duela diotenei hori nola dakiten galdetuko nieke. Kontzientzia edukitzea gizakiak bere gogamenaren baitan zer jazotzen den hautematea da. Ba al du, inola ere, beste gizaki batek ni zerbaitez kontziente naizela hautemateko ahalik, nik neuk ere hautematen ez dudanean. Honetan, gizakiaren ezagutza ezin da bere esperientzia baino harantzago joan. Iratzar gizaki bat lo sakonetik eta galde zer pentsatzen ari zen une horretan. Har berak ez badu ezertan pentsatzen ari izan den kontzientziarik, ez da pentsamendu-igarle makala pentsatzen ari zela segurtatu ahal diona. Ez al du horrelakoak arrazoi gehiago lo ez zegoela segurtatzeko? Hau filosofiaz haraindiko auzia da eta errebelazioa behar da beste batek nire gogamenean pentsamenduak aurkitzeko, nik neuk ere aurkitu ezin ditudanean. Eta ikusmen zorrotza beharko dute ni pentsatzen ari naizela ikusteko, nik neuk ere hautematerik ez dudanean, eta ez naizela pentsaketan ari aitortzen dudanean; horiek, baina, argi ikusten dute txakurrek eta elefanteek ez dutela pentsatzen, horren kontrako froga bururagarri guztiak, pentsatzen dutela esatea ezik, eskaintzen badizkigute ere. Baten batek susmatuko du hau Arrosa Gurutzekoak baino urrats bat aurrerago joatea dela, errazago baita, izan ere, besteentzat ikusezin bihurtzea, beste baten pentsamenduak neuretzat ikusgarri bihurtzea baino, bestearentzat berarentzat ere ez direnean. Baina arima «beti pentsatzen ari den substantzia» dela definituz gero, kito auzia. Definizio horrek inondiko itzalik badu, ez dakit zertarako balio lezakeen, gizaki asko arimarik ez dutela susmatzera eramateko ez bada, ongi konturatzen baitira beren bizitzako zati handi bat pentsaketan jardun gabe doala. Izan ere, nik dakidala ez dago definiziorik ez inongo sektaren suposiziorik, esperientzia iraunkorrak irakasten duena suntsitzeko indarra duenik; eta hautematen dugunetik harago ikusten dugun ustekeria da agian munduan hainbeste alferreko liskar eta zaratots sortarazten duena.

20. *Haurrei erreparatuz gero, ez da ageri haiengan sentipenak edo hausnarketak sorturikoa ez den ideiarik.*

Ez dakusat, beraz, inolako arrazoirik arimak sentimenek pentsaketarako ideiak eman baino lehen pentsatzen duela uste izateko; ideia horiek gehitu eta atxiki egiten direnez gero, arimak, jardunez jardunez, pentsatzeko ahalmena hobetu egiten du ahalmen honen atal ezberdinetan; eta era berean gero, ideia horiek konbinatuz eta bere eragiketez gogoeta eginez, ideien multzoa handiagotuz doa eta gogoratu, iruditu, arrazoitu eta beste pentsakerez baliatzeko duen trebetasuna areagotuz.

21. *Haurrarene goera amaren sabelean.*

Informazioa behaketaz eta esperientziaz jasotzeko nekea hartuz bere hipotesiak naturaren arau bihurtzen ez dituenak, haur jaioberri baten baitan, pentsatzen ohiturik dagoen arima dagoen seinale gutxi aurkituko ditu, eta are gutxiago arrazoiketaren arrastorik. Zail da iruditzen, hala ere, arima arrazoidunak, hainbeste pentsatu arren, inola ere ez duela arrazoitzen. Eta gogoan duenak haur mundura jaioberriek denborarik gehiena lotan ematen dutela eta inoiz gutxitan egoten direla itzarrik, goseak ditia eskatzera daramatzanean, edo minen batek (sentipenik erasokorrena) edo beste inpresio bortitzen batek gogamena hura hauteman eta kasu egitera behartzen dietenean izan ezik, hori gogoan duenak, diot, ukanen du arrazoirik iruditzekeo fetua amaren sabelean ez dela landaretik ezberdinegia, denborarik gehiena pertzepzio edo pentsamendurik gabe igarotzen baitu, lo besterik egin gabe elikagairik bilatu beharrik ez duen toki batean, beti era berean atsegina eta ia beti tenperatura berean den likido batez inguratutik, toki horretan begiak argi gabe eta belarriak erabat isolaturik eta hotsekiko sentiberatasunik gabe dituelarik eta sentimenei eragin ahal izateko objektuen aniztasun edo aldaketa txikia edo bat ere ez duelarik.

22. *Gogamenak esperientziatik pentsatzeko gaia erdietsi hain - batean pentsatzen du.*

Segi haur bati jaiotzen denetik eta errepara denborak haur horrengan eragiten dituen aldaketei eta ikusiko duzue, gogamena ideiaz hornitu ahala, esnago egoten dela eta zenbat eta pentsaketarako gai gehiago ukan, gehiago pentsatzen duela. Denbora bat igaro ondoren, ohiko dituelako inpresio iraunkorra eragin dioten objektuak eza-



gutzen hasten da. Era horretan, poliki-poliki egunero tratatzen dituen pertsonak ezagutzera eta arrotzengandik bereiztera heltzen da, hau sentimenek komunikatzen dizkioten ideiak atxiki eta bereiztera heldu izanaren seinale eta efektu delarik. Eta horrela ikus dezakegu nola doan gogamena, *mailaz maila*, ahalmen horietan hobekuntza lortzen eta bere ideiak luzatu, konbinatu eta abstraitzeko ahalmenen erabileran *aurrera egiten*, baita gero zabalago aztertuko ditudan ideia horiei guztiei buruzko arrazoiketa eta gogoetan ere.

23. *Gizakia lehenengo sentipena duenean hasten da ideiak edukitzen. Sentipena zer den.*

Galdetzen bada, orduan, noiz hasten den gizakia ideiak edukitzen, nire ustez egiazko erantzuna hauxe da: *lehen aldi z sentipen bat duenean hasten dela*. Zeren, ikusirik gogamenean, dirudienez, ez dagoela ideiarik, sentipenek ideia hori gogamenera helarazi baino lehen, uste dut ideiak gogamenean sentipenarekin batera sortzen direla, *sentipena g orputzaren atilen batean egindako inpresioa edo higidura delarik, adimenean nolabaiteko pertzepzioa era giten duena*. Badirudi kanpoko objektuek gure sentimenetan eragiten dituzten inpresio horiexen inguruan jarduten duela lehenbizi gogamenak, hautematea, oroitzea, gogarpena, arrazoiketa, etab. deitzen diegun eragiketetan.

24. *Gure ezagutza guztiaren jatorria.*

Denborarekin gogamena sentipenaren bidez erdietsiriko ideien inguruan dituen eragiketei buruz hausnartzera iristen da eta, horretara, beste ideia mordo bat metatzen du, nik hausnarketaren ideiak deitzen diedanak. Hauek kanpoko objektuek gure sentimenetan egiten dituzten inpresioak dira, gogamenarekiko estrinsekoak direnak; eta gogamenaren beraren eragiketak, intrinsekoak eta bere-bereak dituenak eta gogamenak euren gain hausnarketa egiten duenean kontenplazioaren gai bihurtzen dituenak dira, esan dudan bezala, ezagutza ororen jatorria. Horrela, giza enteleguaren lehenengo ahalmena gogamena bere baitan eragindako inpresioak hartzeko egokia izatean datza, hau da, bai kanpoko objektuek sentimenen bidez eragindakoa edo bai haien gainean hausnarketa egitean burutzen dituen eragiketek sortarazitakoak. Horixe da, izan ere, gizakiak zerbaiten aurkikuntzarako egiten duen lehen urratsa eta mundu honetan naturalki ukan behar dituen nozio horiek guztiak eraikitzeke oinarria. Hodeietan gora igoen

eta zerugainera bertaraino heltzen diren pentsamendu goitar horiek beren sorburu eta euskarria hortxe dute, eta gogamenak zeharkatzen duen hedadura izugarri horretan guztian, itxuraz hain altu jartzen duten bere espekulazio urrunduetan ere, ez da higitzen *sentimenek* edo *hausnarketak* gogorapenerako eskaintako ideietatik tanta bat ere harago.

25. *Idea bakunak hartzean, adimena gehienbat pasiboa da.*

Arlo horretan adimena pasibo hutsa da, eta ez dauka bere aha-lean hasi-masi horiek edo, nolabait esateko, ezagutzeko material horiek edukitzea edo ez edukitzea. Zeren, gure sentimenetako objektuek kasurik gehienetan, guk nahi edo ez, ezarri egiten baitizkiote gure gogamenari beren ideia partikularrak; eta gure gogamenaren eragiketek ez gaituzte utziko haien nozio gutxienez ilunik gabe. Inor ezin da pentsatzen duenean egiten duenaz zeharo ezjakin izan. Idea bakunok gogamenari eskaintzen zaizkionean, adimena ez da gai berauek arbuiatzeko ez inprimatuak direnean aldatzeko, ezta ezabatzeko eta berak berriak egiteko ere, ez behintzat miraila den baino gaiago bere aurrean jarritako objektuak eragiten dizkioten irudiak edo ideiak arbuiatu, aldatu edo ezabatzeko. Inguratzen gaituzten gorputzek gure organoetan eragin ezberdina dutenez, gogamena inpresio horiek hartzera beharturik aurkitzen da eta ez du ekiditerik haiekin loturiko ideiak hautematea.

## II. KAPITULUA

### Idea bakunez

#### 1. *Agerpen konposagabeak.*

Gure ezagutzaren izaera, modua eta helmena hobeto ulertzeko, dauzkagun ideiei buruz gauza batean erreparatu behar da arretaz: batzuk *bakunak* direla eta beste batzuk *konplexuak*.

Nahiz eta gure sentimenei eragiten dieten koaliteteak, gauze-tan eurretan, beren artean banaketarik ez distantziarik ez egoteraino bat eginik eta nahasirik dauden, hala ere, argi dago koalitate horiek gogamenean sortarazten dituzten ideiak soil eta nahasi gabe sartzen zaizkigula sentimenen bidez. Izan ere, nahiz eta ikusmenak eta uki-menak maiz objektu beretik eta aldi berean ideia ezberdinak hartzen dituzten, gizaki batek kolorea eta higidura batera ikusten dituenean edo eskuak argizari zati berean berotasuna eta goxotasuna sentitzen dituenean gertatzen den moduan, hala ere, subjektu berean horrela baturiko ideia bakunak sentimen diferenteen bidez heltzen direnak bezain erabat bereiziak dira. Izotz zati batean gizakiak sentitzen duen gogortasun eta hoztasuna ideia bereiziak dira gogamenean, liliaren usaina eta zuritasuna, edo azukrearen gustua edo arrosa baten usaina bezain ideia bereiziak. Eta gizakiarentzat ezer ere ez da argia-go ideia bakun horiez duen pertzepzio argi eta bereizia baino; ukan ere, bakoitzak, berez konposagabea izanik, ez dauka gogamenean agerpen edo ikusmolde uniforme bakar bat besterik, ezin daitekeena bereiz ideia ezberdinetan.

## 2. *Gogamenak ezin ditu ez egin ez suntsitu.*

Idea bakun horiek, gure ezagumenaren materialak, arestian aipaturiko bide horietatik, hau da, sentipen eta hausnarketa bidez soilik iradoki eta hornitzen zaizkio gogamenari. Adimena idea bakun horiez horniturik dagoenean, ideioak errepikatu, alderatu eta batzeko ahala du, barietate ia amaigabekoz eginez hori, eta horretara nahiera-  
ra egin ditzake idea konplexu berriak. Baina talenturik gorenak edo adimenik zabalenekoak ere ezin du, bere pentsamenduaren malgutasuna edo aniztasuna handiena izanda ere, gogamenean idea bakun bakar batik ere *asmatu* edo *eratu*, arestian aipaturiko bideetatik etorria ez denik; eta adimenaren indarrik ere ez dago, han daudenak *suntsi-tzeko* gauza denik. Izan ere, gizakiak bere adimenaren mundu txikian duen domeinua gauza ikusgarrien mundu handian duenaren nahikoa antzekoa da; hemen daukan ahala, arteak eta antzeak zuzendua denez gero, eskueran dituen materialak elkartu eta banatzetik gora ez doa, baina, materia berriaren partikularik txikiena egiteari edo jada izatera heldua denaren atomorik txikiena suntsitzeari dagokienez, ezin du ezertxo ere egin. Ezintasun berarekin egingen du topo kanpoko objektuetatik sentimenen bidez edo bere gogamenaren eragiketei buruzko hausnarketaren bidez hartua ez datekeen edozein idea itxuratzen jartzen denak. Gustura ikusiko nuke norbait bere aho-sabaiak inoiz dastatu gabeko zapore bat imajinatzen edo egundo usaindu gabeko lurri-  
naren idea bat eratzen saiatzen; eta hori egiteko gauza denean, esan ahal izanen dutitsuak koloreen ideiak dituela, eta gorra hotsen benetako nozio bereziak dituela.

## 3. *Sentimenetan eragina duten koalitateak baino ez dira imaji-nagarriak.*

Horrexegatik uste dut ezen —nahiz eta ezin dugun pentsatu Jainkoarentzat ezinezko dela bestelako izaki bat egitea, hau da, beste organo batzuek eta gorpuzdun gauzen berri adimenara eramateko eman dizkion usu aipaturiko bost horiez gain beste bide batzuek ere horniturikoa— *inork* ezin duela pentsatu gorputzek, era batera edo bestera eratuak izan, beren berri helarazteko beste koalitatearik dutenik, hots, zapore, usain eta ikus eta uki-koalitatez gain. Eta gizateria lau sentimenez bakarrik horniturik eginga izan balitz, orduan bosgarrenaren sentigai diren kolitateak gure oharmen, irudimen eta burueratik guztiz urrun leudeke, orain seigarren, zazpigarren edo zortzigarren

sentimenei legozkienak bezain urrun; eta ausarkeria handia litzateke esatea unibertso hedatu eta miragarri honetako beste tokiren batean oso bestelako izaki batzuek ezin dituztela sentimen horiek eduki. Bere burua gauza guztien gainean jartzeko harrokeriaz jokatu barik, unibertsoa den eraikinaren amaigabetasuna eta norberarekin zerikusia duen parte txiki eta garrantzi gabekoan dagoen barietate itzela aintzat hartzen duenak ukan dezake joera pentsatzera eraikin horretako beste bizileku batzuetan bestelako izaki adimendunak izan daitezkeela, haien ahalmenen nozio edo antzemate handiagorik ez duelarik, armai-ru bateko kaxoi barruan dagoen sitsak gizaki baten sentimenen edo adimenarena duen baino; eta barietate eta gorentasun hori Egilearen jakituria eta ahalari dagokie. Gizakiak bost sentimen besterik ez duela dioen iritzi arruntari jarraitu diot hemen, nahiz eta agian gehiago zenbatzerik ere badagoen, baina suposizio batak zein besteak berdin balio du hemengo nire helbururako.



### III. KAPITULUA

## Sentimenetako idea bakunak

#### 1. *Idea bakunen banaketa.*

Sentipenetik jasotzen ditugun ideiak hobeto bururatzeko, ez dugu agian alferreko izanen ideioek gure gogamenera hurbildu eta guretzat hautemangarri bihurtzeko dituzten bide ezberdinen arabera kontuan hartzea.

Horretara, beraz:

*Lehenik*, gogamenera *sentimen bakar baten bidez* datozkigunak daude.

*Bigarrenik*, *sentimen bat baino gehiagotik* sartzen zaizkigunak ditugu.

*Hirugarrenik*, beste batzuk *hausnarketaz bakarrik erdiesten* ditugu.

*Laugarrenik*, beste batzuk *sentipen eta hausnarketa bide guz-tietatik* azaltzen dira gogamenera.

Bereiz eta atal ezberdinetan aztertuko ditugu.

*Sentimen bakar baten bidez datozkigun ideiak.*

Idea batzuek beraiek hartzeko bereziki egokia den sentimen bakar batetik dute sarbidea. Horretara, argia eta koloreak, zuria, gorria, horia, urdina, beren maila, ñabardura eta nahasketa guztie-

kin, hala nola, berdea, gorrimina, morea, itsasberdea eta beste guztiak begietatik bakarrik sartzen dira. Edozertariko zarata, hots eta tonuak belarrietatik bakarrik. Zapore eta usain ezberdin guztiak, sudurretik eta aho-sabaitik. Kanpoko ideia horiek burmuinera, gogamenaren harrera-gelara (dei niezaiokeen moduan) eramateko bide diren organoak edo nerbioak beren zeregina ezin betetzeraino hondaturik daudenean, ez dute atakarik gogamenean agertu eta adimenak hauteman ditzan.

Ukimenari dagozkion sentipenik inportanteenak hotza, beroa eta solidotasuna dira; gainerako guztiak, ia erabat egituraketa sentigarriarri dautzanak, hala nola, leuna eta latza, edo atalen atxikimendu tinakoangoan edo ez hain tinkoan, hala nola, latza eta gozatsua, gogorra eta hauskorra, nahikoa argi daudenak dira.

## *2. Ideia bakun gutxik du izena.*

Uste dut ez dela beharrezko izanen sentimen bakoitzari dagozkion ideia bakun guztiak zerrendatzea. Gainera, nahi izanez gero ere, ez genuke hori egiterik, euretariko asko, izenaz izendatzen ditugunak baino askoz gehiago, sentimenik gehienei dagozkienak direlako. Usain anitzak, ia munduan dauden gorputz motak bezain ugariak direnak, ugariagoak ez badira, izenik gabekoak dira gehienak. Usain gozoa eta kiratsa erabiltzen dira eskuarki ideia horiek guztiak adierazteko, atsegina edo desatsegina deitzea baino asko gehiago ez izanik, nahiz eta arrosaren eta bioletaren usaina, bienak gozoa, ideia oso diferenteak izan arren, jakina. Eta dastamenaren bidez hartzen ditugun zapore ezberdinak ez daude izenez hornituago. Gozo, mingots, garratz, latz eta gazi dira ia izaki mota guztietan ez ezik, fruitu, abere edo landare beraren parte ezberdinetan bereiz daitezkeen kontatu ezin ahala zapore ezberdin izendatzeko gehienbat ditugun kalifikatzaileak. Gauza bera esan daiteke kolore eta hotsei buruz ere. Horregatik, egi-ten ari naizen ideia bakunen zerrendan, nahikoa izanen dut gure oraingo helbururako interesgarriagoak direnak, edo, maiz gure ideia konplexuen osagaiak izaten diren arren, berez oharterrazak ez direnak seinalatzea, eta uste dut euron artean solidotasuna sar dezakedala, eta horregatik, berari buruz mintzatuko naiz hurrengo kapituluan.



## IV. KAPITULUA

### Solidotasunaren ideiaz

#### 1. *Idea hau ukimenaren bidez hartzen dugu.*

*Solidotasunaren* ideia ukimenaz jasotzen dugu eta edozein gorputzetan hautematen dugun erresistentzia da, beste gorputz bat berak duen lekuan sartzeari jartzen diona, amore eman arte. Ez dago ideiarik sentipen bidez solidotasuna baino etengabekiago hartzen dugunik. Higiduran zein geldia, halako zein holako jarreran egon, beti sentitzen dugu geure azpian eusten gaituen eta beherago egiten uzten ez dugun zerbait; eta egunero eskuera biltzen ditugun gorputzek hautemanarazten digute, gure eskuetan dauden artean, indar gaundiezin baten eraginez, gorputzok presionatzen ari diren gure eskuen atalen hurbilketa galarazten ari direla. Bata bestearengana higitzen diren bi gorputzen hurbiltzea horrela galarazten duenari deritzot nik solidotasuna. Ez dut eztabaidatuko solidotasun hitzaren adiera hau matematikariek erabili ohi dutena baino jatorrizko esanahitik hurrago dagoen ala ez. Nahikoa dut solidotasunaren nozio arruntak, nire ustez, adiera hori erabiltzen uztea, justifikatzen ez badu ere; baina baten batek egokiago aurkitzen badu horri *sartezintasuna* deitzea, ni berarekin ados. Solidotasun hitzari egokiagoa iritzi diot, besterik ez, arrunki adiera horrexetan erabiltzen delako ez ezik, sartezintasun hitzak baino zerbait positiboagoa daramalako, hura negatiboa baita, solidotasuna bera baino gehiago agian solidotasunaren ondorio delarik. Beste guztien artean, honexek dirudi gorputzarekin eta gorputzaren esentziarekin sakonkien loturiko

ideaia. Eta gure sentimenek, gure baitan sentipena eragiteko moduko bolumenena duten materi masetan izan ezik, hautematen ez duten arren, hala ere gure gogamenak, behin gorputz sentigarri trinkoagoe-tatik ideaia hori hartuz gero, urrunagora jarraitzen dio eta izan daiteke-en materi partikularik txikienean ere ikusten du, irudia ere ikusten duen bezalaxe, eta gorputzari banaezinki atxikita aurkitzen du, nonahi egonda eta nolanahi aldatuta ere.

### *2. Solidotasunak espazioa betetzen du.*

Gorputzari dagokion ideaia honexen bidez ateratzen dugu gorputzak espazioa betetzen duela. Espazioa betetzearen ideaia honek haxe esan nahi du: espazio bat substantzia solido batek okupaturik edonon imajinatzen dugunean, pentsatzen dugula halatan dela espazio horren jabe, non beste substantzia solido oro kanpo uzten duen, eta bata bestearengana lerro zuzenean higitzen diren bi gorputzek elkar jotzea etengabeki galaraziko duela, gorputz bi horien bitartetik haiek higitzen diren lerroaren paraleloa ez den lerroan handik kendu ezean. Eta ideaia hau normalean eskuerabiltzen ditugun gorputzek ematen digute behar bezainbatean.

### *3. Espaziotik diferentea da.*

Gorputz batek beste gorputzak berak daukan espaziotik kanpo edukitzeko egiten duen erresistentzia hain da handia, non ez dagoen indarrik, handiena izanda ere, erresistentzia hori gainditzeko gai denik. Munduko gorputz guztiak ur tanta bat alde guztietatik presio-natzen jarrita, inoiz ere ezinen dute gainditu beren bata bestearengana hurbiltzeari hark, hain biguna delarik ere, eginen dien erresistentzia, beren artetik kendu arte. Horregatik, gure solidotasun ideaia diferentea da hala erresistentziarik ez *higidurarik* ez duen espaziotik nola gogor-tasunaren ideaia arruntetik. Izan ere, gizaki batek distantzia batera kokaturiko bi gorputz burura ditzake bata bestearengana hurbiltzen inolako gauza solidori ukitu edo irtenarazi gabe, beren azalerek elkar jo arte; eta hemendik solidotasunik gabeko espazioaren ideaia argia ateratzen dugu. Zeren (gorputz konkretu bat suntsitzeraino ez heltze-ko) galdera haxe egiten baitut: ez al du gizakiak gorputz bakar baten higiduraren ideaia edukitzerik, berak izandako lekua bestek berehala hartu gabe? Bistakoa da, nik uste, baietz: gorputz batean higiduraren ideiak ez baitarama higiduraren ideaia beste batean, figura karratu batek gorputz batean beste batean figura karratu bat barne hartzen

duen baino gehiago. Ez dut galdetzen ea gorputzak halatan *existitzen* diren, non bataren higidura ezin den izan bestearen higidura gabe. Hau batera edo bestera ebatzea, printzipio-eskabidean erortzea da hutsaren alde edo kontra. Nire galdera da ea batek ezin duen eduki besteak geldi dauden bitartean higitzen ari den gorputz baten *ideia*. Eta nik uste dut inork ez duela hori ukatuko. Hori horrela bada, orduan, gorputz horrek utzitako tokiak solidotasunik gabeko espazio hutsaren ideia demaigu; eta hara beste gorputz bat sar daiteke ezeren erresistentziarik ez kanpora bultzatzerik gabe. Ponpa baten enboloari tiratzean, tutuan betetzen zuen espazioa berdina da, dudarik gabe, enboloaren higidurari beste gorputz batek jarraitu edo ez; eta ez du kontraesanik inplikatzeko, gorputza higitzean, alboan, besterik gabe, duen beste gorputz batek hari ez jarraitzeak. Horrelako higiduraren beharra mundua beterik dagoen suposizioaren gainean dago eraikita; baina ez espazioaren eta solidotasunaren *ideia* bereizietan, erresistentzia eta ez-erresistentzia, kanpora bultzatzea eta ez bultzatzea bezain ideia ezberdinak direnetan. Eta hutsari buruz gizakiek dituzten eztabaidak argi frogatzen dute, beste leku batean azaltzen den moduan, gorputzik gabeko espazioaren ideiak dituztela.

#### 4. *Gogortasunetik diferentea da.*

Solidotasuna, beraz, gogortasunetik ere diferentea da, solidotasuna betetzean baitatza eta, horregatik, beste gorputzak berak daukan espaziotik zeharo kanpo uzten ditu eta; gogortasuna, ordea, bolumen sentigarriko materi masek osatzen dituzten atalen kohesio tinkoan datza, gauza osoak, horretara, ez duelarik aise aldatzen bere irudia. Eta, benetan ere, gogorra eta biguna gauzei gure geure gorputzarekiko erlazioan ematen dizkiegun izenak baino ez dira. Horretara, gure presioaren eraginez irudiz aldatu baino lehen min ematen diguna gogorra dela esaten dugu eskuarki; biguna dela, ordea, aise eta minik hartu gabe ukituz, atalen posizioa aldatzen duena.

Baina atal sentigarrien euren arteko posizioa edo gauza osoaren irudia aldatzeko zailtasun honek ez dio munduko gorputzik gogorrenari bigunenari baino solidotasun handiagorik ematen; eta diamentebat ez da ura baino pixka bat ere solidoagoa. Izan ere, marmol zati biren aldeak bata bestera, bitartean ura edo airea baino ez badute, errazago hurbilduko badira ere, bitartean diamentebat balute baino, hau ez da gertatzen diamentearen atalak urarenak edo airearenak baino

solidoagoak direlako edo erresistentzia handiagoa dutelako, baizik uraren atalak, bata bestetik errazago banatzen direlarik, alborantzko higidura batez errazago aldenduko direlako eta marmol zati bien hurbilketari bide emago diotelako. Baina alborantzko higidura horren bidez lekua ematea eragotziko balitzaie, betiko galaraziko lukete marmol zati bi horien hurbilketa, diamanteak bezalaxe; eta edozein indarrek haien erresistentzia gainditzea diamantearen atalen erresistentzia gainditzea bezain ezinezko izanen luke. Munduko gorputzik bigunetak ere aurki edo imajina daitekeen gogorrenak bezainbateko erresistentzia gaindiezina jarriko dio gorputz biren batzeari, alde eragiten ez bazaio eta gorputz bien bitartean geratzen bada. Gorputz dilatagarri eta bigun bat airez edo urez betetzen duenak, laster egiaztatuko du haren gogortasuna. Eta uste duenak gauza gogorrek bakarrik direla bere esku bata bestera hurbiltzea galarazten dutenak, egin dezatela aproba baloi baten barruko airearekin. Kontatu didaten esperimientua Florentzian egin zen urez beteriko eta zeharo itxitako urrezko globo barruhuts batekin; horrek argi uzten du ura bezalako gauza bigun baten solidotasuna. Izan ere, horretara beteriko urrezko globoa torlojuen indar ikarragarriaz eragiten zitzaion prentsa baten eraginpean jarri zutelarik, urak metal hertsiki itxi haren poroetatik zehar bidea egin eta irten zen, eta bere partikulak hurbilagotzeko barruan lekurik ez aurkitzean, kanpora egin zuen, ihintza bezala igo zen eta tantaka erori, globoaren hormek konpresio hertsitzaile ikaragarriari amore eman baino lehen.

##### *5. Bulkada, erresistentzia eta kanpora sakatzea solidotasuna - ren menpe daude.*

Solidotasunaren ideia honexek bereizten du gorputzaren hedadura espazioaren hedaduratik, gorputzaren hedadura ez baita atal solido, banagarri eta higigarrien kohesioa edo jarraikitasuna baino, espazioaren hedadura, ordea, atal ez-solido, banaezin eta higiezin jarraikitasuna den artean. Gorputzen solidotasunaren menpe dago, halaber, elkarrekiko bulkada, erresistentzia eta kanpora sakatzea. Espazio hutsaz, beraz, eta solidotasunaz badira batzuk, ni neu euren artean, ideia argi eta bereiziak dituztela uste dutenak; horiek, gainera, uste dute burura dezaketela espazio bat, erresistentzia jartzen duen edo gorputzen batek kanporatua den ezer ez daukana. Hauxe da beraiek gorputzen hedaduraz izan dezaketen edozein ideia bezain argi eta bereizi

daukatela uste duten espazio hutsaren ideia, azalera ahur bateko aurkako atalen arteko distantziaren ideia beraien artean atal solidorik izan gabe zein izanda era berean argia delako. Bestalde, uste dute *espazioa betetzen duen zerbaiten* ideia dutela, espazio hutsaren ideiatik diferentea dena eta beste gorputz batzuen bulkadaz kanporatua izan daitekeena edo haien higidurari erresistentzia jar diezaikeena. Beste gizaki batzuk baldin badira ideia bi horiek bereizi barik, nahasi eta bat egiten dituztenak, ez dakit nola izen diferenteez ideia bera, edo izen beraz ideia ezberdinak dituzten gizakiek hitz egin dezaketen elkarrekin gora- go erabili dudan kasukoek baino hobeto, alegia, gorriminaren eta tronpetaren soinuaren ideia bereiziak dituen gizonak, beste leku batean aipatua dudan itsuarekin, gorriminaren ideia tronpetaren soinuarekin bat egiten zuenarekin hitz egin lezakeen baino hobeto.

#### 6. *Zer den solidotasuna.*

Norbaitek *zer den solidotasuna* galdetzen badit, bere sentimentera jotzeko esanen diot. Har dezala eskuartean sukarr bat edo baloi bat eta saia dadila eskuak elkarreratzen, eta orduantxe jakinen du solidotasuna zer den. Eta uste baldin badu hori ez dela solidotasunaren azalpen nahikoa, solidotasuna zer den eta zertan datzan argitzeko nahikoa ez dela, hitz ematen diot azalduko diodala zer den eta zertan datzan, lehenago berak pentsatzea zer den eta zertan datzan esaten didanean edo hedadura eta higidura zer diren azaltzen didanean, agian askoz errazago dirudiena berau. Ditugun ideia bakunak, esperientziak irakasten dizkigun bezalakoxeak dira. Baina hemendik harago joan eta hitzen bidez ideia horiek gogamenean argiago jartzen saiatzen bagara, ez dugu arrakasta handiagorik ukanen, itsu baten iluntasuna mintzatuz argitzen eta argi eta kolorearen ideiak itsu horren baitara diskurtsoz sartzen jarriko bagina baino. Honen arrazoa beste leku batean azalduko dut.



## V. KAPITULUA

# Sentimen ezberdinetatik datozen ideia bakunez

### 1. *Ikusmenaz eta ukimenaz, biez, harturiko ideiak.*

Sentimen bat baino gehiagotik jasotzen ditugun ideiak espazio edo *hedadura*, *irudi*, *atseden* eta *higidurarenak* dira. Izan ere, horiek begietan eta ukimenean inpresio hautemangarriak eragiten dizkigute, eta gorputzen hedadura, irudia, higidura eta atsedena ideiak jaso eta gogamenera eraman ditzakegu, hala ikustez nola ukitzez. Baina honetaz zabalago mintzatzeko aukera beste leku batean ukanen dudanez, hemen zerrendatu besterik ez ditut egiten.





## VI. KAPITULUA

### Hausnarketatik datozen ideia bakunez

*1. Ideia bakun hauek gogamenak bere beste ideien inguruan burutzen dituen eragiketak dira.*

Gogamenak aurreko kapituluetan aipatu ditugun ideiak kanpote hartzen dituelarik, bere baitara behatu eta daukan ideiei buruz egiten dituen ekintzak ikustean haietatik beste ideia batzuk hartzen ditu, kanpoko gauzetatik harturiko edozein ideia bezain kontenplagai ego-kiak dituenak.

*2. Hausnarketa bidez hartzen ditugu pertzepzioaren ideia eta nahi-izatearen ideia.*

Gogamenaren bi ekintza nagusi eta printzipalak, maizen aipatzen direnak eta hain usuak izanik edonork bere baitan hauteman ditzakeenak, bi hauexek dira: pertzepzioa edo pentsatzea eta nahi-izatea edo nahiespena.

Pentsatzeko ahalmenari adimena esaten zaio eta nahi izateko ahalmenari nahimena; eta gogameneko ahal edo gaitasun bioi ahalmenak deritze. Geroago izanen dut aukera hausnarketatik etorritako ideia batzuen moduez hitz egiteko, hala nola, *gog oratzeaz, bereizteaz, arrazoitzeaz, juzgatzeaz, ezagutzeaz, sinesteaz*, etab.



## VII. KAPITULUA

# Sentipen eta hausnarketa bidez datozkigun ideia bakunez

### 1. *Plazer eta oinazearen ideiak.*

Badira beste ideia bakun batzuk sentipen eta hausnarketaren bide orotatik gogamenera heltzen direnak, hauexek hara: *plazerra* edo *atsegina* eta beronen kontrakoa den *oinazea* edo *atsekabea*; *ahalmena*, *existentzia*; *batasuna*.

### 2. *Plazerra eta oinazea ia gure ideia guztiekin nahasten dira.*

Atsegina eta atsekabea, bata edo bestea, hala sentipen nola hausnarketa bidezko ia gure ideia guztiekin batzen dira; eta ia ez dago gure sentimenetan kanpotiko eraginik, ezta gure gogamenaren pentsamendu gorderik ere, guregan plazerra edo oinazea eragiten ez duenik. Plazerra eta oinazea atsegina edo atsekabea ematen digun oro dela ulertzea nahi nuke, zein gogameneko pentsamenduetatik zein gure gorputzetan eragina duen edozertatik etorria izan. Zeren, batari poz, atsegin, plazer, zoriona eta abar deitu arren, eta besteari atsekabe, kezka, oinaze, pena, angustia, zorigaiztoa eta abar, hala ere, ez baitira gauza beraren maila ezberdinak baino, plazer eta oinazearen, atsegin eta atsekabearen ideien barrukoak dira; eta horiexek izanen dira bi ideia mota horiek adierazteko usuen erabiliko ditudan hitzak.

### 3. *Gure egintzen motibo gisa.*

Gure izatearen Egile amaigabeki jakitunak gure gorputzatal ezberdinak, egoki deritzogun moduan, higitzeko edo geldirik eduki-

tzeko ahalmena eman digularik, baita haiek higituz geure burua eta inguruko gauzak higitzeko ahalmena ere —eta horrexetan dautza gorputzaren ekintza guztiak— eta gure gogamenari, kasu batzuetan, bere ideien artean bat aukeratu eta berari buruz pentsatu eta holako edo halako gaiaz azterketa arretatsu eta xehea egiteko ahalmena eman diolarik, burutzeko gai garen higidura edo pentsamendu ekintzotara gu bultzatzeko, egoki ikusi du zenbait pentsamenduri eta zenbait sentipeni atsegin pertzepzioa batzea. Pertzepzio hau gure kanpoko sentipen eta barneko pentsamendu guztietatik erabat banandurik balego, ez genuke inolako arrazoirik pentsamendu bat beste bat baino edo egingtza bat beste bat baino nahiago izateko, eta ez genuke utzikeria eta artaren artean edo higitzearen eta geldi egotearen artean hobesterik. Eta, horretara, ez genuke gorputza higituko ez gogamena jardunean erabiliko, gure pentsamenduei jitoan (nolabait esateko) utziko baikenieke, inolako norabide edo xederik gabe, eta ideiei erreparatu gabeko gerizak bailiran etorri ahala geure gogamenean agertzen utziko baikenieke. Eta egoera horretan gizakia, adimen eta nahimenaz horniturik egon arren, izaki alfer eta geldo huts bihurtuko litzateke eta amets nagi eta letargiko batean emanen luke denbora. Horregatik gure Kreatzaile jakintsuak zenbait objekturi, haietatik jasotzen ditugun ideiei eta gure pentsamendu batzuei plazerra, objektu ezberdinetan mailakatua, erantsi nahi izan die, berak eman dizkigun ahalmenak ezertarako erabili ez eta erabat alferreko bihur ez ditzagun.

#### *4. Oinazearen xedea eta onura.*

Oinazeak plazerrak daukan besteko eraginkortasuna eta erabilgarritasuna du gu lanean jartzeko, hura ekiditeko hau bilatzeko bezain gogatsu eta geure ahalmenak erabiltzeko prest izaten baikara; eta honetan bada zerbait gure arreta berezia merezi duena: sarri askotan oinazea plazer ematen diguten objektu berek ematen digutela. Baina plazerra espero genuen sentipenetan oinazea sentitzea eragiten digun lotura hertsu honek beste behin ere geure Egilearen jakituria eta ontasuna mirestekoa aukera ematen digu, Hark, izan ere, gure izatearen biziraupena xede izanik, gure gorputzari aplikatzen dizkiogun gauza askori oinazea erantsi die, egin diezaguketean kalteaz ohartarazteko eta abisu moduan ekidin ditzagun. Baina gure biziraupena ez ezik, organo bakoitzak bere perfekzio osoan irautea ere xede zuelarik, kasu askotan oinazea atsegin ditugun ideiei berei erantsi die. Horrela beroa,

gradu bateraino oso atsegin duguna, sekulako oinaze bihurtzen da apur bat gehitzean; eta objektu sentigarri guztietan atseginena den argiak berak ere, gehiegi badago, begientzat neurri egokia denetik gora gehitzen bada, min sentipen handia eragiten du. Hau naturak zuhurtasunez eta geure onerako agindurikoa da eta, era horetan edozein objektu, eragin biziagikoa izanik, sentipenaren tresnak —hala behar eta egitura fin eta delikatuak dutenak— hondatzen doanean, oinazeak abisu larria ematen digu, organoa guztiz hondatu eta aurretantzean bere eginkizuna betetzeko gaitasuna erabat galdu baino lehen erretira gaitzen. Hori eragiten duten objektuak kontuan hartzeak sinestarazi ahal izanen digu horixe dela oinazearen xedea eta onura. Izan ere, argi handia gure begientzat jasanezina den arren, hala ere, iluntasun mailarik handienak ez ditu begiak gaixotzen, begian aldaketak desordenaturik ez eragitean organo bitxi hori bere egoera naturalean eta oinazerik gabe uzten duelako. Baina bai bero eta bai hotz handiegiak min ematen digute, bata zein bestea bizirik irauteko eta gorputzaren zeregin ezberdinak betetzeko behar dugun tenplearen hondagarri direlako, tenple hau, neurriko berotasun graduan edo, nahiago izanez gero, zenbait muga dituzten gure gorputzaren atal sentigaitzen higiduran datzalarik.

##### *5. Beste xede bat.*

Horrez guztiaz gain, beste arrazoi bat ere topa dezakegu esplikatzen diguna Jainkoak inguruan ditugun eta guran eragina duten gauza guztietan zergatik barreiatu dituen gorago eta beheagoko mailako plazer eta oinazeak, elementu biok gure pentsamendu eta sentimenekin zerikusia duten zernahitan nahasiz, guk, izaki guztiek ekar diezazkiguketen gozamen guztietan hobagarritasuna, atsekabea eta zorion osorik eza aurkitzean, horrek bultzatuta, bere baitan poz-betetetasuna eta betiko atseginak dituen Harengana jo dezagun.

##### *6. Jainkoaren ontasuna gure beste ideiei plazerra eta oinazea eranstean.*

Nik hemen esandakoak baliteke plazer eta oinazearen ideiak geure esperientziak jartzen dizkigun baino argiago ez jartzea, esperientzia baita haiez jabetzeko bide bakarra; baina, hala ere, ideioak beste ideia askori zergatik erantzen zaizkien aintzat hartzeak gauza guztien Ebazle gorenaren jakitate eta ontasunari buruzko behar bezainbateko sentimenduak sortarazteko balio diezaguke; hori aintzat

hartzea ez dateke desegokia ikerketa hauen helburu nagusia erdieste-ko, Izaki Goren horren ezagutza eta gurtza baitira gure pentsamendu guztien helburu printzipal eta adimen guztien benetako xede.

#### *7. Existentzia eta batasunaren ideiak.*

Existentzia eta batasuna dira kanpoko edozein objektuk eta barruko ideia orok adimenari iradokitzen dizkioten beste bi ideiak. Gogamenean ideiak ditugunean, benetan hantxe daudela pentsatzen dugu, gauzak benetan gugandik kanpo daudela, hau da, existitu egiten direla edo existentzia dutela pentsatzen dugun bezalaxe. Eta gauza bakartzat jo dezakegun edozerk, nahiz gauza erreala nahiz ideia izan, batasun ideia iradokitzen dio adimenari.

#### *8. Ahalmenaren ideia.*

Sentipen eta hasunarketaren bitartez hartzen dugun beste ideia bakun bat ahalmenarena da. Izan ere, konturatzen garenean pentsatu egiten dugula eta pentsatzeko ahalmena dugula, eta geldirik zeuden zenbait gorputzatal nahierara higi ditzakegula eta gorputz naturalak ere elkarrengan eraginak sortarazteko gai direla, gure sentimenen aurrean uneoro gertatzen direlarik, horiez konturatzen garenean, aipaturiko bide bietatik jasotzen dugu ahalmenaren ideia.

#### *9. Hurrengotasunaren ideia.*

Hauez gain, bada beste ideia bat, gure sentimenek iradokia den arren, gure gogamenetan pasatzen denak iraunkorkiako eskaintzen diguna, eta hurrengotasunaren ideia da. Zeren, zuzenean geure baitara begiratu eta han dakusagunaz hausnarketa eginez gero, aurkituko dugu gure ideiak, itzarrik gaudenean zein pentsaketan ari garenean, etenik gabe bata joan eta bestea etorri dabilzala beti.

#### *10. Ideia bakunak gure ezagutza guztiaren materialak dira.*

Horiexek dira, nire ustez, denak ez badira ere, bai behintzat gogamenak dituen ideia bakun garrantzitsuenak, eta gogamenaren beste ezagupen guztiak haietatik abiaturik egiten dira; eta den-denak arestian aipaturiko sentipen eta hasunarketaren bide bietatik soilik hartzen ditu.

Eta inork ez dezala uste izan gehiegi mugatzen ari garenik izarretan gora hegaldatzen den eta munduaren mugetan harrapaturik geratu ezin den giza gogamenaren gaitasun lekutsua, materiaren azken

mugetatik harago hedatu eta huts atzemanezinean barrena sartzen dena. Onartzen dut nik hau guztiau, baina gustatuko litzaidake norbaitek izendatzea arestian aipaturiko bide bi horietatik jasotzen ez den edozein *ideia bakun* edo *ideia bakun* horietatik sortzen ez den edozein *ideia konplexu*. Eta ez dio inork hain harrigarri iritziko pentsatzeari *ideia bakun* gutxi horiek aski direla pentsamendurik zorrotzena eta gaitasunik zabalena erabat betetzeko eta ezagutza anitz horren guztiorren eta are anitzagoak diren fantasien materialak ekartzeko, baldin kontuan hartzen badugu zenbat hitz egin daitezkeen hogeita lau letraren konbinazio anitzez; edo, pausu bat aurrera eginez, arestian aipaturiko *ideia bakur* batez, zenbakiaz adibidez, zenbat konbinazio egin daitezkeen pentatzen badugu, zenbakia ahalbidetan agortezina eta benetan amairik gabea baita. Eta zer esan hedadurak matematikariei eskaintzen dien zelai handi neurtezinaz?





## VIII. KAPITULUA

### Sentipenetik datozkigun ideia bakunez beste zenbait gogoeta

#### 1. *Gabeziazko kausetatik sorturiko ideia positiboak.*

Sentipenaren ideia bakunei dagokienez, gogoan izan behar da naturan, sentimenei eraginez pertzepzioa sortarazteko gauza den edozerk ideia bakuna eragin behar duela adimenean; ideia hori, berori sortu duen kanpoko kausa edozein delarik ere, behin gure bereizmena hartaz ohartzen denean, gogamenak adimenean egiazko ideia positibo dagoela ikusten du eta hartakotzat hartzen du, beste edozein ideia hartzen duen bezala, nahiz eta agian haren kausa subjektuaren gabezia bat besterik izan ez.

#### 2. *Gogameneko ideiak bereizi egin behar dira berauek sortarazten dituzten gauzetakoetatik.*

Horrela bero eta hotzaren ideiak, argi eta ilunbearenak, zuri eta beltzarenak, higitu eta gelditu egotearenak, era berean argi eta positiboak dira gogamenean, nahiz eta berauen sortzaile diren kausa batzuk gabezia hutsak izan gure sentimenei ideiak ateratzeko oinarri izan dituzten subjektuetan. Eta adimenak, ideiak ikustean, ideia bereizi positibotzat hartzen ditu guztiak, haien sorburu diren kausak aintzat hartu gabe, kausen bilaketa ez baita ideiarik buruzkoa adimenean dagoenez, gugandik kanpo dagoen gauzaren naturari buruzkoa baizik. Horiek bi gauza oso ezberdinak dira eta kontu handiz bereizi beharrekoak, gauza bat baita zuri edo beltzaren ideia hauteman eta ezagutzea,

eta beste bat, oso diferentea, azaleretan nolako partikulak egon behar duten eta nola ordenatuta aztertzea, edozein objektu zuri edo beltz ager dadin.

3. *Eduki ditzakegu ideiak, beraien kausa fisikoak ez ezagutu arren.*

Koloreen kausak inoiz ikertu ez dituen pintore edo tintatzaile batek zuri eta beltzaren edota beste koloreen ideiak argi, osoro eta ongi bereizirik ditu bere adimenean, eta argiago agian, koloreen natura aztertzen buru-belarri dabilen eta haietako bakoitzaren kausa noraino den positiboa edo gabeziazkoa badakiela uste duen filosofoak baino; eta pintore horren buruan beltzaren ideia ez da zuriarena baino gabeziazkoagoa, kolore horren kausa kanpoko objektuan gabezia besterik izan ezin bada ere.

4. *Naturan gabeziazko kausa batek zergatik sortaraz dezakeen ideia positiboa.*

Nire asmoa kausa naturalak eta hautemateko modua ikertzea izan balitz, gabeziazko kausa batek, kasu batzuetan bederen, zergatik sortaraz dezakeen ideia positibo bat azaltzeko arrazoi hauxe eskainiko nuke: sentipen guztiak gure baitan kanpoko objektuek ezberdinki astinduriko gure animali espirituetan sorturiko higiduren era eta maila diferenteen ondorio besterik ez direnez gero, aurreko higidura garazteak beste sentipen bat sortarazi beharko luke, higidura horren aldaketak edo gehitzeak bezalaxe; eta horrela ideia berri bat sartzen da organo horretan animali espirituen higidura ezberdinak ez bestek eragindakoa.

5. *Izen negatiboek ez dute esanahi gabekoak izan beharrik.*

Baina hau horrela den ala ez ez dut hemen zehaztuko; nork bere esperientziara jo beza eta esan ea gizon baten itzalak, norbaitek begiratzen duenean, argi gabezia besterik ez izan arren (eta zenbat eta argi gabezia handiagoa hainbat eta bereizgarriagoa da itzala), ez dion sortarazten eguzkiaren argiak erabat estaldurik dagoenean bezain ideia argi eta positiboa. Eta itzal baten marrazkia gauza positiboa da. Baditugu, eduki ere, zenbait izen negatibo zuzenean ideia positiboak barik, haien ausentzia adierazten dutenak, hala nola, *gatzgabea, isilta-suna, ezer ez, etab.*, ideia positiboek, adibidez, *zapore, hots, izakie* erreferentzia egiten dieten hitzak direlarik.

6. *Ea ideia batzuk benetako gabeziazko kausen ondorio diren.*

Eta horrela zinez esan daiteke ilunbea ikusi egiten dela. Zeren, zulo guztiz ilun bat, inolako argirik islatzen ez duena, irudituz gero, ikusi egin daiteke daukan irudia, edo marraztu egin daiteke; edo galde daiteke idazteko darabildan tintak beste ideiarik sortarazten duen. Hemen ideia positiboek iratxiki dizkiedan gabeziazko kausak iritzi arruntak onarturikoak dira; baina, benetan ere, zail litzateke esaten ba ote dagoen gabeziazko kausatik etorritako ideiarik, harik eta geldi egotea higidura barik gabezia dela ebatzi arte.

7. *Ideiak gogamenean, koalitateak gorputzetan.*

Gure *ideien* natura hobeto deskubritzeko eta beraiei buruz ulergarriro pentsatzeko, egoki izanen da bereiztea *noiz diren ideiak edo pertzepzioak gure adimenean eta noiz gure pertzepzioen sortzaile diren materiaren aldaketak gorputzetan*. Eta hori egitea komeni da. Ez dezagun pentsa (agian eskuarki egiten den moduan) ideiak subjektuari datzekion zerbaiten irudi eta antzekotasunak direla zehazki; izan ere, sentipenetiko ideia gehienak ez baitira gugandik kanpo den zerbaiten antzekotasunak, haiek adierazteko darabiltzagun izenak ere gure ideien antzekotasunak ez diren bezalaxe, nahiz eta entzuten ditugunean gudan ideia horiek pizteko gai diren.

8. *Gure ideiak eta gorputzen koalitateak.*

Gogamenak *bere baitan* hautematen duen oro edo pertzepzio, pentsamendu edo adimenaren zuzeneko xede den oro da nik *ideia* esaten diodana; eta gure adimenean ideia bat sortarazteko ahalmenari ahalmen hori duen subjektuaren *koalitatea* deitzen diot. Horrela elurbola batek gure baitan zuri, hotz eta biribilaren ideiak sortarazteko ahala duelarik, ideia horiek gudan sortarazteko ahalmenei elurbolan daudenez koalitateak deitzen diet; eta gure adimeneko sentipen edo pertzepzioak direnez ideiak deitzen diet; eta batzuetan *ideia* horiez objektuetan eurretan aurkituko balira bezala mintzo baldin banaiz ere, ideia horiek sortarazten dizkiguten objektuen koalitatez ari naizela ulertzea nahi nuke.

9. *Gorputzen lehen koalitateak.*

Gorputzetako koalitateak horrela harturik, hauexek dira: *Lehenik*, gorputzetik, edozein egoeratan dagoela ere, erabat banaezinak direnak eta halakoak non, gorputz horrek bere gain eragindako

edozein indarren ondorioz izan ditzakeen gorabehera eta aldaketa guztietan koalitateok etengabe atxikitzen dituen. Koalitate horiek halakoak dira non, sentimenek etengabe aurkitzen dituzten hautemateko moduko bolumena duen materi partikula orotan eta gogamenak materi partikula bakoitzetik banaezintzat dituen, gure sentimenek banan-banan hautemateko baino txikiagoak izan arren ere. Har dezagun, adibidez, galgarau bat eta erdibi dezagun; zati bakoitzak badu oraindik solidotasuna, hedadura, irudia eta higikortasuna; egin erdibi berriro, eta oraindik ere baditu koalitate horiek; eta berriro eta berriro erdibituz gero harik eta zatiak hautemanezinak izan arte, orduan ere zati bakoitzak koalitate horiek guztiak atxikiko ditu. Izan ere, banaketa (horixe baita errotak edo prentsak edo horrelakoak beste gorputz bati zati hautemanezinetaraino birrintzeko egiten diona), ezin dio sekula kendu ez solidotasuna, ez hedadura, ez irudia ez higikortasuna ezein gorputzi, lehen bat zenetik bi materi masa edo gehiago egin eta bereizi besterik ez baitu egiten; eta zati horiek guztiek, une horretatik beste hainbat gorputzat hartuek, banaketa egin ondoren kopuru zehatz bat egiten dute. Horiei gorputzaren *jatorrizko koalitateak* edo lehenak deitzen diet eta uste dut ohar gaitezkeela gure baitan ideia bakunak sortarazten dituztela, hau da, solidotasun, hedadura, irudia, higidura edo atsedena, eta kopuruaren ideiak.

#### 10. *Gorputzen bigarren koalitateak.*

Baina, *bigarrenik*, badira koalitate batzuk objektuetan euretan ezer izan gabe haien lehen koalitateen bidez, hau da, beren alde sentigaitzak diren kolore, hots, zapore eta horrelakoen bolumen, irudi, ehundura eta higiduraren bidez, gudan sentipen ezberdinak sortzeko ahalmenak direnak. Horiei *bigarren koalitateak* deitzen diet. Seinalaturikoei *hirugarren* mota bat gehi dakieke, ahalmen hustzat onartuak direnak osatua, nahiz eta egiazko koalitateak izan subjektuan, nik, usu erabiltzen den mintzamoldera egokitzeke eta aldi berean bereizteko, bigarren koalitateak deitzen diedanak bezain egiazkoak. Izan ere, suak bere lehen koalitateen bidez *argizarian* edo *buztinean* kolore edo trinkotasun berri bat sortarazteko duen ahalmena koalitate bat da suaren baitan, *nigan*, lehen koalitate berorien bidez, hau da, bere alde sentigaitzen bolumen, ehundura eta higiduraren bidez lehen sentitzen ez nuen berotasun edo erredua ideia edo sentipena sortarazteko duen ahalmena koalitate den bezalaxe.

11. *Gorputzek nola sortarazten dituzten ideiak gudan.*

Hurren azertu beharrekoa honako hau dugu: gorputzek gudan nola sortarazten dituzten ideiak; eta argi dago gorputzek, burura deza-kegun heinean, bulkadaz soilik jarduten dutela.

12. *Kanpoan eta gure organismoan gertatzen diren higiduren bidez.*

Beraz, baldin kanpoko objektuak gure gogamenean ideiak sortarazten dituztenean gogamenari batzen ez bazaizkio eta, hala ere, *jatorrizko* koalitate horiek hautematen baditugu banan-banan gure sentimenen pean diren objektu guztietan, argi dago objektu horietan higiduraren bat dagokeela eta gure nerbioek, edo animalia espirituek, gure gorputzen atal batzuetan zehar burmuinera edo sentipen lekura eramanez dutela, era horretan gure adimenean objektu horiei buruz ditugun ideia konkretuak sortarazteko. Eta, tamaina hautemangarriko gorputzen hedadura, irudia, kopurua eta higidura distantzia batera ikusmenaz hauteman daitezkeenez gero, argi dago banan hautemanezinak diren gorputzen batzuek heldu behar dutela objektu horietatik begietara eta handik burmuinera higiduraren bat eraman, horrexek sortarazten dituelarik guk horiez ditugun ideiak.

13. *Bigarren koalitateek ideiak nola sortarazten dituzten.*

Gure baitan jatorrizko koalitateen ideiak sortarazten diren moduan sortarazten direla uste izan dezakegu *bigarren* koalitateenak ere, hau da, partikula sentigaitzek gure sentipenetan duten eraginaren bidez. Izan ere, gauza nabaria da badirela, ugari gainera, gure sentimenez ez bolumena, ez irudia ez higidura hauteman ezin diegun gorputz txikiak, aire eta uraren partikulen kasuan eta horiek baino asko txikiagoetan, agian aire eta uraren partikulek txikitasunean ilar edo txingor garautxoei ateratzen dieten bezainbateko aldea ateratzen diotenetan, bistakoa den moduan. Demagun orain, bada, partikula horien higidura eta irudia, bolumen eta kopuru ezberdinek, gure sentimenen organo ezberdinei eraginez, gorputzen kolore eta usainek eragiten dizkiguten sentipen ezberdin horiek sortarazten dituztela gure baitan; hau da, demagun bioleta batek, adibidez, irudi eta bolumen partikularra eta maila eta aldaketa diferenteko higidura dituzten materi partikula sentigaitz horien bulkadaz, gure gogamenean lore horren kolore urdin eta usain gozoaren ideiak sortarazten dituela. Izan ere, ez da ezinez-

koagoa pentsatzea Jainkoak ideia horiek beroriekin antzekotasunik ez duten aipaturiko higidurekin lotu dituela, beste hau pentsatzea baino: oinazearen ideia gure haragia urratzen ari den altzairu zati baten higidurarekin, ideia harekin zerikusirik ez duenarekin, lotu duela pentsatzea baino.

#### 14. *Lehen koalitateen menpe daude.*

Kolore eta usainez esan dudana zapore eta hotsei eta antzeko beste koalitate sentigarrei buruz ere berdin uler daiteke; eta hauek, edozein delarik ere errakuntzaz berauei iratxikitzen diegun errealitatea, objektuetan eurretan ez dira, izatez, guregan sentipen ezberdinak sortarazten dituzten ahalmenak besterik; eta lehen koalitate horien menpe daude, hau da, zatien bolumen, irudi, ehundura eta higiduraren menpe, esan dudan moduan.

#### 15. *Lehen koalitateen ideiak antzekotasunak dira; bigarrenena, ez.*

Hemendik erraz deduzi daitekeela uste dut honako oharpen hau: gorputzen lehen koalitateen ideiak koalitate horien antzekotasunak direla eta berorien ereduak gorputzetan eurretan existitzen direla egiazki, baina bigarren koalitateek gudan sortarazten dituzten ideiek ez dutela haien inolako antzekotasunik. Ez dago gure ideien antzeko ezer, objektuetan eurretan existitzen denik. Ideia horien arabera kalifikatzen ditugun gorputzetan gure baitan sentipenak eragiteko ahalmena baino ez dago; eta ideian gozoa, urdina, beroa dena zati sentigaitzen halako edo horrelako bolumena, irudia eta higidura besterik ez da horrela kalifikaturiko gorputzetan eurretan.

#### 16. *Adibideak.*

Garrari buruz beroa eta argitsua dela esaten da, elurraz zuri eta hotza dela, manaz zuria eta gozoa dela, guregan eragiten dituzten ideiegatik. Eskuarki uste ohi da koalitate horiek gorputz horietan ideia horiek gure baitan bezalakoxeak direla: erabateko antzekotasuna bien artean, ispilu batean islatuta bezalaxe, eta inork besterik esanez gero, gizakirik gehienek nabarmentzat lukete. Baina gogogan duenak distantzia batera berotasun sentipena eragiten digun su berak, hurbilagoratz gero, oso desberdina den oinaze sentipena eragiten digula, pentsatu beharko luke zer arrazoi daukan esateko suak eragindako berotasun ideia hori *egiatan suaren baitan* dagoela, eta oinaze ideia,

su berak eragindakoa hau ere, suaren baitan *ez* dagoela. Zergatik, bada, egon behar dute zurtasunak eta hoztasunak elurrean, eta oina-zeak ez, gure baitan ideia bata eta bestea eragiten dituenen, eta ez bata ez bestea sortarazterik ez duenean, bere zati solidoen bolumen, irudi, kopuru eta higiduraren bidez ez bada?

17. *Lehen koalitateen Ideiak bakarrik existitzen dira egiatan.*

Su eta elur zatien bolumen, kopuru, irudi eta higidura egiazki daude gorputzetan, sentimenek hauteman edo ez, eta horregatik koa-litate *errealak* dei dakieke, gorputz horietan egiazki existitzen direla-ko. Baina argia, berotasuna, zurtasuna edo hoztasuna ez daude haie-tan, egon, manaren baitan gaixotasuna edo oinazea dauden baino gehiago. Ken dezagun koalitate horien sentipena, ez dezatela begiek argia edo koloreak ikus, ezta belarriek hotsik entzun ere; aho-sabaiak ez dezala zaporea ez sudurrak usainik har, eta kolore, zapore, usain eta hots guztiak, *ideia partikularrak direnez*, ezabatu eta kendu egingen dira, eta haien kausak izatera bihurtuko dira, hau da, gorputzen zatien bolumena, irudia eta higidura.

18. *Bigarren koalitateak lehenen modu bezala, eta ez beste inola, existitzen dira gauzetan.*

Tamaina sentigarriko mana zati batek irudi biribil edo karra-tuaren ideia eragin dezake gure baitan; eta leku batetik beste batera eramanez gero, higiduraren ideia. Azken ideia honek higidura egiazki higitzen den manan gertatzen den moduan irudikatzen du; irudi biribil edo karratua, berriz, gauza bera dira ideian edo existentzian, gogame-nean edo manan. Eta horrela higidura eta irudia manan daude biak, guk hauteman edo ez; mundu guztia dago hau onartzeko prest. Gainera, manak, bere zatien bolumen, irudi, ehundura eta higiduraz gugan ondoez sentipenak eta batzuetan oinaze edo koliko gogorren sentipena ere sortarazteko ahalmena du. Beste hau ere edonork onar-tuko du erraz: ondoez eta oinazearen ideioek *ez* daudela manan, hark gugan egindakoa onorioa besterik ez izanik, eta guk sentitzen ez ditugunean ez daudela inon. Baina, hala ere, nekez eraman daiteke jen-dea pentsatzera gozotasuna eta zurtasuna ez daudela, egon, manan eta manak, bere partikulen higidura, tamaina eta irudiaren bidez, begietan eta aho-sabaian eragindakoa onorioa besterik ez direla; manak eragindako oinaze eta ondoeza, denek aitortzen duten moduan, ez diren legetxe hark urdail eta hesteetan, bere partikula sentigaitzen

tamaina, higidura eta irudiaren bidez, eragindakoaren ondorio besterik (zeren beste ezeren bidez ezin baitute eragin gorputzek, frogaturik utzi dugun moduan). Manak begietan eta aho-sabaian eragin ezin balu bezala, horretara bere baitan ez zituen ideia partikular bereiziak gogamenean sortaraziz, heste eta urdailean eragin eta bere baitan ez zituen ideia bereiziak sortaraz ditzakeela onartzen dugun moduan. Ideia hauek guztiak manak, bere zatien tamaina, irudi, kopuru eta higiduraren bidez, gure gorputzaren atal ezberdinetan eragindakoaren ondorio direnez gero, arrazoirien bat beharko litzateke esplikatzeko zergatik begiek eta aho-sabaiak sortarazitakoak egiazki manan dauden elementutzat hartu behar diren, eta ez urdailak eta hesteek sortarazitakoak; edo zergatik pentsatu behar den oinazea eta ondoeza, manak eragindako ondorioak direnak, sentitzen ez direnean, inon ere ez daudela; eta hala ere, gozotasuna eta zurtasuna, mana beraren ondorioak direnak modu berdinki ezezagunez diharduten gorputzaren beste atal batzuetan, manan existitzen direla, ikusi eta zaporatzen ez ditugunean ere.

#### 19. *Adibideak.*

Pentsa dezagun porfidoaren kolore gorri eta zurian. Eragotz argiari porfidora heltzen eta haren koloreak ezabatu egingen dira eta ideia horiek ez dira sortuko gure baitan; argia berriro etortzean, ordea, berriro agertuko dira. Ba al da inor uste izan lezakeenik argia egoteak edo ez egoteak egiazko aldaketaren bat eragiten duela porfidoan, eta zurtasun eta gorritasunaren ideiak egiatan daudela argipean dagoen porfidoan, ageriko gauza denean *iluntasunean kolorerik ez daukala?* Gauez zein egunez hark, ukan, partikulen atonkera bat dauka, argi-izpien islapenez harri gogor horren alde batzuetan zurtasunaren ideia eta beste batzuetan gorritasunarena sortaraz dezakeena; baina porfidoan zurtasuna edo gorritasuna barik, halako ehundura bat dago, gudan sentipen hori sortzeko ahalmena duena.

20. Eho almendra bat eta haren kolore zuri argia zuri zikin bihurtuko da eta haren zapore gozoa olio zapore. Baina ehogailuaren kolpeek zer aldaketa eragin lezakete gorputz batean, ehundurarena ez bada?

#### 21. *Nola ura sentitzen dugun hotzesku batean, eta bestean bero* .

Ideiak horrela ulertu eta bereiziz gero, azaldu ahal izanen dugu zergatik ur berak, une berean, esku batean hoztasunaren ideia



eta bestean berotasunarena eragin dezakeen, zeren, ideia horiek egiazki ur horretan baleude, ur bera aldi berean beroa eta hotza litza-teke, eta hau ezinezkoa da. Izan ere, uste izanez gero *berotasuna*, eskuetan dugunean, ez dela gure nerbio edo animali espirituen partikula nimiñoetan eragindako maila jakin bateko higidura mota jakin bat baino, uler dezakegu nola den posible ur berak une berean esku batean berotasunaren sentipena eta bestean hoztasunarena eragitea; hau ez da, ordea, inoiz gertatzen *irudiarekin*, ez baitu sekula esku batean karratuaren ideia sortarazten, bestean esferarena sortarazi duenean. Baina berotasun eta hoztasun sentipena gure gorputzaren zati txiki-txikitxoaren higiduraren gehitze edo gutxitzea, beste gorputz baten korpuskuluek eragindakoa, besterik ez bada, orduan erraz dago ulertzen ezen, higidura hau esku batean bestean baino handiagoa bada eta bere partikula txikitxoetan esku bata duena baino higidura handiagoa eta besteak duena baino txikiagoa duen gorputz bat eskuoi aplikatzen bazaie, gorputz horrek esku batean higidura gehitu eta bestean gutxitu egingen du eta, horretara, higidura maila diferente horiekin loturik dauden sentipen ezberdinak, berotasun eta hoztasunarena, sortaraziko ditu.

## 22. Saialdi bat filosofia naturalean barna.

Arestian esan dudan guztian egin asmo nuen baino sakonago sartu naiz ikerketa fisikoetan. Baina lan hori beharrezko izanik sentipenaren izaera pixkatxo bat ulertarazteko eta gorputzetan dauden *koalitateen* eta berauek gogamenean eragindako *ideien* arteko aldeak markatzeko eta behar bezala bereizirik bururatzeko, hori gabe ez bailegoke horietaz ulergarriro mintzatzerik, espero dut barkatuko zaidala filosofia naturalean zehar egindako saialditxoak, gure ikerketa honetan beharrezko baita koalitate *lehen* eta *errealak*, gorputzetan beti daudenak (hau da, solidotasuna, hedadura, irudia, kopurua eta higidura edo atsedena, guk batzuetan, hau da, koalitate horiek dituzten gorputzek guk horiek banan bereizteko bezain handiak direnean, hautematen ditugunak), besteetatik bereiztea, hots, *bigarren* eta *harta* harturiko koalitateetatik, hauek lehen koalitate horien konbinazio diferenteen ahalmenak besterik ez baitira, guk argiro identifikatu gabe dihardutenean. Horretara, jakin ahal izanen dugu zein ideia diren eta zein ez diren guk ideion arabera kalifikatzen ditugun gorputzetan egiazki existitzen den zerbaiten antzekoak.

### 23. *Hiru motatako koalitateak gorputzetan.*

Gorputzetan egiazki existitzen diren koalitateak, behar bezala pentsatuz gero, hiru motatakoak dira:

*Lehenik*, haien zati solidoen bolumen, irudi, kopuru, egoera eta higadura edo atsedena. Horiek gorputzetan daude, guk hauteman zein hauteman ez, eta guk deskubritzeko moduko tamaina dutenean, guk koalitate horien bidez bere baitan den bezalako gauzaren ideia daukagu, gauza artifizialen kasuan argi dagoen moduan. Horiei *lehen koalitateak* deitzen diet.

*Bigarrenik*, edozein gorputzetan, gorputz horren lehen koalitate sentigaitzengatik, gure sentimenen batean eragiteko eta kolore, hots, usain, zapore... ezberdinak *gugan* sortarazteko dagoen ahalmena. Honelakoei eskuarki *koalitate sentigarriak* deritze.

*Hirugarrenik*, Gorputz batzuetan, euren lehen koalitateen osara bereziarengatik, beste gorputz baten bolumen, irudi, ehundura eta higaduran aldaketa berezia eragiteko dagoen ahalmena, hau da, gorputz hori lehen gure sentimenetan eragiten zuenetik ezberdin eragiten ipintzeko modukoa. Horrela eguzkiak argizaria zuritzeko ahala du eta suak beruna urtzekoa. Koalitate hauei *ahalmenak* deitu ohi zaie.

Lehenengo motakoei, esan den bezala, koalitate erreal, jatorrizko edo lehenak dei dakieke bete-betea, gauzetan eurentan daudelako guk hauteman zein hauteman ez, eta bigarren koalitateak haien aldakuntza ezberdinen menpe daudelako.

Beste mota bietakoak beste gauza batzuen gain era diferentean jarduteko ahalmenak besterik ez dira, lehen koalitate horien aldaketa ezberdinetatik datozenak.

### 24. *Lehenengoak antzekotasunak dira; bigarrenak antzekotasunak direla uste da, baina ez dira; hirugarrenak ez dira antzekotasunak, ezta badirela uste ere.*

Baina, azken mota bietako koalitateak beste gorputz batzuei dagokien eta jatorrizko koalitateen aldaketen ondorio diren ahalmen hutsak, ahalmenak baino ez badira ere, haiei buruz eskuarki besterik pentsatzen da. Izan ere, *bigarren* motakoak, hau da, sentimenen bitartez gure baitan zenbait ideia sortarazteko ahalmenak, guregan eragina duten gauzetan dauden egiazko koalitatetzat hartzen dira, *hirugarrenekoak*, ordea, izenez ahalmen diren eta ahalmen hustzat dauden arte-

an. Begien edo ukimenaren bidez eguzkiarengandik hartzen dugun berotasun edo argiaren ideiak eguzkiaren baitan dauden egiazko koalitatetzat eta han dauden ahalmenak baino zer bait gehiagotzat hartzen dira. Baina eguzkia berak urtzen edo zuritzen duen argizariari dagokionez kontuan hartzen dugunean, argizarian sortarazitako zuritasun eta biguntasuna eguzkiaren baitan dauden koalitatetzat barik, han dauden ahalmenek sortarazitako ondoriotzat hartzen ditugu. Bada, behar bezala aztertuz gero, eguzkiak berotzen edo argitzen nauenean haute-maten ditudan argi eta berotasunaren koallitate horiek ez daude eguzkiaren baitan, argizarian, urtzen edo zuritzen duenean, egindako aldatetaz eguzkiaren baitan dauden baino gehiagorik. Guztiak dira *eguzkiaren baitako ahalmenak, haren lehen koallitateen menpe daudenak*; ahalmenon bidez, kasu batean, nire begi edo eskuen zati sentigaitzen bolumen, irudi, ehundura edo higidura alda ditzake eta ondorioz nire baitan argi edo berotasunaren ideiak eragin; eta beste kasuan, argizariaren zati sentigaitz batzuen bolumen, irudi, ehundura edo higidura alda ditzake eta ondorioz gai egin nire baitan zuritasun eta fluidotasunaren ideiak sortarazteko.

*25. Bigarren koallitateak zer gatik hartu ohi diren sarri koallitate errealtzat eta ez ahalmen hustzat.*

Badirudi koallitate batzuk maiz koallitate errealtzat eta besteak ahalmen hustzat hartzeko arrazoia haxe dela: guk kolore, hots eta abarrez ditugun ideiek bolumen, irudi edo higiduratik ezer ez dutenez gero, ezin dezakegula pentsa lehen koallitate horien ondorio direnik, ez baitira horiek gure sentimenetara haien sortzaile moduan agertzen, haiekiko itxurazko kongruentziarik edo lotura bururagarririk ez dutelarik. Horrexegatik daukagu ideia horiek obehjektuetan eurentan egiazki dauden zerbaiten antzekotasunak direla pentsatzeko joera, sentipenak ez baitu deskubritzen zatien bolumen, irudi edo higidurak haien sortetan zerikusirik dutenik ezta arrazoimenak frogatu ere nola gorputzek, beren *bolumen, irudi* eta *higiduraren* bidez urdin edo horiaren eta abarren ideiak sortarazten dituzten gogamenean. Baina beste kasuan, gorputzek bata besteari koallitateak aldatzen dietenean, argiro deskubritzen dugu sortarazitako koallitateak ez duela eskuarki inolako antzekotasunik sortarazten duen gauzaren baitako ezerekin eta horregatik ahalmenaren ondorio hustzat hartzen dugu. Izan ere, eguzkiarengandik berotasun edo argiaren ideia hartzean, eguzkiaren baita-

ko koalitate horien pertzepzioa edo antzekotasuna dela *ideia hori* pentsatzera lerratzen gara lehen unean, baina ikusten dugunean argizaria, edo aurpegi zuria, eguzkitan egonez gero, kolorez aldatzen direla, ezin pentsatu izaten dugu *hori* eguzkiaren baitan dagoen ezeren jarioa edo antzekotasuna denik, eguzkian bertan ez ditugulako kolore ezberdin horiek aurkitzen. Izan ere, gure sentimenek kanpoko objektu ezberdin biren koalitate sentigarrien artean dagoen antzekotasuna edo antzekotasunik ezean erreparatzeko gai izanik, nahikoa erraz atera behar dugu ondorio moduan subjektu batean koalitate sentigarriren bat sortzea ahalmen hutsaren ondorio dela eta ez arazlearengan egiazki zegoen koalitate baten transmisioa, koalitate sentigarri hori berori sortarazi zuen gauzan aurkitzen ez dugunean. Baina gure sentimenek gure baitan sorturiko ideiaren eta berau sortarazten duen objektuaren koalitatearen artean alderik aurkitu ezin dutenez, joera dugu iruditza gure ideiak objektuetan dauden zerbaiten antzekotasunak direla, eta ez haien lehen koalitateen aldaketetan erroturiko ahalmen batzuen ondorioak, gudan sortarazitako ideiek lehen koalitate horiekin antzekotasunik ez dutelarik.

26. *Bigarren koalitateak bi motatakoak dira: batzuk, zuzenean hautematen direnak; besteak, zeharka hautematen direnak.*

Amaitzeko, aurrean aipaturiko gorputzetako lehen koalitateez gain, hau da, gorputzon zati solidoen bolumen, irudi, hedadura, kopuru eta higiduraz gain, haiek hauteman eta bata bestetik bereizteko bide ditugun gainerako guztiak ez dira haietan dauden ahalmen batzuk besterik, lehen koalitateen menpe daudenak eta berauen bidez gai dira, edo zuzenean gure gorputzetan eragina izanez gure baitan zenbait ideia diferente sortarazteko, edo beste gorputz batzuetan eragina izanez beraien lehen koalitateak aldatu eta gure baitan lehen eragiten zituzten ideietatik diferenteak sortarazteko. Uste dut lehenengoei bigarren koalitate *zuzenean hautemangarriak* dei dakiekeela, eta bigarrenei bigarren koalitate *zeharka hautemangarriak*.

# IX. KAPITULUA

## Pertzepzioak

### *1. Pertzepzioa hasunarketaren lehenengo ideia bakuna da.*

Pertzepzioa, gogamenak gure ideiekiko erabiltzen duen lehenengo ahalmena den bezalaxe, hausnarketa bidez daukagun lehenengo ideia eta bakunena ere bada, batzuek pentsatzea oro har deitzen diotena. Pentsatzea hitzak, hala ere, ingelesez adiera hertsian hauxe esan nahi du: gogamenean, gogamena aktiboa dela, bere ideiei buruz gertatzen den jarduera, gogamenak nahitako arretaz zerbait hausnartuz burutzen duena. Izan ere, pertzepzio huts eta soilean gogamena gehienbat pasiboa baino ez da eta ez du hautematen duena ez hautematerik.

### *2. Hausnarketak soilik eman diezaguke pertzepzioa zer den ulertzeko ideia bat.*

Pertzepzioa zer den esateko nire hitzaldirik onena baino hobe du irakurleak, berak ikusten, entzuten, sentitzen... edo pentsatzen duenean egiten duenaz hausnarketa egitea. Eta hausnartzen ez badu, munduko hitz guztiek ere ez dute lortuko horri buruz inolako nozio-rik aditzera ematea.

### *3. Gogamenak inpresio organikoa hautematen duenean soilik sortzen da pertzepzioa sentipenean.*

Ziurra da erabat, gorputzean egindako edozein aldaketak, gogamenera heldu ezean, edo kanpoko ataletan eragindako edozein

inpresiok, barruan hauteman ezean, ez duela pertzepziorik eragiten. Suak gure gorputza egurrean eragiten duen baino zirkin handiagorik gudan eragin gabe erre dezake, higidura burmuineraino eraman ezean, eta gogamenean berotasunaren sentipena edo oinazearen ideia —egiazko pertzepzioa horrexetan datza— sortarazi ezean.

#### 4. *Organoaren gain egindako bulkada ez da nahikoa.*

Zein sarri ohar gaitezkeen, gure gogamena objekturen bat arre-taz kontenplatzen eta hango ideia batzuk buru-belarri begiratzen ari delarik, entzumen organoan egindako inpresioak ez dituela hautema-ten, hotsa ateratzen duten gorputzek, hotsaren ideia sortarazteko lain izan ohi den aldaketa eragin arren. Organoak behar bezainbateko bul-kada hartzen du, baina gogamenak hautematen ez duenez gero, ez dago pertzepziorik, eta hotsaren ideia sortarazi ohi duen higidura belarrian eragin arren, ez da hotsik entzuten. Sentipenik eza, kasu honetan, ez dakar organoko akatsak edo belarriak beste batzuetan entzun izan duenean baino eragin txikiagoa hartu izanak, normalean ideia sortarazten duen hori, ohiko organoak transmititu arren, adime-nak ez hautemanak baizik, eta, beraz, gogamenean ideiarik inprima-tzen ez duenez, ez da sentipenik erdiesten. Era horretan, sentipena edo pertzepzioa dagoen guztian, ideiaren bat sortu da aktualki eta adime-nean dago.

#### 5. *Haurrek amaren sabelean ideiak ukan litzateken arren, ideia horiek ez dira sortzetikoak.*

Horregatik, ez dut zalantzarik egiten haurrek, amaren sabelean daudela, beraiegan eragina duten objektuekiko sentimenak erabiliz, ideia banaka batzuk hartzen dituztela jaio aurretik, inguratzen dituz-ten gorputzen edo jasaten dituzten premia edo gaixotasunen ondorio ekidinezin moduan; ideion artean (aztergarriegiak ez diren gauzetan antzematen saiaterik izanez gero), uste dut gosearena eta berotasu-narena liratekeela bi, ziurraski umeek izaten dituzten lehenengoetako-ak eta paso nekez egin diezaieketen horietakoak direlarik.

#### 6. *Sentipenaren ondorioak amaren sabelean.*

Baina arrazoizko den arren pentsatzea haurrek mundura jaio aurretik ideia batzuk hartzen dituztela, hala ere ideia bakun horiek lekutan daude batzuek defendatzen dituzten eta guk gorago arbuia-tu ditugun *sortzetiko printzipio* horietatik. Hemen aipatzen ditugun

idea horiek sentipenaren ondorio direnez gero, gorputzak amaren sabelean dagoela hartzen duen eraginen batetik soilik etorriak dira eta, horregatik, gogamenetik kanpo dagoen zerbaiten menpe daude, eta sortarazteko eran sentimenetatik sorturiko ideietatik ezertan ere ez dira ezberdintzen, lehenago sorturikoak izatean ezik. Sortzetiko printzipioak, ordea, oso bestelako izaeraduntzat daude, ez baitira gorputzeko aldaketa akzidentalaren baten edo bertako eraginen baten bidez gogamenera etorritakoak, baizik, nolabait esateko, jatorrizko karaktereak, gogamenean beronen izate eta osaerako unean bertan inprimaturikoak.

*7. Ez da nabaria ez garrantzizkoa zein ideia agertzen diren lehenbizi*

Badiren bezala zenbait ideia arrazoiz irudi genitzakeenak amaren sabelean dauden umeen gogamenean, beraien han barruko bizi-premien menpeko ideiak direlarik, halaxe, behin jaiotz gero, inprimatzen zaizkien lehenengo ideiak lehenbizi aurkezten zaizkien koalitate sentigarrietatik etorritakoak dituzte, euron artean argia ez delarik ez kaskarrena ez eraginkortasun txikienekoa. Eta seintxo jaioberrietan ikusten dugunetik igar dezakegu pixka bat nolako egarria duen gogamenak, beren baitan oinaze sentipenik ez daramaten ideia guztiez jabetzeko; izan ere, beti jartzen dira argia datorren lekura begira, batera zein bestera etzanda utzi. Baina hasieran ohiko dituzten ideiak, umeek mundu honi aurre egitean dituzten inguruabar ezberdinen arabera ezberdinak direlarik, lehenbizi gogamenera datozkien ideien ordena oso ezberdina da, eta ziurgabea ere bai; eta, bestalde, ez da garrantzizkoa ordena zein den jakitea.

*8. Sentipenak, maiz, juzgamenak aldatzen ditu.*

Pertzepzioari dagokionez, gogogan hartzea komeni da sentipenaren bidez jasotzen ditugun ideiak, helduen kasuan, juzgamenak aldatzen dituela sarri, gu horretaz ohartu gabe. Geure begien aurrean kolore uniformeko esfera biribil bat —adibidez, urre, alabastro edo atxabixi koloreko bat— jartzen dugunean, gauza ziurra da esfera hori ikustean inprimatzen zaigun ideia zenbait itzal dituen zirkulu lau batena dela, begietara ñabardura ezberdineko argitasun eta distira heltzen zaigularik. Baina gu, usadioz, ohiturik gaudelarik gorputz ganbilek gure baitan sortarazten duten itxura eta gorputzen irudi sentigarri ezberdinek argi isletan eragiten dituzten aldagetak hautematen, juzgamenak,

ohiko azturaz, itxurak kausetara igaroz aldatzen ditu bat-batean. Era horretan, izatez irudia biltzen duen itzal edo kolore aldaera bat dena irudiaren aldagatatzat pasarazten du eta bere baitan irudi ganbil baten eta kolore uniforme baten pertzepzioa eratzen du, benetan hautematen dugun ideia kolore ezberdinez koloreztaturiko plano batena besterik ez denean, pinturan bistakoa den bezala. Honi buruz, ezagutzaren sustatzaile zorrotz eta ikastun haren, Molineux izeneko jaun jakintsu eta balio handikoaren problema bat sartuko dut hemen, duela zenbait hila-bete gizabide handiz eskutitz batean bidali zidana. Hona hemen problema: «demagun bat *itsujaio* zela eta orain gizon hazia delarik *uki-menaz* metal bereko eta tamaina beretsuko kubo bat eta esfera bat bereizten irakatsi zaiola, bata eta bestea haztatzean esfera zein eta kubo zein den esateko moduan. Demagun orain kubo eta esfera mahai baten gainean daudela etaitsuak ikusmena bereganatzen duela. Galdera da ea gizon horrek, *ikusizbaina ukitu ga be* bereizi ahal izanen lukeen globo zein eta kubo zein den». Gure proposatzaile zorrotz eta burutsuaren erantzuna hau da: «Ez, zeren, esferak edo kuboak bere ukimenean zer nolako eragina duten esperientziaz jakin arren, ez baitu hartu esperientziarik jakiteko nolako eragina ukan behar duen bere ikusmenean, ukimenean horrelako eta halako eragina egiten dionak; ezta kuboko angelu irten bat, eskuan presio desberdina egiten ziona, begietara kuboan agertzen zaion moduan agertuko zaiola ere». Oso bat nator harrotasunez lagun deitzen diodan gizon argi horrek problemari ematen dion erantzunarekin; eta nire iritzia ere da itsuak ezinen lukeela ikusi hutsaz lehen begiradan ziur esan zein den esfera eta zein kubo, nahiz eta ukimenaz hutsik gabe bereizi ahal izanen lituzkeen irudien arteko aldeak hautemanez. Problema hau irakurleari eskaini nahi izan diot gogoan izan dezan zenbat zor dien esperientzia, heziera eta harturiko nozioei, nahiz eta berak uste izan ez diotela ezertarako balio, inolako laguntzarik ematen ez diotelarik. Eta eskaini nahi izan diot batez ere gizon zuhur honek gehitzen duelako, «nire liburua zela eta, problema hau zenbait gizon argiri proposatu zielarik, ia inor ere ez zuela aurkitu lehenengo hotsean berak erantzun zuzentzat zeukana eman zionik, harik eta, bere arrazoiak entzun ondoren, konbentzitu ziren arte».

### 9. *Judizio hau pertzepzio zuzentzat har daiteke errakuntzaz.*

Baina hau ez da ohiko, nik uste, gure ideietako batean ere, ikusmenaz jasotakoetan izan ezik. Izan ere, ikusmenak, gure sentimenean



zabalena denak, gure gogamenera berak bakarrik eraman ditzakeen argi eta kolorearen ideiak eta hauetatik oso ezberdinak diren hedadura, irudi eta higidurarenak ere eramaten dituenaz gero, berauen ezberdintasunak ikusmenari soilik dagozkion objektuen itxura, hau da, argi eta kolorearena aldatzen duelarik, ohitu egiten gara lehenengoak bigarrentzat hartzen. Kasu askotan hau, gogor erroturiko aztura batengatik, hain iraunkorki eta azkar gertatzen da, non geure sentipenaren pertzepzioztat hartzen dugu geure juzgamenak eraturiko ideia bat dena; era horretan, bata, hau da, sentipenak, bestea kilikatzeko besterik ez du balio, horretaz ohartu ere ia ez garelarik egiten, arretaz eta ulertuz irakurtzen duen gizonak, letra eta hotsez ez, baina hauek sortarazten dizkioten ideiez konturatzen den moduan.

10. *Sentipenaren ideiak, azturaren indarrez, inkontzienteki aldatzen eta juzgamenaren ideia bihurtzen dira.*

Eta ez gaitu harritu behar hau hain oharpen arinaz gertatzeak, kontuan baldin badugu zein azkar burutzen diren gogamenaren ekin-tzak; zeren, hark lekurik ez duela betetzen eta hedadurarik ez duela uste den bezalaxe, halaxe, dirudienaz, haren ekin-tzak ez dute denborarik behar, une batean asko pilatzen direlarik. Hau gorputzaren ekin-tzen konparazioan diot. Edonork egiazta dezake erraz hori bere pentsamenduetan, berauoi buruz gogoeta egiteko lana hartuz gero. Nola ikusten du gure adimenduak begirada batez, lipar batean balitz legez, hitzetan jarri eta urratsez urrats beste bati azaltzeko beharko litzatekeen denbora kontuan hartuta luzetaz jo daitekeen demostrazio baten parte guztiak? Bigarrenik, ez gaitu harrituko hau hain oharkabe gertatzeak, baldin gogoan badugu azturaren bidez gauzak egiteko hartzen dugun erraztasunak guk gauza horiek ohartu gabe pasatzea dakarrela. Aztura batzuek, batez ere gazterik hartzen ditugunek, azkenerako gure oharrenari ihes egiten dien egintzak eragiten dizkigute. Egunean zehar zenbat bider estaltzen ditugun begiak betazalez, erabat ilunetan gaudela ohartu gabe! Ohituraz ezertara ez datorren hitzen bat erabiltzen dutenek ia esaldi guztietan ahoskatzen dituzte, besteek konturatu arren, haiek berek ez entzun ez hautematen ez dituzten hotsak. Eta, horregatik, ez da hain harrigarria gure gogamenak bere sentipenaren ideia aldatu eta haren ordeztatu juzgamenaren ideia jartzea eta, gogamenaren egintzaz, bata bestea sortarazteko soilik balio izatea, gu horretaz ohartu gabe.

11. *Animalien eta landareen arteko aldeak pertzepzioak markatzen ditu.*

Hautemateko ahalmena dela deritzot animalien erreinuaren eta naturako beheragoko izakien arteko aldea markatzen duena. Izan ere, landarerik gehienek, higimen maila baten jabe izanik, beste gorputz batzuk aplikatzen zaizkienean beren irudi eta higidurak oso biziki aldatzen dituzten arren, horrexegatik deritzelarik landare sentiberak, animaliengan sentipenaren ondoren gertatzen den higiduraren nolabait antzekoa baitute, hala eta guztiz ere, uste dut *mekanizismo* hutsa dela dena, eta higidura hori sortzeko ez dela behar olo basatiaren bizarra hezetasunaren ondorioz kiribiltzeko edo soka bat bustitzean laburtzeko behar denetik ezer diferenterik. Dena egiten da subjektuaren inolako sentipenik gabe eta ideiarik eduki edo hartu gabe.

12. *Pertzepzioa animalia guztiek daukate.*

Hautemateko ahalmen hau, nik uste, mota guztietako animaliengan aurkitzen da mailaren batean, nahiz eta agian naturak sentipenak hartzeko agian batzuei eman dizkien bideak hain gutxi eta berauek eskainitako pertzepzioa hain ilun eta motela den, non beste animaliak sentipenetan duten bizitasun eta aniztasunetik askoz beherago geratzen baitira; baina hori nahikoa da eta zuhurki egokiturik dago horrela eginak diren animalien egoera eta baldintzetara. Horretara, Egilearen jakituria eta ontasuna argi ageri dira fabrika miragarri honen alde guztietan eta bertan diren izakien maila eta mota guztietan.

13. *Berenizaeraren arabera.*

Ostra edo txirla baten egikeratik arrazoiz esan dezakegula uste dut horiek ez dutela gizakiak edo beste animalia batzuek adina sentimen, ezta berauenak bezain sentimen azkarrak ere; eta balituzte ere, leku batetik bestera ibiltzeko duten ezintasuna ikusita, ezer gutxirako balioko liekete. Zer onura ekarriko lioke ikusmenak edo entzumenak, on eginen dioten objektuetarantz higitzerik ez kalte eginen diotenetatik alde egiterik ez duen izakiari? Eta sentipenaren bizkortasuna ez ote litzateke eragozpen, zorteak jarri zuen toki berean zirkinik egin gabe eta bertara datorkion ur hotzak zein beroak, garbiak zein zikinak, hartzen egon behar duen animaliaarentzat?

#### 14. *Pertzepzioaren gainbehera zahartzaroan.*

Hala ere, pentsatu beharra dut animalia horiek badutela pertzepzio txiki motel bat, erabateko sorgortasunetik bereizten dituen. Eta hori horrela dela ikusteko gizakien artean ere badugu adibide argirik. Har dezagun gizaki bat zahartzaroko gainbeherak lehenagoko ezagupen guztien oroitzapena ezabatu diona, gogamena lehen ukaniko ideiarik gabe utziz eta, honez gain, ikusmena, entzumen eta usaime-na erabat eta dastamena maila handi bateraino galdu dituelako, ideia berriak hartzeko bide guztiak utzi zaizkiona, edo, bide horietako batzuk oraindik erdi-irekirik dituela jota, eragiten zaizkion inpresioak ia hautematen ez dituen. Horrelako bat (sortzetiko printzipioez esaten den guztia gorabehera) ezagutzaz eta adimen-ahalmenez ostra edo txirla bat baino zenbat gorago dagoen irakurleak erabakitzekeko utziko dut. Eta baten batek egoera horretan hirurogei urte igaroz gero, hau hiru egun igarotzea bezain litekeena delarik, harritzekoa litzateke jakitea nolako aldea legokeen garapen intelektualari dagokionez gizon horren eta beherengo mailako animalien artean.

#### 15. *Pertzepzioa, ezagumenaren material guztien sarbidea.*

Pertzepzioa, orduan, ezagutzarako *lehen* urrats eta maila eta ezagumenaren material guztien sarbide izaki, zenbat eta sentimen gutxiago eduki gizaki batek edo edozein beste izakik, eta zenbat eta gutxiago eta motelagoak izan haiek eragindako inpresioak eta kamutsagoak haiekiko ahalmenak, urrunago egonen da gizaki batzuen gain topa daitekeen ezagutzatik. Baina hau (gizakien artean hauteman daitekeen moduan) maila-ezberdintasun handian gertatzen denez, ez dago ziurtasunez deskubritzerik animalia espezie ezberdinetan eta, are gutxiago, haietako banakoetan. Nahikoa dut hemen pertzepzioa gure adimen-ahalmen guztien lehen jarduna eta ezagupen guztien gogamerako sarbide dela ohartaraztea. Eta, gainera, esanen nuke pertzepzioa bere beherengo mailan dela animalien eta behe mailako izakien arteko muga markatzen duena. Baina hau bidenabar eta neure aieru moduan aipatzen dut, garrantzirik gabekoa baita eskuartean darabil-dan auzirako jakitunek honetan erabaki lezaketena.



# X. KAPITULUA

## Eutsimenaz

### 1. *Kontenplazioa.*

Gogamenak ezagutzarantz aurrerago jotzeko daukan hurrengo ahalmena nik *eutsimena* deitzen diodana da, hau da, sentipen edo hausnarketa bidez harturiko ideia bakunak gordetzeko ahalmena. Hau era bitara egiten da.

Lehenik, gogamenera ekarritako ideia aldi batez bistan edukiz, eta honi *kontenplazioa* deritza.

### 2. *Oroimena.*

Eusteko beste era, inprimatu ondoren ezabatu edo, nolabait esateko, albo batera eta bistatik kanpo geratu diren ideiak gogamenean berpizteko ahalmena da. Eta horixe egiten dugu kolorea edo argia, horia edo gozoa iruditzen ditugunean, objektua aurretik kendu eta gero. *Oroimena* da hori egiten duena, eta gure ideien biltegia bailitzan da. Izan ere, gizakiaren gogamen estua ez delarik gai ideia asko batera ikusmiran eta aztergai edukitzeko, beharrezko zen leku bat edukitzea, edozein unetan behar izan zitzakeen ideiak biltzeko. Baina gure *ideiak* adimenean gertatzen diren pertzepzio aktualak besterik ez direnez eta beraien pertzepziorik ez dagoenean ezer ere ez direnez gero, oroimeneko gordailuan gure ideiak biltzeak haxe baino ez du esan nahi: gogamenak kasu askotan lehen ukaniko pertzepzioak berpizteko ahala duela, eta, gainera pertzepzio gehigarri bat ere baduela: *lehena* -

*go ukan dituelakoa*. Eta zentzu honexetan esaten da gure ideiak oroimenean daudela, inon ere ez daudenean egon, hauxe gertatzen baita, alegia, gogamenak nahi duenean haiek birgogoratzeko eta, horrela esatearren, bere baitan berriro pintatzeko ahalmena duela, batzuk errazago eta beste batzuk zailtasun handiagoz, batzuk biziago eta beste batzuk motelago, egia esan. Eta ahalmen honexen laguntza daukagulako hain zuzen esan daiteke ideia horiek guztiak geure adimenean daudela, zeren, aktualki kontenplazten ez baditugu ere, bistara ekar *baititzakegu* eta berriro agertaraz *baititzakegu* pentsagai izan ditzagun, lehenbizi han inprimatu zituzten koalitate sentigarrien laguntzarik gabe.

3. *Arretak, errepikapenak, plazerrak eta oinazeak tinkatu egi-ten dituzte ideiak.*

Edozein ideia oroimenean tinkatzeko, garrantzi handikoak dira arreta eta errepikapena, baina era naturalez lehenbizi inpresiorik sakonen eta iraukorrena uzten duten ideiak plazerra eta oinazea lagun daramatenak dira. Gure sentimenen zeregin nagusia gorputzari kalte edo mesede egiten dionaz gu jakitun jartzea denez gero, naturak zuhurki ebatzi du, frogatu den moduan, zenbait ideia lagun oinazea joan dadin; eta oinazeak haurren gogoeta eta arrazoiketaren lekua hartzen duenez eta helduengan gogoeta baino azkarragoa denez, zahar zein gazteek objektu mingarrietatik beren kontserbaziorako behar bezain agudo ihes egitea dakar eta batzuek eta bestetuek beren oroimenean kontuz ibiltzeko ohar bat txertatzea.

4. *Ideiak histu egiten dira oroimenean.*

Ideiak oroimenean inprimaturik duten iraupen mailari dagokionez, ohar gaitezke batzuk sentimenei behin bakarrik eragindako objektuek adimenean sortaraziak direla; badira beste batzuk sentimenei behin baino gehiagotan aurkeztu direnak, baina oharpen handirik jaso gabe, dela gogamenak arretarik izan ez duelako, haurren kasuan bezala, dela beste zerbaitetan ibili delako, gauza bakar bati adi egoten direnei gertatzen zaien moduan, ideiak haiengan marka handirik uzten ez dutelarik. Eta beste pertsona batzuek ideiak kontu handiz eta behin eta berriz inprimatzen diren arren, pertsona horiek beren gorpuzkeragatik edo beste akatsen batengatik oroimen ahulekoak dira. Kasu horietan guztietan, ideiak agudo histen dira adimenean eta batzuetan erabat desagertzen dira adimenean, itzal hegalaria gari-

tzan uzten duen baino lorratz edo marka gehiagorik utzi gabe, eta gogamena ideia horiez erabat gabeturik geratzen da, sekula izan ez balitu bezala.

### *5. Ahanztearen kausak.*

Era horretan, haurrak beren gogamenean sentipenak izaten hasten direnean eratzen diren ideiarik asko (ideiotako batzuk, plazer eta oinazearenak, adibidez, agian jaio aurretik sortarazitakoak dira eta beste batzuk haurtzarokoak), bizitzan zehar errepikatu ezean, erabat galtzen dira, arrastorik txikiena ere utzi gabe. Hau ongi ikus daiteke oso gazte zirela ezbeharrez ikusmena galdurikoengan, aipaturiko ideiak horiengandik, koloreen ideiez arinki jabeturik egotean eta ideiak errepikatzeari uztean, zeharo desagertzen baitira, halatan, non zenbait urteren buruan sortzetiko itsuek baino koloreen nozio ez oroi-tzapen handiagorik ez duten. Batzuen oroimena, egia esan, oso euskorra da, are mirakuluaren mugetaraino. Baina, hala ere, badirudi ideien etangabeko narriadura bat gertatzen dela, are oroimenik atxikitzaileenetan sakonkien inprimaturikoetan euretan ere, hainbestearainokoa, non, baldin lantzean behin sentimenak edo hausnarketa berriro erabiliz errepikatzen ez badira, hasieran ideioek sortarazitako objektuen markak desagertu egiten diren, azkenerako, han, ikus daitekeen ezer ez geratzeraino. Horretara, gure gaztaroko ideiak sarri, gaztaroko seme-alabak bezala, geu baino lehenago hiltzen dira; eta honetan gure adimena batzuetan ikusi ohi ditugun hilobi horien antzekoa da, alegia, hurbildu ahala marmolak eta brontzeak badirauela erakutsi arren, denboraren eraginez inskripzioak ezabaturik eta irudiak higaturik agertzen dituztenen antzekoa. Gure gogamenean marrazturiko irudiak ere kolore ezabakorretan grabatuak dira, eta lantzean behin berriztu ezean, ezabatu eta suntsitu egiten dira. Zenbateraino dagokion hau gure gorputzen osaerari eta gure animala espirituen egikerari, eta burmuinaren osaera partikularra ote den esplikatzen duena batzuek han inprimaturiko karaktereak marmolean baleude bezala, beste batzuek harrian bezala eta beste batzuek ia harean baleude bezala eustea, ez dut nik orain aztertuko, nahiz eta gertagarri dirudien gorputzaren osakerak oroimenean eragina izatea, batzuetan ikusten baitugu gaixotasun batek ideia guztiak kentzen dituela gogamenetik eta sukarraren garrak marmolean grabaturik baleude bezain iraunkorrak ziruditen irudiak egun gutxitan errausten dituela, hauts eta nahasmendu bihurtuz.

#### 6. *Etengabeki errepikatzen diren ideiak nekez gal daitezke.*

Baina ideiei beraiei dagokienez, erraz ohar daiteke haiek sortarazten dituzten objektuak edo ekintzak errepikatuz maizen berritzen direnak direla (berauren artean gogamenera bide bat baino gehiagotik iristen direnak daudelarik) oroimenean tinkoen finkatzen direnak eta argiroen eta luzaroen dirautenak eta, beraz, gorputzen jatorrizko koallitateenak direnak, hau da, solidotasun, hedadura, irudi, higidura eta atsedenarenak, baita gure gorputzei ia etengabeki eragiten dieten hotz eta beroa bezalako koallitateenak ere, baita edozertariko izakiei dagozkien koallitateen ideiak ere, hala nola, existentzia, iraupen eta kopuruarenak ere, gure sentimenei eragiten dieten ia objektu guztiek eta gure gogamenak darabiltzan pentsamendu guztiek dituztenak berauek. Ideia hauek guztiak eta antzekoak, diot bada, bakanki galtzen dira zeharo, gogamenak ideiaaren bat atxikitzen duen bitartean.

#### 7. *Oroitzean gogamena aktiboa da maiz.*

Bigarren pertzepzio honetan —horrela ere dei baitakioke— edo oroimenean dauden ideiak berriro ikuste honetan, oroimena ez da maiz pasibo hutsa izaten, lotan dauden irudi horien agerpena sarri askotan *nahimenaren* menpe izaten baita. Gogamena oso maiz ideia estaliren baten bila aritzen da eta, horrela esatearren, arimaren begia ideia horretara bihurtzen du, nahiz eta ideia horiek batzuetan berez ere agertzen diren gure gogamenean, adimenaren aurrera aurkeztuz; eta oso maiz grina zurrunbilotsu eta ekaiztsuek iratzarri eta beren ziega ilunetatik egun argitara ateratzen dituzte, gure grinek oroimenera ekarri baititza-kete bestela geldirik eta oharkaberik geratuko liratekeen ideiak. Gainera, oroimenean dauden eta batzuetan gogamenak berpizten dituen ideiei buruz beste honetaz ohartu behar da: bat bera ere, *berpiztu* hitzak adierazten duen moduan, berria ez izateaz gain, gogamena konturatzen dela lehenagoko inpresioak direla eta beraien ezagutza berrizatzen duela, lehenagotik ezagutzen zituen ideiak direlako. Horretara, lehenago inprimaturiko ideiak etengabeki bistan ez egon arren, orimenaren bidez lehenago inprimaturikotzat, hau da, bistan egondakotzat eta adimenak lehenago ohartemandakotzat ezagutzen dira.

#### 8. *Oroimenaren bi akats: ahanzteak eta geldotasuna.*

Oroimena, adimendun izaki orotan, pertzepzioaren ondoren ahalmenik inportanteena da. Hain inportantzia handia dauka, non,



hura falta denean, beste ahalmen guztiak neurri handian baliorik gabe geratzen diren. Eta oroimenaren laguntzagatik ez balitz, geure arrazoinamendu eta ezagupidean ez genuke oraingo objektuetatik harago joaterik; baina oroimenak bi akats ukan ditzake:

Lehenengoa, oroimenak ideia bat guztiz galtzea eta erabateko ezjakintasuna sortzea gerta daiteke. Izan ere, zerbaitez dugun ideiatik harago ezer ezagutzerik ez dugunez gero, ideia desagertzean, erabateko ezjakintasunean gelditzen gara.

Bigarrena, oroimenak geldotasunez jokatzeko eta metaturik dituen ideiak gogamenak une konkretu batean behar dituenean, behar bezain bizkor ez ateratzea. Geldotasun hau maila handira heltzen denean tentelkeria da; eta, oroimenean akats hau duelako, han gorde-ta dauden ideiak behar dituenean eta uneak eskatzen duenean erabiltzeko prest eta eskueran ez dituenari ia berdin dio ez edukitzea, ezer gutxitarako balio diote eta. Une konkretu horretan balioko lioketen ideien bila ari den bitartean aukera pasatzen uzten duen gizaki geldoa ez da, ezagutza kontuan, asko arrakastatsuagoa, erabat ezjakina dena baino. Oroimenaren zeregin nagusia, beraz, gogamenari une konkretu batean behar dituen ideiak ematea da; eta ideia horiek abagune orotan eskueran prest edukitzeari asmamena, irudimena eta adimen-azkartasuna deitzen diogu.

#### *9. Finitua denez gizakiaren oroimenari dagokion akats bat.*

Akatsok gizon bat beste batekin alderatuz aurki ditzakegunak dira. Bada beste akats bat gizakiarengan oro har dagoena, goragoko beste izaki adimendun batzuekin alderaturik; hauek, izan ere, oroimen kontuan hainbesteko aldea ateratzen diote gizakiari, non beren lehenagoko egintza guztien eszena *iraunkorki* bistan ukan dezaketen, lehenago izandako pentsamendu batek ere ezin baitu haien begiradatik alde egin. Honen ahalbidez konbentzitzeko nahikoa dugu Jainkoaren orojakintza aintzat hartzea, Jainkoak iragandako, oraingo eta geroko gauza guztiak baitakizki eta harentzat gizakien bihotzeta-ko pentsamenduak beti irekirik baitaude. Eta ez dago zalantzatan jar-tzerik Jainkoak bere zerbitzari hurbilen diren espiritu dohatsuei bere perfekzioetako bat edo beste eman diezaieketela, berak nahi duen he-inean eta izaki finitu batek beregana ditzakeen mailaraino. Espirituaren mirari bat izan zen Pascal jaunaz kontatzen da osasun gainbeherak bere oroimena higatu arte, ezaguerako adinaz geroztik

egin, irakurri edo pentsaturiko ezertxo ere ez zuela ahanzi. Pribilegio hori hain ezezaguna da gizakirik gehienengan, non ia sinestezin gertatuko zaien hori besteak, arrunki egin ohi den moduan, beren neurriaz neurtzen dituztenei; baina kasu hori aintzat hartzeak agian laguntza emanen digu geure pentsamenduak goragoko mailetako espirituak honetan duten perfekzio handiagoa ikusteraino zabaltzeko. Izan ere, Pascalen bikaintasuna ere azken batean, giza gogamenak berez duen hertsitasunera mugaturik dago, hau da, ideia anitz, baina bata bestearen ondoren edukitzera, inola ere ezin eduki dituelarik batera. Aingeru maila ezberdinek, ordea, ikuspegia zabalagoa dukete seguraski eta beraietako batzuk gai dirateke beren iraganeko ezagupen guztiak, koardro batean bezala, batera eta iraunkorki beren aurrean atxikitzeko. Pentsa genezakeen moduan, ez litzateke abantaila makala gizon pentsatzaile batentzat bere iraganeko pentsamendu eta arrazoinamendu guztiak *beti* presente eduki ahal izatea. Eta hemendik atera genezake horixe dela espiritu bereizien ezagumenak gurea askogatik gainditzeko duen moduetako bat.

#### 10. *Abereek ere badaukate oroimena.*

Badirudi, gizakiak bezala, beste animalia batzuek ere badaukatela gogamenera ekarritako ideiak gorde eta atxikitzeko ahalmena hein handian. Izan ere, kantuak ikasten dituzten txoriek, beste adibide batzuetara ez jotzearren, eta haiengan notak zuzen jotzeko ikusten ditugun ahaleginek inolako zalantzarik gabe onartzera naramate pertzepzioak dituztela, eta beren oroimenean ideiak atxiki eta eredu moduan erabiltzen dituztela. Zeren ezinezko baiteritzot txoriok euren ahotsak ideiak ez dituzten notetara egokitzen saiatzeari (hala egiten dutela nabari denean). Izan ere, nahiz eta onartzen dudan soinuak, kantuak dirauen artean, txori horien burmuinean animali espirituak nolabaiteko higidura eragiten duela mekanikoki, baita higidura horiek hegoetako muskuluetaraino luza litezkeela eta zenbait zarataren eraginez txoriari alde eragin mekanikoki, hau txoriaren salbaziorako izan daitekeelako, hori onartzen dudan arren, hala ere, ezinen da hori ekarri arrazoi moduan esplikatzeko horrek zergatik eragin beharko lukeen mekanikoki —txoria kantuan ari denean eta asko gutxiago kantua amaitu ondoren—, txoriaren ahots organoetan higidura bat, soinu arrotz baten notak imitatzen daramana, imitazio honek txoriaren kontserbaziorako inola ere balio ez duenean. Baina, areago, ez dago nola-

baiteko arrazoi-itxuraz suposatzerik (askoz gutxiago frogatzerik) txo-  
riek, sentimenik eta oroimenik gabe, beren kantua bezperan kantatu  
zitzaien melodiako notetara poliki-poliki gero eta hurbilago eraman  
lezaketela; izan ere, oroimenean melodia horren ideiarik eduki ezean,  
ez legoke inon melodiarik eta ez lukete imitatzeko eredurik, ezta behin  
eta berriro entseiatuz eredura hurbiltzeko modurik ere. Egon ere, ez  
dago arrazoirik xirula baten soinuak burmuinean lorratzak utz diezaz-  
kien, burmuinak gero, ez lehen unean, ahalegin eta entseiuak egin  
ondoren baizik, antzeko soinuak atera ahal izateko; eta, bestalde, ez  
dago bururatzerik zergatik berek ateratako soinuek, xirularenek beza-  
laxe, ez duten gero beraiek imitatuko duten lorratzik utzi behar.



# XI. KAPITULUA

## Bereizmenaz eta gogamenaren beste eragiketa batzuez

### 1. *Bereizmenik gabe ez dago ezagutzarik.*

Gogamenaren beste ahalmen bat, seinالاتu beharrekoa, dauzkan ideien artean *bereizteko* edo *ezberdintzekoa* da. Ez da nahikoa zerbaiten nozio nahasi eta oroharrekoa edukitzea. Objektu ezberdinen eta beraien koalitategen pertzepzio bereizia ukan ezean, gogamena ezer gutxi ezagutzeko litzateke gai, inguruan ditugun gorputzek gure baitan orain adinako eragina ukan arren eta gogamena etenik gabe pentsatzen ari izan arren. Gauza bat bestetik bereizteko ahalmen honexen menpe daude sortzetiko egiaztat dauzkagun proposizio batzuen, are orokor batzuen, nabaritasuna eta ziurtasuna; zeren gizakiek, proposizio horiek baiespen unibertsala zergatik jasotzen duten behar bezala aztertu gabe, sortzetiko inpresio uniformeak direla uste dute, benetan hori, egon, bi ideia gauza bera edo bi desberdinak noiz diren *haute-mateko* daukagun argi bereizteko ahalmen honen menpe dagoenean. Gai honetaz gero mintzatuko gara zabalago.

### 2. *Asmamenaren eta juzgamenaren arteko aldea.*

Ez dut hemen aztertuko ideia batzuk besteetatik zehazki behar bezala ez bereiztea zenbateraino egotzi behar zaien edo sentimen-organoen kamustasun edo akatsei, edo adimenaren zorroztasun, ariketa edo arreta faltari, edo batzuen berezko presa eta tarrapatari; nahikoa izanen da gogoan izatea gogamenak hausnar eta berarengan hauteman

dezakeen eragiketetako bat dela hori. Eta hain garrantzi handikoa da gogamenaren beste ezagutzetarako, non ahalmen hori kamusturik edo gauzak bata bestetik bereizteko behar bezala erabili gabe dagoen heinean, neurri berorretan gure nozioak nahasirik eta gure arrazoimen eta juzgamena aldrebesturik edo desbideraturik egonen diren. Espirituaren bizkortasuna oroimenean dauden ideiak eskueran prest edukitzean baldin badatza, nahasi gabe edukitzean eta alderik txikiena dutenean gauza bat bestetik argi bereiztean dautza, hein handian, juzgamenaren zehaztasuna eta arrazoimenaren gardentasuna, gizaki batzuingan beste batzuingan baino nabarmenago ikusten ditugun koaliteteak berauek. Eta honek agian eman du arrazoirik eskuarki hauteman ohi dena oinarritzeko, alegia, asmamen handia eta oroimen azkarra duten gizakiek ez dutela beti juzgamenik argiena ez arrazoi-menik sakonena. Izan ere, *asmamena* gehiago ere ideiak batzean eta euren artean antzekotasuna edo kidetasuna topa dakiekeenak elkartzean datza, irudimenean koadro atseginak eta ikuskizun laketgarriak eginez; *juzgamena*, ordea, beste ertzean dago, alderik txikiena topa dakiekeen ideiak konturik handienaz bata bestearengandik banantzean alegia, era horretan antzekotasunaren engainua ekidin eta gauza bat beste batekin ez nahasteko. Hau metafora eta aipuaren erabat kontrako jokaera da; izan ere, asmamenagatik gehienbat entretenigarri eta atsegin izanik, eragin bizia egiten diote irudimenari eta, beraz, onargarri dira edonorentzat, edertasuna lehen ikusian erakusten dutelako eta barruan duten egia edo arrazoia aztertzeako inolako ahaleginik eskatzen ez dutelako. Gogamena, harago jo beharrik gabe, asebeterik geratzen da koadroaren ederraz eta irudimenaren pozaz. Eta eraso bat litzateke asmamena egiaren eta arrozenaketa zuzenaren arau zorrotzen pean aztertzen ibiltzea; eta hemendik agerian geratzen da asma-mena arauoi egin-eginean doitzen ez zaien zerbait dela.

### 3. *Argitasunak soilik kentzen du nahasmendua.*

Gure ideiak ongi bereizten asko laguntzen du ideioi *argiak* eta *zehatzak* izateak. Eta horrelakoak direnean, ez da haiei buruzko nahasmendu edo errakuntzarik sortuko, nahiz eta sentimenek objektu beretik aldi ezberdinetan ateratakoak izan eta kontraesanean daudela eman. Zeren, nahiz eta batek, sukarra daukala, beste batean gozo jan izan duen azukreari gustu mingotsa hartu, hala ere, gizaki horrek jaso duen mingotsaren ideia behazun hutsa dastatu izan balu bezain argia

eta gozoaren ideiatik bereizia da. Eta batzuetan mota bereko gorputzak aldi batean gozoaren ideia eta beste batean mingotsarena eragiteak ez du ideia horien arteko nahasmendu handiagorik sortzen, azukre koskor berak biak aldi berean adimenean eragiten dituen zuri eta gozoaren edo zuri eta biribilaren ideien artean sortzen duena baino. Eta *Lignum-nephriticum* infusio zati berak gogamenean eragiten dituen laranja kolore eta urdinaren ideiek ez diote bereizitasunean ezer zor gorputz oso ezberdin bitatik harturiko kolore beren ideiei.

#### 4. *Ideiak alderatzea.*

Adimenak bere ideiekin egiten duen beste eragiketa bat ideia bat bestearekin alderatzea da, hedadurari, mailei, aldiari, lekuari eta beste edozein zirkunstantziari begira, eta *erlazio* izenez ezagutzen ditugun ideien kopuru ugaria horrexen menpe dago, noraino hedatzen diren geroago aztertuko dudalarik.

#### 5. *Piztiek ez dituzte ongi alderatzen ideiak.*

Animaliek ahalmen hau noraino duten esaten ez da erraz. Nik neuk pentsatzen dut ez dutela hein handian, zeren daitekeena izan arren abereek zenbait ideia aski bereizi edukitzea, hala ere, uste dut giza adimenari ez besteri dagokiola, bi ideia erabat ezberdin moduan bereizi eta bi direla erabaki ondoren, aztertu eta zein zirkunstantzian diren alderagarri ebatzea. Eta horregatik uste dut animaliek ez dituztela beren ideiak alderatzen objektuekin berekin loturiko zenbait zirkunstantzia sentigarritik harago. Gizakiengan ikus daitekeen alderatzeko beste ahalmena, berriz, hau da, ideia orokorreki dagokiona eta arrazoiketa abstraktuetan soilik erabiltzen dena, abereek ez dutela pentsa genezake ziur asko.

#### 6. *Ideien konposaketa.*

Gogamenean bere ideiekiko egiazta dezakegun beste eragiketa bat KONPOSAKETA da; beronen bitartez gogamenak sentipen eta hausnarketa bidez jasotako zenbait ideia biltzen ditu eta gero konbinatuz ideia konplexuak eratzen ditu. Konposaketa eragiketa honen barruan sar daiteke ideiak *hedatzekoa* ere, zeren, hemen konposaketa kasu konplexuagoetan bezain argi agertzen ez bada ere, kasu honetan ere zenbait ideia biltzen baitira, nahiz eta mota berekoak izan. Horretara, zenbait unitate batuz dozenaren ideia egiten dugu eta zenbait pertikaren ideia errepikatuak batera jarritz, estadio batena.

### *7. Piztiek konposatzen dute, baina gutxi.*

Honetan ere uste dut abereak gizakiaren konparazioan oso labur geratzen direla. Izan ere, nahiz eta ideia bakunen zenbait konbinazio hartu eta batera atxiki, hala nola, agian beren ugazabaren irudia, usaina eta ahotsa, horixe izanik agian txakur batek duen haren ideia konplexua eta horiexek izanik ugazaba ezagutzeko dituen seinaleak, hala ere, ez dut uste abereek ideioi inoiz konposatzen dituztenik, ideia konplexuak eratzeko. Eta agian ideia konplexuak dituztela uste dugunean ere, ideia bakun bat besterik ez dute, beharbada guk uste dugun baino gutxiago ikusmenaz bereizten dituzten zenbait gauza ezagutzera zuzentzen dituenak. Izan ere, informazio sinesgarri jakin ahal izan dut txakurreme batek azerikumei ditia eman, beraiekin jolastu eta maitasuna erakutsiko diela bere umeak bailiran, azerikumeek euren gorputz osora hedatzeko adina esne berarengandik edoskitzea lortzen bada. Eta badirudi sabelaldi berean kume asko egiten dituzten abereek ez dutela jakiten zenbat dituzten; izan ere, berek ikusi edo entzunda kumeren bat kentzeak kezka handia eragiten dien arren, beraiek han ez daudela edo isilpean kumeren bat lapurtuz gero, badirudi ez dutela faltarik sentitzen, eta ez direla kopuruaren gutxitzeaz ohartzen.

### *8. Izenak jartzea.*

Haurrak, behin eta berriro sentipen berak ukanez, beren oroi-menean zenbait ideia finkatzera heltzen direnean, hotsen erabilera ikasten hasten dira poliki-poliki. Eta mintza-organoak aplikatzeko trebatasuna hartu eta hots artikulatuak eratzten ikasten dutenean, hitzez baliatzen hasten dira, besteei ideiak komunikatzeko. Hitz horiek batzuetan besteengandik hartzen dituzte eta beste batzuetan beren kabuz asmatzen dituzte, haurrek, hitz egiten hasten direnean, gauzei jartzen dizkien izen berri eta bitxietatik ikus daitekeenez.

### *9. Abstrakzioa.*

Hitzen erabilera, orduan, gure barne ideien kanpo seinale izatean datzalarik eta ideioi gauza konkretuetatik hartuak direlarik, hartzen dugun ideia partikular bakoitzak bere izen ezberdina baldin balu, izenaren izenak ez luke amairik. Hau gerta ez dadin, gogamenak objektu partikularretatik harturiko ideiak orokor bihurtzen ditu, hori agerpen horiek gogamenean dauden moduan kontuan hartuz lortzen delarik, hau da, existentzia orotik eta existentzia errealean zirkuns-



tantzia orotik bananduta, hala nola, aldi, leku edo bestelako ideia konkomitanteetatik. Eragiketa honi ABSTRAKZIOA deritza, eta beronen bidez izaki partikularretatik harturiko ideiak orokor eta mota bereko guztien ordezkagarri bihurtzen dira; eta euren izenak orokor eta ideia abstraktu horiekin lotgarri diren izaki guztiei aplikagarri bihurtzen dira. Gogameneko agerpen zehatz eta biluzi horiek, gogamenera nola, nondik eta beste zein ideiarekin batera etorri ziren aintzat hartu gabe eraikitzen ditu adimenak (eskuarki jartzen zaizkien izenekin), existentzia errealak motetan sailkatzeko, paradigma horiekiko duten adostasunaren heinean, eta berorien arabera izena jartzeko eredu moduan. Horretara, gogamenak igeltsuan edo elurrean atzo esnean hautemandako kolore bera ikusten duenean, agerpen horixe bakarrik aintzat hartzen du, mota horretako guztien ordezkagarri egiten du eta, *zurita - suna* izena jartzen diolarik, hots horren bidez koalitate bera adierazten du, edonon dagoelarik edo imajina daitekeelarik ere; eta horrelaxe egiten dira unibertsalak, bai ideiak eta baita hitzak ere.

#### 10. *Piztiek ez dute abstrakziorik egiten.*

Abereek aipaturiko eran mailaren batean ideiak konposatu eta hedatzeko ahalmenik ote duten dudatzerik baldin bada, uste dut hau biribil esan dezakedala, alegia, ez dutela inolako abstraitzeko ahalmenik eta ideia orokorrak edukitzeak jartzen duela bereizmarra garbia gizakiaren eta piztien artean, abereen ahalmenek ez baitute inola ere gorentasun horretara iristerik. Izan ere, begi-bistakoa da ezin dugula aurkitu abereengan lorratzik ere, ideia unibertsalak adierazteko zeinu orokorrak erabiltzen dituztela erakutsiko digunik eta, horregatik, badugu arrazoirik pentsatzeko ez dutela abstraitzeko edo ideia orokorrak egiteko ahalmenik, ez baitute hitzik edo bestelako zeinu orokorrik erabiltzen.

#### 11. *Piztiek ez dute abstrakziorik egiten, baina ez dira makina hitz* .

Hots artikulatuak egiteko organo egokirik ezari ezin zaio egotzi animaliek hitz orokorrak ez erabiltzea edo ez ezagutzea, zeren haietako asko, dakigunez, horrelako hotsak itxuratzeko eta hitzak aski garbi ahoskatzeko gai baitira, nahiz eta ez aipaturiko helbururako. Eta, beste aldetik, organoetako akatsen bategatik mintzatzerik ez duten gizakiek ez dute eragozpenik berbatzat balio dizkioten zeinuen bidez beren ideia unibertsalak adierazteko, animaliek, ikusten dugun moduan, ez duten ahalmena berau. Eta, horregatik, nire ustez suposa

dezakegu horrexetan bereizten direla animalien espezieak gizakiaren-gandik eta horixe dela zeharo banantzen dituen diferentzia berezia eta, azken batean, beraien artean hain troka zabala irekitzen duena. Zeren, eurentako batzuek ideiak baldin badituzte eta makina huts ez badira (batzuek baietz uste dute), ezin diegu ukatu nolabaiteko arrazoimena. Hain nabaria da, nire ustez, haietako batzuek zenbait alditan arrazoitu egiten dutela, nola agerikoa den haien sentimena; baina ideia partikulerretan bakarrik, sentimenetatik hartzen dituzten heinean, arrazoitzen dute. Abererik onenak ere muga estuen pean daude eta ez dute (hala uste dut) inolako abstrakzioz mugape hori hedatzeko modurik.

### 12. *Ergelak eta zoroak.*

Ergeltasuna noraino dagoen esandako ahalmenen baten edo guztien urritasun edo ahultasunarekin lotuta, argi utziko luke, dudarik gabe, haien mota ezberdineko akatsen azterketa zehatzak. Izan ere, lanbrotsu baino hautematen ez dutenek, edo beren gogamenetara datozkien ideiak gaizki atxikitzen dituztenek, bizkortasunez atera eta konposatu ezin dituztenek, zertaz pentsatu gutxi ukanen dute. Bereizteko, alderatzeko eta abstraitzeko gauza ez direnak nekez uler-tu eta hizkuntzaz baliatu ahal izanen dira edo maila jasangarrian juz-gatu edo arrazoitu ahal izanen dute; hori guztia gehien ere urritasu-nez eta akats askorekin egin ahal izanen dute, eta aurrean dituzten eta beren sentimententzat oso ohiko diren gauzei buruz. Eta gainera ares-tian aipaturiko ahalmenen bat falta izanez gero edo aldrebesturik edukiz gero, nahitaezko akatsak sortzen dira gizakien adimen eta ezagumenean.

### 13. *Ergelen eta zoroen arteko aldeak.*

Azken batean, ergelen akatsa badirudi adimenaren ahalmenetan bizkortasun, aktibotasun eta higidurarik ez edukitzetik etorria dela, eta horregatik, ez dute arrazoimenik. Zoroak, ordea, badirudi beste ertzean aurkitzen direla. Izan ere, ez deritzot zoroek arrazoimena galdu dutenik; aldiz, ideia batzuk oso oker lotzen dituztelarik, egiazat hartzen dituzte eta erratu egiten dira, printzipio faltsuen gainean zuzen argudiatzen dutenak erratzen diren modu berean. Izan ere, irudimenaren indarrez beren fantasiak errealtatatzat har-tzen dituzte eta haietatik dedukzio zuzenak egiten dituzte. Horretara, ikusiko duzue bere burua erregetzat duen zoro bat, ondo-rio logikoz zor zaion zerbitzu, errespetu eta obedientzia galdatzen

dituena; beste batzuek, aldiz, kristalezkoak direla uste dute, eta konturik handienaz ibiltzen dira hain gorputz hauskorra onik ateratzeko. Horrexegatik gertatu ohi da beste gauza guztietan oso zuhurra eta adimen onekoa den gizaki bat gauza konkretu batean zoroetxean daudenak bezain fanatikoa izatea, baldin, inpresio bortitzen baten eraginez edo bere fantasia mota bateko pentsamenduen inguruan finkatu izanagatik, ideia inkoherenteak bat eginda irauteko moduko indar handiaz batzea gertatu bazaio. Baina zorotasunean, ergeltasunean bezala, maila ezberdinak daude, ideien nahasi-mahasia, batzuengan handiagoa eta beste batzuengan txikiagoa izaten delarik. Labur esanda, uste dut honexetan datzala ergelen eta zoroen arteko aldea: zoroek ideia faltsuak batzen dituzte eta, beraz, proposizio faltsuak egiten, baina zuzen argudiatzen eta arrazoitzen dute haien gainean; ergelek, ordea, proposizio oso gutxi egiten dituzte eta ia ezer ere ez dute arrazoitzen.

#### 14. *Ahalmenen azalpen honetan erabilitako metodoa.*

Hauexek direla uste dut gogamenaren lehen ahalmen eta eragiketak, honek adimenean erabiltzen dituenak; eta bere ideia guztietan oro har erabiltzen dituen arren, orain arte eman ditudan adibideak batez ere ideia bakunenak izan dira. Eta gogamenaren ahalmenon azalpena ideia bakunenari batu baldin badiot, ideia konplexuei buruz esan beharrekoa esan aurretik, arrazoi hauexegatik izan da:

Lehenik, ahalmenotako batzuk hasieran batez ere ideia bakunei buruz erabiltzen direnez gero, guk, naturari bere ohiko metodoan jarraituz, ideion lorratzeti segi eta euren sorrera, aurreramendu eta mailaz mailako garapenean deskubri ditzakegu.

Bigarrenik, gogamenaren ahalmenek ideia bakunei buruz nola lan egiten duten ikusiz —bakunak normalean gizakirik gehienek gogamenean konplexuak baino asko argiago, zehatzago eta bereiziago egon ohi direlarik—, hobeto azter eta ikas dezakegu gogamenak konplexuak eta gu errakuntzara errazago eramateko modukoak diren ideiak nola laburtzen, izendatzen, alderatzen dituen eta haiei buruz nola diharduen.

Hirugarrenik, sentipenetatik harturiko ideiekin gogamenak egindako eragiketak eurak, euri buruz gogoeta egiten denean, nik hausnarketa deitzen diodan gure beste ezagutza iturri horretatik eto-

rritako beste ideia saila da eta, horregatik, egoki dirudi horiek hemen aztertzea, sentipenaren ideia bakunen ondoren. Alderaketa, konposaketa, abstraitze eta abarrak aipatu besterik ez ditut egin, beste leku batean izanen baitut parada horiez luze hitz egiteko.

#### 15. *Giza ezagutzaren zinezko hasiera.*

Era honetan, *giza ezagutzaren lehen hasieraren historia* labur eta, nik uste, zinezkoa eman dut; horregatik, jakin dezakegu nondik eskuratzen dituen gogamenak bere lehen objektuak eta zein pauso eginda heltzen den ahal duen ezagutza guztia egituratzeko behar dituen ideiak bereganatu eta metatzera. Honetan, esperientziara eta behaketara jo behar dut zuzen nabilen ala ez egiaztatzeko, zeren egia-  
ra iristeko biderik onena gauzak errealitatean diren moduan aztertzea baita, eta ez geuk iruditzen ditugun modukoak edo besteez iruditzen irakatsi diguten bezalakoak direla konkluditzea.

#### 16. *Esperientziara jo.*

Egia esateko, horixe da bide bakarra *gauzen ideiak* adimenara nola heltzen diren deskubritzeko. Beste batzuek sortzetiko ideiak edo isuritako printzipioak badituzte, badute arrazoirik beraiez gozatzeko; eta horiez seguru badaude, inork ere ezinen die beren inguruko guztien gainetik duten pribilegioa ukatu. Nik neure baitan aurkitzen dudana eta, gizakien abio guztia haien aro, herrialde eta heziera ezberdinetan aztertuz gero, nik ezarri ditudan eta metodo honekin bere zati eta maila guztietan bat datozen oinarrien menpe daudela diruditen nozio horietara doitzen denaz hitz egin dezaket soilik.

#### 17. *Gela iluna.*

Ni ez nabil irakasten, arakatzen baizik; eta horregatik aitortu beharra dut berriro hemen kanpo eta barne sentipenak direla ezagutza adimenara pasatzeko nik aurki ditzakedan pasabide bakarrak. Horiexek dira, nik deskubritu nezakeeneino, argiak *gela ilun* horretara sartzeko dituen leihoak. Zeren nik uste baitut adimena argirik gabeko gelatxo baten antzekoa dela edo ez dagoela hortik urrun, zirrikitu txiki batzuk dituelarik kanpoko agerpen ikusgarriak edo gauzen ideiak sartu ahal izateko; gela ilun horretara etorritako irudiak bertan geratuko balira eta behar direnean aurkitzeko moduan ordenaturik finkatuko balira, gela hau giza adimenaren oso antzekoa litzateke, ikusmenaren objektuei eta euron ideiei dagokienez.

Horiexek dira, nik antzematen diedanez, adimenak ideia bakanak, euron moduak eta haiei buruzko beste eragiketa batzuk edukitzeko eta atxikitzeko dituen bitartekoak.

Orain ideia bakunotako batzuk eta euron moduak zehaztxoago aztertzeari ekinen diot.



## XII. KAPITULUA

### Ideia konplexuez

#### 1. *Gogamenak ideia bakunez eginak dira.*

Orain arte gogamena pasibo izanik hartzen diren ideiez ari izan gara, eta ideioek gorago aipaturiko sentipen eta hausnarketa bidez harturiko ideia bakunak dira, gogamenak berez ezin dituenak sortu, ezta beraiez osatu gabeko ideiarik eduki ere. Baina gogamena bere ideia bakun guztiak hartzean erabat pasiboa denez gero, ideia bakunak gainerakoen material eta oinarri moduan erabiliz besteak eratzeko zenbait egintza bere kabuz burutzen ditu. Gogamenak ideia bakunen gain duen ahalmena erabiliz burutzen dituen egintzak hiru dira nagusiki: 1) Zenbait ideia bakun konposatu batean konbinatzea; eta horrexetara egiten ditu *ideia konplexu* guztiak. 2) Ideia bi, bakunak edo konplexuak, ekarri eta bata bestearen ondoan jartzea, biak batera bistan edukitzeko moduan, biekini bat egin gabe; horrexetara erdiesten ditu gogamenak erlazio ideia guztiak. 3) Hirugarren egintza ideiak existentzia errealean lagun dituzten ideia guztietatik banantzea da; honi abstrakzioa deritza, eta horrelaxe egiten dira *ideia orokor* guztiak. Honek gizakiaren ahalmena eta jarduteko erak erakusten ditu, berdintsuak direnak mundu materialean eta intelektualean. Izan ere, kasu biotan, gizakiak ez du materialen gain ahalmenik berauek egin edo suntsitzeko, egin dezakeen guztia materialok batu, bata bestaren ondoan ipini edo zeharo banandu delarik. Eurotako lehenengoarekin hasiko naiz hemen, ideia konplexuak aztertzen alegia, eta beste biez dagokien

tokian ariko naiz. Ideia bakunak konbinazio diferenteetan baturik daudela ikusten den moduan, halaxe gogamenak haietako zenbait ideia bakar bezala batuta kontsideratzeko ahalmena du; eta hau ez bakarrik kanpoko objektuetan baturik daudenean, baizik berak batu dituen ere bai. Horrela, zenbait ideia bakunez eraturiko ideiei *ideia konplexuak* deitzen diet; horrelakoak dira: edertasuna, esker ona, gizakia, armada, unibertsoa. Eta zenbait ideia bakunez edo beste bakun batzuek eraturiko ideia konplexuek osatuak diren arren, gogamenak, hala nahi duenean, bakoitza bere baitan, gauza oso bakar bat bailitzan, hartzen du eta izen bakar batez adierazten.

## 2. *Nahita egiten dira.*

Bere ideiak errepikatu eta batzeko gaitasun honetan, gogamenak bere pentsamenduen objektuak aldatu eta biderkatzeko ahalmen handia du, sentipenak edo hausnarketak ematen diona baino amaigabeki harago jo ahal duelarik; baina hau guztia gogamenak iturri bi horietatik hartzen dituen eta konposaketa guztietarako azken material dituen ideia bakunen mugetan geratzen da oraindik. Zeren ideia bakunak gauzetatik eurentatik etorritakoak dira, eta mota horretakoak gogamenak *ezin ditu ukan* iradokitzen zaizkionak baino gehiagorik, ezta bestelakorik ere. Ezin du ukan kanpotik koalitate sentigarrien bidez datozkion ideiak besterik, ezta bere baitan aurkitzen dituenetatik diferentea den ezein substantzia pentsatzaileraren bestelako eragiketen ideiarik ere. Baina, behin gogamenak ideia horiek ukanez gero, ez da mugatzen haien eta kanpotik eskaintzen zaionaren behaketa hutsera; dauzkan ideiak, bere ahalmenaren indarrez, bat ditzake eta beste batzuk, konplexuak, horrela baturik hartu ez dituenak, era ditzake.

## 3. *Idea konplexuak edo moduak dira, edo substantziak, edo erlazioak.*

Idea konplexuak, era batera zein bestera konposatuak edo deskonposatuak izan, kopuruz infinituak izan arren eta gizakien pentsamenduak amaigabeko aniztasunaz bete eta lanean ipini arren, nire ustez guztiak hiru mota hauexetara bil daitezke:

### 1. MODUAK

### 2. SUBSTANTZIAK

### 3. ERLAZIOAK



#### 4. *Moduen ideiak.*

Lehenik, *moduak* honako hauei deitzen diet, alegia, konplexuak izan arren berenez dirauten suposiziorik euren baitan eraman gabe, substantzien menpekotzat edo haien aldaketatzat hartzen diren ideia konplexuei; horrelakoxeak dira, adibidez, triangelu, esker on edo hilketa eta horrelako hitzek adierazten dituzten ideiak. Eta kasu honetan modu hitza normalean duen adieratik pixka bat diferentean badarabilt, barkamena eskatzen dut, baina arrunki harturiko nozioetatik apartatzen diren diskurtsoetan nahitaezko izaten da hitz berriak asmatzea edo lehengoak adiera berri samarrez erabiltzea; gure kasuan bigarrena da agian onargarriena.

#### 5. *Idea bakunen modu mistoak eta bakunak.*

Bi *modu* mota daude, trataera ezberdina eskatzen dutenak:

Lehenengo, batzuk ideia bakun beraren bariazio edo konbinazio ezberdinak dira, beste ideiarik nahasten ez zaielarik, hala nola dozena edo hogeikoa, beste hainbat unitateren batuketa besterik ez direnak, eta hauei *modu bakunak* deitzen diet nik, ideia bakun bakar baten muga barruan daudelako.

Bigarren, beste batzuk mota ezberdineko ideia bakunez konposatuak dira eta ideia konplexu bakar bat egiten dute; adibidez, edertasuna, kolore eta irudiaren konbinazio jakin batean datzana eta ikuslearen plazerra eragiten duena; lapurreta, zerbaiten jabetzan jabearen nahiaren kontra gertatzen den aldaketa bat delarik, barruan, bistakoa denez, mota askotako ideia ezberdinen konbinazioa dauka; eta hauei *modu mistoak* deitzen diet.

#### 6. *Banako edo taldeko substantzien ideiak.*

Bigarrenik, *substantzien* ideiak berenez dirauten gauza *partikular* bereziak irudikatzeko hartzen diren ideia bakunen konbinazioak dira, eta ideia horien artean substantziaren ideia suposatu edo nahasia da beti, berez zeinahi delarik ere, lehen eta nagusia. Horretara, substantziari batuz gero kolore zuriska iluna eta pisu, gogortasun, harikortasun eta fundigarritasun-maila jakin bat duen zerbaiten ideia bakuna, berunaren ideia daukagu; eta irudi jakin baten eta higitu, pentsatu eta arrazoitzeko ahalmenen ideien konbinazioa substantziarekin elkartzeak gizakiaren ohiko ideia eratzen du. Orain, substantzienak ere bi motatako ideiak daude: mota batekoak *banako* substantzien, bereiz existitzen direnen ideiak dira, hala nola gizaki batena edo ardi

batena; beste motakoak, horietako asko elkartu eta egiten duten *talde-aren* ideiak dira, adibidez gizakiek osaturiko armada, edo artaldea; zenbait substantzia horrela elkartuta osaturiko ideia kolektiboak ere bakoitza ideia bakar dira gizonaren edo unitatearen banako ideiak diren bezalaxe.

#### 7. *Erlazio ideiak.*

Hirugarrenik, ideia konplexuen azken mota *erlazioa* deitzen dioguna da, ideia bat bestearekin hartu eta alderatzean datzana.

Mota ezberdin horiez euren ordenan tratatuko dugu.

#### 8. *Ukanditakegunideiarikabstrusuenakbiiturritiksortendira*

Gure gogamenetako aurrerapausoak aztertu eta arretaz ikusten badugu nola errepikatu, erantsi eta elkartzen dituen sentipen edo hausnarketa bidez harturiko ideiak, agian hasieran pentsaturikoa baino harago joan beharrean aurkituko gara. Eta geure nozioen jatorria kontuz aztertzen badugu, uste dut aurkitu ahal izanen dugula *ideiarik abstrusuenak* ere, are sentimenetatik edo gure gogamenaren edozein eragiketarik itxuraz urrunen daudenak ere, adimenak objektuetatik sentimenen bidez edo ideia horien inguruko bere eragiketen bidez harturiko ideiak errepikatu eta elkartuz beretzat eratzen dituen ideiak besterik ez direla. Horretara, ideia zabalen eta abstraktuenak ere sentipen edo hausnarketatik etorriak dira, zeren, izan ere, gogamenak, bere ahalmenen ohiko erabileraren bidez sentimenen objektuetatik edo hauei buruz bere baitan oharrematen dituen eragiketetatik harturiko ideien inguruan jardunez, lor lezakeena eta lortzen duena besterik ez baitira.

Horixe frogatzen ahaleginduko naiz espazio, denbora eta infinitutasunari eta iturburu horietatik urrunduenak diruditen beste gauza gutxi batzuei buruz.

### XIII. KAPITULUA

## Modu bakunen ideia konplexuez, eta, lehenik, espazioaren ideia- ren modu bakunez

#### 1. *Idea bakunen modu bakunak.*

Aurreragoko partean ideia bakunak, gure ezagutzaren zinezko materialak direnak, maiz aipatu ditudan arren, hala ere, han, beste konplexuagoetatik diferenteak direnez baino gehiago gogamenera nola heltzen diren kontuan hartuta aztertu ditudanez, agian ez da gaizki etorriko haietako batzuk berriro alde hartatik begiratu eta ideia *beraren* aldaera ezberdin horiek aztertzea, gogamenak ideia hori edo existitzen diren gauzetan aurkitzen duelarik edo bere baitan sortzeko gai delarik kanpoko ezein objekturen edo ezein iradokizun arrotzen laguntzarik gabe.

*Edozein* ideia bakunen aldaera hauek (esan den bezala, *modu bakunak* deitzen diedanak) gogamenean distantzia edo kontrakotasunik handiena erakusten dutenak bezain ideia ezberdin eta bereiziak dira. Izan ere, biren ideia batenetik, urdinarena beroarenetik edo bata eta bestea kopuruarenetik bezain bereizia da; eta, hala ere, hura unitate errepikatuaren ideia bakunaz egindakoa da; eta horrelako errepikapenak elkartuz gero, modu bakun ezberdinak egiten dira, hala nola dozena baten, hamabi dozenaren edo milioi baten modu bakunak.

#### 2. *Espazioaren ideia.*

Espazioaren ideia bakunarekin hasiko naiz. Esan dut gorago, 4. kapituluan, espazioaren ideia ikusmen eta ukimenaz hartzen dugula;

uste dut hau begi-bistakoa dela eta gizakiek kolore diferenteko gorputz biren artean edo gorputz beraren atal ezberdinen artean dagoen distantzia ikusiz hautematen dutela frogatzen saiatzea hain absurdua litzatekeela, nola gizakiek zer eta koloreak ikusten dituztela frogatzen saiatzea; eta ez da frogatu beharrekoagoa ilunetan gauza bera egin dezaketela haztatuz eta ukimenaz.

### 3. *Espazioa eta hedadura.*

Bi gorputz banatzen dituen luzeraren arabera soilik, beraien arteko beste ezer aintzat hartu gabe, kontsideratzen den espazioari *distantzia* deritza; luzera, zabalera eta sakoneraren arabera kontsideratuz, uste dut *edukiera* deritzakeela. *Hedadura* hitza nolanahi kontsideraturiko espazioari aplikatu ohi zaio.

### 4. *Mugaga betasuna.*

Distantzia ezberdin bakoitza espazioaren aldaera diferente bat da; eta distantzia ezberdin baten edo espazio baten ideia bakoitza ideia honen *modu bakun* bat da. Gizakiek, neurketaren erabilera eta ohitura-gatik, onarturiko zenbait luzeraren ideiak finkatu dituzte beren gogamenetan, hala nola habzetearena, oinbetearena, yardarena, brazarena, milarena, lurraren diametroarena, etab., espazioari buruz soilik egindako beste hainbeste ideia bereizi direnak. Ezarritako luzerotako edo espazio-neurriotako batzuk gizakien pentsamenduetan ohiko bihurtzen direnean, nahi adina aldiz sor ditzakete beren gogamenetan, gorputz ideia edo beste ezeren ideiarik haiei nahasi edo elkartu beharrik gabe; eta, horretara, beren kabuz eratzen dituzte oinbete, yarda edo braza luze, karratu edo kubikoen ideiak hemen unibertso gorputzetan edo gorputz guztien mugetatik harago erabiltzeko; eta, horretara, ideia horiek bata besteari gehituz, espazioaren ideiak nahi adina luzatzen dituzte. Distantzia batez dugun ideia errepikatu eta bikoizteko eta, gertzerik edo pausaldirik egiterik inoiz izan gabe, nahi adina aldiz lehen-goari gehitzeko ahalmena da mugagabetasunaren ideia ematen diguna.

### 5. *Irudia.*

Idea honen beste aldaera bat dago, hedaduraren amaierako parteak edo espazio zirkunskribatuarenak beren artean duten erlazioa baino ez dena. Hau ukimenak deskubritzen du ertzak gure eskueran dituzten gorputz sentigarrietan, eta begiak atzematen du mugak bere ikusterrean dituzten gorputz eta koloreetan; horregatik, ertzak nola

bukatzen diren erreparatuz, hau da, edo angelu bereizgarrietan bat egiten duten lerro zuzenetan, edo angelurik hauteman ezin dakiekeen lerro kurboetan, eta batzuek besteekin dituzten erlazioak aintzat hartuz edozein gorputz edo espazioaren ertzen parte guztietan, *irudi* deritzan ideia hori, gogamenean amaigabeko barietatez agertzen dena, edukitzera heltzen gara. Ukan ere, gogamenak, materi masa koherenteetan egiazki existitzen diren irudi oso ugariez gain, espazioaren ideia aldatuz eta bere ideien errepikapenaren eta nahi bezala egindako haien elkarketaren bidez eratzen dituen konposaketa berriak aintzat hartuta, irudi-meta erabat agortezina dauka bere ahalean. Eta, horretara, gogamenak *in infinitum* ugal ditzake irudiak.

#### 6. Irudien barietate amaigabea.

Izan ere, gogamenak norabide zuzenean hedaturiko edozein lerroren luzera errepikatzeke eta norabide berean doan beste bati elkartzeke ahalmena duenez, hori lerro zuzen horren luzera bikoiztea delarik, edo lerro hau beste bati egoki deritzon makurduran elkartu eta, horrela, nahi duen moduko angelua egiteko ahalmena duenez, eta imajinatzen duen edozein lerro laburtzeko ere gai denez gero, lerro horri erdia, laurena edo nahi duen zatia kenduz, zatiketa horiek bukatzera sekula heldu gabe, edozein neurritako angelua egin dezake. Era berean, angeluaren aldeak izanzen diren lerroak nahi duen luzerakoak egin eta berriro luzera ezberdineko beste lerro batzuei eta angelu diferenteetan edozein espazio erabat itxi arte elkar ditzakeenez, begi-bistakoa da irudiak bai taiukeran eta bai edukieran *in infinitum* ugal litzakeela; eta hauek guztiak espazioaren beste hainbeste modu ezberdin baino ez dira.

Lerro zuzenekin egin daitekeen gauza bera egin daiteke lerro kurboekin edo lerro kurbo eta zuzenak elkartuta osaturikoekin ere; eta lerroetako bera egin daiteke azaleretan ere; eta, hori aintzat hartuta, argiago ikus dezakegu zenbaterainoko ahalmena duen gogamenak irudi barietate amaigabea egiteko eta, beraz, espazioaren modu bakanak ugaltzeko.

#### 7. Lekua.

Hemen ondo datorren eta talde honetakoa den beste ideia bat, *lekua* deritzana da. Espazio soilean gorputz biren edo puntu biren arteko distantzi erlazioa kontuan hartzen dugun moduan, lekuaz dugun ideian gauza baten eta puntu bi edo gehiagoren artean dagoen

distantzi erlazioa kontsideratzen dugu, euren artean distantzia bera dutela eta geldirik daudela joz. Izan ere, egiaztatzen dugunean zerbait beste puntu bi edo gehiagorekiko atzo zegoen distantzia berera dagoela orain, eta berauen artean zegoen distantzia ez dela ordutik aldatu, eta distantzia hau puntu horiekin alderatzen dugunean, orduan esaten dugu gauza horrek leku berean iraun duela; baina puntu horietako baten batekiko distantzia nabariki aldatu bada, lekuz aldatu dela esaten dugu; nahiz eta, herri hizkera arruntean eta lekuaren nozio arruntaren arabera, guk ez dugun beti zehazki ohartematen puntu horietatik dagoen distantzia, baizik gure ustez lekuan dagoen gauzarekin erlazioa duten eta arrazoiren bategatik gauzara duten distantzia ikusten diegun objektu sentigarrien zati handiagoetatik dagoena.

#### 8. *Lekua gorputz partikularrekiko erlatiboa da*

Horrela, xake taulan pieza guztiak, geuk utzitako laukietan aurkitzen ditugunean, esan ohi dugu leku *berean* daudela denak, edo higitu gabe daudela, nahiz eta agian atsedenalduan xake taula gela batetik bestera eraman; eta hau, piezak taulako laukitxoekin, euren artean distantzia bera dutenekin, soilik alderatzen ditugulako. Orobat, esan ohi dugu xake taula lehen zegoen leku berean dagoela, itsasuntziko gelan leku berean dagoenean, untxiak aldi guztian itsasoan aurrera egin badu ere. Eta itsasuntzia ere leku berean dagoela esaten da, inguruko kostaldeko puntuekiko distantzia berean dirauen bitartean, lurra agian bira egin duen arren, eta horrela piezak, taula eta itsasuntzia, hirurak, lekuz aldatu diren arren urrunago dauden eta euren artean distantzia berean iraun duten gorputzekiko. Baina, piezen lekua taulako zenbait laukitxotatik dagoen distantziak erabakitzen duenez, eta xake taularen lekua gelako parte finkoetatik (berauekiko egin genuen, egin ere, erkaketa) dagoen distantziak erabakitzen duenez, eta lurraren parte finkoetatik dagoenak itsasuntziaren lekua, esan daiteke gauza horiek leku berean daudela, nahiz eta, une honetan aintzat hartzen ez diren beste gauza batzuekiko distantzia aldatu denez gero, haiek ere, dudarik gabe, lekuz aldatu diren zentzu horretan; eta guk geuk ere horrelaxe pentsatuko dugu, beste gauza horiekin alderatzeko parada izatean.

#### 9. *Lekua unean uneko xedearekiko erlatiboa da.*

Baina lekua deritzan distantziaren aldaera hau gizakiek beren erabilerarako, hau da, gauzen posizio konkretua esan beharra dutene-

an esan ahal izateko egina denez, leku hori beren orduko xedeetarako gehien balio dieten alboko gauzak kontuan hartu eta zehazten dute, beste xede baterako gauza beraren lekua hobeto zehaztuko luketen beste gauza batzuk aintzat hartu gabe. Horrela, xake taulan pieza bakoitzaren lekua baliagarriro izendatzea, lekua egurrezko taula horrexen barruan zehaztuz egin behar da eta beste edozein gauzaren bidez hori zehaztea xede honetatik kanpo irtetea litzateke; baina pieza berak poltsa batean sartuta daudenean, norbaitek errege beltza non dagoen galdetuz gero, haren lekua bera dagoen tokiko atalen arabera zehaztea litzateke, eta ez taulako laukien arabera; izan ere, kasu honetan dagoen lekua izendatzearen baliagarritasuna jokoan zebiltzala taulan zeukana izendatzearenetik ezberdina baita, eta beste gorputz batzuen bidez zehaztu beharrekoa. Horrela, nork edo nork Niso eta Eurialoren historia kontatzen duten bertsoak non dauden galdetuz gero, desgokia litzateke leku hori zehazteko lurreko hain lekutan, edo Bodley-ren Bibliotekan daudela esatea, egokia Virgilioren obraren barruan zein tokitan dauden esatea bailitzateke; eta erantzun zehatzaz haren *Eneidako* bederatzigarren liburuaren erdi aldera daudela eta leku berean egon direla beti Virgiliok idatzi zituenetik; eta hau egia da, liburua bera batetik bestera mila bider ibilitakoa izan arren, lekua- ren ideiarene baliagarritasuna liburuaren zein aldetan dagoen jakitea baita, horretara, behar dugunean, non dagoen jakiteko eta bertara joaz erabili ahal izateko.

#### 10. *Unibertsoaren lekua.*

Lekuaz dugun ideia arestian aipatu dudan posizio erlatiboa besterik ez dela gauza nabaria da nire ustez, eta aise onartuko da hau aintzat hartzen dugunean unibertsoaren lekuaren ideiarik ezin ukan dugula, haren parte guztiena ukan ahal izan arren; unibertsoa baino harago, ukan ere, ez dugu ezein izaki finko, bereizi eta partikularren ideiarik, unibertsoak harekiko distantzi erlazioren bat daukala imajinatzeko ahalbiderik eskaintzen digunik; harago dagoen guztia, aitzitik, espazio edo hedaera uniforme bat besterik ez da, gogamenak barietaterik ez markarik aurkitu ezin diona. Izan ere, mundua non edo non dagoela esatea, existitzen dela esatea baino gehiago ez da, zeren esakune honek, leku zentzuan esandakoa bada ere, haren existentzia besterik ez baitu esan nahi, eta inola ere ez haren kokaera; eta baten bat unibertsoaren lekua argi eta bereizi aurkitu eta gogamenean irudi-

tzeko gai izaten denean, esan ahal izanen digu unibertsoak higitzen diharduen ala geldi dirauen espazio infinituaren huts bereiztezinean; hala ere, egia da leku hitzak batzuetan esangura nahasiagoa duela eta edozein gorputzek betetzen duen espazioa esan nahi duela; eta, zentzu horretan, unibertsoa leku batean dago.

Daukagun lekuaren ideia, beraz, espazioaren ideia lortzen dugun bitarteko berberez geuganatzen dugu (nahiz eta berau kontsiderazio partikularragoez mugatuagoa den), hau da, geure ikusmen eta ukimenez; bion bitartez hartzen ditugu geure gogamenean hedadura eta distantziaren ideiak.

### 11. *Hedadura eta gorputza ez dira gauza bera.*

Badira batzuk gorputza eta hedadura gauza bi direla sinestarazi nahi digutenak; eta horiek edo hitzen esangura aldatzen dute, berorietaz horrelako susmorik egin nahi ez nukeen arren, zeren besteen filosofia, zentzu ziurgabeen edo zenbait berba dudazko edo esanahi gabe-koren iluntasun engainagarrian oinarritua delako zorrozki gaitzesten baitute, edo bestela, baldin gorputz eta hedadura berberei beste batzuek ematen dieten esanahi bera ematen badiete, hau da, «*gorputza*», solidoa eta hedatua dena, atal banagarri eta era ezberdinetan higigarriak dituen, eta «*hedadura*», atal koherente eta solido horien ertzen artean dagoen espazioa, atalok betetzen dutena, orduan ideia oso ezberdinak bata bestearekin nahasten dituzte. Azter beza, bestela, bakoitzak bere pentsamendua eta ikus ea espazioaren ideia ez den solidotasunaren ideiatik gorriminaren ideiatik bezain bereizia. Egia da solidotasuna ezin dela hedadurarik gabe existitu. Kolore gorrimina ere existitu ezin den moduan, baina hori ez da eragozpen ideia bereiziak izan daitezen. Ideia batzuek beste batzuen premia dute existi daitezen edo burura ditzagun, baina oso ideia diferenteak dira. Higidura ezin da ez izan ez bururatua izan espaziorik gabe; eta, hala ere, higidura ez da espazio, ezta espazioa higidura ere; higidura hura gabe existi daiteke, eta ideia oso ezberdinak dira, espazioarena eta solidotasunarena ere, nire ustez, diren moduan. Solidotasuna hain banaezina da gorputzaren ideiatik, non harexen menpe dagoen gorputz horrek espazio bat betetzea, beste gorputz batekin kontaktuan egotea, hari bulkada ematea eta bulkada horren arabera higidura komunikatzea. Eta arrazoi honek, pentsamenduak ez daukalako bere baitan hedaduraren ideia, espiritua gorputzetik diferentea dela frogatzeko balio baldin badu, arrazoi berak era berean



balio beharko du, nik uste, espazioa gorputza ez dela frogatzeko, ez daukalako, hain zuzen, bere baitan solidotasunaren ideia; *espazioa* eta *solidotasuna* pentsamendua eta *hedadura* bezain ideia bereiziak eta gogamenean era berean guztiz banagarriak dira. Begi-bistakoa da, beraz, gorputza eta hedadura bi ideia bereizi direna. Zeren, izan ere:

12. *Hedadura ez da solidotasuna.*

Lehenik, hedadurak ez du solidotasuna barne hartzen, ezta gorputz baten higidurari erresistentzia ere, gorputzak, ordea, egiten dituen moduan.

13. *Espazioaren atalak ezin bananduzkoak, bai errealki eta bai mentalki.*

Bigarrenik, espazio hutsaren atalak ezin bananduzkoak dira bata bestetik, halatan non jarraikitasuna banantzerik ez dagoen, ez errealki ez mentalki. Zeren, ikusi nahi nuke nola aldentzen duen norbaitek zati bat haren segidako beste zati batetik, pentsamenduan izan da ere. Errealki banatu eta bereiztea, nire ikusiz, zati bat bestetik banatuz lehen jarraikitasun bat zegoen tokian bi azalera egitea da; eta mentalki banatzea, gogamenean bi azalera egitea da, lehen jarraikitasun bat zegoen tokian, eta bata bestetik aldendurik kontsideratzea; eta hau gogamenak bereizgarritzat eta bereizketaren bidez azalera ezberdin berriak, une horretan ez dituztenak baina eduki ditzaketenak, hartzeko gaitzat dituen gauzetan soilik egin daiteke. Baina banatzeko era hauetako bata ere, ez errela ez mentala, ez da, nire ustez, espazio hutsarekin bateragarria.

Egia da batek oin bati dagokion edo oin batez neurturiko espazio zati bat har dezakeela kontuan, gainerakoa aintzat hartu gabe; eta hau bada, izan, kontsiderazio partzial bat, baina ez bereizketa edo banaketa mentala, zeren gizakiak bi azalera bata bestetik banatuta kontsideratu gabe ezin baitu mentalki banatu, bi azalera bata bestetik bereizi gabe egiazki bana litzakeen baino hobeto, kontsiderazio partziala banaketa ez delako. Gizaki batek kontsidera dezake eguzkiaren argia haren berotasuna kontuan hartu gabe, edo gorputz baten higidura haren hedadura kontuan hartu gabe, eta haien bereizketan pentsatu gabe egin dezake hori. Bata, gogoeta partzial bat besterik ez da, zati bakarrean geratzen dena; eta bestea zati bien kontsiderazioa da, bereiz existitzen direnez.

14. *Espazioaren zatiak higiezinak dira.*

Hirugarrenik, espazio hutsaren zatiak higiezinak dira, eta hau bereizteztasunaren ondorio da, higidura ez baita, izan ere, gauza biren arteko distantziaren aldaketa besterik; baina hau ezin da gertatu bereiztezinak diren zatietan, hauek elkarren artean beti atsedenean egon behar dutelarik.

Era horretan, espazio bakunaren ideia zehatza argi eta behar bezainbatean bereizten da gorputzarenetik, haren zatiak ezin bananduzkoak, higiezinak eta gorputzaren higidurari erresistentziarik gabe-koak direlako.

15. *Hedaduraren definizioak ez du hura esplikatzen.*

Norbaitek galdetzen badit *zer den* mintzagai darabildan espazioa, erantzuteko prest nagoke, berak hedadura zer den esan diezadanean. Zeren esatea, esan ohi den moduan, hedadura *parte extra partes* edukitzea dela, hedadura hedadura dela esatea adina da. Izan ere, zer nolako informazioa ematen zait hedaduraren izaeraz esaten zaidanean hedadura atal hedatuetatik kanpo dauden atal hedatuak edukitzea dela, hau da, hedadura kanpo-ko ataletan datzala? Neuk zuntza zer den galdezka letorkidan bati emanen niokeen informazio bera, nonbait, baldin zenbait zuntzez egindako gauza bat dela erantzunen banio. Zuntza zer den lehen baino hobeto ulertzeko gai ote litzateke? Edo agian ez ote luke arrazoirik pentsatzeko, serioски argibideak ematen barik, adarra jo nahian nenbilkiola pentsatzeko.

16. *Izakiak bitarikoak, gorputz eta espirituak, izateak ez du frogatzen espazioa eta gorputza gauza bera direnik.*

Espazioa eta gorputza gauza bera dela diotenek honako dilema hauxe planteatzen dute: edo espazio hau zerbait da edo ez da ezer; gorputz biren artean ezer ez bada, orduan nahitaez elkar ukitu behar dute; eta zerbait dela esaten bada, haiek gorputza hala espiritua den galdetzen dute. Nik honi beste galdera batez erantzuten diot: nork esan zien hauei *pentsatzerik ez duten izaki solidoak eta hedatuak ez diren izaki pentsatzaileak* baino ez direla edo ezin izan direla? Zeren, esan ere, horixe besterik ez batiote *gorputz eta espiritu* terminoez.

17. *Ezagutzen ez dugun substantzia ez da gorputzik gabeko espazioaren aurkako frog.*

Galdetzen bazait (galdetu ohi den moduan) ea gorputzik gabeko espazio hau *substantzia* den ala *akzidentea*, zalantzarik gabe erantzuz-

nen dut ez dakidala; eta ez naiz neure ezjakintez lotsatuko, galdegileek substantziaren ideia argi eta bereizia azaltzen ez didaten bitartean.

#### 18. *Substantziaren esanahi diferenteak.*

Berbak gauzatzen hartuz geure burua engainatu nahian geuganetzen ditugun falazia horietatik libratzeko eginahalak dagitza. Gure ezjakintasunari inolako laguntzarik ez damaio inondik ere ez daukagun ezagutza simulatzea, soinuez esanahi argi eta bereizirik gabeko zaratak sortuz. Nahierara egindako izenek ez dute aldatzen gauzen izaera, ezta guri haiek ulertzen lagundu ere, zerbaiten zeinuak eta ideia zehatzen ordezeko diren heinean. Eta gustatuko litzaidake *substantzia* hitzaren silabak ahoskatzen hainbesteko indarra jartzen dutenek konturatzea hura Jainko infinitu eta ulergaitzari, espiritu finituei eta gorputzari aplikatzean, aplikatzen dieten bezala, ea zentzu beraz egiten duten eta gauza bera esan nahi duten hiru izaki ezberdin horiei substantzia deitzen dietenean. Horrela bada, hortik ondorioz atera beharko da Jainkoa, espirituak eta gorputza, substantziaren izaera berean parte hartzen dutelarik, substantzia horren *aldaeretan* bakarrik bereizten direla elkarrengandik, zuhaitza eta harkoxkorra bezalaxe, hauek ere gorputzak izanik zentzu berean eta gorputzaren izaera berean parte harturik, materia komun horren aldaera huts batean bereizten baitira, hau doktrina oso latza litzatekeelarik. Eta Jainkoari, espirituei eta materiari hiru esangurarekin aplikatzen dizkietela baldin badiote, eta Jainkoa substantzia dela diotenean gauza bat esan nahi badute, arimari substantzia deitzen diotenean beste bat eta berba hau gorputzari aplikatzen zaionean beste bat, eta, beraz, substantzia hitzak hiru ideia bereizi ordezkatzeko baldin baditu, orduan hiru ideia ezberdinok ezagutzera eman behar litzukete, edo ideioi hiru izen ezberdin eman behintzat, horrelako nozio garrantzitsu batean hain dudazko berba baten askotariko erabileratik sorturiko nahasmendua eta errakuntzak ekiditeko, termino honetaz inola ere ez baita susmatzen hiru esanahi ezberdin izan ditzakeenik, halatan non erabilerara arruntean ez daukan esangura argi bakar bat ere. Eta, era horretan, haiek hiru ideia ezberdin egin baditzakete, zerk eragotz lezake beste batek laugarrena egitea?

#### 19. *Substantzia eta akzidenteak baliagarritasun urrikoak dira filosofian.*

Akzidenteen nozioa zerbaiti atxikita egon beharreko izaki errealtzat lehenbizikoz hartzen hasi zirenek derrigor asmatu behar izan

zuten *substantzia* hitza akzidenteen euskarri izateko. Eta indiar filosofo gizaxoari (lurrak ere euskarri bat behar duela uste zuenari) otu balitzaio *substantzia* berban pentsatzea, ez zukeen lurrari eusteko elefantea ez elefante honi eusteko dortoka aurkitzeko lana hartu beharrik; *substantzia* berbak egin zukeen hori guztia, ondo asko egin ere. Eta hari galdetuko liokeen oro, hain konforme gelditu beharko litzateke lurrari eusten diona *substantzia* dela esanez filosofoak emandako erantzunarekin (nahiz eta berak jakin ez *substantzia* zer den), nola gu konforme gelditzen garen europar filosofoen erantzunekin eta doktrinekin *substantzia* dela baieztatzen dutenean, eurak zer den jakin ez arren, akzidenteei eusten diena. Era horretan, *substantzia* zer den ideiarik ere ez daukagu eta hark egiten duenari buruz ideia nahasi eta ilun bat besterik ez daukagu.

#### 20. *Atxikitzea eta eustea.*

Gizakume eskolatu bat konforme gera daitekeen arren, amerikar argi eta gauzen izaera ikertzeko gogoz dabilen bat bera ere ez litzateke pozik geratuko baldin, gure arkitektura ezagutu nahirik etorriz, esanen balitzaio zutabe bat zutoin batek eutsiriko zerbait dela eta zutoin bat zutabe bati eusten dion zerbait. Horrelako azalpena ez ote luke irakaspenzat baino gehiago trufatzat hartuko? Eta liburu kontuetan ezjakina den bati oso urrunetik irakatsiko litzaioke zer diren liburuak eta zer duten barruan, baldin esanen balitzaio zientzi liburuak paper eta letraz osatuak direla eta letrak paperera atxikitako gauzak direla eta papera letrei eusten dien gauza bat; modu ederra nonbait letren eta paperaren ideia argi azaltzeko. Baina *inherentia* eta *substantia* latinezko hitzak ingeles arruntera itzuli eta *sticking on* eta *under-propping* (atxikitzea eta eustea) direla ikusiz gero, erraz deskribituko litzateke *substantzia* eta akzidenteen doktrinan dagoen argitasun ikaragarria eta garbi geratuko litzateke nolako baliagarritasuna duten filosofiako auziak erabakitzeko.

#### 21. *Hutsa, gorputzaren azken mugetatik harago.*

Baina espazioaz daukagun ideia itzulita, gorputza infinitua dela suposatu ezean (nik uste dut inork ez duela hori suposatuko), galdetuko nuke ea Jainkoak izaki gorpuzdunen azken muturrean jarritako gizaki batek luzatu ahal izanen lukeen bere eskua bere gorputzetik harago. Hori egiterik balu, lehen gorputzik gabeko espazioa zegoen lekuan jarriko luke besoa; eta atzamarrak zabalduko balitu, haien arte-

an gorputzik gabeko espazioa legoke. Eskua luzatzerik ez balu, hori kanpoko eragozpenen batengatik litzateke nahitaez, (zeren bizirik dagoela suposatzen baitugu eta oraintxe daukan adinak gaitasuna ukanik bere gorputzatalak higitzeko, eta hau ez da ezinezko, Jainkoak halaxe nahi izanez gero, edo behintzat Jainkoarentzat ez da ezinezko gizaki hori esan bezala higitzea); eta orduan nik galdetzen dut eskua luzatzea eragozten diona substantzia ala akzidentea den, zerbait den ala deus ere ez den. Eta galdera horri erantzuteko gai direnean, gai izanen dira baita ere beren kabuz garbitzeko zer den distantzia batera dauden bi gorputzen artean dagoen edo egon daitekeen eta gorputza ez den eta solidotasunik ez duen hori. Bitartean, ezerk eragozten ez duenean (gorputz guztien azken mugetatik harago gertatzen den bezala) higiduran ari den gorputzak higitzen segi dezakeela dioen argudioa gutxienez hain ona da, nola den gorputz biren artean ezer ez dagoenean gorputz bi horiek nahitaez elkar ukitu beharra dutela dioena. Zeren, haien arteko espazio hutsa aski baita haien elkar ukitu beharra deusezteko; baina espazio hutsa bidean ez da nahikoa higidura geratzeko. Gizaki hauek, egiatan, edo onartu beharra dute gorputza infinitua dela uste dutela, gustuko ez duten arren hori adieraztea, edo espazioa ez dela gorputza baieztatu behar dute. Izan ere, gustatuko litzaidake gizon pentsatsaile bat topatzea bere pentsamenduetan espazioari iraupenari baino muga gehiago jarri ahal izanen litzaiokeena, edo pentsamenduaren bidez bataren edo bestearen azkenera heltzeko esperantza lukeena. Eta, beraz, hark betierekotasunaz duen ideia infinitua izanez gero, halakoxea izanen da mugagabetasunaz duena ere; biak dira era berean finituak edo infinituak.

## *22. Deuseztatzeko ahalmenak hutsa dagoela frogatzen du.*

Are, materiari gabeko espazioa ezin existi daitekeela baieztatzen dutenek ukatu egin behar dute Jainkoak, gorputzak infinitu egiteko ez ezik, materiaren edozein zati deuseztatzeko ahalmena duela ere. Inork ez du ukatuko, uste dut, Jainkoak material dagoen higidura guztiari amaiera eman eta unibertsoa gorputz guztiak erabateko gelditasun eta atsedenean utz litzakeela, eta horrelaxe eduki nahi duen arte. Orduan, Jainkoak, horrelako atsedeen orokorrean, liburu hau edo berau irakurtzen ari denaren gorputza *deusezta* dezakeela onartzen duenak hutsaren ahalbidea ere nahitaez onartu beharko du, zerengiz bostakoa baita deuseztaturiko gorputzaren zatiak betetzen zuten espa-

zioa hantxe geratuko dela eta gorputz gabeko espazioa izanen dela. Izan ere, inguruko gorputzek, erabateko atsedenean egonik, diaman-  
tezko horma bat egiten dute eta erabat ezinezko bihurtzen beste ezein  
gorputzek espazio hori hartzea. Eta, gainera, materi partikula baten  
ezinbesteko higidura lehen beste materi partikula batek betetzen zuen  
espaziora, betetasuna suposatzearen ondorio besterik ez da; higidura  
honek, beraz, esperimenez inoiz egiaztatu ezinen den egitatezko  
arazo suposatu bat baino froga hobea beharko du, geure ideia argi eta  
bereiziek ere aski garbi erakusten baitigute ez dagoela nahitaezko  
loturarik espazioaren eta solidotasunaren artean, bata bestea gabe  
bururatu ahal dugu eta. Eta hutsaren alde edo kontra eztabaidan ari  
direnek hutsaren eta betetasunaren *ideia bereiziak* dituztela aitortzen  
dute, hau da, solidotasunez hutsik dagoen hedaduraren ideia dutela,  
haren *existentzia* ukatzen badute ere; eta, bestela, ezertxori buruz ez  
dira ari eztabaidan. Zeren, hitzen esanahia hedadurari gorputza dei-  
tzeraino aldatzen dutenek eta ondorioz gorputzaren esentzia osoa soli-  
dotasun gabeko hedadura bihurtzen dutenek era absurduan hitz egin  
behar dute nahitaez hutsaz mintzo direnean, ezinezkoa baita hedadura  
hedadurarik gabe existitzea. Izan ere, *hutsak*, haren existentzia baiezt-  
tzen zein ukatzen dugunean, gorputzik gabeko espazioa esan nahi  
du; eta existi daitekeela ezin uka dezake inork, materia infinitu bihur-  
tu eta Jainkoari haren edozein partikula deuseztatzeko ahalmena  
kendu nahi diotenean izan ezik.

### 23. *Higidurak hutsa frogatzen du.*

Baina hutsa aurkitzeko unibertsoan gorputzaren azken muge-  
taraino heldu gabe edo Jainkoaren ahalguztira jo gabe ere, bistan eta  
inguruan ditugun gorputzen *higidurak* ere *hutsa* nabari jartzen duela  
uste dut. Izan ere, norbaitek berak gura lukeen dimentsioetako gor-  
putz solido bat zatitzea nahi nuke, parte solidoak gora eta behera  
libreki norabide orotan azalera horren barruan higitu ahal izateko  
moduan, baldin esandako gorputz solidoa zatitzean ateratako zatirik  
txikiena adinako espazio hutsik geratzen ez bada. Eta baldin gorputz  
zatitu horren atalik txikiena mustarda-hazia bezain handia bada, mus-  
tarda-haziaren bolumen bereko espazio hutsa beharko da, gorputz  
horren atalek azaleraren mugen barruan aske ibiltzeko lekua izan  
dezaten; eta materi partikulak mustarda hazia baino ehun milioi bider  
txikiagoak badira, mustarda haziaren ehun milioirenarena bezain

handia den espazio hutsa, materia solidoz hutsik dagoena, beharko da; izan ere, hau baterako mantentzen bada, besterako ere mantendu beharko da, eta horrelaxe *in infinitum*. Eta espazio huts hau nahi bezain txikia izanda ere, betetasunaren hipotesia suntsituko da. Zeren baldin orain naturan existitzen den partikula banandu txikienaren tamainako espazio gorputzez hutsa egon badaiteke, hori ere gorputzik gabeko espazio da, eta espazioaren eta gorputzaren artean μέγα χάσμα, naturako espaziorik handiena, balitz bezalako aldea egonen da espazioaren eta gorputzaren artean. Eta, horregatik, higidurarako behar den espazioa zatituriko materia solidoaren zatirik txikienaren tamainakoa barik, haren hamarrenaren edo milarenaren tamainakoa dela suposatzen badugu ere, ondorio bera aterako da beti materiari gabeko espaziotik.

#### 24. *Espazioaren eta gorputzaren ideiak diferenteak dira.*

Baina hemen auzia espazio edo hedaduraren ideia eta gorputzaren ideia gauza bera diren ala ez jakitea delarik, *hutsaren* egiazko existentzia barik, beronen ideiarena frogatzea da beharrezko; eta argi dago gizakiek badutela ideia hau, *hutsa* baden ala ez arakutzen eta eztabaidatzen dutenean. Zeren, gorputz gabeko espazioaren ideiarik ez balute, ezinen lirатеке haren existentziaz galdezka ari; eta, gorputzaren ideiak espazioaren ideia hutsa baino ezer gehiago ez balerama barruan, ezinen lukete dudarik egin munduaren betetasunaz; eta gorputz gabeko espaziorik ote den galdetzea espazio gabeko espaziorik edo gorputz gabeko gorputzik ote den galdetzea bezain absurdua litzateke, ideia beraren izen ezberdinak besterik ez lirатеке eta.

#### 25. *Hedadura gorputzetik bereiztezina izateak ez du frogatzen biak gauza bera direnik.*

Egia da hedaduraren ideia erabat bereiztezinki elkartzen dela koalitete ikusgarri guztiekin eta ukigarri gehienekin, halatan non ezin dugun kanpoko objekturik *ikusi*, eta *sentitu* ere gutxi baino ez, hedaduraren inpresioak ere jaso gabe. Hedadurak guk beste ideiekin batera bera ere hauteman behar izateko duen erraztasun honexek ekarri du, pentsatzen dut nik, batzuek uste izatea gorputzaren esentzia guztia hedaduran datzala; eta hau ez da hain harrigarria, zeren batzuek, ikusmenaren eta ukimenaren bidez (sentimenik erabilienak berauek), hain bete-bete egin dituzte beren gogamenak hedaduraren ideiaz, eta ideia hori, nolabait esateko, hainbestaraino jabetu da beraietaz, non

hedadurarik ez duen orori existentzia ukatzen dioten. Ez dut orain argudiatuko izaki guztiei neurria eta ahalbidea beren irudimen estu eta zakarrez hartzen dizkietenen aurka; baina hemen, hedadurarik gabeko ezein gorputzen koallitate sentigarrik ezin irudi dezaketela eta, gorputzaren esentzia hedadura dela ondorioztatzen dutenekin soilik ari naizenez gero, eskatuko diet kontuan izateko ezen, baldin beren gustu eta usainen ideiez ikusmen eta ukimenarenez adina hausnarke-ta egin balute eta gose eta egarriaren eta beste oinaze batzuen ideiak aztertu izan balituzte, konturatu ziratekeela *horiek* ez daukatela beren baitan hedaduraren ideiarik, hau ez delarik gorputzaren afekzio bat besterik, beste afekzioak bezala, gauzen esentzia puruari begiratzeko behar den adinako zorrozatasuna ozta-ozta duten sentimenen bidez deskubritzen dena.

#### 26. *Gauzen esentziak.*

Ondorioztatu behar baldin bada etengabe beste ideia guztiekin elkartzten diren ideia horiek direla ideioi etengabe beraiekin elkartuta dituzten eta horietatik bereiztezinak diren gauzen esentzia, orduan batasuna da, dudarik gabe, gauza guztien esentzia. Zeren ez baitago sentipenaren edo hausnarketaren objekturik, bere baitan bataren ideia ez daramanik; baina erakutsia dugu jada behar bezainbatean horrela-ko argudioen ahultasuna.

#### 27. *Espazioaren eta solidotasunaren ideiak diferenteak dira.*

Amaitzeko, eta gizakiek *hutsaren* existentziaz zer uste duten albo batera utzita, nire ustez nabaria da espazioaren ideia argia eta solidotasunarenetik bereizia dugula, solidotasunarena higidurarenetik edo higidurarena espazioarenetik bereizia dugun bezalaxe. Ez dauka-gu bi horiek bezain bereiziak diren beste ideiarik, eta espazioa solidota-sunik gabe, gorputza edo espazioa higidurarik gabe bezain erraz burura dezakegu, nahiz eta gorputza eta higiduraren kasuan, espazio-rik gabe existi daitezkeela hain gauza ziurra ez den. Baina espazioa beste izaki batzuek distantziara existitzetik sorturiko *erlazio* hustzat hartu behar den, edo Salomon Errege jakintsuaren harako hitz haiek, «Zeruek eta zeruen zeruek ere ezin zaituzte zu hartu», edo San Paulo filosofo inspiratuaren beste haiek, «Harengan bizi eta higitzen gara, eta Harengan dugu geure izatea», zentzu literalean ulertu behar diren ala ez, bakoitzak ebazteko uzten dut; nire ustez espazioaren ideia esan dudan modukoa eta gorputzarenetik diferentea da. Izan ere, nahiz



materian bertan atal solido koherenteak kontsideratu eta beste atal solidoekiko erlazioan hedadura deitu, nahiz distantzia hori gorputz baten ertzen artean, haren dimentsio ezberdinetan, dagoen zertzat hartu eta luzera, zabalera eta lodiera deitu, nahiz gorputz edo izaki positibo biren artean dagoen zertzat hartu, bitarte horretan materiari dagoen ala ez aintzat hartu gabe, eta distantzia deitu, dena delakoa izan emandako izena edo kontsiderazioa, espazioaren ideia bakun uni-forme bera da kasu guztietan, gure sentimenak harremanean izandako objektuetatik hartua; era horretan, gogamenean zenbait ideia edukirik, ideioek nahi adina aldiz birstutu, errepikatu eta bata besteei eransteko ahalbidea daukagu eta horrela irudituriko espazioa edo distantzia nahiz atal solidoz beterikotzat har dezakegu, halatan non beste gorputz bat ezin den hara heldu, lehen zegoen gorputza handik kendu edo kanpora bota gabe, nahiz solidotasunez hutsik dagoen zertzat, halatan, non han espazio huts edo puru horren tamainako gorputz bat ipin daitekeen, bertan zegoen ezer kendu edo kanpora egotzi gabe. Baina gai honi buruzko diskurtsoetan gaizkiulertuak kentzeko, ongi legoke *hedadura* izena materiari edo gorputz konkretuen ertzen arteko distantziari bakarrik aplikatzea eta hedapen («*expansion*») terminoa espazioari oro har, daukala zein ez daukala materia solidorik barruan, espazioa espanditua eta gorputza hedatua dela esateko moduan. Baina honetan nork bere askatasuna du; nire proposamenak argi eta bereiziago hitz egin nahia beste helbururik ez du.

## 28. *Gizakiek ez dute alde handirik ideia bakun eta argietan.*

Gure hitzek zer ordezkatzan duten zehatz jakiteak, nik uste, kasu honetan ere beste askotan bezala, eztabaida bukatzea ekar lezake. Izan ere, badut halako joera bat uste izatera gizakiek, ideiak aztertzen jartzen direnean, aurkitzen dutela ideia bakun guztiak eskuarki bat datozela, eztabaidan ari direnean izen ezberdinak erabiliz elkar nahasi arren. Uste dut beren pentsamenduak abstraitzen eta beren gogamenetako ideiak zehatz aztertzen dituzten gizakiek ezin dezaketela alde handirik ukan beren pentsamenduetan, nahiz eta, hitzak medio, bata bestea zer ulertu ez dakiela utzi, hezibide izan dituzten sekta edo eskolen hitz egiteko era diferenteen arabera; baina, pentsatzera joera handirik ez dutenen artean, beren ideiak kontu handiz eta zehatz-mehatz aztertzen ez dituztenez eta ideioi gizakiek adierazteko erabili ohi dituzten zeinuen jantzia erantzten ez dietenez ideioek berbe-

kin nahasiz, amaigabeko eztabaida, nahasi-mahasia eta mordoilokeria egon behar derrigor, batez ere eskolatuak, liburu gizonak edo sektaren bateko debotoak badira, hango hizkerara ohituak eta beste batzuen ahotik hitz egiten ikasitakoak. Baina bi gizaki gogoetatsuk ideia ezberdinak egiazki edukitzea gertatuko balitz, ez dut ikusten nola eztabaida edo argudia lezaketen elkarrekin. Ez nuke nahi inork hemen esaten dena nahasi eta pentsatzerik gizakien burmuinean flotari agertzen diren irudi guztiak mintzagai darabiltzadanez motako ideiak direnik. Gogamenak ez dauka erraz, ohiturak, ohargabetasuna edo solasaldi arrunta medio direla, bereganatuak dituen nozio nahasi eta aurreiritzi horiek kentzen. Ahalegina eta iraupena behar dira ideiak aztertzeko, harik eta gogamenak beraien osagai diren ideia bakun argi eta bereizi horiek aurkitu arte, baita ideia bakunen artean zeinek duen ala ez duen elkarrekiko nahitaezko lotura eta menpekotasuna. Gauzen lehen eta jatorrizko nozioetan hori egin arte, gizakia euskarririk gabeko printzipio ziurgabeen gainean eraikitzen ari da eta noraezean aurkituko da sarri.

## XIV. KAPITULUA

### Iraupenaren ideia eta honen modu bakunak

#### 1. *Iraupena hedadura iheskorra da.*

Bada beste distantzi edo luzera mota bat zeinaren ideia espazioaren atal iraunkorretatik barik, segidaren atal iheskor eta etengabe-ki galkorretatik ateratzen dugun. Honi *iraupena* deitzen diogu eta beronen modu bakunak guk ideia bereiziez hautematen ditugun beronen luzera diferenteak dira, hala nola, *orduak*, *egunak*, *urteak* etab, *denbora* eta *betierekotasuna*.

#### 2. *Iraupenaren ideia gure ideien segidari buruzko hausnarke-tatik datorkigu.*

Denbora zer zen galdetu zitzaion gizon handi baten erantzuna hauxe izan zen: *si non rogas intelligo* (honek esan nahi duelarik: zenbat eta ahalegintsuago jartzen naizen denboraz pentsatzen, hainbat gutxiago ulertzen dut), eta erantzun honek agian ikusaraziko digu gauza guztiak agerian jartzen dizkigun denbora bera ez dela guk deskubritzeko modukoa. Iraupen, denbora eta betierekotasunari buruz uste da, ez arrazoirik gabe, zerbait ulergaitza dutela beren izatean. Baina gure ulermenetik oso urrun diruditen arren, behar bezala aztertzen baditugu euren sorburuetara heldu arte, ez daukat dudarik gure ezagutza guztiaren iturrietako bata edo besteak, hau da, sentipenak edo hausnarketak, ekarri ahal izanen dizkigula hain iluntzat inola ere ez daudenak bezain argi eta bereiziak diren ideioiok; eta ikusi ahal iza-

nen dugu betierekotasunaren ideia bera ere gainerako gure ideien jatorri komun beretik eratorria dela.

### 3. Iraupenaren ideia izaera eta jatorria.

*Denbora eta betierekotasuna* ulertzeko, aditasunez aztertu behar dugu *iraupenaz* zer nolako ideia dugun eta nola geuganatzen dugun. Bere gogamenean zer gertatzen den behatzen duen edonorentzat bistakoa da adimenean idei katea bat dagoela, etenik gabe bat joan eta bestea etorri ari dena. Gure adimenean ideia ezberdinak bata bestearen ondoren agertze honetaz hausnarketa egiteak ematen digu *segidaren* ideia; eta segida honen atalen arteko edo ideia biren gure gogameneko agerpenen arteko distantziari iraupena deritza. Izan ere, pentsatzen edo geure adimenean ideia ezberdinak segidan hartzen ari garen bitartean, existitu egiten garela dakigu; eta era horretan gure existentziari edo gure existentziaren jarraierari, edo ideiek gure adimenean duten segidaz egokigarri den edozein gauzarenari deitzen diogu gure geure, edo gure pentsamenduarekin batera existitzen den zernahiren iraupena.

### 4. Iraupenaren ideia gure ideien kateari buruzko hausnarketa -tik hartzen dugulako frogak.

Segidaz eta iraupenaz dugun nozioak geure gogamenean bata bestearen ondoren agertzen ikusten dugun idei kateari buruzko hausnarketan duela jatorria, argi daukat nik, ez baitugu iraupenaren pertzepziorik, geure adimenean txandakatzen zaizkigun ideia horien bidez izan ezean. Ideien segida hau bukatzean, iraupenaren pertzepzioa ere bukatu egiten zaigu; eta hau gutariko bakoitzak sakon lo egiten duenean esperimendatzen duen gauza da, ordubetez, egun batez, hilabetez zein urtebetez lo egin; izan ere, lo dagoenak edo pentsatzen ez duenak, ez baitauka gauzen inolako pertzepziorik, hautematea zeharo galduta geratzen delarik; eta pentsatzeari uzten dion unetik berriro pentsatzen hasten den unera distantziarik ez dagoela irizten dio. Eta gauza bera gertatuko litzaiokeela uste dut, dudarik gabe, itzarrik dagoen gizakiari ere, gogamenean aldatu gabe edo ondoren besterik etorri gabe ideia *bakar bat* eduki ahal baleza. Eta ikusten dugu norbaitek pentsamendua gauza batean indar handiz finkatzen duenean, bere adimenean pasatzen ari diren ideien segidaz eskas konturatzeko moduan, kontenplazio bizi honetan ari den bitartean iraupen horren zati handi batek ohartu gabe ihes egiten diola eta denborari den

baino laburrago irizten diola. Baina loak normalean iraupenaren zati urrundua batzen baditu, denboraldi horretan gogamenean ideien segidarik ez dugulako da. Izan ere, gizaki batek lo dagoela ametsetan egiten badu eta ideia ezberdinak bata bestearen ondoren gogamenean hautemangarri egiten bazaizkio, orduan argi dago ametsetan dabilela iraupenaren eta amets horren luzeraren sentipena ukan duela. Horregatik niretzat oso argi dago gizakiek beren adimenean bata bestearen ondoren agertzen ikusten dituzten ideien kateari buruzko hausnarketatik ateratzen dutela; eta horretaz ohartu gabe ezin dute iraupenaren noziorik ukan, gertatzen dena gertatu munduan.

#### *5. Iraupenaren ideia gauzei aplikagarria da lo gaudenean.*

Orduan bada, gizakiak irupenaren nozioa edo ideia bere pentsamenduen segida eta kopuruari buruzko hausnarketaren bidez hartzen duelarik, nozio hau aplika diezaieke existitzen diren gauzei pentsatzen ari ez den artean; ikusmen eta ukimenaren bidez hedaduraren ideia hartu duenak ideia hau gorputzik ikusten ez ukitzen ez den distantziei aplika diezaiekeen bezalaxe. Eta, horregatik, gizakiak bera lo edo pentsatu gabe zegoela iragandako iraupenaren luzeraren pertzepziorik ez duen arren, hala ere, egun eta gauetako bira jada hautemana duelarik eta iraupen itxuraz erregular eta konstantea dutela aurkitua, eta bera lo edo pentsatu gabe zegoela ere bira hori lehenago bezala gertatu dela suposatuz, imajina eta atera dezake lo zegoela iragandako iraupenaren luzera. Baina Adan eta Ebak (munduan bakarrik zaudenean) gaueko lo normala egin beharrean, hogeita lau orduz lo egin balute etenik gabe, hogeita lau ordu horien iraupena berreskuratzeko galdu zatekeen haientzat, eta beren denboraren kalkulutik kanpo gertatu zatekeen betiko.

#### *6. Segidaren ideia ez dator higiduratik.*

Horretara, gure adimenean hainbat ideia bata bestearen ondoren agertzeari buruz hausnartuz segidaren nozioa geuganatzen dugu; eta baten batek geure sentimeneen bidez higidura hautemanez geuganatzen dugula uste izanen balu ere, agian neure iritzira etorriko da, aintzat har dezanean higidurak berak bere adimenean segidaren ideia sortarazten badu, ideia bereizgarrien katea eragiten duelako soilik dela. Izan ere, egiazki higiduran dabilen gorputz bat kontenplatzen duen gizakiak ez du inolako higidurarik hautematen, higidura horrek etengabeko elkarren segidako ideien joan etorria eragin ezean; adibi-

dez, itsasgizon batek itsasoa bare-bare dagoela, lehorra ikusterik ez duen puntuan egun oskarbi batean ordubetez eguzkiari, itsasoari edo untziari begira egon daiteke, hirurotako batean ere higidurarik atzeman gabe, nahiz eta egia izan horietako bi edo agian hirurak bide arlo handia eginez higitu direla. Baina haietako batek beste batekiko distantzia aldatu bezain laster, higidura honek harengan ideia berri bat sortarazi bezain laster, berehala konturatzen da han higidura izan dela. Baina, gizakia edonon dagoela, inguruan dituen gauza guztiak geldi badaude eta hura higidurarik atzeman gabe, ordubeteko geldialdi horretan pentsatzen ari izan bada, bere pentsamenduen ideia diferentek bata bestearen ondoren agertzen hautemanen ditu gogamenean, eta, horregatik, segida atzemanen du higidura atzematerik izan ez duen tokian.

#### *7. Oso astiroko higidurak ez dira hautematen.*

Eta uste dut horrexegatik ez ditugula hautematen astiroko higidurak, etengabeakoak izan arren, alde sentigarri batetik bestera lekualdatzean distantzi aldaketa oso astiro egiten delako, hain astiro, non ez duen gure baitan ideia berririk sortarazten, batetik bestera bitarte handia iragan ondoren izan ezean. Eta horretara gure gogamenean bata bestearen ondoren berehala datozen ideien katearik sortarazten ez denez, ez daukagu higiduraren inolako pertzepziorik, hau etengabeako segidan datzalarik, segida hori hautematerik ez dugulako, bertatik sorturiko ideia ezberdinen etengabeako segidarik ukan ezean.

#### *8. Higidura oso azkarrek ez dira hautematen.*

Aitzitik, azkar-azkar higitzen diren gauzak, hau da, beren higiduraren distantzia bereizgarri ezberdinez sentimenei ez eragiteko bezain azkar higituz gogamenean ideia-katearik sortarazten ez duten gauzak ere ez dira hautematen. Izan ere, edozein gauza zirkulua eginez gure ideiak bata bestearen ondoren gogamenera etortzeko behar duten baino denbora laburragoan higitzen denean, haren higidurarik ez da hautematen, material edo kolore horretako zirkulu betea ematen baitu, eta ez higiduran ari den zirkuluaren zati bat.

#### *9. Idei kateak azkartasun maila bat dauka.*

Honaino esan duguna aintzat hartuta, beste batzuei uzten diet juzga dezaten ea ez den daitekeena itzarrik gauden bitartean gure ideiak gogamenera bata bestearen ondoren distantzia batera etortzea,

kandelaren berotasunaz biraka ari den farol baten barruko irudiak etortzen diren bezalatsu. Ideiak katean agertze hori, batzuetan azkarra eta beste batzuetan astiroago gerta daitekeen arren, uste dut ez dela asko aldatzen itzarrik dagoen gizakiarengan; badirudi ideia horiek gure gogamenera bata bestearen ondoren etortzean duten azkartasunak edo astirotasunak mugak dituela, berauetatik harago ez geldotu ez agudotu ezin direlarik.

#### 10. *Higidura azkarra, egiazko segida, segidaren sentipenikgabe.*

Uste bitxi honetarako daukadan arrazoia honako honetaz ohar-tzetik dator, alegia, gure sentimenetako edozeinetan egindako inpresioetan maila bateraino soilik hauteman dezakegula segida, berau azkarregia izanez gero, segida sentipena galdu egiten delarik, egiazko segida dagoela bistakoa den kasuetan eurretan ere. Demagun kainoi-bala batek aldetik aldera zeharkatu duela gela bat eta bidean gizaki baten gorputzatal edo haragi zati bat eramaten duela, kasu horretan edozein demostrazio izan daitekeen baino nabariagoa da gelaren alde biak segidan jo behar izan dituela; begi-bistakoa da, halaber, giza haragiaren alde bat lehenengo eta bestea gero ukitu behar izan dituela, segidan, beraz; eta, hala ere, uste dut horrelako tiro baten oinazea sentitu duen inork edo bata bestetik urrun dauden horma bietako danbarrada entzun duen inork ezinen lukeela segidarik hauteman hain inpaktu azkarrak eragindako oinazean edo hotsean. Horrelako iraupen zatiari, hau da, segidarik hautematen ez diogunari, *alduinea* deitzen diogu, eta gure gogamenean ideia bakar bat beste baten segidarik gabe dagoen denbora hartzen du; eta, horregatik, ez dugu inolako segidarik hautematen.

#### 11. *Astiroko higiduretan.*

Hau berau gertatzen da, halaber, higidura oso geldoa denean, hots, sentimenei ideia freskoen etengabeko katea berri bat ekartzeko, gogamena ideia berriak hartzeko bezain azkarra izan ezin duenean; eta gure pentsamenduetako beste ideia batzuek higitzen ari den gorputzak gure sentimenei eskainitakoen artetik gogamenera sartzeko bitartea aurkitzen dutenez, higiduraren sentipena galdu egiten da; eta gorputza, higitu higitzen den arren, beste gorputz batzuekiko duen distantzia gure gogameneko ideiak bata bestearen ondoren katean berez-berez agertzen diren bezain agudo aldatzen ez denez era haute-mangarrian, ematen du gorputz hori geldi dagoela; hau nabariki ager-

tzen da erlojuaren orratzetan eta eguzki-erlojuen itzaletan, baita beste higidura etengabeko baina geldoetan ere, hauetan denbora-tarte baten ondoren gertatzen den distantzi aldaketatik higitu egiten dela haudematen badugu ere, higidura bera ez dugu haudematen eta.

12. *Idei katea hau beste segida batzuen neurria da.*

Horrela, itzarrik dagoen gizakiarengan gertatzen den ideien segida etengabeko eta erregularra beste segida guztien neurria eta erdua balitz legez da. Horregatik, baten batek gure ideien erritmoa gainditzen duenean, bi hots, bi oinaze eta abarrek ideia bakar baten iraupena hartzen dutenean bezala; edo higidura edo segidaren bat hain geldoa denean, non ez den egokitzen gure gogamenean ideiek darabilten erritmoa edo elkarren ondoren agertzean dakarten abiadurara, hala nola, ideia bat edo gehiago beren abio arruntean gogamenera higiduran dagoen gorputz baten distantzia hautemangarrietatik bistera agertzen direnen artean edo bata bestearen segidan datozen hots edo usainen artean heltzen direnean, kasu horietan diot, etengabeko segida jarraikiaren sentipena galdu egiten da eta ez ditugu hautematen, beraien artean zenbait atseden tarte eginda izan ezean.

13. *Gogamena ezin da luzaro egon tinko ideia aldaezin bati so.*

Egia bada gure gogameneko ideiak, baten bat bertan daukagun artean, taigabe aldatzen direla eta etengabe segidan agetzen direla, edonork esan lezake ezinezko dela edozein gauzari buruz luzaro pentsatzea. Hori esanez adierazi nahi bada gizakiak ideia bera luzaro izan lezakeela bera bakarrik adimenean inolako aldaketetarik gabe, nik uste dut benetan ere hori ezinezkoa dela. Horregatik (ez dakidanez nola eratzen diren gure gogameneko ideiak, ez nolako materialez eginak diren, ez nondik hartzen duten beren argia, ez nola lortzen duten agertzea), esperientzia beste arrazoirik ezin dut eman; eta gustatuko litzaidake norbait saiatzea ikusten ea eduki ahal duen gogamenean ideia bakun bat aldatu gabe, harekin batera nahiko luzaro beste ideiarik eduki gabe.

14. *Froga.*

Esperimentu moduan, pertsona horrek har dezala edozein irudi, edozein argi edo zurtasun mota, edo nahi duen beste edozein ideia, eta zail gertatuko zaio, nik uste, beste edozein ideiarik gogametik kanpo eustea; alderantziz, pertsona horren pentsamenduetan



beste ideia batzuk, mota diferenteko ideiak edo ideia horren ikuspegi ezberdinak (ikuspegi bakoitza ideia berri bat delarik) segidan etengabe agertzea ezinbestez gertatuko zaio, ekiditen eginahalak egin arren.

15. *Gure ideien segidaren gain norainoko ahala daukagun.*

Gizakiak kasu honetan egin ahal duen gauza bakarra honako hau da: adimenera elkarren ondoren datozkion ideiak zer diren adi behatu, edo bestela mota horretako ideiak zuzendu eta nahi edo behar duen moduko izena jarri; baina ideia berrien etengabeko segida galazarterik ez duela uste dut, nahiz eta normalean baduen ideioi artaz behatu eta kontsideratuko dituen ala ez ebazteko ahalmena.

16. *Ideiak, nolanahi egindakoak, ez dute beren baitan higidura sentipenik.*

Gizakiaren gogamenean ideia ezberdin horiek zenbait higidura jakinek egiten dituzten ala ez, ez dut hemen eztabaidatuko; baina ziur nago ez dutela beren agerpenean higiduraren ideiarik barne hartzen eta gizakiak higiduraren ideia beste bide batetik ez balu, ez leukakeela haren inolako ideiarik, hau nahikoa delarik nire oraingo xederako; eta horrek argi asko erakusten du gure gogamenetan bata bestearen ondoren agertzen diren ideiez ohartzeak ematen digula segidaren eta iraupenaren ideia, hori barik ideia horiek inola ere ez genituzkeelarik. Ez da, beraz, higidura, itzarrik gaudenean gure adimenenean dabilen *ideia* katea etengabea baizik, iraupenaren ideia ematen diguna; eta higidurak ez digu iraupenaren inolako pertzepziorik ematen, gure gogamenetan ideien segida etengabea sortarazten duen heinean izan ezik, lehenago azaldu dudan moduan; eta guk segidaren eta iraupenaren hain ideia argia gure gogamenetan, higiduraren inolako ideiarik gabe bata bestearen ondoren datozen beste ideia batzuen kateagatik daukagu, baita higiduratik geuganatzen dugun gorputz baten etengabeko distantzi aldaketa sentigarriak sorturiko ideia katearengatik ere; eta, beraz, higiduraren sentipenik ez bagenu ere, bagenuke iraupenaren ideia.

17. *Denbora neurriez zehazturiko iraupena da.*

Behin iraupenaren ideia horrela harturik, gogamenari berez dagokion hurrengo gauza iraupen komun horren *neurrirren* bat erdiestea da, haren luzera ezberdinak juzgatu eta gauza ezberdinek dituzten existentzi maila diferenteak kontsideratzeko, hori gabe gure

ezagutzaren zati handi bat nahasia bailitzateke eta historiaren zati handi bat erabat alferreko. Iraupena zenbait aldiren bidez zehazturik eta zenbait neurri edo aroz markaturik kontsideratzea da, nire ustez, adiera hertsienean *denbora* dei genezakeena.

18. *Denboraren neurri on batek haren iraupen osoa zati berdi - netan banatu behar du.*

Hedaduraren neurketan ezer ez da beharrezkoago zer hedadura duen jakin nahi dugun gauzari darabilgun patroia edo neurria aplikatzea baino. Baina hau ezin daiteke egin iraupenaren neurketan, segidaren bi zati diferente elkarrekin neurtzeko batera jartzerik ez dagoelako. Eta iraupenaren neurria iraupena besterik ez denez, hedadurarena hedadura besterik ez den bezalaxe, iraupena neurtzeko ezin dugu aldatzen ez den patroia edo neurririk eduki —iraupena etengabeko segida iheskorra baita— zenbait hedadura neurri eduki dezakegun moduan, adibidez, hazbeteak, oinak, yardak, etab., materi zati iraunkorretan markatuta. Orduan bada, ezerk ere ezin du balio denboraren neurgailu egoki izateko, haren iraupenaren luzera guztia zati itxuraz berdinetan banantzen duen zerbaitek izan ezik, konstanteki errepikatuturiko aldien bidez. Baina aldi horiek zein iraupen zati bereizten ez duten edo zein zati hartzen den aldi horiek bereizi eta neurtutzat, denboraren nozioari ez dagozkion kontuak dira, honelako esakune hauen bidez agertzen den moduan: «denbora ororoen aurretik» edo «denborarik sekula gehiago izanen ez denean».

19. *Eguzkiaren eta ilargiaren birak dira denboraren neurgailu - rik onenak gizateriarentzat.*

Eguzkiaren eguneko eta urteko birak, konstanteak, erregularrak eta gizateria guztiak unibertsalki behatzeko modukoak, baita elkarren bestekoak ere izanik, arrazoi osoz erabili izan dira iraupena neurtzeko. Baina egunen eta urteen arteko bereizpena eguzkiaren higiduraren menpe egon denez, errakuntza bat ekarri du honek: higidura eta iraupena bata bestearen neurria dela pentsatzea. Izan ere, gizakiek, denboraren luzera neurtzean, minutu, ordu, egun, hil eta urteen ideia ohitu direlarik, pentsagai izandako denbora edo iraupenaren edozein aipamenetan horiekin aurkitu baitziren, eta denbora zatiok ortziko gorputz horien higiduratik neurtu izan direlarik, denbora eta higidura nahastera heldu ziren, edo behintzat elkarrekin ezin besteko lotura dutela pentsatzera. Eta, hala ere, iraupen tramu itxuraz

distantzikideetan gertaturiko ideien aldizkako agerpen konstante edo aldaketa orok, konstanteki eta unibertsalki hautemangarria bada, denbora tarteak bereizteko balioko zukeen, orain arte erabilitakoak bezain ongi balio ere. Zeren, suposatuz gero eguzkia, batzuek sutzat hartu dutena, orain egunero meridiano berera datorren denbora-distantzia berera piztu dela, eta handik hamabi ordura itzali egin dela, eta urteko biran haren argia eta berotasuna nabariki gehitu direla, eta berriro gutxitu direla, ez ote lukete balioko agerpen erregular horiek —hautematerik lukeen ororentzat— iraupenaren distantzia higidurak bezain egoki neurtzeko. Izan ere, agerpenak konstanteak, unibertsalki behagarriak eta aldi distantzikideetan gertatzen direnak balira, gizate-riari denbora behar bezain ongi neurtzeko balioko liokete, higidurarik ez egonda ere.

## 20. *Baina ez haien higidurengatik, agerpenengatik baizik.*

Izan ere, izozteak eta landareen loratzeak mundu guztian aldi distantzikideetan gertatuko balira, eguzkiaren higidurek bezain egoki-ro balioko liekete gizakiei euren urteak kalkulatzeko; eta ikusi ere ikusten dugu Amerikako herri batzuek sasoi jakinetan heldu edo joa-ten zitzaizkien txorien etorrera edo alde egitetik kontatzen zituztela beren urteak. Izan ere, beti aldi distantzikideetan etorri eta unibertsal-ki ezaguturiko sukarraldiak, gose edo egarri sentipenak, usain edo zaporeak, edo beste edozein ideiak akatsik gabe balioko lukete segi-daren aribidea neurtzeko eta denboraren distantzia bereizteko. Horrela, ikusten dugu sortzetiko itsuek denbora behar bezala kalkula-tzen dutela urteka, hauteman ezin dituzten higiduren bidez urteotako birak bereizterik ez ukan arren. Eta galdetzen dut ea itsu batek, bere urteak udako beroaren edo neguko hotsaren bidez, udaberriko loraren baten usainaren edo udazkeneko fruitaren baten zaporearen bidez bereizten dituenak, ez dukeen denboraren neurri hoberik, erromata-rrek Julio Zesarrek egindako egutegiaren erreforma aurretik ukan zutena baino, edo, eguzkiaren higidurez baliatzen saiatu arren, urte oso irregularrak zituzten beste herri askok baino? Eta kronologiari ez dio zailtasun makala gehitzen nazio ezberdinek zenbatzen zituzten urteen luzera zehatza ezagutzen zaila izateak, bata bestetik oso dife-renteak baitira eta —uste dut esan dezakedala— guztiak eguzkiaren higidura zehatzetik diferenteak. Eta eguzkia kreatua izan zenetik uhol-de nagusira arte konstanteki higitzen bazen ekuatorearen gainean,

bere argia eta berotasuna lurreko alde habitagarri guztietara berdinki banatuz eta egun guztiak iraupen bereko eginez, tropikoetarantz urteko bariazorik gabe, azkenaldeon autore argi batek suposatzen duen moduan, ez dut uste oso erraza denik bururatzea uholdeurreko gizakiek (orduan ere eguzkiaren higidura hantxe izan arren) munduaren hasieratik denbora urteka zenbatu edo aldika neurtu zutela, aldiok marka sentigarri nabariegirik gabekoak zirenez gero, gizakiek bereizi ahal izateko.

21. *Ezin irits gaitezke ziurtasun osoz jakitera iraupen zati bi berdinak direla.*

Baina agian esanen da: eguzkiarena edo beste zerbaitena bezalako higidura erregularrik gabe nola jakin aldi horiek berdinak zirela? Honi erantzuten diot esanez berriro gertatzen den beste edozein agerpenen berdintasuna ezagut daitekeela, hasieran egunen berdintasuna ezagutu edo ezagutzen zela pentsatu zen bezalaxe ezagutu ere; eta hau denbora tarte horietan gizakien gogamenetik igarotako ideien kateatik balioetsiz egin zen; eta ideia katea horren bidez egun naturaletan desberdintasuna deskubritu zelarik, baina ez egun artifizialetan, egun artifizial edo  $\nu\chi\theta\eta\mu\epsilon\rho\alpha$ -k berdinak zirela pentsatu zen, eta hau nahikoa izan zen neurritzat balio izateko, nahiz eta ikerketa zehatzago baten ondorio, aurkitu duten eguzkiaren eguneko biretan ezberdintasunak daudela, eta urteko birak ere ezberdinak ez ote diren ez dakigu. Hauek, hala ere, beren ustezko eta itxurazko berdintasunagatik, denbora kalkulatzeko berdinak direla frogatu ahal izan balute bezala balio dute, nahiz eta iraupenaren zatiak zehazki neurtzeko ez balio. Horregatik, kontu handiz bereizi behar ditugu iraupena bera eta haren luzera neurtzeko erabili ohi ditugun neurriak. Iraupena bera aribide konstante, berdin, eta uniformeaz dirauen zertzat hartu behar dugu; baina guk ez *dakigu* ziurtasunez erabiltzen ditugun neurrietako bat ere iraupena bezala ari den eta esleituriko zatiak edo aldiak euren artean berdinak diren ala ez, inoiz ez baita frogatu segidako iraupen luzera bi, nolanahi neurtuta, berdinak direnik. Eguzkiaren higidura, munduan iraupenaren neurri zehatzat hain luzaro eta hain fidatuki erabili izan dena, ezberdin gertatu da, esan dudana moduan, zenbait aldetan. Eta gizakiek pendulua erabili duten arren eguzkiarena baino edo (zehazkiago esateko) lurrarena baino higidura konstanteago eta erregularrago bezala, hala ere, norbaiti galdetuko balitzaio nola dakien

penduluaren segidako oszilazio bi berdinak direla, zail litzateke galdatzailea hori hutsezinki horrela dela sinetsita uztea, zeren ez baitugu ziur egoterik higidura horren kausak, zein den ez dakigunak, beti berdin jokatu ote duen; eta ziur dakigu pendulua higitzen den ingurua ez dela beti berdina; eta horietako bat aldatuz gero, aldi horien berdintasuna hauts daiteke eta, beraz, higiduraren bidezko neurrien segurtasuna eta zehaztasuna deuseztaturik gera, beste agerpen batzuen aldiena bezalaxe, iraupenaren nozioak argi iraunik, guk ditugun haren neurriak (bat bera ere) zehatzak direla frogatzerik ez ukan arren. Orain bada, segidaren bi zati elkarren ondoan jartzetik ez dagoenez, ez dago inoiz ziur jakiterik berdinak direla. Denbora neurtzeko egin genezakeen guztia haxe da: etengabe segidan itxuraz aldi distantzikideetan agertzen diren zati horiek hartu, beraien itxurazko berdintasun horren beste neurririk ez dugularik, gure ideien kateak oroimenean ipini diguna baino, beste arrazoi *probable* batzuk ere izaten direlarik, berdintasun hori onartzera limurtzen gaituztenak.

## 22. Denbora ez da higiduraren neurria.

Gauza bat egiten zait bitxi, alegia, gizaki guztiek denbora munduko gorputz handi eta ikusgarrien higiduratik neurtu duten artean, denbora «higiduraren neurri» gisa definitu izana, bistakoa denean gai honi buruz gogoeta apur bat egiten duenarentzat, higidura neurtzeko, espazioa denbora bezain aintzat hartu beharrekoa dela; eta apur bat sakonago aztertu nahi dutenek aurkituko dute, higiduraren balioespen edo neurketa egoki eta zuzena egin nahi duenak, higitzen ari den gauzaren bolumena ere oso kontuan hartu behar duela. Higidurak ez garamatza, eraman, iraupenaren neurketara, distantzikideak diruditen aldietan zenbait ideia sentigarriren itzulketa etengabea eragiten duenez ez bada. Izan ere, eguzkiaren higidura haize aldaberek bultzaturiko untziaarena bezain desberdina balitz, batzuetan oso geldoa eta beste batzuetan irregularki oso azkarra, edo, beti azkarra izanik, zirkularra ez balitz eta agerpen berberak eraginen ez balitu, ez liguke lagunduko denbora neurtzen, kometa baten higidura itxuraz desberdinak laguntzen digun baino gehiago inondik ere.

## 23. Minutu, ordu, egun eta urteak ez dira iraupen neurri beharrezkoak.

Minutu, ordu, egun eta urteak ez dira, orduan, beharrezkoak denbora edo iraupenerako, edozein gauzatan markaturiko

hazbeteak, oinak, yardak eta milak hedadurarako diren baino. Zeren, nahiz eta guk, unibertsoaren alde honetan, eguzkiaren birek markaturiko aldi moduan edo aldion zati ezagun moduan etengabe erabiltzen ditugulako, iraupen luzera horien ideiak geure gogamenan finkaturik ditugun eta nolako luzerakoak diren jakin nahi dugun denbora zati guztiei aplikatzen dizkiegun, hala ere, izan behar dute unibertsoko beste alde batzuk neurri hauek erabiltzen ez dituztenak, Japonian gure hazbeteak, oinak edo milak erabiltzen dituzten baino gehiago; baina, haietan ere, neurri hauen antzekoak erabili beharko dituzte. Zeren aldizkako itzulera erregularrik gabe, ez genuke ezein iraupenen luzera guk geuk neurtzerik edo inori adierazterik, mundua aldi berean oraintxe bezalaxe higiduraz beterik egonda ere, haren zati bat ere egon ezean bira erregular eta itxuraz distantzikideetan eraturik. Baina denbora kalkulatzeko erabil daitezkeen neurri ezberdinek ez dute inondik ere aldatzen iraupenaren nozioa, neurtu beharrekoa; oina edo ukalondoa eredu izateak ere, neurri ezberdinon erabiltzaileentzat, hedaduraren nozioa aldatzen ez duen moduan.

*24. Gure denboraren neurria denboraren aurretiko iraupenari ere aplika dakioke.*

Behin gogamenak eguzkiaren urteko bira bezalako neurria bereganatu duenean, neurri hau existitzen ez zen eta beronekin, beronen izatearen sakonean, inolako zerikusirik ez duen iraupenari aplika diezaioke. Izan ere, norbaitek esanen balu Abraham aro julio-tarraren bi mila zazpiehun eta hamabigarren urtean jaio zela, hau munduaren hasieratik zenbatuko bagenu bezain ulertezina litzateke, antzinako aldi urrundu horretan eguzkiaren higidurarik ez beste inolakorik ez egon arren. Zeren, juliotar aroa eguzkiaren biraketek markaturiko egun, gau, edo urteak izan baino ehundaka urte lehenago hasten dela suposatzen den arren, hala ere, garai hartan eguzkia existitu balitz eta gaur duen ohiko higidura bera ukan balu bezain zuzen eta ongi kalkulatzeko eta, beraz, neurtzeko ditugu iraupenak. Eguzkiaren biraketa bati dagokion iraupenaren ideia hain erraz *aplikatu dakioke* gure pentsamenduetan eguzkia ez higidurarik existitzen ez zen aldiko iraupenari, nola hemengo gorputzetatik harturiko oin baten edo yarda baten ideia gorputzik gabeko munduaren mugetatik haragoko distantziei aplika dakiekeen gure pentsamenduetan.

25. *Gorputzik ez dagoen tokian geure pentsamenduetan espazioa neur dezakegun moduan.*

Zeren, suposaturik hemendik unibertsoa gorputzik urrunduenera 5639 milia edo milioi milia daudela (unibertsoa finitua delarik, distantziaren bat egon behar baitu), gure denboratik munduaren hasieran lehenengo gorputza existitzen hasi zenera 5639 urte iragan direla suposa dezakegun modura, urtebeteko neurri hau geure pentsamenduetan kreazio aurreko iraupenari, edo gorputzen edo higiduren iraupenetik harago, aplikatu diezaiokegu, miliabeteko neurri hau gorputz urrundueneratik haragoko espazioari bezalaxe eta, eta neurri bat, higiduraren ez zegoen aldiaren iraupena neur dezakegun moduan, beste neurriaz gorputzik ez dagoen tokiko espazioa neur dezakegu geure pentsamenduetan.

26. *Mundua mugaga bea eta betierekoa delako onarpena.*

Denbora esplikatzeko modu honetan suposatu ezin nuena suposatu dudala, hau da, mundua ez dela ez betierekoa ez infinitua, esanzen balitzait une honetan, erantzunen nuke nire oraingo xederako ez dela beharrezko mundua bai iraupenean eta bai hedaduran finitua dela argi utziko duten argudioak hemen erabiltzea. Baina hori berorren kontrakoa bezain bururagarria denez gero, badut nik hori suposatze askatasuna, beste edonork horren kontrakoa suposatze duen adinakoa bederen; eta ez dut zalantzarik honi apur bat eragiten dion guztiak burura dezakeela erraz higiduraren hasiera, nahiz eta ez iraupen guztiaren hasiera, era honetan urrats bat, eta ez gehiagorik, aurretatuz higidurari buruz duen iritzian. Era berean, bere pentsamenduetan gorputzari eta berari dagokion hedadurari muga bat jar diezaieke, baina ez gorputzik gabeko espazioari, zeren espazioaren eta iraupenaren azken mugak pentsamenduaren irispidetik harago baitaude, zenbakiaren azken mugak gogamenaren ulerkuntza zabalenetik harago dauden bezalaxe; eta hori guztia arrazoi beragatik, beste leku batean ikusiko dugun moduan.

27. *Betierekotasuna.*

Horregatik, denboraren ideia geuganatzeko erabiltzen ditugun bitarteko berberetz eta iturburu beretik geuganatzeko dugu betierekotasuna deritzanaren ideia ere; hau da, segidaren eta iraupenaren ideiak geure ideien kateari buruzko gogoetaren bidez hartu ditugularik, itza-

rrik gaudela ditugun pentsamenduetara etengabe berez etorritako ideien agerpen naturalek gure baitan eragindako katea berau, edo gure sentimenak segidan hunkitzen dituzten kanpoko objektuek eragindakoa, eta eguzkiaren biretatik zenbait iraupen luzera hartuta edukirik, gai gara geure pentsamenduetan iraupen luzera horiek bata besteari eransteke nahi adina aldiz eta, horrela erantsita, iragandako edo etorkizun diren iraupenei aplikatzeko, Eta hau eragozpenik ez mugarik gabe egin dezakegu eta *in infinitum* jo, eta era horretan eguzkiaren urteko higiduraren luzera eguzkiaren higiduraren zein beste edozein higiduraren aurrekotzat suposatutako iraupenari aplikatu, hau ez delarik zailago edo absurduago gertatzen eguzki-erloju batean itzalak ordu-betez gaur egindako higiduraz daukadan nozioa bart jazotako zerbaiten, adibidez orain inondiko higidurarik gabe dagoen kandelaren suaren iraupenari aplikatzea baino; eta su horren iraupena gaur den edo sekula izanzen ez den higidura batekin batera existitzea hain ezinezkoa da, nola den munduaren hasiera baino lehenago izan zen edozein iraupen zati eguzkiaren oraingo higidurarekin batera existitzea. Baina, hala eta guzti ere, honek ez du eragozten, eguzkiko itzalaren higiduraren *ideia* bi ordu markatzen dituzten seinaleen artean edukirik, nik bart kandela-argi horrek izandako iraupena hura bezain garbiro neurtu ahal izatea, eta hori bezalaxe orain existitzen den edozeren iraupena; eta hau hurrengo pentsatzea besterik ez da: eguzkia orduan erloju argitzen egon eta orain higitzen den abiaduraz higitu izan balitz, erlojuko itzala ordumarra batetik beste batera pasa zatekeela kandelaren argiak zirauen artean.

## 28. *Gure iraupen neurriak ditugun ideien arabekoak dira.*

Ordu, egun edo urte baten nozioa aldizkako zenbait higiduraren luzerari buruz daukadan nozioa besterik ez denez gero, higidurok inoiz ez direlarik guztiak batera existitzen, neure sentimenetatik edo hausnarketatik eratorrita oroimenean berauei buruz ditudan ideietan izan ezik, erraztasun beraz eta arrazoi beragatik aplikatu diezaieket neure pentsamenduetan higidura ororen aurreko iraupenari zein une honetan bertan eguzkiak daukan higidura baino minutu bat edo egun bat lehenago gertaturiko edozeri. Iragandako gauza guztiak era berean eta erabat atsedenean daude; eta alde honetatik begiratuta, guztiak dira gauza bera, munduaren hasiera baino lehenagokoak zein atzo bertakoak izan, zeren higiduraren batez neurturiko gauza baten neur-



keta ez baitago gauza hori eta higidura hori, edo beste edozein biraldi, *egiazki* batera existitzearen menpe, baizik neure gogamenean zenbait aldizkako higiduraren luzeraren edo iraupen tarteren *idea* argia edukitzearen eta neurtu nahi dudan gauzaren iraupenari aplikatzearen menpe.

29. *Ezein gauzaren iraupenak ez du behar guk hura neurtzeko darabilgun higidurarekin batera existitzerik.*

Era horretan, ikusten dugu batzuek uste dutela munduaren iraupenak, existitzen hasi zenetik gure 1689. urte honetaraino, 5639 urtekoa izan dela, edo eguzkiaren 5639 urte birakoa, eta beste batzuek, ordea, asko gehiagokoa dela; antzinako egiptoarrek, adibidez, Alexander Handiaren garaian 23.000 urte kontatzen zituzten eguzkia existitzen hasi zenetik; eta Txinarrek orain munduari 3.269.000 urte, edo gehiago, kalkulatzeko diote. Nik neuk herrioi kalkuluen arabera munduaren iraupen luzeok egiazkoak direnik uste ez dudan arren, haiek diotena imajina dezaket eta egiazkotzat ukan, bata bestea baino luzeagoa dela ulertu eta esanez, Matusalenen bizitza Enokena baino luzeagoa izan zela ulertzen dudan moduan. Eta eskuarki onarturiko 5639 urteko kalkulua egiazkoa balitz (izan ere, beste edozein bezain egiazkoa izan baitaiteke), ezertan ez luke eragoztiko nik imajinatzea beste batzuek diotena, hau da, mundua mila urte zaharragoa dela, zeren denek imajina dezakete erraztasun beraz (ez diot sinets) munduak 50.000 urte dituela zein 5639 urte dituela, eta era berean burura dezakete 50.000 urteko iraupena zein 5639 urtekoa. Eta hemendik argi ateratzen da edozein gauzaren iraupena denboraren bidez neurtzeko ez dela beharrezko gauza hori guk hura neurtzeko erabiltzen dugun higidurarekin edo edozein beste aldizkako biraketarekin batera existitzea; nahikoa baita horretarako guk geure gogamenean higidura edo agerpen jakin batekin batera inoiz existitu ez den iraupenari aplikatu diezaiokegun aldizkako ezein agerpen erregularren *idea* edukitzea.

30. *Infinitutasuna iraupenean.*

Izan ere, Moisesek agerturiko kreazioaren historian bezala, argia, eguzkia izan baino, edo higidurarik ukan baino, hiru egun lehenago izan zela imajina dezaket, argiaren iraupena, eguzkia kreatua izan baino lehenago (eguzkia orduan higitu izan *balitz* orain egiten duen legez), eguzkiaren hiru egun bira bezain luzea zela pentsatu

hutsaz; eta arrazoi berarengatik kaosaren edo aingeruen ideia bat ukan dezaket, argia edo higidura jarraikirik izan baino minutu bat, ordubete, urtebete edo mila urte lehenago kreaturiko izaki bezala. Zeren, edozein izakiren izatea edo higidura baino lehenago minutu bateko iraupena kontsidera badezaket, minutu bat gehituz ere joan naiteke 60 minutura heldu arte; eta minutuak, orduak, edo urteak (hau da, eguzkiaren biraketen zati bat edo beste, edo nolabait ezagutzen dudan aldi bat) gehituz joateko bide beretik, *in infinitum* jo dezaket eta nik zenbatu ahal ditudan aldi guztiak gainditzen dituen iraupena suposa, nahi ditudan guztiak gehitu arren, eta horixe da, nik uste, betierekotasunaz daukagun nozioa; eta betierekotasunaren infinitutasunaz ez daukagu beste noziorik zenbakiaren infinitutasunaz daukaguna baino, alegia, zenbakiari amairik gabe beste batzuk gehi diezazkiokegula.

### 31. *Iraupenaz eta beronen neurriez ditugun ideien iturburua*

Era horretan, uste dut gauza nabaria dela arestian aipaturiko ezagutza ororen iturri bi horietatik, hau da, hausnarketa eta sentipenetik geuganatzen ditugula iraupenaren eta beronen neurrien ideiak.

Izan ere, lehenik, gure gogamenetan gertatzen denari erreparatuz, nola gure ideiak etengabeko kordan agertzen eta desagertzen diren, *segidaren* ideia hartzen dugu.

Bigarrenik, segidaren atalen artean distantzian erreparatuz, *iraupenaren* ideia hartzen dugu.

Hirugarrenik, sentipenaren bidez zenbait agerpen zenbait aldi erregularretan gertatzen direla erreparatuz, *iraupenaren luzera* edo *neurri* batzuk erdiesten ditugu, hala nola, minutuak, orduak, egunak, urteak, etab.

Laugarrenik, denbora neurri horiek edo luzera jakin bateko iraupenaren ideiak gure gogamenetan nahi adina aldiz errepikatzeke gai garenez gero, ezerk iraun ezerk ez dirauen edo egiazki *ezer existitzen ez den tokian* ere *iraupena* imajinatzerara hel gaitezke; eta, horretara, biharamuna, datorren urtea, aurtendik zazpigarren urtea imajina dezakegu.

Bosgarrenik, gure pentsamenduetan edozein denbora-luzerako ideiak, hala nola minutu bat, urtebete, aro bat, nahi adina aldiz errepikatzeke eta bata besteari amaierara inoiz heldu gabe eta beti bat gehiago gehi diezaiekegun zenbakien kasuan baino amaieratik hurbilago

ibili gabe eransteko gai garenez, *betierekotasunaren* ideiaara heltzen gara, gure arimen geroko betiereko iraupen modura bururatzen dugularik, baita ezinbestez beti existitu behar izan duen Izaki infinitu horren betierekotasun bezala ere.

Seigarrenik, iraupen infinituaren edozein atal alditik aldirako neurritz zehazturikotzat joz, oro har *denbora* deritzanaren ideiaara heltzen gara.



## XV. KAPITULUA

### Iraupenaren eta hedapenaren («expansion») ideiak, elkarrekin kontsideraturik

#### 1. *Biak izan daitezke handiagoak eta txikiagoak.*

Aurreko kapituluetan espazioaren eta iraupenaren azterketari nahikoa ekin diogun arren, eskuarki interesatzen diren eta beren izatean zerbait oso ulergaitz eta berezia duten ideiak direnez gero, bata bestearekin alderatzeak ideiak argitzeko balio lezake behar-bada eta haien ikusmolde argi eta bereziagoa izan genezake biak batera kontuan hartzen baditugu. Distantzia edo espazioari, beronen ikusmolde sinple eta abstraktuan, nahasketa ekidin nahirik, *hedapena* («*expansion*») deitzen diot hedaduratik («*extension*») bereizteko, azken hau askok aipaturiko distantzia materiaren atal solidoetan bakarrik dagoenez adierazteko erabiltzen baitute, era honetan gorputzaren ideia barne hartuz, edo behintzat iradokiz, distantzia hutsaren ideiak, ordea, horrelakorik ez daramalarik bere baitan. Hedapen hitza espazio hitza baino ere nahiago dut, espazioa sarri sekula elkarrekin existitzen ez diren atal iheskor eta segidakoei zein iraunkorre berdin aplikatzen baitzaie. Berba biotan (hedapenean eta iraupenean) gogamenak kantitatez handiagoak edo txikiagoak izan litezkeen luzera jarraikien ideia komuna dauka. Ukan ere, gizakiak ordubetek eta egun batek luzeran duten aldearen ideia argia du, hazbetek eta oinbetek dutenarena duen bezalaxe.

## 2. Hedapena ez dago materiak mugaturik.

Gogamenak hedapenaren edozein atalen luzeraren ideia hartu duenean, dela arrabeterena, pauso batena edo nahi den luzerarena, errepika *dezake* ideia hori eta, horretara, aurrekoari gehituz, luzeraren ideia handiago dezake eta bi arra edo bi pausoren tamainakoa egin; eta hori, nahi adina aldiz egin dezake, lur honetako zeinahi bi punturen arteko distantzia berdindu arte eta horrela jokatzuz distantzia hori eguzkiraino edo izarrik urrunduenaraino luzatu arte. Horrelako progresioaren bidez, dagoen tokian edo beste edonon hasita, gogamenak jardun dezake eta luzera horietatik guztietatik harago jo, bere aurreratzea geraraziko duen ezer aurkitu gabe, dela gorputzen bat dagoen tokian, dela gorputzik ez dagoenean. Egia da geure pentsamenduetan erraz hel gaitezkeela hedadura solidoaren amaierara; ez daukagu, eduki ere, zailtasunik gorputz ororen mutur eta mugetara heltzeko; baina gogamena han dagoenean, ez du ezer ere aurkitzen amaigabeko hedapen horretan barna aurrera egiteko; hedapen honi ezin dio aurkitu ez bururatu amaierarik. Eta inork ez dezala esan gorputzaren mugez haraindik ezer ez dagoela, Jainkoa materiaren mugen barruan hesipetu nahi ez badu bederen. Jakituriaz bete-beteriko adimena zuen Salomonek, dirudienez, bestelako pentsamenduak zituen honetaz, esan zuenean: «Zeruek eta zeruen zeruek ere ezin zaituzte zu hartu». Eta hori esatean, nik uste, gehiegi goraipatzen ditu bere adimenaren ahalmenak, zeren bere pentsamenduak Jainkoa existitzen den lekutik harago heda litzakeela edo Hura ez dagoen tokian hedapenena imajina dezakeela uste izateraino limurtzen baitu bere burua.

## 3. Iraupena ere ez dago higidurak mugaturik.

Iraupenarekin ere gauza bera jazotzen da. Gogamenak, behin edozein neurriren dimentsioa hartu duenean, bikoiztu, biderkatu eta luzatu egin *dezake* neurri hori, bere existentziatik harago ez ezik, gorputzduen izaki guztien existentziatik eta mundu guztiko gorputz handietatik eta beraien higiduretatik harturiko denbora neurri guztietatik harago ere. Hala ere, edonork onartu ahal izanen du aise iraupena, mugarik gabeko egiten dugun arren, izan ere den moduan, ezin dugula izaki oroz haraindik hedatu. Jainkoak, edonork aise onartzen duen moduan, betierekotasuna betetzen du; eta nekez aurki daiteke arrazoirik inork zalantzatan jartzeko mugagabetasuna ere betetzen duela. Haren izate infinitua, mugarik gabekoa da zentzu batean zein bestean;

eta uste dut materiari gehiegitxo ematea dela gorputzik ez dagoen tokian ezer ere ez dagoela esatea.

4. *Gizakiek zergatik onartzen duten errazago iraupen infinitua, hedapen infinitua baino.*

Uste dut hemendik atera genezakeela zergatik mintzo den edonor normaltasun guztiarekin eta dudarik txikienik egin gabe betierekotasunaz eta ez duen eragozpenik jartzen iraupenari *infinitutasuna* iratxikitzeko, *espazioaren infinitutasuna*, ordea, jenderik gehienak eragozpen eta duda gehiagorekin onartzen duen artean. Honen arrazoia hauxe dela deritzot, alegia, iraupena eta hedadura beste izaki batzuei dagozkien afekzioen izenak direnez, Jainkoarengan erraz bururatzen dugula amaigabeko iraupena eta ezin dugula ekidin hori gertatzea; baina Jainkoari inondiko hedadurarik iratxikitzen ez diogunez gero, hori materiari, finitua denari, soilik egozten baitiogu, materiariak gabekoaren hedapenaz dudatzeko joera daukagu, hedapena materiaren beste ezeren tasun ez delakoan baikaude eskuarki. Eta, horregatik, gizakiek espazioaz pentsatzen dutenenan, gorputzaren mugetan geratzeko joera dute, espazioa ere hortxe amaituko balitz eta harago segituko ez balu bezala. Eta ideia horiek, aintzat hartzean, gizakiak urrunago eramaten dituzten arren, unibertsoaren mugez haraindik dagoenari irudimenezko espazioa deitzen diote, *hura* ezer ez balitz bezala, han ez delako ezer existitzen. Gorputz oro eta bera neurtzeko erabilitako higidurak baino lehenagokoa den iraupenari, ordea, inoiz ez diote irudimenezko deitzen, inoiz ere suposatzen ez delako bestelako existentzia egiazkoren bat ez duenik. Eta baldin gauzen izenak gai badira gure pentsamenduak gizakien ideien jatorrira eramateko (nik oso gai direla uste dut), *iraupen* («duratio») izenetik abiatuta batek izan dezake motiborik pentsatzeko uste izan dela indar suntsizaile orori erresistentzia jartzen dion existentziaren jarraipenak eta solidotasunaren jarraipenak (gogortasunarekin nahas daitekeen tasuna berau, eta materiaren partikula anatomiko nimiñoetara begiratu gero, gogortasunetik oso diferentea ez dena) badutela analogiarik *durare* eta *durum esse* bezalako hitz hain hurbilekin eta horrexek ekarri zuela hitzon sorrera. Eta *durare* hala gogortasunari nola existentziari aplikatzen zaiola Horazioarengan ikusten dugu, XVI. Epod: *ferro duravit secula*. Baina, edonola ere, egia da bere pentsamenduetan sakontzen duenak ikusten duela pentsamenduak batzuetan gorputza-

ren hedaeratik harago doazela espazioaren edo hedapenaren infinitutasuneraino, horren ideia gorputzetik eta beste gauza guztietatik diferentea eta bereizia delarik, nahi dutenentzat gogoeta sakonagoetarako gai izan daitekeen auzia berau.

#### 5. *Denbora iraupenarekiko, lekua hedapenarekiko dena da.*

Denbora, oro har, iraupenarekiko, lekua hedapenarekiko dena da. Betierekotasunezko eta amaigabetasunezko ozeano mugagabeak dira gainerako gauzetatik mugari bidez bezala nabarmentzen eta ezberdintzen direnak; eta horrela izaki *finitu* errealek iraupen eta espaziozko amaigabeko ozeano uniforme horietan elkarrekiko duten posizioa denotatzeko erabiltzen dira. Hauek, behar bezala kontsideraturik, bereiz daitezkeen eta beren artean distantzia bera dutela suposatzen zaien gauza sentigarrietan finkaturiko puntu jakin batzuetatik dauden distantzia konkretuak besterik ez dira. Izaki sentigarrietan finkaturiko puntu horietatik konputatzen eta neurtzen ditugu kantitate infinitu haien zatiak, kantitate infinituak horrela kontsideraturik *denbora* eta *lekua* deitzen diegunak direlarik. Zeren, denbora eta iraupena berenez uniformeak eta mugagabeak direlarik, gauzen ordena eta posizioa, jakindako eta ezarritako puntu horiek gabe, galdu egingen lirateke, eta gauza guztiak erremediorik gabeko mahasian nahasiko lirateke.

#### 6. *Denbora eta lekua gorputzen existentziak eta higidurak ezarritako beste ideia batzuek sorturikotzat hartzen dira.*

Denborak eta lekuak, aipatu bezala espazioaren eta iraupenaren amaigabeko leizean ezarrita dauden eta gainerako guztitik marka eta muga jakinez bereizten direla suposatzen diren leize horren zati bereizgarri moduan kontsideraturik, adiera bikoitza dute biek.

*Lehenik*, denbora eskuarki unibertso gorputz handiez neurtzen eta haiekin batera existitzen den iraupen infinituaren espazio moduan hartu ohi da, haietaz ezer dakiguneino; eta zentzu honetan denbora mundu sentigarri honen egiturarekin hasten eta amaitzen da, gorago aipaturiko esakuneotan bezala: «Denbora ororen aurretik» edo «Denborarik sekula gehiago izanen ez denean». Lekua ere, antzera, mundu materialak eduki daukan eta bere baitan hartzen duen espazio infinitu horren zatitzat hartzen da eta horregatik hedapenaren gainetik berizten da, honi leku baino zehatzago hedadura dei dakioke-



en arren. Muga bi horien barruan mugaturik daude eta beraien atal hautemangarriez neurtzen eta zehazten dira izaki gorpuzdun guztien denbora eta iraupen partikularra eta hedadura eta leku partikularra.

*7. Batzuetan iraupen zatitzat gorputzen bolumen edo higidura -tik harturiko neurriez izendaturikoak hartzen dira.*

*Bigarrenik*, batzuetan denbora hitza zentzu zabalagoan erabiltzen da eta existentzia erreala horrek eta hasieratik seinale izateko eta urtesasoia, egunak eta urteak markatzeko jarriak izan ziren eta, beraz, denbora neurri ditugun gorputzen aldizkako higidurek bereizten eta neurtzen ez dituzten iraupen infinitu horren atalei aplikatzen zaie; baina iraupen infinitu horren beste zatiak ere, hau da, edonoiz neurturiko denbora luzera jakin batzuen neurri bereko suposatzen ditugunak eta, horregatik, mugatuak eta zehaztuak kontsideratzen ditugunak ere, denbora hitzari ematen diogun zentzuaren barruan daude. Zeren, suposatzen badugu kreazioa edo aingeruen erorrera aldi juliotarraren hasieran izan zela, aski zehatz hitz eginen genuke eta ulertuko ligukete, esanen bagenu aingeruen kreaziotik munduaren kreaziora 7.640 urte iragan zirela. Markatu ere, bereizi gabeko iraupen horren luzera markatuko genuke, oraingo abiadura berean higituta eguzkiaren 7.640 urte-biraren iraupena bezalakoxea dela suposatu eta onartu baitugu. Eta batzuetan, era bertsuan, lekuaz, distantziaz edo bolumenaz hitz egiten dugu, *huts* handian, munduaren mugez haraindik, kontsideratzen dugunean espazio hori berdina dela edo esleitzen zaion dimentsioko gorputz bat, oin kubiko bat bezalakoa, hartzeko gauza dela; edo espazio horretan unibertsoaren edozein partetik distantzia jakin batera dagoen puntu bat suposatzen dugunean.

*8. Izaki finitu guztiei dagokie .*

*Non* eta *noiz* existentzia finitu guztiei dagokien galderak dira eta guk beti esplikatzen ditugu mundu sentigarri honen zenbait parte ezagunetan eta mundu honetan behagarri diren higidura batzuek markatzen dizkiguten zenbait alditan oinarrituta. Parte edo aldi finkatu horiek gabe, gauzen ordena galdua litzateke, gure adimen finituentzat behintzat, izaki finitu guztiak hartzen dituzten eta euren zabalera guztian jainkotasunari soilik dagozkion iraupenaren eta hedapenaren ozeano mugagabe aldaezinetan. Horregatik ez digu harridurarik sortarazi behar guk horiek ez ulertzeak eta sarritan geure pentsamenduetan galduta ibiltzeak horiek abstraktuki edo lehenengo Izaki ulertezinari

moduren batean iratxikita kontsideratzen ditugunean. Baina edozein gorputz partikular finituri aplikatzen zaionean, gorputz horren hedadura espazio infinitu horrena da, gorputzak betetzen duen bolumenarena adina. Eta lekua edozein gorputzen posizioa da beste gorputz batetik distantzia batera kontsideratzen dugunean. Eta edozein gauzaren iraupen partikularren ideia gauza horrek existitzen dirauen artean gertatzen den iraupen infinitu horren zatiaren ideia den bezala, gauza existitu zeneko denbora honako hau da, alegia, iraupen aldi jakin eta zehatz baten eta gauza horren izatearen artean iragandako iraupen tarte. Batak, adibidez, oin karratua den edo bi urtez jazo zen gauza beraren bolumenaren edo existentziaren ertzen arteko distantzia erakusten du; besteak gauza horrek lekuan edo existentzian espazioko edo iraupeneko beste puntu zehatz batzuetatik duen distantzia erakusten du, adibidez, Lincoln's Inn Fields-en erdi-erdian zegoela edo Tauroren lehen graduan eta gure Jaunaren 1671. urtean edo aro juliotarraren 1.000. urtean. Distantzia horiek guztiak, berriz, aurreiritzita-ko zenbait espazio eta iraupen luzeraren bidez neurtzen ditugu, hau da, hazbetez, miliaz, oinez eta graduz kasu batean eta minutuz, egunez, urtez eta abarrez bestean.

9. *Hedaduraren zati guztiak hedadura dira, eta iraupenaren zati guztiak iraupen dira.*

Beste gauza batean datoz guztiz ados espazioa eta iraupena, honexetan hara: biak arrazoiz gure ideia *bakunen* artean sailkatzen diren arren, hala ere, bata eta besteaz ditugun ideia bereizietatik bat bera ere ez da inolako osaketarik gabekoa. Beren izaeraren muinean dute biek zatiz osatuak izatea; baina zati guztiok mota berekoak direnez, ezerk ez die eragozten beren lekua ideia bakunen artean edukitzea. Gogamenak, zenbakiarekin pasatzen zaion bezala, zatigarritasuna ezinezko bihurtzeko moduko hedadura edo iraupen zati txikira heltzerik balu, zati *hori* nolabait esateko, unitate zatiezina litzateke, hura errepikatuz izanen genituzkeelarik hedadura eta iraupenaren ideia zabalagoak. Baina gogamenak, zatirik gabeko *ezein* espazioren ideiarik eratzeke gauza ez denez gero, herrialde bakoitzean arrunki erabiltzen direlako oroimenean markaturik dituen ohiko neurriak erabiltzen ditu (hala nola, hazbeteak eta oinak edo ukalondoak edo parasangak; edo segundu, minutu, egun eta urteak iraupenerako), ideia bakunak bailiran erabili ere; eta ideia zabalagoen osagaiak dira, gogamenak,

horretarako beta duenean, ohiko dituen luzera ezagunen eransketaz egiten baititu. Beste alde batetik, guk eduki ohi dugun bata eta bestearen unitate txikiena zenbaki unitatea balitz bezala ikusten dugu, gogamenak, luzera jakin horiek zatituz, zati txikiagoetara ekartzen dituenen. Nahiz eta kasu biotan, batuketan zein zatiketean, hala espazioan nola iraupenean, pentsagai den ideia oso handi edo oso txiki bihurtzen denean, haren bolumen zehatza oso ilun eta nahasi bilakatzten da, eta haren gehiketa eta zatiketa errepikatuen kopurua da argi eta bereizi geratzen de bakarra, bere pentsamenduei espazioaren hedapen izugarrian edo materiaren zatigarritasunean galtzen uzten dionari aise agertuko zaion moduan. Iraupenaren zati bakoitza ere iraupen da; eta hedaduraren zati bakoitza hedadura da, eta biak dira batugarri edo zatigarri *in infinitum*. Baina *gukide a argi eta ber eiziak eduki zeko moduko bataren x in bestearen x in txikiak* dirateke agian egokienak, espazioaz, hedaduraz eta iraupenaz ditugun modu konplexu horien osagai diren eta berriro beraietara murriz daitezkeen *idea bakuntzat* hartzeko. Iraupenaren horrelako zati txikiari *une* dei dakioke eta ideia batek, haien segida katean, gure gogamenean irauten duen denbora da. Besteari dagokionez ere, izen berezirik ez duenez gero, ez dakit *puntu sentig arri* bat deitu ahal izanen diodan, horren bidez bereizi ahal dugun materiaren edo espazioaren zatirik txikiena esan nahirik, normalean begia erdigune duen zirkulu baten minutu bat edo delarik, eta begirik zorrotzenarentzat hogeita hamar segundo baino gutxiago.

#### 10. *Bataren eta bestearen zatiak banaezinak dira.*

Hedapenak eta iraupenak, horrez gain, beste adostasun bat ere badute: biak zatiekin bururatzen ditugun arren, zatiok bata bestetik banaezinak direla pentsamenduan ere, nahiz eta bataren *neurriak* ateratzeko erabiltzen ditugun gorputzen zatiak eta bestearen neurria hartzeko erabiltzen dugun higiduraren, edo, hobeto esanda, gure gogameneko ideia segidaren zatiak eten eta bana daitezkeen; lehenengoa atsedenean gertatzen da maiz eta bigarrena loan, honi ere atsedena esaten diogularik.

#### 11. *Iraupena lerro bat bezalakoa da eta hedapena solido bat bezalakoa.*

Baina alde argia dago bion artean: hedapenaz ditugun luzera ideiak edozein norabidetan joan daitezke eta, era horretan, irudi bat

eta zabalera eta lodiera egin; iraupena, ordea, nolabait esateko, *in infinitum* hedagarri den eta anizkoitasunik, aldatzerik ez irudia hartzerik ez duen lerro zuzen baten luzera besterik ez da, existentzia ororen, edonolakoaren, neurri komuna baita, gauza guztiak, existitzen diren heinean, koallitate honetan era berean partaide direlarik. Izan ere, oraingo momentu hau orain izanean diren gauza guztiei komuna zaie eta beraien existentziaren atal hori era berean hartzen du, guztiak izaki bakar bera balira bezala, eta zinez esan dezakegu denak existitzen direla denboraren une *berean*. Aingeru eta espirituek hedapenari dagokionez honekin analogiarik duten ala ez, hori nire ulermenaren irispidetik at dago; eta agian guri, geure biziraupenerako eta geure izatearen xedeetarako adimen eta ulermen egokiak ditugunori, baina ez beste izaki guztien errealtate eta hedaerarako, ia-ia hain zail egiten zaigu nolanahiko hedapenaren erabateko ukapena datekeen edozein existentzia bururatzea edo horrelako edozein izaki errealean ideia bat edukitzea, nola egiten zaigun nolanahiko iraupenaren erabateko ukapena datekeen edozein existentzia errealean ideia bat edukitzea. Eta, horregatik, ez dakigu zer zerikusi duten espirituek espazioarekin edo nola komunikatzen diren beronekin. Dakigun guztia da gorputzek zeinek bere espazio zatia dutela, beren parte solidoen hedaeraren arabera eta, era horretan, beste gorputz guztiak espazio zati partikular horren partaide izatetik kanpo uzten dituzte, beraiek han dirauten artean.

## 12. *Iraupenak sekula ez ditu bi parte batera; hedapenak bai.*

*Iraupena*, eta beronen zati den *denbora*, distantzia *galkor* batez dugun ideia da, bi parte batera ez, baina hurrenez hurren elkarri segika dauzkana; eta *hedapena* distantzia *iraunkor*aren ideia da, parte guztiak batera dauzkana, segidan edukitzerik ez duelarik. Eta, beraz, iraupena segidarik gabe bururatzerik ez dugun arren, ezta gure pentsamenduan batzerik ere izaki bat *orain*-bihar existitzen dela edo aldi berean oraingo iraupen una baino gehiago daukala, hala ere, Ahalguztidunaren betiereko iraupena gizakiarenetik edo beste edozein izaki finiturenetik oso bestela burura dezakegu. Gizakiak bere ezagumenean edo ahalean iragandako eta etorkizun diren gauza guztiak hartzen ez dituelako, haren pentsamenduak atzokoari dagozkio eta ez daki zer ekarriko dion biharkoak. Behin iragana ezin du sekula berriro orainera ekarri; eta etorkizun dena ezin du presente egin. Gizakiaz

diodana izaki finitu guztiez diot; izan ere, hauek ezagutzen eta ahale-  
an gizakia gaindi dezaketen arren, kreatura miserableak besterik ez  
dira Jainkoarekin erkatuta. Finituak edo edozein magnitudek ez du  
inolako proportziorik infinituarekiko. Jainkoaren iraupen infinituak  
ezagutza infinitua eta ahal infinitua lagun dituenetz gero, hark gauza  
guztiak ikusten ditu, iragandakoak eta etorkizun direnak, eta ez daude  
haren ezagutzatik urrunago ez bistatik aldenduago orainaldia dagoen  
baino; haren begirada beraren pean daude denak eta ez dago ezer hark,  
nahi duen unean, izanarazi ez dezakeenik. Izan ere, gauza guztien  
existentzia haren gogoaren menpe dagoenez, gauza guztiak existitzen  
dira hark haiek existitzeari egoki deritzon unean. Amaitzeko: hedape-  
nak eta iraupenak elkar besarkatu eta hartzen dute, espzioaren zati  
bakoitza iraupenaren zati bakoitzean baitago, eta iraupenaren zati  
bakoitza hedapenaren zati bakoitzean. Ideia ezberdin biren horrelako  
konbinazioa nekez aurki daiteke, nik uste, guk bururatzen ditugun edo  
burura ditzakegun ideia ezberdin horien guztien artean, eta espekula-  
zio sakonagorako gaia eskain dezake.



# XVI. KAPITULUA

## Zenbakiaren ideia

### 1. *Zenbakia ideiarik bakunen eta unibertsalena da.*

Ditugun ideia guztien artean, *unitatea* baino era gehiagotan bat bera ere iradokitzen ez denez, ezein ere ez da unitatearen edo bataren ideia baino bakunagoa; ez du, ukan ere, barietate edo osaketa gerizarik ere bere baitan; gure sentimenek hautemangai duten objektu orok, gure adimenean dagoen ideia orok, gure gogamenaren pentsamendu orok dakarkigu ideia hori. Eta, horregatik, gure pentsamenduen barrenekoena dugu, eta, era berean, gauza guztiei dagokielako, *daukagun ideiarik unibertsalena ere badugu*. Izan ere, zenbakia gizakiei, aingeruei, egintzei, pentsamenduei aplikatzen zaie: existitzen den edo imajina daitekeen orori.

### 2. *Zenbakiaren moduak gehikuntzaz egiten dira.*

Gure gogamenetan ideia hori errepikatuz, eta errepikapenak gehituz, berorren moduen ideia konplexura heltzen gara. Horrela, bati bat gehituz parearen ideia konplexua lortzen dugu; hamabi unitate batuz dozenaren ideia konplexua daukagu; eta horrela hogeikoaren, milioiaren edo beste edozein zenbakiren ideia.

### 3. *Modu bakoitza bereizia da.*

*Zenbakiaren modu bakunak* gainerako guztien artean bereizienak dira, zeren aldaerarik txikienak, unitateak, egiten baitu konbinazio bakoitza hurren duenetik urrunetik bezain diferentea izatea, bi

zenbakia hain bereizia izanik batetik, nola berrehunetik, eta biren ideia hain bereizia hiruren ideiatik, nola lur guztiaren magnitudea bihi batenetik. Hau ez da gertatzen beste modu bakunetan, ez baitzaigu hain erraz, eta agian posible ere, gertatzen elkarren hurbileko ideia biren artean bereiztea, izatez diferenteak izan arren. Izan ere, nork esan dezake zer alde dagoen paper honen zuriaren eta hurrengo mailaren artean; edo nork eduki ditzake hedadurako gaindipen txiki guztien ideia bereiziak?

#### *4. Horregatik zenbakietako demostrazioa zehatzena da.*

Zenbakiaren modu bakoitzak beste guztietatik, hurbilen dituenetatik ere, duen argitasun eta bereizitasunak pentsatzera narama demostrazioak zenbakietan, hedaduran baino nabariago eta doiagoak ez badira ere, orokorragoak direla euren erabileran eta zehatzagoak euren aplikapenean. Izan ere, zenbakien ideiak zehatzago eta bereizgarriagoak dira, hedaduran baino, hemen ez baita erraz berdintasun eta gaindipen bakoitza hautematen eta neurtzen, gure pentsamenduak ezin direlako heldu espazioan unitatea bezalako txikiagotu ezinezko txikitasun batera; eta, horregatik, gaindipen txikien bakoitzaren kantitatea edo proportzioa atzematerik ez dago; zenbakiari dagokionez, ordea, hau argi dago, zeren zenbakietan, esan dugun moduan, 90 hain bereizgarria baita 91tik, nola 9000tik, 91 90en hurrengo gaindipena izan arren. Baina hori ez da horrela hedaduran, han hazbete edo oinbete juxtu baino gehixeago den oro ez baita bereizgarri hazbete edo oinbetearen eredutik; eta luzera bereko ematen duten lerroetan, bata bestea baino handiagoa izan daiteke zati neurtezinez; eta ez dago inor esan dezakeenik zein den angelu zuzena baino hurrengo handiagoa.

#### *5. Zenbakiek izenak behar dituzte.*

Unitatearen ideia errepikatuz eta beste unitate bati erantsiz, ideia kolektiboa egiten dugu, bi zenbakiak adierazten duena. Eta hau egin eta edozein zenbakiz izandako azken ideia kolektiboari unitate bat gehituz eta izena emanez segi dezakeenak, zenba dezake edo zenbait unitate-bildumen ideiak, bata bestetik bereiziak, eduki, honako hauek dituen heinean, alegia, izenen serie bat, segidako zenbakiei aplikatzeko, eta serie hori izen guztiekin atxikitzeko oroimena. Izan ere, zenbaketa oro unitate bat gehiago gehitzea besterik ez baita eta emaitza guztiari, ideia batean hartuta, izen edo zeinu berri edo ezberdina ematea, beronen bidez hura atzeko eta aurreko zenbakien arte-



an ezagutzeko eta unitate multzo txikiago edo handiago guztietatik bereizteko. Horrela, bati bat gehi diezaiokeena, eta era berean biri, eta bere kontuarekin aurrera egin, progresio bakoitzari dagokion izen guztiak aldean eramanez, eta horrela berriro, bilduma bakoitzari unitate bat kenduz, atzera egin eta txikiago egin ditzakeena, bere hizkuntzaren eremu barruan dauden edo izena jar diezaiekeen zenbakien ideiak edukitzeko gai izanen da. Izan ere, zenbakien modu bakun ezberdinak gure gogamenean beste hainbeste konbinazio besterik ez direnez, gehiago edo gutxiago izatea beste aldaerarik ez dutenak eta beste diferentziarik eduki ezin dutenak, badirudi konbinazio ezberdin bakoitzarentzako izenak edo zeinuak beste edozein ideiatan baino beharrezkoagoak direla. Izan ere, izen edo zeinu horiek gabe, nekez balia gaitezke zenbakiez kontuetan, batez ere konbinazioa unitate askok osaturikoa denean, konbinazio hau, bilduma hori bereizteko izenik edo zeinurik gabe bilduta, nekez izan bailiteke pilo nahasi bat besterik.

#### *6. Bestearrazi bat, zenbakiaren izenak jarri beharra oinarritzeko*

Horixe dela uste dut arrazoia mintzakide izan ditudan amerikar batzuek (nahikoa adimen azkar eta arrazoizkodunak bestela) milaraino ezin zenbatzea, guk egiten dugun moduan, eta zenbaki honen ideia bereizirik ez edukitzea esplikatzeko duena, hogeiraino ondo zenbatzeko gai izan arren. Izan ere, hizkuntza urria eta beren bizitza behartsu eta xumera doi-doi moldatua eta merkataritza eta matematimatikaren berririk gabekoa ukanik, ez zuten beren hizkuntzan 1000 adierazteko hitzik; horregatik, haiekin zenbaki handi horiez mintzatu nintzenean, buruko ileak seinalatzen zizkidaten, zenbakirik jarri ezin zizkieten askotzak adierazteko; eta ezin hau uste dut izenik ez edukitzetik datorrela. Tououpinanboek ez dute izenik 5etik gorako zenbakientzat; horatik gorako zenbakiak beren atzamarrak eta beren ingurukoena era kutsiz adierazten zituzten. Eta zalantzarik ez dut, guk geuk ere, erabiltzen ditugun baino asko zenbaki handiagoak izenda ditzakegula hitz bereiziez, baldin hitz egokirik aurkituko bagenu zenbakiok adierazteko, orain daukagun eran egin beharrean, hau da, milioien eta milioi milioien bidez, e.a., horrela nekez zenba baitaitateke nahasi gabe hamazortzi edo gehien ere hogeita lau progresio dezimaletik gora. Baina izen bereiziek noraino garamatzaten ongi kontatzera edo zenbakien ideia baliagarriak edukitzera argi jartzeko, ikus ditzagun

hurrengo zenbaki guztiak lerro jarraikian, zenbaki bakarraren zeinuak balira bezala:

Nonilioiak	Oktilioiak	Septilioiak	Sextilioiak	Kintilioiak
857324	162486	345896	437918	423147
Kuatrilioiak	Trilioiak	Bilioiak	Milioiak	Unitateak
248106	235421	261734	368149	623137

Zenbaki hori ingelesez izendatzeko era normala *of milions, of milions, of milions, of milions, of milions, of milions, of milions*, (bigarren sei zifren izendapena dena) maiz errepikatzea litza-teke. Horretara zail izanen da zenbaki hori bereiztuko duen noziorik edukitzea. Baina sei zifrako bakoitzari izen berri eta ordenatu bat emanez, horiek eta agian beste zifra asko progresioan errazago zenbatu ahal izanen ez liratekeen eta euren ideiak guretzat errazago eta besteez ulertzeko argiago ez liratekeen, hori besten juzgamenara uzten dut. Hau zenbaketarako izen bereiziak zein beharrezko diren azaltzeko aipatu dut, neuk asmatuiko beste batzuk sartzen ibili gabe.

#### 7. Zergatik umeek ez duten lehenago zenbatzen.

Horrela haurrek, behin zenbaki-progresio ezberdinak seinala-tzeko izenik ez dutelako, behin ahalmenik ez dutelako oraindik ideia sakabanatuak konplexu batera biltzeko eta ordena erregularrean jarri eta horrela oroimenean atxikitzeko —zenbatzeko beharrezko dena berau—, arazoa da ez direla goiz hasten zenbakiekin eta ez dutela horretan azkar eta seguru aurrera egiten, harik eta denbora dexente iragan eta ideia pilo bat berenganatu arte; horregatik, ikus daiteke haurrek, hogeie esateko gai izan aurretik, beste gauza batzuei buruz ondo diskurritzen eta arrazoitzen dutela eta gauza horien ikusmolde oso garbiak dituztela. Eta batzuk, beren oroimenetako akatsengatik ezin atxiki dituztelarik zenbaki konbinazio ezberdinak euren progresio ordenan eta dagozkien izenekin, ezta zenbakien progresio hain luzean dauden elkarrekiko menpekotasunak eta erlazioak ere, ez dira gai euren bizitzaldi guztian zenbaki serie apal samar bat zenbatzeko edo erregularitasunaz jarraipena emateko. Izan ere, hogeiraino zenbatu edo zenbaki horren ideia bat eduki nahi duenak, aurretik hemeretzia doala jakin behar du eta aurreko zenbaki guztien izenak edo zeinuak ere ezagutu beharko ditu, dagozkien ordenan; zeren horrek huts emanez gero, hutsune bat sortzen da, katea apurtu egiten da eta ez dago zen-

baketan aurrera egiterik. Era horretan, behar bezala zenbatzeko honako hauek behar dira, gogamenak: 1) unitate bakar *baten* gehiketak edo kenketak ez bestek ezberdin egiten dituen bi ideia kontu handiz bereiztea eta 2) unitatetik zenbaki hartaraino dauden konbinazio guztien izenak edo zeinuak oroimenean atxikitzea, eta hau nahasmenduan eta inolako metodorik gabe barik, zenbakiak elkarren ondoren datozen ordena zehatzean egitea. Biotako batean errakuntzarik eginez gero, kontaduriako lan guztia lorrinduko da, eta askotzaren ideia lanbrotsua baino ez da geratuko eta zenbaketa bereizirako behar diren ideiak ez dira erdietsiko.

#### 8. *Zenbakiak neurgarri den oro neurtzen du.*

Beste zerbait ere hauteman daiteke zenbakian eta honako hau da, alegia, gogamenak zenbakiaz baliatzen dela guk neurt genitzakeen gauza guztiak neurtzeko, *hedapena* eta *iraupena* batik bat; eta infinitutasunaz dugun ideia, are aipaturiko kontzeptuoi aplikatzen diegunean, badirudi ez dela zenbakiaren infinitutasuna besterik. Betierekotasunaz eta neurtezintasunaz ditugun ideiak zer dira, izan ere, irudituriko iraupen eta hedapen zatien zenbait ideia eransketa errepikatua besterik, zenbakiaren infinitutasunaz egina, gehiketaren amaierara heltzerik ez dugularik? Izan ere, zenbakia da gure ideia guztien artean horrelako meta agortezinaz hornitzen gaituena, argiro hornitu ere, edonorentzat begi-bistakoa denez. Eta gizaki batek batuketa batera nahi duen adinako zenbakia batu arren, askotza honek ez dio fitsik ere kentzen gehiago eransten segitzeko ahalmenari eta ez du gizakia zenbakiaren meta agortezinaren azkenetik hurbilagora eramaten, zeren ezertxo ekarri ez balitz adina geratuko baita eranstea. Eta zenbakien amaigabeko *gehiketa* edo *gehigarritasun* hau (norbaitek berba hau gustukoago badu), hain agerikoa da gogamenarentzat non, nire ustez, infinitutasunaren ideiarik argien eta bereiziena demaigun. Hurrengo kapituluaz aztertuko dugu zabalago ideia hau.



## XVII. KAPITULUA

### Infinitutasunaz

1. *Infinitutasuna, bere jatorrizko joeran, espazioari, iraupena -  
ri eta zenbakiari iratxikitzen zaie.*

*Infinitutasuna* deitzen diogun ideia nolakoa den jakin nahi duenak ez du horretarako bide hoberik gogamenak erarik zuzenean zeri iratxikitzen dion infinitutasunaren ideia eta, gero, ideia hori nola eratzen duen konturatzea baino.

*Finitua* eta *infinitua* gogamenak, nire ustez, *kantitatearen modu* bezala ikusten ditu eta lehenengo eta behin, hitzaren lehen zentzuan, zatiak dituzten eta zati txikiagoren bat erantsiz edo kenduz hazi edo txikiago daitezkeen gauzei iratxikitzen die; eta horiek espazio, iraupen eta zenbakiaren ideiak dira, aurreko kapituluetan aztergai izan ditugunak. Egia da ezinbesteko ziurtasun osoz dakigula Jainko handia, gauza guztien jabe eta egilea dena, ulertezintasuneraino infinitua dela: baina, hala ere, geure pentsamendu ahul eta hertsietan, lehenengo eta gorengo Izaki horri infinitutasunaz dugun ideia aplikatzen diogunean, hau batik bat haren iraupen eta ubikuitateari begira egiten dugu, eta, uste dudanez, figuratibokiago haren ahal, jakituria, ontasun eta beste atributu batzuei begira, zehazki agortezin eta ulertezin, etab. direnak guztiok. Izan ere, *hauek* infinituak direla esaten dugunean, ez dugu berauen infinitutasunaren beste ideiarik Jainkoaren ahal, jakituria eta ontasunaren egintzen edo objektuen kopuru edo hedadurari buruzko nolabaiteko gogoeta

edo imitazioak berarekin dakarrena baino, inoiz ezin delarik suposatu zenbakiok atributu hauek gainditu eta pasa ahal izateko baino handiago edo gehiago direnik, gure pentsamenduetan amairik gabeko zenbakien infinitutasun guztiaz ahalik gehien biderkatu arren. Nik ez dut esan nahi nola dauden atributu horiek Jainkoaren, hori gure ahalmen mugatuaren irispidetik amaigabeki harago baitago; daitezkeen perfekzio guztiak dituzte, ukan, baina hau, diot, haiek bururatzeko geuk daukagun era da, eta hauek haren infinitutasunaz geuk dauzkagun ideiak.

## 2. *Finitutasunaren ideia aise erdiesten da.*

Gogamenak, finitua eta infinitua hedapenaren eta iraupenaren *aldaeratzat* hartzen dituenetz gero, kontsideratu behar dugun hurrengo puntua *gog amenak ideioek ea nola erdiesten dituen* da. Finitutasunaren ideia dagokionez ez dago zailtasun handirik. Gure sentimenetan eragina duten hedaduraren ageriko zatiek finituaren ideia dakarkigute gogamenera; eta denbora eta iraupena neurtzeko erabiltzen ditugun segidaren aldi ohikoak, hala nola, orduak, egunak eta urteak luzera mugatuak dira. Zailtasuna betierekotasun eta neurtezintasunaren *mugarik gabeko ideietara* nola iristen garen jakitean datza, gurekin harremanean diren objektuak handitasun harekin erkatuta edo hartara hurbiltzeko hain txikiak direnean.

## 3. *Infinitutasunaren ideia nola iristen garen.*

Edozein espazio-luzeraren ideia bat, oinbetearena, adibidez, daukan oro konturatzen da errepika dezakeela ideia hori, eta hura aurrekoari batuz bi oinen ideia egiten du, eta hirugarren bat gehituz, hiru oinena, eta horrelaxe nahi adina aldiz, gehiketari bukaerarik inoiz aurkitu gabe, eransten dena oinaren ideia bera edo, nahi badu, haren bikoitza, edo daukan beste edozein luzeraren ideia, hala nola, milia, lurraren diametro edo *orbisma gnus*-en ideia izan daitekeelarik; zeren, horietatik edozein hartuta eta hura nahi adina aldiz bikoiztu edo biderkatuta, aurkituko baitu ezen, bere pentsamenduetan bikoizketekin jarraitu eta bere ideia nahi adina handitu ondoren, ez duela hasi zenean baino geratzeko arrazoi gehiagorik eta orduan baino gehiketa horren bukaeratik hurbilago ez dagoela; eta, espazioaren ideia gehiketa berriez handitzeko ahalmena beti berbera denez, espazio infinituaren ideia ateratzen du hortik.

#### 4. Espazioaz daukagun ideia mugarik gabea da.

Horixe dela uste dut gogamenak espazio infinituaren *ideiara* heltzeko duen bidea. Baina bestelakoa da aztertzea ea gogamenak *egiazki existitzen* espazio mugagabearen ideia daukan ala ez, gure ideiak ez baitira beti gauzen existentziaren froga; baina arazo hau hemen bidera etorri zaigunez gero, esan nezake, *badugula pentsate* -rik espazioa, berez, mugarik gabea dela, hau suposatzerara era naturalean garamatzana espazioaren edo beronen hedapenaren ideia delarik. Izan ere, guk espazioa gorputzaren hedadura, edo ezein gai solidok bete gabe errealtatean existitzen den zerbait dela pentsatzen baitugu (espazio huts horretaz, guk ideia daukagula ez ezik, nahitaez existitzen dela ere frogatu dudala uste dut, gorputzen higiduratik hain zuzen), ezinezko gertatzen da gogamenak hari amaiera aurkitu edo suposatzea, edo espazio honetan hark aurrera eta aurrera egitean ezerk ere geraraztea, bere pentsamenduak luzeen hedatu arren. Gorputzekin egindako muga orok, diamantezko horma izanda ere, gogamenak espazio eta hedaduran egindako aurrerabidea gerarazi beharrean, erraztu eta luzatu egiten du. Zeren, gorputza noraino, haraxeraino heltzen dela hedadura inork ezin du dudarik egin; eta gorputzaren azken muturreraino heltzen garenean, zer egon daiteke han gogamena gerarazi eta espazioaren amaierara heldu dela sinestarazteko, gogamena ohartzen denean hori ez dela horrela, hau da, konturatzen denean gorputza bera higi daitekeela espazio horretan? Zeren, baldin gorputz bat higitzeko, gorputzen artean, txikia izan arren espazio huts bat izatea beharrezko bada, eta baldin gorputzak espazio huts honetan zehar higitzerik baldin badu, hau da, edozein materi partikularentzat espazio huts batean izan ezik higitzea ezinezko bada, orduan argi eta garbi dago posibilitate berdina dagoela gorputz bat espazio huts batean gorputzen mugez haraindik higitzeko zein gorputzen artean banaturik dagoen espazio hutsean higitzeko, espazio huts garbiaren ideia berbera baita gorputz guztien mugez handik zein hemendik, diferenteak izaeran barik bolumenean direlarik eta, beraz, ezerk ezin diolarik gorputzari han higitzea galarazi. Horretara, edozein pentsamenduren bidez gogamenak, nonahi, dela gorputzen artean, dela haietatik urrun, jartzen delarik, ezin du, espazioaren ideia uniforme honetan, inon ere inolako mugarik, amaierarik aurkitu, eta nahitaez konkluditu behar du, espazioaren atal bakoitzaren izaera eta ideia berarengatik, egiazki infinitua dela.

### 5. Gauza bera esan behar da iraupenaz.

Espazioaren ideia nahi dugun beste aldiz errepikatzeko daukagun ahalmenaren bidez *neurtezintasunaren* ideia erdiesten dugun bezala, halaxe, edozein iraupen luzera errepikatzeko gogamenetan daukagun gaitasunaren bidez, zenbakien gehiketa amaigabearen bitartez, *betierekotasunaren* ideia geuganatzen dugu. Izan ere, geure esperimentzian aurkitzen dugu ez dugula ideion errepikaketan amaierara heltzerik, zenbakietan amaierara heltzerik ez dugun bezalaxe, mundu guztiak hautematen duen heldu ezina berau. Baina hemen ere beste auzi bat dago guk betierekotasunaren *ideia* eduki ahal izatetik oso diferentea dena, hauxe hara: betiereko iraupena izan duen *izaki errealik* dagoen ala ez jakitea. Eta honi dagokionez, nik diot orain zerbait existitzen dela pentatzen duenak betiereko Zerbaiten existentziara heldu beharra duela. Baina, honi buruz beste leku batean hitz egin dudanez gero, ez dut hemen horretaz ezer gehiago esanen, eta infinitutasunaz dugun ideiarik buruz beste gogorapen batzuk egingen ditut.

### 6. Beste ideia batzuek zergatik ezin duten infinitutasuna ukan.

Egia baldin bada infinitutasunaren ideia geure baitan hautematen dugun geure ideiak amairik gabe errepikatzeko ahalmenaren bidez erdiesten dugula, norbaitek galde dezake zergatik ez diegun iratxikitzen infinitutasuna beste ideia batzuei, espazioaren eta iraupenarenei iratxikitzen diegun bezala, besteak bezain erraz eta maiz errepikatu ahal ditugunez gero; eta, hala ere, inork ez du inoiz pentsatzen gozotasun infinituan edo zurtasun infinituan, gozo eta zuriaren ideia yarda edo egunaren ideia bezain maiz errepika dezakeen arren. Honi erantzuten diot esanez zatiak dituztela uste izanik zati berdin edo txikiagoak erantsiz hazteko gai diren ideia guztiek, errepikapenez, infinitutasunaren ideia eskaintzen digute; amaigabeko errepikapen honen bidez etengabeko handitzea lortzen baita, amairik ukan *ezin dezakeena*. Baina beste ideietan hori ez da horrela. Zeren, orain dudan hedaduraren edo iraupenaren ideiarik handienari atalik txikiena gehitzen badiot, horrek gehikuntza dakar; baina zurtasun zurienaz daukadan ideiarik perfektuenari zurtasun berdineko edo txikiagoko bat gehitzen badiot (eta hau daukadana baino zurtasun handiagoko ideiarik gehitu ezin diodalako), ez da gehikuntzarik gertatzen, eta ezertan ez da hazten nire ideia; eta, horregatik, zurtasunaren eta holakoen ideia ezberdinei mailak deritze. Izan ere, atalez osaturiko ideiak handiago dai-



tezke atalik txikiena eransten zaien bakoitzean; baina atzo elur pilo batek ekarritako zurtasunaren ideia eta gaur ikusitako beste elur pilo baten zurtasunarena badauzkagu eta ideia biok gogamenean elkartzen baditugu, gorpuztu egiten dira, horrela esatearren, eta bat egiten dute, eta zurtasunaren ideia ez da inola ere handiagotzen; eta zurtasun maila handiagoari txikiagoa gehitzen badiogu hazi ez, baina txikiagotu egiten da. Atalez osatuak ez diren ideiak ezin dira gizakiek nahi duten adina hazi, ezta haien sentimenek jasorikotik harago luzatu ere. Baina espazioa, iraupena eta zenbakia errepikapenaren bidez haz daitezkeenez, gogamenean amaigabeko lekua uzten dute gehiago hazteko; eta ezin da bururatu eransketa edo progresioa gerarazteko gai den ezer; eta horrela ideia horiexek *bakarrik* eramaten dute gure gogamena infinitutasunaren pentsamendura.

#### 7. *Espazioaren infinitutasunaren eta espazio infinituaren artean dagoen aldea.*

Nahiz eta infinitutasunaz daukagun ideia kantitatea ikustetik eta gogamenak kantitatean, nahi dituen adina zati behin eta berriz gehituz, egin dezakeen gehikuntza amaigabetik sortzen den, hala ere, ohartzen naiz nahasmendu handia sortzen dugula geure pentsamenduetan infinitutasuna gogamenean eduki uste dugun edozein kantitate suposaturi batzen diogunean eta, era horretan, kantitate infinitu bati buruz espazio infinituari edo iraupen infinituari buruz bezala eztabaibatu edo arrazoitzen dugunean. Zeren, infinitutasunaz dugun ideia, uste dudanez, *amaigabe hazten ari den ideia* denez, eta gogamenak edozein kantitatez duen ideia, ordea, une horretan ideia horretan bukatzen denez, (denik handiena izanik ere, ezin baita den baino handiagoa izan), ideia horri infinitutasuna batzea, hazten ari den kantitate bati neurri finko bat doitzea litzateke; eta horregatik uste dut ez dela alferreko mehekerietan ibiltzea esatea arreta handiz bereizi behar dugula espazioaren infinitutasunaren ideia eta espazio infinituaren ideia. Lehenengoa gogamenaren amaigabeko progresio suposatu bat besterik ez da, nahi dituen espazio ideiak errepikatuz egiten duena; gogamenean espazio infinituaren ideia aktualki edukitzeak, ordea, suposatzen du gogamena *amairik gabeko* errepikapenak guztiz sekula irudika ezin diezaiokeen espazioaren ideia errepikatu guztietan zehar pasa dela eta *haien guztien* ikuspena aktualki duela, honek kontraesan bat daukalarik bere baitan.

## 8. Ez daukagu espazio infinituaren ideiarik.

Argiago gertatuko da agian hau zenbakietan ikusita. Zenbakien infinitutasuna aise agertzen zaio honetan pentsatzen duen edonori, edonork ikusten baitu zenbakiak gehiketaz bukaerara sekula heldu gabe haz daitezkeela. Baina, zenbakiaren infinitutasunaren ideia hau oso argia den arren, ezer ere ez da nabariagoa zenbaki infinitu baten ideia aktualaren absurdua baino. Edozein espazio, iraupen edo zenbakiri buruz ditugun ideia positiboak, direnak direla, handienak izanda ere, finituak dira hala ere; baina geldikin agortezin bat, muga oro kentzen dioguna eta bertan gogamenak, ideia sekula erabat osatu gabe, pentsamenduaren progresio amaigabea egiteko zelaia aurkitzen duena, suposatzen dugunean, orduan infinitutasunaren ideia erdiesten dugu. Eta ideia honek amaiaren ukapena baino kontuan hartzen ez dugunean nahikoa argia dirudien arren, hala ere, geure gogamenean espazio edo iraupen infinituaren ideia eratzen saiatzen garenean, oso iluna eta nahasia da, zati bi oso ezberdinek, inkontsistenteak ez badira, osaturik dagoelako. Zeren, demagun gizaki batek bere gogamenean edozein espazio edo zenbakiren ideia bat, nahi den handiena, eratzten duela; bistakoa da gogamena ideia horretan geratu eta bere lana bukatu egiten duela, hau infinitutasunaren ideia kontrakoa delarik, *infinitutasuna amaigabekoa suposatzen den progresioan datzalako*. Beraz, uste dut horrexegatik nahasten garela hain aise, espazio edo iraupen infinituez eta horrelakoez ari garenean. Zeren, horrelako ideia atalak, izatez diren moduan inkontsistenteak direla hautematen ez denez, alde batak edo besteak txunditu egiten du, beste aldetik edozein ondorio aterata ere, aurrera egiten ez den higiduraren ideiak horrelako ideia bidez argudiatuko lukeen edonor txundituta utziko lukeen moduan, hau ez litzatekeelarik atsedenean dagoen higidura baino asko hobea. Eta uste dut bat dela espazioaren edo (berdina dena) zenbaki infinituaren ideia, hau da, gogamenak errealki daukan eta bere lana bertan bukatuz horrelaxe ikusten duen espazioaren edo zenbakiarena, eta beste bat amaigabeko handitze eta progresioan diharduelarik gogamenak pentsamenduan atzeman ezin duen espazio edo zenbakiaren ideia. Zeren, handiena izanik ere nik gogamenean daukadan espazioaren ideia, ez da daukadan unean den baino handiagoa, hurrengo unean hura bikoizteko eta horrelaxe *in infinitum* segitzeko gai naizen arren; zeren infinitua mugarik ez daukana bakarrik da eta

hau infinitutasunaren ideia da, non gure pentsamenduek ezin duten inolako mugarik topatu.

9. *Zenbakiak eskaintzen ditugun infinitutasunaren ideiarik argiena.*

Baina beste ideia guztien artean zenbakia da, esan dudan moduan, eratu ahal dugun infinitutasunaren ideiarik argi eta garbiena dakarkiguna. Zeren, espazioan eta iraupenean ere, gogamena, infinitutasunaren ideia bilatzen duenean, zenbakien ideiez eta errepikapenez baliatzen da, milioi miliak edo urteak erabiliz, beste hainbeste ideia bereizi direlarik zenbakiak apartatzen dituenak gogamenaren galbide izanen den moltzo nahasi bat izatetik; eta espazio edo iraupen magnitude ezagunetan nahi adina milioi batu ditueanean, erdiets dezakeen infinitutasunaren ideiarik argiena amairik gabe gehi daitezkeen zenbakien geldikin ulergaitza da, inolako geratu beharrik edo muga kutsurik erakusten ez duena.

10. *Zenbakiaren infinitutasunaz ditugun ikusmolde ezberdinak iraupenaren eta hedapenarenekin kontrastatuak.*

Bada gauza bat, infinitutasunaz dugun ideiarako agian argi apur bat gehiago emanen diguna eta *zenbakiaren infinitutasuna beste-rik ez dela*, gogamenean ideia bereiziz irudikaturik ditugun zenbait *atal ezberdin*etara aplikatuta, deskubrituko diguna, eta gauza hori hauxe aintzat hartzea da, zenbakiak oro har ez ditugula pentsatzen infinituak bailiran, iraupena eta hedadura, ordea, horrelaxe pentsatzen ditugun artean; eta honen arrazoiak hauxe da, alegia, zenbakian, nolabait esateko, azken amai bat daukagula; zenbakian unitatea baino *txikiagorik* ez dagoenez, han geratu egiten gara eta amaiera aurkitzen dugu; baina zenbakiaren gehitzean edo haztean ezin dugu mugarik jarri; eta hau lerro bat bezalakoa da, mutur bat geure artean geratzen zaion eta bestea imajina dezakeguna baino urrunago luzatzen zaion lerro bat bezalakoa. Baina espazioan eta iraupenean bestela gertatzen da. Zeren iraupenean, zenbakiaren lerroa mutur *bietatik* luzera bururazekin, mugagabe eta amaigabearen hedatuko balitz bezala bururatzen baitugu, hau argi agertzen zaiolarik betierekotasuna nola bururatzen duen pentsatzen duen edonori, horrelakoak, iruditzen dudanez, aurkituko baitu zenbakiaren infinitutasuna alde bietara eramatea besterik ez dela, hau da, *a parte ante* eta *a parte post*, esaten den moduan. Zeren, betierekotasuna *a parte ante* kontsideratu nahi dugunena, zer egiten dugu geugandik eta bizi garen garaitik hasita iragandako urte-

ak, aroak edo beste edozein iraupen zati esleigarri errepikatu besterik, eransketa horretan zenbakiaren infinitutasun guztian aurrera egiteko perspektibaz? Eta betierekotasuna *a parte post* kontsideratu nahi dugunenean ere, geugadik hasten gara era berean, eta etorkizun diren aldiak kontatzen ditugu, zenbakiak aurreko kasuan bezalaxe hedatuz. Eta biok batuta, *betierekotasuna* deitzen diogun iraupen infinitua egi-ten dute: aurrera zein atzera begiraturik infinitu agertzen dena, nora-bide batera eta bestera zenbakiaren mutur infinitua, hau da, oraindik gehiago gehitzeko ahalmena, hedatzen dugulako.

#### 11. *Espazioaren infinitutasuna nola bururatzen dugun.*

Gauza bera gertatzen da espazioari dagokionez ere, zeren hemen, geure burua erdi-erdian dagoen gorpuztat hartuz, hortik zenbakiaren lerro mugagabeak marraz baititzakegu alde guztietara; eta geugandik hasita yarda bat, milia bat, lurraren diametroa edo *orbis magnus*-a kalkulatz, zenbakiaren infinitutasunaz beste batzuk gehitzen dizkiegu nahi adina aldiz. Eta ideia errepikatu horiei zenbakiei baino muga gehiagorik jartzeko arrazoirik ez dugunez, neurtezintasunaren ideia mugagabea erdiesten dugu.

#### 12. *Zatigarritasun infinitua.*

Eta edozein materi masatan gure pentsamenduek azken zatigarritasuneraino iristerik ez dutenez, honetan ere infinitutasun nabaria dago guretzat, zenbakiaren infinitutasunak ere baduena, baina alde honexekin: espazioaren eta iraupenaren aurreragoko gogarpenean, zenbakien batuketa baino ez dugula erabili, orain, ordea, unitate bat bere zatietan zatitutuko bagenu bezala den artean, hemen ere gogamenak *in infinitum* jo dezakeelarik, aurreko batuketan bezalaxe, kontua ez baita beti ere zenbaki berriak gehitzea besterik. Eta lehenengo gehiketan ezin dugu eduki espazio amaigabeki handiaren ideia *positi-boa*, bigarrenean gorputz amaigabeko txikiaren ideia positiboa eduki dezakegun baino gehiago, zeren infinituaz dugun ideia, nolabait esateko, hazten edo iheska doan ideia baita, beti ere mugarik gabeko progresioan doana, inon geratzerik ez duelarik.

#### 13. *Infinitutasunaren ideia positiborik ez daukagu.*

Zail dela uste dudan arren inor aurkitzerik, zenbaki errealki infinituaren ideia *positiboa* duela esateko bezain zentzugaberik, infinitutasuna honexetan bestetan ez baitatza, alegia, aurreko zenbaki bati

nahi adina unitate konbinazio erantsi ahal izatean nahi bezain luzaro eta nahi adina aldiz, gauza bera gertatzen delarik espazioaren eta iraupenaren infinitutasunean ere, hemen ere adimenak amairik gabe gehi-  
ketak egiteko ahalmena baitauka, hala ere, badira uste dutenak espazio eta iraupen infinituaren ideia positiboak dituztela. Aski litzateke, uste dut, infinituaren ideia hori suntsitzeko, horrelakorik daukanari galdetzea ea zerbait gehiagorik erantsi diezaiokeen ala ez, honek argi utziko lukeelarik, aise utzi ere, ideia positibo horretan dagoen errakuntza. Uste dut ezin dugula espazio edo iraupenaren inolako ideia positiborik eduki, oin edo yarda, edo egun edo urte kopuru errepikatu batez osatua eta elkarneurgarria dena, berauok baitira gogamenean ditugun ohiko neurriak, berauon bidez ebazten dugularik mota horretako kopuruek duten magnitudea. Eta, horregatik, espazioaren edo iraupenaren ideia infinitua nahitaez zati infinituz osatua izan behar duenez, ezin du beste infinitutasunik ukan, oraindik ere beste gehi-  
ta bat beti *egin dakioken* zenbakiarena ez bada; eta inoiz ere ezin du ukan zenbaki infinitu baten benetako ideia aktuala. Zeren begi-bistakoa dela uste baitu gauza finituak (ideia positibo gogamenean irudikatzen ditugun luzera guztiak diren modukoak) elkarri gehitzeak ezin duela inoiz sortarazi infinitutasunaren ideia, zenbakiak egiten duen moduan izan ezean, ideia hau, unitate finituak elkarri eranstea datzanez, infinitutasunaren ideia oraindik ere batura gehitzeko eta mota bereko gehiago gehitzeko ahalmena daukagula konturatzen garelako baino iradokitzen ez duelarik, progresio horren amaierara fitsik ere hurbildu gabe.

14. *Nola ezin dugun eduki kantitatean infinitutasunaren ideia positiborik.*

Beren infinituaren ideia positiboa dela frogatu nahian dabiltzanak argudio xeblebre batez, amaiera ukatzetik ateratakoaz, baliatzen direla iruditzen zait. Gorputz baten amaiera gorputz horren ertza edo azalera dela uste duena ez da agian ausartuko esatera amaiera ez dela negatiboa besterik eta bere lumaren amaiera zuria edo beltza haute-maten duena amaiera ukazio hutsa baino zerbait gehiago dela pentsatzera iritsiko da agian. Eta amaiera, iraupenari aplikatzen zaionean, existentziaren ukazio hutsa ere ez da, existentziaren azken momentua baizik, zehazkiago mintzatuta. Baina amaiera existentziaren ukazio hutsa baino ez izatea nahi badute, ziur nago ezin ukatu dutela hasiera

izakiaren lehen liparra dela eta inork ez duela bururatzen ukazio hutsa denik eta, haien euren argudioaren indarrez, betierekotasunaren ideia, *a parte ante*, edo hasierarik gabeko iraupenarena, ideia negatiboa besterik ez da.

15. *Zer den positiboa eta zer negatiboa infinitutasunaz dugun ideian.*

Infinituaren ideiak, aitor dut, zerbait positiboa dauka aplikatzen diogun gauza orotan. Espazio edo iraupen infinituaz pentsatu nahi dugunean, lehenengotan ideia oso handia eratu ohi dugu, milioika aro edo miliaren ideia agian, eta gero, baliteke, bi edo hiru biderkatu egiten dugu hainbat aldiz. Era horretan gure pentsamenduetan batzen dugun guztia positiboa da, eta espazioaren edo iraupenaren ideia asko eta askoren bilketa da. Baina hemendik harago gelditzen denaz ez dugu ideia positibo eta bereizi handiagorik, marinel batek, zundaren zati handi bat erriatu ondoren hondorik jo ez duenean, itsasoaren sakoneraz duena baino. Era honetan, badaki sakonera honen beste brazakoa dela, eta gehiagokoa, baina zenbat gehiago geratzen den, horretaz ez du inolako nozio bereizirik. Eta bere zunda amairik gabe luzatu ahal balu eta beruna, inoiz ere geratu gabe, beti hondorago eta hondorago doala egiaztatuko balu, infinitutasunaren ideia oso eta positiboaren bila ari den gogamenaren egoera bertsuan aurkituko litzateke. Eta kasu horretan txikotak hamar braza edo hamar mila braza edukitzea berdin dio handik harago dagoena deskubritzeko, horrek ez baitu ideia lanbrotsu eta konparatibo hauxe besterik ematen: hori dena ez dela eta aurrerago jo daitekeela. Gogamenak burura dezakeen espazio guztiaren ideia positiboa dauka; baina espazioa infinitu egiten ahalegintzean —espazioa beti luzeagotzen denez, beti aurrera egiten duenez— ideia beti ere hobagarria eta ezosoa da. Gogamenak espazioaren handitasuna kontenplatzean burura dezakeen espazio guztia irudi argi eta positibo bat da adimenean, baina infinitua are handiagoa da. 1) Orduan, *zenbaten* ideia positiboa eta argia da. 2) Zerbait *handiagore*aren ideia ere argia da, baina konparaziozko ideia baino ez da. 3) *Ezin ulertzeraino handia den zerbaiten* ideia, argiro negatiboa da, ez positiboa. Izan ere, hedadura baten luzeraren ideia argi eta positiborik ez daukanak (hauxe delarik infinituaren ideian bilatzen dena), haren dimentsioaren ideia orohartzailerik ez du eta inork ez du, nire ustez, pretendituko infinituaren horrelako ideiarik

edukitzerik. Izan ere, batek, tamaina jakin gabe, edozein kantitaterean ideia argi eta positiboa duela esatea, hondartzan zenbat hare garau dagoen ez, baina hogeit baina gehiago badirela dakienak beste hau esatea bezain arrazoizkoa da, alegia, hondartzako hare garau kopuru horren ideia argi eta positiboa daukala. Izan ere, harexena bezain ideia perfektu eta positiboa da espazio edo iraupen infinituaz daukana, berak ideia positiboz burura dezakeen hamar, ehun, mila edo nahi adina milia edo urteko hedadura edo iraupena baino *handiagoa dela diotenak*; hauxe da, uste dut nik, infinituaz dugun ideia guztia. Horretara, gure ideia positibotik harago *infiniturantz* dagoena, iluntasunean datza, eta ideia negatibo baten lausotasun zehazgabea dauka, eta hemen ikusten dut ezin dezakedala ulertu nahi nukeen guztia, handiegia delako gurea bezalako ahalmen finitu eta laburrarentzat. Eta ezin daiteke, hurrik eman ere, inolako ideia positibo osoa izan, ulertu nahi nukeenetik zatirik handiena kanpo utzi beharra daukadanean, oraindik handiagoa dela erdiesaten ari zaidan iradokizun zehazgabe baten eraginez. Izan ere, kantitate bat neurtu ondoren edo puntu bateraino aurrera egin ondoren, oraindik azkenera ez garela iritsi esatea, kantitate hori handiagoa dela esatea besterik ez da. Horretara, edozein kantitatetan amaiera ukatzea, beste hitz batzuek kantitate hori handiagoa dela esatea besterik ez da; eta amaiera zeharo ukatzea, «are handiago» hori kantitatean gure pentsamenduek egin dezaketenguek progresio guztietara eramatea eta *are handiagoaren ideia* hori kantitateaz ditugun edo eduki ditzakegun ideia guztiei gehitzea da. Orain bada, horrelako ideia positiboa den ala ez, nork berak ebazteko uzten dut.

#### 16. *Iraupen infinituaren ideia positiborik ez daukagu.*

Betierekotsunaren ideia positiboa daukatela diotenei galdetzen diet ea iraupenaz duten ideiak segida barne hartzen duen ala ez. Barne hartzen ez badu, esan behar lukete zer alde dagoen iraupenaz duten ideian, Izaki betiereko bati aplikatzen diotenean eta izaki finitu bati aplikatuta; zeren, nire moduan agian beste pertsona batzuk ere izanen dira, puntu honetan duten adimen-ahultasuna aitortu ondoren, agertuko dietenak iraupenaz duten nozioak honako hau uste izatera daramatzala, alegia, iraupena duen edozertan jarraikitasuna luzeagoa dela gaur, atzo baino. Kanpoko existentzian segida ekiditeko eskolen *punctum stans*-era bihurtzen badira, pentsatzen dut, alde batetik, ez dutela gai honetan asko aurreratu eta, bestetik, laguntza handirik ez dakarki-

gutela iraupen infinituaren ideia argiago eta positiboagoa edukitzeko, ezer ez baita niretzat bururarezinago segidarik gabeko iraupena baino. Gainera, *punctum stans* horri, ezertariko esangurarik badu, *quantum* ez denez, ez dagokio finitua edo infinitua. Baina gure atzemate ahulak segida nolanahiko iraupenetik banandu ezin badu, betierekotasunaz daukagun ideia hauxe besterik ezin izan daiteke: «*iraupen uneen segida infinitua, non gauza guztiak existitzen diren*»; eta norbaitek zenbaki infinitu aktualaren ideia positiborik daukan edo ukan ote dezakeen, hori berak pentsatzeko uzten dut, harik eta bere zenbaki infinitu hori berak ezer gehiagorik gehitu ezin izateraino handitu arte; baina zenbaki hori hazterik daukan bitartean, zalantzatzen jartzen dut berak ere ez ote duen pentsatuko daukan ideia eskasegia dela infinitutasun positiboa izateko.

#### 17. *Izaki Betierekoaren ideia osorik ez daukagu.*

Bere existentzia edo beste edozeinarena aintzat harturik azterketa egiten duen ororentzat ekidinezina dela uste dut hasierarik gabeko Izaki betiereko eta jakitun baten nozioa edukitzea; eta ni ziur nago badaukadala iraupen infinituaren horrelako ideia bat. Baina hasieraren ukazio honek, gauza positibo baten ukazioa besterik ez delarik, nekez ematen dit infinitutasunaren ideia positiborik; eta aitor dut, horretara heltzen ahalegintzen naizen guztian, galduta aurkitzen naizela eta egiaztatzen dudala ez naizela gai horren ulerkuntza argirik erdiesteko.

#### 18. *Espazioaren ideia positiborik ez daukagu.*

Espazio infinituaren ideia positiboa daukala uste duenak, horren inguruan pentsatzen duenean, aurkitzen du espaziorik handienaren ideia positiborik ezin eduki lezakeela, espazio txikienarena daukan baino gehiago. Zeren azken honetan, bietan errazena eta gure ulermenaren neurrikoagoa dirudiena berau, txikitasunaren ideia konparatiboa edukitzeko baino ez gara gai, beti izanen delarik ideia positiboz atzematen dugun gauza baino txikiagoa. Edozein kuantitatez dauzkagun ideia *positiboek*, txikiak zein handiak izan, mugak dituzte beti, gure ideia *konparatiboak*, ordea, beronen bidez batari zerbait erants eta besteari zerbait ken diezaiokegularik, mugarik ez duen artean. Zeren daukagun ideia positibo honen barruan geratzen ez dena, handia zein txikia, iluntasunean dago, eta guk haietaz ez dugu beste ideiarik, *etengabe* bata luzatzeko eta bestea laburtzeko ahalmena



baino. Mortairu batek matematikari baten pentsamendurik zorrotzenak bezain azkar ekar dezake zatiezintasunera materi partikula bat; eta era berebean da litekeena lur-neurtzaile batek espazio infinitua neurtea zein filosofo batek bere gogamenaren hegaldirik azkarrenaz hura erdiestea eta hartan pentsatuz ulertzea, horixe delarik haren ideia positiboa edukitzea. Hazbeteko diametroa duen kubo bat iruditzen duenak haren ideia argi eta positiboa du bere gogamenean eta erdira, laurdena, zortzirenera ekar lezake, oso txikia den zerbaiten ideia eduki arte; baina, hala ere, ez da iristen zatiketak sortaraz dezakeen tixkitasun ulertezinaren ideia edukitzera. Txikitasunetik geratzen dena hasi zenean bezain urrun dago bere pentsamenduetatik; eta, beraz, sekula ez du inola ere lortuko zatigarritasun infinituaren ondorio den txikitasunaren ideia argi eta positiboa edukitzea.

19. *Zer den positiboa eta zer negatiboa infinitutasunaz dauka -gun ideian.*

Infinitutasunera begira paratzen den orok, hasieran, esan dudan bezala, berau aplikatzen zaionaren, dela espazioa dela iraupena, ideia oso handia eratzen du; eta baliteke gero lehen ideia handi hori bere pentsamenduak nekatzeraino biderkatzen jardutea; hala ere, infinitu positiboa egiteko falta denaz ideia positiboagorik ez du edukiko, harako baserritar hark bera zegoen erreka kanalera etorkizun eta iragankizun zen uraz zeukana baino:

Rusticus expectat dum defluat amnis, at ille

Labitur, eta labetur in omne volubilis aevum

20. *Batzuek uste dute badaukatela betierekotasunaren ideia positiboa, baina ez espazio infinituarena.*

Ezagutu ditudan batzuek hain alde handia aurkitzen dute iraupen infinituaren eta espazio infinituaren artean, non konbentziturik dauden badaukatela betierekotasunaren ideia positiboa, baina ez dutela, eta eduki ere ezin dutela, espazio infinituaren ideiarik. Errakuntza horren arrazoia haxe dela uste dut: kausa eta ondorioak behar bezala aztertuz aurkitu dute Betiereko Izaki bat onartu beharra dagoela, eta, horretara, Izaki horren existentzia erreala beraiek betierekotasunaz duten ideiarekin elkarneurgarri egitearen beharra; espazioari dagokionez, ordea, beharrezko barik, itxuraz absurdu aurkitzen dutenez gorputza infinitua izatea, aise konkludi-

tzen dute ezin dutela espazio infinituaren ideiarik ukan, materia ifinituaren ideiarik ukan ezin dutelako. Ondorio hau, nik uste dut, oso gaizki aterata dago, materia existitzea ez baita inola ere beharrezko espazioa existi dadin, higiduraren edo eguzkiaren existentzia iraupenerako beharrezko den baino gehiago, iraupena neurtzeko erabiltzen diren arren. Eta zalantzarik ez dut gizaki batek hamar milia karraturen ideia eduki dezakeela, horren gorputz handiarena eduki gabe, hamar mila urteren ideia eduki dezakeen bezala, hain gorputz zaharrean pentsatu gabe. Gorputzez hutsik dagoen espazio baten ideia edukitzeari, bihirik gabeko *bushel* (\*1) batean (edo mamirik gabeko intxaurr-azalean pentsatzeari bezain erraz deritzot, ez baita beharrezkoagoa gorputz solido amaigabeko hedatua existitzea, espazioaren infinitutasunaren ideia daukagulako, mundua betierekoa izatea baino, iraupen infinituaren ideia daukagulako. Eta zergatik pentsatu behar dugu espazio infinituaz daukagun ideiak materiaren existentzia erreala behar duela gure ideiaren euskarri izateko, etorkizun den iraupen infinituaz iragandako iraupen infinituaz bezain ideia argia daukagula egiaztatzen dugunean? Eta hori, nahiz eta nik suposatzen dudan inork ez duela uste burura daitekeenik etorkizun den iraupen horretan ezer existitzen dela edo existitu dela. Eta etorkizuneko iraupenaz dugun ideia oraingo edo iragandako existentziarenarekin batzea ez da daitekeenago, atzoko, gaurko eta biharko ideiak ideia berbera izatea lortzea baino, edo iragandako aroak eta etorkizun direnak batu eta egungoaren garaikide bihurtzea baino. Baina gizaki horiek uste badute iraupen infinituaz espazio infinituaz baino ideia argiagoak dituztela, duda orotik kanpo dagoelako Jainkoa betierekotasun guztitik bizi dela, baina, aitzitik, materia errealik ez dagoleako espazio infinituarekin hedakide denik, orduan filosofo hauek, espazio infinitua Jainkoaren nonahitasunak hartuta daukala uste dutenak, haren betiereko existentziak iraupen infinitua hartuta daukan moduan, filosofo hauek, diot, espazio infinituaren zein iraupen infinituaren ideia argia eduki beharko dute, nahiz eta kasu biotako batean ere, nire ustez, infinitutasunaren ideia positiborik ez dagoen. Zeren direnak direla gizaki batek edozein kantitateri buruz bere gogamenean dituen ideia positiboak, errepi-katu egin ditzake eta lehen dituen gehitu, egun biren edo pauso biren ideiak erants ditzakeen erraztasun berberaz, bere gogamenean dituen luzeren ideiak direlarik, nahi duen adina aldiz erantsi ere;

eta, horregatik, gizaki batek espazio edo iraupen infinituaren ideia badauka, infinitu bati beste bat erants diezaioke, hau da, beste bat baino bi bider infinituagoa den infinitua egin, absurdukeria potologiki berauek aipatzen ibiltzeko.

21. *Infinitutasunaren ustezko ideia positiboak, errakuntzen iturburu.*

Baina, honen guztiaren ondoren, berek infinitutasunaren ideia argi, positibo eta ulergarriak dituztela sinetsirik dauden gizakiak baldin badira, pribilegio hori dutelako izanen da; eta biziki gus-tatuko litzaidake (horrelako ideiarik ez dutela aitortzen duten beste batzuekin batera) haiengandik informazio hobe jasotzea. Zeren, egundaino, beti izan dut joera pentsatzera infinitutasunaz, dela espazioaren, iraupenaren edo zatigarritasunarenaz, egindako diskurtsoen inguruan beti diren zailtasun eta korapilo askaezin guztiak, infinitutasunaz ditugun ideietan dagoen akats baten seinale garbi izan dire-la, baita ideion izaeraren eta guk ulertzeko daukagun ahalmen labur-raren arteko desproporzioarena ere. Izan ere, gizakiek espazio edo iraupen infinituaz, haietaz beraientzat darabiltzaten izenez bezain ideia oso eta positiboak balituzte bezala, edo yarda batez, ordubetez edo kantitate konkretu batez dituztenak bezalakoak bailiran hizketan eta eztabaidaka ari diren artean, ez da harritzekoa eztabaidagai edo arrazoiketagai duten auziaren ulergaitzasunak horiek ezbai eta kontraesanez beterik uztea eta euren gogamenak maneiatu eta mendera-tzeko baino handiago eta korapilotsuago den gai batek gainez egin-da geratzea.

22. *Hauek guztiak sentipenetik eta hausnarketatik jasotako ideien moduak dira.*

Iraupena, espazioa eta zenbakia eta eurok behatzetik sortzen den infinitutasuna aztertzeari nahikoa luze ekin badiot ere, ez da agian gaiak behar zuena baino azterketa luzeago izan, asko ez baiti-ra, izan ere, gizakiaren pentsamenduari hauek baino aribide handia-gorik ematen dien ideien *moduak*. Ez ditut tratatuko euren hedaera guztian; nire xederako nahikoa da agertzea gogamenak, diren bezala-xe, sentipenik eta hausnarketatik hartzen dituela; eta infinitutasunaz dugun ideiak berak ere, sentipenaren edo gure gogamenaren eragike-taren edozein objektutik urrunduena eman arren, hala ere, beste ideiek bezalaxe, hantxe duela bere iturburua. Matematekari batzuek

agian, espekulazio aurreratuetan ibiliak, beste era batzuk ukan ditzakete beren gogamenetan infinitutasunaren ideia sartzeko. Baina honek ez du eragozten eurek ere. gainerako gizakiek bezalaxe, infinitutasunaz izan zituzten lehenengo ideiak sentipenetik eta hausnarketatik hartu izana, hemen azaldua dugun metodoaren arabera.

# XVIII. KAPITULUA

## Beste zenbait modu bakun

### *1. Sentipenaren ideia bakunen beste zenbait modu bakun.*

Nahiz eta azaldu dudan, aurreko kapituluetan, gogamena, sentipenaren bidez harturiko ideia bakunetatik are infinitutasuneraino hedatzen dela, hau, beste guztien artean pertzepzio sentigarri orotatik urrunduena dirudien arren, azken batean ideia bakunez ez bestez egina baita, ideiek sentimenen bidez gogamenean hartu eta gero gogamenak bere ideiak errepikatzeko daukan ahalmenaz elkartzen dituelarik, nahiz eta, nioen, emandakoak sentipenaren ideia bakunen modu bakunen adibiderik aski izan litezkeen eta adimena eurretara nola heltzen den erakusteko ere behar adina, hala ere, arrazoi metodologikoenengatik, beste zenbait gehiago aipatuko ditut eta gero beste ideia konplexu batzuk ere bai.

### *2. Higiduraren modu bakunak.*

Irrist egin, iraulkatu, jausi, oinez ibili, narras ibili, korrika egin, dantzatu, jauzi egin, zapart egin eta aipa daitezkeen beste horrelako hitz askok hizkuntza ulertzen dutenei, entzun eta berehala, ideia bereziak eragiten dizkie gogamenean, higiduraren aldaketa ezberdinak besterik ez direnak. Higiduraren moduek hedadurarenei erantzuten diete; azkar eta astiro higiduraren ideia ezberdin bi dira, denbora eta espazioaren distantziaz neurtzen direnak, halatan non ideia konplexuak diren, higiduraren barruan denbora eta espazioa sartzen dutenak.

### 3. *Soinuen moduak.*

Antzeko aniztasuna dugu soinuei dagokienez ere. Artikulaturiko hitz bakoitza soinu aldaketa ezberdina da; horregatik ikusten dugu, entzumenaren bitartez eta aldaketon eraginez, gogamenak ideia bereiziak beregana ditzakeela, ia amaigabeko kopururaino. Gainera soinuak, txori eta abereen oihu ezberdinez aparte, luzera ezberdineko notak batuta aldatzen dira, horrek tonua deritzan ideia konplexua osatzen duelarik, musikariak bere gogamenean ukan deza-keena, inolako soinurik entzun ez egin gabe, bere irudimenean isiltasun osoan bildutako soinuei buruz hausnarketa eginez.

### 4. *Koloreen moduak.*

Koloreen moduak ere oso anitzak dira; batzuk maila ezberdintzat ditugu edo kolore beraren ñabardura esaten diegu. Baina kolorenahasketak, behin zerbaitetarako erabiltzeko behin atseginerako, koloreak bakarrik, eurok ipintzeko irudiren bat osagai izan gabe, oso gutxitan egiten ditugunez, pintatu, ehundu, bordatu edo horrelako zerbait egiten dugunean bezala, gehienetan ikusten ditugun nahasketak modu mistoei dagozkienak izan ohi dira, mota ezberdinetako ideiez eginak izaten baitira, hau da, irudi eta kolorez, emakume eder bat, ortzadarra eta abar bezala.

### 5. *Zaporeen moduak.*

Zapora eta usain konposatu guztiak ere sentimen horien ideia bakunez egindako moduak dira. Baina normalean beraientzat izenik ez dugunez, oharkabe pasatzen zaizkigu eta ezin izaten ditugu idatzian finkatu; horregatik, zerrendatu gabe utzi beharko ditut, irakurlearen iritzia eta esperientziara.

### 6. *Modu bakun batzuek ez dute izenik.*

Oro har, esan daiteke ideia bakun beraren maila ezberdin huztat jotzen diren modu bakun horiek, berorietako asko izatez ideia oso bereiziak izan arren, normalean ez dutela izen bereizirik eta ez direla ideia bereizi moduan ikusten, euren arteko aldea txikia denean. Gizakiek moduoi dagokienez utzikieriaz jokatu duten ala ez eta izenik gabe bata bestetik bereizteko neurririk ezagatik ala bereizi ondoren ezagutza horrek baliagarritasun orokor edo beharrezkorik ez izateagatik utzi dituzten, hori beste batzuen iritzira uzten dut. Nire xederako nahikoa da argi uztea gure ideia bakun guztiak sentipenaren eta haus-

narketaren bidez, ez bestez, datozela gure gogamenetara; eta gogamenak jasotzen dituenean, ideioek anitz eratara errepika eta konposa ditzakeela eta, horretara, ideia konplexu berriak egin. Baina, zuria, gorria edo gozoa eta horrelakoak izenak ipini eta espezieetan mailakatzeko moduan aldarazi edo konbinazio ezberdinen bidez ideia konplexu bihurtu ez badira ere, beste ideia bakun batzuk, hala nola, gorago aipaturiko unitatearen, iraupenaren eta higidurarena, ahalmenaren eta pentsamenduarena bezala, ideia konplexu anitzetan aldaraziak izan dira, baita dagozkien izenak ere.

### *7. Zergatik modu batzuek izenak dituzten eta beste batzuek ez.*

Horren arrazoia hauxe izan dela suposatzen dut: gizakiak duen ardura nagusia beste gizakienganakoa eta besteen artean norberaren ganakoa denez, beharrezko zela gizakiak eta euren *ekintzak* ezagutzea eta berorien berri elkarriz adieraztea; eta, horregatik, ekintzen ideiak ardura handiz adierazi zituzten eta ideia konplexuoi izenak jarri zizkieten, eguneroko solasaldietan zerabiltzaten gauzak errazago jaso eta mintzagai erabiltzeko, itzulinguru eta hinki-hankarik gabe, eta txitean-pitean aipatu beharreko gauzen informazioa eman eta hartzean, nor zertaz ari zen errazago eta lehenago ulertzeko. Hau horrelaxe dela eta gizakiak ideia konplexu ezberdinak eratzeraz eta bakoitzari bere izena ematera hizkuntzaren xedeak oro har eraman dituela (horixe baita elkarriz pentsamenduak komunikatzeko biderik laburren eta trabagabeena), nabariki ageri da arteetan aurkitzen ditugun izenetan eta lanbide ezberdinetako ekintza aldarazien zenbait ideia konplexuri aplikaturikoetan, ekintzok errazago zuzendu eta eurotz bizkorrago hitz egin ahal izateko. Ideioek ez dira, oro har, ekintza horietaz hitz egiten ez duten gizakien gogamenetan eratzten. Eta, beraz, haiek ordezkatzten dituzten hitzak, hizkuntza bereko gizaki gehienek ez dituzte ulertzen: adibidez, *zulaketa*, *amalgamaketa*, *iragazketa*, *kohobazioa*, ideia konplexuak adierazten dituzten berbak dira, euren lanbideetan haietat sarri baliatu beharrik ez dutelako, pentsamenduetan txitean-pitean darabiltzatenak ez diren pertsonen gogamenetan bakanki aurkitzen direnak, eta izen horiek normalean errementarietaz eta kimikarietaz baino ez dituzte ulertzen; hauek, hitz horiek adierazten dituzten ideia konplexuak eraturik dituztelarik eta izenak jarri dizkietelarik edo beste batzuegandik hartu, komunikazioan izenok entzun eta berehala, agudo sortzen dituzte ideia horiek beren gogamenetan; horrela, adibi-

dez, *kohobazio* hitzak zer baitetik distilaturiko likidoa geratzen den gaira atzera isurtzearen eta berriro distilatzearen ideia bakun guztiak eragiten ditu gogamenean. Horrela, ikusten dugu ideia bakun anitz dela, zapore eta usainenak adibidez, izenik ez daukatenak; eta moduenak askoz gehiago, zeren hauei, eskuarki gizakiak berauetaz behar bezainbatean ohartu ez direlako edo solasean darabiltzaten gaietan moduok aintzat hartzea emendio handiko ez delako, ez zaie eta izenik jarri eta, horretara, ez dira espezietzat hartzen. Baina *berbez* mintzatzean ukanen dut hau astiroago aztertzeko aukera.



## XIX. KAPITULUA

### Pentsamenduaren moduak

1. *Sentipena, oroitzapena, kontenplazioa, etab. pentsamendua - ren moduak dira.*

Gogamenak bere baitara begiratu eta bere ekintzak kontenplazten dituenean, lehenengo sortzen dena *pentsamendua* da. Honetan, gogamenak aldakuntza ezberdin ugaritan erreparatzen du eta horietatik ideia bereziak hartzen. Horretara, kanpoko objektuek gorputzean egindako inpresioei datzekien eta haiekin batera datorkigun pertzepzioak edo pentsamenduak, pentsamenduaren beste aldarazpen guztietatik bereizia izanik, gogamenari beste ideia bereizi bat dakarkio, guk sentipena deitzen dioguna; hau, nolabait esateko, sentimenen bidez adimenean edozein ideia aktualki sartzea da. Ideia bera horrelako objektuak kanpoko sentimenetan eragin gabe berriro gertatzen denean, hori *erremisizentzia* da; gogamenak ideia hori bila ibili eta nekez eta ahaleginez berriro bistaratzen badu, orduan *oroitzapena* da; hantxe badauka luzaro arretaz hartaz pentsatuz, *kontenplazioa* da; ideiak gure adimenean flotari daudenean adimenaren hausnarketarik ez gogarpenik gabe, orduan frantsesek *rêverie* deitzen diotena da; gure hizkuntzak ez du berba egokirik hori adierazteko. Berez aurkeztu zaizkigun izenei erreparatzen diegunean (izan ere, beste leku batean adierazi dudana moduan, itzarrik gaudela beti dago gogamenean segidan ageri diren ideien katea bat) eta, nolabait esateko, oroimenean sailkatzen ditugunean, hori *adiera* da; gogamenak aditasun handiz eta

aukeratuz bere begirada ideiarene batean finkatu, aintzin-gibel kontsideratu eta beste ideia batzuen dei arruntagoari kasurik egiten ez die-nean, horri *intentzioa* edo *ikasketa* deitzen diogu; ametsik gabeko loaldia gauza horien guztien etenaldia da; eta *amets e gitea* ideia horiek gogamenean edukitzea da (kanpoko sentimenak itxirik daudelarik, non eta ez duten hartzen ohiko bizitasunez kanpoko objektuen hautemana). Kanpoko ezein objektuk edo abagune ezagunek iradoki ez dizkigun ideiak edukitzea da *ametsaldia*, ideia hauek inondik ere adimenak hautatu edo zehaztu ez dituelarik. *Estasia* deitzen diogun hori ez ote den begiak zabalik ditugularik amets egitea, beste norbaiten erabaki beza.

## 2. Pentsamenduaren beste modu batzuk.

Hona hemen pentsamenduaren beste modu ezberdin batzuk, gogamenak bere baitan errepara diezaiekeenak, era horretan, zuriaren eta gorriaren edo karratuaren eta zirkuluaren ideiak bezain bereiziak beregana ditzakeelarik. Ez da nire asmoa hemen modu horiek guztiak zerrendatzea, ez eta hausnarketatik etorritako ideia taldeari buruz luze tratatzea ere, horrek liburu oso bat beharko luke eta. Nire xedearako nahikoa da, hemen egin dudan moduan, adibide batzuez azaltzea zer motatako ideiak diren horiek eta gogamenak nola erdiesten dituen, batez ere kontuan izanik hemendik aurrera aukera izanen dudala *arrazoiketa*, *juzgamena*, *nahi izatea* eta *ezagutzea*, gogamenaren eragiketa nagusietakoak eta pentsamenduaren moduak direnak, zabalago tratatzeko.

## 3. Arreta maila ezberdinak pentsamenduan.

Baina agian ez da digresio barkagaitza, ez eta gure oraingo xedetik guztiz aldentua, guk hemen gogoeta egitea gogamenak pentsaketan ari denean dituen aurrerago aipaturiko adiera, rêverie, ametseta eta abarren adibideek natural asko iradokitzen dituzten egoera ezberdinei buruz. Esperientziak argi asko erakusten digu itzarrik dagoen gizakiak beti dituela ideiak, gehiago edo gutxiago, bere adimenean, nahiz eta gogamenak ideioi maila ezberdineko arreta jarri. Batzuetan, gogamena buru-belarri jartzen da objektuak kontenplatzen eta alde guztietatik aztertzen ditu; objektuon erlazio eta zirkuntantziak zehazten ditu; eta hain gustura eta apetaz begiratzen du alde bakoitza, non ez den konturatzen orduan sentimenetan eragindako inpresio arruntez, beste edonoiz pertzepzio oso sentigarriak sortara-

ziko lizkioketenak izan arren; beste batzuetan adimenera segidan datozen ideien katea ikusi hutsean aritzen da, haietako baten ere peskizan edo atzetik ibili gabe; eta beste batzuetan, ia erabat begiratu gabe pasatzen uzten die, inolako inpresiorik egiten ez duten geriza ahulak bailiran.

4. *Hemendik ateratzen da pentsamendua, seguraski, arimaren esentzia barik, arimaren ekintza idela.*

Uste dut mundu guztiak esperimentatu izan duela bere baitan gogamenak pentsaketan ari denean daukan apetaren («intention») eta oharkabetasunaren («remission») arteko aldea, gogamenaren azterketa arduratsutik ia erabateko axolagabetasuneraino dauden maila ezberdinekin. Ildo honetatik apur bat aurrerago jo eta gogamena, lo dagoenean, nolabait esateko sentimenetatik erretiraturik eta sentimen organoetan eragindako higiduren irispidetik kanpo aurkituko dugu, higidurok beste edonoiz ideia oso bizi eta sentigarriak eragiten dituzten horietakoak izan arren. Horretarako ez dut ekarri behar ekaitz handiko gauetan ez trumoirik entzun, ez tximistarik ikusi ez etxearen astinaldiaz ohartu —itzarrik daudenek horiek guztiak argi asko hautematen dituzten arren—, zurrut eta purrut lo egiten dutenen adibidea besterik. Baina gogamena sentimenetatik erretiratze honetan, pentsatzeko era lanbrotsu eta inkoherenteago bat atxikitzen du maiz, amets egitea deiritzana; eta, azkenez, lo sakonak zeharo ixten du eszenategia eta agerpen guztiei amaiera ematen die. Uste dut ia edonork izanen duela bere baitan horren esperientzia eta bere oharmenak zailtasunik gabe eroanen duela horretara. Baina nik honen guztiaren ondorioz galdera bat egiten dut, alegia, gogamenak aldi diferenteetan pentsamendu maila ezberdinak erabil ditzakeenez eta batzuetan, itzarrik baina oharkabe dagoen gizakiarengan ere, pentsamendu bat ere ez daukala ematerainoko pentsamendu ilunak dituen ez, azkenez, lo sakonaren erretiro ilun horretan ideia oro bistatik galtzen duenez gero, hau guztia, esan nahi dut, errealtatean eta etengabeko esperientzian horrelaxe dela bistakoa denez gero, galdetzen dut ea ez ote den daitekeena pentsamendua arimaren esentzia barik, haren ekintza izatea, eragileen eragiketek erraz onartzen baitute apeta eta oharkabetasuna, gauzen esentziek, ordea, horrelako gorabeherarik ez duten artean. Baina hori geroagorako utziko dugu.



## XX. KAPITULUA

### Plazerraren eta oinazearen moduak

#### 1. *Plazerra eta oinazea ideia bakunak dira.*

Sentipenetik eta hasunarketatik hartzen ditugun ideia bakunen artean, *oinazea* eta *plazerra* oso aintzat hartzekoak dira. Izan ere, gorputzean sentipen huts bat edo oinaze eta plazerra lagun dituen dagoen bezala, gogamenaren pentsamendu edo pertzepzioa ere horixe besterik ez da, plazerra edo oinazea, edo atsegina edo atsekabea, nahi den moduan deitu, lagun dituen. Hauek, gainerako ideia bakunak bezalaxe, ezin dira deskribatu, ez eta beraien izenak definitu ere; hauek eza-gutzeko bidea, sentimenetako ideia bakunen kasuan bezala, esperientzia da. Zeren, moduok ongiaren edo gaizkiaren presentzia baieztatuz definitzea, ez da besterik, ongiak eta gaizkiak gure gogamenetan izandako eragiketa ezberdinez aplikatzen zaizkigun edo kontsideratzen ditugun era ezberdinen arabera sentitzen dugunari buruz gu hausnartzen jartzea baino.

#### 2. *Zer diren ongia eta gaizkia.*

Gauzak, beraz, plazer edo oinazearekiko soilik dira onak edo txarrak. Gure baitan plazerra eragin edo gehi dezakeena da *ongia* deritzana, edota oinazea murriz edo labur dezakeena; edo baita beste edozein on edukitzea edo gaizkirik ez edukitzea ekar edo egoera horretan irauten lagun diezagukeena ere. *Gaizkia*, berriz, guregan oinazea eragin edo gehi dezakeena da, edo plazerra gutxitzea lor dezakeena; edo

baita beste edozein gauza txar ekarri edo on kentzen diguna ere. Plazerra edo oinazea aipatzean, eskuarki egiten den bereizpenaren arabera, bai gorputzari bai arimari nagokiola ulertu behar da, izatez, *gog amenaren* eraketa ezberdinak besterik ez diren arren, batzuetan gorputzeko ezbeharrek eta beste batzuetan gogameneko pentsamenduek eragindakoak.

### 3. *Gure grinak ongiak eta gaizkiak darabiltza.*

Plazerra eta oinazea eta bata eta bestea sortarazten dituztenak —ongia eta gaizkia— dira grinen bira orpoak. Eta baldin erreparatzen eta hausnartzen badugu hauek, ikuspegi ezberdinen pean, nola jokatzen duten gure baitan, nolako aldakuntzak edo egoerak, nolako barne sentipenak (horrela deitzerik badut) eragiten dituzten gogamenean, orduan geure grinei buruzko ideiak eratu ahal izanen ditugu.

### 4. *Maitasuna.*

Era horretan, han bertan edo urrunean duen gauza batek eragin diezaiokeen atseginaren pentsamenduari buruz gogoeta egiten duen edonork *maitasuna* deritzan ideia dauka. Zeren gizaki batek udazkenean mahatsa jaten ari dela edo udaberrian, oraindik mahatsik ez denean, mahatsa maite duela adieratzen duenean, mahatsaren zaporea oso gustuko duela besterik ez dio; baina, haren osasunean edo gorputzean sorturiko aldaeraren batek zapore horren atsegina deuseztuz gero, orditik aurrera ezin izanen du esan maite duela mahatsa.

### 5. *Gorrotoa.*

Aitzitik, bertan edo urrunean daukagun gauza batek eragin diezagukeen oinazearen pentsamendua *gorrotoa* deritzana da. Nire lana hemen gure grinen ideiei buruz, plazer eta oinazearen aldakuntza ezberdinen pentzura daudenez soilik barik, hortik harago ikeretzea balitz, nabarmenduko nuke izaki bizigabe eta sentigaitzei diegun maitasuna eta gorrotoa haiek erabili eta gure sentimenei —nahiz eta berauek hondatu— nolanahi dela aplikatzetik hartzen dugun plazer eta oinazean oinarritzen direla. Baina zorionerako edo zoritxarrrerako gai diren izakiei diegun gorrotoa eta maitasuna geure baitan aurkitzen dugun atsekabea edo gozaldia dira, haien izatea edo zorioa kontuan hartzetik sortuak. Era horretan, gizaki bati bere seme-alaben izateak eta ongizateak atsegin etengabea sortarazten diotenean, gizaki horrek maite dituela esan ohi da. Baina hemen nahikoa da

ohartaraztea gure gorroto edo maitasun ideiak, gogamenak edozerk eragindako plazer eta oinazearekiko oro har dituen jarrerak besterik ez direla.

#### 6. *Desira.*

*Desira* deritzana, gizakiak, gozamina eta atseginaren ideia ekartzen dion zerbait falta zaionean, sentitzen duen *kezka* da; *desira* hau handiagoa edo txikiagoa da, *kezka* biziagoa edo motelagoa den heinean. Horregatik agian zerbaiterako balioko du azpimarratzeak gizakien ahalegin eta ekintzen zirikagarri nagusia, bakarra ez bada, *kezka* horixe dela. Izan ere, eskaintzen den ona zeinahi izanik ere, haren faltak atsekaberik edo oinazerik ez badakar, gizakia hura gabe lasai eta pozik badago, hor ez dago on horren desirarik, ez eta hura eskuratzeko ahaleginik ere; hor nahikeria besterik ez dago, desiraren beheengo maila adierazteko hitza berau, desirarik ez garbitik hurbilena, eta zer edo zeren faltak *kezka* motela eragiten duenean, hain motela, non gizaki horrengan hura eskuratzeko *desira* arin-arin bat baino eragiten ez duen, haren jabe izateko bitarteko indartsu eta eraginkorrak erabiltzera bultzatu gabe. *Desira*, halaber, itzali edo hotzitu egiten da proposaturiko ona eskuratzerik ez dagoela uste denean, gogarpen honek *kezka* sendatzen edo murrizten duen heinean. Honek gai honi luzeago ekitera eramanez gintuzke, hau horretarako lekua balitz.

#### 7. *Poza.*

*Poza* gogamenaren atsegina da, ondasun bat orain eta hemen edukitzeak edo laster edukiko dugula ziur jakiteak ekarritakoa; eta ondasun baten jabe gara, hura geure eskumenean daukagunean, hartaz nahi dugunean gozatzeko moduan. Horrela, goseak dagoen gizakiak *poza* du laguntza datorrenean, laguntza horretaz baliatzeko plazerra hartu aurretik ere; eta bere seme-alaben ongizateak atsegina dakarkion aita ere, umeak egoera horretan dauden bitartean, beti izanen da ongi horren jabe, horretaz pentatzea besterik ez baitu beharko plazer hori izateko.

#### 8. *Tristezia.*

*Tristezia* gogamenaren *kezka* da, luzaroago goza zezakeen ondasun bat galdu izanaren pentsamenduak edo oraingo gaizkiaren sentipenak eragindakoa.

### 9. *Itxaropena.*

Mundu guztiak, norberari atsegina ekartzeko gai den gauza batez etorkizunean goza dezakeela pentsatzean, bere baitan aurkitzen duen gogamenaren plazerra da itxaropena.

### 10. *Beldurra.*

*Beldurra* gogamenaren kezka da, etorkizunean jazo dakiguke-en gauza txarren baten pentsamenduak eragindakoa.

### 11. *Etsipena.*

*Etsipena* ondasun eskuraezinaren ustea da, gizakien gogamenetan ezberdinki jokatzten duena, batzuetan kezka edo oinazea eraginez, eta beste batzuetan nagitasuna eta apatia.

### 12. *Kolera.*

*Kolera* gogamenaren kezka edo desordena da, irainen bat sufritu ondoren sentitzen duguna, eta berehala mendeku hartzeko desiraz etorri ohi dena.

### 13. *Bekaizkeria.*

*Bekaizkeria* gogamenaren kezka da, eskuratu nahi dugun ongia guk baino lehenago behar ez zuenak eskuratu duela pentsatzean sortzen dena.

### 14. *Zein diren gizaki guztiek dituzten grinak.*

Azken bi grinak, *bekaizkeria* eta *kolera*, plazerrak eta oinazeak soilik eragindakoak izan barik, geure buruari eta besteei buruzko kontsiderazio nahasiak ere badituztenez, ez ditugu gizaki guztiengan aurkitzen, bigarren aldea falta zaielako, hau da, beren merezimenduen balioespina edo mendeku desira. Baina beste guztiak, azken batean plazer eta oinaze hutsean amaitzen direnak, gizaki guztiengan, nik uste, aurkituko ditugu. Izan ere, plazerraren inguruan soilik maitatzen, desiratzen, poztzen, eta espero dugu; eta oinazearen inguruan soilik gorrotatzen, beldurtzen eta tristatzen gara. Azken batean, grina hauen guztien eragile diren gauzak plazer eta oinazearen kausa moduan edo nolabaiteko plazer edo oinazea datxekiela ageri direlako soilik dira haien eragile. Horregatik, oinazea eragin digun lagunari (konturatuta eta nahita badihardu, bederen) luzatu ohi diogu gorrotoa, uzten duen beldurra etengabeko oinazea delako; baina ez dugu hain etengabeki maitatzen ongia egin diguna, plazerrak ez duelako oinazeak bezain



indartsu eragiten gure baitan eta ez dugulako plazer hori berriro sortuko den esperantza hain handirik. Baina hau bidenabar diogu.

15. *Plazerra eta oinazea zer diren.*

Plazerra eta oinazea, atsegina eta atsekabea esatean, erabiltzen ditudan guztian (gorago seinalatu dudan moduan) gorputzeko atsegina eta oinazea ez ezik, sentitzen dugun edozein atsegin edo atsekabe ulertzea nahi dut, zeinahi sentipen edo hausnarketa atsegin edo desatseginetik sorturikoak izan.

16. *Bion kentzea edo gutxitzea.*

Kontuan izan behar da, halaber, grinei dagokienez, oinazea kentzea edo gutxitzea plazertzat jotzen dela eta halaxe lan egiten duela, eta plazerraren galera edo gutxitzea oinazetzat hartzen dela.

17. *Lotsa.*

Grinarik gehienek eragina dute pertsona gehienek gorputzean, zenbait aldakuntza eraginez, baina aldakuntza hauek beti nabarmen ez direnez, ez dira nahitaez grina bakoitzaren ideia osagai izaten. Adibidez, *lotsa*, gogamenaren kezka da, zerbait itsusi edota besteen gukanako estimuaren murrizgarri eginaren pentsamendutik datorkiguna, eta gorrialdiz etorri ohi da, baina ez beti.

18. *Adibide hauek argi erakusten dute grinen ideiak sentipenetik eta hausnarketatik erdiesten direla.*

Ez nuke nahi honaino esandakoa grinei buruzko tratatu batekin nahastea; hemen aipaturikoak baino gehiago dira grinak, eta aintzat hartu ditudan azalpen luzeago eta zehatzago behar dute banan-banan. Hemen izendatu ditudunak ongi eta gaizkiaren gogarpen ezberdinetatik gure gogamenean sortzen diren plazer eta oinazearen moduen adibide bezala aipatu ditut hemen. Plazer eta oinazearen beste modu batzuk, hauek baino bakunagoak, erabil nitzakeen agian, hala nola gose eta egarriaren oinazea eta berau kentzen digun jan-edanaren plazerra, edo hortzetako mina, musikaren plazerra, eztabaida maltzur eta hutsal batetik sorturiko oinazea, eta norbaitekin izandako arrazoizko solasaldiaren plazerra edo egiaren bila ondo bideraturiko ikerketaren eta aurkikuntzarena. Baina grinak hain neurri handian dagozkigunez, nahiago izan ditut beraiez ditugun ideiak sentipenetik eta hausnarketatik etorritakoak direla erakusteko adibide moduan hartu.



# XXI. KAPITULUA

## Ahalak

### 1. *Ideia hau nola geureg anitzen dugun.*

Gogamenak kanpoko gauzetan hautematen dituen ideia baken aldaerei buruz egunero sentimenen informazioa jasotzen duenez, eta gauza bat amaierara heldu eta izateari uzten diola eta lehen ez zen beste bat existitzen hasten dela hautematen duenez, bere baitan jazozen denaz ere hausnarketa egin eta bere ideietan etengabeko aldaketa dagoela konturatuz, batzuetan kanpoko objektuek sentimenetan eragindako inpresioek eta beste batzuetan bere aukeraren zehazpenak eragindakoak, eta etengabe ikusten duenetik ondorioztatuz etorkizunean ere gauza beretan aldaketa berdinak gertatuko direla eragile ber-tsuek eta bide beretatik eraginda, batean kontsideratzen du bere ideia bakunetarikoren bat alda daitekeela, eta bestean aldaera hau eragiteko ahalbidea duela, eta horrelaxe gauzatzen da *ahala* deitzen diogun ideia. Horrela, esaten dugu suak urrea urtzeko ahala duela, hau da, haren alde sentigaitzen tinkotasuna eta, beraz, haren gogortasuna deusezteko eta jariakor bihurtzeko; eta urreak urtua izateko ahala duela; eguzkiak argizaria zuritzeko ahala duela eta argizariak eguzkiak zuritua izateko ahala, horitasuna suntsitu eta haren lekuan zurtasuna existitzen hasten delarik. Kasu honetan eta antzeko beste batzuetan, kontuan dugun ahala hautemangarri diren ideien aldaketari dagokio. Izan ere, ezein gauzatan ere ezin dugu aldaerarik ez eraginik hauteman, haren ideia sentigarrietan hauteman daitekeen aldaketaren bidez ez

bada, ez eta aldaerarik egin denik bururatu ere, haren ideiatako batean aldaketa bururatu ezean.

## 2. Ahal aktiboa eta pasiboa.

Horrela hartuta, ahala bi motatakoa da, hau da, aldaketa bat egi-teko gai edo hartzeko gai dena. Batari *aktiboa* eta besteari *pasiboa* dei dakieke. Merezi du agian aztertzeak ea materia ahal aktiboz gabeturik ez ote dagoen, beronen egilea, Jainkoa, ahal pasibo oroz gainetik dagoen moduan, edo ea espirituen bitarteko maila ez den bai ahal aktiboa eta bai pasiboa duen bakarra. Ez naiz ni orain sartuko auzi honetan, nire orain-go lana ez baita ahalaen jatorria ikertzea, baizik haren *ideia* geureganatzea nola heltzen garen bilatzea. Baina ahal aktiboak substantzia naturalez ditugun ideia konplexuen hain zati handia direnez (geroago ikusiko dugun moduan) eta, ohiko nozioaren arabera, horrelaxe aipatzen ditudanez gero, ahal *aktiboa*, agian, geure pentsamendu presatsuetan irudika ditzakegun bezain erabat aktiboak ez diren arren, ez dut uste alferreko denik, arrazoi horregatik, gure gogamenak Jainkoa eta espirituak kontsideratzera bideratzea, ahal *aktiboaren* ideiarik argiena erdiesteko.

## 3. Ahalak erlazioa barne hartzen du.

Aitor dut ahalak nolabaiteko *erlazioa* daramala bere baitan (egintza edo aldaketarekiko erlazioa), gure ideia guztiak ere nonbait, nolanahikoak direlarik ere, beren baitan daramaten bezala, ideioak aditasunez aztertuz gero. Izan ere, hedadurari, iraupenari eta kopuruari buruzko gure ideia guztiak ez al daukate beren baitan atalen arteko erlazio sekreturen bat? Gauza bera esan behar da, are eta nabarmenago oraindik, irudiari eta higidurari gagozkiola. Eta koloreak, usainak, etab. bezalako koalitate sentigarriak, zer besterik dira, bada, gorputz ezberdinek gure pertzepzioarekiko dituzten ahalak baino? Eta gauzetan eurentan kontsideratuz gero, ez al daude atalen bolumenaren, irudiaren, ehunduraren eta higiduraren menpe? Horrek guztiak eratzen du euren arteko erlazio mota bat. Horrela, ahalaria buruzko gure ideia, oso ondo koka daiteke, nire ustez, gainerako *ideia* bakunen artean, eta haietako bat legeztatu behar dugu, substantzien ideia konplexuetan osagai inportante bat baita, geroago ikusi ahal izanen dugun moduan.

## 4. Ahal aktiboaren ideiarik argiena espiritutik datorkigu.

Guk ahal *pasiboaren* ideia ugari daukagu gauza sentigarririk gehienek emanda. Eurotako gehienetan nahitaez ikusi beharra dauka-

gu euren koalitate sentigarriak, hau da, euren substantziak eurak, etengabeko jarioan ari direla. Horregatik ikusten ditugu, arrazoiz ikusi ere, aldaketaren eraginpean. Eta ez dira gutxiago ahal *aktiboari* buruz (ahal hitzaren esanahi zehatzena betetzen duena berau) ditugun adibideak. Izan ere, aldaketarik den guztian, gogamenak nonbait ere aldaketa hori egiteko gai den ahal bat dagoela deduzitu behar du, baita gauzaren baitan ahalbide bat ere aldaketa hori hartzeko. Baina ondo begiratuta, gogamenaren eragiketei buruz gure hasunarketen bidez lortzen dugun ahal aktiboen ideia bezain argi eta bereizia ez digute gorputzek sentimenen bidez eskaintzen. Zeren, ahal orok ekintzarekin zerikusia duenez eta gure ideien gai izan daitezkeen bi ekintza mota baino ez dagoenez, pentsatu eta higitu alegia, ikus dezagun orduan ekintza horiek eragiten dituzten ahaletarik zeinena dugun ideiarik argiena. 1) Pentsamenduari dagokionez, gorputzak ez digu horren ideiarik ematen, hausnarketa bidez soilik eduki dezakegu eta. 2) Eta gorputzaren bitartez, halaber, higiduraren hasieraren ideiarik ere ez daukagu. Atsedenean dagoen gorputzak ez digu eskaintzen higidurarekiko inondiko ahal aktiboren ideiarik; eta higiduran ari denean, higidura hori, ekintza barik, pasioa da gorputzean. Zeren bilarreko bolekin makilaren bultzadari obeditzen diotenean, ez baita hori bolaren ekintza, pasio hutsa baizik. Eta bola batek bidean topo egin duen beste bola bati bultza egiten dionean eta higitzera behartu, beste batengandik harturiko higidura hari ezarri besterik ez du egiten, besteak hartzen duen unetik bere baitan beste horrenbeste galduz; honek guztiak ez digu ematen gorputzean dagoen higitzeko ahal aktiboaren ideia oso ilun bat besterik, zeren konturatzen baikara higidura *bestereenganatu* bai, baina *sortu* ez duela egiten. Izan ere, ahalaren ideia oso ilun bat baino ez da ekintzaren sorkuntzara barik, pasioaren jarraipenera heltzen dena. Zeren, horixe baita higidura beste batekin bultzaturiko gorputzean; atsedenean egotetik higitzera pasatzeko aldaeraren jarraipena ez da ekintza, ez behintzat kolpe berak eragiten duen haren irudiaren aldaera ekintza den baino askoz gehiago. Higiduraren *hasieraren* ideia geure baitan pasatzen denari buruzko hausnarketatik soilik dugu, esperientziaz egiaztatzen dugularik nahi izate hutsaz, gogamenaren pentsamendu huts batez, lehenago atsedenean zeuden geure gorputzeko atalak higi ditzakegula. Horretara, uste dut gure sentimenez gorputzen eragiketak atzematetik, ahal *aktiboaren* ideia ilun eta inperfektu bat baino ez dugula, eragiketa hauek berenez ez digutelako ematen

ekintza bat, dela higidura dela pentsamendua, hasteko ahalaren ideia-rik. Baina gorputzek elkarri egindako bulkadaz ohartuz, hortik baten batek ahalaren ideia argia atera uste badu, horrek ere balio du nire xederako, sentipena gogamenak bere ideiak erdiesteko dituen bideetako bat baita; hemen nire amoa bidenabar haxe aztertzea besterik ez da izan, alegia, ea gogamenak ahal aktiboaz duen ideia ez ote duen bere eragiketei buruzko hausnarketaz argiago hartzen, edozein kanpo sentipenez baino.

5. *Nahimena eta adimena gogamenaren edo espirituaren bi ahal dira.*

Honako hau bederen bistakoa dela deritzot: guk geure gogamenaren zenbait ekintza edo geure gorputzaren zenbait higidura hasi, ekidin, segitu ala amaitzeko ahala aurkitzen dugula geure baitan, gauza konkretu hori edo bestea egitea edo ez egitea ebazten edo, nolabait esateko, agintzen duen gogamenaren pentsamendu edo hobespen huts baten bidez. Adimenak duen ahala ideia bat aintzat hartzea ala aintzat ez hartzea agintzeko, edo edozein momentu konkretutan gorputzaren atal baten higidura haren atsedena baino —edo alderantziz— nahiago izateko, ahal horixe da nahimena deritzana. Ekintza konkretu bat egiteko edo ez egiteko aginduaren bidez ahal horren erabilpen aktualari *nahikundea* edo *gura-izatea* deritza. Gogamenaren agindua- ren ondorioz ekintza hau ekiditeari *nahitako* («voluntary») ekintza deitzen diogu. Eta ekintza hau gogamenak zuzendu gabe burutzen denean, orduan *nahi gabekoa* («involuntary») deritza. Pertzepzioaren ahala *adimena* da. Aditzeko ekintza burutzen duen pertzepzioa hiru eratakoa da: 1. Geure adimenean ideiak hautematea. 2. Zeinuen esanahia hautematea. 3. Gure ideien artean dagoen lotura edo arbuioa, egokiera edo desegokiera hautematea. Horiek guztiak adimenari edo hautemateko ahalari egozten zaizkio, nahiz eta azken biei buruz soilik esan ohi dugun aditu egiten ditugula.

6. *Ahalmenak ez dira izaki errealak.*

Gogamenaren ahal hauei, hau da, hautamateko eta hobesteko ahalei, beste izen bat eman ohi zaie. Eta hitz egiteko modu arruntan adimena eta nahimena gogamenaren bi *ahalmen* direla esaten dugu; deitura nahiko eroso, hitz guztiez bezala hartaz ere zuzen baliatuz gero, kontuan hartuz hitzek ez dutela inongo naharmendurik sortu behar gizakien pentsamenduetan, kasu honetan nahastea sortu baita,

berba hauek bitarteko direla, aditu eta nahi izateko ekintza horiek izaki errealek ariman egiten dituztela adierazten dela suposatzean (nik susmatzen dudan moduan). Zeren esaten zaigunean *nahimena* dela arimaren ahalmen gorena, gauza guztiak arautzen eta ordenatzen dituen, libre dela ala ez dela, ahalmen apalagoak zehazten dituela, adimenaren aginduetara diharduela, etab., nahiz eta hori dioteneke beren ideiak arretaz aztertuz eta beren pentsamenduak hitzen soinura barik, gauzen nabaritasunera erabiliz baieztapen hauek guztiak zentzu argi eta bereizian uler ditzaketen, hala ere, susmatzen dut *ahalmenez* mintzatzeko era honek jende asko berauen nozio okerra izatera eram duela, ahalmenak gure barruan nor bere aginte eta eremuarekin leudeken eta izaki, ezberdinak bailiran agindu, obeditu eta ekintza ezberdinak eginen lituzketen eragile ezberdinak balira bezala hartu baititu, eta hau guztia liskar, iluntasun eta ziurgabetasun bide izan da ahalmenoi dagozkien arazoetan.

7. *Nondik datoz askatasunaren eta beharr ezkotasunaren ideiak.*

*Nork bere baitan* aurkitzen du, nik uste, zenbait ekintza hasi, ekidin, jarraitu edo bukatzeko ahala. Gogamenak ekintzen gain duen norbere baitako ahalmen horren garrantziaren kontsideraziotik sortzen dira askatasunaren eta beharrezkotasunaren ideiak.

8. *Askatasuna zer den.*

Ezagutzen ditugun ekintza guztiak, esan dugun bezala, pentsamendura eta higidurara mugatzen dira. Bere kabuz eta bere gogamenak hala nahi izanda edo aginduta, pentsatzeko ala ez pentsatzeko, higitzeko ala ez higitzeko ahala duen heinean izanen da gizakia *aske*. Aitzitik, gizaki batengan ekintza bat egiteko zein ekiditeko ahala berdina ez bada, baldin gauza bat egitea zein ez egitea bere gogamenaren hobespenaren *ondorio* era berean ez badira, ez da gizaki librea izanen, ekintza bera agian nahitakoa izan daitekeen arren. *Askatasunaren* ideia, orduan, edozein egilek, bata ala bestea aukeratzeko duen gogamenaren erabaki edo pentsamenduaren arabera, ekintza konkretu bat egiteko edo ez egiteko duen ahalaren ideia da; baina egilearen ahalaren barruan ez badago biotako bat egitea bere nahikundearen («volition») arabera, hor ez dago askatasunik eta egile hori *beharrezkotasunaren* dago. Era horretan, bada, askatasunik ezin liteke izan pentsamendurik, nahikunderik, nahimenik ez dagoen tokian; baina izan

daiteke pentsamendua, izan daiteke nahimena, izan daiteke nahikundea, askatasunik ez dagoen tokian. Adibide bat edo besteri buruzko azterketatxo bat ona dateke hau argiago jartzeko.

#### 9. *Adimena eta nahimena suposatzen ditu.*

Tenisko pilota bat, xarearen bultzadaz higitzen ez bada, edo egonean badago, inork ez du egile libretzat hartuko. Honen zergatia bilatzen hasten bagara, aurkituko dugu ezin dugula bururatu tenis-pilotak pentsatu ahal izatea, ez eta higidura atsedena baino *nahiago* —edo alderantziz— izan dezan inolako nahikunderik edukitzea; eta, beraz, ez du askatasunik, ez da egile librea; aitzitik, haren higidura eta atsedena beharrezkotasunaz dugun ideiaren barruan sartzen dira eta beharrezko deritze. Antzeko eran, uretara jausten den gizakiak (pasatzen ari den zubia apurtzean) ez du askatasunik, ez da egile librea. Zeren, nahikundea duen arren, ez jaustea jaustea baino *nahiago* duen arren, higidura hori galaraztea bere eskumenean ez dagoenez, haren nahikundetik ez dator higidura hori geratzea edo indarrik gabe uztea eta, beraz, ez da aske une horretan. Era berean, gizaki batek, bere eskumenean ez dagoelako, nahikundeaz edo bere gogamenaren aginduaz geratu edo ekidin ezin duen bere besoaren higidura dardaratsu batez bere burua, edo laguna, jotzen duenean, inork ez du pentsatzen honetan askatasuna duenik; erruki izanen zaizkio denak, beharrezkotasunak eta hertsapenak eraginda jardun duelako.

#### 10. *Askatasuna ez dagokio nahikundeari.*

Berriz ere, demagun lo sakonean dagoen gizon bat gelaz aldatzen dugula berak ikusi eta solastatu nahi zuen pertsona dagoen lekura, eta bertan dagoela giltzaz ixten dugula gelako atea, handik irteteko ahalik gabe utziz; gizon hau itzarri eta pozik aurkitzen da hain konpainia desiratuan eta gustura geratuko da han, hau da, *nahiago* du han egon, kanpora irten baino. Eta nik galdetzen dut, egonaldi hau ez al da nahitakoa? Ez dut uste inork zalantzatan jarriko duenik nahita dagoela; eta, hala ere, atea giltzaz itxita duelarik, bistakoa da ez daukala han ez egoteko askatasunik, ez du handik irteteko libertaterik. Horretara, bada, askatasuna ez dagokio nahikundeari, aukeramenari, bere gogamenaren aukera edo aginduaren arabera egiteko ala egin gabe uzteko ahala duen pertsonari baizik. Askatasunaz dugun ideia ahal hori heltzen den puntura heltzen da, eta ez harago. Zeren, murrizketaren batek ahal hori galeratzen duenan, edo hertsapenen batek egiteko ala egin



gabe uzteko bietarako duen gaitasuna kentzen duenean, hantxe bertan bukatzen da askatasuna eta gure beronekiko nozioa.

11. *Nahitakoa nahi gabekoaren aurkakoa da, ez beharrezkoa - ren aurkakoa.*

Nahikoa adibide dugu, eta maiz nahikoa baino gehiago, geure gorputzetan. Gizakiari bihotza taupadaka dabilkio eta odola zirkulatzten ari zaio, eta ez dago gizaki horren eskumenean bere nahikunde edo pentsamenduren baten bidez higidura hori geratzea; eta, horregatik, higidura horiekiko —horiek geratzea ez baitago bere aukeraren ez bere gogamenaren erabakiaren menpe, horrela nahi izanez gero ere— ez da egile askea. Higidura dardartiek iharrosten dituzte gizonaren zangoak, eta biziki nahi izan arren, ezin izanen luke bere gogamenaren ezein ahalez haien higidura geratu (*chorea sancti viti* gaixotasun arraro horretan bezalaxe), eten gabe dantzan ari baita; ez dago bere kabuz jarduteko askatasunean, higidurak ezartzen dion beharrezkotasunaren menpean baizik, behera datorren harria edo xareaz jotako tenis pilota bezalaxe. Beste ikuspegi batetik, paralisiak edo oinazeastoak haren zangoei gogamenaren erabakira egotea galarazten die, gorputza lekuz aldatzea nahi duenean. Kasu hauetan guztietan askatasunik ez dago, paralitikoarentzat jezarrita egotea, higitzea baino nahiago duenean, nahitako ekintza den arren. Nahitako ez da, beraz, beharrezko-ren aurkakoa, nahigabeko-rena baizik. Zeren gizaki batek nahiago izan dezake egin ahal duena, egin ezin duena baino, edo orain daukan egoera, egoera hortatik irtetea edo aldatzea baino, beharrezkotasunak egoera hori aldaezin bihurtua ukan arren.

12. *Askatasuna zer den.*

Gorputzaren higiduretan jazotzen den gauza bera jazotzen da gure gogamenen pentsamenduetan ere: edozein pentsamendu guk, gogamenaren aukeraren arabera, hartzeko ala uzteko modukoa denean, orduan guk askatasuna daukagu. Gizaki itzarria, bere gogamenan zenbait ideia etengabe edukitzera beharturik badago, pentsatu ala ez pentsatu artean aukera egiteko, ez da libreago, bere gorputzak beste gorputzak uki dezan galarazteko ala ez galarazteko baino; bere pentsamendua ideia batetik bestera aldatzea, ordea, sarritan egon ohi da giza eskumenean; eta kasu honetan hain da libre ideiekiko, nola libre den euskarri dituen gorputzekiko; nahi bezala alda daitekeelarik batetik bestera. Badira, hala ere, zenbait ideia, higidura batzuen gisa hain

tinko itsatsiak gogamenean, eginahalak eginda ere, aldi batzuetan ezinezko zaigula norberagandik haiek uxatzea. Gizakiak torturapean ez du oinazearen ideia ez edukitzeko eta beste pentsamendu batera jotzeko askatasunik, eta noizbehinka grina bortitzak jotzen ditu gure pentsamenduak, haize boladarik zakarrenak gorputza astintzen duen modura. Baina gogamenak, berak hobetsitakoaren arabera, gorputzaren kanpo higidura horiek edo barne pentsamenduenak geratzeko ala segiarazteko, hasteko ala galarazteko ahala berreskuratzen duen unetik, *egile libretzat* hartzen dugu berriro gizakia.

### 13. *Beharrezkotasuna zer den.*

Pentsamendurik edo pentsamenduaren esanetara egiteko edo egin gabe uzteko ahalik ez dagoen edonon agertzen da beharrezkotasuna. Eta beharrezkotasun hau nahikunderako gai den eragile baten gan dagoenean, eta ekintza baten hasiera eta jarraipena bere gogamenaren hobespenaren kontrakoa denean, horri hertsapena deritza; eta ekintzaren etena edo amaiera egile horren nahikundearen aurkakoa denean, horri kohibizioa deritza. Erabat pentsamendurik gabeko edo nahikunderik gabeko egileak *beharrezko egileak* dira zernahitan.

### 14. *Askatasuna ez dagokio nahimenari.*

Hau horrela bada (nik uste dudan moduan), azter dezagun ea gure aspaldiko eztabaidari amaiera eman diezaiokegun, ulertezinagatik guztiz arrazoigabea baita nire ustez: «*giza nahimena askea ote den, ala ez*». Zeren, oker ez banago, esan dudanetik segitzen da galdekizuna bera ere desegokia dela, eta hain zentzugabea da ea giza nahimena librea den galdetzea, nola den gizakiaren loa azkarra edo bertutea karratua ote den galdetzea, askatasuna nahimenari hain aplikagaitz baitzaio, nola higiduraren azkartasuna loari edo karratutasuna bertuteari. Mundu guztiak eginen lieke barre horrelako galdekizunei, zeren argi baitago higidurako aldaketak ez dagozkiola loari, ez eta irudiko diferentzia bertuteari; eta honetan apur bat pentsatzen duenak, uste dut oso argi hautemanen duela ahala besterik ez den askatasuna egileei dagokiela soilik eta ez dela sekula nahimenaren atributu edo aldaketa, berau ere ahal bat baino ez baita.

### 15. *Nahikundea.*

Hain zaila da hitzen bidez barne ekintzak azaltzea eta beraien nozio argiak ematea, non neure irakurlei ohartarazi beharrean aurki-

tzen naizen hemen erabili ditudan *agindu*, *gidatu*, *aukeratu*, *hobetsi* eta horrelako berbek ez dutela behar bezain bereizi adieraziko zer den nahikundea, nork berak zerbait nahi duenean egiten duenari buruz hausnarketa egin ezean. Hobetsi berbak, adibidez, nahikundearen egintza ongien agian adierazten duena ematen duen arren, ez du hori zehaztasunez egiten. Zeren gizaki batek ibiltzea baino hegaz egitea hobesten badu ere, nork esan lezake hori nahi duela? Nahikundea, argi dago, gogameneko ekintza bat da, gogamenak gizakiaren edozein atalen gainean eduki uste duen domeinu hori konturatuta erabiltzean datzana, edozein ekintza konkreturi nahikunde hori ezarri edo kenduz. Eta zer da nahimena, horixe egiteko ahalmena besterik? Eta ahalmen hori ere zer da ahal bat besterik, hau da, gogamenaren ahala, gure eskumenean dagoen heinean edozein ekintza sortu, jarraitu edo gertatzeko buruera erabakitzeke ahala besterik? Zeren ba al dago ukatzerik bere ekintzetan pentsatu eta berauek ez egitea baino egitea hobesteko ahala duen edozein egilek nahimena deritzan ahalmena duenik? *Nahimena*, beraz, ez da ahal horixe besterik. *Askatasuna*, berriz, *gizakiak* edozein ekintza konkretu egiteko edo egin gabe uzteko duen ahala da, beti ere ea gogamenean egiteak ala egin gabe uzteak zerk duen hobespena kontuan izanda, eta hau beste hau esatea bezainbat da: egileak berak *nahi* duenaren arabera.

#### 16. *Ahalak egileei dagozkie.*

Argi dago, orduan, nahimena ahal edo trebetasun bat besterik ez dela, eta *askatasuna* ere beste ahal edo trebetasun bat baino ez, halatan non ea nahimena libre denentz galdetzea, ahal batek beste ahal bat daukanentz edo trebetasun batek beste trebetasun bat daukanentz galdetzea delarik, absurdukeria potoloegia baita, galdera hau eztabaidagai erabiltzeko edo erantzuna behar izateko. Zeren, ba al da inor ikusten ez duenik ahalak egileei baino ez dagozkiela eta substantzien atributuak direla, eta ez ahalenak eurenak? Galdera horretara egitea, orduan, (hau da, ea nahimena aske ote den), ea nahimena substantzia edo egilea ote den galdetzea da, edo badela suposatzea, askatasuna, zehaztasunez, horiexei baino ezin aplikakiekenez gero. Askatasuna hizkera zehatz samarrez ahalari iratxikitzerik badago, gizakiarengan bere gorputzeko zenbait ataletan, aukeraketaz edo hobespenez, higidura eragin edo galarazteko aurkitzen dugun ahalari ere iratxiki dakioke, eta horrexegatik esaten da

aske dela gizakia eta askatasuna bera da hori. Baina edonork galde-  
tuko balu ea askatasuna aske den, zer dioen ongi ez ote dakien edo  
susmatuko genuke, eta Midas erregearen moduko belarriak eduki-  
tzea mereziko lukeela pentsatuko, hark ere, aberatsa aberastasuna  
edukitzea adierazten duen hitza dela jakinik, ea aberastasunak abe-  
ratsak ziren galdetzen baitzuen.

17. *Nahimenaz aske dela esan ohi da, gizakiaz esan beharrean.*

Nahimena deritzan ahalari gizakiek *ahalmena* deitu eta dihar-  
duena bailitzan nahimenaz mintzatzer ahaman izanak, haren beneta-  
ko esangura disimulatzen duen adiera baten bidez, absurdukeria hau  
apur bat arintzeko balio duen arren, hala ere, nahimenak, egiatan,  
gauza bat aukeratu edo hobesteko ahala edo trebetasuna besterik ez du  
esan nahi eta nahimena, ahalmenaren izenarekin, den moduan hartzen  
denean, hau da, zerbait egiteko gaitasun hustzat, laster jartzen da age-  
rian nahimena aske dela edo ez dela esatearen absurdukeria. Zeren,  
arrazoizko balitz ahalmenei buruz jardun dezaketen izaki bereiziak  
bailiran mintzatzea (nahimenak agindu egiten duela eta nahimena  
aske dela esaten dugunean egiten dugun modura), egoki litzateke hitz  
egiteko ahalmena, ibiltzeko ahalmena, eta dantzatzeko ahalmena ere  
esatea, higiduraren modu ezberdinak diren ekintza horiek eragiten  
dituzten gaitasunei buruz; aukeratzea edo hautematea, pentsamendu-  
aren modu ezberdinak direnak, eragiten dituzten nahimena eta adime-  
na ahalmen bihurtzen ditugun moduan. Eta zehaztasun beraz mintza-  
tuko ginateke esanez abesteko ahalmenak abestu eta dantzatzeko ahal-  
menak dantzatu egiten duela, nola mintzatzen garen esanez nahime-  
nak aukeratu edo adimenak bururatu egiten duela, edo, arruntago  
dena, nahimenak adimena gidatzen duela eta adimena nahimenaren  
esaretara dagoela edo ez dagoela; hori bezain egoki eta ulergarria  
delarik beste hau esatea ere, alegia, mintzatzeko ahalak abesteko ahala  
gidatzen duela edo abesteko ahala mintzatzeko ahalaren esaretara  
dagoela edo ez dagoela.

18. *Hizkera honek nahaspila eragiten du pentsamenduan.*

Hizkera hau, hala ere, gailendu egin da eta, oker ez banago,  
nahaspila franko ekarri du. Zeren, hauek guztiak ekintza diferenteak  
egiteko gogamenaren edo gizakiaren baitan dauden ahal ezberdinak  
direlarik, honek egoki deritzon moduan burutzen ditu; baina ekintza  
bat egiteko ahalak ez du eraginik beste ekintza bat egiteko ahalean.

Izan ere, pentsatzeko ahalak hautatzeko ahalean, eta alderantziz, ez du eragin gehiagorik, dantzatzeko ahalak abesteko ahalean, eta alderantziz, daukana baino, honetaz gogoeta egin dezan edonor aise haute-manen duen moduan. Eta hala ere, horixe esaten dugu nahimenak adimenean edo adimenak nahimenean eragina duela esaten dugun.

19. *Ahalak erlazioak dira, ez egileak.*

Onartzen dut pentsamendu honek edo besteak horni diezaioke-ela gizakiari bere hautamena erabiltzeko abagunea, edo gogamenaren aukeraketak honetan edo hartan pentsatzera eraman dezakeela, baita aireren bat kantatzea halako dantza mota dantzatzeko parada gerta daitekeela ere eta, alderantziz, halako dantza egitea halako aire mota kantatzeko parada. Baina hauetan guztietan ez da *ahala* besteen baitan eragina duena, gogamena baita ahalok burutu eta darabiltzana; gizakia da ekintza dagiena; egilea da ahala duena edo egiteko gai dena. Ahalak, izan ere, erlazioak dira, ez egileak. Eta egiteko ahala edo ahalik eza daukana da aske den edo ez den bakarra, eta inoiz ere ez ahala bera. Zeren, askatasuna edo askatasunik eza, egiteko ahala daukanari edo ez daukanari bakarrik baitagokio.

20. *Askatasuna ez dagokio nahimenari.*

Ahalmenei ez dagokiena iratxiki izanak ekarri du hizkera hau sortzeko abagunea; baina gogamenari buruzko gogoeton barruan, ahalmen hitzaz, *haien* eragiketei buruzko nozio bat sartu izanak, nire ustez, gure geure atal honi buruzko ezagutzan aurrera egiten hain gutxi lagundu du, nola gorputzaren eragiketak adierazteko ahalmenen asmakuntza hain maiz erabili horrek medikuntzari buruzko gure eza-gutza areagotzen. Eta ez dut nik, nola bada, ukatzen hala gorputzean nola gogamenean ahalmenak daudenik; biek dituzte jarduteko ahalak, bestela ez lukete eta jarduterik ez bata ez besteak, jarduteko ahalik ez duena ez delarik jarduteko gauza. Ezta ere ez dut ukatzen berba horiek eta antzekoek lekua dutenik arrunt bihurtu dituzten hizkuntzen ohiko erabileran. Gehiegi nahi izatea dela dirudi horiek guztiak erabat kentzen saiatzea, eta filosofiak berak ere, jantzi ederregien zale ez izan arren, jendaurrera agertzen denean, egokitu beharra dauka eta herriko ohiko moda eta hizkeraz jantzi, beti ere egiarekin eta arrazoinamenduaren argitasunarekin bateragarri den heinean. Baina hutsa, ahalmenez egile bereziak bailiran mintzatzea eta irudikatzea izan da. Zeren, gure urdailean jatekoa zerk digeritzen duen galdetzean, berehala ihar-

detsi izan da *digeritzeko ahalmena* izan dela, ustez denak erabat konforme utziz. Eta gure gorputzetik zerbait kanpora ateratzera zerk behartzen duen galdetzean, *egozteko ahalmena* izan dela esan da. Zerk higiarazten duen zerbait galdetzean, berriz, *ahalmen eragileak*. Eta era berean, gogamenari dagokionez, esaten da *ahalmen intelektuala* edo adimena dela aditzen duena, eta *aukeratzeko ahalmena* edo nahi-mena nahi edo agintzen duena. Hau, laburrean, beste haxe esatea baino ez da, alegia, digeritu digeritzeko trebetasunak egiten duela, higitu higitzekoak eta aditu aditzekoak. Izan ere, ahalmena, trebetasuna eta ahala, nire ustez, gauza beraren izen ezberdinak baino ez dira; era horretan, hitz egiteko era ezberdin hauek hitz ulergarriagoz adierazita, haxe besterik ez dute, nire ustez, esan nahi, digestioa digeritzeko gai den zerbaitek egiten duela, higidura higitzeko gai den zerbaitek eta aditzea aditzeko gai den zerbaitek. Eta, benetan ere, erabat harrigarria litzateke bestela izatea, gizaki bat aske izateko gai izan gabe aske izatea bezain harrigarria.

21. *Aitzitik, egileari edo gizakiari dagokio.*

Askatasunari buruzko gure ikerketara itzultzeko, auzia ez da ea *nahimena aske den*, ea *gizakia aske den* baizik. Hau argi utzita, honako hau uste dut:

Lehenik, neurri honetan da aske norbait, alegia, bere gogamenaren gidaritzaren edo aukeraren arabera, ekintza baten existentzia ekintza beraren existentziarik eza baino nahiago izan dezakeen neurrian, eta alderantziz, bere nahiaren arabera *hura* existitzea ala ez existitzea eragin dezakeen neurrian. Zeren nik, nire atzamarra higitzera zuzenduriko pentsamendu baten bidez, geldi daukadan atzamarra higi badezaket, bistakoa da honetan aske naizela; eta horrelako pentsamenduaz bata edo bestea hobetsiz hitzak esan ala isilik egon banaiteke, mintzateko edo isilik egoteko askatasuna daukat; eta gizakia aske da, bata ala bestea aukeratzera daraman bere pentsamendua-ren hobespenaren arabera egiteko edo ez egiteko ahala duen neurrian. Izan ere, imajina ote dezakegu berak nahi duena egiteko ahala duena baino askeago den beste inor? Eta edonork, ekintza konkretu baten aurrean ekintzarik ezaren ordeztu ekintza edo atsedenen ordeztu zerbait egitea hobesten badu, ekintza hori ala atsedena gauzatzen duen neurri berean egin dezake nahi duena. Izan ere, ekintzaren eta ekintzarik ezaren artean lehenengoa hobestea, ekintza nahi izatea da; eta

nekez esan dezakegu nola burura daitekeen nahi duena egiteko gai dena baino izaki askeagorik. Eta, horretara, bere baitako ahal horren pean dauden ekintzekiko, badirudi gizakia aske dela, askatasunak libre egin dezakeeneraino.

22. *Nahi izateari dagokionez, gizakia ez da aske.*

Baina gizakiaren gogamen miatzaileak, erru pentsamendu oro berarengandik urrundu nahi duelarik, horretarako bere burua ezinbesteko beharrezkotasun egoera baino okerragoan jarri beharra badu ere, ez da horrekin konformatzen: askatasuna, hori baino harago heltzen ez bada, ez da harentzat nahikoa; eta argudio ontzat hartzen da esatea gizakia ez dela inondik ere aske, *nahi duena egiteko* askatasunaz gain, *nahi izateko ere aske* izan ez dadin bitartean. Gizakiaren askatasunari buruz, beraz, beste galdera bat dago oraindik: *gizakia aske ote den nahi izateko*; badirudi horixe dela nahimena libre den ala ez eztabaiatzen denean adierazi nahi dena. Eta honi buruz jarraian diodana pentsatzen dut.

23. *Nola ez den gizakia nahi izateko aske.*

Bigarrenik, nahi izatea edo nahikundea ekintza bat denez eta askatasuna egiteko edo ez egiteko ahalean datzanez gero, gizakia, nahi izateari edo nahikundeko ekintzari dagokionez, ezin da aske izan, bere eskumenean dagoen ekintza une horretantxe egin beharrekotzat proposatu zaionean bere pentsamenduari. Honen arrazoia agerikoa da. Izan ere, haren nahimenaren pean dagoen ekintza existitzea edo ez existitzea ezin ekidin daitekeenez eta beronen existitzea edo ez existitzea haren nahimenaren erabakia edo aukeraren ondorioz sortzen denez gero, zuzen sortu ere, ezin du galarazi ekintza hori existitzea edo ez existitzea; erabat beharrezko da bata edo bestea nahi izan dezan, hau da, bata bestea baino nahiago izan dezan, bata edo besteak etorri behar baitu nahitaez, eta datorrena bere gogamenaren aukera eta erabakimenetik, hau da, berak hura nahi izatetik baitator, nahi ez balu, gertatuko ez litzatekeelarik. Horretara, nahi izateko ekintzarekiko gizakia, kasu horretan, ez da aske, askatasuna egiteko edo ez egiteko ahala baita, berau gizakiak, nahikundeari buruz, ez duelarik aipaturiko kasuan. Izan ere, ezinbestean beharrezko du gizakiak bere ahalean dagoen ekintza egitearen edo egin gabe uztearen artean hobestea, behin ekintza bere pentsamendura horrela aurkeztuz gero; gizakiak nahitaez nahi izan behar du bietarik bat; eta hobespen edo

nahi izate horren ondorioz ekintza egitea edo galaraztea ziur dator eta nahitakoa da zinez. Baina nahi izateko edo bien artean bata hobesteko ekintza berak ekidin ezin dituen horietakoa delarik, gizakia nahi izateko ekintza honen aurrean beharrezkotasunaren pean aurkitzen da eta, beraz, ezin da aske izan, beharrezkotasuna eta askatasuna batera existitzea eta gizakia aldi berean aske eta mugatua izatea posible izan ezean. Gainera gizakia era honetan, nahi izateko ekintza bere nahimenera jarrita alegia, libre egiteko, beste nahimen bat edo nahi izateko gaitasuna aurrez existi dadin behar da, nahimen honen egintzak erabakitzeko, eta hirugarren bat bigarrena erabakitzeko eta horrela *in infinitum*; eta etena gerta dadin gunean, azken nahimenaren egintzak ezin izanen lirateke askeak izan. Eta, ni baino gorago beste izaki batzuk imajina ditzakedan neurrian, nahimenean horrelako askatasunik edukitzeko gai den beste izakirik ez dagoenez, horrexek galarazten dio nahimenari bere eskumenean dagoen edozer gauza izatea edo ez izatea aukeratzen.

#### 24. Askatasuna nahi dena gauzatzeko aukeramena da.

Orduan, gauza bat behintzat begi-bistakoa da, alegia, gizakia *ez dela libre behin kontsideratu duen gauza bat, bere ahalean duena, nahi izateko edo nahi ez izateko*, askatasuna ez baita egiteko edo egin gabe uzteko ahala besterik. Jesarrita dagoen gizakiaz askatasuna duela esaten da, ibil daitekeelako, nahi izanez gero. Ibili dabilen gizakiak ere askatasuna omen dauka, ez ibili dabilelako edo higitzen delako, gura izanez gero jesarrita egon daiteelako baizik. Baina jesarrita dagoen gizakiak higitzeko ahalik ez badu, ez du askatasunik; eta era berean, amildegian behera doan gizakiak, higitzen ari izan arren ez du askatasunik, nahi izan arren ere, higitze hori geratzerik ez duelako. Hau horrela, argi dago ibili dabilen eta ibiltzeari uzteko proposatzen zaion gizakiak ez duela askatasunik, ibiltzea edo ibiltzeari uztea erabaki beharko baitu, nahitaez hobetsi beharko duelarik bata edo bestea, ibiltzea edo ez ibiltzea. Eta gauza bera gertatzen da aurkeztzen zaizkigun gure ahaleko gainerako ekintza guztiei dagokienez ere, ekintzok, dudarik gabe, asko eta asko direlarik. Izan ere, gure bizitzan zehar itzarrik gauden une guztietan bata bestearen ondoren datozen nahitakoa ekintzen kopuru izugarria aintzat hartuz gero, oso gutxi dira nahimenari egiteko unea heldu baino lehen proposatzen zaizkionak; eta ekintza horietan guztietan, azaldu dudan moduan, gogamenak, nahi



izateari dagokionez, ez du egiteko ala ez egiteko ahalik, eta horrexe-tan datza askatasuna. Gogamenak, kasu horretan, ez du *nahi izatea* galarazteko ahalik, ekintzoi buruzko nolabaiteko erabakia ekiditerik ez duelako. Kontsiderazioa laburrena eta pentsamendua azkarrena izanda ere, ala gizakia pentsamendua baino lehenagoko egoera bere-an uzten du, ala egoera hori aldatu egiten du; ekintzan jarraitzen du ala amaiera ematen dio. Honegatik guztiagatik argi dago gogamenak bie-tarik bata agindu eta gauzatzen duela, bata hobetsiz edo bestea bertan behera utziz, horrela, beraz, dela jarraipena dela aldaketa *ezinbestez* nahitako gertatzen delarik.

25. *Nahimenaberagandik kanpoko zerbaitek determinaturik dago* .

Gizakiak, bistan denez, kasurik gehienetan nahi izan ala ez era-bakitzeko askatasunik ez duenez gero (zeren bere eskumenean dago-en ekintza bat bere pentsamenduei proposatzen zaienean, ezin baitu nahikundea eragotzi, batera edo bestera erabaki *behar* duelarik), hor-tik abiatuz lehen galdera hau da, alegia, ea *gizakia libre den higidu -raren eta atsedenearen artean, adibidez, biotarik bat nahiago izateko*. Baina galdera hau hain da bere baitan nabarmenki absurdua, non aski litzatekeen horretaz hausnar dezan edonor konbentzitzeko askatasuna ez dagokiola inoiz ere nahimenari. Zeren galdera hau egitea: ea giza-kiak baduen askatasunik zer nahiago duen erabakitzeko, higidura ala atsedena, hitz egin ala isilik egon, beste hau galdetzea bezalaxe litza-teke, alegia, ea nahi duena nahi izan dezakeen edo atsegin duen har-taz atseginik izan dezakeen, eta galdera honek, nire ustez, ez du eran-tzun beharrik; eta egiten dutenek suposatu beharko dute nahimen batek beste nahimen baten ekintzak detminatzen dituela, eta beste batek honenak eta horrela *in infinitum*.

26. *Askatasunaren eta nahikundearen ideiak definitu egin behar dira*.

Horrelako absurdukeriak ekiditeko, ezer ere ez hoberik pentsa-gai ditugun gauzen ideia zehatzak ezartzea baino. Askatasunaren eta nahikundearen ideiak gure adimenetan ongi finkaturik edukiko bage-nitu eta, beharko genukeen moduan geure adimenetan eramanen bage-nitu, haiei buruz sortzen diren auzi guztietan erabiltzeko, orduan uste dut gizakien pentsamenduak zalantza-balantzan jartzen dituzten eta haien adimenak nahasten dituzten zailtasunetarik hainbat eta hainbat askoz errazago konponduko liratekeela; eta orduan hautemanen genu-

ke zer den iluntasuna sortzen duena, hitzen esangura nahasia ala gauzaren izaera.

#### 27. *Aukeramena.*

Lehenik, orduan, kontu handiz gogoratu behar da aukeramena honetan datzala, alegia, ekintza baten existentzia edo ez-existentzia gure nahikundearen menpe egotean eta ez edozein ekintza edo beronen kontrakoa gure hobespenaren menpe egotean. Labar batean dagoen gizon batek badauka handik behera itsasora hogeï yarda saltatzeko askatasuna, baina ez horren kontrako ekintza egiteko, hau da, hogeï yarda gorantz saltatzeko ahala daukalako, hau egiterik, jakina, ez baitauka, baizik saltatzeko edo ez saltatzeko ahala daukalako. Baina berea baino indar handiagoak geldirik eusten baldin badio edo behe-rantz botatzen badu, gizaki hori ez da jada aske, ez dagoelako jada bere eskumenean ekintza hori egitea edo egin gabe uztea. Hogeï oin karratuko gela batean preso dagoenak, gelaren iparrean dagoenean, libre da hogeï oin hegorantz egiteko, harantz ibiltzeko edo ez ibiltzeko ahalbidea duelako, baina ez dauka askatasunik alderantziz egiteko, hau da, hogeï oin iparrerantz egiteko.

*Aukeramena*, beraz, honexetan datza, alegia, geuk aukeratu edo nahi izan dugunaren arabera egiteko ala ez egiteko gauza izatean.

#### 28. *Nahikundea eta ekintza zer diren.*

Bigarrenik, gogoratu behar dugu *nahikundea* edo *nahi izatea* gogamenaren ekintza bat dela, bere pentsamendua ekintzaren bat sortzera bideratzean eta, horretara, ekintza hori sortzeko duen ahala erabiltzean datzana. Berbak ugaltzea ekiditeko, nik eskatuko nuke hemen *ekintza* hitzak proposaturiko edozein ekintzaren galaraztea ere har dezan, adibidez, jesarrita edo isilik egotea ere har dezan, ibiltzea edo hitz egitea proposatzen zaigunean; izan ere, galarazte garbiak izan arren, kontrako ekintzak adinako nahimenaren erabakia behar dutenez eta haiek bezainbateko ondorio inportanteak dituztenez, ikuspegi honetatik, ongi asko har daitezke ekintzatzat; baina hau, horrela hitz egiten dudanean (labur beharrez), inoren aldetik gaizki ulerturik izan ez dadin diot.

#### 29. *Zerk determinatzen duen nahimena.*

Hirugarrenik, gogamenak gizakiaren ahalmen eragileak atse-denera edo higidurara bideratzeko daukan ahal bat besterik ez delarik

nahimena, bi elementu horiek gidaritza horren menpe dauden neurrian. Nahimena zerk determinatzen duen galderari erantzun egokia haxe da: gogamenak determinatzen du nahimena. Zeren harantz edo horrantz, norabide partikular batean, gidatzeko ahal orokorra determinatzen duena egilea bera besterik ez da, daukan ahala era konkretu horretan erabiltzen duenean. Erantzun honek betetzen ez bagaitu, argi dago «zerk determinatzen du nahimena?» galderaren esanahia hone-xetara murrizten dela: zerk bultzatzen du gogamena aldi zehatz bakoitzean, bere gidatzeko ahal orokorra higidura zehatz honetarantz edo atsedean horretarantz bideratzera? Eta honi erantzuten diot nik egoera berean irautera edota egintza berari eustera garamatzana bertan aurkitzen dugun aldian aldiko gogobetetasuna dela soilik. Alderantziz, aldatzera kezkaren batek bultzatzen gaitu beti, ezerk ere ez baikaramatza egoeraz aldatzera edo ekintza berri bat egitera, nolabaiteko kezkaren batek eraman ezean. Haxe da gogamenari ekintzan jartzera eragiten dion motibo nagusia, guk, labur beharrez, nahimenaren erabakia deituko dioguna, eta gero luzeago azalduko dudana.

### 30. *Nahimena eta desira ez dira nahasi behar.*

Baina azalpen horretara sartu aurretik, beharrezko izanen da honako hau argi uztea, alegia, gorago nahi izateko ekintza desira eta nahikundea esan nahi duten *aukeratu* eta *hobetsi* bezalako hitzez adierazten saiatu naizen arren, *nahi izate* edo *nahikunde* izen propioa erabiliz esaten dugun gogamenaren ekintza hori adierazteko beste berbarik ukan ez dudalako, hala ere, ekintza hori oso bakuna izanik, zer den aditu nahi duen edonork, bere gogamenari buruz hausnarketa eginez eta nahi duenean zer egiten duen erreparatuz hobeto ulertuko duela, ekintza horiek adierazteko asmatutako edozein hots multzoren bidez baino. Nahi izatearen eta gogamenaren beste ekintza oso ezberdin batzuen arteko aldea ongi adierazten ez duten adierazpideekin ez nahasteko ardura hau are beharrezkoagoa dela uste dut, konturatzen naizenean *nahimena* zenbait bestelako adierarekin, bereziki *desirarekin* nahasten dela, eta bata bestea adierazteko erabiltzen dela, eta hau zenbait gauza onartzeko oso uzkur liratekeen gizakiek egiten dutela, hala nola gauzen nozio ongi bereizirik ez dutela edoeta beroriei buruz ez dutela oso argiro idatzi. Hau, uste dut, ez da iluntasun eta nahasmendu iturri makala izan auzi honetan eta, horregatik, ahal den neurrian, ekidin egin behar da. Zeren, nahi duenean bere baitan zer gerta-

tzen den pentsatzen hasten denak ikusiko du nahimena edo nahikunderako ahala gure geure *egintzei* soilik lotzen zaiela, beraietan bukatzen dela gehiagora heldu gabe, eta nahikundea ez dela gogamenaren erabaki partikular bat besterik, beronetan gogamena, pentsamendu hutsez, bere eskumenekotzat daukan egintza bat sortu, jarraitu edo geratzen saiatzen delarik. Honek, ongi pentsatuz gero, argi uzten du nahimena erabat bereizgarri dela desiratik, honek, ekintza berean, nahimenak ezarritako joeraren erabat kontrakoa ukan dezakeelarik. Ezetzik esan ezin diodan gizon batek behar nazake ni beste bat konbentzitzera hari hitz egiten nagoen bitartean harengan nagusitzea nahi ez dudan gauza batez. Kasu honetan argi dago nahimena eta desira elkarren kontra ari direla. Nik alde batera doan ekintza nahi dut, nire desira bestera, aurkako norabidean hain zuzen, doan bitartean. Bere gorputzataletan hezuariaren erasoaldi gogor bat izan duelako buruan min edo urdailean jangurarik eza sentitzen duenak bere hanka edo eskuko mina ere kentzea desiratuko du (oinazea dagoen guztian, bertatik libre geratzeko gogoa izaten baita), baina, hala ere, oinazea kenduz gero humore kaltegarria beste gorputzatal garrantzitsuago batera pasa daitekeela ikusten badu, gizaki haren nahia ezin determina daiteke oinaze hori desagertaraziko dion inongo ekintzatara. Hemendik nabari geratzen da desira eta nahi izatea gogamenaren bi egintza ezberdin direla, eta ondorioz nahikunderako ahala baino ez den nahimena are bereiziago dago desiratik.

### 31. *Kezkak determinatzen du nahimena.*

Itzul gaitezen, orduan, aztertzeraz zerk daroan nahimena gure egintzei dagokienez. Eta arazoaz birpentsatu ondoren, uste dut nahimena determinatzen duena ez dela ongirik handiena, pentsatu ohi dugunez, kezkaren bat baizik, gehienetan premiazkoena. Berau da behin eta berriz nahimena determinatzen duena eta egiten ditugun ekintzetara daroana. Kezka honi desira dei geniezaioke, izan ere desira baita, eta gogamenaren kezka da, falta den ongiaren gabeziak eragina. Gorputzeko oinaze orok, edonolakoak, eta gogamenaren egonezin orok kezka dakarte eta kezkarekin batera desira etortzen da, nozituriko oinazearen edo kezkaren adinakoa eta berauetatik ia bereiztezina. Zeren, desira falta den ongiren baten gabeziak eragindako kezka besterik ez delarik, nozituriko edozein oinazeri buruz erosotasuna falta den ongi horixe da, eta erasotasun hori lortu arte, desira dei geniazio-

ke, inor ere ez baitago sentitzen duen oinazea arintzea desiratzen ez duenik, oinaze horren parekoa eta berorretatik bereiztezina den desiraz desiratu ere. Oinazea arintzeko desira honez gain, falta den ongi positiboa eskuratzekoa dago; eta hemen ere desira eta kezka neurri berekoak dira. Falta den ongi bat desiratzen dugun neurri berean sentitzen dugu oinazea. Baina falta den ongi orok ez du eragiten daukan edo aitortzen diogun handitasunaren neurri bereko oinazea; oinaze orok, ordea, bere tamainako desira eragiten du, ongiaren gabezia ez baita beti oinaze, oinazearen presentzia, aldiz, bai. Eta horregatik falta den ongia kontsidera daiteke eta aurre egin diezaiokegu oinazerik gabe. Baina han edo hemen desira dagoen heinean kezka ere hantxe izanen da.

### 32. *Desira kezka da.*

Desira kezka egoera bat dela erraz aurkituko du bere buruari buruz hausnarketa egin dezan edonork. Nork ez du bere desiran sentitu zuhurak esperantzari buruz (hartatik oso diferentea ez dena berau) esandakoa (Esaera Zaharrak, XII, 12), alegia, luzatuz doan neurrian bihotza indargabetzen duela? Eta hori desiraren handitasunaren heinean, batzuetan kezka hain gora jasotzen duelarik, non jendeari oihu eragiten dion esanez: «Emaizkidazue semeak» (emaidazue nahi dudana) «edo hil egingen naiz». Bizitza bera eta dituen gozamen guztiak zama eramanezin dira horrelako kezkaren presio iraunkor eta arindu gabekoaren pean.

### 33. *Desiraren kezkak determinatzen du nahimena.*

Ongiak eta gaizkiak, bertan zein urrunean direnean, eragina dute beti, egia da, gogamenean. Baina, alditik aldira, nahimena nahi-tako ekintza bakoitzera *zuzenean* determinatzen duena falta den ongi-ren batean jarritako *desiraren kezka* da, dela hau negatiboa oinazea arintzearen kasuan bezala, dela positiboa plazerraren gozamenean bezala. Kezka hauxe dela gure bizitzaren zatirik handiena betetzen duten eta bide ezberdinetatik xede ezberdinetara garamatzaten nahitako eta segidako ekintzetan nahimena determinatzen duena, horixe frogatzen saiatuko naiz bai esperientziazatik eta bai gauzatik bertatik ateratako arrazoiak erabiliz.

### 34. *Berau da ekintzar en eragingailua.*

Gizakia bere egoeraz erabat gustura dagoenean edota kezka orotik guztiz libre, zer nahi lezake egoera horretan jarraitzea besterik?

Hau horrela dela edonork daki bere esperientziatik. Horregatik, ikusten dugunez, ezarri ditu gure izatearen Egile zuhurak gizakien baitan, euren osaera eta egikeraren arabera eta euren nahimena zerk darabilen jakinik, gosearen eta egarriaren ezerosotasunak eta gainontzeko desira naturalak, dagokien sasoian berriro ernetzen direnak, gizakien nahimenak sustatu eta determinatzeko, euren iraupenerako eta espeziearen jarraipenerako. Zeren uste baitut honako ondorio hau atera dezakegula, alegia, baldin kezka ezberdin horien bulkadaz helmuga ditugun bi xede horien *kontenplazio hutsa* nahikoa balitz gure nahimena determinatu eta gu ekintzan jartzeko, ez genituzkeen ditugun oinaze naturalak eta agian mundu honetan ez zegokeen oinazetik, ez handi ez txikirik. «Hobe da», dio San Paulok (I Korintoarrei, VII,9) «ezkontzea, erretzea baino», hemen ikus dezakegularik zerk daramatzan gizakiak ezkonbizitzako plazerretara. Erremin apur bat sentitzeak bulkada askoz indartsuagoa eragiten digu, etorkizuneko plazerrik handienen erakarpenak baino.

35. *Nahimena, ongi positiborik handienak barik, kezka pre-sentziak determinatzen du.*

Badirudi erabat ezarritako eta gizateria osoaren adostasunaz finkaturiko esaldia dela ongiak, ongirik handienak, determinatzen duela nahimena eta, horregatik, ez nau inondik ere harritzen gai honi buruzko pentsamenduak lehen aldiz argitaratu nituenean hau suposatuzat jo izanak; eta uste dut asko izanen direla pentsatzen dutenak bar-kagarriago dela nik hori egin izana, orain hain doktrina onartutik aldentzen ausartzea baino. Hala ere, azterketa hertsia goa egin ondoren, ondorio honexetara heldu naizela esan behar dut, alegia, *ongi-rik handienak*, halakotzat atzemana eta onartua izan arren, ez duela nahimena determinatzen, ez bada gertatzen, ongia bere bikaintasunari dagokion heinean desiratu izaki, desira horrek gu kezkatzea hura kendu zaigulako. Gizaki bati oparotasuna pobrezia baino hobe dela sinestarazten saiatu arren, bizitzako erosotasun aukerakoak lazeria nazkagarria baino hobeak direla ikusarazten eta hortaz jabeazten ahale-gindu arren, azken egoeran pozago egon eta horrek kezkarik sortarazten ez dion bitartean, ez da higituko; haren *nahimena* ez da beste egoera ezberdinen batera eramane duen ezein ekintzatar determinatuko. Demagun bertutearen balioaz sinetsita dagoen norbait, zeinak zinez uste duen ezin besteko dela hura mundu honetan gauza handirik egiten

saiatzen den ororentzat edo beste munduan zoriontsu izatea espero duenarentzat, jatekoa bizitzeko ezinbesteko den bezainbatean, hala eta guztiz ere, gizaki hori justiziaren gose-egarri senti ez dadin bitartean, justizia hori ez daukagulako kezka bizia senti ez dezan bitartean, bere nahimena ez da determinatuko aitorturiko ongi goren hori lortzera daraman ekintzara; eta, aitzitik, bere baitan sentitzen duen beste kezka-aren bat nagusituko zaio eta beste gauza batzuetara eramanen dio nahimena. Demagun, bestalde, ardoari emana dabilen norbaitek erabaki duela bizimodu horretan osasuna hondatzen duela eta bere dohainak alferrik galtzen ari dela, jende aurrean ohorea galduko duela, gaitzak erakarriko dituela beragana eta premia gorrian jausiko dela, halako moldez non ezin izanen duen atseginik hartu berataz hain gogor jabetu den edateko grinan ere. Hala ere, parranda kideengandik urrun izateagatik berriro sentitzen hasi den kezka tabernara eramanen du ohiko orduetan, gogoan izan arren osasunaren eta ondasunaren galera, eta agian betiko zorionarena ere; eta ez du pentsatzen berez munta eskasekoa denik, zeren aitortzen baitu zorion hura edateko plazerra baino eta alproja koadrilaren berriketa hutsala baino askoz ere bikainagoa dela. Neurgabekeria badirau, ez da izanen ongi gorena begien aurrean ez duelako, zeren gogartzen baitu eta aitortzen haren bikaina eta ardotarako orduen bitarteko astian ongi bikain hori eskuratzen saiatzen baita, baina ohituta dagoen plazerra kenduko zaiola pentsatzeak torturatzen duenean, edatea baino bikainagoa dela aitortu duen plazerak eragina galtzen du bere gogamenean eta, alderantziz, oraingo kezka determinatzen du bere nahimena ohiko ekintzarantz, eta horregatik eta horrekin batera datozen inpresio biziaren poderioz, berriro ere edaria gailenduko da, aldi berean bere buruari hitz emanen dion arren ez duela berriro horrelakorik egingen, eta iruditzen zaion arren hura izanen dela bere interes funtsezkoenen aurka jokatu duen azken aldia. Horrela, noizbehinka honako hau esatera beharturik aurkitzen da: *Videomedia - ra, pr oboque, deteriora sequor* . Egiatzat onartzen den esaera hau, etengabeko esperientziak baitetsia, adiera honetan ulertterraza da, beste testuinguru batzuetan, agian, hain erraz ulertzekoa ez bada ere.

36. *Kezka kentzea delako lehenengo harmaila zoriontasunera - ko bidean.*

Baldin esperientziak hain argiro erakusten duenaren arrazoia ikertu eta nahimenaren baitan eragina duen eta aukeratu orduan hura

horretara edo determinatzen duen bakarria kezka zergatik den aztertzen badugu, aurkituko dugu ezen, nahimena bakoitzean ekintza batera baino gehiagotara determinatzeko ahalmenik ez daukagunez, unean-unean zirikatzen gaituen kezkak determinatzen duela naturalki nahimena ekintza guztietan helburu dugun zorionerantz. Zeren, kezka edo ezerosotasunen baten eraginpean gauden bitartean, ezin gara zoriontsu edo zorionerako bidean sentitu; oinazea eta kezka zorionarekin uztartzeaz ditugunez eta, gainera, dauzkagun gauza onen gozamenaren ere eragotzi egiten dutenez, aski da oinaze txiki bat atsegin guztien gozamenaren hondatzeko. Eta, horregatik, hurrengo ekintzari buruz gure nahimena determinatzen duena guregan dirauen oinazea kentzea da, zorionerantz lehenengo pauso legez.

37. *Kezka bakarrik dagoelako presente.*

Nahimena kezkak bakarrik determinatzen duela baieztatzeko beste arrazoi bat hau da: bera bakarrik dagoelako presente eta gauzen izaeraren kontrakoa delako urrunean dagoenak ez dagoen tokian eragitea. Argudia liteke falta den ongia, kontenplazioz, gogamenaren baitara ekar eta presente egin litekeela. Haren ideia, bai, izan daiteke gogamenean eta han presente bailitza ikus; baina falta den ongiaren ideiak ezin dezake pisu-berdindu orain arduratzen gaituen kezka edo atseka-bearen sentipena, ongi horrek guran desiraren bat susper dezan puntu-raino, eta kezka da gailen nahimena honetara edo hartaratzeko orduan. Hau gertatzen ez den bitartean, gogamenean dagoen edozein ongiren ideia beste ideia batzuk bezalaxe soilik egonen da han, nahimenean eraginik ez duen eta ekintzara bultzatzen ez gaituen pentsagai huts ez-aktibo baten modura; honen arrazoia berehala azalduko dut. Askok eta askori paradisuko zorion ezinezanezkoak ahalgarri eta gertakortzat onartzen dituzten deskribapen biziz aurkezten zaizkie, baina mundu honetan bizitzeko zorionarekin aski lukete. Izan ere, haien oraingo desirak dagozkien kezkak gailentzen direnean eta bizitzako atseginetarantz azkarki determinatzean, euren nahimenak haien bila jartzen dituzte; eta tenore horretan ez dute urratsik egiten, espirik ez dira higitzen, beti bezain handitza dituzten beste bizitzako ontasunetarantz.

38. *Paradisuko zorionak ahalgarritzat onartzen dituztenak haien atzetik ez dabiltzalako.*

Nahimena ongia ikusteak, hau da, adimenak ongi handiago edo txikiagoa ikusteak determinaturik balego, falta den ongiaren



kasuan ere horrela izanik, onarturiko iritziaren arabera nahimena ongi horretarantz ongi handiagoak higitzen duenez, ez dut ulertzen nola alden litekeen inoiz nahimena paradisuko zorion infinituetatik, behin ahalgarritzat proposatu eta onartu ondoren. Zeren, falta den ongi orok, gogamenari proposatu eta aurkeztu ondoren, horrexegatik soilik nahimena determinatzen badu eta ekintzan jartzen bagaitu, falta den ongi oro eskuratzea ahalgarri denez, nahiz eta ez hutsezinki, hemendik nahitaez segituko litzateke amaigabeki handiagoa den ongi ahalgarriak erregularri eta etengabe determinatuko lukeela nahimena gidatzen dituen segidako ekintza guztietan; eta horrela etengabe iraunen genuke beti zerurako bidean, inoiz ez geratu ez gure ekintzak beste ezein xedetara bideratu gabe, zeren etorkizuneko egoera horrek agintzen digun betierekotasunak pisu handiagoa ukan behar luke, iruditu eta lorkizuntzat ukan genitzakeen aberastasun, ohore edo beste edozein mundutar plazerren esperantzak baino, zeren, etorkizun den ezereen jabe ez garenez oraindik, horien ustea ere ustel atera dakiguke eta. Hala bada, egia baldin balitz nahimena ikusten den ongirik handienak determinatzen duela, hain ongi handiak, behin proposatu ondoren, nahimenari oratu eta infinituki handiena den ongi honen bila determinatuko luke indartsu, beste inora joaten utzi gabe, horrelakorik gertatuz gero, nahimenak pentsamenduetan eta beste ekintzetan ahala izanik, gogamena ongi horretan finkatuta edukiko lukeelarik.

### 39. *Baina ezein kezka handi ez da inoiz bertan behera uzten.*

Hauxe litzateke gogamenaren egoera eta nahimenaren joera erregularra bere erabaki guztietan, baldin nahimena determinatzen duena ongirik handientzat hartzen eta ikusten dena balitz. Baina hau horrela ez dela ikusteko esperientziara jotzea baino ez dago, infinituki handiagoa dela aitortzen dugun ongia maiz uzten baita bertan behera, txikikeriak lortzeko desiren kezka asetzeko. Baina, handientzat onartzen dugun ongibeitiraunkor eta ezinesanezko horrek, noizbehinka gogamena higitu eta ukitu duenak, nahimenari aldaezin eusten ez badio ere, hala ere ikusten dugu, edozein kezka handi eta gailenek behin gogamenari estu oratu dionean, ez diola alde egiten uzten, eta horregatik sinets dezakegu horrexek determinatzen duela gogamena. Era horretan, gorputzeko edozein oinaze bizik, amodio sutsuz maitemunduriko gizonaren grina menperaezinezkoak edo mendeku-desira

asegabeak, nahimena tinko eta erabakitsu mantentzen dute; eta horrela determinaturiko nahimenak ez dio adimenari bere objektutik aldentzen uzten, baizik gogamenaren pentsamendu guztiak eta gorputzaren ahal guztiak horrexetarako erabiliko dira etengabe nahimenaren erabakiaren eraginez, nahimena ere kezka oso indartsu batek horretaritzen duelarik, dirauen bitartean; eta hemendik begi-bistakoa dela deritzot nahimena edo ekintza bat beste guztien artean hobesteko ahala kezka determinatzen duela gure baitan; eta hau horrela den ala ez den, nork bere baitan ikustea nahi nuke.

40. *Desira kezka ororen lagun joaten da.*

Honaino batez ere desiraren *kezka*z ari izan naiz, nahimenaren determinatzailetzat joz, nahimenaren bultzakada nagusi eta sentigarriena delako; eta oso gutxitan gertatzen da nahimenak ekintzaren bat agintzea edo gure baitan nahitako ekintza sortzea, desiraren batek lagunduta ez bada; horrexegatik nahasten dira, nire ustez, hain sarri elkarrekin nahimena eta desira. Ez dugu, baina, sinetsi behar gainerako grina gehienen parte edota haien ondorio den kezka puntu honetatik at dagoenik; zeren gorrotoak, beldurak, kolerak, bekaitzak, lotsak, bakoitzak dauka bere kezka, eta honen bidez dute eragina nahimenean. Grina hauetarik, bizitzan eta praktikan, bat bera ere soilik eta bakarrik existitzen denik zalantzatan jartzen dut; nahiz eta normalean gure arrazoiketan eta kontenplazioan indarrik handiena daukana eta gogamenak argien ikusten duena nagusitzen den. Are, uste dut oso gutxitan aurkitu ahal izanen dela desira lagun ez daroan grinarik. Ziur nago, bestalde, kezka dagoenean desira ere badagoela. Izan ere guk etengabe desiratzen dugu zoriontasuna; eta kezka sentitzen dugun neurri berean sentitzen dugu zoriontasuna falta zaigula, hori geure iritiz denean ere, iritzi horrek eduki daukagun egoerari ez erantzun arren. Gainera, gure betierekotasuna une presenteari ez datzekiolarik, begirada aurrerantz luzatzen dugu, zeinahi izanda ere oraingo gure atseginak, eta etorkizuneranzko aurrebegirada hauen lagun den desirak nahimena daroa beti berekin, halako moldez non, pozaren erdian ere, oraingo atseginari dagokion ekintzaren euskarri atsegin berorri eusteko desira baita, eta hura kenduko diguten beldurra; eta kezka hau baino larriagoa den beste batek gogamena hartuko duen aldi oro, berehala determinatuko du gogamena beste ekintza batera, uneko atsegina gutxietsiz.

41. *Presio handiena egiten duen kezka determinatzen du naturalki nahimena.*

Baina mundu honetan hainbat kezka ezberdinek inguratzen eta hainbat desira ezberdinek hara eta hona erakarririk bizi garenez, hurrengo arakatu behar dena da ea horietako zein den indartsuena nahimena hurrengo ekintzara determinatzeko. Honi erantzun dakioke esanez eskuarki presiorik handiena egiten duen kezka izaten dela, une horretan kengarritzat ditugun artean. Zeren, nahimena gure ekintza-ahalmenak ekintzaren batera, xederen batera, bideratzeko ahala delarik, ez dago hura inola ere higitzerik eskuraezin ikusten den ezertarantz; izan ere, hau, adimendun izaki batek beren beregi xederen bat lortzera jotzean, zeharo huts egitea litzateke, horixe baita eskuraezintzat dugun zerbait lortu nahian jardutea; horregatik kezka oso handiek ez dira nahimena mugitzeko gauza, erremediorik ez dutela uste denean, eta kasu horretan ez gaituzte bultzatzen ahalegintzera. Baina hauek albora utzita, une horretan sentitzen ditugun kezkarik inportanteen eta larrienak dira normalean nahimena determinatzen dutenak behin eta berriz, gure bizitza osatzen duten nahitako egintzen segida horretan. Une bakoitzean daukagun kezkarik handiena, etengabe sentitzen dena, da ekintzarako akuilua, nahimena hurrengo ekintza aukeratzera gehienbat determinatzen duena. Zeren beti ere gogoan izan behar dugu, nahimenaren objektu egokiena eta bakarra geure ekintzetako bat, eta ez beste ezer, dela. Izan ere, nahi izatean geure eskumenean dagoen ekintza bat besterik sortzen ez dugunez, nahimena hantxe amaitzen da eta ez da harago heltzen.

42. *Jende orok desiratzen du zoriona.*

Galdetzen bazaigu, horrez gain, ea zerk suspertzen duen desira, gure erantzuna izanen da: zorionak, ez beste ezerk. Zoriona eta miseria azken mugak ezezagunak zaizkigun bi muturren izenak baino ez dira. «Giza begiak sekula ikusi ez duena, belarriak entzun ez duena, bihotzak ulertu ez duena». Baina bai bataren, bai bestearen zantzu biziak existitzen dira, mailaren batean, gure baitan, laketa poztasun, oinaze eta pena mota ezberdinen bidez; hauek denak laburbiltzen ditut nik atsegina eta oinazearen deiturapean, bata zein bestea gogamenari bezala gorputzari ere dagozkiolarik —«berarekin zorion bete eta betiko atsegina dago»—, edota zehazkiago mintzatuz, goga-

menarenak soilik direlarik, nahiz eta orain gogamenean sortutako pentsamendu zehatz batzuen ondorio, orain, berriz, zenbait higidura aldaera dela bide.

43. *Zer diren zoriona eta miseria, ongia eta gaizkia.*

Horrela, *zoriona* bere osotasunean gozatzeko gai garen atsegirik handiena da, *miseria*, berriz, era berean hartuta, senti dezakegun oinazerik handiena. Eta *zoriona* dei dezakegun mailarik baxuena egoera hura da, non, oinaze orotik aske, atsegin presenteaz gozatzen dugun, halako moldez ezen gutxiagorekin ezin kontenta gaitzezkeela. Orain, atsegina eta oinazea gure baitan, gogamenean edo gorputzean, zenbait objekturen maila ezberdineko eraginez sortzen direnez, *ongia* deitzen diogu gure baitan atsegina eragin dezakeenari eta *gaizkia*, oinazea eragin diezagukeenari; eta hau, gure baitan atsegina eta oinazea, gure zorionaren edo miseriaren muin direnak, eragin ditzaketelako baino ez. Areago, edozein mailako atsegina eragin diezagukeena berez ona eta edozein mailako oinazea eragin diezagukeena txarra izan arren, sarritan ez zaie horrela deitzen, ongi edo gaizki horietako bata zein bestea ongi edo gaizki handiago batekin lehian sartzen direnean, zeren lehian sartzen direnean, atsegin eta oinaze mailei ere hobespena dagokielako. Horretara, beraz, *ongia* edo *gaizkia* deritzana behar bezala balioetsi nahi badugu, aurkituko dugu konparazioaren menpe dagoela, oinaze maila txikiago bakoitzaren kausak, baita atsegin maila handiago bakoitzaren kausak ere, ongiaren izaera baitute, eta alderantziz.

44. *Zein ongi desiratzen den eta zein ez.*

Nahiz eta horixe den *ongia* eta *gaizkia* deritzana eta desirari, oro har, dagokion objektua ongi oro den, hala ere, ongi orok, halakotzat hartu eta aitortuak berak ere, ez du suspertzen nahitaez gizaki konkretu bakoitzaren desira, *gizakiaren* zorionaren ezinbesteko partetzat hartzen direnek baino ez baitute suspertzen. Beste ongi guztiek, egiatan edo itxuraz handienak izanda ere, ez dituzte suspertzen bere ustez asetzeko balioko dion zorion zati bat legeaz ikusten ez dituen *gizakiaren* desirak. *Zoriona*, horrela ikusita, edonork bilatzen du etengabe, eta zorion horren zatiren bat eragiten duen oro desiratzen du; beste gauza asko, ongitzat harturikoak, desirarik gabe ikus ditzake eta, paso eginez, haiek gabe pozik gera. Inor ez da, nik uste, ezagutzean atsegina dagoela ukatzeko bezain burugabeko; sentimenetako plaze-

rrei dagokienez, berriz, jarraitzaile gehiegi dituzte zalantzatan jartze-ko gizakien haiekiko zaletasuna. Orain, demagun gizon batek senti-  
menetako plazerretan jartzen duela bere atsegina, eta beste batek eza-  
gutzako gozamenean; berauetako bakoitzak besteak bilatzen duen  
horretan plazer handia dagoela onartu beharra duen arren, hala ere,  
bestearen gozamena bere zorionaren partetzat ez bata ez besteak ez  
dutenez, haien desirak ez dira bestearen helburura determinatzen eta  
bestearen gozamena den hori gabe asetzen dira, eta nahimena ez da  
mugitzen bestearen atsegina eskuratzerara. Hala eta guztiz ere, ikastera  
dedikaturiko gizakiarengan gose-egarriek ezerosotasuna sortaraziz  
gero, hau, nahiz eta beronen gogamena janari onen, saltsa gozoen eta  
ardo bikainen atzetik, beraietan aurkitzen duen zapore atseginagatik,  
sekula ibili ez den, hale ere, gose-egarrien ezerosotasunak janari-eda-  
rien bila bultzatzen du, nahiz eta, baliteke, topatuko dituen elikagaien  
kalitateak ardurarik eman ez. Ikasten buru-belarri dabilen epikurearra,  
ordea, lotsak edo amorantearen aurrean bere burua goraiatu nahiak  
hartaratzen duenean bakarrik sentituko da ezagutzarik ez duelako  
deseroso. Era horretan, gizakiak zorionaren atzetik arduraz eta eten-  
gabe dabilzala egia bada ere, gerta dakieke ongiaren, handitasuna  
duen eta aitortzen dien ongiaren ikuspegi argia edukitzea, haren ardu-  
rarik sentitu gabe edo haren bulkadarik izan gabe, hura gabe zoriona  
lor dezaketela pentsatuz gero. Baina oinazeari dagokionez, ez da  
gauza bera gertatzen. *Oinazeak* beti arduratzen ditu gizakiak, kezkak  
nahitaez eragiten dielako. Eta horregatik, euren zorionerako falta  
duten guztiak kezka sortzen dienez, euren zorionaren zati bat bete  
lezakeen ongiren bat agertzean, hura desiratzen hasten dira.

#### 45. *Zergatik ez den beti desiratzen ongirik handiena.*

Uste dut edonork hauteman dezakeela bere baitan eta besteen-  
gan, ikusten den ongirik handienak, ongi horrek erakusten duen eta  
onartzen zaion handitasunaren heinean, ez dituela beti sortarazten giza  
desirak, okerrik txikienak, ordea, bultza egiten digun eta hartatik aske  
geratzeko lanean jartzen gaituen artean. Honen arrazoia argi eta erraz  
atera daiteke gure zorionaren eta miseriaren izaeratik bertatik. Oinaze  
orok, dena delakoak, gure miseriaren zati bat osatzen du, baina falta  
den ongi orok ez du gure oraingo zorionaren ezinbesteko zati bat osa-  
tzen, eta haren ausentziak ere ez, gure miseriaren zati bat. Horrela  
balitz, zorigaiztoko ginатеke etengabe eta *in infinitum*, zoriontasun

maila infinituak daudelako guk ez dauzkagunak. Horregatik kezka edo ezerosotasun guztia kenduz gero, ongiaren edozein zati, txiki samarra izan arren, nahikoa da gizakiak kontentatzeko, eta gozamen arrunten segida batean plazer maila gutxi batzuk gehiago edukitzeak gizakiak asetzeko besteko zoriona sortarazten du. Hau horrela ez balitz, ez legoke lekuri gure nahimenak hain sarri erabakitzen dituen arrakastarik ez garrantzirik gabeko ekintza horientzat, guk geure bizitzaren zati handi bat beroriek egiten nahita alferrik galtzeko baino balio ez dutenentzat, hau ulertezin gertatuko litzatekeelarik nahimenaren eta desiraren erabakia garrantzitsuago modura agertzen den ongiaren alde balitz etengabe. Hau horrela dela sinesteko, inor gutxi joan beharko du, nik uste, bere ingurutik kanpora. Eta, izan ere, bizitza honetan ez dira asko erdi-purdiko plazer neurtuen segida batez gozatzeko moduko zoriona, kezkarik nahasi gabe, dutenak. Hala ere, beti hementxe egoteko prest eta pozik leudeke, nahiz eta ezin ukatu bizitza honen ostean beti iraunen duten gozamenaz beteriko bizitza bat izan daitekeela, hemen aurki daitekeen ontasun guztia askogatik gaudituko duena. Areago, nahitaez ikusi beharra dute geroko bizitza hori daitekeenagoa dela berek desiratzten dituzten ohore, aberastasun edo plazer horiek, zeinengatik betiereko bizitza albo batera uzten duten, eskuratu eta mantentzea baino. Baina, nahiz eta diferentzia hori argi ikusi, nahiz eta oso sinetsirik egon geroko bizitzan zorion erabateko, seguru eta iraunkorra ukanen dutela eta hura lortzerik ez dutela izanen, beren zorientasuna bizitza honetako plazer eta desira txikietara mugatu eta zeruko gozamenak kanpo uzten dituzten bitartean, hala ere, itxurazko ongi handiago horrek ez ditu haien desirak mugitzen eta haien nahimenak ez dira determinatzen hura eskuratzeko inolako ekintza edo ahaleginera.

#### 46. *Desiratu ez den ongiak zergatik ez duen nahimena higitzen*

Gure bizitzako premia arrunten zati handi bat gose, egarri, bero, hotz, neke, lan eta loaren ezerosotasunak eta kezkek betetzen dituzte, behin eta berriro agertzen zaizkigularik. Honi guztiari, ezbehar akzidentalez gain, gehitzen baldin badizkiogu gure fantasiak sortarazitako kezkek (ohore, botere, aberastasun... egarria), azturak, beskeen exenpluak, geure hezierak gudan sortutakoak guztiak, eta ohiturak berezko bihurtu dizkigun beste mila desira, orduan aurkituko dugu gure bizitzako zati txiki-txiki bat baino ez dagoela kezka *horiek* gabe eta zeharo falta den ongi baten erakarmenerako libre. Oso gutxitan

egoten gara geure desira berezko edo harturikoen eskakizunetatik libre; izan ere premia naturaletatik edo harturiko azturetatik sortu eta metaturiko kezken segida etengabe bat jabetzen da, kezkak agertu ahala, gure nahimenaz; eta nahimenaren erabakiz hasitako ekintza bat burutu baino ez, beste kezka bat daukagu prest gu berriro martxan ipintzeko. Zeren, sentitzen eta min ematen digun oinazea kentzea denez miseriatik libratzeko eta, beraz, zorionerako lehenbizi egin beharreko gauza, orduan falta den ongia, nahiz eta gure pentsamendu guztiak bete eta guk ongi gisa ikusi eta estimatu, hura ez edukitzeak gure zorionik eza sortarazten ez duenez, albo batera uzten da, sentitzen ditugun kezka eta ezerosotasunak kentzeko ahaleginei lekua uzteko; eta harik eta ongi hori behar bezala eta maiz kontenplatuz gure gogamenera hurbildu eta atseginen bat eman eta gure baitan harekiko irrikaren bat sortu arte eta, gure kezken parte izaten hasita, asetu beharreko gainerako kezken pareko izatera heldu arte, ez da, handitasun eta presioaren arabera, nahimena determinatzera heltzen.

*47. Behar bezala kontsideratzeak desira eragiten du.*

Eta, horretara, proposaturiko ongia behar bezala kontsideratu eta aztertuz, desirak sor daitezke gure ahalean ongiaren balioaren heinean, eta ongi horrek, gero, gure nahimenean eragina izanen du ongi hori eskuratzera bultzatuz. Zeren ongiak, oso bikaina iruditzen eta halarikotzat onartu arren, gure gogamenean desirak eragin arte eta, beraz, gu ongi hori falta zaigulako kezkati jarri arte, ez du gure nahimenean eraginik; lehenago gu ez gaude haren eraginaren eremuan, gure gogamena presente ditugun kezken ez besteren erabakiaren menpe baitago, hauek, ditugun artean, beti ari direlarik nahimena hurrengo ekintzara determinatzea eskatzen. Izan ere, zalantza bakarra, gogamenean horrelakorik denean, lehenbizi zein desira asetuko den edo zein kezka kenduko den da. Horregatik gertatzen da gure gogamenean kezkaren bat, desiraren bat, geratzen den bitartean, ez dagoela lekurik ongia, ongi huts bezala, nahimenera heltzeko edo hura ekintzara determinatzea lortzeko. Zeren, esan dugun moduan, zorionerako gure ahaleginen *lehen* pausoa miseria zeharo ekiditea eta haren zatitxo batik ere ez sentitzea izanik, nahimenak ez du beste ezertarako patxadarik, sentitzen ditugun kezka guztiak zeharo kendu arte; eta gure oraingo egoera erabat hobagarrian hain premia eta desira asko sentitzen dugunez, sekula ez gara haietatik libre izatera helduko mundu honetan.

48. *Edozein desiraren bilaketa esekitzeko ahalak kontsidera - ziora garamatza.*

Gure baitan hainbat eta hainbat kezka daudenez hantxe zirika eta nahimena determinatzeko prest, bidezko da, esan dudan moduan, handienak eta indartsuen zirikatzen gaituenak nahimena hurrengo ekintzara determinatzea; eta horrelaxe egiten du gehienetan, baina ez beti. Izan ere, gogamenak, esperientziak argi erakusten duen moduan, bere desiretako edozeinen burutzea eta asetzea *esekitzeko* ahala duenez, eta denetan bata bestearen ondoren horixe gertatzen denez, desira horien objektuak kontsideratzeko, aintizin-gibel aztertzeke eta elkarrekin alderatzeko askatasuna du. Horrexetan datza gizakiak duen askatasuna eta berori behar bezala ez erabiltzetik datoz geure bizitzako jokabidean eta zoriona lortzeko ahaleginetan egiten ditugun hainbat eta hainbat desbideratze, akats eta hutsune, nahimena lasterregi erabakia hartzera behartzen baitugu, gaia behar bezala aztertu aurretik. Hau ekiditeko, desira hori edo bestea asetu nahia esekitzeko ahala daukagu, nork bere eguneroko esperientzian egiazta dezakeen moduan. Horixe dela uste dut askatasun ororen iturria, eta badirudi horrexetan datzala nire ustez oker deritzan *aukeramen librea*. Izan ere, edozein desira esekirik dagoen bitartean, nahimena ekintza batera determinatu eta ekintza (determinazioaren ondoren datorrena) burutu aurretik, egitera goazenaren alde ona eta txarra aztertu, ikusi eta juzgatzeko parada daukagu, eta behar den moduan aztertu ondoren judizioa ematen dugunean, egin behar genuena egin dugu eta geure zoriona lortzeko ahal edo behar genuen guztia; eta gure naturaren akatsa barik perfekzioa da azterketa zintzo baten azken ondorioaren arabera desiratu, nahi izan eta jardutea.

49. *Geure juzgamenaren arabera determinatua izatea ez da askatasunaren murrizketa.*

Hau gure askatasuna ito edo murrizten duena izatetik bezain urrun dago bertan dagoen gauzarik onuragarriena eta perfektuena izatetik; ez da gure askatasunaren murrizketa, beronen xede eta erabilera baizik. Eta era honetara erabakitzetik zenbat eta urrunago gauden, orduan eta gertuago egonen gara miseriatik eta morrontzatik. Izan ere, gogameneko ezaxola erabatekoa, ongiari eta gaizkiari buruz daukan azken judizioak, haren aukera, ustez, gauzatu behar duenak, determinatu ezin izanen lukeena, zeinahi adimendun izakiren abantaila eta



gorentasuna izatetik oso urrun legoke eta izaki hori nahimenak erabaki arte egiteko edo ez egiteko ezaxolarik ez leukakeen izakia bezain inperfektua litzateke. Gizakia libre da eskua burura eramateko ala geldi uzteko; bata zein beste guztiz zaio ezaxola eta posibilitate hau ez edukitzea, ezaxolatasun honen jabe ez izatea, inperfekzioa litzateke. Baina inperfekzioa litzateke, halaber, eta ez txikiagoa, eskua altxatzeko edo geldi edukitzeko ezaxolatasun berori balu, gainera datorkion zartadatik burua edo begiak defendatu beharra lukeenean. Hainbesteko perfekzioa litzateke desira edo hobesteko ahala ongiak determinatzea, nola den egiteko ahala nahimenak determinatzea; eta zenbat eta seguruagoa determinazio hori, orduan eta handiagoa perfekzioa. Eta guk juzgaturiko ekintza baten ongiaren ala gaizkiaren inguruan geure gogamenean eratu dugun azken emaitza ez den zerbaitek determinatuko bagintu, orduan ere ez ginateke aske izanen, geuk aukeratu dugun ongia erdietsi ahal izatea, izan ere, gure askatasunaren xedea bera baita. Eta, horregatik, gizaki oro, adimendun izaki denez, bere pentsamendu eta juzgamenaren arabera egin behar duela uste duen huraxe nahi izatera determinaturik dago; bestela inoren erabakiaren menpean egonen litzateke eta hori askatasunik ez edukitzea da. Eta gizakiaren nahimenak, erabaki bakoitzean, bere juzgamenari jarrai jarduten duela ukatzea, gizaki horrek nahi eta jarduten duen une horretan ez daukan xede bat gura duela eta berori erdiesteko diharduela esatea da. Zeren oraingo pentsamenduetan xede hori besteen aurretik hobesten badu, badirudi besteak baino hobetzat duela eta besteekiko lehentasunez nahi duela, bestela hori eduki eta eduki ez, nahi eta nahi ez, biak batera egin ahal izanen lituzke eta, eta hau kontraesan handiegia da inork onartzeko.

50. *Egilerik askeenak horrelaxe determinaturik daude.*

Zorion beteaz gozatzen duten goi mailako gizakiei begiratzen badiegu, arrazoiz juzgatu ahal izanen dugu gu baino determinatuagoak daudela ongiaren aukerara, baina hala eta guztiz, gu haiek baino zoriontsuago edo askeagoak garela pentsatzeko arrazoirik ez daukagu. Eta gu bezalako kreature finituei jakituria eta ontasun infinituak zer egin dezakeen esatea balegokigu, uste dut esan ahal izanen genukeela Jainkoak berak *ezin duela* ona ez dena aukeratu eta izaki ahalguztidun horren askatasunak ez diola galarazten onenaren mesedetan determinatuta izatea.

51. *Zoriona bilatzera etengabe determinaturik egoteak ez du suposatzen askatasunaren mugapenik.*

Baina askatasunari buruzko iritzi honen okerra hobeto azaltzeko, zilegi bekit hauxe galdetzea: Hausnarketa zuhurrek ergelarengan zentzudunarengan baino eragin gutxiago dutela-eta, nork nahi du ergel bilakatu? Merezi al du askatasuna deitzea zorakeriak egin eta nork bere buruari desohorea eta miseria ekartzeko libertateari? Askatasuna, zinezko askatasuna, arrazoiaren uztarria gainetik kentzea eta txarrena aukeratu edo egitetik gordetzen gaituen azterketa eta judizioa murriztea balitz, orduan eroak eta zentzugabeak lirateke libre bakarrak; ez dut, baina, uste halako askatasunaren maitasunagatik inork zoratu nahi duenik, lehendik zoro denak izan ezik. Halaber uste dut inork ez dituela askatasunaren mugapentzat edo behintzat kexa eragin dezakeen mugapentzat, hartuko zorionaren etengabeko desira eta horrek ezartzen digun haren bila jardun beharra. Jainko ahlguztidunak bera ere zoriontsu izan behar horren menpean dago; eta izaki oro zenbat eta premia horren menpeago egon, hainbat gertuago egonen da perfekzio eta zoriontasun infinitutik. Eta guk, ikusmen laburreko kreaturok, ezjakintasuneko egoera honetan, zinezko zoriona zer den oker ulertu ez dezagun, ahal bat daukagu, edozein desira partikular esekitzeko, desira horri nahimena determinatzen eta gu ekintzara lotzen ez uzteko ahala. Hau da, geratu beharra daukagu, zein bidetatik jo behar dugun ziur ez dakigunean; aztertzea gida bat kontsultatzea da. Nahimenaren determinazioa ikerketan gidaren norabideari jarraitzea da eta determinazio *honek* markatzen duen bidetik egiteko ala ez egiteko ahala duena egile librea da, determinazio horrek ez baitu mugatzen askatasunaren muina den ahal hori. Kateetatik libre dena eta kartzelako ateak irekita dituen erabat aske da, alde egin ala bertan geratu, nahiago duena egin dezakeelako, nahiz eta bertan geratu beharra eduki gauaren ilunagatik, eguraldi txarragatik edo ostaturik inon ez duelako. Ez dio libre izateari uzten, preso geratzeko eskain diezaiokeen erosotasunen batek espetxean geratzeko hobespena determinatu arren.

52. *Zinezko zoriona bilatu beharra da askatasunaren funtsa.*

Horregatik, nola izaki adimendunaren perfekziorik altuena zinezko zorion sendoaren bila arreguraz eta etengabe saiatzeari baitatza, hala gure askatasunaren funtsa ere honetan errotzen da, esan

nahi baita arretaz ibili behar dugula itxurazkoa besterik ez den zoriona egiazkotzat ez hartzeko. Gure ongirik handiena den eta gure desiren objektu izateari inoiz ere uzten ez dion zoriona orokorrean bilatzen zenbat eta gehiago saiatu, orduan eta gure nahimena askatuago egonen da ezinbestean ekintzaren bat egin beharretik eta gure desirarekiko ezinbesteko menpekotasunetik eta, beraz, gauza bat hobetzat aukeratzetik, ekintza hori geure zinezko zorionera garamatzana ala beronekin uztarrezina den behar bezala ikertzen dugun bitartean; eta, beraz, ikerketa horren bidez auziaren garrantziak eta kasuaren izaerak eskatzen duen informazioa eskuratu arte, beharturik gaude, zoriona hobetsi eta geure ongirik handiena bezala bilatzeko dugun premia kontuan izanda, kasu partikularretan geure desiren asekontza esekitzera.

### 53. *Esekitzeko ahala.*

Adimendun izakien *askatasunak* duen ardatza, zinezko zorionaren atzetik egiten dituzten etengabeko ahaleginetan jirabiratzeko, kasu partikularretan zorionaren atzetik ibiltze hori *eseki ahal izatea* da, harik eta lehenago kasuok begiratu eta behar adinako informazioa jaso arte eta une horretan proposatzen zaien edo desiratzen duten gauza partikular hori euren xede nagusiaren bidean dagoenentz eta euren ontasun handienaren egiazko zati denentz jakin arte. Izan ere, naturaz zorionera duten jaugina eta joera zorion hori oker ez ulertzeko eta ez galtzeko obligazio eta motibo dira gizakientzat eta, horregatik, zoriona bilatzeko bide diren beren ekintza konkretuak aukeratzeko kontuz, gogoetatsu eta zuhurtziaz jokatzera bultzatzen dituzte. Dena dela egiazko zoriona bilatzera bultzatzen dituen beharra, behar horrexek, indar berberaz, ezartzen du segidako desirak eseki, deliberratu eta aztertu beharra, desiron asekontzak gure egiazko zoriona eragozten ez ote duen eta hartatik aldentzen ez ote gaituen jakin ahal izateko. Hauxe da, uste dut nik, adimendun izaki finituek duten pribilegioa eta egokiro kontsideratzea nahi dut ea gizakiek askatasuna erabiltzeko dituzten ahalbide handiak, haientzat baliagarriak direnak eta gizakiak bere ekintzei bide bat edo beste emateko balio dutenak, honako honetan ez dautzan, alegia, gizakiek beren desirak eseki eta ekintzetara determinatzen ez uzteko duten ahalmenean, harik eta ekintzaren alde onak eta txarrak egokiro eta behar bezala aztertu arte, ekintzaren garrantziaren arabera. Horixe da egin dezakegun guztia eta,

egin dugunean, geure eginbarra eta geure ahalean ukan dugun guztia bete dugu, eta horixe da zinez behar dena. Zeren, nahimenak bere aukera bideratzeko ezagutza suposatzen duenez, geure nahimena determinatu gabe eduki behar dugu, harik eta desiratzen dugunaren alde on eta txarren azterketa egin arte. Honen ondorioak katean datoz elkarloturik, guztiak juzgamenaren azken determinaziotik dilindan, eta geure ahalean dago judizio hori begirada presazko eta arin batean edo azterketa sakon eta heldu batean oinarritua izatea, esperientziak argi erakusten baitigu kasurik gehienetan bagarela desiren berehalako asekontza esekitzeko gai.

54. *Geure grinak zuzentzea da askatasunaren zinezko hobe-kuntza.*

Baina gehiegizko asalduraren bat (batzuetan gertatzen den bezala) gure gogamenaz jabetzen bada erabat, hala nola, torturaren oinazeak, edo kezka gogorren batek, adibidez amodioak, kolerak edo beste grina sutsuren batek narras garamatzalarik, pentsatzeko askatasunaz baliatzen uzten ez digunean eta gaia sakon kontsideratu eta egokiro aztertzeke behar bezainbatean gai ez garenean gertatzen den moduan, orduan, Jainkoak, zein hauskorrak garen ondo dakielarik eta gure ahultasunaz errukiturik, ez digu egin ahal duguna baino gehiagorik eskatzen eta, zer egin genezakeen eta zer ez ikusita, aita bihobera eta errukior batek legez epaitzen gaitu. Baina gure portaeraren norabide zuzena zinezko zorionerantz, geure desiren asekontza lasterregian ez erortzeko hartzen ditugun neurrien menpe dagoenez, baita geure grinei ezarritako neurritasun eta galgaren menpe ere, horren bidez gure adimena aztertzeke libre eta gure arrazoimena aurreiritzirik gabeko judizioa emateko gai izan dadin, geure ardura eta ahalegirik handienak horrexetan ipini behar ditugu. Honetan, gure grinak ahal bezain beste eratzeke, gauzetan dagoen ontasun eta gaitz intrinseko benetakoaz arduratzen ohitu behar dugu gogamena, eta ontasun sendo eta bikain eskuragarritzat onarturiko ontasun bati, gure baitan zantzu gozorik, berarekiko desirarik, utzi gabe gure pentsamenduetatik alde egiteko baimenik ez diogu emanen, gure baitan haren gailentasunari dagozkion desirak eragin ez ditugun bitartean, halako moldez non haren ausentziak edota hura galtzeko beldurrak urduri utz gaitzan. Zenbateraino egin dezakegun denok hau, edonork erraz egiaztu dezakeena da, bete ahal dituen ebatziak hartuta. Eta ez dezala inork hemen

esan ezin dituela grinak menperatu eta ezin duela galarazi haien piztea eta bere burua egintzara behartzea, zeren printze baten edo pertsona ospetsu baten aurrean egin dezakeena, bakarrik dagoenean ere, edo Jainkoaren aurrean, nahi izanez gero egin ahal izanen du.

55. *Gizakiek bide diferenteetatik eta, mai, txarretatik jotzen dute.*

Esandako guztitik erraz dago azaltzen zergatik gertatzen den, gizaki guztiek zoriona nahi izan arren, euren nahimenak hain bide kontrakoetatik eta, beraz, gizaki batzuk gaizkirako bidetik eramatea. Honi buruz diot gizakiek munduan egiten dituzten aukera ezberdin eta kontrakoek ez dutela frogatzen guztiak zorion bila ez dabiltzanik, baizik gauza bat bera ez dela era berean ona denentzat. Bilaketa ezberdin horiek erakusten dute denek ez dutela zoriona gauza berean jartzen edo ez dutela hartarako bide beretik jotzen. Gizakiaren interes guztiak bizitza honetan amaituko balira, batzuk ikastera eta ezagutzara, beste batzuk ehizara eta falkoneriara dedikatzearen arrazoia, batzuk luxuan eta gehiegikerian murgiltzearena, beste batzuek eratasuna eta beste batzuek aberastasuna nahiago duten artean, ez da horietako guztiak zorionaren bila ez ibiltzea, bakoitzak bere zoriona gauza ezberdinetan jarri izana baizik. Horregatik erantzun egokia eman zion mediku hark begietako gaixoa zeukan gaixoari: «Ardoaren zaporean plazer handiagoa aurkitzen baduzu, ikusmena erabiltzean baino, ona duzu ardoa: baina ikusteko plazerra edanarena baino handiago bada zuretzat, ardoa txarra duzu».

56. *Gizaki guztiak dabiltza zorionaren bila, baina ez era bereko zorionaren bila.*

Gogamenak gustu ezberdinak ditu, dastamenak bezalaxe; eta hain alferrekoa litzateke gizaki guztiak aberastasun eta gloriari asetzeko ahalegina (horiexetan jartzen dute askok askatasuna), nola litzatekeen gizakien jangura gatzaz edo otarrainez asetzekoa, janariok, askorentzat gozo eta zaporetsuak diren arren, beste batzuentzat oso nazkagarri eta kaltegarriak baitira, halako moldez non batzuek arrazoi osoz nahiago duten sabelean gosearen harra sentitu, beste batzuentzat oturuntzako jaki diren horiek jan baino. Eta horrexek, nik uste, esplikatzen du antzinako filosofoek alferrik galdetu izana zertan zetzan *summum bonum*, aberastasunetan eta gorputzaren plazerretan, ala bertutean eta kontenplazioan; izan ere, arrazoizkotasun beraz eztabaida zezaketen ea

zerk daukan zaporerik onena sagarrek, okaranek ala intxaurrek, eta iri-tzi ezberdinen arabera sektetan bana zitezkeen. Zeren, nola zapore atsegina, gauzen euren menpe barik, dastamen konkretu honentzat edo harentzat atsegina izatean datzan eta dastamenak askotarikoak diren, halaxe zorionik handiena ere plazerrik handiena ematen duten gauzak edukitzean eta kezka edo oinazea eragiten dutenak urrun edukitzean datza. Orain, gizaki ezberdinentzat gauza horiek gauza ezberdinak dira. Horregatik, gizakiek beren esperantza bizitza honetara mugatzen badute, bizitza honetan soilik ukan badezakete gozamina, orduan ez da harritzekoa ez arrazoigabekoa beren zoriona mundu honetan atsekabea dakarkien oro ekidinez eta laket duten ororen atzetik joz bilatzea, ez gaituelarik txunditu behar honetan gustu diferente asko daudela ikus-teak. Izan ere, heriotza ondoren ezereen itxaropenik ez balego, ondorioa, zalantzarik gabe, bidezkoa da: «jan dezagun eta edan», goza deza-gun plazer zaigun oroz, «bihar hilen gara-eta». Honek, ust dut, balioko digu ikusteko zergatik, gizakien desira guztiak zorionera bideratu arren, ez dituen guztiak objektu berak mugitzen. Gizakiek gauza ezber-dinak aukeratu arren, denek ongi aukera lezakete, mota diferenteko intsektuak direla suposatuz azaldu daitekeen moduan: batzuk loreak eta haien ezitia laket dituzten erleak dirateke, beste batzuek beste jaki batzuen zale diren kakarraldoak, eta aldi batez horietaz gozatu ondoren izateari utziko liokete, sekula berriro ez existitzeko.

57. *Nahikundea esekitzeko ahalak esplikatzen du gaizkia auke - ratzean dagoen erantzukizuna.*

Gauza hauek behar bezala pisatzeak giza askatasunaren egoe-raren ikuspegi argia emanen digu nire ustez. Askatasuna, argi dago, egiteko ala ez egiteko edo egiten galarazteko, *nahi dugun bezala*, aha-lean datza. Hau ukatzerik ez dago. Baina ahal honek, dirudienez, giza-kiak bere nahikundearen ondorioz egiten dituen egintzak soilik har-tzen dituenez gero, oraindik galde daiteke ea gizakia nahi izateko ala ez izateko libre den ala ez. Eta honi erantzun izan zaio esanez gizakia, gehienetan, ez dela libre nahikundearen egintza galarazteko; nahime-naren egintza egin egin behar du eta horrexek egiten du proposaturiko egintza izatea ala ez izatea. Bada, hala ere, gizakia nahi izateari buruz libre den kasu bat: gizakiak eskuratzen saiatu beharreko xede lege-z falta den ongi bat aukeratzeko duenean. Kasu honetan, gizakiak *eseki - ta* utz dezake aukeraturiko ekintza, proposaturiko gauzaren alde edo

kontra determinatzen galaraziz, harik eta gauza horrek, bai bere izaera bai ondorioak aintzat hartuta, zoriona ekarriko dion ala ez aztertu arte. Zeren, behin gauza hori aukeratu eta gizaki horren zoriontasunaren parte bihurtu ondoren, desira eragiten du eta desira horren neurriko kezka; horrek, berriz, haren nahimena determinatzen du eta gizaki hori aukeraturiko objektuaren bila abiarazten du, aurkezten zaizkion abagune guztietan. Eta, horrela, ikus dezakegu gizakiak zigorra merezi dezakeela, nahiz eta, bere nahimenaren egintza partikular guztietan zinez ere orduan ontzat duena nahi izan, ezinbestez nahi izan ere. Zeren, bere nahimena beti bere adimenak ontzat jotako aukerak determinaturik egon arren, horrek ez du desenkusatzeko, zeren zer egin behar duen lasterregi aukeratuz bere buruari ongi eta gaizkiaren neurri okerrak ezarri baitizkio, neurriok okerraren eta faltsuenak izan arren, zinezkoak eta zuzenak balira bezalako eragina dutelarik geroko haren portaeran. Berak biziari du bere dastamena eta hortik sorturiko gaixotasun eta heriotzaren erantzule behar du izan. Betiereko legea eta gauzen izaera ezin da aldatu gaizki erabakitako aukerara egokitzeke. Bere zoriona zerk ekarriko zuen aztertzean izandako arinkeriak edo askatasun abusuak desbideratu badu, bere aukera okerrari egotzi behar zaio hemendik etorritako okerra. *Bere erabakia esekita uzteko ahala dauka gizakiak*, bere zoriona aztertu eta zaintzeko eta bere burua ez engainatzeko emana. Eta inoiz ez zuen juzgatu behar hobe zela bere burua engainatzea ez engainatzea baino, hain inportantzia handia eta hurbilekoa duen kontu batean.

58. *Zergatik egiten duten gizakiek zorigaiztoko egiten dituenaren aldeko aukera.*

Esandakoak erakutsi diezaguke, halaber, zergatik hobesten dituzten gizakiek gauza ezberdinak eta jotzen duten aurkako bideetatik. Hala ere, gizakiak beren zorion eta zorigaitz kontuetan iraunkorrrak eta arduratsuak direnez, bada oraindik auzirik: Nola liteke gizakiek sarri onena baino txarrena hobestea eta, berek aitortzen dutenez, zorigaiztoko egin dituen aukeratzea?

59. *Honen kausak.*

Gizakiek, guztiek zorionerantz jo arren, hartzen dituzten bide ezberdin eta aurkakoak esplikatzeke, aintzat hartu behar dugu nahitako egintza bakoitza aukeratzean nahimena determinatzen duten *kezka ezberdinek* non duten sorburua:

1. Gorputz oinazeetan. Haietako batzuek gure eskumenean ez dauden kausetan dute sorburua, hala nola, pobrezia, gaixotasunak edo kanpotik ezarritako minek —adibidez oinaze astoko minek eta horrelakoek— eragindako gorputzeko oinazeetan; oinazeok handiak direnean, derrigortu egiten dute nahimena eta gizakien bizitza bertutetik, jaieratik, erlijiotik eta ordura arte zorionera zeramala uste zuten guztitik aldentzen; izan ere, edonor ez da ahalegintzen edo, horrelakorik ohitu ez eta, ez da gauza gorputz oinaze horietan sentitzen duen ezerosotasuna gainditzeko moduko haien desirak bere baitan pizteko eta bere nahimena geroko zorionera daramaten egintzen aukeran tinko mantentzeko. Auzo dugun herrialde bat izan dugu eszenategi tragiko oraintsu eta bertatik adibide piloa atera dezakegu, behar izanez gero eta munduak herrialde eta garai guztietan adibiderik aski eskainiko ez baligu harako esaera onartu hura berresteko: *Necessitas cogit ad turpia*. Eta, horregatik, bada arrazoirik otoitz egiteko: «Ez gaitzazu tentaldira eraman».

2. Judizio faltsuetatik sorturiko okerreko desiretan. Beste kezka batzuk falta den ongiaz ditugun desiretatik sortzen dira, eta desirok ongi horri buruz egiten dugun judizioarekin eta falta den ongi horretatik jasotzen dugun plazerrarekin proportzio bat dute eta berauen menpe daude. Batak eta besteak eraman gintzakete hainbat modutara okerreko bidetik, eta geure hutsegitez beti.

60. *Oraingo ongiari edo gaizkiari egiten diegun judizioa beti da zuzena.*

Lehenbizi geroko ongi eta gaizkiari buruz gizakiek egiten duten judizio faltsua, haien desirak okerreko bidetik eramaten dituen hartuko dut aintzat. Izan ere, *oraingo* zorionari edo miseriari dagokionez, hausnarketa areago iristen ez denean eta ondorio guztiak baztertu direnean, gizakiak ez du sekula aukera okerrik egiten; badaki zer duen gustukoen eta zer hobesten duen egiatan. Gauzak beraiez gozatzaren ari garen unean zer iruditu huraxe dira: ontasun agerikoa eta egiazkoa, kasu honetan, gauza bera dira beti. Zeren, oinazea edo plazerra sentitzen diren bezalakoxeak, ez handiagoak, direlarik, oraingo ongia edo gaizkia, dirudien huraxe da. Eta, horregatik, gure ekintzak beren baitan bukatuko balira eta ondoriorik ez balekarte, ez ginatke inoiz erratuko geure aukeran, beti eta hutsik gabe onena hobetsiko genuke eta. Lan onestaren oinazea eta gosez eta hotzez ihiltzearena



batera bagenitu aurrean, inork ez luke zalantzatan jarriko zein aukeratu; sexu-desira asetzeko eta zeruko atseginez gozatzeko modua batera eskainiko balitzaio, ez litzateke zalantza-balantzan ibiliko, ez eta erratuko ere bere aukera zehaztean.

61. *Gure judizio faltsuek geroko ongiarekin eta gaizkiarekin soilik dute zerikusia.*

Baina gure nahitako ekintzek burutzen diren unean ez dakartzate eurei dagokien zorion eta miseria guztia, ekintzok, izatez, ongiaren eta gaizkiaren aurreko kausak baitira, hori guztia ondorioz dakarkigutenak beraiek ordurako iraganda eta existitzeari utzita daudenean, eta, horregatik, gure desirak gure oraingo atseginetatik harago doaz eta *falta den ongira* daramate gogamena, ongi hori geuri zoriona ekartzeko edo gehitzeko beharrezko ikusten dugun heinean. Behar horri buruz dugun iritziak ematen dio erakarpena; hori gabe falta den ongiak ez dauka gu mugitzerik. Zeren, gure gaitasuna oso mugatua delarik, bizi sentitu ohi dugun gauza berau, bakoitzean plazer batez baino gozaterik ez dugu eta plazer hau, kezka oro gure baitatik kenduta dagoenean, gauza da, dirauen artean, zoriontsu garela uste izatera gu eramateko. Eta, beraz, falta den ongiak eta are agerikoa ez denak ez du guregan eraginik, daukagun sorgortasun eta gozamena gure oraingo zorionerako aski direnez, aldaketara arriskatu nahi ez dugulako, jada zoriontsu garela uste izanik, besterik gabe pozik geratzen baikara. Izan ere, pozik dagoena zoriontsu baita. Baina kezka berri bat datorren unean, zoriontasun hau lorrindu egiten da eta berriren berri zoriontasunaren bila hasten gara.

62. *Euren zoriontasunaren beharrezko parte bat denari buruz -ko judizio oker batetik sortzen da.*

Horregatik, falta zaien ongi handienik gabe zoriontsu izan daitezkeela uste izateko joera da gizakiek ongi horretarantz jotzeko desirarik ez edukitzeko zio handi bat. Zeren, pentsamendu hori gizakiez jabetzen den bitartean, geroko egoera bateko atseginek ez dituzte mugituko; haiei buruzko axola edo kezka handirik ez dute edukiko; eta gogamena, desira horiek eragindako bideratzetik libre, hurbilago-ko asekuntzak bilatzeko eta berauen faltak eta eskuratu ezinak eragindako ezerosotasunak kentzeko libre geratuko da. Baina alda dadila gizakiak gauzoi buruz duen ikuspegia; ikus dezala bertutea eta erlijioa ere beharrezkoak direla bere zorionerako; begira dezala zorion edo

miseriako geroko bizitzara eta ikus dezala Jainkoa, Epaille zuzena, «bakoitzari bere egintzen arabera merezi dutena emateko prest», jokatibide zintzoan iraunez zerua, ohorea eta hilezkortasuna bilatu dutenei betiereko bizitza, gaizkia egiten duten arima guztiei, ordea, haserre eta amorrua, atsekabea eta estura emateko prest». Gizaki guztiek hemen izandako portaeraren arabera bizitza honen ondoren izanen duten zorion edo zorigaitzoko egoera ezberdinaren ikuspegia duen gizakiarentzat, bere aukera gobernatzen duten ongi eta gaizkiaren neurriak zeharo aldatuko dira. Zeren, ezein plazer ez oinazek ezin duenez ukan arimak gero izanen duen amaigabeko zorionarekin edo sekulako zorigaitzarekin proportziorik, gizaki horrek egin ahal dituen ekintzak ez dira hobetsiko ekintzokin batera edo ondoren hemen izanen duen atsegin edo oinaze iragankorraren arabera, baizik geroko zorion bete eta iraunkorra segurtatzeko balio duten neurrian.

### 63. *Judizio faltsuen azalpen zehatzagoa.*

Baina gizakiek maiz, guztiek zoriona arduraz bilatu arren, beren baitara ekarri ohi duten zorigaitzaren arrazoi konkretuagoa emateko, aztertu behar dugu ea gauzak zergatik agertzen diren itxura engainagarritz gure desietara; haiei buruz judizio faltsuak ematen ditugulako hain zuzen. Hau noraino heltzen den eta judizio faltsuaren kasuak zein diren ikusteko, gogoratu behar dugu gauzak on ala txarizat zentzu bikoitzean jotzen direla:

Lehenik, *propioki ona edo txarra, atsegin edo oinazea soilik da* .

Bigarrenik, oraingo atsegin eta oinazea ez ezik, bere eragin-kortasuna edo ondorioengatik gerora plazerra edo oinazea ekartzeko gauza dena ere gure desiei betean dagokien objektua da, aurreikusmena duen izakia higiarazteko gauza dena, eta, horregatik, ondorioz *plazerra edo oinazea dakarten gauzak ere on eta txarizat jotzen dira.*

64. *Inorkezdun miseria nahiti aukeratan, judizio okerre bai da* .

Nahasten gaituen eta maiz gogamena txarrenera bideratzen duen judizio okerra, gauzetan dagoen ona eta txarra alderatzean gaizki kalkulatzeko datza. Hemen aipatzen ari naizen judizio okerra ez da gizaki batek beste baten erabakiari buruz uste duena, baizik nor berak buruari okertzat aitortu behar diona. Zeren, oinarri seguruko kontu moduan baieztatu dudanez, adimendun izaki orok egiazki bilatzen du zoriona, plazerraz gozatzean datzana, ezerosotasun aipagarri-

rik nahasi gabe; inork ezin dezake bere edarian ezer mingotsik nahita nahasi edo, bere eskumenean edukirik, atsegina ekarriko dion edo bere zoriona osabeteke duen zer bait bota gabe utzi, *judizio okerre*z izan ezik. Ez naiz ni hemen ari akats gaindiezinen baten ondorio diren hutsegiteez, ozta-ozta merezi baitu honek judizio okerraren izena; gizakiak bere buruari egin beharreko aitortzan judizio oker azaltzen denaz ari naiz.

65. *Gizakiak erratu egin daitezke oraina eta geroaalderatzean.*

Horregatik, oraingo atseginari eta oinazeari dagokienez, gogamena, esa dugun modura, ez da inoiz erratzen, eta ona edo txarra, atseginik handiena edo oinazerik handiena, agertzen den huraxe da. Baina, oraingo atsegin eta oinazeek beren diferentziak eta mailak erratzeko bitarterik utzi gabe erakusten dituzten arren, hala ere, *oraingo atsegin eta oinazeak geroa alderatzen ditugunean*, (horixe gertatzen delarik gogamenaren erabaki inportanteenetan), judizio okerrak eratzen ditugu maiz, gugandik distantzia ezberdinen arabera neurtzen baititugu. Hur ditugun gauzak handiago ikusi ohi ditugu, urrunago ditugun tamaina handiagokoak baino. Eta gauza bera gertatzen da atsegin eta oinazeekin ere: orainak ekarri egiten ditu egiazki, eta urrun daudenek haien ikusian desabantaila handia dute. Horrela, gizakirik gehienek, oinordeko hondatzailearen antzera, orain zertxobait izatea etorkizunean askotzat edukitzea baino hobetzat daukate; eta, horretara, orain zertxobait eskuratzegatik geroko dirutzei uko egiten diete. Baina denok onartu behar dugu judizio hau okerra dela, nonahi ipinita ere geure atsegina, zeren geroa orainaldi bilakatuko baita; eta orduan hurtasunaren abantaila bera ukanen du eta bere handiera osoan agertuko da eta neurri ezberdinez juzgatu zuenari agerian jarriko dio bere nahitako errakuntza. Gizakiak edalontzia eskuan hartzen duenetik gogoan izanen balu edateko atseginak ordu gutxi barru buruko mina eta urdailekoa ekarriko dizkiola, ez luke, uste dut nik, ardo tantarik ere ezpainetara eramanez, edanean atseginik handienak aurkitu arren; eta hala ere egunero edaten du, alderdi txarra aldi tarte txiki batek eragindako errakuntzarengatik aukeratzen delarik. Baina ordu gutxiko aldi tarteak horrenbestean gutxitu badezake atsegina edo oinazea, zenbat gehiago ez ote dio hori eginen tarte handiak, judizio zuzena erabiliz denborak eginen duena egin nahi ez duen gizakiari, hau da, gauza bere begien aurrean ipini

hantxe bertan balego moduan kontuan hartzeko eta bere egiazko dimentsioetan balioesteko? Horrelaxe desbideratzen gara atsegin edo oinazeari edo zorion edo zoritxarraren benetako mailei dagokienez; geroak dagokion proportzioa galdu eta oraingoak jasotzen du gure hobespena. Ez naiz ni hemen ari judizio oker horretaz, bertangoa ez dena murriztu ez ezik, deuseztu ere egiten baita erabat, gizakiek unean eskura dezaketen orotaz gozatzen direnean, hortik, euren uste-tan, ezer txarrik etorriko ez zaielarik. Zeren hau ez baitatza geroko ongi eta gaizkiaren handia alderatzean —orain mintzagai darabilguna-, baizik ongiari edo gaizkiari dagokion beste judizio oker batean, bi elementuok berauetatik sortuko den atseginaren edo oinazearen kausa eta sorburu moduan hartuta.

66. *Gure judizio okerren kausak, oraingo atsegin eta oinazeak gerokoekin alderatzen ditugunean.*

Uste dut gure gogamenaren osaera eskas eta ahulagatik egiten ditugula judizio okerrak gure oraingo atsegin eta oinazeak gerokoekin alderatzean. Ezin gara bi atseginez aldi berean ongi gozatu; are gutxiago goza gaitzeko atsegin batez oinazeak itsuturik gaudela. Unean uneko plazerrak, ahulegia eta plazerra izatera ere ia-ia heltzen ez denean ez bada, zeharo betetzen ditu gure arima estuak eta halatan jabetzen da gure gogamen osoaz, non ozta-ozta uzten dion zirrikiturik urruneko gauzen ezein pentsamenduri; edo gure plazerren artean urruneko gauzak aintzat hartzea zeharo galarazteko bezain bizia denik ez badago ere, hain herra handia diogu oinazeari, non oinaze apur batek gure atsegin guztiak itotzen dituen. Garraztasun tanta batek, edalontzikoaren gozotasun guztia galarazten digu. Honen ondorioz, guk unean uneko gaizkitik libre izan nahi dugu aldeaz edo moldez, honekin pareka daitekeen falta den ezer ez dagoela pentsatzera jotzen baitugu, uneko oinazearen pean gaudenean zoriontasunik txikienaz gozatzeko gai sentitzen ez garelako. Gizakien eguneroko kexak honen frogara argi dira: unean uneko gaitza da beti denetan gogorrena eta erostan hasi ohi gara: «Edozein sufrimendu ere nahiago nuke, hau baino; ezer ere ez pairaezinagorik, orain sufritzen ari naizena baino!». Eta, horregatik, gure ahalegin eta pentsamendu guztiak oraingo gaitzetik libratzera zuzentzen ditugu beste ezertara baino lehenago, gure zorionerako lehenengo eta beharrezko baldintza bezala, gerokoak, direnak direla, geroko utzita. Ezer ere —horrelaxe pentsatzen dugu sutsu—

ezin liteke izan, ezta hurrik eman ere, hain pisu astunaz zapaltzen gaituen ezerosotasuna baino neketsuago. Eta une batean aurkezten zai-gun atsegin bat uztea oinazea denez, sarritxo oso handia izan ere, desira sutu egiten baita hurbil dagoen objektu tentagarri baten aurrean, ez da harritzekoa horrek oinazearen moduko ondorioa izatea eta gure pentsamenduetan gerokoaren indarra gutxitzea, eta horrela itsu-itsuan erortzea atsegin horren besoetara.

67. *Falta den ongiak ezin du berdindu ezerosotasun bertangoa.*

Honi gehitu behar zaio falta den ongia, edo gauza bera dena, etorkizun den atsegina —batik bat ezagutzen ez dugun horietakoa denean— bakanki dela gauza bertango ezerosotasuna, dela oinazetik dela desiratik sortua, orekatzeko. Izan ere, etorkizun den atsegin hori hartaz egiatan gozatzean dastatuko duguna baino handiagoa ezin izan daitekeenez, gizakiek hura apaltzeko eta haren lekua oraingo edozein desirari emateko joera dute, honako ondorio hau ateraz, alegia, atsegin hori dastatzera iritsiz gero, ez duela eskuarki uste izandakoaren antzik ere izanen, esperientziaz baitakite besteez famatutako atseginak ez ezik, aldi batean eurak plazer biziz gozaturikoak, txepel eta nazkagarri gertatu zaizkiela beste aldi batean, eta horregatik ez dute ezer ikusten etorkizun den atsegin hartan, uneko gozamenari uko egitera eramanez dituenik. Baina aitortu beharra ukanen dute juzgatzeko modu faltsua dela hau geroko bizitzako zoriontasunari aplikatzean, edo bestela esan beharko dute Jainkoa ez dela berak zorionerako sorturikoak zoriontsu egiteko gai. Zeren zorionerako joera honek bakoitzaren nahi eta desiretara moldatu behar du; gizakien gustuak hemen diren bezain diferenteak izanda ere, zeruko mana bakoitzaren aho-sabaira egokituko baita. Oraingo eta geroko atsegin eta oinazeak elkarrekin alderatzean eta, horretara, falta dena etorkizun dena kontsideratzean eratzen ditugun judizio okerrekin esan duguna nahikoa izan daiteke oraingoz.

68. *Judizio okerrak egintzen ondorioak kontsideratzean.*

Euren ondorioen arabera eta etorkizunean guri ongia ala gaizkia ekartzeko gaitasunaren arabera *onak edo txarrak diren gauzei* dagokienez, era ezberdineko judizio okerrak izaten ditugu:

1. Juzgatzen dugunean ez direla egiaz eragiten duten adinako gaizkia sortzeko gai.

2. Juzgatzen dugunean, ondorioa garrantzitsua izan arren, hura beste nolabait gertatu ahal izatea ez dela gauza segurua, edota gutxie-nik ezin galaraziko dugula trebeziaz, maltzurkeriaz, portaera aldake-taz, damuaz, e.a.

Horiek juzgatzeko era okerrak direla kasu konkretu bakoitzean adieraztea erraz legoke, banan-banan astiz aztertuz gero, baina oro har haxe besterik ez dut esanen, alegia, ongi handiagoa beste txikiago baten mesedetan arriskatzea, jokabide oker eta arrazoiaren kontrakoa dela, eta are gehiago susmo okerretan oinarrituta eta oker jokatzuz gero auziak guretzat duen garrantziaren arabera sakontasunaz aztertu gabe egiten dugunean. Hau, nire ustez, mundu guztiak onartu behar du, bereziki judizio okerron ohiko kausak kontuan hartuz gero, euro-tako batzuk jarraian adierazten direlarik:

#### *69. Zergatiak.*

*Ezjakitea:* ahalik ongien informatu gabe juzgatzen duena ezin da oker juzgatzeko errutik libre izan.

*Oharkabezia:* gizakiak dakienaz ere ezikusi egiten duenean. Ezjakite itxurazkoa eta presentea da, gure judizioak besteak adina okertzen dituen. Juzgatzea, nolabait esateko, kontu baten balantzea egitea da, aldea non dagoen zehaztea. Horregatik, nahasian eta itsumustuan biltzen baditugu alderdi baten arrazoiak eta zabarkeriaz alde egiten uzten baditugu emaitzan parte zuten hainbat batugai, erabateko ezjakitean egoteak bezainbeste judizio oker eraginen ditu urdurikeria honek. Gehienetan hau bertango atsegin edo oinazeren baten nagusitasunak eragiten du, bertan dugunak indartsuago erakartzen duen gure izaera ahulak areagotuta. Urdurikeria horiek ekiditeko adimenez eta arrazoi-menez hornituak gara, ahalmenok zuzen erabiliz ongi bilatu eta ikusi ondoren, judizio zuzena egin ahal izateko. Adimenak askatasunik gabe ez du ezertarako balio eta askatasuna adimenik gabe (horrelakorik gerta ahal baledi) ez da ezer. Norbaitek ikusterik izanen balu ongia edo gaizkia ekar liezaiokeena, bera zoriontsu edo zorigaitzoko egin lezakeena, berak urratsik ere ezin emanean batera hurbiltzeko ala bestetik urruntzeko, ikusmen hori izateagatik hobeia izanen al litzateke? Eta han hemenka iluntasun sakonean korrika ibiltzeko askatasuna duena, zertan dago haizeak burbuila bezala noraezean astinduko balu baino hobeto? Norbaiti indaritsu batek kanpotik ala barrutik eragiteak gutxi axola dio. Horregatik askatasunaren eginkizun lehena eta nagusia urdurikeria itsua

galaraztea da; eta askatsuna erabiltzean nagusiki egin behar dena da, geratu, begiak zabaldu eta geure ingurura begiratu, egitera goazenarean ondorioak ikusteko, auziaren garrantziak eskatzen duen kontuaz. Ez dut hemen zehazki aztertuko alferkeriak eta utzikeriak, berotzeak eta grinak, modaren edo harturiko azturen nagusitasunak zenbateko eragina duten hainbat era ezberdinetara judizio okerretan. Beste judizio faltsu bat gehitu besterik ez dut eginen, aipatu beharrekoa dela uste baitut, eragin handikoa izan arren, oharkabe pasatzen diren horietakoa delako.

#### *70. Gure zorionerako beharrezko denari buruzko judizio okerra*

Ez dago zalantzatan jartzerik gizaki orok nahi duela zoriona, baina lehen esan dugun bezala, oinazetik libre daudenean, eskueran duten lehen atsegina, edo ohituraren poderioz gogoko dutena, erdies-tera jotzen dute, atsegin horretan atsedena hartzeko: eta horrela zoriontsu izanik, harik eta beste desira batek, haien baitan ezerosotasuna eraginez, zorion hau lorrindu eta ez direla zoriontsu ikusarazi arte, ez dute harago ezer ikusten eta nahimena ez da determinatzen beste ontasun ezagutu edo ageriko bat erdiesteko ezein ekintzataraz. Zeren, esperientziak erakusten digunez ez dugula edozertariko ontasunez gozatzerik, batzuek besteak kanpo uzten dituztelako, ez ditugu gure desirak handiago agertzen zaigun ongi bakoitzean finkatzen, ongi hori gure zorionerako beharrezkotzat jo ezean, eta, hura gabe zoriontsu izan gaitezkeela pentsatzen dugunean, ez gaitu mugitzen. Gizakientzat judizio okerra hartzeko abagune gertatzen da, beraz, euren zorionerako egiatan ezinbesteko dena halakotzat ez hartzea. Hutsegite honek errakuntzara garamatza, bai erdietsi nahi dugun ongiari dagokionez eta bai, oso maiz, berau lortzeko bitartekoei dagokienez, falta den ongia denean. Baina, dena delakoa erratzeko era, hau da, dela gure zoriona egon ez dagoen tokian jarritz, dela bitartekoak, beharrezko ez direla eta, ipini gabe utziz gizakiak bere xede nagusia, zoriona, galdu duenean, aitortu beharko du ez zuela judizio zuzena hartu. Hutsegite honetara laguntzen duen gauza bat zorionerako bide diren ekintzak desatseginak izatea edo hala direla uste izatea da; eta, gizakientzat zoriona lortzeko nork bere burua zorigaiztoko egin beharra izatea erabat zentzugabea denez, ez dira erraz horretaratzen.

#### *71. Alda dezakegu gauzen atsegina edo atsekabea.*

Gai honi buruz egin dezakegun azken galdera hauxe da, alegia, ea gizakiak alda dezakeen edozein ekintzari darraion atsegina edo

atsekabea. Kasu askotan, argi dago, alda dezake. Gizakiek euren dastamena hobetu ahal eta behar dute, hala gustua daukan edozeri nola ez daukala uste dutenari gustua hartu ahal izateko. Gogamenaren gustuak gorputzarenak bezain askotarikoak dira, eta honenak bezala harenak ere aldagarriak dira; eta oker uste dugu ekintzetan aurkitzen dugun atsekabea edo aihergatasuna ez dezakegula alda eta atsegin eta desira bilaka pentsatzen dugunean, geure aldetik ahal dugun guztia egiteko prest egonez gero. Azterketa zehatzak erakar dezake ondorio hori kasu batzuetan, eta jokabideak, jardunak eta ohiturak ere bai kasu gehienetan. Ogia jateari edo tabakorria erretzeari utzi geniezaioke, osasunerako onak ditugula jakin arren, gusturik gabeko edo desatsegin zaizkigulako; baina, arrazoiak eta hausnarketak gomendatu ondoren, aproba egiten dugu eta usadioak eta ohiturak atsegin bilakatzen dituzte. Bertutearekin ere, ziur, gauza bera gertatzen da. Ekintzak atseginak edo desatseginak dira, behin beren baitan, behin xede handiago eta desiragarriagoren bat erdiesteko bide moduan hartuta. Gizakiaren dastamenari atsegin zaion jaki ongi prestatu bat jatean, gure gogamenak jateko ekintzari dagokion atsegina senti dezake, beste ezein xederekiko erreferentziarik gabe; baina osasunarekin eta indarrarekin (horrexetarako da jatekoa) loturiko atsegina kontuan hartzeak beste gustu bat, berria, erants diezaioke, edabe nazkagarri bat irenstera ere eraman gintzakeena. Azken honetan, edozein ekintza bilakatzen da atseginago edo ez hain atsegin, xedea ikusiz eta xede horretara daramana dela edo berorrek lotuta dagoela gehiago edo gutxiago sinetsiz besterik gabe; baina ekintzaren beraren atsegina erabileraz eta jardunez hartzen eta gehitzen da ondoen. Aproba egiteak, maiz, urrunetik nazkagarri deritzogun gauza batez adiskidetzea ekartzen du eta, errepikatuz, hasieran beharbada desatsegin egin zitzaiguna lakotz izatera eramaten gaitu. Xarma bizia daukate ohiturek eta ongizate eta atsegin kutsu handia jartzen dute ohituta gauden ekintzetan, halatan non ezin ditugun galarazi edo kezkarik gabe alde batera utzi ohiko jokabidean ongi joan zaizkigun eta hargatik erakargarri ditugun ekintzak. Hau begien bistakoa den arren eta norbere esperientziak lor daitekeela erakusten digun arren, hain da alderdi alde batera utzia gizakiek beren zorionerako bidean duten jokabidean, non paradoxatzat jo daitekeen agian esatea gizakiak gai direla zenbait gauza edo ekintza atseginago edo desatseginago *bilakatzeko* eta euren desbideratze pilo baten iturritzat har daitekeenari erremedioa jartzeko.



Modek eta eskuarki onarturiko iritziak nozio okerrak ezarri eta hezkuntzak eta usadioek ohitura txarrak bultzatu ondoren, gauzen zinezko balioak behar ez den lekuan jartzen dira eta gizakien gustuak hondaturik geratzen dira. Hau zuzentzen lan egin eta honen kontrako ohiturak hartu beharra dago, geure atseginak aldatu eta zorionerako ezinbesteko denaz edo bertara garamatzanaz gozatu ahal izateko. Mundu guztiak onar dezake bere eskumenean dagoela hau, eta, zoriona galdu eta miseriak menpean hartu duenean, ahalbide haren axolarik gabe jokatu izanaz huts egin zuela aitortu behar du, eta horren errudun sentitu; eta bakoitzari galdetuko nioke, ea berak ere ez duen horrelaxe jokatu sarri.

*72. Bizioa eta bertutearen artean bizioa hobestea judizio okernabariada.*

Ez naiz orain gehiago luzatuko gizakiak okerbidera eramaten dituzten judizio okerrei eta euren ahalean dutena alde batera uzteari buruz. Liburu oso bat beharko nuke horretarako eta ez da hori nire asmoa. Baina, direnak direla gizakien nozio faltsuak eta euren ahalean dutena alde batera uzte lotsagarriak, gizakiak euren zorionerako bidetik atera eta bestera begira jartzen dituztenak, gure bizitzan abio diferenteetan ikusten dugun moduan, horiek direnak direla, diot, hau behintzat egia da, alegia, zinezko oinarri gainean eraikitako moralak determinatu behar duela bere ekintzei buruz hausnarketa egiten duen ororen aukera, eta zorion eta zorigaitz *infinituari* buruz hausnarketa seriooki egiteko hainbatean kreaura arrazoiduna ez denak errudun sentitu behar du, adimena behar bezala erabili ez izanagatik. Ahalguztidunak bere legearen indargarri ezarriak dituen geroko bizitzako sari-zigorrek badute pisurik aski gizakien aukera bizitza honek aurkez dezakeen edozein atsegin edo oinazeren aurka determinatze-ko, betiereko egoeraren posibilitate hutsa, inork zalantzatan jar ez dezakeena, kontsideratuz gero. Bizitza honetan zintzo jokatzearen ondorio eskuragarria zorion bikain eta amaigabea dela eta zintzo ez jokatzearengatik zigorra aurrekoaren kontrako egoera izanen dela onartzen duen guztia, judizio oso okerra duela konturatu beharko da, honako ondorio honetara iristen ez bada, alegia, etor daitekeen betiko zorionaren itxaropen ziurrean eramandako bizitza zintzoa hobea dela, bizitza traketsa baino, berau errudun denak paira beharra izan dezakeen miseriarik gorrienari lotuta badator, edo, gutxienik deuseztua

izateko itxaropen ezbaikor lazgarriari. Hau horrelaxe da nabariki, bizitza bertutetsuak hemen oinazea besterik ez eta biziotsuak etengabeko atsegina besterik ez balu ere; hau, baina, erabat alderantziz gertatu ohi da, zeren gaiztoek gehienbat ez dute izaten harrokeriak jotzen ibiltzeko egoerarik, hemen berton ere; are, gauza guztiak kontuan hartuz, bizitza honetan ere, nire iritziz, gaiztoek eurek daramate parterik txarrena. Baina zorion infinitua balantza batean eta beronen kontra bestean miseria infinitua jarrita, baldin gizaki zintzoari gerta dakioken gauzarik txarrena, hau da, erratzea —erratu egin dela jota— gaiztoari gerta dakioken gauzarik onena bada, erratu ez eta ere, zoro ez den nor egon daiteke arrisku honetan jartzeko prest? Burutik sano dagoen nork aukeratuko luke amaigabeko zorigaitz posiblearen arriskuan jartzea, zorigaitzari ihes eginda ere, arrisku horregatik ezdeus hutsa baino ez daukanean irabazteko? Gizaki zintzoak, ordea, ez du ezer arriskatzen amaigabeko zoriona lortu nahi duenean, beren itxarobidea gauzatzen ez bada. Erratu ez bada, betibetiko zoriontsu izanen da; erratu bada, ez da zorigaiztoko, ez baitu ezer sentituko. Gaiztoa, ordea, erratu ez bada, ez da zoriontsu izanen; erratu bada, zorigaiztoko izanen da amaigabe. Ez al da, orduan, judizio oker nabaria bere hobespena, kasu honetan, zein aldetara izan behar duen berehala ikusten ez duenarena? Etorkizuneko egoeraren segurantzaz edo probabilitateaz ez mintzatzen saiatu naiz, ez baitaukat gai honetan beste asmorik, norbere printzipioen arabera, direnak direla, norberak egiten dituela aitortu beharreko judizio okerrak erakustea baino, bizitza biziotsuko atsegin laburrak hobetsiz, geroko bizitza posible bederen badela dakien artean, kontrakoaz ziur egoterik ez daukalarik hobetsi ere.

### *73. Laburbilpena: Aihergatasun askatasuna.*

*Giza askatasunari* buruzko ikerketa hau bukatzeko, esan behar dut, lehenbizi agertu zen moduan ni neu ere beldur nintzela eta, argitaratu zenean, lagun batek ere susmatu zuela akatsen bat zeukala, nahiz eta konkretuan zein zen ezin izan zidan esan, eta, horregatik, kapitulu hau hertsiki errebisatzen hasi nintzen. Hau egitean konturatu nintzen egiten erraza eta hautematen zaila den labainkadatxo bat egin nuela itxuraz erdiberdina zen hitz bat beste baten ordeztu ipiniz, eta aurkikuntza honek oraingo ikuspegia erakutsi zidan, hemen, bigarren edizioan, eskolatuen mundura aurkezten dudana eta, labur esanda, hona-

ko hau dena: *Askatasuna*, egiteko ala ez egiteko ahala da, beti ere gogamenaren gidalerroen arabera. Kasu konkretuetan higitzeko edo atsedenean geratzeko ahalmen eragileak gidatzeko ahalari *nahimena* deitzen diogu. Gure nahitako ekintzen abioan nahimena eragiketaren aldatzera determinatzen duena *oraingo kezka* da, *desira* dena edo behintzat beti desira lagun dakarrena. Desira gaizkiak mugitzen du beti gaizkitik ihes egitera, oinazetik erabat libratzea gure zorionaren ezinbesteko parte bat delako; baina ongi orok, ongi handiagoak ere, ez du beti mugitzen desira, badaitekeelako gure zorionaren ezinbesteko parte beti ez izatea, edo halakotzat hartua ez izatea. Gure desira guztia, izan ere, zoriontsu izatea baino ez baita. Baina, zorion gura orokor horrek etengabe eta aldagaitz badihardu ere, edozein desira partikularren asekontza *esekirik utz daiteke*, nahimenari desira hori asetzeko ekintzetara determinatzea eragotziz, harik eta orduan desiratzen dugun ongi partikular hori gure egiazko zorionaren parte denentz edo beroni dagokion ala ez sakonki aztertu arte. Horrelako azterketatik ateratzen dugun judizioak determinatzen du azken batean gizakia, ezin izanen litzatekeelarik *libre* izan, bere gogamena bere juzgame-nak gidaturiko desira ez den beste zerbaitek determinatuko balu. Badakit batzuek askatasuna gizakiak nahimena determinatu aurretik duen aihergatasunean jartzen dutela. Aldez aurreko aihergatasun hori —beraiek deitzen dioten moduan— hainbeste azpimarratzen dutenek argi esatea nahi nuke ea ustezko aihergatasun hori adimenaren judizioaren aurrekoa ere den, nahimenaren erabakiaren aurrekoa den moduan. Zeren oso zaila da bi horien bitartean jartzea, hau da, adimenaren judizioaren *oste-ostean* eta nahimenaren determinazioaren *aurretik*, determinazio hori adimenaren judizioari berehala darraiola-ko; eta askatasuna adimenaren pentsamendu eta judizioaren aurrekoa datekeen aihergatasunean jartzea, askatasuna iluntasun egoeran jartzea dela deritzot, halatan non ezin dezakegun hartaz ezer ikus ez esan; gutxienez askatasunik ukan ezin duen subjektu batean jartzea da, askatasunerako gai den egilerik ez dagoela onartzen baita, pentsamenduaren eta judizioaren ondoren izan ezik. Ez naiz trebeegia esaldi kontuan eta, horregatik, horrela mintzatzea gustatzen zaienekin bat esanen dut askatasuna aihergatasunean dagoela, baina adimenaren judizioaren ondoren datorren aihergatasunean eta are nahimenaren determinazioaren ondoren datorrenean; eta hau ez da *gizakiaren* aihergatasuna (zeren behin honek zer den hobea, hau da, egitea ala ez

egitea juzgatu ondoren ez baita jada aiherga), baizik *gizakiaren ahal eragileen* aihergatasuna, ahalok aldi berean egiteko zein ez egiteko gai direnez gogamenaren erabakiaren aurretik eta ostean, hala nahi izanez gero aihergatasuna dei geniezaiokeen egoeran daudelarik; eta aihergatasun hori iristen den mailaraino da aske gizakia, baina ez hortik gora. Horrela, adibidez, demagun eskua higitzeko edo gelditu uzteko gaitasuna dudala; ahal eragile hau aiherga da nire eskua higitzeko edo ez higitzeko; eta zentzu honetan aske naiz guztiz. Nire nahimenak ahal eragile hori atsedenera derminatzen badu ere, libre naiz, egiteko edo egin gabe uzteko daukadan ahal eragile horren aihergatasuna badelako; izan ere, eskua higitzeko ahalak ez du ezer galtzen orain gelditu egiteko agindu duen nire gogamenaren erabakiaren eraginez. Ahal horren aihergatasuna egiteko edo ez egiteko lehen zeukan berbera da, nahimenak kontrakoa aginduz aproba egin nahi badu agertuko den moduan. Baina eskua gelditu daukadala bat-batean paralisiak jota gertatzen bazait, bukatua da ahal eragile horren aihergatasuna, eta beronekin batera nire askatasuna ere bai; horri buruz ez dut aukeramenik, eskua gelditu utzi beharrean aurkitzen naiz eta. Bestalde, dardarazio batez eskua higiduran jartzen bazait, ahalmen eragile honen aihergatasuna desagertu egiten da eta kasu horretan askatasuna galduko dut, eskua ezinbestez higitu beharko dut eta. Hau guztia gehitu badut, askatasuna, nire ustez, zer nolako aihergatasunean datzan azaltzeko gehitu dut, argi utziz beste inolako aihergatasun egiazko edo irudizkoan ez datzala.

74. *Ahal aktiboa eta pasiboa higiduretan eta pentsamenduan.*

*Askatasunaren* izaera eta hedatze buruzko benetako nozioak hain garrantzi handikoak direnez gero, espero dut barkatuko zaidala gai hau azaltzen saiatuz egin dudana digresioa. Nahimen, nahikunde, askatasun eta beharrezkotasunaren ideiak berez, modu naturalez, etorri zitzaizkidan ahalari buruzko kapitulu honetan. Tratatu honen aurreko edizio batean azaldu nuen gai horiei buruz dudana pentsaera, orduan nuen argitasunaren arabera. Baina orain, egia dudalarik maite eta ez neure doktrinak, aitortu behar dut ukan dudala aldaketaren bat edo beste neure iritzietan, horretarako oinarria ere ukan dudala uste dudalarik. Hasieran idatzi nuenean egiari jarraitu nion, honek nire ustez nora eramanez haraxeraino. Baina neure burua utzezintzat edukitzeko bezain harroputza ez naizelarik, ez eta, neure izen ona ez

zikintzearren, neure errakuntzak disimulatzen hasteko bezain maltzura ere, egia soilik bilatzeko lehengo asmo zintzo beraz, ez dut inolako lotsarik izan ikerketa zorrotzagoak iradokitako argitaratzeko. Ez da ezinezkoa zenbaitek pentsatzea lehengo nire ideiak egokiak zirela, beste zenbait, ordea, (egiaztatu ahal izan dudana moduan) oraingoan alde daude, eta beste zenbait ez batzuen ez bestetzuen alde. Ez nau harritzen gizakiengan ikusten dugun iritzi ezberdintasun honek, zeren puntu eztabaidetan arrazoizko dedukzioak oso bakanki gertatzen baitira, nozio abstraktuetan dedukzio zehatzak egitea erraza ez den artean, batez ere argudiaketa luzeetan. Horregatik, uste dut aintzakotzat hartu behar ditudala, hemengo ideietan edo beste edozeinetan oinarrituta, *askatasunaren* gaiaren inguruan oraindik ere gera daitezkeen zailtasunak argitzen saiatuko diren guztiak.

Baina kapitulu hau amaitutzat jo aurretik, uste dut *ahalari* buruz ideia argiagoak edukitzen asko lagunduko ligukeela *ekintzari* buruz azterketa zehatzagoa egiteak. Gorago esan dut bi ekintza mota baino ez ditugula ezagutzen, hau da, higidura eta pentsamendua. Baina, egia esanda, bi hauek ekintzat hartzen eta hala deitzen zaien arren, hurragotik begiratura, ez dirudi beti erabat horrela direnik. Izan ere, oker ez banago, mota bietako kasuak dira, ongi aztertuz gero egintzak baino pasioak direla agertuko digutenak; eta, beraz, haiek aktibotzat dituzten subjektuen *ahal pasiboen* efektu huts dira. Izan ere, kasu horietan higiduraren edo pentsamenduaren kokagune den substantziak kanpotik hartzen du egintzaz ohartarazten duen inpresioa, eta kanpoko eragile batengandik inpresio hau jasotzeko duen gaitasunaren poderioz dihardu soilik; eta ahal hau ez da zehazki ahal aktiboa, subjektuaren gaitasun pasibo hutsa baizik. Batzuetan substantziak edo egileak bere ahal propioz ekiten dio, eta orduantxe da bereziki ahal aktiboa. Efekturen bat sortarazteko gai den substantziaren edozein aldarazpeni egintza deritza: adibidez, substantzia solido batek, higiduraz, beste substantzia baten ideia sentigarrietan badihardu edo beraietan aldaera sortarazten badu, higiduraren aldarazpen honi egintza deitzen diogu. Baina, hala ere, substantzia solido honen higidura, ongi pentsatuz gero, pasio hutsa da, higidura hori kanpoko egileren batengandik hartua badu. Horretara, higitzeko ahal aktiborik ez dauka bere burua edo beste substantzia bat atsedenean egonik abiarazterik eta mugimenduan jartzerik ez duen substantziak. Gauza bera esan daiteke pentsamenduaz ere: kanpoko substantzia baten eraginez

ideiak edo pentsamenduak jasotzeko ahalari pentsatzeko ahala deritza, baina hau ahal pasiboa baino ez da, edo gaitasun soila. Baina ideia urrunekoak geure gustura gogoratzeko eta egokitzen hartzen ditugunak elkarrekin alderatzeko ahalmena zinez da ahal aktiboa. Gogoeta hau baliozkoa izan daiteke ahalei eta egintzei buruz hizkuntza gehien gramatiketan eta egituretan dauden eta berauen bidez guregan sor daitezkeen nahasketak ekiditeko. Izan ere, gramatikariek aditz aktiboak deitzen dietenen bidez adierazten diren egintzak ez dute beti egin-tza adierazten; adibidez, honelako proposizioek: *ilargia*, edo *izar bat*, *ikusten dut*, edo eguzkiaren berotasuna *sentitzen dut*, aditz aktibo batez adieraziak izan arren, ez dute esan nahi egintzarik niregan, substantzia horietan nire egintza bakarra argi, biribiltasun eta berotasunaren ideiak hartzea delako; horregatik, horretan ni ez naiz aktiboa, pasibo hutsa baizik, eta gorputza edo begiak horrela ditudalarik, ez dut ideioak hartzea ekiditeko modurik. Baina begiak beste leku batera begira ipintzen ditudanean, edo gorputza eguzki izpietatik aldentzen dudanean, orduan bai, orduan propioki aktiboa naiz, neuk horrela nahi izanda eta neure baitako ahalaren bidez, neure burua mugimenduan jarri dudalako. Egintza hori ahal aktiboaren sorkari da.

#### 75. *Gure ideia jatorrizkoen laburpena.*

Eta horrela, zirrimarra labur batean, gainerako guztien sorburu eta osagai diren *gure ideia jatorrizkoen* ikuspegi bat aurkeztu dut; izan ere, filosofo moduan ideioak zein kausaren menpe dauden eta zerez eginak diren aztertuz gero, uste dut oso primarioak eta jatorrizkoak diren gutxi hauxetara murriztu behar liratekeela: *hedadura*, *solidotasuna* eta *higigarritasuna* edo higitua izateko ahala, gorputzetik sentimenen bidez datozkigunak; horiez gain: *antzemangarritasuna* edo antzemateko, pentsatzeko, ahala, eta *higikortasuna* edo higitzeko ahala, *geure gogamenetik* hausnarketa bidez datozkigunak. Azken bi hitz berriok erabili baditut, hitz ekibokoak erabiltzetik sor daitekeen nahasketa arriskua ekiditeko izan da. Eta beste hauek gehituz gero, alegia, *existentzia*, *iraupena* eta *zenbakia*, goiko talde biei dagozkienak, gainerako guztien oinarri diren jatorrizko ideia guztiak ditugu agian; ideia hauen bitartez, oker ez banago, *azal* dezakegu koloreen, soinuen, gustuen, usainen eta *gure baitango ideia guztien* izaera, non eta gure ahalmenak behar bezain sotilak diren sentipenak eragiten dituzten gorputz txikien *hedadura* eta *higidura* ezberdinak hautemate-

ko. Nire oraingo asmoa Jainkoak emandako ideiak eta agerpenak jasotzeko gaitasunaren bitartez gogamenak bereganatzen duen gauzen ezagutza arakatzea eta ezagutza hori nola lortzen duen ikertzea besterik ez denez eta, beraz, nire asmoa zergatik edo nola sortzen diren ikertzea ez denez, ez naiz jarriko, *Entseiu* honen helburuaren kontra, gorputzek beren koalitate sentigarrien ideiak gugan eragin ahal izateko ukan behar duten osaera berezia eta atalen konfigurazioa ikertzen. Ez naiz sartuko sakonago diskizizio honetan, nahikoa baita nire oraingo xederako ohartzea urregorriak edo azafraiak gugan horiaren ideia eragiteko ahala dutela eta elurak edo esneak zuriaren ideia, ikusmenaz soilik izan ditzakegun ideiak berauek, gorputz horien parteen ehundura edo gugan sentipen partikular hori eragiteko beraiei darien partikulen irudi edo higidura partikularra aztertu beharrik gabe; nahiz eta gogamenean ditugun ideiaz haraindik joan eta haien kausak ikertu nahi ditugunean, ezin dugun bururatu gure baitan ideia ezberdinak sortzeko gai den ezer izan daitekeenik objektu sentigarrietan, hauexek izan ezean, alegia, haien atal sentigaitzen bolumen, irudi, kopuru, ehundura, eta higidura ezberdinak.





## XXII. KAPITULUA

### Modu mistoez

#### 1. *Modu mistoak zer diren.*

Aurreko kapituluetan *modu bakunei* ekin eta garrantzitsuenetako batzuen adibideak eman ditugularik zer diren eta nola geuganatzen ditugun azaltzeko, *modu mistoak* deritzenak hartuko ditugu orain aztergai; halakoak dira, *obligazioa*, *iluntasuna*, *horditasuna* eta horrelako izenez adierazten ditugunak; mota ezberdineko ideia bakunen konbinaketa diferenteen mota ezberdinez osatuak direnez gero, modu mistoak deitu diet, espezie bereko ideia bakunez soilik osaturiko bakunagoetatik bereizteko. Gainera, modu mistoak ideia bakunen zenbait konbinaketa dira, eta ez ditugu ikusten existentzia finkoko ezein izaki errealean ezaugarri gisa, gogamenak batera bildutako ideia barreiatu eta independente gisa baizik; eta horrexetan bereizten ditugu, hain zuzen, substantzien ideia konplexuetatik.

#### 2. *Gogamenak eginak dira.*

Esperientziak erakusten digu gogamena erabat pasiboa dela bere ideia bakunekiko eta ideioek gauzen existentzia eta jardunetik bereganatzen dituela, sentipenak eta hausnarketak aurkezten dizkion heinean, ideia bat bera ere *egiteko* gai izan gabe. Baina nik modu mistoak deitu diedan eta orain mintzagai darabiltzagun ideiak arretaz aztertzen baditugu, berauen jatorria erabat diferentea dela aurkituko dugu. Gogamenak maiz ahal *aktiboa* erabiltzen du konbinaketa ezber-

din horiek egiteko. Zeren, behin ideia bakunak ukanez gero, osaketa ezberdinetan bil ditzake eta ideia konplexu ezberdinak egin, naturan horrela bilduta existitzen diren ala ez aintzat hartu barik. Eta uste dut ideia hauei horrexegatik deritzela *nozioak*, alegia, jatorrizko eta eten-gabeko existentzia gizakien pentsamenduetan dutelako, gauzen erreallitatean baino gehiago; eta ideioek eratzeko, nahikoa da gogamenak haien atalak elkarrekin jartzea eta adimenean horrelaxe bildurik irautea, aintzat hartu gabe izate errealik ote duten; nahiz eta ez dudan ukatzen horietariko batzuk etor daitezkeela adimenean era berean konbinatuta batzen diren ideia bakun batzuen existentzia eta behaketatik. Zeren *hipokresiaren* ideia, adibidez, lehen aldiz eratu zuen gizakiak baten bat ez zeuzkan koalitate onak erakusten ikusita har zitekeen ideia hori; edo agian ideia hori iradokitzeke horrelako eredurik ukan gabe eratu zuen. Zeren begien bistakoa baita hizkuntzen eta gizarteen hasieran, gizakien artean ezarritako araubidearen ondorio ziren ideia konplexu horietako batzuek nahitaez egon behar izan zutela lehenbizi gizakien gogamenetan, beste inon existitu baino lehenago, eta ideia konplexu horiek adierazten zituzten izen asko erabili egiten zirela eta ideia horiek horrelaxe egituratu zirela, berauek ordezkatzan dituzten konbinaketak existitu aurretik.

### 3. *Batzuetan aurenizzen azalpenaren bidez euganatzenditugu* .

Dudarik ez, orain hizkuntzak eraturik eta konbinaketa horiek adierazteko hitzez horniturik daudenean, ideia konplexu horiez *jabetzeko* modu normal bat, beroriek ordezkatzan dituzten hitzen azalpena da. Izan ere, ideia bakun konbinatuak biltzean dautzanez, ideia bakun horiekin ordezkatzan dituzten berben bidez irudikaturik gera daitezke hitz horiek ulertzen dituen baten gogamenean, nahiz eta gauzen existentzia errealean ideia bakunen konbinaketa konplexu hori sekula ez aurkeztu haren gogamenera. Horrela, gizaki batek eduki lezake *sakri-legioaren* edo *hilketaren* ideia, hitz horiek ordezkatzan dituzten ideia bakunak banan-banan adieraziz gero, bata ez bestea egiten sekula ikusia ez ukan arren.

### 4. *Izenak ideia batean biltzen ditu modu mistoen atalak.*

Modu misto oro ideia bakun askoz osatua denez gero, arrazoizko dela dirudi galdetzea nondik datorren haren batasuna eta nola gertatzen den ideia konkretu askok eta hain zehatzek ideia bakarra egitea, sarri askotan konbinaketa horiek ez baitira naturan bat eginda

existitzen. Honi erantzunen diot argi dagoela gogamenaren egintza batez hartzen duela batasuna, hau da, gogamenak zenbait ideia bakun elkarrekin konbinatuz eta atal horiek osaturiko ideia konplexu bakar-tzat hartuz; eta batasun hori markatzen duena, edo, eskuarki uste den moduan, batasun hori osamaitzen duena, konbinaketa horri ematen zaion *izena* da. Izan ere, izenen bidez ematen dute gizakiek beren modu mistoen espezie ezberdinen kontu, oso gutxitan onartzen edo uste dutelarik honenbeste edo horrenbeste ideia bakunek konplexu bat egiten dutela, zenbat izen hainbat bilduma daudela baizik. Horretara, nahiz eta adineko pertsona bat hiltzea aita hiltzea bezain egokia izan naturan ideia konplexu batean biltzeko, hala ere, lehenengo ideia zehazki ordaintzeko izenik ez dagoelarik bigarrena adierazteko *gura - so hilketa* dagoen moduan, lehenengoa ez da ideia konplexu partiku-lartzat hartzen, ez eta gizaki gazte bat, edo beste edozein gizaki, hil-tzetik ezberdina den egintza motatzat ere.

#### 5. Zergatik egiten diren modu mistoak.

Ikerketan aurreratxoago jo eta ikusten badugu zergatik egiten dituzten gizakiek ideia bakunen konbinaketa ezberdinak modu berei-ziak eta, nolabait esateko, finkoak eratzeko, eta zergatik uzten dituz-ten alde batera gauzen euren naturan konbinatu eta ideia bereiziak egi-teko horiek bezain egokiak diren beste batzuk, aurkituko dugu horren arrazoa hizkuntzaren xedeetan dagoela; izan ere, hizkuntza pentsa-menduak zehazteko edo gizakiek ahalik ongien elkarrekin komunika-tzeko delarik, modu konplexuen bilduma *horietan* bildu ohi dituzte ideiak eta izenak jartzen dizkiete, eguneroko bizitzan eta solasaldietan maiz erabiltzen dituztelako, bakanki baino aipatu behar ez dituztenak, ordea, alde batera eta elkarrekin biltzeko izenik gabe uzten dituzten artean; horrela, horien premia izanez gero, nahiago izaten dute ideia horien osagaiak ordezkatzan dituzten izenen bidez banan-banan izen-datu, inoiz gutxitan edo sekula ere erabiliko ez dituzten ideia konple-xuei jarritako izenak neurriz kanpo ugalduz beren oroimenak honda-tu baino.

#### 6. Hizkuntza bateko hitzek zergatik ez duten ordainik beste hiz - kuntza batean.

Honek argi jartzen digu zergatik dauden hizkuntza guztietan hitz patikular asko, beste hizkuntza bateko hitz bakarraz ezin itzul dai-tezkeenak. Izan ere, nazio bateko moda, ohitura eta usadioen eraginez

nazio horretan hurbilekoak eta beharrezkoak direlako, beste batean —erabiltzeko aukerarik izan ez dutelako edo ideia horiez ohartu ere egin ez direlako— inoiz erabili ez diren ideia konbinaketak egiten dira, eta konbinaketok erabiltzen dituen nazioak izenak jartzen dizkie eguneroko solasaldietako gauzetan perifrasi luzeak ekiditeko, eta horrela ideia konplexu bereizi bilakatzen dira *gizakien* gogamenetan. Horretara, ὀστρακισμός greziarren artean eta *proscriptio* erromatarren artean, beste hizkuntzetan berba-ordain zehatzik gabeko hitzak ziren, beste nazioetako gizakien gogamenetan ez zeuden ideia konplexuak ordezkatzin zituztelako. Halako ohiturarik ez zegoen lekuan ez zegoen horrelako ekintzen noziorik, ez eta berba horien bidez horrela bildu eta elkarrekin loturiko ideien konbinaketa erabili beharrik ere; eta, beraz, beste nazioetan ez zegoen ideia horientzat izenik.

#### 7. *Hizkuntzak aldatu egiten dira.*

Hemendik ikus dezakegu, halaber, zergatik aldatzen diren eten-gabe hizkuntzak, hitz berriak hartuz eta zaharrak alde batera utziz. Izan ere, ekanduen eta iritzien aldatzeak pentsatzeko eta hitz egiteko beharrezko diren ideien konbinaketa berriak dakartzalarik, deskribaketa luzeak ekiditeko izen berriak ezartzen zaizkie eta, horretara, modu konplexuen espezie berri bilakatzen dira. Zenbat eta zenbat ideia ezberdin sartzen diren horrela soinu labur bakar batean eta zenbat denbora eta ahalegin aurretzen dugun horretara, laster egiaztatu dezakegu, *eseki* edo *apelatu* berbek, esate baterako, adierazten dituzten ideia guztiak zerrendatu eta, baten bati horien esanahia ulertarazteko, hitz horien ordez perifrasi bana erabiltzeko lana hartuta.

#### 8. *Modu mistoak non existitzen diren.*

Hau zabalago aztertzeko aukera, hitzak eta euron erabilera tratatzean ukanen dudan arren, ezin dut hemen ekidin *modu mistoen ize-nak* oso aintzat hartzea; izan ere, ideia bakunen konbinaketa iheskor eta iragankorrak, existentzia laburra eta gizakien gogamenetan soilik daukatenak direnez, hauetan ere pentsatuak diren artean baino existitzen ez direlarik, beren izenetan izan ezik beste inon ez dute etengabeko existentzia iraunkorrik agertzen; eta horregatik mota horretako ideietan izenak, adierazten dituzten ideiatzat hartzen dira. Zeren, *garaipenaren* edo *apoteosiaren* ideiak, kasu, non dauden bilatzen hasiz gero, begien bistakoa da haietako bat bera ere ezin existi daitekeela osorik inon ere gauzetan eurretan, burutzeko denbora behar

duten ekintzak izanik, guztiak batera ezin existi daitezkeelako sekula; eta ekintza hauen ideiak ustez kokaturik dauden gizakien gogamene-tan eurretan ere existentzia oso ziurgabea dute, eta, horregatik, ideioek, berauok iradokitzen dizkiguten izenei eranstean dizkiegu.

### 9. *Nola lortzen ditugun modu mistoen ideiak.*

Hiru dira, beraz, modu mistoen ideia konplexuak erdiesteko ditu-gun bideak: 1) Esperientziaz eta gauzei eurei buruzko behaketaz; horre-la, bi gizon borrokan edo esgriman ikusi ondoren, borroka edo esgri-maren ideiak lortzen ditugu. 2) Asmaketaz, edo ideia bakunen nahitako elkartzeaz; horrela, inprenta edo grabaketa asmatu zuenak, asmakizun horiek existitu aurretik berorien ideia ukan zuen bere gogamenean. 3) Hirugarren bidea normalena da: guk geuk inoiz ikusi gabeko ekintzen izenen edo ikusi ezin ditugun higiduren *azalpenaren* bidez, horiek era-tzeko behar diren ideia guztiak, berorien osagai direnak, banan-banan zerrendatuz edo, nolabait esateko, gure irudimenaren aurrean jarritz. Zeren, sentipenaren eta hausnarketaren bidez geure gogamenera ideia bakunak bildu eta erabiliaz erabiliaz haien ordezt dauden izenak geuga-natu ondoren, horien bitartez gai gara beste bati irudikatzeko hark buru-ratzea nahi dugun edozein ideia konplexu, beti ere izendatzen dizkiogun ideia bakun guztiak ezagutzen baditu eta haientzat geuk darabilgun izen bera badarabil. Izan ere, gure ideia konplexu guztiak sorreratik berauen osagai diren ideia bakunetan bana daitezke, nahiz eta berauen, nolabait esateko, nahasgai zuzenak ere ideia konplexuak izan. Horretara, *gezu - rra* hitzak ordezkatzan duen modu mistoak ideia bakun hauexek ditu osagai: 1) Soinu artikulatua. 2) Zenbait ideia jakin hiztunaren gogame-nean. 3) Ideia horien zeinuak diren hitzak. 4) Zeinu horiek, baieztape-nez edo ezeztapenez, ordezkatzan dituzten ideiak hiztunaren gogame-nean dauden bezala barik, bestela biltzea. Uste dut ez dudala premiarik gezurra deitzen diogun ideia konplexu honen analisi handiagorik egite-ko, nahikoa baita esan dudana ideia bakunez osatua dela argi jartzeko. Izan ere, irakurleari gogait eragitekoa litzateke ideia konplexu honetan dauden ideia bakun guztiak banan-banan izendatzea, hau, nonbait ere, berak egin baitezake bere kabuz. Gauza bera egin daiteke gure ideia konplexu guztietan, behin eta berriz osatuak izan arren, berriro ideia bakunetan bana baitaitezke, ideia bakunok daukagun edo eduki dezake-gun ezagutzaren edo pentsamenduaren material guztia direlarik. Eta ez dugu izan behar gogamena ideia gutxiegi mugatua aurki dadin beldur,

kontuan baldin badugu kopuruak eta irudiak bakarrik ideia bakunezko meta eskerga eskaintzen digula. Erraz dugu, beraz, imajinatzen zein urrun dauden modu mistoak, ideia bakun ezberdinen konbinaketa dife-renteak eta kontaezinezko moduak onartzen dituztenak, gutxi batzuk izatetik. Hain urrun, non hori egin aurretik ikusiko dugun inork ez duela ukan behar bere pentsamenduak sailkatzeko behar adina aukera eta leku ez edukitzeko beldurrik, nahiz eta, nik uste dudan bezala, pentsamendu guztiak sentipenez edo hausnarketaz harturiko ideia bakunetara eta berauon konbinaketa ezberdinetara mugatzen diren.

10. *Higiduraren, pentsamenduaren eta ahalaren ideiak dira aldatuenak.*

Merezi du, nonbait, behatzea gure ideia bakunetarik zein izan diren *aldatuenak* eta ideia mistoak izen eta guzti egiteko erabilienak. Hiru izan dira: *pentsamendua* eta *higidura* (ekintza oro hartzen duten ideiak) eta ahala, ekintzon sorburutzat daukaguna. Pentsamendu, higidura eta ahalaren ideia bakunok, diot, izan dira aldatuenak eta euron aldakuntzetatik eratu da modu konplexu gehien izen eta guzti. Izan ere, gizateriaren funtsezko auzia eta legeen gai osoa *ekintza* izanik, ez da harritzekoa gizarteek hauek guztiak egin izana, alegia, pentsamenduaren eta higiduraren modu ezberdinez ohartu, haien ideiak behatu, oroimenean gorde eta izenak jarri, hori gabe nekez egin baitaiteke legerik, ez eta bizioa eta istiluak erreprimitu ere. Izen eta guztiko ideia konplexu hauek gabe, ez legoke gizakien arteko komunikazioa ondo egiterik ere; eta horregatik gizakiek ideioi izenak jarri dizkiete eta suposatuta dute beren gogamenetan ekintzen moduei buruzko zenbait ideia ezarrita zeudela, euren kausa, bitarteko, helburu, xede, tresna, denbora leku eta horrelako zirkunstantzien arabera bereiziz; eta ekintza horiek egiteko gai diren ahalei buruz ere gauza bera: adibidez, *ausardia* inoren aurrean beldurrik edo larritasunik gabe mintzatzeko edo egitera goazena egiteko ahala da; eta greziarrek παρρησία izen bereziaz deitzen zioten hitz egiteko konfiantza, eta gizakiaren ahal edo zerbait egiteko gaitasun hori, gauza bera sarritan eginez lortu denean, guk *ohitura* deitzen diogun ideia da; gizakia zerbaitetarako beti prest dagoenean, egoera horri *joera* deritza. Horrela, *suminkorta* - *suna* haserretzeko joera edo gaitasuna da.

Bukatzeko, azter dezagun ekintzaren edozein modu, adibidez: *kontsideratzea* edo *baiestea*, gogamenaren ekintzak direnak, *korrika*

*egitea* edo *mintzatzea*, soinaren ekintzak direnak, *mendekua* eta *hilke - ta*, bataren eta bestearen ekintzak direnak, eta ikusiko dugu ez direla ideia bakunen bildumak baino, bildurik izen horiek adierazten dituzten ideia konplexuak osatzen dituztenak.

11. *Ekintza esan nahi dutela diruditen berba askok efektua baino ez dute esan nahi.*

*Ahala* denez ekintza guztien iturri, *kausa* deritzegu ahal hauen kokaleku diren substantziei, *ahala* egintzan gauzatzen dutenean; eta *efektuak* deritze bide honetatik ekoiztutako substantziei, hobe esan, ideia bakunei, ahal horren eraginez subjektu baten baitan sartu diren ideiei. Horrela, substantzia berria edo ideia ekoizten duen *eraginkor - tasunari* ahal horren subjektu erabiltzailearengan *ekintza* deritza, eta ideia edo koalitatearen bat aldatua edo ekoiztua geratu den subjektuarengan, *pasioa*. Eraginkortasun hau, denik bariatuen izanik eta ia amaigabeko efektu ugariak ukanik ere, adimendun subjektu eragileengan pentsamendu eta nahi izatearen modu bezala baino ezin dugu bururatu, gorpuzdun eragileetan, ordea, higidura aldakuntzak bezala baino ez. Bi horiez gain besterik izatea ezin dugula bururatu diot. Zeren aitortzen baitut ez dudala horietatik kanpo efektuaren bat sortzen duen beste ezein ekintzaren noziorik ez ideiarik; eta, horregatik, pentsamendu, atzemate eta ezagutzatik erabat urrun dago hori, eta ilunbean ere badago, niretzat beste bost sentimen diferente edo itsuarentzat koloreen ideiak dauden bezalaxe egon ere. Eta horregatik ekintza adierazten dutela diruditen hitz askok, ez dute inondik ere ekintza edo *modus operandi* delakoa adierazten, efektu hutsa baizik, efektu hori hartzen duen subjektuaren eta eragiten duen kausaren zenbait zirkunstantziarekin batera: adibidez, *sorpenak* ala *deuseztapenak* ez dauka egintzaren edota moduaren inongo ideiarik, kausarena eta eginarena soilik baizik. Eta baserritar batek hotzak ura izoztu egiten duela dioenean, izoztu hitzak ekintza adierazten duela dirudien arren, egiatan efektua besterik ez du adierazten, hau da, lehen isurkorra zen ura gogor eta solido bilakatu dela, hitz horrek ez daukalarik bere baitan hori eragin duen ekintzaren inolako ideiarik.

12. *Modu mistoak ahalaren eta ekintzaren ideiak ez direnekin ere osatzen dira.*

Uste dut ez dagoela hemen azpimarratu beharrik ezen, modu mistorik gehienak, zein bere izenez izendatuak eta gizakien gogame-

netan eta ahotan erabilienak, ahalak eta ekintzak osatzen dituzten arren, beste ideia bakun batzuk eta euron konbinaketa ezberdinak ezin ditugula kanpo utzi; eta askoz gutxiago dut beharrezkotzat izenez fin-katuriko modu misto guztiak banan-banan zerrendatzea. Hau, izan ere, teologian, etikan, zuzenbidean, politikan eta beste hainbat zientzian erabiltzen diren hitzik gehienen hiztegia egitea litzateke. Nik orain haxe azaltzea besterik ez dut helburu, alegia, modu mistoak deitzen diedanak zer nolako ideiak diren, gogamenak nola erdiesten dituen eta modu mistoak sentipenez eta hausnarketaz geuganaturiko ideia bakunez osaturikoak direla; eta hau egin dudala uste dut.



## XXIII. KAPITULUA

### Substantziei buruz ditugun ideia konplexuez

#### 1. *Nola egiten diren substantzia partikularren ideiak.*

Gogamenak, esan dudan modura, kanpoko gauzetatik sentimenez edo bere eragiketetatik hausnarketak eramaten dizkion ideia bakun askoz horniturik dagoelarik, aditzen du nolatan zenbait ideia bakun elkarrekin agertzen diren beti eta nolatan, gauza bat bakarrarenak kontsideratuak direlarik eta hitzak edozeinek ulertzeko modukoak eta besteekin erraz komunikatzeko erabiliak, izen batez soilik izendatuak diren, subjektu bakar baten baitan biltzen direnean; eta gero, oharkabeagatik, ideia bakuntzat hartzeko eta halakotzat aipatzeko joera izaten dugu, izatez elkarrekin bildutako ideia multzoa baino ez badira ere; zeren, esan dudan bezala, ezin dugularik pentsatu ideia bakun horiek nolatan iraun *dezaketen* berez, *substratum* edo euskarriren bat ezarri ohi diegu; han diraute, handik datoz eta horregatik hari *substantzia* deitzen diogu.

#### 2. *Substantziaz oro har dugun ideia iluna.*

Horrela, baten batek bere buruaren azterketa egin nahi baldin badu substantzia hutsaz oro har duen nozioari buruz, aurkituko du, gure baitan ideia bakunak eragiteko gai diren eta eskuarki akzidentekak deritzen koalitateen *euskarri* ezezagun baten suposiziotik kanpo, haren inolako ideiarik ez duela. Baten bati galdetuko baliote zein den koloreak edo pisua datxezkion subjektua, ez luke atal solido eta heda-

tuak direla beste ihardespenik; eta solidotasun eta hedadura horiek zeri datxezkion galdetuz gero, ez litzateke lehen aipatu dugun indiar hura baino ataka samurragoan aurkituko; izan ere hari, munduaren euskarria elefante handi bat zela zioelarik, elefanteari azpian zerk eusten zion galdetu zioten eta hark dortoka handi batek erantzun, baina berriz ere lehenagora joz, dortoka bizkarzabal hari zerk eusten zion galdetzean, *berak ez zekien zerbaitek* eusten ziola erantzun behar. Eta horrela kasu honetan, hitzak eurei buruzko ideia argi eta bereizirik eduki gabe darabiltzagun guztian bezala, haurren modura mintzo gara: ezezagun zaienaz zer den galdetzen diezu eta *zerbait* dela erantzunda pozik geratzen dira, baina horrek, haurrek zein helduek erabili izan, zer den ez dakitela esan nahi du, eta, beraz, jakintzat eta mintzagai duten gauzaz ez dutela inondiko ideia bereizirik, hartaz fitsik jakin gabe eta zeharo ilunbetan aurkitzen direlarik. *Oro har* substantzia deritzanaz daukagun ideia existitzen aurkitzen ditugun koalitate horien ustezko euskarri ezezaguna besterik ez denez eta *sine re substantante*, hau da, eusteko zerbait barik ezin iraun duela uste dugunez, euskarri honi *substantzia* deitzen diogu, berbaren benetako esanguraren arabera, gure hizkuntzan, azpian dagoena edo eusten diona esan nahi duen hitza berau.

### 3. *Substantzi motak.*

Behin *substantziari buruz oro har* ideia ilun eta erlatibo bat egin dugunean, gero *substantzi mota partikularren* ideiak egiten ditugu, ideia bakunen bildumak konbinatuz, ideia bakun horiek esperientzian eta gizakien sentimenen oharketaz batera existitzen atzematen dira, eta guk, horregatik, substantzia horren barne osaera edo esentzia ezezagun horretatik eratorritzat ditugu. Horrelaxe lortzen ditugu giza-kiaren, zaldiairen, urrearen, uraren eta abarren ideiak; eta horien substantzian elkarrekin existitzen diren ideia bakunena ez den bestelako ideia *argirik* inork baduenentz, begira beza nork bere esperientzian. Burdinan edo diamantean ikus daitezkeen koalitate arruntak bilduta dira errementariak edo bitxigileak eskuarki filosofoak baino hobeto ezagutzen dituen substantzia horien benetako ideia konplexua; filosofoak, izan ere, *forma substantzialez* txitean-pitean mintzatu arren, ez dauka substantzia horien beste ideiarik, euretan batuta aurkitzen dituen ideia bakunen bilketaz eraturikoa baino; ohartu beharra dugu, hala ere, substantzien gure ideia konplexuek, osagai dituzten ideia

bakun guztiez gain, euren habia eta irauteko leku duten zerbaiten ideia lanbrotsua daukatela beti; eta horregatik nolabaiteko substantziaz mintzo garenean, horrelako edo halako koalitateak dituen gauza dela esaten dugu, hala nola, gorputza gauza hedatua, irudi bat duena, eta higitzeko gai dena eta espiritua pentsatzeko gai den zerbait dela; eta gogortasuna, xhegarritasuna eta burdina erakartzeko ahalmena imanean aurkitzen diren koalitateak dira. Horiek eta mintzatzeko beste era batzuek adierazten digute beti suposatzen dela substantzia hedadura, irudia, solidotasuna, higidura, pentsamendua edo beste ideia hautemangarri batzuk baino *zerbait g ehiago* dela, zer den ez badakigu ere.

4. *Substantziari buruz, oro har, ez daukagu ideia argi edo bereizirik.*

Horregatik, edozein gorpuzdun substantziaz mintzo garenean, adibidez, zaldiaz, harriaz eta abarrez, nahiz eta horietako edozeinetaz dugun ideia zaldia edo harria izeneko gauzetan aurkitu ohi ditugun koalitate sentigarri ezberdin horien nahasketa edo bilketa besterik ez den, *eurek ez bakarrik ez bata bestearen baitan nola iraun dezaketen bururatu ezin dugunez*, suposatzen dugu subjektu komun baten baitan existitzen direla eta hark eusten diela, eta subjektu honi substantzia deitzen diogu, nahiz eta euskarritzat hartzen dugun gauza horren ideia argi eta bereizirik ez daukagun.

5. *Espirituaren zein gorputzaren substantziaz, bataz zein beste - az ideia era berean argia daukagu.*

Gauza bera gertatzen da gogamenaren eragikitei, hau da, pentsatzeari, arrazoitzeari, beldur izateari eta horretarikoei dagokienez ere, zeren berenez ez dira utela ondorioztatu dugunez eta nola izan daitezkeen gorputzarenak edo hark ekoiztuak atzematen ez dugunez, horiek beste *substantzia* baten ekintzak direla, hain zuzen guk *espiri - tua* deitzen diogunarenak, pentsatzeko joera dugu; horregatik bistakoa da ezen, materiaren beste ideia edo noziorik ez daukagunez, gure sentimenei eragiten dien koalitate sentigarri ugarien irauteko leku dela baino, pentsatzeak, ezagutzeak, dudatzeak, higitzeko ahalak eta horietarikoak irauteko duten substantzia suposatuz gero, espirituaren substantziaren ideia argia daukagu, gorputzaren substantziarena bezain argia; izan ere, bata (zer den jakin gabe) kanpotik hartzen ditugun ideia bakunen *substratuma* dela suposatzen dugu eta bestea (antzera-

ko ezjakitez) geure barruan izaten ditugun eragiketen *substratuma* dela. Argi dago, orduan, material legokeen *gorpuzdun substantziaren* ideia gure buruera eta atzematetik, *substantzia espiritualaren* ideia bezain urrun dagoela; eta, beraz, espirituaren substantziaren noziorik ez daukagulako ezin dugu ondorio moduan ez dela existitzen atera, arrazoi berori jarrita gorputzaren existentzia ukatzerik ez dugun bezalaxe; izan ere, era berean dira arrazoizko, materiaren substantziaren ideia argi eta bereizirik ez daukagulako, gorputzik ez dagoela baieztatzea eta, espirituaren substantziaren ideia argi eta bereizirik ez daukagulako, espiriturik ez dagoela esatea.

#### 6. *Substantzi mota partikularrei buruzko gure ideiak.*

Horregatik, oro har substantzien izaera sekretu eta abstraktua dena delakoa, substantzi partikular konkretuei buruz ditugun ideia guztiak ideia bakunen konbinaketa ezberdinak besterik ez dira, osotasunak berez irautea eragiten duen batasun-kausa ezezagun batean elkarrekin batuta existitzen direnak. Ideia bakunen konbinaketa horiengatik, eta ez beste ezigatik, irudikatzen ditugu geuretzat substantzi mota partikularrak; horrelakoxeak dira geure gogamenetan substantzi espezie ezberdinei buruz ditugun ideiak, eta horiexek dira izen berezиеz besteei adierazten dizkiegunak, adibidez, gizona, zaldia, eguzkia, ura, burdina. Berba horiek entzutean, hizkuntza hori ulertzen duenak maiz izen horretan batuta hauteman edo iruditu dituen ideia bakun ezberdinen konbinaketa eratzen du bere gogamenean; ideia horiek, uste du, ezeri ez datzekion subjektu komun ezezagun batean dira eta, nolabait esateko, harixe datxezkio. Hala ere, nabaria da eta nork bere pentsamenduak aztertuz edonork aurkituko du edozein substantziaz, adibidez, urreaz, zaldiaz, burdinaz, gizonaz, bitrioloaz, ogiaz ez duela beste ideiarik, bere ustez gauza horri datxezkion koalitete sentigarri horiez duena baino, *substratum* bat suposatuz, elkarrekin batuta existitzen hauteman dituen koalitete edo ideia bakun horiei euskarri bat-edo ematen diena. Horretara, eguzkiaren ideia ez da besterik, ideia bakun batzuen —distiratsu, bero, biribil, higidura konstante eta erregularra duena, gugandik distantzia jakin batera dagoena— pilaketa baino, agian beste ideia batzuk ere gehitu behar zaizkiolarik, eguzkiari buruz pentsatu edo hitz egin duenak eguzkia deritzan gauza horretan dauden koalitete sentigarri, ideia edo propietate horien behaketan izan duen arta eta zehaztasunaren arabera.

7. *Ahal aktiboak eta pasiboak substantziei buruzko gure ideia konplexuen zati handi bat dira.*

Izan ere, edozein substantzi mota partikularren ideia hoberena, bertan dauden ideia bakun gehien bildu eta batera jartzen dituenak dauka, euron artean ahal aktiboak eta gaitasun pasiboak sartu behar direlarik, ideia bakunak ez izan arren, zentzu honetan, labur arren, egokiro sar daitezke eta. Era horretan, burdina erakartzeko ahala imanarria deitzen diogun ideia konplexu horren ideietako bat da; eta horretara erakarria izateko ahala burdina deitzen diogun ideia konplexuaren parte bat da, ahalok subjektu horiei datxezkien koalitatzat hartzen direlarik. Zeren, substantzia orok, ikusten dizkiogun ahalen bidez, hala beste subjektu batzuetan koalitate sentigarriak aldatzeko, nola gure baitan hartatik zuzenean hartzen ditugun ideia bakunak eragiteko gai denez, beste subjektu batzuetan sarturiko koalitate sentigarri berri horien bidez agirian jartzen dizkigu era horretan gure sentimenei zeharka eragiten dizkien ahal horiek, haren koalitate sentigarriek zuzenean eragiten dizkien normaltasun beraz eragin ere; adibidez, guk suari sentimenen bidez zuzenean hautematen dizkiogu berotasuna eta kolorea, eta hauek, ongi pentsatuz gero, suak *guregan* ideia horiek eragiteko dituen ahalak besterik ez dira; halaber, guk sentimenez ikatzaren kolorea eta distira hautematen ditugu, eta horren bidez suak daukan beste ahal bat ezagutzen dugu, *zuraren* kolorea eta osaeira aldatzeko ahala. Lehenengo kasuan zuzenean, bigarrenean zeharka, suak agerian jartzen dizkigu ahal ezberdin hauek eta, horregatik, suaren koalitateen parte moduan ikusten ditugu eta, beraz, suaren ideia konplexuaren partetzat hartzen. Zeren, ezagutzen ditugun ahal guztiak azken batean eragiten dieten subjektu horien koalitate sentigarrien aldarazpen hutsa baino ez direnez eta, era horretan, guri ideia sentigarri berriak erakusten dizkigutenez, horrexegatik jartzen ditut ahalok substantzi moten ideia konplexuak egiten dituzten ideia bakunen artean, nahiz eta ahal hauek beren baitan kontsideraturik benetan ideia konplexuak diren. Eta zentzu zabalago honetan nahi dut uler dakidan, horrelako potentzialtasun bat *substantzia partikularrez* pentsatzen dugunean gogamenean biltzen ditugun ideia bakunen artean aipatzen dudanean. Zeren eurretan era ezberdinean dauden ahalak aintzat hartu beharrekoak baitira, baldin substantzi mota diferenteen benetako nozio bereiziak nahi baditugu.

### 8. *Eta zergatik.*

Eta ez gaitu harritu behar ahalek gure ideia konplexuen zati handi bat osatzeak, zeren euron bigarren koalitateek gehienetan substantziak bata bestetik bereizteko balio baitute nagusiki, eta eskuarki substantzi mota ezberdinen ideia konplexuaren zati handi bat osatzen dute. Izan ere, gure sentimenek gorputzen zati nimiñoen bolumen, ehundura eta irudia, haien zinezko osaera eta diferentzien oinarria direnak, deskubritzeko lanean huts egiten dutenez, haien bigarren koalitatez baliatzearekin konformatzen gara, geure gogamenen haien ideiak eratzeko ezaugarri eta ikur moduan erabili eta bata bestetik bereiziz; eta hauek guztiak bigarren koalitateak dira eta, frogatu dudan moduan, ahal hutsak. Izan ere, opioaren kolore eta gustua, baita haren indar loeragingarri edo lasaigarriak ere, ahal hutsak baino ez dira, haren lehen koalitateen menpe daudenak, eta, horrexegatik da egokia gure gorputzeko atal ezberdinetan eragiketa ezberdinak sortarazteko.

### 9. *Hiru motatako ideiek osatzen dute gorpuzdun substantzietz ditugun ideia konplexuak.*

Gorpuzdun substantzietz ditugun ideia konplexuak hiru motatakoak dira. Lehenik, gauzen lehen koalitateen ideiak, gure sentimenek deskubritzen dituztenak eta haietan daudenak guk ez hauteman arren ere; horiek gorputzen zatien bolumena, irudia, kopurua, kokalekua eta higidura dira. Bigarrenik, bigarren koalitate sentigarriak, haien menpe egonik substantzia hauek gure sentimenen bitartez gure baitan ideia ezberdinak sortzeko dituzten ahalak besterik ez direnak; ideia hauek ez daude gauzetan eurretan, edozein gauza bere kausan dagoen moduan izan ezik. Hirugarrenik, edozein substantziatan kontsideratzen dugun gaitasuna lehen koalitateen aldaketak eragin edo hartzeko, halatan, non horrela aldaturiko substantziak guregan lehen eragiten zituenak ez bezalako aldaketak eragin ditzakeen; hauei ahal aktiboak eta pasiboak deritze eta ahal hauek guztiak, haien berri edo noziorik dugun heinean, ideia sentigarri bakunetan amaitzen dira. Zeren, imanarriak burdinaren partikula nimiñoetan aldaketa eragiteko duen ahala edonolakoa izanda ere, ez genuke burdinan eragiteko inolako ahalik duen noziorik, haren higidura sentigarriek erakutsi izan ez baligute; eta ez dut dudarik egiten mila aldaketa daudela, egunero eskuartean darabiltzagun gorputzek horretarako duten ahalaz elkarri eragindako-

ak, guk horien susmorik ere eduki gabe, ondorio sentigarrietan inoiz ere agertzen ez direlako.

10. *Ahalek substantzia partikularrei buruzko gure ideia konplexuen zati handi bat osatzen dute.*

*Ahalek*, beraz, substantziez ditugun ideia konplexuen zati handi bat osatzen dute. Urreaz daukan ideia konplexua aztertu nahi duena konturatuko da hura osatzen duten ideietako batzuk ahalak besterik ez direla; horretara, sutan, gastatu gabe, funditua izateko ahala eta *aqua re* giatan disolbatzekoa, kolorea eta pisua bezain ideia beharrezkoak dira, erreaz daukagun ideia konplexua osatzeko, hauek ere, behar bezala kontsideratuz gero, ahal diferenteak besterik ez direlarik. Izan ere, zehazki mintzatuz, horitasuna ez dago egiatan urrean, baizik urrean dagoen ahal bat da, alegia, urrea argitasun egokiz hornituriko lekuan dagoenean, geure begien bidez gudan ideia hori eragiteko ahala; eta eguzkiaz dauzkagun ideietatik kanpo utzi ezin dugun berotasuna ez dago eguzkiarengan, hark argizarian eragiten duen kolore zuria baino egiazkotasun handiagoz. Bata zein bestea ahalak dira era berean eguzkiarengan, honen atal sentigarrien higidura eta irudiaren bidez dihardutenak, hala gizakiarengan, berotasunaren ideia edukitzea eraginez, nola argizarian, gizakiarengan zuriaren ideia sortzeko gai eginez.

11. *Gorputzen oraingo bigarren koalitateak desagertu eginen lirateke, baldin haien atal nimiñoen lehen koalitateak deskubritu ahal bagenitu.*

Gure sentimenak gorputzen partikula nimiñoak eta atal sentigarrien erantzule den egiazko osaera bereizteko behar hainbat zorrotzak balira, ez dut zalantzarik ideia erabat ezberdinak eraginen lituzketela gure baitan eta orain urrearen kolore horia dena desagertu eginen litzatekeela eta horren ordeztalari ehundura miresgarria ikusiko genukeela, tamaina eta irudi zehatzekoa. Nabarmen agertzen da hau mikroskopioetan, zeren begi hutsarentzat kolore jakin bat eragiten duena, tresna horren bidez gure sentimenen zorrotzasuna areagotuz gero, erabat bestela agertzen da; eta gure begirada normalarentzat koloredun objektua denaren atal nimiñoen bolumenaren proportzioa aldatzeak aurretik ez bezalako ideiak eragiten ditu. Era horretan, harea edo beira ehoa, begi hutsez opakoak eta zuriak direnak, garden agertzen dira mikroskopioan; eta ile batek, tresna horren bidez ikusi-

ta, galdu egiten du lehengo kolorea eta, hein handian, gardena da, diamanteen eta beste gorputz garden batzuen errefrakzioz agertzen diren moduko zenbait kolore distiratsu eta argitsuren nahasketarekin. Odola, begi hutsez, erabat gorri agertzen da, baina haren atal txikia-goak ikusteko moduko mikroskopio on batez, globulo gorri gutxi batzuk baino ez dira agertzen, likido garden batean flotari, eta ez dakigu nola agertuko liratekeen globulo gorri beroriek, baldin gauzak oraingoek baino mila edo hamar mila bider handiago egiteko moduko lenteak bagenitu.

*12. Substantzien koalitate eta ahalak deskubritzeko dauzkagun ahalmenak gure egoeraren arabera dira.*

Gure eta inguruan ditugun gauza guztien Egile infinitu eta jakitunak gure sentimen, ahalmen eta organoak bizitzako komenentzietara eta guk hemen bete beharreko zereginetara egokitu ditu. Izan ere, gai gara gu sentimenen bidez gauzak ezagutu eta bereizteko, baita gauzok aztertu eta geure emendiorako eta bizitzako premiei erantzun ahal izateko moduan erabiltzeko. Gauzen osaera miresgarria eta efektu bikainak, euren Egilearen jakituria, ahala eta ontasuna miretsi eta handiesteko bezainbestean ezagutzen ditugu. Ez dugu ahalmen faltarik horrelako ezagutza, gure oraingo egoerara egokitu, erdiesteko. Baina, dirudienez, Jainkoak ez du nahi izan gu gauzen ezagutza hobezin, argi eta egokiaren jabe izatea; hau beharbada ez dago ezein izaki finituren aditzeko ahalmenean. Ahalmenik aski dugu (motel eta ahulak izan arren) kreaturretan geure Sortzailea ezagutzera eta geure zereginaz jabetzera garamatzan bidea aurkitu ahal izateko; eta bizitzako premiei erantzuteko adina gaitasun ere badugu, horixe baita gure zeregina bizitza honetan. Baina, gure sentimenak aldatu eta zoliago eta zorrotzago bihurtuko balira, gauzen itxura eta kanpoko eskema oso diferentea litzateke guretzat, eta, uste dudanez, gure izateari edo behintzat bizi garen Unibertsoko partean ongi izateari gaizki letorkiona litzateke. Kontuan duenak zein gaitasun eskasa daukan gure gorputzak normalean bizi garen altueratik apur bat goragoko airea arnasteko, arrazoirik aski izanen du pozik egoteko, Arkitekto orojakitunak, bizileku moduan esleitu zaigun lur globo honetan, gure organoak eta berauengan eragina duten gorputzak elkarri egokitzea nahi izan duelako. Deskuidoan gure entzumenak den baino mila aldiz zoliagoa balitz, tormentua makala ez liguke



ekarriko etengabeko zaratots horrek! Bakardaderik lasaienean ere, itsas bataila batean baino zailago genuke lo edo gogoeta egiten. Are, geure sentimenetarik informazio gehien ematen digun ikusmena gizaki batengan mikroskopiorik onenaren laguntzaz den baino mila edo ehun mila bider zorrotzagoa balitz, orduan gizaki hori gaur ikus daitezkeen objektuak baino zenbait milioi bider txikiagoak begi hutsez ikusteko gai izanen litzateke eta gorpuzdun gauzen atal nemiñoen ehundura eta higiduraren aurkikuntza egitetik hurrago legoke, eta kasu askotan badaiteke gorputzon barne osaeraren ideiak ere erdiestea; baina orduan besteenetik arras diferentea litzatekeen mundu batean egonen litzateke; ezer ez litzateke gauza berdina harentzat eta besteentzat; gauza guztien ideia ikusgarriak diferenteak lirateke. Gauzak horrela, zalantzatan jartzen dut gizaki horrek eta besteek ikusgaiei buruz elkarrekin mintzatzerik edo koloreei buruz komunikatzerik izanen ote luketen, ikusgaion antzirudiak batagandik besteengana hain diferenteak izanik. Eta agian ikusmenaren horrelako zorrotzasun eta sentiberatasun horrek ezinen lioke eguzki distira biziari eutsi, ezta beharbada egun argitako argitasunari ere, eta edozein objekturen zati txiki bat baino ez luke batera ikusten utziko, eta hori ere oso hurbiletik begiratuta. Eta gizakiren batek horrelako *begi mikr oskopi*odunen laguntzaz (begioi horretara deitzerik badaukat) ohi dugun baino sakonago sartuko balitz gorputzen konposaketa sekretuan eta sustraiko ehunduran, aldaketa horrek ez lioke abantaila handirik eginen, baldin horrelako ikusmen zorrotzak merkatura edo plazarako bidean gidatzeko balioko ez balio, itzuri egin beharreko gauzak distantzia egokira ikusterik ez balu, eta berak erabili beharreko gauzak euren koalitaie sentigarrietatik besteek bereitzen dituzten moduan bereizi ezin balitu. Erloju baten eragin-gailuen partikula nemiñoen konfigurazioa ikusteko moduko begi zorrotza eduki eta haren higidura elastikoa eragiteko nolako egitura eta bulkada bereiziak dauzkan behatzerik lukeenak, dudarik gabe gauza oso miresgarria deskubrituko luke; baina horrelako begiek begi kolpe batez erlojuaren orratzak eta zenbakiak bistaratzerik ez balute, ezin izanen lukete, jakina, distantzia batera zer ordu den ikusi eta erloju horren jabeak ez luke onura handirik jasoko hain begi zorrotza edukitzetik, zorrotzasun horrek makinaren atalen mekanismo sekretuak deskubritzeko balio izan arren, erlojuaz baliatzen galarazten dio eta.

### 13. *Zenbait espirituren goputz organoei buruzko aierua.*

Eta hemen zilegi bekit neure aieru nabarmen bat aurkeztea. Badugu arrazoirik (filosofiak esplikatu ezin omen dituen gauzei sinespidea ematerik badugu) iruditzeako espirituek bolumen, irudi eta atal osaera ezberdineko gorputzak har ditzaketela eta, horregatik, nire aierua da haiek gurekiko duten abantaila handi bat hauxe ez ote den, alegia, berez era eta osa ditzaketela euren unean uneko asmoari eta kontsideragai duten objektuaren zirkunstantziei ondoen doazkien sentipen eta pertzepzio organoak. Izan ere, ezagutzari dagokionez ez ote legoke beste gizaki guztien gainetik honako ahalmen hau leukakeena, alegia, bere begien egitura hasieran kasualitatez aurkituriko lenteen laguntzak erakutsi dizkigun ikusmen maila ezberdinetara moldatze-koa? Zer nolako gauza miragarriak ez ote lituzke aurkituko bere begiak edozein gauzataraz egokitzeak gai litzatekeenak, era horretan odolaren eta gorputzeko beste animali fluidoan partikula nimiñoen higidura eta irudia ikusi ahal izanen lituzkeelarik, beste une batzuetan animalien euren irudi eta higidurak bezain bereizi ikusi ere? Baina guretzat, gure egungo egoeran, organo aldaezin horiek, era horretan gorputzen atal nimiñoen irudia eta higidurak —guk orain hautematen ditugun koalitate sentigarrien oinarri direnak— hautemateko prestatu-rikoak, ez lirateke abantaila handikoak. Jainkoak, dudarik ez, gure oraingo egoeran guretzat onenak izateko modukoak egin zituen. Inguruan ditugun eta gurekin zerikusia duten objektuen hurbiltasune-ra egokitu gaitu; eta, nahiz eta ditugun ahalmenez ezin garen gauzen ezagutza hobezinera iritsi, gure interesik handienekoak diren arestian aipaturiko xedeak erdiesteko balio digute. Barka biezat irakurleak gu baino goragoko izakien pertzepzio bideei buruz horrelako fantasia nabarmenarekin etorri izana; baina fantasiarik nabarmenena izanik ere, ez dakit aingeruen ezagumenari buruz ba ote dugun ezer irudiz-terik, geugan aurkitu eta hautematen dugunaren proportzioan ez bada, era batera edo bestera. Eta, onartu beharra dugun arren Jainkoaren ahal eta jakituria amaigabekoek egin litzaketela gureak ez bezalako mila ahalmenez eta hautemateko bidez hornituriko izakiak, hala ere, gure pentsamenduak ezin daitezke dagokigunaz harago heda, ezinezko baitzaigu geure suposizioak eurak ere sentipenetik eta haus-narketatik harturikoaz harago eramatea. Aingeruek noizbait gorpu-tzak hartzen dituztela gutxienez suposatzeak ez gaitu txunditu behar,

eliz guraso zaharren eta jakintsuenetako batzuek ere, dirudienez, gorpuzdunak zirela uste baitzuten, edonola ere gauza ziuerra delarik ez dakigula nolakoa den haien egoera eta existitzeko era.

#### 14. *Substantzietz ditugun ideia espezifikook.*

Baina, aztergai dugun auzia berrartuta, substantzietz ditugun ideiak eta eurok erdiesteko ditugun bideak alegia, substantzietz ditugun ideia *espezifikook* ez direla diot, *gauza batean bildurikotzat hartzen diren zenbait ideia bakunen bilduma besterik*. Substantzien ideioek, eskuarki atzemate bakunak eta euron izenak ere berba bakunak diren arren, izatez konplexuak eta konposatuak dira. Horretara, ingeles batek *swan* (beltxarga) hitzaz adierazten duen ideiak hauek guztiak hartzen ditu: kolore zuria, sama luzea, moko gorria, zango beltzak, behatz batudun oina, eta horiek guztiak tamaina jakin batekoak, uretan igeri egiteko eta zarata jakin bat egiteko ahalarekin, eta agian, mota horretako hegaztiak luzaro behatu dituenarentzat, beste ezaugarri batzuk ere bai, guztiak, azken batean, ideia sentigarri bakunak direlarik, subjektu komun batean bilduak.

#### 15. *Substantzia espiritualetz ditugun ideiak gorpuzdun substantzietz ditugunak bezain argiak dira.*

Arestian aztergai erabili ditudan substantzia material sentigarri buruzko ideia konplexuez gain, *espiritu inmaterial baten ideia konplexua* ere era dezakegu egunero esperimentatzen ditugun geure gogamenaren eragiketetatik harturiko ideia bakunen bidez, hala nola, zenbait substantzian batera existitzen diren pentsatzetik, aditzetik, nahi izatetik, ezagutzetik, abiarazteko ahaletik harturikoen bidez. Eta horrela, pentsamenduaren, pertzepzioaren, askatasunaren, eta nork bere burua edo besteak higitzeko ahalaren ideiak bilduz, substantzia inmaterialiez, substantzia materialez bezain nozio eta pertzepzio argiak dauzkagu. Izan ere, pentsamenduaren eta nahi izatearen edo zerbait higitzeko edo gorputz baten higidura gerarazteko ahalaren ideiak bilduz eta ideia bereiziz ezagutzen ez dugun substantziarekin elkartuz, espiritu inmaterialaren ideia iristen gara; eta elkarri datxezkion atal solidoen eta higitua izateko gaitasunaren ideiak batera bilduz eta ideia positiboz ezagutzen ez dugun substantziarekin elkartuz, materiaren ideia iristen gara. Ideia bata zein bestea era berean argi eta bereiziak dira, pentsatzearen eta gorputz bat higitzearen ideiak, hedaduraren, solidotasunaren eta higitua izatearenak

bezain argi eta bereiziak izanik. Izan ere, substantziaz dugun ideia era berean iluna edo ezereza da kasu bietan; gauza ezezagun bat da, akzidenteak deitzen diegun ideiei eusteko suposatzen duguna. Hausnarketa faltaz heltzen gara uste izatera gure sentimenek gauza materialak baino ez dizkigutela erakusten. Sentipenezko ekintza bakoitzak, ongi pentsatuz gero, naturako parte bien, gorputzezkoaren zein espirituzkoaren era bereko ikuspegia ematen digu. Zeren ikusmenak edo entzumenak, edo beste sentimen batek, nigandik kanpo gorputzezko izakiren bat dagoela ezagutarazten didaten bitartean, hori baino modu seguruagoan dakit, badela nire baitan ikusten eta entzuten duen izaki espiritualen bat. Hau, konbentziturik egon behar nahitaez, ezin daiteke materia sentigaitz hutsaren ekintza izan, eta ezinezkoa da izaki pentsatzaile inmaterialik gabe.

16. *Ez daukagu substantzia abstraktuaren ideiarik, ez gorputzean ez espirituan*

Gorputzaz ezagutzen dugun guztia den hedadura, irudi, kolore eta gainerako koalitteen ideia konplexuaren bidez, gorputzaren substantziaren ideiatik hari buruz ezer ezagutuko ez bagenu bezain urrun gaude; eta materiarekiko eduki uste ditugun ezagutza eta hurbiltasuna albo batera utzita, eta gizakiek gorputzetan hauteman eta ezagutu uste dituzten koalitate ugariak gorabehera, azterketa egin ondoren agian egiaztatu ahal izanen dugu gizakiek gorputzari buruz dituzten lehen ideiak ez direla espiritu inmaterialiez dituztenak baino gehiago edo argiagoak.

17. *Atal solidoen kohesioa eta bulkada dira gorputzari bereziki dagozkion lehen ideiak.*

*Gorputzaz* ditugun eta espiritutik ezberdina denez bereziki dagozkion lehen ideiak, *atal solido eta, beraz, banagarrien kohesioa eta bulkadaz higidura helarazteko ahala* dira. Horiexek dira, nire ustez, zehazki eta berariaz gorputzari dagozkion jatorrizko ideiak, irudia hedadura finituaren ondorio besterik ez da eta.

18. *Pentsamendua eta higikortasuna, espirituari bereziki dagozkion lehen ideiak.*

*Bereziki espirituari* enak diren ideiatzat ditugunak *pentsamendua eta nahimena* edo *pentsamenduz gorputza higiduran jarteko ahala* eta *ahal horren ondorio den askatasuna* dira. Izan ere, gorputzak, atse-

denean dagoen beste gorputz bati harekin topo egitean, bere higidura bulkadaz komunikatu beharra duen bezala, halaxe espirituak ere gorputzak higiduran jar edo jarri gabe utz ditzake, nahi duen moduan. Biei dagozkie *existentzia*, *iraupen* eta *higikortasunaren* ideiak.

19. *Espirituak higitzeko gai dira.*

Ez dago inolako arrazoirik nik espirituari higikortasuna dagoiola esatea inork ere harrigarritzat jo dezan. Izan ere, higiduraren beste noziorik ez daukadanez, ustez atsedenean dauden gorputzekiko distantzi aldaketa dela baino, eta ikusirik espirituek, gorputzek bezalaxe, dauden tokian beste inon jarduterik ez dutela eta, bestalde, espirituek garai ezberdinetan leku ezberdinetan jarduten dutela, ezinbestean egotzi behar diot lekualdaketa espiritu finitu orori (ez bainaiz hemen Espiritu Infinituaz ari). Izan ere, nire arima neure gorputza bezalakoxe izaki erreala izanik, gorputza bera bezainbatean da gai beste gorputz batekiko distantzia aldatzeko eta, beraz, higitzeko ere bai. Eta matematikari batek bi punturen arteko distantzia edo distantzia horren aldaketa kontsidera badezake, espiritu biren arteko distantzia edo distantzia horren aldaketa ere burura daiteke, eta horretara haien higidura, haien elkarrekiko hurbiltzea edo urruntzea ere bai.

20. *Honen frogak.*

Bere baitan ikusten du edonork bere arimak bera dagoen tokian pentsa, nahi izan eta bere gorputzean jardun dezakeela, baina ez duela ehun miliako distantzian daukan gorputzean edo tokian jarduterik. Inork ezin dezake burura berak, Londresen dagoela, Oxforden pentsa edo gorputz bat higi dezakeela; eta nahitaez jakin behar du, bere gorputzarekin batuta dagoenez gero, Oxford eta Londresen arteko bidaia guztian bere arima lekuz aldatzen ari dela, bera daraman zaldigurdia eta zaldia bezalaxe, eta uste dut esan daitekeela tarte horretan guztian zinez dabilela higitzen; eta arimaren higidura adierazteko hau adibide aski argia ez bada, heriotzan arima gorputzetik bereizteak higidura argi asko adierazten duela uste dut, uztarrezinezkotzat baitauzkat hauek, alegia, arimak gorputzetik alde egiten edo gorputza uzten duela pentsatzea eta, hala ere, arimaren higiduraren ideiarik ez edukitzea.

21. *Jainkoa higiezina da, infinitua delako.*

Inork badio espiritua ezin dela lekuz aldatu, egoteko lekurik ez duelako, espirituak *in loco* barik, *ubi* daudela eta, uste dut mintzamol-

de hori ez datekeela askorentzat eragin handikoa gaur egun, jendea horrelako hizkera ulertezina miresteko edo haren engainua sufritzeko prest ez dagoen garai honetan. Baina norbaitek uste badu bereizketa hori zentzuzkoa dela eta gure oraingo auzira aplikagarria, adieraz beza, otoi, hizkera ulergarrian, eta erakar beza handik espiritu inmaterialak higitzeko gai ez direla frogatzeko arrazoiren bat. Higidura, dudarik ez, ezin zaio Jainkoari egotzi, ez inmateriala delako, espiritu infinitua delako baizik.

22. *Espiritu inmaterialaz daukagun ideia konplexua eta gorputzaz daukagun ideia konplexua elkarrekin alderaturik.*

Aldera ditzagun, orduan, espiritu inmaterialaz dugun ideia eta gorputzaz duguna, ea batean bestean baino iluntasun gehiago dagoen ikusteko, eta biotatik zeinetan gehiago. *Gorputzari* buruzko gure ideia, nik uste dudanez, *substantzia solido hedatua da, bulkadaz higidura komunikatzeko gai dena; arimari buruz espiritu inmateriala denez daukagun ideia, berriz, pentsatzen duen eta nahi izanez edo pentsatuz gorputzean higidura eragiteko gai den substantziarena da.* Horiexek dira nire ustez, kontrajarrita, arimaz eta gorputzaz ditugun ideia konplexuak, eta orain azter dezagun zeinek daukan bere baitan iluntasun gehiago eta ulertua izateko zailtasun handiagoa. Badakit beren pentsamenduak materialen sartuta ari direnek, beren gogamena sentimenetatik haragoko hausnarketarik inoiz ere ez egiteraino sentimenen pean daukatenez, aise jotzen dutela esatera ezin dutela gauza *pentsatzaile* baten nozioa ulertu, eta hau agian egia dateke, baina nik diot horiek ez daukatela errazago gauza *hedatu* baten nozioa ulertzen.

23. *Gorputzean atal solidoen kohesioa bururatzea ariman pentsamendua bururatzea bezain zaila da.*

Norbaitek bere baitan zerk pentsatzen duen ez dakiela badio, gauza pentsatzaile horren substantzia zer den ez dakiela esan nahi du, baina hori dioenak, nire ustez, gauza solido baten substantzia zer den ere ez daki. Are, norbait horrek esanen balit ez dakiela nola pentsatzen duen, zera erantzunen nioke, alegia, bera nola den hedatua ere ez dakiela, hau da, gorputz baten atal solidoak nola dauden baturik edo hedadura egiteko nola elkar lotzen diren ere ez dakiela. Zeren, nahiz eta aire partikulen presioak espika dezakeen aire partikulak baino lodiagoak diren eta aire korpuskuluak baino poro txikiagoak dituzten materialen atal ezberdinen kohesioa, airearen presioaren pisuak ezin

dezake esplikatu aire partikulen euren koherentzia, ez eta beronen kausa izan ere. Eta eterraren presioak, edo airea baino gai sotilagoren bate-nak, aire partikula baten atalak, eta beste gorputz batzuenak, batu eta elkarrekin lotuta eduki baditzake ere, ezin du *bere baitan* loturarik egin eta gai sotil horren korpuskulu txiki bakoitza osatzen duten atalak batuta eduki. Horretara, hipotesi hau, kanpoko gorputz sentigaitzen presioz gorputz sentigarriak nolatan batzen diren ongien esplikatu arren, ez da iristen eterraren beraren atalak nola elkartzen diren esplikatzera; eta zenbat eta argiago frogatu kanpoko gorputzen atalak eterraren presioz mantentzen direla lotuta eta ez dagoela kohesio eta elkarketa horren beste kausarik bururatzerik, hainbat eta iluntasun handiagoa ukanen dugu airearen beraren korpuskuluen atalen kohesioari dagokionez; ez baitugu korpuskuluok atalik gabe bururatzerik, gorputzak eta, beraz, banangarriak direnez gero, ez eta beraien atalak nola elkartzen diren ulertzerik ere, beste gorputz guztien atalen kohesioa esplikatzeko ematen den kausa falta dutenez gero.

#### 24. *Ingurugiro jariakorrak ere ez du esplikatzen.*

Baina, benetan ere, edonolako ingurugiro jariakorraren presioa ere, oso handia izan arren, ezin da izan materiaren atal solidoen kohesioaren kausa ulergarria. Izan ere, horrelako presioak eragoz dezake bi gainazal leun elkarrengandik aldentzea perpendikularra zaien lerrotik, marmol leundu birekin egindako esperimentuan gertatzen den moduan; ezin izanen du, baina, eragotzi gainazal horiek paralelo zaien higiduraz separa daitezen. Izan ere, ingurugiro jariakorrak, albo-higiduraren eraginez utzitako espazioaren puntu bakoitzean ondoren etortzeko askatasun osoa duenez, horrela baturiko gorputzen higidura horri ez dio gehiago eusten, fluido horrek alde guztietatik inguratutik lukeen eta beste gorputzik ukituko ez lukeen gorputzaren higidurari eutsiko liokeen baino; eta horregatik gorputzen kohesioaren beste kausarik ez balego, aise bananduko genituzke haien atal guztiak alboz irristatuz. Zeren kohesioaren kausa egokia eterraren presioa balitz, kausa honek eraginik ez izatean kohesiorik ez legoke. Eta albo-banaketa horren kontra jardun ezin dezakeenez (azaldu den moduan), edozein materi masa elkarrebakitzen duen irudizko plano orotan ezingo da gainazal leundu biren kohesioa besterik izan, gainazalok, fluido baten edozein presio imajinagarriaren eragina gorabehera, irristatu eta bata bestetik bereizi ahal izanen liratekeelarik. Horregatik, atal soli-

doen kohesioa besterik ez den gorputzaren hedadurari buruz ideiarik argiena daukagula uste izan arren, bere gogamenean kontu hau ongi pentsatzen duenak azken ondorio moduan zera atera dezake, alegia, erraztasun beraz eduki dezakeela arimak nola pentsatzen duen zein gorputza nola den hedatua ulertzeko ideia argia. Izan ere, gorputz bat hedatua bere atal solidoen kohesioagatik besterik ez denez, ez dugu erraz ulertuko gorputzaren hedadura, haren atalen kohesioa eta batasuna zertan dautzan ulertu gabe, eta honi pentsatzeko era eta pentsamendua gauzatzeko modua bezain ulergaitza deritzot.

*25. Iluntasun beraz uler dezakegu hedaduran atalak elkarri nola datxekien zein gure espirituek nola hautematen duten edo higitzen diren.*

Onartzen dut jenderik gehienak harriduraz hartu ohi duela egunero atzeman uste duten gauzetan norbaitek zailtasunak aurkitzea. Ez al dute ikusten (esanen dute agudo) gorputzen atalak tinko baturik daudela? Ba al da ezer hori baino arruntagorik? Eta zer zalantza egin daiteke horri buruz? Eta gauza bera diot pentsatzeari eta nahitako higidurari dagokienez. Ez al ditugu uneoro geugan esperimentatzen eta, beraz, ba al dago horiek zalantzatan jartzetik? Egitatezko auzia argi dago, aitortzen dut; baina arazoa hurbiletik ikusi eta nola gauzatzzen den pentsatuz gero, galduta aurkitzen gara bai batean bai bestean, eta iluntasun beraz uler dezakegu gorputzen atalak elkarri nolatan datxekien zein guk geuk nola hautematen dugun edo higitzen garen. Gustatuko litzaidake norbaitek nik ulertzeko moduan azaltzea urrearen edo brontzearen atalak (une bat lehenago, funditzean, bata bestetik uraren partikulak edo erlojuaren are garauak bezain solte egondakoak) zergatik batu eta elkarri gogor datxekien besorik sendoenen indarraz ere ez banantzeko moduan. Hausnarketarako joera duen gizakia gaizki ibiliko dela uste dut, kontu honetan bere adimena edo beste batena konforme uzteko.

*26. Ulergaitza da substantzia hedatuetan atomoek duten koherentziaren zergatia.*

Ura deritzan fluidoa osatzen duten gorputz nimiñoak txiki-txikiak dira, halatan non sekula ez baitut entzun inork mikroskopioz ere (eta esan didatenez tresna horiek hamar mila eta ehun mila aldiz handiagotzen dute ikusgaia) pretenditu duenik horien bolumen, irudi eta higidura argiro hautematea era bereizian; eta uraren partikulak bata



bestetik erabat solte daude, indarrak, txikienak nabariki bereizten dituelarik. Are, haien etengabeko higidura aintzat hartuz gero, onartu beharko dugu ez dutela kohesiorik bata bestearekin; hala ere, hotz, eta ez hain handia ere, eginez gero, batu eta solidotu egiten dira; atomo txiki hauek elkarri datxezkie eta ez dago eurok banantzerik, indar handia erabilia izan ezik. Gorpuztxo solte horien piloak irmoki batzen dituzten loturak aurki litzakeenak, bata besteari hain tinko atxikita uzten dituen zementuaren berri eman lezakeenak, sekretu handi eta oraindik ezagutu gabea deskubrituko du. Eta, hala ere, hori egin ondoren, gorputzen hedadura (bere atal solidoen kohesioa dena) zer den ulergarri egitetik urrun egonen da, harik eta lokarri horien edo zementu horren, edo existitzen den materi partikula txikienaren atalen bata-suna edo trinkotasuna zertan datzan azaltzeko gai izan arte. Horregatik guztiagatik argi dago gorputzaren lehen eta ustez bidezko koalitate hau, ongi aztertu ondoren, gogamenari dagokion beste edo-zer bezain ulergaitz agertuko zaigula, eta substantzia solido hedatu bat gauza inmaterial bat bezain bururagaitz, azken honetan batzuek aurkitzen dituzten zailtasun guztiak gorabehera.

*27. Kohesioa esplikatzeko erabiltzen den ustezko presioa uler-gaitza da.*

Izan ere, gure pentsamenduetan aurreratxoago jota, gorputzen kohesioa esplikatzeko erabiltzen den presio hori kohesioa bera bezain ulergaitza da. Zeren, materia, izan ere dudarik gabe den moduan, finitutzat hartzen bada, eraman dezala norbaitek bere kontenplazioa unitbertsoaren ertzetara eta ikus dezala han zer zirgilo, zer lokarri imajina dezakeen materi masa horri presio estuan elkartuta eusteko; nondik ateratzen duen altzairuak bere irmotasuna eta diamantearen atalek beren gogortasun eta banaezintasuna. Materia finitua bada, bere azken ertzak ukan behar ditu, baita mila zatitan barreiatzea eragotziko dion zerbait ere. Eta, zailtasun hau ekiditeko, norbaitek materia infinitua dela suposatzearen trokan behera abiatu nahi badu, pentsa beza zer argitasun aterako duen hortik gorputzaren kohesioa esplikatzeko eta ea horrela, suposiziorik zentzugabekoen eta ulergaitzen era jota, hau ulertzetik hubilago jarriko den. Horrela, bada, gorputzaren hedadura (atal solidoen kohesioa besterik ez dena), beronen izaera, kausak eta portaera aztertuz gero, inola ere ez da pentsamenduaren ideia baino argiago edo bereiziagoa.

28. *Higiduraren komunikazioa bulkadaz zein pentsamenduz eraberean ulergaitza da.*

Gorputzari buruz daukagun beste ideia bat *bulkada bidez higidura komunikatzeko ahala* da, eta arimari buruz daukaguna, *pentsamendu bidez higidura eragiteko ahala* da. Esperientziak nabarmenkiro dakarzkigu bi ideia hauek; baina sakonago aztertu nahi badugu, berriro aurkitzen gara ilunpean. Higiduraren komunikazioaz, gorputz batek besteak harengandik hartzen duen adina higidura galtzen duenean, eta haxe da kasurik arruntena, batetik bestera pasatzen den higidurari soilik erreparatzen diogu; eta hori, nire ustez, beste hau azaltzea bezain ilun eta pentsaezina da, alegia, gure adimenak nola higi ala geldiaraz dezakeen gure gorputza pentsamendu bidez, geure baitan egunero egiaztatzen dugun esperientzia berau. Are eta zailago da oraindik azaltzea egoera batzuetan gertatzen bide den edota ikusten omen den bulkada bidezko higidura gehitzea. Eguneroko esperientziak bai bulkadaz eta bai pentsamenduz eragindako higiduren berri argia ematen digu, baina nekez ulertzen dugun hori nola gertatzen den eta, kasu batean zein bestean, era berean galduta aurkitzen gara. Eta, horregatik, gorputzez zein espirituz eragindako higidura aintzat hartzen dugunean, espirituari dagokion ideia gorputzari dagokiona bezain argia da behintzat. Eta higitzeko ahal aktiboa edo, dei niezaiokeen moduan, higikortasuna kontuan badugu, askoz argiago da espirituaren baitan gorputzaren baitan baino. Zeren atsedenean bata bestearen ondoan dauden bi gorputzek ez digute ematen gorputz bata bestea higitzeko ahalik duen ideiarik, mailegaturiko indarrez izan ezik; gogamenak, ordean, egunero eskaintzen dizkigu gorputzak higitzeko ahal aktiboaren ideiak; eta, horregatik merezi du ikertzea ea ahal aktiboa espirituen atributu propioa ez den eta ahal pasiboa gorputzena. Hortik susma zitekeen espiritu sortuak, aktiboak eta pasiboak izaki, ez daudela materiatik erabat bereiz. Espiritu hutsa, hau da, Jainkoa, aktiboa delarik soilik, eta materia hutsa pasibo soil, pentsa liteke beste izaki horiek, aktibo eta pasibo biak batera direnak, batean zein bestean parte hartzen dutela. Baina, dena dela, uste dut espirituari buruz ditugun ideiak gorputzari buruz ditugun hainbeste eta hauek bezain argiak direla, bataren zein bestearen substantzia maila berean ezezaguna zaigulako, zeren espirituari pentsatzearen ideia gorputzean hedadurarena bezain argia baita; eta pentsamendu bidezko higidura-

komunikatzea, espirituari egozten dioguna, gorputzari iratxikitzen diogun bulkada bidezkoa bezain nabaria da. Etengabeko esperientziak biokiko sentibera egiten gaitu, gure adimen laburrak bata ez bestea ulertzeko gai ez izan arren. Zeren, gogamenak sentipenez edo hausnarketaz ditugun jatorrizko ideietatik harago begiratu eta haien kausetara eta sortarazteko moduetara sartzen denean, konturatzen gara bere ikusmen laburra besterik ez duela deskubritzen.

### 29. *Laburbilpena.*

Amaitzeko, sentipenak substantzia solido hedatuak daudela sinestarazten digu eta hausnarketak substantzia pentsatzaileak daudela; esperientziak ziurtatzen digu badirela horrelako izakiak eta batzuek gorputza bulkada bidez higitzeko ahala dutela eta besteek pentsamendu bidez; horretaz zalantzarik egiterik ez dugu. Esperientziak, diot nik, uneoro dakarzkigu bien ideia argiak. Baina gure ahalmenak ez dira iristen euri dagozkien iturrietatik hartzen ditugun ideia horiez haraindi. Euren izaera, kausa eta portaerari buruz sakonago aztertzen saiatzen garenean, hedaduraren izaera ez dugu pentsamenduarena baino argiago atzematen. Hobeto esplikatu nahi baditugu, erraztasun beraz egingen dugu bata zein bestea; eta ez daukagu zailtasun handiagorik *ezagutzen ez dugun substantzia* batek pentsamendu bidez gorputz bat higitzen nola jartzen duen bururatzeko, *ezagutzen ez dugun* beste substantzia batek bulkadaz gorputz bat higiduran nola jartzen duen pentsatzeko baino. Eta, beraz, ez daukagu gaitasun handiagorik gorputzari dagozkion ideiak zertan dautzan deskubritzeko, espirituari dagozkionak zertan dautzan jakiteko baino. Eta hemendik daitekeena deritzot pentsamenduen mugak sentipenez eta hausnarketaz hartzen ditugun ideia bakunak izateari; eta mugotatik harago, eginahalak egin arren, gure gogamena ez da fitsik ere aurreratzeko gauza eta, ideion naturan eta kausa estalietan sartzen saiatzen denean, ez du ezer deskubritzerik.

### 30. *Espirituaz daukagun ideia gorputzaz daukagunarekin alderaturik.*

Horrela bada, laburbilduta, espirituaz daukagun ideia gorputzaz daukagunarekin alderaturik, hauxe ateratzen da: espirituaren substantzia ezezaguna zaigula eta gorputzaren substantzia ere era berean ezezaguna zaigula. Gorputzaren bi lehen koalitate edo propietatei buruz, hau da, atal solido koherentei eta bulkadari buruz ideia

argi eta bereiziak ditugu; eta espirituaren bi lehen koalitate edo propietatei buruz ere ideia argi eta bereiziak ditugu, hau da, pentsamenduari eta ekintza ahalari buruz edo berdin dena, pentsamendu edo higidura ezberdinak abiarazteko edo geldiarazteko ahalari buruz. Baditugu, halaber, gorputzei datxekzien koalitate ezberdinen ideiak ere, eta berauen ideia argi eta bereiziak ditugu; eta koalitateok atal solido koherenteen hedaduraren aldarazpen ezberdinak baino ez dira. Era berean pentsamenduaren modu diferenteen ideiak ditugu, hala nola, uste izatearen, dudatzearen, saiatzearen, beldur izatearen, espero izatearen ideiak, pentsamenduaren modu ezberdinak baino ez direlarik. Nahi izatearen eta nahi izate horren ondorioz goputzak eta norbere gorputza bera ere higitzearen ideiak ere baditugu, zeren, azaldu den moduan, espiritua higiarazteko gai baita.

31. *Espirituaren nozioak ez du bere baitan gorputzarenak baino zailtasun handiagorik.*

Azkenez, espiritu inmaterialaren nozio honek, agian, garbitzen erraz ez diren zailtasun batzuk ukan baldin baditzake ere, espiritu horien existentzia ukatzeko edo zalantzatan jartzeko ez dugu, haatik, arrazoi gehiagorik, gorputzaren existentzia ukatzeko edo zalantzatan jartzeko daukagun baino, zeren gorputzaren nozioak zailtasun latzak baititu, agian guk azaldu edo ulertu ezinezkoak. Norbaitek erakuts diezadan nahi nuke ea espirituari buruzko gure nozioan ezer nahasiagorik edota kontraesanetik hubilagorik dagoen, gorputzari berari buruzko nozioak berekin daukana baino; hedadura finitu ororen zatigarritasun infinituaz ari naiz, berau onartu ala ez, ondorioetan esprikaezin eta atzemateetan kontraesankor bihurtzen zaiguna, ondoriook, substantzia inmaterial ezagutzailerik baten edozein ondoriok baino zailtasun handiagoak eta absurdutasun nabariagoak dakarzkigutelarik.

32. *Gauzei buruz, beraiez ditugun ideia bakunez harago ez dugu ezer ezagutzen.*

Eta honek guztiak ez gaitu harritu behar, zeren, sentimenek kanpoko gauzetatik edo gogamenak bere barruan experimentatzen duenari buruz hausnarketa eginez deskubritzen dizkiguten gauzen zenbait ideia azaleko besterik ez daukagularik, hortik gora doan ezagutzarik ez baitugu, askoz gutxiago gauzen barne osaera eta zinezko naturaz, horraino iristeko ahalmenik ez daukagunez gero. Eta, horre-

gatik, ziurtasun beraz esperimentatzen eta deskubritzen dugunez hala geure baitan ezagumena eta nahi izateko ahalmena, nola kanpoko gauzetan parte solidoen kohesioa eta banaketa, gorputzen hedadura eta higidura direnak, biak esperimentatzen ditugunez diot, arrazoi bera dugu espiritu inmaterialari buruz dugun nozioaz eta gorputzari buruz daukagunaz konforme egoteko, baita bataren eta bestearen existentziari buruz daukagunaz konforme egoteko ere. Izan ere, kontraesan handiagoa ez delarik pentsamendua solidotasunetik bereiz eta independente existitzea, solidotasuna pentsamendutik bereiz eta independente existitzea baino, biak ideia bakunak, bata bestetik independenteak direlarik, eta geure baitan pentsamenduari buruz solidotasunari buruz bezain ideia argi eta bereiziak ditugunez gero, ez dakit zergatik ezin dugun indar beraz onartu solidotasun gabeko gauza pentsatzaile bat, hots, inmateriala, existitzen dela eta, era berean, pentsamendu gabeko gauza solido bat, hots, materia existitzen dela, batez ere kontuan izanik ez dela zailago pentsamendua materiari gabe nola existi daiteken bururatzea, materiak nola pentsa lezakeen baino. Zeren sentipenez eta hausnarketaz hartzen ditugun ideia bakun horietatik harago joaten eta gauzen naturan sakontzen saiatzen garen guztian, ilunpean, nahasketan eta zailtasunetan erortzen gara eta geure itsutasun eta ezjakitea besterik aurkitzeko modurik ez dugu izaten. Baina zein gorputzarena zein espiritu inmaterialarena izan ideia konplexurik argiena, argi dago berauek osatzen dituzten ideia bakunak sentipenez edo hausnarketaz harturikoak besterik ez ditugula, eta gauza bera gertatzen da substantziei, are Jainkoari berari buruzko gure ideia guztiei dagokienez ere.

### 33. *Jainkoaz dugun ideia konplexua.*

Zeren, Izaki Goren ulertezinaz daukagun ideia aztertzen badugu, ikusiko dugu hau ere bide beretik erdiesten dugula, eta bai Jainkoaz bai espiritu bereiziez ditugun ideia konplexuak hausnarketa bidez hartzen ditugula; adibidez, zenbait ideia geure baitan esperimentaturikotik harturik dauzkagularik, hala nola, existentzia eta iraupenaren edo ezagutza eta ahalaren, plazer eta zorientasunaren ideiak eta edukitzea haiek gabe egotea baino hobeto datorkigun bestelako koallitate eta ahal ezberdinenak, Izaki Gorenaz ahalik ideia egokiena eratu nahi dugunean, aipatu ideia guztiak infinitutasunari buruz daukagun ideiaz hedatzen ditugu eta denak bildurik Jainkoari buruzko

geure ideia konplexua egiten dugu. Zeren, gorago azaldu dugun moduan, gogamenak badauka sentipen eta hausnarketa bidez harturiko ideiak hedatzeko ahal hori.

34. *Jainkoari buruz, infinitua denez, daukagun ideia.*

Gauza gutxi batzuk, eta euretako zenbait, edo denak, behar-bada ez erabat ongi, ezagutzen ditudala ohartuz gero, bi bider gauza gehiago ezagutzearen ideia era dezaket eta kopuru hau behin eta berriro bi biderkatzerik ere badaukat kopuru hori gehi nezakeen adina aldiz, eta horrela ezagutzeaz daukadan ideia izan diren edo litezkeen gauza guztietara heda dezaket. Prozedura bera har dezaket gauza horiek hobeto ezagutzeari dagokionez ere, hau da, euron koalitateak, ahalak, kausak, ondorioak, erlazioak, etab., ezagutzeari buruz, harik eta euren baitan edo eurekin nolanahi erlazonaturik dagoen guztia hobezinki ezagutu arte, eta horrela ezagutza infinitu edo mugarik gabeko ideia era dezaket. Gauza bera egin daiteke ahalari dagokionez ere, ahal infinitua deitzen diogunera heldu arte; baita existentziaren iraupenari buruz ere, hasierarik ez amaierarik gabe bururatuz, eta horrela izaki eternalaren ideia era dezakegu. Jainkoa deritzan Izaki subiranoari aplikatzeko, existentziari, ahalari, jakituriari eta nolabaiteko ideiaz burura ditzakegun beste perfektzio guztiei iratxikitzen dizkiegun mailak edo hedaera infinitu eta mugarik gabekoak direnez, gure gogamenak eratu ahal duen Jainkoaren ideiarik onena eratzen dugu; eta hau guztia, behin eta berriz esan dudan moduan, gure gogamenak hausnarketaz egindako eragiketen bidez edo kanpoko gauzetatik sentimenen bidez harturiko ideia bakunak infinitutasunak heda ditzakeen amaigabeko hedadura horretaraino luzatuz.

35. *Jainkoa bere esentzian ezagutezina da.*

Egin ere, infinitutasunak egiten du, existentziari, ahalari, ezagutzari, etab. buruzko gure ideiekin baturik, Izaki Gorena ahalik ongien irudikatzeko erdiesten dugun ideia konplexua. Zeren, Jainkoa bere esentzian (inola ere ezagutzen ez duguna nonbait ere, harkozkorren, euliaren edo gure geure egiazko esentzia ere ez baitugu ezagutzen) bakuna eta osagabea den arren, uste dut esan dezakedala haren ideia konplexua besterik ez daukagula, existentzia, ezagutza, ahal, zoriontasun eta beste koalitate infinitu eta betierekoen ideiez osatua; eta ideia guztiok bereiziak dira, eta eurotako batzuk, erlatiboak izanik,

beste batzuez osatuak dira; eta denok, azaldua dugun moduan, jatorriz sentipenetik eta hausnarketatik erdietsiak dira eta Jainkoari buruz daukagun nozioaosatzen dute.

36. *Espirituez ditugun ideia konplexuetan ez dago sentipen edo hausnarketa bidez erdietsitakoa ez den ideiarik.*

Ohartu beharra dago, halaber, Jainkoari iratxikitzen diogun ideiarik ez dagoela, infinitutasuna kenduta, beste espirituei buruz ditugun ideia konplexuen osagai ere ez denik. Izan ere, gorputzari dagozkionak kenduta, geure gogamenaren eragiketetatik hausnarketa bidez hartzen ditugunak beste ideia bakunik edukitzeko gai ez garenenez, bide horretatik jasotakoak besterik ezin diegu espirituei iratxiki, eta espirituei buruz pentsatzean beraien artean ezagutza, ahal, iraupen, zoriontasun eta abarren hedadura edo mailako diferentziak baino ezin ezar ditzakegu. Zeren gu, espirituez zein beste gauzez ditugun ideietan, *sentipen eta hausnarketatik harturikoetara mugaturik* egoteak argi uzten du espirituei buruz ditugun ideien artean, gorputzei buruz ditugunak baino amaigabeki perfektuagoak izan arren, elkarri ideiak erakusteko duten erari buruzko ideiarik ezin dugula ukan, nahiz eta ezinbestez konkluditu beharra daukagun espiritu bereiziek, guk baino ezagutza perfektuago eta zoriontasun handiagoa duten izakiak izanik, guk baino modu hobea eduki behar dutela beren pentsamenduak komunikatzeko, guk gorputz zeinuz eta soinu berezietz baliatu beharra baitaukagu, erabili ahal dugun biderik hoberen eta azkarrena direnez gero. Baina bitartekorik gabeko komunikazioaren esperientziarik eta, beraz, inolako noziorik ere geure baitan ez dugularik, hitzez baliatzen ez diren spirituek elkarrekin azkar komunikatzeko daukaten eraren ideiarik ez daukagu; edo are gutxiago uler dezakegu gorputzik ez duten spirituak nola izan litezkeen beren pentsamenduen jabe eta nahierara pentsamenduok komunika edo estal, nahiz eta ezinbestez suposatu behar dugun badaukatela ahal hori.

37. *Laburbilpena.*

Horrela, bada, ikusi dugu *nolanahiko substantziei* buruz zer motatako ideiak ditugun, zertan dautzan eta nola erdiesten ditugun. Hemendik argi geratzen dira nire ustez honako hauek:

Lehenik, substantzi *mota* ezberdinez ditugun ideia guztiak ideia bakunen bildumak besterik ez direla, suposizio hau gehituz, ale-

gia, *zerbaiti* datxezkiola eta *zerbaiten* baitan dirautela, suposatzen dugun zerbait horretaz ideia argi eta bereizirik ez badaukagu ere.

Bigarrenik, *substratum* komun batean horrela bilduriko ideia bakun guztiak, substantzi *mota* ezberdinen gure ideia konplexuak osatzen dutenak, sentipen eta hausnarketa bidez jasotakoak besterik ez direla. Horretara, barru-barrutik ezagutu uste ditugun eta gure ikusmolde hedatuenetara gehien hurbiltzen diren gauzetan ere ezin deza-kegu ideia bakun horietatik harago jo. Eta gurekin zerikusia duten gauzetatik urrunduen diruditenetan ere, geure baitan hausnarketaz hauteman edo kanpoko gauzetan sentipenez deskubritu dezakegun oro gainditzen dutenetan euren ere, jatorriz sentipen edo hausnarketa bidez harturiko ideia bakunetara baino ez dugu iristerik, aingeruez eta bereziki Jainkoaz beraz ditugun ideia konplexuetan bistakoa denez.

Hirugarrenik, substantziei buruzko gure ideia konplexuak osatzen dituzten ideia bakun gehienak, ongi aztertuz, *ahalak* baino ez direla, guk koalitate positibotzat hartzeko joera handia izanagatik; adibidez, urreaz dugun ideia konplexua osatzen duten ideia konplexu gehienak hauexek dira: horitasuna, pisu handia, harikortasuna, fundigarritasuna eta *aqua regian* disolbagarritasuna, guztiok *substratum* ezezagun batean bilduta; eta ideia hauek guztiak beste substantzia batzuekiko erlazioak besterik ez dira eta ez daude, egotez, urrean, bere baitan soilik kontsideraturik, haren barne osaeraren lehen eta zinezko koalitateen menpeko diren arren, berauen bidez hainbat era ezberdinez jarduteko eta beste substantzia batzuen jardunaren eragina jasotzeko gaitasuna dutelarik.



## XXIV. KAPITULUA

### Substantzien ideia kolektiboez

#### 1. *Idea kolektiboa ideia bakar bat da.*

Substantzia singular ezberdinen, hala nola gizon, zaldi, urre, bioleta, sagar eta abarren ideia konplexuez gain, gogamenak substantzien ideia konplexu *kolektiboak* ere baditu, nik izen hori honexegatik jartzen diedalarik, alegia, ideia horiek batera kontsideratzen diren substantzia partikular askoz osatuak direlako eta horrela ikusirik ideia bakartzat hartzen direlako; adibidez, *armada* osatzen duen gizaldeen ideia, substantzia bereizien kopuru handi batek osatua izan arren, gizon batena bezain ideia bakarra da; eta gorputz guztien ideia kolektiboa, *mundua* izenak adierazten duena, munduko materi partikularrik txikienaren ideia bezain bakarra da, edozein ideia bat izateko, ez baita irudikapen edo irudi bakartzat hartzea besterik behar, ideia partikular askoz osatua izan arren.

#### 2. *Gogamenak ideiak konposatzeko duen ahalak egindakoa.*

Substantzien ideia kolektibo horiek, gogamenak beraiek konposatzeko duen ahalaz eta ideia bakun zein konplexuak ideia bakarrean batuz egiten ditu, ahalmen beraz substantzia partikularren ideia konplexuak, substantzia batean baturiko ideia bakun ezberdinen eransketan dautzanak eratzen dituen moduan. Eta gogamenak unitatearen ideia errepikatuak batuz edozein kopururen modu kolektiboa edo ideia konplexua, adibidez hogeikoarena edo hamabi-hamabikoarena,

egiten duen bezala, halaxe, substantzia partikular ezberdinak elkartuz, substantzien ideia kolektiboak egiten ditu, hala nola, tropa, armada, pilo, hiri, untzidi eta abarren ideia; horietan guztietan nork bere gogamenen ideia bakar bat baino ez du irudikatzen, begirada bakar batez ikusia; eta nozio horren pean gauza ezberdin horiek untzi bat edo atomo bat bezain gauza bakartzat hartzen ditu. Eta ez du lan gehiagorik ematen hamar mila gizoneko armada batek nola egin dezakeen ideia bakar bat bururatzeak, gizon batek ideia bakar bat nola egin dezakeen ulertzeak baino, hain erraza baita gogamenarentzat gizon kopuru handi baten ideia batean biltzea eta bakartzat hartzea, nola den gizona konposatzen duten ideia ezberdinak bakar batean biltzea eta bakartzat hartzea.

3. *Substantzia bereiziez osaturiko gauza artifizialak gure ideia kolektiboak dira.*

Idea kolektibo hauen artean sartu behar dira gauza artifizial gehienak, substantzia bereiziez osaturikoak bederen; eta, benetan ere, ideia kolektibo horiek guztiak, hala nola, *armada*, *konstelazioa*, *unibertsoa* eta horietarikoak, behar bezala kontsideratzen baditugu, beste hainbeste ideia bakoitz egiten dituztenez, gogamenak egiten dituen marrazki artifizialak baino ez dira, gauza elkarretatik oso aldenduak eta elkarrekin zerikusirik ez dutenak ikuspegi bakar baten pean batuz marraztuak, nozio batean bilduta eta izen bakar batez adierazita noziook hobeto kontenplatu eta gogoetagai erabiltzeko. Zeren ez baitago gogamenak konposatzeko trebezia horren bidez ideia bakar batean batu ezin izaterainoko gauza aldendurik ez elkarren kontraririk, *unibertso* izenak adierazten duen ideian argi ikusten den moduan.

# XXV. KAPITULUA

## Erlazioaz

### 1. *Erlazioa zer den.*

Gogamenak gauzei buruz euren baitan direnez dauzkan ideia zein bakun zein konplexuez gain, badira beste batzuk gogamenak ideiak elkarrekin alderatuz erdiesten dituenak. Adimena, edozertaz pentsatzean, ez da objektu zehatz hartara mugatzen; edozein ideia bere horretatik harago eraman dezake, edo berorretatik harago begira dezake behintzat, beste edozeinekin alderatuz zer erlazio duen ikusteko. Gogamenak gauza bat beste baten ondoan jarriz kontuan hartu eta, nolabait esateko, bere begirada batetik bestera eramaten duenean, *erlazio* eta *elkarrekikotasun* hitzek adierazten dutenaren aurrean gaude, eta gauza positiboei ematen zaizkien izendapenak, elkarrekikotasun hori iradokitzen dutenak eta gure pentsamendua izendaturiko gaiak haraindi zerbait bereizira eramateko balio duten hainbat ikurren gisakoak direnak, *erlatiboak* deritzenak dira, eta horrela elkarturiko gauzei *erlazonatuak* deritze. Horrela, gogamenak Kaio izaki positibo moduan hartzen duenean, ideia horretan Kaiorengan egiazki existitzen dena besterik ez du hartzen; adibidez, hura gizakitzat hartzen dudanean, giza espeziearen ideia konplexua baino ez dut gogamenean. Era berean, Kaio gizon zuria dela diodanean, kolorez zuria den gizona daukat soilik pentsamenean. Baina Kaiori *senar* izena iratxikitzen diodanean, beste pertsona bat iradokitzen ari naiz; eta *zuriago* izena iratxikitzean, beste zerbait iradokitzen ari naiz; kasu biotan nire

pentsamendua Kaiogandik haraindiko zerbaitetara da bultzatua eta bi gauza jartzen dira pentsagai. Eta edozein ideia, dela bakuna dela konplexua, gogamenak bi gauza elkartzeko eta, bi izaki bereizitzat ukan arren, nolabait esateko, biak batean biltzeko okasio izan daitekeenez, gure edozein ideia izan daiteke erlazioaren oinarri. Arestian aipaturiko kasuan, esate baterako, Semproniarekin egindako ezkontzako kontratua eta zeremonia dira senar izena eta erlazioa sortzeko okasio, eta kolore zuria hura kareharria baino zuriagoa dela esateko okasio.

2. *Erlazioen ideiak termino korrelatiborik gabe ez dira atze-manerrazak.*

Hauek eta beste erlazio batzuek, termino erlatiboez, hau da, berauei erantzunez eta elkar iradokiz beste hitz batzuk parean dituzten terminoez adierazten direnek —adibidez, aita eta semea, handiagoa eta txikiagoa, kausa eta efektua— nabarmen eta edonork lehen begiradan hautemateko moduan erakusten dute erlazioa. Izan ere, aita eta semea, senarra eta emaztea bezalako termino korrelatiboek elkarri hertsiki dagozkionak dirudite eta ohituraren poderioz jendearen oroimenera elkarren ihar-despen eta errepika dakarte, halatan non, bata zein bestea izendatuz gero, izendaturiko gauzaz haraindi eramaten diren pentsamenduak, inor ere ez delarik erlazioa ohartu gabe edo zalantzatan gelditzen, nabariki iradokia delako. Baina hizkuntzak izen korrelatiborik ez duenean, ez da erraz izaten erlazioaz jabetzen. *Ohaidea* izen erlatiboa da, dudarik gabe, emaztea den bezalaxe, baina honek eta antzeko hitzek termino korrelatiborik ez duten hizkuntzetan jendeak ez ditu aise halakotzat hartzen, elkar azaltzen dutela eta batera baino ezin existi daitezkeela diruditen korrelatiboen artean izan ohi den erlazio ikur nabaria falta dutelako. Horregatik, izen haue-tako askori, behar bezala begiratuta euren baitan erlazio nabariak dituzte-lako, *kanpo izendapenak* deitu zaie. Baina hots hutsak baino gehiago diren izen guztiak ideia-aren bat adierazten dute, eta ideia hori edo izen hori aplikatzen zaion gauzan bertan dago eta orduan positiboa da eta gauza horri lotuta eta bertan existitzen ikusten da, edo gogamenak ideia horren eta beste gauza baten arteko alderaketaz aurkitzen duen elkarrekikotasu-netik sortzen da, eta orduan erlazioa darama bere baitan.

3. *Itxuraz absolutuak diruditen termino batzuek erlazioak dituzte beren baitan.*

Badira beste mota bateko termino erlatiboak, erlatibotzat har-tzen ez direnak edo kanpo izendapentzat ez ditugunak, baina subjek-

tuan den zerbait absolutua adierazteko tankera eta itxuraren pean erlazio gorde bat, ez hain hautemanerraza, ezkutatzen dutenak. Halakoak dira, adibidez, *zahar*, *handi*, *inperfektu* eta horrelako termino itxuraz positiboak, hurrengo kapituluetan sakonago aztertzeo aukera ematen didatenak.

#### 4. *Erlazioa erlazonaturiko gauzetatik ezberdina da.*

Gainera, honetaz ere ohar gaitezke, alegia, erlazioari buruzko ideiak berberak izan daitezkeela erlazonaturiko gauzez oso ideia ezberdinak dituzten gizakien artean: adibidez, gizonari buruz ideia oso ezberdinak dituztenak bat etor daitezke hala ere aitaren nozioan; nozio hau substantziaren edo gizonaren ideiar gehituriko nozioa da, gizon deritzanaren ekintza bati dagokiona, hain zuzen ere bere espezieko gizaki baten sorketan parte hartuz buruturikoari, dena dela gizon hori.

#### 5. *Gerta daiteke erlazio aldaketa, erlazonaturiko gauzetan inondiko aldaketarik izan gabe.*

Erlazioaren natura, beraz, bi gauzaren arteko alderatzean edo erreferentzian datza, batak edo biek alderaketa horrexetatik hartzen dutelarik izendapena. Eta gauza horietako bata edo bestea kentzen bada edo izateari uzten badio, desagertu egiten da erlazioa, baita hortik sorturiko izendapena ere, besteak inolako aldarazpenik ez jasan arren; adibidez, gaur aitatatzat daukadan Kaiok aita izateari utziko dio bihar, beragan inongo aldaketarik gabe, semea hil zaiolako beste barik. Areago, aski da gogamenak beste batekin erkatzeo darabilen objektua aldatzea, gauza berberak aldi berean elkarren kontrako izendapenak eduki ahal izateko; adibidez Kaio pertsona ezberdinekin alderatuta, benetan esan daiteke zaharragoa eta gazteagoa, sendoagoa eta makalagoa, etab. dela.

#### 6. *Erlazioa bi gauzaren artean baino ez da existitzen.*

Existitzen den edo existi daitekeen, edo gauza bakartzat har daitekeen oro positibo da; eta, horregatik, ideia bakunak eta substantziak ez ezik, moduak ere izaki positiboak dira, berauon osagai diren atalak sarri askotan elkarrekiko erlatiboak izan arren; izan ere, gauza bakartzat hartzen den eta gudan gauza bakar baten ideia eragiten duena, alegia, atal ezberdinen eransketaz eta izen baten pean egina izan arren, gure gogamenean irudi bakar bat bezalakoa den ideia era-

giten duen osoatasuna gauza edo ideia positibo eta absolutua da. Horrela triangelua, haren atalak elkarrekin alderaturik erlatiboak diren arren, haren osotasunaren ideia, ideia positibo eta absolutua da. Gauza bera esan daiteke familiaz, doinu batez, etab., ezin delako egon erlaziorik bi gauzatat kontsideraturiko bi gauzaren artean izan ezik. Erlazioan egiazki bereiz dauden edo diferentetzat jotzen diren bi gauza edo ideia izan behar dute beti, bata bestearekin alderatzeko oinarria edo abagunea egon dadin.

### 7. *Gauza guztiak dira erlazonagai.*

Erlazioari oro har dagokionez, hauexek izan ditzakegu kontuan:

Lehenik, ez dago ezer, dela ideia bakuna, substantzia, modua edo erlazioa, edo gauza horietako edozeinen izena, beste gauzekiko erreferentzian kontsiderazio kopuru ia infinitua edukitzeko gai ez denik, eta, beraz, horrexek osatzen du giza pentsamenduaren eta hitzen zati handi bat; adibidez, gizon bakar batek erlazio piloa eduki ditzake hauexek guztiak izanik: aita, anaia/neba, semea, aitona, iloba, aitagarreba, suhia, senarra, laguna, etsaia, menpekoa, jenerala, epailea, ugazaba, bezeroa, irakaslea, europarra, ingelesa, uhartetarra, zerbitzaria, maisua, jabea, kapitaina, goikoa, behekoa, handiagoa, txikiagoa, zaharragoa, gazteagoa, garaikidea, antzekoa, diferentea, etab., ia kopuru *in infinitum*, beste gauza batzuekiko adostasunaren edo desadostasunaren edo beste edozein erreferentziaren arabera alderatzeko zenbat okasio eduki, hainbat erlazio izateko gai delako, zeren, esan dudan moduan, erlazioa bi gauza alderatzeko edo elkarrekin kontsideratzeko era bat da, eta haietako bati edo biei alderaketa horretatik eratorritako izen bat emateko eta batzuetan erlazioari berari ere izen bat emateko modu bat.

### 8. *Erlazioei buruzko gure ideiak sarritan argiakoak dira erlazioaren subjektu diren gauzenak baino.*

Horrez gain, erlazioari dagokionez beste hau ere aintzat har daiteke, alegia, erlazioa gauzen existentzia errealean sartuta ez dagoen arren, zerbait kanpokoa eta gainerantsia izanik, hala ere, hitz erlatiboak adierazten dituzten ideiak sarritan argiako eta bereiziagoak direla berauei dagozkien substantzienak baino. Aitari edo anaiari buruz daukagun nozioa askoz argiagoa eta bereiziagoa da gizonari

buruz daukaguna baino; edo, nahiago izanez gero, *aitatasunaz* errazago daukagu ideia argia, *gizatasunaz* baino; eta askoz errazago uler dezaket laguna zer den, Jainkoa zer den baino, ekintza baten edo ideia bakun baten ezagutza nahikoa delako sarri askotan erlazio baten nozioa niri emateko, izaki substantzial bat ezagutzeko, ordea, ideia zehatz asko biltzea behar den artean. Gizaki batek bi gauza alderatzen dituenean, nekez pentsa dezakegu ez dakiela zertan alderatzen dituen eta, beraz, edonolako gauzak alderatzen dituenean, nahitaez izan behar du erlazio horren ideia oso argia. *Erlazioari buruzko ideiak, beraz, gure gogamenean substantziari buruzkoak baino argiago eta bereiziagoak izateko gai dira behintzat*. Zeren eskuarki zaila da substantzia batean egiatan dauden ideia bakun guztiak ezagutzea, erlazio baten kasuan, ordea, gehienetan nahikoa erraza den artean pentsagai darabildan edo izen bat daukan edozein erlazio osatzen duten ideia bakunak ezagutzea. Adibidez, bi gizon bien aitarekiko erreferentzian alderatzen baditugu, oso erraz daukagu anaiaren ideiarda iristen, gizonaren ideia erabatekoa ukan gabe ere. Zeren, hitz erlatibo esanguratsuek, besteek bezala, ideiak soilik ordezkaten dituztenez eta ideioek edo ideia bakunak edo ideia bakunez eginak direnez, termino erlatiboak ordezkaten duen ideia zehatza ezagutzeko nahikoa da erlazioaren oinarria denaren ikusmolde argia edukitzea; eta hau erlazioa egozten zaion gauzaren ideia oso eta argirik eduki gabe ere egin daiteke. Horretara, St. James Parkeko kasuario bien kasuan, hegazti batak arrautza errun eta arrautza horretatik gero beste hegaztia irten zelako nozioa ukanez gero, bien artean dagoen erlazioaren ideia argia daukat, hau da, *ama* eta *txitoxa* direla, nahiz eta hegaztiok euroi buruz beharba da oso ideia ilun eta inperfektua eduki.

#### 9. *Erlazio guztiak ideia bakunak dira azken batean.*

Hirugarrenik, gauzak elkarrekin alderatu ahal izateko hainbat eta hainbat ikuspegi eta, beraz, erlazio asko dauden arren, denak amaitzen dira sentipenetik edo hausnarketatik hartzen ditugun ideia bakun horietan eta berauen inguruan dihardute, eta gure ezagutzaren material guztia direla uste dut. Hau argitzeko, nozioaren batez ezagutzen ditugun erlazio inportanteenetako batzuetan eta sentimenetatik eta hausnarketatik oso urrun daudela ematen dutenetan erakutsiko dut hau horrela dela; eta hauek ere beraien ideiak horietatik etorriak direla agertuko dute eta zalantzarako tarterik utzi gabe erakutsiko

digute beraiez ditugun nozioak ideia bakun zehatzak besterik ez direla eta, beraz, jatorriz sentimenetatik eta hausnarketatik eratorriak.

10. *Gogamena izendaturiko subjektutik harago eramaten duten terminoak erlatiboak dira.*

Laugarrenik, erlazioa gauza bat hari arrotz zaion beste gauza batekin alderatzean datzanez gero, bistakoa da hitzak aplikatzen zaizkion gauzaren baitan egiazki existitu uste diren ideiez kanpoko beste batzuetara gogamena eramaten duten hitz guztiak hitz erlatiboak direla; adibidez, *gizon beltz*, *zoriontsu*, *pentsakor*, *haserre*, *eg arri*, *heda-tua*, termino absolutuak dira, horrela izendaturiko gizonarengan egiazki existitzen edo existitu uste dena baino ez dutelako adierazten edo iradokitzen. Baina *aita*, *anaia-neba*, *erreg ea*, *senarra*, *beltzagoa*, *zoriontsuagoa*, izendatzen duten gauzarekin batera, gauza horren existentziatik bereiz eta kanpo dagoen zerbait ere inplikatzeko hitzak dira.

11. *Termino erlatibo guztiak ideia bakunez osatuak dira.*

Erlazioari oro har dagozkion premisak finkaturik utzi ondoren, orain adibide batzuen bidez azalduko dut erlazioari buruz ditugun ideia guztiak, besteak bezalaxe, ideia bakunez soilik osatuak direla. Eremurik zabalena duen erlazioarekin hasiko naiz, existitzen diren edo existi daitezkeen gauza guztiak hartzen dituenarekin, alegia, *kausa* eta *efektu* erlazioarekin; eta hurrengo kapituluan agertuko dut erlazio horri buruz daukagun ideia gure ezagumenaren bi iturrietatik datorkigula, hau da, sentipenetik eta hausnarketatik.



## XXVI. KAPITULUA

### Kausa eta efektuaz eta beste zenbait erlazioz

#### 1. *Nondik erdiesten ditugun kausa eta efektuaren ideiak.*

Sentimenen bidez gauzen etengabeko gorabeherez ohartzean, nahitaez konturatu beharra dugu bai koalitate eta bai substantzia partikular ezberdinak exisititzen hasten direla eta beren existentzia hau beste izakiren baten aplikazio eta jardunaren bidez hartzen dutela. Oharpen honexetatik erdiesten ditugu *kausa* eta *efektuaren* ideiak. *Edozein ideia bakun edo konplexu eragiten duena kausa* izen orokorraz adierazten dugu eta *harkeragindakoari efektua* deitzen diogu. Era horretan, konturatzean argizaria deritzan substantzian lehen ez zeukan ideia bakun bat, fluidotasuna, maila jakin bateko beroa aplikatzean beti sortzen dela, berotasunaren ideia bakunari, argizariaren fluidotasunarekiko, beronen kausa deitzen diogu, eta fluidotasuna efektua dela esaten dugu. Era berean, oharturik zura deritzan substantzia, zenbait ideia bakunen bilduma dena, sua aplikatuz gero, errautsak izeneko bestelako substantzia bilakatzen dela, hau da, ideia bakunez osaturiko multzo batean datzan eta zura deitzen diogun ideia konplexutik oso ezberdina den bestelako ideia konplexu bihurtzen dela, sua, errautsekiko, kausatzat hartzen dugu eta errautsak efektutzat. Horrela, bada, lehenago existitzen ez zen edozein ideia bakun edo ideia bakunen bilduma sortzera daraman edo sortzeko diharduen elmementu kontsideratzen dugun guztiak, substantzia zein modua izan, kausaren erlazioa dauka gure gogamenean, eta halaxe deitzen diogu.

## 2. Kreatzea, sortzea eta aldaketak eragitea.

Horretara, gorputzek elkarrengan duten eraginean gure sentimenek deskubri dezaketenetik kausa eta efektuaren nozioa erdie-tsi ondoren, hau da, kausa beste edozein gauza, dela ideia bakuna edo substantzia edo modua, izaten hastea eragiten duena dela, eta efektua bere hasiera beste gauza bati zor diona dela, gogamenak ez du zailtasun handirik aurkitzen sorrera ezberdinak mota bitan bereizteko:

Lehenik, gauza bat oso-osorik berriren berri egina denean, haren atal batik ere ez delarik lehenago existitu; adibidez, materi partikula berri bat, lehenago existentziarik eduki gabekoa, *in rerum natura* existitzen hasten denean, eta honi *kreatzioa* deitzen diogu.

Bigarrenik, gauza bat lehenago existitzen ziren partikulaz egina denean, nahiz eta aurretik existitzen ziren eta batera hartuta horrelako ideia bakuna eratzen duten partikulez osaturiko gizon, arrautza, arrosa, gerezi... konkretu hau bezala inoiz lehenago existentziarik ez eduki. Eta honi, naturaren abio arruntan barne hastapenek, baina kanpoko eragileren batek martxan jarritako eta haute-materik ez dugun era sentigaitzez diharduten hastapenek sorturiko substantziaren bati dagokionean, *sorkuntza* deitzen diogu. Kausa estrinsekkoa denean eta efektua atal bereizgarrien banaketa edo eransketa sentigarritz eragiten denean, *egitea* deitzen diogu; eta horrelakoak gauza artifizialak dira. Subjektu batean lehenago izan gabeko ideia bakunen bat eragiten denean, horri *aldaketa* deitzen diogu. Horrela, gizakia sortua da, koadroa egina, eta bata zein beste aldaraziak dira batagan zein bestean lehen izan gabeko koalitate sentigarri edo ideia bakunen bat sortzen denean; eta lehenago han egon gabeko eta era horretan existitzera ekarritako gauzak efektuak dira; eta existentzia hori eragiteko jardun dutenak, kausak. Kasu honetan, eta beste guztietan, ikus dezakegu kausa eta efektuaren nozioek sentipenetik eta hausnarketatik hartu ditugun ideietan dutela sorburua eta erlazio hori, eremu zabalena hartu arren, ideia horietan amaitzen dela. Zeren kausa eta efektuaren ideia edukitzeko nahikoa baita konturatzea edozein ideia bakun edo substantzia beste baten eraginez hasten dela existitzen, eragile horrek nola diharduen ez jakin arren.

### 3. *Denbora erlazioak.*

Denbora eta lekua ere erlazio oso ugarien oinarri dira eta izaki finitu guztiak daude berauen eremu barruan gutxienez. Baina, nola erdiesten ditugun ideia horiek beste leku batean azaldua dugunez, agian nahikoa izan daiteke hemen iradokitzea *denboraren* arabera gauzek hartzen dituzten izendapen gehienak erlazioak besterik ez direla. Horretara, baten batek dioenenan Elizabeth erregina hirurogeita bederatzi urtez bizi izan zela eta berrogeita bost urtez izan zela erregina, hitz horiek iraunaldi horren eta beste gauza baten artean dagoen erlazioa baino ez dute adierazten, eta haxe besterik ez dute esan nahi, alegia, haren existentziaren iraunaldia eguzkiaren hirurogeita bederatzi urte-biraketakoa izan zela eta haren agintaritzat berrogeita bost urte-biraketakoa; eta era berekoak dira *zenbat denboraz* galderari erantzuten dieten hitz guztiak. William Konkistatzaileak 1066. urte inguruan inbaditu zuen Ingalaterra, honek haxe adierazten duelarik: gure Salbatzailearen garaitik egundainoko denbora tarte osotzat hartuta, ertz bi horietatik zer distantziatara den kokatua inbasio hura, eta horixe egiten dute *noiz* galderari erantzuten dioten hitz guztiek, zeren edozein denbora-puntuk beronen neurritzat eta erlaziogunetzat darabilgun iraupen luzeagoko denbora batekiko duen distantzia baino ez baitute adierazten.

### 4. *Positiboak direla uste diren zenbait denbora ideia erlatiboak direla aurkitzen dugu.*

Denborari buruzko hitz horiez gain, badira beste batzuk, normalen uste izaten denez ideia positiboak adierazten dituzten arren, sakonago aztertzean positiboak direla ohartzen garenak, hala nola, gazte, zahar, etab., horrelako hitzek gure gogamenean ideia moduan daukagun luzera jakin bateko iraunaldiarekin zerbaitek duen erlazioa barne hartzen eta iradokitzen dutelarik. Horrela, behin gure pentsamenduan finkatuta edukirik gizakiaren iraunaldi normala hirurogeita hamar urtekoa dela, gizaki bat *gaztea* dela diogunean, haren adinak gizakiek erdietsi ohi dutenaren zati txiki bat besterik ez duela hartzen esan nahi dugu; eta *zaharra* dela diogunean, haren iraunaldia gizakiek normalean gainditzen ez dutenaren ia azkenera heldu dela esan nahi dugu. Horrela, bada, gizaki honen edo bestearen adin edo iraunaldi partikularra animalia espezie horri normalean dagokion iraunaldiari buruz gogamenean daukagun ideiarekin alderatu besterik ez dugu egi-

ten; eta hau argi ageri da izen horiek beste gauza batzuei aplikatzean, zeren hogeï urteko gizakiaz gaztea dela esaten baitugu eta zazpi urtekoaz oso gaztea dela; baina hogeï urteko zaldiaz eta zazpi urteko txakurraz, orde, zaharrak direla esaten dugu, horietako bakoitzean haien adina iraunaldiaren ideia ezberdinekin alderatzean ditugulako, animali mota bakoitzarentzat iraunaldi arrunt naturaltzat gogamenean ezarrita daukagun ideiaaren arabera. Baina eguzkiaz eta izarrez, zenbait gizalderen iraunaldia gauditurik badute ere, ez dugu esaten zaharrak direnik, ez dakigulako zenbateko iraunaldia jarria dien Jainkoak horrelako izakiei. Termino hau, izan ere, gauzen abio naturalean gainbehera hautesmaten eta aldi jakin batean amaierara heltzen ikusten ditugun gauzei dagokie, eta, horretara, neurri eredu bat daukagu geure gogamenetan haien iraunaldiaren atal ezberdinak eredu horrekin alderatu ahal izateko, eta honekin duten erlazioaren arabera beroriez gazteak edo zaharrak direla esaten dugu, hau ezin dugularik, beraz, esan rubi edo diamante batez, euren iraunaldi normala zein den ezagutzen ez dugulako.

#### 5. *Leku eta hedadura erlazioak.*

Halaber, erraza da gauzek euren artean *leku* eta distantziekiko dituzten erlazioez ohartzea, adibidez, goian, behean Charing-Crossetik milia batera, Ingalaterran eta Londresen esaten denean bezala. Baina iraupenaren kasuan bezala hedaduraren eta bolumenarenean ere, badira ideia batzuk erlatiboak direnak, baina positibotzat ditugun izenez adierazten ditugunak; horixe gertatzen da, esate baterako, *handi* eta *txiki* ideiekin, izatez erlazioak baitira. Hemen ere, geure gogamenean gauza mota ezberdinen tamaina finkaturik dugularik maizen ikusi ohi ditugunen arabera, neurri eredu bihurtzen ditugu, besteen bolumena handik izendatzeko. Horrela sagar bat handia dela esaten dugu normalean ikusten ditugun sagarrak baino handiagoa denean; eta zaldi txikia, zaldi normalen tamainari buruz gogamenean dugun ideia helduz ez denean; eta flandiar batentzat zaldi txikia dena handia dateke Galesko batentzat, beraien herrialdeetan hazten dituzten zaldi arraza ezberdinetatik hartuta neurri ereduari buruz ideia ezberdinak baitituzte, nork bere ereduarekin egiten duelarik aldaketa handia ala txikia den esateko.

#### 6. *Termino absolutuek maiz erlazioak ordezkatzeko dituzte.*

Era berean, ahul eta sendo ahal izendapen erlatiboak besterik ez dira, ahal handiago edo txikiagoari buruz orduan ditugun zenbait

ideiarekin alderaturik. Horrela, gizon bat ahula dela diogunean, zerbait higitzeko gizonak normalean edo bere tamainakoek eskuarki izaten duten bezainbeste indarririk ez duela esa nahi dugu; eta hau gizon horren indarra gizonak edo tamaina horretako gizonak izan ohi duten indarrari buruz daukagun ideiarekin alderatzea da. Gauza bera gertatzen da kreatura guztiak ahulak direla diogunean; ahula hemen termino erlatiboa baino ez da, Jainkoaren eta kreaturaren ahalaren artean dagoen aldea edo desproporzioa esa nahi duena. Eta horrela, gure hizketa arrunteko hitz asko eta askok erlazioak baino ez dituzte ordezkatzeko, eta hitzak agian zatirik handiena dira, lehen ikusian horrelako esanahirik ez dutela eman arren. Adibidez, «untziak badauka beharrezko hornidura» esatean, *beharrezko* eta *hornidura* hitz erlatiboak dira biak, bata bidaia egitearekin eta besteak geroko erabilerarekin dutelarik erlazioa. Hain da bistakoa, bestalde, erlazio hauek guztiak sentipenetik eta hausnarketatik etorritako ideia bakunetara mugatzen eta beraietan amaitzen direla, non beste azalpenik ez den behar.



## XXVII. KAPITULUA

### Identitateaz eta ezberdintasunaz

#### 1. *Identitatea zertan datzan.*

Alderatzeko beste abagune bat gauzen izatea bera hartuz dauka gogamenak, *gauza bat leku eta g      arai zehatz batean existitzen* kontsideratuz, gauza *hori ber   arekin baina beste g      arai batean existi -* tzen alderatzen dugunean, hortik *identitatearen* eta *ezberdintasuna -* ren ideiak eratzen ditugularik. Leku batean eta instant batean gauza- ren bat, dena dela, ikusten dugunean, ziur gaude berbera dela eta ez aldi berorretan beste leku batean existitzen ari den beste bat, beste aspektu guztietan lehenengoaren antzekoena eta hartatik bereiztezi- nena izan arren; eta honexetan datza *identitatea*, alegia, gauza bati egozten dizkiogun ideiak lehenengo aldiz kontsideratu genuenean eta gero kontsideratu eta haiekin alderatzen ditugunean ezertan ez aldatzean. Zeren, inoiz ez dugularik aurkitzen, bururatzerik ere ez baitugu, ahalgarri denik espezie bereko bi gauza aldi berean eta leku berean existitzea, zuzen ondorioztatzen dugu edozein lekutan edo edozein alditan existitzen den edozein gauzak bere espezie bereko den oro eskluditzen duela eta, beraz, bera bakarrik dela. Horregatik gauza bat *berbera* den ala ez galdetzen dugunean, beti ari gara garai eta leku zehatz batean existitzen den zerbaitez, une horretan gauza hori, ziur, bere buruarekiko gauza bera, eta ez diferentea, zelarik. Eta hemendik ateratzen da gauza bakar batek ezin dituela existen- tziara hasiera bi ukan, ez eta bi gauzak hasiera bat ere, ezinezko iza-

nik espezie bereko bi gauza une berean leku berebanean izatea, edo gauza bat bera bi leku diferentetan izatea. Hasiera bakar bat duena, beraz, gauza berbera da, eta garaiari eta lekuari dagokienez honek ez bezalako hasiera duena ez da gauza bera, ezberdina baizik. Erlazio honi buruzko zailtasuna ekarri duena, berau egozten zaien gauzei buruzko nozio zehatzak erdiesten erabilitako ardura eta arreta eska-  
sa izan da.

## 2. *Substantzien identitatea.*

Hiru motatako espezieen ideia baino ez daukagu: 1) *Jainkoa*.  
2) *Adimen finituak*. 3) *Gorputzak*.

Lehenik, Jainkoak ez du hasierarik, betierekoa, aldaezina eta leku guztietan dagoena da, eta horregatik haren identitateari buruz ez daiteke zalantzarik egin.

Bigarrenik, *espiritu finituek* existitzen hasteko beren garai eta leku zehatza izan dutenez gero, garai eta leku horrekiko erlazioak zehaztuko dio haietako bakoitzari bere identitatea, existentzian dirauen bitartean.

Hirugarrenik, gauza bera esan daiteke materiako partikula bakoitzari buruz ere, hauetako bakoitza ere, materi gehiketarik edo kenketarik egin ezean, gauza bera baita. Zeren hiru substantzi motok, izendatu ditugun moduan, leku beretik elkar eskluditzen ez duten arren, hala ere, bururatu beharra daukagu haietako bakoitzak bere espezie bereko beste guztiak leku beretik nahitaez eskluditu behar dituela, zeren bestela identitate eta ezberdintasunaren nozioak eta izenak alferreko lirakeke, eta ez legoke substantzia horiek ez beste ezer bata bestetik bereizterik. Adibidez, bi gorputz leku berean eta aldi berean egon ahal balira, orduan materi zati bi horiek gauza bat bera izan beharko lukete, handiak zein txikiak izan; areago, gorputz guztiek gauza bat bera izan beharko lukete. Zeren, bi materiako partikula leku berean egon daitezkeen bezalaxe eta arrazoi beragatik, gorputz guztiak ere leku berean egon daitezke; eta suposizio hau onartuz gero, baten eta gehiagoren arteko ezberdintasuna eta bereizpena deuseztuko da, zentzugabekeria ekarriz. Baina bi edo gehiago bat izatea kontraesana denez gero, identitatea eta ezberdintasuna erlazio eta alderatzeko bide ongi oinarrituak dira eta adimenarentzat baliagarriak.



### 3. *Moduen eta erlazioen identitatea.*

Beste gauza guztiak azken batean substantzietan amaitzen diren moduak edo erlazioak besterik ez direnez, haien existentzia partikular bakoitza ere era berean determinatua izanen da; beren existentzia segidan duten gauzei dagokienez bakarrik, hau da, hurrenez hurreneko etengabeko segidan dautzan *higidura* eta *pentsamendua* bezalako izaki finituen ekintzei dagokienez, ezin da zalantzatan jar *bera*uen ezberdintasuna, zeren, hasten diren unean bertan iraungitzen direlarik, ezin baitira aldi ezberdinetan edo leku ezberdinetan existitu, izaki iraunkorrek aldi ezberdinetan leku diferenteetan existi daitezkeen moduan; eta horregatik aldi ezberdinetan kontsideraturiko ezein *higidura* edo *pentsamendu* izan daiteke bera, haren atal bakoitzak existentziara hasiera diferentea baitauka.

### 4. *Principium indibiduationis* (banakotze printzipioa)

Esana dugunetik erraz da aurkitzen hain biziki bilatu dena, *principium individuationis*; eta berau, argi dago, existentzia bera da, edozein motatako izakia garai eta leku zehatz batera determinatzen duena eta espezie bereko izaki biri komunikaezina dena. Hau, substantzia eta modu bakunetan edo moduetan bururaerrazago dirudien arren, ez da, beroni buruz gogoeta egiten denean, pentsaezinagoa konposatuetan, zeri aplikatzen zaion arduraz kontuan hartuz gero; adibidez, demagun atomo bat, gorputz jarraiki bat azalera aldaezin baten baitan, aldi eta leku zehatz batean existitzen dena; begi-bistakoa da, bere existentziako edozein unetan kontsideraturik, une horretan bere buruarekiko gauza bera dela, zeren, une horretan dena huraxe delarik eta ez beste ezer, gauza bat bera da eta horrelaxe iraunen du existitzen dirauen artean, aldi horretan gauza bera, eta ez beste bat, izanen delako. Era berean, bi atomo edo gehiago masa berean batzen badira, atomo horietako bakoitza lehengo bera izanen da, aurrean formulaturiko arauaren arabera; eta batuta dirauten artean, atomo horiek osaturiko masa ere masa bera edo gorputz bera izanen da nahitaez, atalak modu batera zein bestera baturik egon. Baina atomoetako bat kendu edo beste bat gehituz gero, orduan ez da masa bera edo gorputz bera. Izaki bizien egoeran, haien identitatea ez dago partikula beren masan, beste zerbaitetan baizik. Izan ere, haietan materi zati handien aldaketak ez du identitatea aldatzen. Haritz bat, landare txiki izan ondoren zuhaitz handi bihurtzen dena eta gero inausi egiten dutena, beti da

zuhaitz bera; eta zaldi egiteraino hasi den potoa, batzuetan lodi bes-teetan argal, zaldi bera da aldi guztian, kasu biotan ezinbestez atalen aldaketa nabaria dagoen arren, halatan, non beraietako bata ere ez den izatez materiazko masa bera, nahiz eta bata haritz bera eta bestea zaldi bera egiatan izan. Hau horrela izateko arrazoia, aipaturiko kasu bietan —materiazko masa eta gorputz biziduna— identitatea gauza berari ez aplikatzea da.

#### 5. *Landareen identitatea.*

Horrela, bada, aztertu behar dugu haritz bat zertan bereizten den materiazko masa batetik, eta nik uste dut honexetan bereizten dela, alegia, hau nolabait baturiko materiazko partikulen kohesioa besterik ez den bitartean, hark haritzaren atalak eratzeke moduko partikulen antolaketa izatean, eta antolaketa hori, elikadura hartu eta banatzeko gai izanik, haritzaren zura, azala, horriak, etab., landare-bizitza izateko behar direnak, eratzeke egokia izatean. Bizitza komunean parte hartzen duen gorputz koherente baten atalen antolaketak eratzen duelarik landare bat beraren batasuna, landare horrek bizitza berean parte hartzen duen artean landare berbera izanik irauten du, bizitza hau landare biziari bitalki baturiko partikula berriei komunikatu arren, landare horrentzat egokia den antzeko antolaketa baten bidez. Izan ere, antolaketa hau, edozein unetan materiazko multzoren batean dagoenean, beste guztietatik bereizitako izaki konkretu horretan dagoelarik, bizi indibidual horixe *da*, alegia, momentu horretatik aurrera eta atzera sentigaizki elkarren ondoren etenik gabe datozen eta landarearen gorputz bizidunarekin baturik dauden atalen segidan existitzen den bizi indibidula, eta landare hori bat bera eta haren atal guztiak landare beraren atal izatea egiten duen identitatea dauka, atalok bizitza komun hori eurretara eramateko behar den antolaketa jarraiki horretan baturik existitzen diren artean.

#### 6. *Abereen identitatea.*

*Animaliengan* arazoa ez da oso diferentea eta edonork ikus lezake zerk egiten duen aberea izatea eta bat bera izaten segitzea. Antzeko zerbait gertatzen da makinetan eta gai hau argitzeke balio lezake. Adibidez, zer da erloju bat? Gauza nabaria da xede zehatz baterako egokituriko atalen antolaketa edo eraiketa bat besterik ez dela, behar duen indarra gehituz gero, xede hori erdiesten duena. Suposatuko bagenu makina hau gorputz jarraiki bat dela eta haren atal antolatua

atal sentigaitzak etengabeki gehitu edo kenduz konpondu, gehitu edo gutxitzen direla bizitza komun batean, abere baten gorputzaren oso antzeko zerbeit ukanen genuke; baina diferentzia honexekin, alegia, bizitzaren funtsa den antolaketaren egokitasuna eta higidura batera hasten direla, higidura barrutik datorrelarik, makinak ordea, indarra nabariki kanpotik datorkiolarik, maiz indarrik ez daukan artean, organoa behar bezala eta indarra hartzeko prest-prest egon arren.

### 7. *Gizakiaren identitatea.*

Horrek erakusten digu, halaber, zertan datzan gizaki beraren identitatea, alegia, bizitza jarraitu berberaz gozatzean soilik, etengabeko isurian ari diren eta gorputz antolatu berari segidan bitalki baturik dauden materiazko partikulen bidez. Gizakiaren identitatea, edozein animaliarena bezala, une zehatz batean ongi antolatutako gorputza ez den eta harrezkero bizi-antolaketa bakar baten pean gorputz horri itsatsita dauden segidako materiazko partikula jariakor bakoitzean jarraitutako gorputza ez den zerbaitetan jartzen duen edonork lanak izanzen ditu enbrioia, heldua, zoroa eta zentzuduna gizaki *bera* direla esaten, behintzat honako hau onartzeko moduko suposaketa egiten ez badu, alegia, Seth, Ismael, Sokrates, Pilatos, San Agustín eta Zesar Borgia gizon bat *bera* izan zirela. Izan ere, *arimaren* identitateak *soilik* egiten badu *gizakia* bat *bera* izatea eta materiaren izaeran ezer ez badago espiriturik indibidual *bera* gorputz ezberdinei batzea eragozten duena, posible izanen da garai urrunduetan bizi izan ziren izakera diferenteko gizon horiek gizon *bera* izatea; eta hitz egiteko era hau gizon hitza era oso arraroan erabiltzearen ondorio izan daiteke, hau da, gorputza eta forma kanpo uzten dituen ideari aplikaturik erabiltzeagatik. Eta hitz egiteko era hau are bateragaitzago litzateke transmigrazioa onartzen duten filosofoen nozioekin, hauen ustez gizakien arimak euren gehiegikeriengatik zigortuak izan baitaitezke abereen gorputzetara aldatzera, han euren neurriko bizilekua aurki dezaten, euren abere-joerak asetzeko moduko organo eta guzti. Baina hala ere uste dut, Heliogabaloren *arima* bere zerri baten baitan dagoela etsi-etsian sinetsi arren, inork ere ez lukeela esanen txerri hori *gizona* edo *Heliogabalo* *bera* denik.

### 8. *Identitatearen ideia aplikatzen zion ideien araberakoa da .*

Ez da, beraz, substantzi batasuna identitate mota guztiak hartzen dituen edo kasu bakoitzean identitatea zehaztuko duena; aitzitik, hartaz zuzen pentsatu eta juzgatzeko, kontuan izan behar dugu zein

idea ordezkatzeko duen aplikaturiko hitzak. Horrela gauza bat da *substantzia* bera izatea, beste bat *gizaki* bera izatea eta beste bat *pertsona* bera izatea, *pertsona*, *gizaki* eta *substantzia* hiru ideia ezberdin ordezkatzeko dituzten hiru izen baldin badira; izan ere, zein den izenari dagokion ideia, huraxe izanen da ezinbestez identitatea. Eta hau gogor izan balitz, kontu honen inguruan gertatu ohi den nahasketa neurri handian ekidin zatekeen, itxurazko zailtasun asko sortzen baitira batez ere identitate *pertsonalari* dagokionez, eta horregatik horixe aztertuko dugu hurrengo puntuan.

### 9. *Gizaki bera.*

Abere bat gorputz bizidun organizatua da eta, beraz, abere bera, esan dugun bezala, materiazko partikula ezberdinei komunikatzen zaien *bizi* jarraitu bera da, partikulok segidan gorputz bizidun organizatu honi elkartuta dauden bitartean. Eta ematen diren bestelako definizioak gorabehera, behaketa zorrotzak dudatik kanpo uzten du *gizaki* soinuak gure ezpainetan adierazitako nozioa geure gogamenen daukagun halako forma jakin bat daukan aberearen zeinua dela. Izan ere, uste osoz baieztatu dezakedala pentsatzen dut gutariko edonork norbere modura egin eta eraturitako izakia ikusita, beronek katu edo loro batek baino adimen gehiagorik ez erakutsi arren, ez liokeela horregatik *gizaki* izena ukatuko; era berean, katuari edo loroari entzuten balio arrazoitsu filosofiaz argudiatzen, *katutzat* edo *lorotzat* soilik hartuko luke, eta lehenaz esanen luke *gizaki* trakets arrazoimenik gabea dela eta bigarrenaz loro argi eta arrazoiduna dela. Autore ospetsu batengan aurkitzen dugun aipamen batek eusten dio loro arrazoidun baten suposizioari. Horrelaxe dio:

«Maruzio printzearen beraren ahotik ezagutu nahi nuen bala-bala zebilen baina sinesgarritasun handiz kontatzen zen istorio bat, nik neuk beste askorengandik entzuna nuena; istorioa printzeak bere agintaldian Brasilen zeukan eta arrazoidun izaki baten pare mintzatzeko zein galderei erantzuten zien loro batez zen, halatan non haren segiziokoek sorginkeria edo deabrutze kasu bat zela uste baitzuten; eta gero luzaro Holandan bizi izan zen haren kaperau batek ordutik aurrera ezin zuen lororik jasan eta loro guztiek deabrua zeukatela barruan esaten zuen. Istorio honen zehaztasun asko nituen entzunak eta sinesgarritasuna ukatzerik ez neukan pertsonengandik, eta horrexek eraman ninduen Maruzio printzeari galdetzerako kontu honen egiari buruz.

Ohi zuen argitasun eta zehaztasunaz erantzun zidan egearik bazela esaten zenean, nahiz eta gezur askorekin nahasirik. Lehenaz informatzea nahi nuela esa nion. Hotz eta motz erantzun zidan entzun zuela loro zahar hartaz Brasilen egon zenean eta, esaten ziotenaz ezer sinesten ez zuen arren eta animalia handik urrun egonik ere, hain ikusmin handia zuela, non ekar ziezaioleta agindu zuen. Loro hura oso handia eta zaharra zen, eta txoria printzea holandar mordo batekin zegoen gelara sartu baino ez, ziplo bota zuen: *Hau duk hau gizon zuri piloa!*. Printzea seinalatuz gizon hura nor zela uste zuen galdetu zioten. Eta hark jeneralen bat edo izanen zela erantzun. Loroa hurbildu ziotenean, printzeak galdetu zion: *D'où venez-vous?* Eta hark: *De Marinnan*. Printzeak: *A qui estes-vous?* Eta loroak: *A un Portugais*. Printzeak: *Que fais-tu là?* Eta loroak: *Je garde les poulles*. Printzeak barreari eman zion eta esan zion: *Vous gardez les poulles?* Loroak erantzun zion: *Oui, moi; et je sais bien faire*. Eta jendeak txitoei deitzeko egin ohi duen kakara egin zuen loroak lauzpabost bider. Elkarrizketa hone-tako hitzak frantsesez jarri ditut, halaxe kontatu baitzidan Maruzio printzeak. Loroa zein hizkuntzaz mintzatu zen galdetu nion printzeari eta esan zidan brasileraz egin zuela. Brasileraz ulertzen ote zuen galdetu nion eta hark ezetz, baina bere aldamenean bi interprete edukitzeko ardura hartu zuela, brasileraz mintzatzen zen holandar bat eta nederlanderaz egiten zuen brasildar bat, eta biei banan eta sekretuan galdetu ziela eta biak bat etorri zirela loroak esandakoari buruz. Ezin izan dut kontatu gabe utzi istorio harrigarri hau, kontu arruntetatik oso urrun dagoena delako eta lehen eskutik jaso dudalako, horrek egiazkotzat hartzeko moduko egiten duelarik, zeren esanen bainuke printzeak, berak behintzat, esan zidan guztia sinesten zuela, beti gizon onest eta jainkozaletzat edukitakoa baitzen. Naturalistei uzten diet kasuaren ikerketa, eta beste gizonek nork berak nahi duena sinets dezatela; edonola ere uste dut ez dagoela gaizki lantzean behin gaiak horrelako digresioez ematu edo arintzea, harira etorri ala ez.

#### 10. *Gizaki bera.*

Irakurleari istorioa, handika bada ere, autorearen beraren hitzetan eskaintzeko lana hartu dut, hark ez zuela sinestezintzat jo uste dudalako, pentsaezina baita hura bezalako gizon jantziak, berak eskainitako testigantza guztiak egiazkotzat bermatzeko gauza zenak, horrenbesteko lana hartzea gertakari hori ezertara ez datorren bere

obrako leku batean, lagun moduan aipatzen duen gizon bat ez ezik, oso onestasun eta jainkozaletasun handia aitortzen dion printze bat ere horrela konprometatzeko, berak sinestezintzat joz gero barregarri ere balitzaiokeen istorio bat kontatuz. Argi dago istorio honen egia bermatzen duen printzea eta harengandik hartuta kontatzen duen autorearen istorioko hitzunaz loroa zela esanez mintzo direla; eta nik istorio hori kontagarria dela uste duen beste edonori galdetzen diot ea, printze baten hitzak segurtatzen digun moduan, loro horrek eta bere espezieko guztiek beti hitz egin balute, ez ote ziratekeen *arraziduna bereen* arrazatzat joko eta ea, hala eta guztiz ere, gizakitza, eta ez *lorotzat*, hartuak ote ziratekeen. Zeren uste baitut jende gehienaren sentipenean *gizakiaren ideia* egiten duena ez dela izaki pentsatzaile eta arrazoidunaren ideia bakarrik, baizik horretarako forma jakin bat duen gorputzaren ideia batu behar zaiola. Eta gizakiaren ideia hori bada, guztia batera aldatu gabe segidan berbera dirauen gorputzak parte hartu beharko du, espiritu inmaterial berarekin batera, gizaki bera osatzen.

### 11. *Identitate pertsonala*

Horiek direlarik identitate pertsonala aurkitzeko premisak, orain pertsona hitzak zer ordezkatzan duen aztertu behar dugu. Nik uste dut pertsona izaki pentsatzaile eta adimenduna dela, arrazoitzeko eta hausnartzeko gai dena eta bere burua berberatzat har dezakeena, aldi eta leku ezberdinetan pentsatzen duen gauza beratzat; eta hori guztia, pentsatsetik banaezina eta nire ustez pentsatzeko esentziala ere den kontzientzia duelako egiten du, inork ere hauteman ezin duelarik *hautematen* duela hauteman gabe. Edozer ikusten, entzuten, usaintzen, dastatzen, sentitzen, hausnartzen edo nahi dugunean, badakigu horixe egiten ari garela. Horixe gertatzen da beti gure sentipen eta pertzepzio presenteetan, eta horrexegatik da bakoitza beretzat norbera deritzana, kasu honetan ez delarik begiratzen ea norbera horrek substantzia berean edo ezberdinetan jarraitzen duen, zeren kontzientzia beti pentsamendurekin datorrelarik bakoitza gara norbera deritzana, gainerako edozein gauza pentsatzailerengandik guztiz bestelakoa, horrexetan bakarrik datzalarik identitate pertsonala, hots, izaki arrazoidunaren berberatasunean; eta kontzientzia hori iraganeko egintzetara eta pentsamenduetara heda daitekeen bezain urrun iristen da pertsona horren identitatea, eta lehenagoko bera dirau orain ere norbera horrek; eta egintza hori egin zuen berbera da orain hartaz hausnartzen ari dena.

## 12. Kontzientzia edukitzeak egiten du identitate pertsonala.

Baina, gainera, ea substantzia berbera den galdetzen da. Gutxi leukake hortaz dudatzeko arrazoirik, baldin pertzepzio horiek berorien kontzientziarekin gogamenenean beti presente baleude, halatan non gauza pentsatzaile bera beti kontzienteki presente eta, pentsatzekoa litzatekeen moduan, nabariki berbera izanez legokeen. Baina zailtasuna sortzen duena, dirudienez, honako hau da, alegia, ahanzturak kontzientzia edukitze hori etengabeki etetea, geure bizitzako une batean ere ez baitaukagu geure begien aurrean iragandako egintzen katea guztia, oroimen onena dutenek ere alde bata galtzen dutelarik besteari so egotean; izan ere, guk batzuetan, eta hori geure bizitzako zatirik handienean, ez dugu geure iragandako norberaz hausnarketarik egiten, geure oraingo pentsamenduei adi ari garelako eta lo sakonean gaudela inolako pentsamendurik ez daukagulako, edo ez behintzat itzarrik gaudeneko pentsamenduek ageri duten kontzientziaz hornituri-ko pentsamendurik. Kasu horietan guztietan, diot, gure kontzientzia etenik gertatzen delarik, eta iraganeko norbera bistatik galtzen zaigularik, zalantzak sortzen dira gauza pentsatzaile berbera, hau da, *substantzia* berbera ote garen ala ez. Honek, arrazoizko edo arrazoigabe-ko izan, ez du inolako zerikusirik gure identitate *pertsonalarekin*. Auzia, izan ere, pertsona berbera izatea zerk egiten duen garbitzea da, eta ez ea substantzia berbera ote den pertsona berean beti pentsatzen duena, honek, kasu honetan, ez duelarik inolako garrantzirik. Izan ere, substantzia ezberdinak pertsona berean batuta egon daitezke kontzientzia beraren bidez, beronetan partaide izanik, hain zuzen gorputz ezberdinak bizitza beraren bidez animalia batean batzen diren moduan, substantzien aldaketa horretan bizitza jarraitu bakarraren batasunak salbatzen duelarik animalia-aren identitatea. Zeren, kontzientzia bera edukitzea delarik gizakia berbera berberetzat izatea egiten duena, horrexetan bakarrik datza identitate pertsonala, substantzia indibidual bakar batera mugaturik egon zein substantzia bat baino gehiagoren segidan jarraitu. Izan ere, edozein izaki adimendun, iragandako edozein egintzaren ideia lehenengoz hartaz izan zuen kontzientziaz eta edozein egintza presentez duen kontzientziaz errepika *dezakeen* heinean, neurri horrexetan da norbera pertsona berbera. Izan ere, bere pentsamendu eta egintza presenteez duen kontzientziagatik da *berbera berberetzat* orain, eta berbera izaten segituko du, kon-

tzientzia bera iraganeko eta etorkizuneko egintzetara heda dezakeen bitartean; eta denborazko distantziagatik edo substantzi aldaketagatik ez lirateke bi pertsona, ez behintzat gizaki bat bi gizaki litzatekeen baino gehiago, gaur, lo luze edo labur bat bitarteko dela, atzo erabilitakoetatik diferenteak diren jantziak daramatzalako soinean, kontzientzia berak batzen baititu bi egintza horiek pertsona berarengan, direnak direla ekintzok sortzen parte harturiko substantziak.

### 13. *Identitate pertsonala substantzi aldaketan.*

Geure gorputzetan daukagu hori horrela dela nolabait frogatzeko aukera, zeren gure gorputzaren partikula guztiak, izaki pentsatzailer eta kontziente berberari bitalki baturik dauden bitartean, halatan non *sentitu egiten dugun* noiz diren ukituak, baita gertatzen zaien on edo txarra ere, bietaz kontziente izanik, gure geure zati baititugu, hau da, geure norbera pentsatzaile kontzientearen zati. Horrela, giza soinaren atalak norberaren zati dira, eta norberak haiekiko sinpatia eta ardura dauka. Esku bat moztu eta gorputzak haren beroaz, hotzaz eta beste sentipenez zuen kontzientziatik banatuz gero, orduan ez da jada norberaren zati, materialazko partikularik urrunduen den baino gehiago. Horretara, ikusten dugu garai batean norbera pertsonala egiten zuen *substantzia* beste substantzia batera alda daitekeela, identitate pertsonala aldatu gabe, ez dagoelarik dudarik, bere zati izandako atalak moztu arren, pertsona bera izaten segitzen duela.

### 14. *Nortasuna substantzi aldaketan.*

Baina auzia da ea substantzia pentsatzailea aldatzean pertsona berbera den, ala substantziak berbera iraunez gero pertsona ezberdinak izan daitezkeen.

Eta honi haxe erantzuten diot. Lehenik, hau ez da auzia pentsamendua substantzia inmaterialik gabeko animalia osaera hutsean jartzen duten guztientzat. Zeren, haien ustea egiazkoa den ala ez albo batera utzita, argi dago haiek identitate pertsonala substantzi identitatea ez den beste zerbaitetan gordetzen dela pentsatzen dutela, animalia identitatea bizitza identitatean gordetzen den moduan, eta ez substantzi identitatean. Eta, horregatik, pentsamendua substantzia inmaterial batean soilik jartzen dutenek, haien iritziarekin sartu aurretik, azaldu beharra dute zergatik ezin den salbatu identitate pertsonala substantzia inmaterialen aldaketan edo substantzia inmaterial partikularren



barietatean, animalien identitatea substantzia materialen aldaketan edo gorputz partikularren barietatean salbatzen den moduan; honako hau baieztatu ezean bederen, alegia, espiritu inmaterial bat bera dela abereetan bizitza bera egiten duena, gizakiengan espiritu inmaterial bat bera den moduan pertsona bera egiten duena, cartesianek bederen onartuko ez dutena berau, abereak ere gauza pentsatzaile bihurtzearen beldur baitira.

*15. Substantzia pentsatzailea aldatzean pertsona bat bera izan daitekeen*

Baina, hurren, galderaren lehenengo partea aztertuko dugu, hau da, ea substantzia pentsatzaile bera aldatuz gero (materiagabeko substantziak bakarrik pentsatzen dutela suposatuz), pertsona berbera izan daitekeen. Nire erantzuna haxe da: hori hurrengo hau dakitenez baino ezin erabaki dutela, alegia, zein substantziak pentsatzen duen eta ea iraganeko egintzen kontzientzia substantzia pentsatzaile batengandik beste batengana pasa daitekeen. Onartzen dut hori ezin izan litekeela, egintza indibidual beretik kanpoko zerbaiten kontzientziarik eduki gabe; baina iraganeko ekintzaren irudikapen aktuala delarik, frogatzeke dago nolatan den ezinezko inoiz errealki izan ez den hura gogamenean irudikatzea egiaz izan bailitzan. Eta horregatik zail ukanen dugu erabakitzen iraganeko ekintzen kontzientzia zenbateraino atxiki dakioken eragile indibidual bati beste bati ezin atxikitzeko moduan, harik eta pertzepzio egintza erreflexurik gabe egin daitekeena zer nolako ekintza den jakin arte eta hartaz kontziente izan gabe pentsatu ezin duten substantzia pentsatzaileek ekintza hori nola burutzen duten jakin arte. Baina kontzientzia bera deitzen dioguna ekintza indibidual bera ez denez, zail izanen dugu gauzen naturatik ateratzen zergatik substantzia intelektual batek ezin duen irudikatu berak egindako moduan *berak* inoiz egin gabeko eta agian beste batek egindako gauza bat, zergatik, esan nahi dut, ezin litekeen irudikapen hori egitatezko auziaren errealitaterik gabekoa izan, ametsetako irudikapen batzuk diren modura, ametsak dirauen artean guk egiazkotzat ukan ohi ditugun arren. Eta substantzia pentsatzaileen naturaren eza-gutza argiagoa ukan arte, hori horrela ez dela jakiteko biderik onena Jainkoaren ontasunera jotzea dugu; izan ere Jainkoak, bere kreatura sentikorren zoriona ala zoritxarra jokatzan denez gero kreaturon halabarreko errakuntza bategatik, ez du batetik bestera pasako saria edo

zigorra dakarren kontzientzia. Beste batzuek erabakitzeke uzten dut zenbateraino balio dezakeen argudio honek, pentsamendua animali espiritu iheskorren sisteman datzala uste dutenen aurka egiteko. Baina hala ere, eskuartean darabilgun auzira itzulita, onartu behar da ezen, baldin kontzientzia bera (azaldu den moduan, gorputzaren zenbakizko zifratik edo higiduratik zeharo diferentea dena) substantzia pentsatzaile batetik beste batera pasa badaiteke, bi substantzia pentsatzailek pertsona bakar bat egin ahal izanen dutela. Zeren kontzientzia berak iraunez gero substantzia berean edo beste ezberdin batean, identitate pertsonalak ere iraun egiten du.

16. *Substantzia immaterial berak iraunik, bi pertsona izan daitezkeenentz.*

Galderaren bigarren parteari dagokionez, hau da, substantzia immaterial berak iraunik bi pertsona izan daitezkeenentz, uste dut auzi honen funtsa hauxe dela: ea izaki immaterial berari, bere iraganeko iraunaldiko ekintzez kontziente izanik, ken dakiokkeen iraganeko bere existentziaren sentipen oro, haiek erabat galdu arte, berreskuratze posibilitaterik gabe, halako moldez non epealdi berrian kontu berria hasterakoan egoera berriaz haraindi heda *ezinezko* kontzientzia izan dezan. Horrela pentsatsen dute, argi dagoenez, arimen aurrexistentzian sinesten dutenek, arimari aurrexistentziako egoeran edo gorputzetik guztiz bereiz edo beste gorputzen batean sartuta egindakoaren kontzientziarik ez zaiola geratzen onartzen dutenez; eta horrela pentsatuko ez balute, argi dago esperientzia beraien aurka egonen litzatekeela. Era horretan, identitate pertsonala kontzientziatik harago iristen ez delarik, aurrexistentzia izan duen espiritu batek, isiltasun egoeran hainbeste arotan existitzen segitu ez duenez gero, pertsona ezberdinak egin behar izan ditu. Demagun kristau platoniko edo pitagoriko batek, Jainkoak kreazio lan guztiak zazpi egunetan bukatu zituela oinarritzat hartuta, uste duela bere arima orduantxetik existitzen dela eta giza gorputz ezberdinetan izan dela, neuk ezagutu nuen gizon bat bete-bete sinetsita zegoen moduan bere *arima* Sokratesena izandako berbera zela (ez dakit zenbesteko arrazoiz uste zuen hori, baina baieztatu dezaket berak betetako lanpostuan, eta ez zen munta eskasekoa, zentzuzko gizontzat zeukatela, eta argitara eman ziren bere obretan frogatzen du ez zitzaizola falta agudeziarik, ez jakintzarik). Suposizio horretan, baten batek esanen ote luke gizon hori, Sokratesen egintza

edo pentsamenduez inola ere kontziente izan gabe, Sokrates den *persona* berbera izan litekeela? Demagun batek bere buruaz hausnartu eta ondorio moduan ateratzen duela bere baitan espiritu inmaterial bat daukala, beregan pentsatzen duena eta bere gorputzaren aldaketa etengabea beti bat bera izaten mantentzen duena, eta berak *norbera* deitzen diona dela; demagun, halaber, berak uste duela espiritu hori Nestorren edo Thersitesen baitan Troia setiatzen egondako arima bera dela (arimei, izan ere, berdin zaie edozein materi zati, euren izaeraz jakin ahal izan dugunez bederen, suposizio honek ez du berekin absurdu nabarmenik), horietako baten arima izan zitekeen eta, orain beste edozein gizakirena den moduan; baina Nestorren edo Thersitesen egintzen kontzientziarik eduki gabe, nolatan pentsa daiteke norbera biotako bat izandako pertsona bera dela? Bere buruaren ardurapean jar al ditzake ekintza horiek? Har ote ditzake berak egindakotzat edo bereak dituela pentsa, edonoiz existitu den beste edozein gizonenak baino areago? Era horretan, kontzientzia hori gizon bi horien ezein ekintzatara iristen ez denez, bera ez da biotako inorekin bat bera, orain bere baitan duen arima edo materiagabeko espiritua bere oraingo gorputza biziarazten hasi zenean kreatua izan balitz baino areago, egia balitz ere Nestorren edo Thersitesen gorputza *biziarazi* zuen espiritu bera orain harena biziarazten duen berbera dela zenbakiz. Izan ere, horrek ez lioke Nestorrekin pertsona bera izaten lagunduko, inoiz Nestorren zati izandako materiaren partikuletariko bat gaur gizon horren zati balitz baino areago. Zeren kontzientzia bera ez daukan substantzia inmaterial bat berak, gorputz honi lotuta egonagatik, ez baitu pertsona bera osatzen, materiako partikula berak, gorputzen bati lotutako kontzientziarik gabe, pertsona bera egiten duen baino gehiago. Baina gizon hori konturatzen bada bera Nestorren edozein ekintzaz kontziente dela, orduan Nestorrekin batera pertsona berra dela aurkituko du.

### 17. *Gorputzak eta arimak egiten dute gizakia.*

Era horretan, trabarik gabe burura dezakegu pertsona bera existitzen berpizkundean, nahiz eta ez mundu honetan zeukan zati berberez osaturiko gorputzean, beti ere gorputz horretan bizi den arimak kontzientzia bera badauka. Baina, hala ere, arima bakarrik, gorputzen aldaketan, arima gizon bihurtzen ez duenarentzat ez beste guztientzat ez da nahikoa gizon bera egiteko. Zeren, baldin printze baten

arima, printzearen iraganeko bizitzaren kontzientzia berekin darama-  
la, bere gorputza utzi bezain laster zapatari baten ariman sartu eta  
berau biziaraziko balu, edonork ikusiko luke printzearekin *pertsona*  
bera dela printzearen egintzei dagokienez soilik; baina nork esanen  
luke *gizon* bera dela? Gorputzak ere parte hartzen du gizakia egiteko  
lanean eta, uste dudanez, kasu honetan gizona nor den erabakiko luke  
eta arimak, ordea, printzearen pentsamendu guztiak aldean dituela, ez  
luke beste gizon bat eginen eta beretzat ez beste guztientzat zapatari  
bera izanen litzateke. Badakit, mintzatzeko era normalean, *pertsona*  
berak eta gizon berak gauza bat eta bera ordezkatzan dutela. Eta, jaki-  
na, nornahik askatasuna du beti berak nahi duen moduan hitz egiteko  
eta ideiei egoki deritzen soinu artikulatuak aplikatzeko, baita soinuok  
nahi duen erara aldatzeko ere. Baina, *espiritu*, *gizaki* edo *pertsona*  
bera zerk egiten duen jakin nahi dugunean, espirituaren, pertsonaren  
edo gizakiaren ideiak ongi zehaztu behar ditugu geure gogamenean;  
eta hitz horiez zer esan nahi dugun garbi erabaki ondoren, ez dugu zail  
ukanen horiek eta antzekoak noiz diren eta noiz ez diren gauza bera  
zehazten.

18. *Kontzientziak soilik batzen ditu ekintzak pertsona beraren  
baitan.*

Baina materiagabeko substantzia edo arima bakarrik, dena  
dela eta edozein egoeratan egonda, gizaki bera egiteko nahikoa ez  
bada ere, argi dago kontzientziak, berau heda daitekeen punturaino  
—iraganeko aldiak barne—, denboran oso urrun dauden existentziak  
eta ekintzak *pertsona* beraren baitan batzen dituela, oraintxe bertan  
iragandako existentziak eta ekintzak batzen dituen moduan, halatan,  
non kontzientzia daukan iraganeko eta etorkizuneko ekintza guztiak  
*pertsona* berari dagozkion. Noeren kutxa eta uholdea ikusi izanaren  
kontzientzia banu, iragan neguko Tamesi ibaiaren gainezkatzea ikusi  
izanaren edo une honetan idazten ari naizen kontzientzia daukadan  
moduan, ezin izanen nuke zalantzatan jarri orain idazten ari naizen  
hau, iaz Tamesi gainezka ikusi nuen hau eta uholde unibertsala ikusi  
nuen hau *nor* berbera dela —nor hau nahi den *substantzian* jarrita  
ere—, idazten ari naizen hau, horretan ari naizen bitartean (materia-  
gabeko edo materiazko substantzia beraz osaturikoa izan ala ez) atzo  
izandako *ni neu* berbera naizen bezalaxe. Zeren, nor bera izatearen  
auzi honi dagokionez, berdin zaio oraingo nia substantzia beraz edo

beste batzuez egina izatea, hain interesatua bainago eta hain erantzule sentitzen bainaiz orain dela mila urte egindakoaz, nitaz dudakontzientziak nik neuk egindakotzat orain leporatu didanaz, nola orain hurrengo unean egindakoaz interesatua nagoen eta erantzule sentitzen naizen.

19. *Norbera kontzientziaren menpe dago, eta ez substantziaren menpe.*

Norbera gauza kontziente pentsatzaile horixe da, albo batera utzita zein substantzia egina den —substantzia espirituala zein materiala, bakuna zein konposatua izateak berdin diolarik-, plazer eta oinazearekiko sentibera eta zorioneko edo zoritxarreko izateko gai dena, bere buruaren ardura daukana kontzientzia hedatzen den punturaino. Horretara, gutariko bakoitzak esperientziatik daki hatz ttipia, kontzientzia horren pean hartuta, beste edozein gorputzatalen neurri berean dela norberaren osagarri. Hatz ttipi hori gorputzetik apartatuko bagenu eta kontzientzia gorputzaren gainontzekoa abandonatuz hatz ttipiarekin joanen balitz, argi legoke hatz ttipia pertsona litzatekeela, pertsona bera, eta orduan norberak ez lukeela zerikusirik gorputzaren gainontzekoarekin. Kasu honetan, zati bat bestetik banantzen denean, substantzia osatzen duena, pertsona bera egiten duena eta norbera banaezin hori eratzen duena kontzientzia den moduan, horixe gertatzen da denboran urrun dauden substantziei dagokienez ere. Presente dagoen gauza pentsatzaile horren kontzientziari bat dakiokkeen horrexek egiten du pertsona bera, eta berarekiko, eta ez beste ezeinekiko, bat bera da; eta, horrela, gauza horren ekintza guztiak bere buruari egozten dizkio eta beretzat hartzen ditu, kontzientzia hori iristen den punturaino, eta ez harago, horretaz gogoeta egiten duenak hautematen duen bezala.

20. *Pertsonak dira, eta ez substantziak, sarien eta zigorren subjektuak.*

Identitate pertsonal honexetan oinarriturik daude sari eta zigorraren eskubide eta zuzenbide guztia, zoriona eta zorigaitza izanik *norbera* arduratzen duena, kontzientzia horri loturik ez dagoen edo berorren eraginik ez duen edozein *substantziari* gertatzen zaionaren axolarik ukan gabe. Zeren, arestian jarri dudak adibidean argi geratzen den moduan, kontzientzia apartaturiko hatz ttipiarekin joanez gero, bezperan gorputz guztiaz, norbere zati zenaz, arduratzen zena litzateke nor-

bera bera, eta haren lehengo ekintzak orain bere ekintzat hartu behar ditu. Hala ere, gorputz berak bizitzen jarraitu eta hatz ttipia apartatu ondoren bere kontzientzia berezia balu, hatz ttipiak ezagutu gabe, orduan hatz tipiarekin joandako norberak ez luke gorputzaren gainerakoaren inolako ardurarik ukanen eta ez luke haren ekintzarik bere ekintzat hartuko, ezingo litzaiokeelarik haietako bat ere berari egotzi.

21. *Eta horrek identitate pertsonala zertan datzan erakusten du.* akus -

Horrek identitate pertsonala zertan datzan erakuts diezaguke: ez substantziaren identitatean, baizik, esan dudana moduan, kontzientziaren identitatean; eta, horren arabera, Sokratesek eta Queinborough-ko oraingo alkateak kontzientzia horretan bat egiten badute, pertsona bera dira; eta itzarrik eta lo dagoen Sokrates berak kontzientzia berean parte hartzen ez badu, itzarrik eta lo dagoen Sokrates ez da pertsona bera. Eta itzarrik dagoen Sokrates lo dagoen Sokratesek, itzarrik dagoen Sokrates inola ere kontziente izan gabe, pentsaturikoagatik zigortzea ez litzateke zuzenago izanen, biki bata beste bikiak egindakoagatik zigortzea baino, honek egindakoaz ezertxo ere ez jakinda ere, antz handia edukirik nor nor den bereizterik ez dagoela-eta, bikiekin sarri gertatu izan den moduan.

22. *Ahantzura erabatekoak ahantzi dena pertsonarengandik apartatzen du, baina ez gizakiarengandik.*

Baina, objekzio bat jar daiteke. Demagun neure bizitzaren zati batzuei buruzko oroimena galtzen dudala, inoiz berrir berreskuratzeko modurik gabe galdu ere, handik aurrera sekula ez naizelarik haiez kontziente izanen. Hala ere, ez al naiz ni neu ekintza horiek egindako edo pentsamendu horiek edukiriko pertsona bera, noizbait haiez kontziente izandakoa, orain ahantzi baditut ere? Honi erantzuten diot ongi konturatu behar dugula *ni* hitza zeri aplikatzen zaion, eta kasu honetan *gizakiari* bakarrik aplikatzen zaio. Eta gizaki bera pertsona bera dela uste denez, ni hitzak hemen pertsona bera ordezkatzeko duela suposatzen da aise. Baina gizaki berak aldi ezberdinetan kontzientzia komunikaezin bereiziak eduki ahal izanez gero, dudarik ez dago gizaki bera aldi diferenteetan pertsona ezberdinak litzatekeela; eta hau gizateriak bere iritzien deklarazio nagusietan agertzen duen sentimenduan ikusten dugu, giza legeek ez baitute zigortzen zoroa bere senean dagoenaren egintzengatik, ez eta bere senean dagoena zoroak egina-

gatik ere, bi pertsona diferentetzat hartuz; eta hau ingelesezko esamolde batzuetan ere ikusten da, urlia «bera ez dela» («not himself») edo «bere onetik kanpo» («beside himself») dagoela esaten dugunean, esamoldeok zera iradokitzen dutelarik, alegia, erabiltzen dituztenek, edo behintzat lehenengoz erabili zituztenek pentsatzen zutela norbera aldatua zela, gizaki hartan norbera bera ez zegoela.

### 23. *Gizakiaren eta pertsonaren identitateen arteko aldea.*

Hala ere, ez da erraz bururatzen Sokrates, gizabanako bera, bi pertsona izatea. Honetan laguntzeko, gogoan izan behar dugu Sokratesek edo gizabanako berak zer esan nahi duen. Honako hauetako bat izan behar du.

Edo —lehenik— substantzia pentsatzaile indibidual eta inmaterial bera; labur esanda, zenbakiz arima bera, eta ez beste ezer.

Edo —bigarrenik— animalia bera, ezein arima materialekin zerikusirik gabea.

Edo —hirugarrenik— espiritu inmaterial bera animalia berari lotuta.

Orain, suposizio horietatik nahi dena hartuta, ezinezko da identitate pertsonala kontzientzian beste ezertan egotea, ez hortik harago iristea.

Zeren, lehenengo suposizioaren arabera, daitekeentzat onartu behar da emakume ezberdinengandik jaiotako gizakia gizaki bera izatea. Eta hau onartzea, onartzen duenak onartu, gizaki bera bi pertsona ezberdin izan daitekeela onartzea da, garai ezberdinetan elkarren pentsamenduen berririk gabe bizi izandako bi pertsona bezain ezberdinak.

Bigarren eta hirugarren suposizioei buruz, Sokrates bizitza honetan eta gero ezin da inola pertsona bera izan, kontzientzia bera-  
ren bidez izan ezik. Eta, horrela, giza identitatea identitate pertsonala jartzen dugun gauza berean jarritz, ez da eragozpenik izanen gizaki bera pertsona bera dela onartzeko. Baina, kasu honetan, giza identitatea kontzientzian soilik eta ez beste ezertan jartzen dutenek, kontuan hartu beharko dute nola egin dezaketen Sokrates haurra berpizkunde osteko Sokrates bera izatea. Baina, dena dela batzuen ustez gizakia eta, beraz, gizabanako bera egiten duena, eta honetan gutxi datozke bat, guk behintzat identitate pertsonala kontzientzian bestetan ezin

dugu jarri (honexek bakarrik egiten baitu guk *norbera* deitzen diogu-na) absurdu handiegietan erori gabe.

24. Baina ez al da pertsona bera mozkorturik eta edan gabe dagoen gizona? Zergatik bestela zigortzen dute mozkor zegoelarik egindakoagatik, gero hartaz kontziente ez izan arren? Pertsona bera da, izan, hain zuzen ere ametsetan ari dela ibili eta beste gauza batzuk egiten duen gizakia pertsona bera eta egoera horretan egindako oker ororen erantzule den moduan. Giza legeek bata zein bestea zigortzen dute *gizakien* ezagupideei egokituriko justiziaz, zeren kasu mota horietan ezin baitute segurantziaz bereizi erreala eta akastuna; hartaz, ezjakina ez da mozkorturik edo lotan egindakoaren aitzakiatzat hartzen. Zeren zigorra pertsonatasunari eta pertsonatasuna kontzientziari lotzen bazaio ere, eta mozkorra agian berak egindakoaz kontziente ez izan arren, gizarte honetako epaileek bidez zigortzen dute, haren kontra egintza frogatu egiten dutelako, haren alde kontzientziarik eza, ordea, frogatzerik ez dagoen artean. Baina azken judizioko egun handian, bihotz guztien sekretuak agerian gera daitezenean, sinesteko eskubide dugu inork ere ez duela erantzun beharrik izanen erabat ezezagun zaigunaz, eta zor zaion epaia jasoko duela bakoitzak, norbere kontzientziaren salaketa edota zuriketapean.

25. *Kontzientziak soilik batzen ditu existentzia urrunduak pertsona bat beraren baitan.*

Kontzientziak soilik bil ditzake existentzia urrunduak pertsona beraren baitan; substantziaren identitateak ezin du hori egin; zeren substantzian, dena dela eta dena delako moduz eratua izan, kontzientziarik ez badago ez dago pertsonarik, eta gorpua ere kontzientzia gabeko zeinahi substantzia bezalaxe izan daiteke pertsona. Suposa bagenitzake bi kontzientzia ezberdin elkarrekin komunikazinean, gorputz berean txandaka dihardutenak, bata egunez etengabe eta bestea gauez, eta bestalde suposa bagenezake kontzientzia bat bera aldi-ka bi gorputz ezberdinetan diharduena, galdera hau egiten dut, alegia, lehenengo kasuan eguneko gizona eta gaueko gizona ea ez ote ziren bi pertsona izanen, Sokrates eta Platon bezain ezberdinak, eta bigarren kasuan ea ez ote zen pertsona bat bakarra izanen bi gorputz ezberdinetan, gizon bat bi soineko ezberdinez jantzita gizon bat bera den moduan. Eta ez dit ezertarako balio esateak goian aipaturiko kasuetan kontzientzia berbera eta kontzientzia ezberdin hori, bata substantzia



inmaterial berekoa eta bestea gorputz horietan sartzen duten substantzia ezberdinekoa izatearen ondorio direla; izan ere, horrek, egia ala gezurra izan, ez du kasua aldatzen, zeren kontzientziak era berean determinatuko bailuke identitate pertsonala, kontzientzia hau substantzia inmaterial banakakoren bati lotuta egon ala ez. Baina substantzia pentsatzaileak gizakiarengan ezinbetez inmateriala izan behar duela suposatuz gero, bistakoa da gauza pentsatzaile inmaterialak noiz behinka iraganeko kontzientzia burutik kendu egin behar duela, gero berriro gogoratzeko, gizakiek sarri izaten duten iraganeko ekintzei buruzko ahanzturan nabari denez; eta gogamenak askotan hogeitaz zeharo galduta ukan duen iraganaren kontzientziaren oroimena erdies-ten du berriro. Demagun orain oroitzapen eta ahanztura une horiek egunarekin eta gauarekin egokitzen direla beti: bi pertsona dira hor espiritu inmaterial bat berarekin, lehenengo adibidean bi pertsona gorputz berarekin diren bezalaxe. Hortik ondorioztatzen da substantzia- ren identitateak edota ezberdintasunak ez duela norbera zehazten, honetaz ziur egoteko kontzientziaren identitatea baita ezinbesteko.

*26. Ez ditu batzen kontzientziarekin lotuta egon daitezkeen substantziak.*

Norberak egiatan burura dezake norbera osatzen duen substantzia lehenago existitu dela izaki kontziente berean bat eginda; baina kontzientzia kenduz gero substantzia hau ez da norbera ez eta norberaren parte ere, beste edozein substantzia den baino gehiago, arestian aipaturiko gorputzetik apartaturiko atalaren adibidean argi ageri denez, haren bero edo hotzaren edo beste sentipenen kontzientziarik gabe, atal hori ez baita gizakiaren norberaren zati, unibertsoa beste edozein materia den baino gehiago. Antzeko neurrian ukanen du zeri- kusirik niretzat ni neu izatea egiten duen kontzientziaz husturik dago- en edozein substantzia inmaterialekin; baldin orain ni neu izatea egi- ten duen kontzientzia presentearekin oroituz batu ezin dudan haren existentziaren zatirik badago, hura ez da, bere existentziaren zati horri dagokionez, *ni neu*, beste edozein izaki inmaterial den baino gehiago. Zeren zernahi delarik ere substantzia batek egin edo pentsatu duena, nik gogoratu eta neure kontzientziaren bidez neure pentsamendu eta ekintza egin ezin badut, hura ez da nirea izanen, nire neure zati batek pentsatu edo egin bazuen ere, edonon existitzen den beste izaki mate- rial batek pentsatu edo egin balu nirea ez litzatekeen bezalaxe.

27. *Kontzientziak substantzia materialak edo espiritualak pertsona berarekin batzen ditu.*

Ados nago kontzientzia hori substantzia banako inmaterial bakarrari loturik doala eta eragiten diola dioen iritzia daitekeentzat dutenekin.

Baina utz diezaiegun gizakiei beren hipotesi ezberdinen arabera ongien deritzoten moduan auzi hau ebatz dezaten. Izaki adimendun eta zorion eta zorigaitzarekiko sentibera orok onartu beharra dauka *berbera* den zerbait dagoela, ardura erakartzen diona eta zorionsu egin nahi lukeena; norbera hori lipar bat baino iraunaldi jarraitu luzeagoz existitu dela eta, beraz, lehen izan den bezala etorkizuneko hiletan eta urteetan zehar existi daitekeela, iraunaldi horri muga zehatzik ipintzerik ez dagoelarik, eta kontzientzia berari esker norbera bera izan daitekeela etorkizunean. Eta, horrela, kontzientzia horren eraginez aurkitzen du bera urte batzuk lehenago horrelako edo halako ekin-tza hura, orain bera zorioneko edo zoritxarreko egiten duena, egin zuen norbera bera dela. Norbera horren azalpen guztian, *substantzia* bera barik, *kontzientzia* jarraitu bera hartzen da norbera bera egiten duen elementutzat; eta kontzientzia horretan substantzia ezberdinak bilduak eta gero bertatik berriro apartatuak izatea balitekeen arren, norbera berorren parte izan daitezke guztiak, orduan kontzientzia daukan subjektuarekin batasun bitalean iraun duten bitartean. Horretara, geure baitan kontziente denarekin bitalki baturiko geure gorputzaren edozein atal geure zati dugu, baina kontzientzia hau komunikatzen duen batasun bital honetatik apartatuz gero, momentu bat lehenago geure zati genuena ez da jada gure zati, beste gizon baten atal bat nire zati den baino areago, eta ez da ezinezko denbora gutxian beste pertsona baten egiazko zati bilakatzea. Eta horra hor nola substantzia zenbakiz bera pertsona ezberdin biren zati bihurtzen den eta nola substantzia ezberdinen aldaketaren eraginpean ere pertsona berak dirauen. Espirituren bat iraganeko bere ekintzekiko oroimenaz eta kontzientziaz, gure gogamenak gureen zati handi batenaz beti eta guztienaz sarri egoten diren moduan, zeharo gabeturik dagoen espiritu bat imajinatu ahal bagenu, substantzia espiritual horren batasunak edo banakuntzak ez luke identitate pertsonala aldatuko, edozein materi partikularenak aldatuko lukeena baino gehiago. Substantzia pentsa-tzaile presente honi bitalki baturiko substantzia oro orain existitzen

den norbera bera berorren zati da eta iraganeko ekintzen kontzientziaren bidez hari baturiko edozer ere norbera horren zati zen orduan eta da orain.

28. *Pertsona auzitegiko terminoa («forensic term») da.*

*Pertsona*, nik ulertzen dudana moduan, norbera hori adierazten duen izena da. Batek norbera deitzen diona aurkitzen duen guztian, beste batek han pertsona bera dioela esan dezake. Auzitegiko («forensic») terminoa da pertsona, ekintzen eta euren merezimenduaren edo desmerezimenduaren jabetza egozten duena eta, beraz, egile adimendunei eta legea betetzeko eta zoriontsu edo zoritxarreko izateko gai direnei soilik dagokiena. Pertsonatasun hau oraingo existentziatik harago iraganekora hedatzen da kontzientziaren ez besteren eraginez, beronen bidez pertsona iraganeko ekintzez arduratuta eta haien erantzule eta jabe sentitzen delarik, ekintzok bere buruari egotziz, oraingoak egozteko dauzkan oinarri eta arrazoi beraz. Eta hau guztia ezinbestez kontzientziarekin loturik dagoen zorionarekiko arduran oinarritzen da, zeren plazer eta oinazeaz kontziente den orok kontziente den norbera hori zoriontsu izatea nahi baitu. Eta horregatik norbera presente honi uztartu edo *jabetza egotzi ezin* dion iraganeko ekintzez ezin da arduratu, sekula egin ez balitu baino areago; halatan non, horrelako ekintza bategatik plazerra edo oinazea, hots, saria edo zigorra jasotzea, beste hau bezainbat litzatekeen, alegia, inola ere merezi gabe, bere existentziako lehen unetik zorioneko edo zoritxarreko izatea bezainbat. Izan ere, demagun beste bizitza batean egindakoagatik, eta hartaz inola ere jabetzarik ez daukala, orain zigortua izan den *giza* - *ki* bat: zer alde legoke zigor honetatik zoritxarreko kreatua izatera? Eta, horregatik, apostoluak diosku judizio egunean bakoitzak «bere egintzen arabera jasoko duenean, bihotz guztietako sekretuak agerian geratuko direla». Epaia honako honek justifikatuko du, alegia, pertsona guztiak kontziente izateak eta jakiteak *euren norberak* («*they themselves*»), dena delako gorputzean agertu edo kontzientzia hau dena delako substantziari lotuta egon, ekintza horiek egindako *berberak* direla eta ekintzongatik zigor hori merezi dutela.

29. *Suposizio hauei harrigarri iriztea barkagarri da gure ezjakinean.*

Uste dut gai hau aztertzean irakurle batzuei harrigarri gerta dakizkiekeen zenbait suposizio egin ditudala eta badaiteke izan ere

harrigarriak izatea. Baina hala ere uste dut barkagarri direla, geure baitango *geurenorber atzat* daukagun gauza pentsatzaille horren izaeraz oso ezjakinak garenez gero. Bageneki zer den edo animalia espiritu iheskorren halako sistema bati nolatan dagoen lotuta, edo gurea bezala organizaturiko gorputz batetik kanpo pentsatzeko eta oroitzeko ekintzak egin ditzakeen ala ez, edo ea Jainkoak espiritu horiek gureak bezalakoxe gorputzei baino loturik ez egotea nahi izan duen, haren oroimena gorputz horren organoak behar bezala organizaturik egotearen menpe egonik, hori guztia bageneki, diot, ikusi ahal izanen gunk egin ditudan suposizio horietako batzuen zentzugabetasuna. Baina gizakiaren arima, orain normalean hartzen dugun bezala (gai oi buruzko ilunbean), materiarekiko lokabe eta materia guztiarekiko aiherga den substantzia inmaterialtzat hartuta, ez dago gauzen naturan oinarrituriko inolako zentzugabekeriarik suposatzean *arima* bera aldi ezberdinetan *gorputz* ezberdinei lotuta dagoela eta aldi horretan gorputzokin gizaki bakar bat osatzen duela, beste hau suposatzean bezala, alegia, atzo ardi baten zati izandakoa bihar gizaki baten gorputzaren zati izan daitekeela eta batasun horretan Melibeoren beraren zati bital izatera hel daitekeela, lehenago ahari baten zati izan zen bezalaxe.

### 30. *Zailtasuna izenak gaizki erabiltzetik dator.*

Amaitzeko, existitzen hasten den substantzia orok nahitaez berbera izan behar du bere existentzia guztian zehar; existitzen hasten den edozein substantzi konposaketan, substantzia horien batasunak diraeino, konposaketak berbera izan behar du; existitzen hasten den modu oro bere existentzia guztian zehar berbera da eta, horrela, baldin substantzia diferenteen eta modu ezberdinen konposaketa bada, arau berari jarraitzen dio. Hemendik argi ageri da gai honi buruz izan den zailtasuna eta iluntasuna izenak gaizki erabiltzetik sortzen dela, gauzetan eurretan dagokeen iluntasunetik baino gehiago. Zeren, zeinahi izanik ere izen batek adierazitako ideia konkretua, baldin ideia hori etengabeki izen horri lotzen bazaio, gauza baten identitatea edo ezberdintasuna erraz bururatuko da, zalantzarik sortzeko bitarterik gabe.

### 31. *Gizakiari buruz daukagun ideia konplexuaren jarraikitasunak egiten du gizakia dena bera.*

Izan ere, suposaturik espiritu arrazoiduna izatean datzala *gizakiaren* ideia, erraz da jakiten gizaki bera zer den, zeren kasu honetan espiritu bera, gorputzetik aparte edo gorputzean, izanen da *gizaki*

*bera*. Itxura eta osaera jakin bateko gorputzari bitalki loturiko espiritu arrazoidunak egiten duela gizakia suposatuz gero, espiritu arrazoidun horrek atalen osaera bital horri lotuta dirauen artean, nahiz eta atalak hurrenez hurren aldatuz doazkion gorputz batean jarraituz, *gizaki bera* izanen da. Baina norbaitentzat gizakiaren ideia forma jakin batean atalen batasun bitala baino ez bada, batasun bital eta forma horrek konposaketa batean dirauen artean, segidako partikula iheskorren jario batean bera izaten jarraituz iraun ere, *gizaki bera* izanen da. Zeren, zeinahi delarik ideia konplexua osatzen duen konposaketa, beti ere existentziak izen baten pean gauza partikular bat egiten duen bitartean, *existentzia jarraitu berak* egiten du gauza horrek banako *bera* izaten segitzea izen beraren pean.



# XXVIII. KAPITULUA

## Beste zenbait erlazioz

### 1. *Erlazio proportzionalen ideiak.*

Gauzak bata bestearekin erkatzeko eta erlazonatzeko arestian aipaturiko denbora, leku eta kausalitatezko abagunez gain, beste hainbat eta hainbat abagune dira, esan dudana moduan, eta eurotako batzuk aipatuko ditut.

Lehenbizi aipatuko dudana zera da, alegia, atal eta mailaketa-rako gai izanik, bere kokagune diren subjektuak elkarrekin alderatzeko abagunea eskaintzen duen ideia bakuna, adibidez, zuriago, gozoago, berdina, gehiago. Erlazio hauei, ideia bakun beraren berdintasun edo gaindiketan dautzanez, *proportzionalak* dei dakieke nahi izanez gero; erlaziook sentipenaren eta hausnarketaren bidez harturiko ideia bakun horiei soilik dagozkiela, bestalde, hain bistakoa da, non alferreko litzatekeen frogatzen aritzea.

### 2. *Erlazio naturala.*

Bigarrenik, gauzak elkarrekin alderatzeko edo gauza bat beraren kontsiderazio barruan beste edozein gauza sartzeko moduan kontsideratzeko abagune bat haien jatorri edo hasieraren inguruak dira, gerora aldatzen ez direnez, dagozkien subjektuek bezain luzaro irauten duten erlazioen oinarri direnak, adibidez, aita eta seme-alabak, neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak, maila diferentean lotzen dituzten odol-ahaidetasunezko erlazioak berauek, baita herrialde edo

lurralde berean jaieriko herikideen artekoak ere. Eta *erlazio* hauei *naturalak* deitzen diet. Honetan, ohar gaitezke gizakiek beren nozioak eta hizkuntza elkarbizitzako erabilerara egokitu dituztela, eta ez gauzen egia eta hedapenera. Zeren egia baita sortzailearen eta sortuaren arteko erlazioa izatez bera dela hala beste animalien arraza ezberdinetan nola gizakien artean; baina gure artean ez dizu inork erraz esanen: zezen hori zekor haren aitona da, edo bi uso horiek lehengusinak dira. Egokia da oso gizakien artean aipaturiko erlazioak azpimarratzea eta izen ezberdinez izendatzea, legeetan eta beraien arteko beste harreman batzuetan badagoelako horrelako erlazioen arabera gizakiez hitz egiteko eta izendatzeko abagunerik. Gainera, hemendik eginbehar batzuk bete beharra sortzen da gizakien artean, animaliei dagokienez, ordea, gizakiek erlazio horiek haiei aplikatzeko zio gehiegirik edo bat ere ez dutenez, ez diote egoki iritzi haien kasuan izen berezi eta partikularrak erabiltzeari. Honek, bide batez, hizkuntzen egoera eta garapenari buruzko ezagutza eman diezaguke; hizkuntzak gizakiak elkarrekin eroso komunikatzeko eginak direlarik, gizakiek dituzten nozioen eta egunero elkarri komunikatu behar dizkioten pentsamenduen neurrikoak dira, eta ez gauzen errealtate eta hedapenaren neurrikoak, ez eta haien artean aurki datezkeen erlazioen, ez euren inguruan era daitezkeen kontsiderazio abstraktu ezberdinen neurrikoak ere. Nozio filosofikorik ez duten tokian ez dute horiek adierazteko hitzik ere, eta ez da harritzekoa gizakiek izenik ez asmatzea solasean erabiltzeko paradarik ez duten gauzentzat. Hemendik ez da zail iruditzen herrialde batzuetan zaldia esateko ere hitzik ez edukitzea, beste batzuetan, ordea, gizakiek beren genealogiaz baino zaldienaz ardura gehiago dutenetan, zaldi partikularrek ez ezik, beraien artean dauden ahaidego maila ezberdinek ere izenak dituzten artean.

### 3. *Ezarritako edo nahitako erlazioen ideiak.*

Hirugarrenik, gauzak elkarrekiko harremanaren arabera kontsideratzeko funtsa, norbaitek zerbait egiteko duen eskubide morala, ahala edo obligazioa izan ohi da batzuetan. Horrela, adibidez, jenerala armada bat zuzentzeko ahala duena da; eta jeneral baten pean dagoen armada, gizon baten esana bete behar duten gizon armatuen multzoa da. Hiritar edo burges bat hango edo hemengo lekutan pribilegio batzuetarako eskubidea duena da. Horiek guztiak gizakien nahiaren edo gizarte-adostasunaren ondorio direnez, ezarritakoak edo nahitakoak deitu



diet, eta naturaletatik honexetan bereizten dira, alegia, aldagarriak eta noizbait haien jabe izandako pertsonen kengarriak izatean, nahiz eta horrela erlazionaturiko substantzia bat ere ez deuseztu. Orain, nahiz eta hauek guztiak, besteak bezala, elkarrekikoak izan eta gauza biren elkarrekiko harremana eraman barruan, hala ere, gauza bietako batek maiz harreman hori adierazten duen izenik ez duelako, gizakiak ez dira hartaz konturatzen eta ez dute erlazio hori aintzat hartzen. Adibidez, erraz ohartzen da edonor patroia eta bezeroa erlatiboak direla, baina kantzillerra edo diktadorea ez dira entzun eta batera erlatibotzat hartzen diren horietakoak, diktadorearekiko edo kantzillerrarekiko harremanetan daudenentzat erlazio hori adieraziko duen izen berezirik ez dagoelako, nahiz eta egia izan biek dutela ahala beste batzuegan eta horregatik pertsona horiekin elazionaturik daudela, patroia bere bezeroarekin edo jenerala bere armadarekin erlazionaturik dagoen bezala.

#### 4. *Erlazio moralen ideiak.*

Laugarrenik, bada beste erlazio mota bat, gizakien nahitako ekintzek berauek alderatzeko eta epaitzeko erabiltzen den arauarekiko duten egokitzapena edo desegokitzapena dena; eta honi, nire ustez, erlazio morala dei dakioke, gure egintza moralak kalifikatzen dituelako, eta merezi du beronetaz aztertzeak, ezagutzaren arlo honetan beste ezeinetan baino ahalegin handiagoz jokatu behar dugulako ideia zehatzak erdiesteko eta, ahal dugun neurrian, iluntasuna eta nahasmendua ekiditeko. Giza egintzak, beren helburu, modu eta zirkunstantziekin ideia konplexu bereizietan eratzen direnean, beste hainbeste *modu misto* dira, esan dudan moduan, eta euretako askok izenak dituzte erantsita. Horrela, suposatuz esker ona harturiko mesedeak aitortu eta itzultzeko prestasuna dela edo poligamia aldi berean emazte bat baino gehiago edukitzea dela, geure gogamenean nozio horiek eratzen ditugunean, beste hainbeste ideia zehatz edo modu misto dauzkagu. Baina hori ez da gure ekintzei buruz interesatzen den guztia; ez da nahikoa haiez ideia zehatzak edukitzea eta ideien halako eta bestelako konbinaketari zein izen dagokien jakitea. Interes handiagoa eta hori baino urrunago hedatzen dena daukagu: ekintza horiek moralki onak ala txarrak diren jakitea.

#### 5. *Ongi morala eta gaizki morala.*

Ongia eta gaizkia, azaldu den moduan, (II Lib, XX Kap. 2, eta XXI. kap. 43) plazerra eta oinazea besterik ez dira, edo guk plazerra

eta oinazea izatearen abagunea edo kausa. *Eta ongi morala edo gaizki morala nahitako ekintzen eta legearen artean dagoen adostasuna edo desadostasuna besterik ez da, honek ongia edo gaitza dakarkigularik lege gilearen gogo eta ahalmenaren arabera*; eta ongi eta gaitz horri, plazer edo oinaze horri, legegilearen erabakizko legea betetzearen edo haustearen ondorio denari, *saria* eta *zigorra* deitzen diogu.

#### 6. *Araumoralak.*

Gizakiek beren ekintzak neurtu eta onak ala txarrak diren epaitzeko erabiltzen dituzten arau edo lege moralak *hiru motatakoak* direla deritzot, hiru hertsapen ezberdin edo sari eta zigor dituztelarik. Izan ere, erabat alferreko litzatekeenez gizakien ekintza libreei jarritako lege bat suposatzea, lege horri, gizakiaren nahimena determinatzeko, ongiaren eta gaizkiaren hertsapenen bat jarri gabe, lege bat suposatzen dugun guztian, sari eta zigor bat suposatu behar dugu lege horri erantsita. Izaki adimendun batek alferreko luke beste baten ekintzei araurik jartzea, lege hori betetzea saritzeko edota haustea zigortzeko ahalmenik ez balu, ekintzaren beraren sorkari eta ondorio natural ez den ongiaren edo gaizkiaren bidez. Zeren berez eroso edo deseroso denak berenez ukanen luke eragina, lege premiarik gabe. Horixe da, oker ez banago, zehazki lege deritzan lege ororen benetako izaera.

#### 7. *Legeak.*

Gizakiek beren ekintzak zuzenak ala okerrak diren juzgatzeko neurgailutzat erabiltzen dituzten legeak hiru motatakoak dira: *lege jainkotiarra*, *lege zibila* eta *iritzizko* edo *erreputaziozko* legea, horrela izendatzerik badut. Lehenengoarekin duten erlazioaren arabera, gizakiek beren ekintzak bekatuak ala egitekoak diren juzgatzen dute; bigarrenaz, ekintza kriminal ala errugabeak diren; hirugarrenaz, bertuteak ala bizioak diren.

#### 8. *Lege jainkotiarra, bekatuaren eta egitekoaren neurria.*

Lehenik, *lege jainkotiarra* Jainkoak gizakien ekintzei ezarri dien legea da, naturaren argiaz edo errebelazioaren ahotsaz aldakarritua. Ez dut uste inor ere izanzen denik, Jainkoak gizakiak goberna daitezen araua eman duela ukatzeko bezain kirtenik. Jainkoak hori egiteko eskubide osoa du; bere kreaturak gaitu eta gure ekintzak ondoen datorrigun xedera gidatzeko behar diren ontasuna eta jakituria dauzka, baita pisu eta iraupen infinituko geroako bizitzako sari eta zigorren

bidez gu legea betetzera bultzatzeko ahala ere, zeren inork ere ez baikaitzake haren eskuartetik atera. Horixe da zuzentasun moralaren zinezko froga-harri bakarra; eta beren ekintzak lege honexekin alderatuz heltzen dira gizakiak ekintzok ongi edo gaizki moral handienaz juzgatzera, hau da, ea, egitekoak ala bekatuak izanik, Ahalguztidunaren eskutatik zoriona ala zoritxarra ekartzeko modukoak diren juzgatzera.

#### 9. *Lege zibila, krimenen eta errugabetasunaren neurria.*

Bigarrenik, *lege zibila* beste arau bat da, gizarteak kide dituenen ekintzei jarritako araua, gizakiek beren ekintzak neurtu eta kriminalak diren ala ez juzgatzeko dena. Inork ez du albora uzten lege hau, berau pisuz hornitzen duten sari eta zigorrak beti bertatik bertara ematekoak eta legea egiten duenaren ahalaren, hau da, gizartearen indarraren neurrikoak baitira, gizarteak bere legeen arabera bizi direnen bizia, askatasunak eta ondasunak babesteko konpromiso eta legea betetzen ez dutenei bizia, askatasuna eta ondasunak kentzeko ahalmena duelarik, era horretan bere legearen kontra egindako irainak zigortuz.

#### 10. *Lege filosofikoa, bertutearen eta bizioaren neurria.*

Hirugarrenik, *iritzizko* edo erreputaziozko legea dago. Mundu guztiak uste du bertute eta bizio hitzek berez ordezkatzeko dituztela ekintza onak eta txarrak eta, horrela ulertzen diren neurrian, bete-betean datoz bat goian aipaturiko lege jainkotiarrekin. Baina, zeinahi izanda ere giza pretentsioak, argi dago bertute eta bizio hitzak, zehazki nola erabiltzen diren kontuan hartzen badugu, etengabeki iratxikitzen zaizkiela egintza hauei ala besteei, munduko nazio eta gizarte ezberdinetan zehar herrialde edo gizarte bakoitzak ohoretsu ala lotsagarritzat hartzen dituen arabera. Eta ez da harrigarritzat jo behar gizakiek, alde guztietan, euren artean goresgarritzat dauden ekintzei bakarrik ematea bertute izena eta gaitzesgarritzat dauzkatenei bizioa deitzea, zeren bestela euren buruak kondenatuko lituzkete eta, gorespenik egotzen ez dioten zerbait ona dela eta gaitzespenik iratxikitzen ez dioten zerbait txarra dela uste balute. Horrela, alde guztietan bertute eta bizio deitu eta halakotzat hartzen denaren neurria, munduko gizarte, tribu eta elkarte bakoitzean irizkidetasun tazitu eta sekretuak gauzatzen duen baiespen edo mesprezu, estimu edo arbuio horixe da; eta beronen bidez ekintza ezberdinek onarpena edo ezezpena jasotzen

dute hango jendearen artean, tokian tokiko irizpen, arau eta usadioen arabera. Zeren gizarte politikoetan bildutako gizakiek euren indar guztien eraketa esku publikoetan utzi badute ere, halako moldez, non ezin dituzten haiek erkideen kontra erabili herrialdeko legeek ezarritako mugez kanpo, hala eta guztiz ere, eurekin harremanetan bizi direnen ekintzez ongi ala gaizki pentsatzeko ahalmena daukate beti, haiek onesteko ala gaitzesteko ahalmena; eta onespen edo gaitzespen horren bidez ezartzen dute euren artean zeri deitu bertutea eta zeri bizioa.

11. *Gizakiek bertutea eta bizioa deritzana zehazteko eskuarki aplikatzen duten neurria.*

Horixe dela bertute eta bizioaren *neurri* komuna edonork ikusiko du argi, kontuan badauka ezen, nahiz eta herrialde batean biziotzat dutena beste batean bertutetzat —edo ez behintzat biziotzat— ukan, bertutea eta gorespena, bizioa eta gaitzespena, elkarrekin doazela nonahi. Bertutea goresgarri dena da edonon, eta jendearen estimua duenari besteri ez zaio bertutea deituko. Bertutea eta gorespena hain doaz bat eginik, non maiz izen beraz izendatzen diren biak. *Sunt sua praemia laudi*, dio Virgiliok; eta Ciceronek: *Nihil habet natura prestantius, quam honestatem, quam laudem, quam dignitatem, quam decus*, eta jarraian diosku horiek guztiak gauza bera esateko izenak direla. Filosofo jentilen hizkera da hori, ongi ulertu zutenena zertan dautzan bertutearen eta bizioaren nozioak. Eta nahiz eta giza mota ezberdinen izakera, hezkuntza, ohitura, arau eta interes ezberdinen eraginez leku batean goresgarritzat zegoena, beste batean gaitzespenik gabe ez geratu eta, horretara, gizarte batetik bestera bertutea eta bizioa gauza diferentak izan, hala ere, funtsari dagokionez nozio horiek berberak izan ziren alde guztietan. Izan ere, norberari abantaila eskaintzen dionari estimua eta izen ona ematea eta kontrakoa gaitzestea eta izen txarra ematea baino gauza naturalagorik ez dagoenez, ez da harritzekoa estimua eta desohorea, bertutea eta bizioa, *neurri* handian, Jainkoak ezarritako onaren eta txarraren arau aldaezinarekin bat etortzea alde guztietan, ez baitago ezer ere mundu honetan gizateria guztiaren ona hark gizakiei jarri dien legee men egiteak baino artezago eta nabarmenkiago segurtatzen eta bultzatzen duenik, ez eta lege horiek ez betetzeak baino oker eta nahasmendu gehiago sortzen duenik ere. Eta horregatik gizakiek, sen komunari eta arrazoi orori eta etengabeki hain maite duten euren interesari uko egin ezean, ezin izan

dira eskuarki erratu euren gorespena edo gaitzespena behar ez den tokian jarritz. Are, lege horien kontrako portaera eramandako gizakiek ere beti eman izan diote euren onespena jokabide zuzenari, gutxi izan direlarik eurek egindako hutsegiteak, besteengan bederen, ez gaitzesteko adinako gaiztakeriara heldu direnak; eta horregatik ongi zaindu dira, ohiturak ustelduen zeudenean ere, bertute eta bizioaren arau izan behar duen lege naturalaren mugak, halatan non doktore inspiratuek ere ez duten izan eragozpenik euren aholkuetan erreputazio komune-  
ra jotzeko: «Maitagarri dena, izen oneko dena, bertuterik bada, goresp-  
penik bada ...» (Fil.4,8).

12. *Lege horri indarra ematen di ona g      orespena eta mespre -  
dua dira .*

Baten batek uste badu legeari ezarri diodan nozioa ahortzi egin zaidala, diodanean gizakiek bertuteaz eta bizioaz juzgatzeko darabilten legea, hura egiteko behar den aginterik ez duten eta, batez ere, —lege ororentzat hain beharrezko eta funtsezkoa dena— lege hori betetzera behartzeko ahalik ez duten gizaki partikularren adostasuna besterik ez dela, horri erantzun niezaioke gorespena eta gaitzesp-  
ena eurekin harremanetan bizi direnen iritzi eta arauetara egokitze-  
ko motibo indartsuak ez direla uste duenak badirudiela ez daukala giza-  
teriaren izaeraren edo historiaren ezagutza handirik, zeren gizakirik  
gehienak *ohituraren lege* honen agintepean, soilik ez bada, nagusiki  
bederen, bizi direla egiaztatuko baitugu, halatan, non inguruko en-  
tzi onean mantenduko dituen egiten duten, Jainkoaren eta magistra-  
tuen legeari asko begiratu gabe. Jainkoaren legeak hausteak dakartzan  
zigorrei dagokienez, gizaki batzuek, eta beharbada gehienek, bakanki  
egiten dute horiez gogoetarik seriotasunez, eta egiten dutenen artean,  
legea hausten diharduten bitartean, gero Jainkoarekin adiskidetzeko  
eta legehauste horientzat bakeak egiteko pentsamenduetan ari izaten  
dira. Eta Estatuaren legeak hausteagatik zigorrei dagokienez, zigor-  
gabe geratzeko esperantzak adoretzen ditu sarri. Baina alde nahi  
dituen inguruko en-  
tura eta iritzien aurka jotzen duen inork ere ez  
dio ihes egiten haien gaitzeppen eta arbuioaren zigorrari. Eta hamar  
milatik batik ere ez dago bere inguruko lagunak mesprezua eta gai-  
tzeppen iraunkorra jasateko bezain gogor eta sentigaitza denik. Izaera  
arraro eta ezohikoa ukan behar du batek, bere inguruko gizartearen  
aurrean etengabe desohorez eta fama txarrez bizitzeko. Gizaki asko

dira bakardadea bilatu eta egoera horretan pozik bizitzea lortu dutenak; baina norbere giza izakeraren sentipen espirik geratzen zaion inor ezin da lagunartean bizi bere senide eta inguruko pertsonen arbuioaren eta iritzi txarraren pean. Pisu handiegia da hau gizakien eusmenarentzat; eta kontraesan uztarrezinez egina izan behar du, lagunarteaz gozatu eta, hala ere, lagunuen mesprezu eta arbuioarekiko sentigaitza denak.

13. *Hirulegehauek ongi moral eta gaizki moralaren arauak dira .*

Hiru hauek, hau da, Jainkoaren legea, gizarte politikoen legea eta ohituren edo gaitzespen pribatuaren legea dira, beraz, gizakiek beren ekintzak era ezberdinez alderatzeko arau moduan erabiltzen dituztenak; eta beren ekintzek lege horietako batekin duten adostasunaren arabera neurtzen dute euren zuzentasun moralak eta beren ekintzak on ala txartzat juzgatzen dituzte.

14. *Moralitasuna nahitako ekintzek arau horiekin duten erlazioa da.*

Baldin gure nahitako ekintzak berarekin, froga harri bat bailitzan, alderatzeko eta haien ontasuna egiaztatu ondoren balio marka bezalakoa den izena jartzeko erabiltzen dugun araua herrialdeko ohituretatik edo legegilearen nahitik hartzen badugu, gogamena erraz ohar daiteke edozein ekintzak arau honekin duen erlazioaz eta ekintza arauarekin ados edo desados dagoen juzga; eta horretara ongi moral edo gaizki moralaren nozioa dauka, ekintza baten arau horrekiko adostasuna edo desadostasuna besterik ez dena; eta horregatik sarri zuzentasun moralak deritza. Arau hau ideia bakun ezberdinen bilduma bat besterik ez denez, beronekiko adostasuna honexetan bestetan ez datza, ekintza halako moldez ordenatzean, non osagai dituen ideia bakunak bat etor daitezen legeak eskatzen dituenekin. Eta horrela ikusten dugu izaki moralek eta horretariko nozioek sentipen eta hausnarketa bidez hartzen ditugun ideia bakunetan dutela oinarria eta amaiera. Adibidez, hilketa hitzak adierazten duen ideia konplexua aztertzen badugu, atalka hartu eta zehatz arakatzean, aurkituko dugu sentipen edo hausnarketa bidez erdietsitako ideia bakunaren bilduma bat besterik ez dela. Hau da, lehenbizi geure gogamenaren eragitei buruzko *hausnarketaren* bidez nahi izatearen, kontsideratzearen, aldeztu aurretik asmatzearen, maliziaren edo beste bati txarra desiratzearen ideiak ditugu, eta baita bizitzaren, pertzepzioaren eta autohigidu-

raren ideiak ere. Bigarren, *sentipen* bidez gizakiarengan aurkitzen diren ideia bakun eta sentigarrien eta gizaki horrengan pertzepzioari eta higidurari akabera emateko balio digun ekintzaren baten bilduma bat hartzen dugu, eta ideia bakun horiek guztiak biltzen dira hilketa hitzean. Ideia bakunen multzo hau ni hazi nintzen herrialdeko estimuarekin ados ala desados dagoen eta hango gizaki gehienen gorespena ala gaitzespina zer merezi duen ikusi ondoren, ekintza horri bertutezkoa ala biziozkoa deitzen diot; Legegile gorenaren nahia neure arautzat hartuz, ekintza hori Jainkoak agindua ala debekatua dela ikusten badut, ona ala txarra, bekaturia ala egitekoa, deitzen diot; eta ekintza hori lege zibilarekin alderatzen badut, hau da, herrialdeko botere legegileak egindako arauarekin, orduan legezkoa edo legez kanpokoa deitzen diot, krimena edo krimena ez dena. Eta, era horretan, nonahitik hartuta ere ekintza moralen arauak eta zeinahi direlarik bertuteen eta bizioen ideiak gogamenean eratzeko darabiltzagun ereduak, hasieran sentipenez edo hausnarketaz harturiko ideia bakunen bilduma batean soilik dautza eta bilduma horixe dute osagai bakar; eta ekintza horien zuzentasuna ala zuzengabekeria legeren batean ezarritako moldearekin ados ala desados etortzean datza.

15. *Ekintza moralak edo absolutuki edo erlazio ideia moduan ikus daitezke.*

Ekintza moralak behar bezala bururatzeko ikuspegi bikoitzetik begiratu behar diegu. Lehenik, berenez diren moduan, hau da, ideia bakunen bilduma moduan. Horrela, mozkortasunak edo gezurrak modu mistoak deitu diedan ideia bakunen multzoa esan nahi dute, eta zentzu honetan zaldi baten edatea edo loro baten hitz egitea bezain ideia *positibo absolutuak* dira. Bigarrenik, gure ekintzak on, txar edo ez bata ez bestetzat hartzen dira, eta ikuspegi honetatik *erlatiboak* dira, arauen batekin ados ala desados egoteak egiten dituelarik arauzko ala arauz kanpoko, on ala txar; eta arau batekin alderatzen eta hortik sailkatzen diren neurrian, erlazioz lotzen dira. Horretara, gizon bati desafioa bota eta berarekin borrokatzeari, ekintza mota partikular baten modu positibo bat, ideia partikularren bidez beste guztietatik bereizten dena izanik, *duelua* deritza; eta berau Jainkoaren legearekiko konparazioz hartzen denean, bekatu izendatzen dugu; ohituraren legearekin alderatzen denean, ordea, herrialde askotan ausartasun eta bertutetzat hartzen da; eta zenbait gobernamenturen herri legeekin

alderatuz gero, heriotza merezi duen krimena. Kasu hauetan, modu positiboak izen bat duenean eta legearekiko duen erlazioaren arabera beste izen bat, bereizpena erraz ikus daiteke, substantzietan gertatzen den moduan, berauetan izen bat, adibidez *gizona*, gauza adierazteko erabiltzen baita eta beste izen bat, adibidez *aita*, erlazioa adierazteko.

16. *Ekintzen izenak sarri nahasten gaituzte.*

Baina, oso maiz ekintzaren ideia positiboa eta erlazio morala izen beraren pean hartzen direnez eta modua edo ekintza eta beronen zuzentasun edo zuzengabekeria morala adierazteko izen bera erabiltzen denez gero, erlazioa bera ez da hain aintzat hartzen eta maiz ez da bereizpenik egiten ekintzaren ideia positiboaren eta arauarekiko duen erreferentziaren artean. Berba berean kontsiderazio diferente bi horiek nahasteagatik, soinuen inpresioen eraginpean errazegi erori eta izenak gauzatzat hartzeko joera dutenak nahasi egiten dira sarri ekin- tzez juzgatzean. Horrela, beste batena den gauza bat hark jakin edo baimenik eman gabe hartzeari zehazki *lapurtu* deritza; baina hitz hori entzutean ekintza horren gaitzakeria morala eta legearekiko duen kontrakotasuna ere eskuarki ulertzen direnez, gizakiek lapurtu hitzaz adierazten den guztia gaitzesteko joera dute, zuzenbidearen arauarekin bat ez datorren ekintza txar moduan. Baina, hala ere, herritar pribatu batek zoroari, inori minik egin ez diezaion, ezpata kentzeari lapurreta zehazki esaten zaion arren, modu misto horri dagokion izen moduan, hala ere, Jainkoaren legearekin alderatu eta arau goren horrekin erlasionaturik hartzen denean, ez da bekatu edo legehaustea, nahiz eta lapurreta hitzak normalean horixe adierazi.

17. *Erlazioak kontatu ezin ahala dira, eta garrantzitsuenak bakarrik aipatuko ditut hemen.*

Giza ekintzek legearekiko duten erlazioa da, beraz, erlazio moralak deitzen diedanen funtsa.

Liburu handi bat egin behar izanen nuke mota guztietako *erla- zioak* ukitzeko; ez da, beraz, espero izatekoa nik hemen guztiak aipatzea. Gure oraingo helbururako nahikoa da hauen bidez erlazioa deritzan kontsiderazio zabal horretaz zein ideia ditugun azaltzea. Izan ere, erlazioa oso anitza eta hura sortzeko abaguneak ere hainbat eta hainbat izanik (gauzak elkarrekin erkatzeko dauden guztiak), ez da erraz araupean jartzea edo izenburuen pean sailkatzea. Aipatu ditudanak



inportanteenetarikoak dira nire ustez, eta erlazioen ideiak nondik jasotzen ditugun eta non oinarritzen diren ikusten laguntzeko modukoak. Baina gai hau amaitu aurretik, utz iezadazue esan dudanetik jarraian datozen oharrrak ateratzen.

#### 18. *Erlazio guztiak ideia bakunetan amaitzen dira.*

Lehenik, begi-bistakoa da erlazio oro sentipen eta hausnarketa bidez geureganatzen ditugun ideia bakunetan amaitzen eta oinarritzen dela eta, horrela, erlazioak ordezkatzeko diren berbak erabiltzen ditugunean geure pentsamenduetan daukagun guztia (zerbaitetan pentsatzen badugu edo pentsatzen dugunak esangurarik badu) edo beste batzuei adierazi nahi diegun guztia ezer bestek ez duela osatzen, elkarrekin alderaturiko ideia bakunek edo ideia bakunen bildumek baino. Hau beste inon baino nabarmenago proportzionalak deritzen erlazioetan ageri da. Izan ere, norbaitek dioenean «eztia argizaria baino gozoagoa da», argi dago haren pentsamenduak ideia bakun batean, gozotasunarenean, amaitzen direla, hau gainerako erlazio guztietan ere berdin gertatzen delarik, nahiz eta erlazioak konposatuak edo birkonposatuak direnean, nekez ohartzen garen osagai dituzten ideia bakunez. Adibidez, aita hitza aipatzen denean, lehenik gizon hitzak adierazten duen espezie partikularra edo ideia kolektiboa ulertzen da; bigarrenik; sortzea hitzak adierazten dituen ideia bakun sentigarriak, eta hirugarrenik, sortzearen ondorioak eta seme-alaba hitzak adierazten dituen ideia bakun sentigarri guztiak. Era berean, adiskide hitzak, beste gizaki bat maite duen eta hari ongia egiteko gertu dagoen gizakia adierazita, hurrengo ideia guztiak ditu osagai: lehenbizi, gizaki edo adimendun izaki hitzak bere baitan dituen ideia bakun guztiak; bigarren, maitasunaren ideia; hirugarren prest edo gertu egotearen ideia; laugarren, ekintzaren ideia, edozein pentsamendu edo higidura mota hartzen duena; bosgarrenik, ongiaren ideia, adiskidearen zoriona areagotu dezakeen zerbait esan nahi duena eta, aztertuz gero, azken batean ideia bakun partikularretan amaitzen dena, ongi hitz orokorrak bere baitan hartzen dituelarik ideia bakun horiek guztiak, halatan, non horiek erabat kenduz gero, hitz horrek inolako esanahirik ez duen. Eta, horrela, termino moral guztiak ere, agian urrunago jota, baina azken batean ideia bakunen bilduma batean amaitzen dira, zeren hitz erlatiboak, nahiz eta oso maiz ezaguntzat dauden beste erlazio batzuek adierazi lehenengo eta behin, erlazio batetik bestera pasaz gero, ideia bakunetan amaitzen baitira beti.

19. *Normalean erlazioari buruz beronen oinarri diren gauzen ideia bakunei buruz bezain nozio argia eduki ohi dugu.*

Bigarrenik, azpimarratu nahi dut erlazioan, gehienetan, beti ez bada, *erlazioari buruz beronen oinarri diren ideia bakunei* buruz bezain nozio argia edukitzen dugula; normalean erlazioaren funts den adostasun edo desadostasunari buruz beste edozeri buruz bezain ideia argiak edukitzen ditugu, ideia bakunak eta beraien mailak bereiztea besterik egin behar ez delarik, hori gabe ezagutza bereizirik ez genuke eta. Zeren, gozotasunaren, argiaren edo hedaduraren ideia argia badaukat, horietako bakoitzeko kantitate berdinen, handiagoren edo gutxiagoren ideia argia ere badaukat. Eta nik gizon bati dagokionez badakit zer den emakume batengandik, Senproniarengandik esate baterako, jaiotzea, badakit beste gizon bati dagokionez ere zer den Senpronia emakume berorrengandik jaiotzea; eta, horrela, anaitasunari buruz jaiotzari buruz bezain ideia argia daukat, edo argiagoa beharbada. Zeren sinetsiko banu Senproniak perrexil sail baten azpitik atera zuela Tito, haurrei kontatu ohi zaienez, eta horrela haren ama bilakatu zela, eta gero, era berean, perrexil sail horren azpitik atera zuela Kaio ere, emaginik trebeenak bezain argi ukanen nuke Tito eta Kaioren arteko anai erlazioa, bien jaiotzan era berean ama moduan emakume berak parte hartu izanaren nozioan oinarritu dudalako erlazioa, nahiz eta emakumeak nola egin zuen hori nik jakin ez edo horri buruz iritzi okerra ukan. Biok pertsona berarengandik sortuak izatearen ikuspegitik erkatzea nahikoa da, sortzearen inguru zehatza ezagutu gabe ere, anaiak diren ala ez diren diostan nozioari oinarria emateko. Baina, nahiz eta *erlazio partikularren* ideiak behar bezala aztertzen dituztenen gogamenetan modu mistoenak bezain argi eta bereiziak, eta substantzienak baino zehatzagoak izan daitezkeen, hala ere, erlazioei dagozkien izenak substantzien edo modu mistoen izenak bezain dudazkoak eta ziurtasunik gabekoak dira maiz, eta idea bakunen izenak baino asko dudazkoagoak. Izan ere, hitz erlatiboak konparazioaren ikurrak direnez eta konparazioa gizakien pentsamenduan soilik egina delarik gizakien gogamenean baino existitzen ez denez, gizakiek sarritan hitz horiek gauzen konparazio ezberdinei aplikatzen dizkie beren irudimenen arabera, eta hauek ez dira beti bat etortzen hitz bera darabilten beste batzuen irudimenekin.

20. *Erlazioaren nozioa bera da, edozein ekintza alderatzeko erabiltzen den araua egiazkoa zein faltsua izan.*

Hirugarrenik, *erlazio mor alak* deitzen diedanetan, ekintza arauarekin alderatuz, erlazioaren nozio egiazkoa daukat, erabilitako araua egiazkoa zein faltsua izan. Izan ere, zerbait yarda batez neurtzen badut, badakit neurtu dudan gauza yardatzat daukadan hori baino luzeago ala laburragoa den, neurtzeko erabili dudan yarda estandarra- rekin justu-justu bat ez etorri arren, hau beste kontu bat delarik. Zeren araua okerrekoa izan eta ni horretan erratu arren, alderatu dudan gau- zan ikusten dudan arauarekiko adostasun edo desadostasunak erlazioa hautematera narama. Nahiz eta okerreko araua erabilia neurtzeak haren zuzentasun moralaz oker juzgatzera eramanen nauen, egiazkoa ez den arauaz egiaztatu dudalako, hala ere ez naiz erratu ekintza horrek berarekin alderatzeko erabili dudan arauarekin duen erlazioari dagokionez, beronekin ados edo desados dagoelarik.



## XXIX. KAPITULUA

### Ideia argi eta ilunez, bereizi eta nahasiez

1. *Ideia batzuk argi eta bereiziak dira, beste batzuk, ordea, ilun eta nahasiak.*

Honainokoan gure ideien jatorria zein den azaldu dugu eta ideia mota ezberdinei begirada bat bota diegu; ikusi dugu zer alde dagoen ideia bakunen eta konplexuen artean eta nolatan ideia konplexuak modu, substantzia eta erlazioetan banatzen diren, hau guztiau, nire ustez, gogamenak gauzak atzeman eta ezagutzeko burutzen duen prozesua sakonetik ezagutu nahi duen edonork egin behar duelarik, eta hau egin ondoren, pentsatuko da agian behar bezain luze ekin diodala *ideiak* aztertzeari. Baina, hala ere, berauei buruz beste zenbait gogarren egiten uzteko eskatuko nuke.

Lehenengo esan behar dut batzuk *argiak* eta beste batzuk *ilunak* direla, batzuk *bereiziak* eta beste batzuk *nahasiak*.

2. *Argia eta iluna, ikusmenaren bidez azaldurik.*

Gogamenaren pertzepzioa ikusmenarekin erlazonaturiko hitzez hobeto azaltzen denez, gure ideiei buruz *argiak* eta *ilunak* zer esan nahi duen hobeto ulertuko dugu ikusmenaren objektuetan argia eta iluna zeri esaten diogun hausnartuz. Argia objektu ikusgarriek erakusten digutena denez, objektu batean ikus daitezkeen irudia eta koloreak zehatz-mehatz ikusteko adinako argitan ez dagoenari eta argipe hobean bereizgarri litzatekeenari *iluna* deitzen diogu. Era berean, gure

ideia bakunak *argiak* dira sortarazi dituzten objektuak sentipen edo pertzepzio ongi ordenatuari eskatzen zaizkion baldintza guztiekin aurkeztzen dituztenean edo aurkez ditzaketenean. Oroimenak horrela gordetzen dituenean eta eurretan pentsatzeko abagunea duen guztian oroimenari aurkez diezazkiokeenean, ideia argiak dira. Jatorrizko zehaztasun hau falta zaion heinean edota, nolabait esateko, lehenbiziko freskotasun hura galdu eta denborarekin hits eta zimel bilakatzen diren neurrian, ilunak dira. Ideia konplexuak argiak dira euren osagarri bakunak argiak direnean eta ideia bakun horien kopurua eta ordenamendua finkatuta dagoenean.

### 3. *Iluntasunaren kausak.*

Idea bakunetan iluntasunaren kausak badirudi hauexek direla, alegia, edo organoak motelak izatea, edo objektuak inpresio arin eta iragankorrak eragitea edo, bestela, oroimenak ideiak jaso bezala gordetzeko gai ez izaterainoko ahultasuna edukitzea. Zeren, ikusgai diren objektuetara berriro itzuliz gai hau atzematen lagun diezaguten, baldin hautemateko organo edo ahalmenek, hotzak gogorregi bihurturiko argizariak bezala, zigiluaren inpresioa hartzen ez badute hura inprimatzeko beharrezko izan ohi den presioa egin arren, edo argizari bigunegiak bezala, inpresio hori mantentzen ez badute behar bezala inprimatua izan ondoren, edo argizaria bere puntu egokian egonik, zigilua inpresio argia eragiteko moduko indarraz aplikatu ez denean bezala badihardute, hiru kasuotako edozeinetan zigiluak utzitako inpresioa iluna izanen da. Eta uste dut honek ez duela azalpen gehiagorik behar argiago uzteko.

### 4. *Zer den bereizia eta zer nahasia.*

Idea argia gogamenak, horretarako gai den organo batean behar bezala eragiten duen kanpoko objektu batetik harturikoa bezalako pertzepzio bete eta nabariz hautematen duena den bezala, ideia *bereizia* beste ideia guztietatik ezberdin hautematen duena da; eta ideia *nahasia* ezberdina behar lukeen beste batetik nahiko bereizgarri ez dena da.

### 5. *Objekzioa.*

Idea bat, ezberdina behar lukeen beste batetik nahikoa bereizten ez denean bakarrik baldin bada nahasia, baten batek esan lezake nekez aurki daitekeela ideia *nahasirik*. Zeren ideiak, edonolako delat

rik ere, gogamenak hautematen duen modukoa izan behar du nahitaez, eta pertzepzio honek nahikoa bereizten du beste ideia guztietatik, hauek ezin direlarik beste batzuk, hots, ezberdinak izan, gogamenak horrela dela hauteman gabe. Ez dago, beraz, ideiarik ezberdina behar lukeen beste batetik bereiztezina denik, ideia hori berberetik ezberdina izatea nahi izan ezean bederen, zeren beste guztietatik nabariki ezberdina baita.

#### *6. Ideien nahasmendua berauen izenarekin loturik dago.*

Zailtasun honi irtenbidea emateko eta edozein momentutan ideiei iratxikitzen zaien nahasmendua zerk eragiten duen behar bezala bururatzen laguntzeko, kontuan izan behar dugu izen ezberdinen pean sailkaturik dauden ideiak bereizi ahal izateko bezain diferenteak bide direla, halatan, non espezie bakoitza bere izenaz marka eta aparteko gauza moduan aipa daitekeen behar den guztian; eta ez dago ezer nabariagorik, izen ezberdinik gehienek gauza ezberdinak adierazten dituztela dioen baieztapena baino. Orain, gizakiak duen ideia oro zer den huraxe eta ideia beretik ez beste guztietatik bereizia denez, ideia hori nahasi bihurtzen duena berori adierazten duen izenetik diferentea den beste batez izendatu ahal izatea da; eta izen bi horien pean sailkaturiko gauzak bereizi mantentzen eta gauza batzuk izen batari eta beste batzuk besteari gehiago lotzea eragiten duen diferentzia kanpoan uzten delarik, izen ezberdin horien bidez mantendu nahi zen bereizketa erabat galtzen da.

#### *7. Nahasmendu hau eragiten duten akatsak. Lehenengo akatsa, ideia bakun gutxiegi osaturiko ideia konplexuak.*

Hona hemen, nire ustez, nahasmendu hau eragin ohi duten akats nagusiak.

Lehena, ideia konplexuren bat (ideia konplexuak dira, izan ere, nahasmendura joera handiena dutenak) ideia bakun gutxiegi osaturik dagoenean eta ideiek beste gauza batzuekiko komunak direnean, ideia horri izen ezberdina ezartzeko merezimendua dakarkioten diferentziak kanpo uzten dira. Horrela, orbandun larrua duen piztia baten ideia bakun hutsez osaturiko ideia duenak leopardoaren ideia nahasia dauka, ez baita bereizten katamotzarengandik, ezta larru orbanduna duten beste piztia askorengandik ere. Horretara, ideia hori, leopardo izen partikularra daukan arren, ezin bereiz daiteke katamotz edo pan-

tera izenek adierazitakoetatik, eta berdin har dezake katamotz zein leopardo izena. Zeuek pentsatzeko uzten dut hitzak termino orokorrez definitzeko ohiturak zenbateraino dakarren guk haiek erabiliz ideia nahasi eta zehazgabeak adieraztea. Gauza nabaria da ideia nahasiek hitzen erabilera zalantzagarrria izatea dakartela eta izen ezberdinetatik atera daitekeen abantaila deuseztatzen dutela. Berba ezberdinez adierazten ditugun ideiek euren izen ezberdinei dagokien alderik ez dutenean eta, beraz, izen horiez haiek bereizterik ez dagoenean, orduan egiazki dira nahasiak.

8. *Bigarren akatsa: ideia konplexuen osagai diren ideia bakanak elkarrekin nahastea.*

Gure ideiak nahasiak izatea eragiten duen beste akats bat hauxe da: ideia konplexua osatzen duten ideia partikularrak kopuruz behar adina izan arren, elkarrekin oso nahasirik egotea, halatan egon ere, non oso zaila den bereiztea ideia hori zeri dagokion gehiago, ematen zaion izenari ala beste edozein izeni. Nahasmendu hau ulertzeko berebizikoak dira koadro mota batzuk, artelan txundigarri moduan aurkeztu ohi direnak, pintzelaz taulan bertan koloreak aplikatzeko eragatik irudi oso arraro eta ezohikoak irudikatzen dituztenak eta ordena bereizgarririk ez dutenak. Horretara simetriarik ez ordenarik agertzen ez duten atalez egindako marrazkia ez da lainoz estaldutako zeruaren koadro bat baino nahasiagoa, hau, bertan koloreen edo irudien ordena handirik aurkitzerik ez badago ere, inork koadro nahasitzat ez daukana izan arren. Zer da, bada, orduan nahasia dela pentsatzera garamatzana, simetri faltak horretara ez baldin bagaramatza? Zeren argi dago ez garamatzala, hau imitatuz egindako beste koadro batez ezin baita esan nahasia denik. Nire erantzuna hauxe da: ideia bat nahasia dela pentsatzera ideia horri beste bati baino berezikiago ez dagokion izen bat aplikatzeak garamatzala: adibidez, koadro bat gizon baten edo Zesarren koadroa dela esaten denean, zentzua duen edonork nahasitzat dauka, baldin dagoen moduan batek ez badaki gizon edo Zesar izena hobeto doakion, tximino edo Ponpeio izena baino, azken biok gizon edo Zesar izenek esan nahi dituzten ideietatik diferenteak ordezkutzen dituztelarik. Baina mirail zilindriko batek, koadro horrekiko behar den moduan jarrita, koadroko marra irregular horiek dagozkien ordena eta proportziora ekartzen dituenean, orduan nahasmendua ezabatu egiten da eta begiak behingoan ikusten du gizon bat



edo Zesar dela, hau da, izen horiei dagokiela eta tximino batengandik edo Ponpeiorengandik, hau da, izen horiez adierazitako ideietatik, erraz bereiz daitekeela. Horixe jazotzen da gure ideiekin ere, gauzen irudiak bezalakoak dira eta. Adimenaren pinturetako ezein ere ezin dugu nahasia deitu, haren atalak nolanahi elkartuta egonda ere; zeren edozelakoak izanda ere, pintura horiek beste edozeinengandik argi eta garbi bereizgarri izanzen baitira, harik eta izen arrunt batez izendatuak izan daitezen arte, eta ezin ikus dezakegu izen horri adiera ezberdineko beste edozeini baino hobeto doakionik.

9. *Hirugarren akatsa: ideia bakunak aldakorrak eta zehazga-beak izatea.*

Gure ideiei ideia nahasi deitzera maiz garamatzen beste akats bat, ideioak zalantzazkoak eta zehazgabeak izatean datza. Horrela, ikusten dugu gizaki batzuek, euren hizkuntzetako hitz aruntak erabiltzeko hitzon esanahi zehatza ikasi arte itxaron barik, eragozpenik gabe erabiltzen dituztela, hitz hauei atxikitako ideia edo berau ordezkatzan duen berba aldatuz euren solasean agertzen diren ia aldiro. Horren arabera esan daiteke gizaki batek *elizaren* edo *idolatriaren* ideia nahasia duela, bataz edo besteaz pentsatzen duen bakoitzean, hitz bi horien ideiatik kanpoan zer utzi edo barrura zer sartu behar duen ziur ez dagoelako, ideia bi horietako bakoitza osatzen duten ideien konbinazio zehatzari iraunkorki eusten ez dionean; eta hau aurreko paragrafoan proposatu den arrazoi beragatik, hau da, ideia aldakor bat (ideia bakarra dela onartuz gero) ez dagokiolako izen bati beste bati baino gehiago eta, beraz, izen ezberdinek adierazi behar duten bereizpena galtzen dutelako.

10. *Izenetako err eferentziarik gabe nekez burura daiteke nahasmendua.*

Esan dugunetik ohar gaitezke zenbateraino diren *izenak*, gauzen zeinu finko direnez eta era ezberdinez ordezkatzan eta berez ezberdinak diren gauzak bereiz mantentzen dituztenez, guk ideiei bereiziak edo nahasiak deitzearen kausa, gogamenak bere ideien eta izen horien artean jartzen duen erreferentzia sekretu eta oharkabearen bidez. Hau agian hobeto ulertuko da hirugarren Liburuan hitzei buruz diodana irakurri eta aztertu ondoren. Baina ideiak izen ezberdinekin, gauza ezberdinen zeinu gisa, duten erreferentzia hori kon-tuan hartu gabe, zail izanzen da ideia nahasia zer den esatea. Eta,

horregatik, gizaki batek izenen batez mota bateko gauzak edo gauza partikular bat, beste guztietatik ezberdina dena, izendatzen duenean, izen horri lotzen dion ideia konplexua, zenbat eta osatzen duten ideiak partikularragoak izan eta euren kopurua eta ordena handiago eta zehatzagoa, orduan eta bereiziagoa izanen da. Zeren zenbat eta aipaturiko koalitateetatik gehiago eduki, alde hautemangarri gehiago izanen ditu eta beste izen batzuei dagozkien ideietatik, hurbilekoen dituenetatik ere, bereiz eta ezberdin mantendu ahal izanen da eta nahasmendu oro ekidin.

#### 11. *Nahasmendua bi ideiari dagokie beti.*

Nahasmenduak bereiz behar luketen bi gauza bereiztea zail bihurtzen duenarik, bi ideiari dagokie beti, eta bata bestetik hurbil daudenei batez ere. Horregatik, ideia bat nahasia dela susmatzen dugun guztian, arretaz aztertu beharko dugu zein den beronekin nahasteko arriskua duen edo beronetatik erraz banatu ezin daitekeen beste ideia, eta beti aurkituko dugu beste ideia hori beste izen batez izendatzen dela eta beste gauza bat izan behar duela, beronetatik, alabaina, aski bereizia ez dena, zeren edo gauza bera da, edo haren zati bat, edo behintzat izen horrekin izen berorren pean sailkaturiko bestea bezain egokiro izenda daitekeena; eta horrela beste ideiatik ez du izen ezberdinek suposatzen duten aldea mantentzen.

#### 12. *Idea nahasien kausak.*

Horixe da, nire ustez, ideiei dagokien nahasmendua, beti ere bere baitan izenekiko halako erreferentzia sekretu bat daramana. Eta ideien beste nahasmendurik ere egon arren, hauxe da bederen istilu gehien sortzen duena gizakien pentsamenduetan eta diskurtsoetan, izena ezarritako ideiak baitira gehienbat gizakiek beren barruan pentsatzeko eta beti ere besteekin solasean aritzeko erabiltzen dituztenak. Eta horregatik, euren hitz-hotsak bezain bereizgarri ez diren bi izen ezberdinez markaturiko bi ideia ezberdin dauden tokian, hutsik gabe dago han nahasmendua. Nahaste hau saihesteko bidea honexetan datza, alegia, beste batzuetatik bereizten duten osagai guztiak ideia konplexu bakarrean ahalik zehazkien bildu eta elkartzean eta kopuru eta ordena mugatuan horrela bilduriko osagaioi beti izen bat bera ezartzean. Baina hau ez datorrenez bat gizakien nagiarekin ez harropuzkeriarekin, eta egiaren helbururako soilik balio duenez, eta hau ez da beti haien asmoen jomuga, halako zehaztasuna ez da espero ditu-

gun gauzetarikoa, nahi ditugunetarikoa baizik. Eta ia ezdeus hutsa diren ideia zehazgabe eta aldakorrei egindako izenen aplikazio laxoak gure ezjakina estaltzeko balio izaten duenez batetik, eta gainontzekoak nahasteko eta aldrebesteko bestetik, hau benetako jakituriatzat eta ezagutze gaian gailentasun seinaleztat hartzen delarik, ez da harritzekoa gizakirik gehienek hitzak horrelaxe erabiltzea, besteek hori berori egiten dutelako kexu diren artean. Baina, gizakien nozioetan aurkitzen dugun nahasmenduaren zati ez txikia era zehatz eta agiatiagoan hitz egiten saiatuz ekidin litekeela uste dudan arren, nahasmendu hau nahitakoa dela baieztatzetik oso urrun nago. Ideia batzuk hain dira konplexuak eta zati anitzez osatuak, non oroimenak ez daukan erraz ideia bakunen konbinazio zehatz bera izen bat beraren pean gordezten, eta oraindik zailago daukagu behin eta berriro beste gizaki baten ahotan izen batek zein ideia adierazten duen igartzen. Horietako lehenengotik gizakiaren baitako arrazoinamendu eta iritzietan sortzen da nahasmendua; bigarrenetik, besteekin eztabaidatu eta argudiatzean sarri askotan izaten den nahasmendua. Baina hurrengo Liburuan zabalago azterturik ditudanez hitzak eta berauen akatsak eta abusuak, hemen ez diot honi gehiagorik ekinen.

13. *Idea konplexuak alde bereiziak eta alde nahasiak izan daitezke.*

Gure ideia konplexuak bakunen bildumek eta, beraz, askotari-ko bakunek osatuak direnez, oso argi eta bereiziak izan daitezke batetik, eta oso ilun eta nahasiak bestetik. *Kiliedro* batez, edo mila aurpegiko gorputz batez mintzo den gizaki baten baitan, irudi honen ideia oso nahasia izan daiteke, kopuruarena guztiz bereizia izan arren; horretara, mila zenbakiaren inguruko bere ideia konplexuaren zatiari buruz diskurritzeko eta frogapenak egiteko gai delarik, *kiliedroaren* ideia bereizia daukala pentsa dezake, nahiz eta argi egon ez duela haren irudiaren ideia hain zehatza, 999 aurpegi baino ez dituen beste batetik bereizteko modukoa. Honetaz ez ohartzeak hainbat errakuntza dakartza gizakien pentsamenduetara eta hainbat nahasmendu euren diskurtsoetara.

14. *Honek, aintzat hartu ezean, nahasmendua sortzen du gure arrazoibideetan.*

Berak *kiliedro* baten irudiaren ideia bereizia duela uste duenak egin beza aproba, materia uniforme bereko zati bat, adibidez, urre edo

argizari zati bat, bolumen berekoa, hartuz eta berarekin 999 aurpegi-ko irudi bat eginez. Bereizi ahal izanen ditu, dudarik ez dut, ideia bi horiek bata bestetik aurpegien kopurutik, baita eurei buruz bereiztasunez arrazoitu eta argumentatu ere, bere pentsamenduak eta arrazoi-namendua euren kopuruen ideietan jarrita mantentzen dituen bitartean, hala nola, bataren aurpegi kopurua erdibi daitekeela eta bestearena erdibitzerik ez dagoela eta horrelakoak esanez. Baina bi horiek iruditik bereizten jarrita, galduta dabilke, eta ezin izanen du, nik uste, bi ideia bata bestetik bereiziak eratu gogamenean, urrezko pieza bi horien irudi hutsetatik, urre zati bi horiek bata kuboa eta bestea bost aurpegiko irudia balira, egin ahal izanen lukeen moduan. Ideia osagabe horien inguruan, bestalde, joera handia izaten dugu geure buruak engainatzera eta besteekin eztabaidaka aritzera, batez ere izen partikularrak eta eskuarki ezagunak dituztenean. Zeren, konbentzituta gaudelarik argi daukagun ideiaren zatiaz, eta ohiko dugun ideiaren izena ideia guztiari, inperfektua eta iluna den zatia ere barruan duenari aplikatzen zaiolarik, izen hori zati nahasia adierazteko erabiltzera jotzen dugu, eta beronen esangurako zati ilunari buruz beste zatiari buruz egiten dugun konfiantza beraz ondorioak ateratzera.

#### 15. *Honen adibide bat betierekotasunean daukagu.*

Betierekotasun hitza ahotan maiz erabiltzen dugularik, haren ideia positiboa eta osoa daukagula pentsatzera garamatza horrek, hori beste hau esatea adina delarik, alegia, ez dagoela iraupen horren zatirik, gure ideian argiro ezaguna ez denik. Egia da hori uste duenak iraupenaren ideia argia daukala; gainera, iraupen oso luzearen ideia argia ere ukan dezake; horrez gain, iraupen luze horren beste luzeago batekiko alderaketaren ideia argia ere ukan dezake; baina iraupenaz, luzeenaz ere, duen ideian *amairik gabeko suposatzen duen iraupena - ren luzera guztia* sartu ezin duenez, bere pentsamenduan irudikaturiko iraupen luze horren mugetatik harago dagoen bere ideiaren zati hori oso ilun eta zehazgabea da. Horra zergatik, betierekotasunari buruz edo beste edozein infinituri buruz eztabaidatzen eta argudiatzen denean, absurdukeria nabarmenetan nahasten garen, besterik ezinean.

#### 16. *Materiaren zatigarritasun infinitua.*

Materiari dagokionez, ez daukagu haren zatien txikitasunaren ideia argirik gure sentimenetan eragina duen zati txikienetik askoz harago, eta horregatik materiaren amaigabeko zatigarritasunaz mintzo

garenean, zatitzearen eta zatigarritasunaren ideia argiak dauzkagun arren, baita gauza oso bat zatituz egindako zatiena ere, hala ere, horrela zati daitezkeen korpuskuluen, edo gorputz nimiñoen, oso ideia ilun eta nahasiak baino ez ditugu, behin aldez aurreko zatitzez gure sentimenen pertzepzioa askogatik gainditzen duten txikitasunera ekarritz gero. Eta, horrela, zatiketaz oro har edo abstraktuan eta *totum* eta *pars*-aren arteko erlazioaz baino ez dugu ideia argi eta bereizirik; baina horrela, zenbait progresioren ondoren amairik gabe zati daitezkeen gorputzaren bolumenaz, uste dut inolako ideia argi eta bereizirik ez dugula. Zeren edonori galdetuko nioke, ea berak, sekula ikusi duen hauts atomorik txikiena hartuta, izanen ote lukeen ideia bereizirik (hedadurarekin zerikusirik ez duen kopurua salbu utzita) atomo horren 100.000renaren eta 1.000.000renaren artean. Edo bere ideiak puntu horretaraino zorrotz ditzakeela uste badu, partikula bi horiek bistatik galdu gabe, zifra horiei gehi diezaiela hamarna zifra. Ez da arrazoigabeko maila horretako txikitasuna suposatzea, zeren puntu horretaraino eramandako zatiketak ez baitu amaigabeko zatiketarik erdibitzeak baino hurbilago jartzen. Aitortu beharra dut nik neuk ez dudala gorputz horien bolumen edo hedaduraren ideia argi bereizirik, baina ere ideia oso iluna daukat eta. Era horretan, uste dut ezen, gorputzen amaigabeko zatiketaz mintzo garenean, zatiketaren objektua eta oinarria den haien bolumen bereiziez dugun ideia, behin progresioan apur bat aurrera joz gero, nahasi izatera eta ia-ia ilunbean galtzera heltzen dela. Zeren handitasuna baino irudikatzen ez duen ideia ezinbestez da nahasia eta iluna, baldin hamar bider handiagoa den beste batetik, kopuruagatik izan ezean, bereizterik ez badugu halatan, non esan genezakeen hamarren eta baten ideia argi bereizirik ditugula, baina ez horrelako bi hedaduraren ideia bereizirik. Argi dago, beraz, gorputzaren edo hedaduraren amaigabeko zatiketaz mintzo garenean, gure ideia bereizi eta argi bakarrak kopuruaz direla, baina hedaduraren ideia argi bereizirik, progresioan apur bat aurrera joz gero, erabat galtzen direla. Eta zati nimiño horiez ez dugu inongo ideia bereizirik, zeren, infinituaz ditugun ideia guztiak bezala, azkenean beti ere *gehitu beharreko kopurura* itzultzen delako, baina *bene-tako zati infinituen* inolako ideia berezira inoiz ere heldu gabe. Zatiketaz, egia esan, ideia argia daukagu, hartaz pentsatzen dugun guztian; ez dugu, haatik, materialen dauden zati infinituez ideia argiagorik, kopuru infinituaz, harturiko edozein kopururi kopuru berriak

gehitzeko gai izanik, daukagun baino. Izan ere, amaigabeko zatigarritasunak ez digu ematen benetako zati infinituaz ideia argi eta bereiziagorik, gehigarritasun infinituak (horrela mintzatzerik badut) egiazko kopuru infinituaz ematen diguna baino, bata eta bestea kopurua beti gehitzeko ahalmenean baitautza, kopuru hori nahi denik handiena izanda ere. Horretara, oraindik gehitzeko geratzen denaz (*horrexe-tan datza infinitutasuna*) ideia ilun, inperfektu eta nahasia baino ez daukagu, berroretaz ezin dugularik argumentatu edo arrazoitu, aritmetikan 4 edo 100 zenbakiaz bezalako ideia bereizirik ez daukagun zenbaki batez egin dezakegun baino ziurtasun eta argitasun handiagoz, horretaz ideia ilun eta erlatiboa baino ez daukagularik, hau da, beste edozeinekin alderatuta infinitua oraindik handiagoa dela adierazten diguna; eta infinitua 400.000.000 baino handiagoa edo gehiago dela esaten edo bururatzen dugunean, ez dugu haren ideia positiboagorik eta argiagorik, 40 edo 4 baino handiagoa dela esanen bagenu baino, 400.000.000 ez baitago 4 baino zenbaki gehiketaren amaieratik hurrago. Izan ere, lau lauri gehituz jokatzen duena lauhun milioi lauhun milioiri gehituz ari dena bezain laster helduko baita gehiketa guztiaren azkenera. Eta gauza bera gertatzen da betierekotasunari dagokionean ere; lau urteren ideia baino ez duenak, lauhun milioi urteren ideia duenak bezain ideia positibo osoa dauka betierekotasunaz, zeren urte kopuru bi horiez haraindi betierekotasunetik geratzen dena hain argia da batari zein besteari dagokionez, hau da, ez bata ez besteak dauka horren inolako ideia positibo argirik. Zeren lau urteri beste lau gehituz ari dena betierekotasunera lauhun milioi urteri beste lauhun milioi gehituz bezain laster eta, nahiago izanez gero, emaitza gura adina aldiz bikoiztuz jokatzen duena bezain laster helduko da, geratzen den troka progresio horien guztien amaieratik egun baten edo ordubeteren luzeratik bezain urrun dagoelako oraindik. Izan ere, finitua den ezerk ez du inolako proportziorik infinituarekin, eta beraz, gure ideiek ere ez, finituak direlako. Gauza bera gertatzen da hedaduraz daukagun ideari dagokionez ere, gehiketaz luzatzen edo zatiketaz laburtzen dugunean eta gure pentsamenduak espazio infinituraino luzatzen saiatzen garenean. Izan ohi ditugunen artean handienak bide diren hedaduraren ideia horiek zenbait aldiz biderkatu ondoren, espazio horren ideia argi eta bereizia bistatik galtzen zaigu eta nahasiki hautematen dugun hedadura handi bihurtzen da, oraindik hedadura handiagoa geratzen zaiolarik; eta horretaz argumentatu edo

arrazoitu nahi dugun guztian zeharo galduta ibiliko gara eta ideia nahasiek, beraien alde nahasiari dagozkion argumentu eta dedukzioetan ari garela, nahasmendura eramanen gaituzte beti.





# XXX. KAPITULUA

## Ideia errealez eta fantastikoez

### 1. *Ideiak euren arketipoekin erlazioan hartuta.*

Ideiei buruz esana dugunaz gain, beste gogarpen batzuk ere badagozkie, *euren iturburu diren* edo *eurek irudikatzen dituzten gau - zak* kontuan hartuta; eta ikuspegi honetatik hirutan bana daitezke:

Lehenik, errealak edo fantastikoak

Bigarrenik, egokiak edo desegokiak

Hirugarrenik, egiazkoak edo faltsuak

Lehenik, *ideia errealtzat* hartzen ditut naturan oinarria dutenak eta gauzen izate eta existentzia errealarekin eta arketipoekin ados datozenak. *Fantastikoak* edo *kimerikoak* naturan oinarririk ez dutenei eta arketipo gisa erlazonaturik dauden izakiaren errealtatearekin ados ez datozenei deitzen diet. Arestian aipaturiko ideia mota ezberdinak aztertzen baditugu, jarraian dioguna aurkituko dugu.

### 2. *Ideia bakun guztiak gauzen agerpen errealak dira.*

Gure *ideia bakun* guztiak errealak dira, gauzen errealtatearekin ados datozenak, ez existitzen denaren imajinak edo irudikapenak direlako denak, honen kontrakoa jada frogatua baitugu gorputzen lehen koalitatei ez beste guztiei buruz. Baina zurtasuna eta hoztasuna elurraren baitan existitzen ez diren arren, bertan oinazea existitzen den baino areago, zurtasun eta hoztasunaren, oinazearen eta abarren

ideiak, haatik, kanpoko gauzek gudan dauzkaten ahalen ondorio direlarik, gure Egileak sentipen horiek guregan eragiteko jarritakoak, gudan dauden benetako ideiak dira eta beraien bidez bereizten ditugu gauzen beraien baitan egiatan dauden koaliteteak. Zeren, agerpen horiek gurekin zerikusia duten gauzak ezagutu eta bereizteko seinaleak izateko diseinatuak direlarik, gure ideiek xede horretarako ere balio digute eta ezaugarri egiatan bereizgarriak bezalakoak dira, direla *efektu iraunkorrak*, edo direla gauzetan eurentan dagoen zerbaiten *antzeko-tasun zehatzak*, zeren errealitatea agerpen horiek izaki errealean osae-ra ezberdinekin duten egokitzeapenean baitatza. Baina osaera horiei kausa edo eredu direnez erantzuten dien ala ez, garrantzirik gabeko gauza da; nahikoa da beti haiek sortaraziak izatea. Eta, horretara, gure ideia bakunak errealak eta benetakoak dira beti, gure gogamenetan ideia horiek eragiten dituzten gauzen ahal horiei erantzuten dietelako eta beraiekin ados datozelako, hauxe delarik haiek errealak, eta ez nahierara egindako fikzioak, izateko behar den guztia. Zeren ideia bakunetan, azaldu dugun moduan, gogamena gauzek bere baitan duten eragiketara erabat mugaturik dago eta harturikoez gain ez du bere kabuz beste ideia bakunik egiterik.

### *3. Ideia konplexuak nahitako konbinazioak dira.*

Gogamena bere ideia bakunekiko erabat pasiboa den arren, esan genezake, nik uste, ez dela horrela bere ideia konplexuekiko. Zeren, hauek ideia bakunak elkartu eta izen beraren pean baturiko konbinazioak direlarik, argi dago gizakiaren gogamenak nolabaiteko askatasuna darabilela ideia konplexu horiek eratzean. Nola bestela gerta liteke gizaki batek urrez edo justiziaz duen ideia beste batek beroriez duenetik ezberdina izatea, batak ideia horretan besteak jarri ez duen ideia bakunen bat sartu duelako edo besteak sartutako bat kanpoan utzi duelako ez bada? Auzia, orduan, konbinazio horietatik zein den errealak eta zein irudizkoa jakitea da, ideien bilduma horietarik zein datorren ados gauzen errealitatearekin eta zein ez.

*4. Modu mistoak eta erlazioak, ideia bateragarritz osatuak, errealak dira.*

Bigarrenik, *modu mistoak* eta *erlazioek* gizakien gogamenean daukatenaz aparte beste errealitaterik ez dutenez, mota honetako ideiak errealak izan daitezen elkarrekin existitzeko eta bateragarri izateko posibilitatea baino ez da behar. Ideiok eurok arketipoak direlarik,

ezin dute arketipoetatik alderik ukan eta, beraz, ezin daitezke kimerikoak izan, norbaitek bateragarri ez diren ideiak nahasi ezean. Izan ere, ideia hauek hizkuntza ezagun bateko izenak iratxikirik dituztenez, ideioek gogamenean dituenak izen horien bidez adierazten dizkielarik besteei, ez da nahikoa existitzeko posibilitate hutsa; jarritako izenaren esangura arruntarekin adostasun bat behar dute, fantastikotzat hartuak izan ez daitezen, norbaitek erabilera normalean askatasuna deritzanari justizia izena emanen balio gertatuko litzatekeen moduan. Baina fantastikotasun hau hizkuntz propietatearekin dago lotuago, ideien errealitatearekin baino. Zeren gizaki bat arriskuaren aurrean urduritasunik gabe egotea, zer egin behar duen lasaitasunez pentsatzea eta ekintza irmotasunez burutzea, existi daitekeen ekintza baten modu misto bat edo ideia konplexu bat da. Baina arriskuaren aurrean urduritasunik gabe egotea nork bere ez arrazoimena ez trebezia erabili gabe ere gerta daitekeena da, eta, beraz, bestea bezain ideia erreala. Hala ere, lehenengoari adore izena ematen zaiolarik, izen honekin duen erlazioaren arabera ideia zuzena edo okerra izan daiteke, baina besteak, inolako hizkuntza ezaguneko izen eskuarki onarturik iratxikita ez duelarik, ezin du akatsik ukan, bera ez den beste ezerekiko erreferentziarik ez duelako.

5. *Substantzien ideia konplexuak errealak dira gauzen existentziarekin ados datozenean.*

Hirugarrenik, *substantziez* ditugun ideiak gugandik kanpo existitzen diren gauzen erlazioan eta substantziak errealitatean diren moduan irudikatzeko eginak direnez, ezin dira errealak izan, ez bada, ideia bakunen konbinaketak direlarik, gugandik at elkarturik existitzen diren gauzetan zinez batuta eta bizikidetuta. Fantastikoak dira, aldiz, sekula egiaz batuta egon ez diren eta sekula substantzia berean elkartuta aurkitu izan ez diren ideia bakunen bildumez osatuak, hala nola, zaldiaren burua eta buru horri lotuta giza formako gorputza duen arrazoidun kreatura bat edo *zentauro* bat deskribatu obi duten moduan, edo gorputz hori, oso xafllakor, fundigarri eta finkoa, baina ur arrunta baino arinagoa, edo gorputz uniforme eratu gabeko bat, sentimenetara ematen duenez, antzeko atalez osatua eta pertzepzioz eta nahimenezko mugikortasunez hornitua. Horrelako substantziak existi litezkeen ala ez, agian inoiz ere ez dugu jakinen; baina dena dela, substantzien ideia hauek guk ezagutzen dugun inongo eredure-

kin bat ez datozenez, eta inongo substantziak bilduta inoiz erakutsi ez dizkigun ideien bildumetan dautzanez, irudizko ideia hustzat eduki behar ditugu; baina askoz ere irudizkoagoak dira beren baitan atalen arteko bateraezintasun edo kontraesanen bat daukatenak.

# XXXI. KAPITULUA

## Ideia egokiez eta desegokiez

1. *Ideia egokiak beren arketipoak perfektuki irudikatzen dituz - tenak dira.*

Gure ideia errealetarik batzuk egokiak dira eta beste batzuk desegokiak. *Egokiak* deitzen diedanek gogamenak berauen sorburutzat dituen arketipoak perfektuki irudikatzen dituzte: gogamenak arketipo horien ordeztatu nahi ditu eta ideioak haiekin lotu. *Ideia desegokiak* berauen erreferentzia diren arketipo horiek aldeztatu edo ez osoratu irudikatzen dituztenak dira. Honetan oinarrituta, argi dago jarraian datorrena.

2. *Ideia bakun guztiak egokiak dira.*

Lehenik, *gure ideia bakun oro dira egokiak*. Izan ere, guran sentipen horiek eragiteko Jainkoak gauzetan jarri eta eraturiko ahalak besterik ez direnez, ahal horiei egokiro erantzuten dietenak izan beharra dute, eta ziur gaude adostatu dagoela gauzen errealtatearekin. Zeren, azukreak gure baitan zutasuna eta gozotasuna deritzen ideiak eragiten baldin baditu, ziur gaude azukrearen baitan gure gogamenean ideia horiek eragiteko ahal dagoela, bestela ezin zituzkeen eragin eta. Horretara, sentipen bakoitzak gure sentimenei batean eragiten duen ahalari erantzuten diolarik, horrela eragindako ideia erreala da (eta ez gogamenean fikzioa, ez baitauka ideia bakunak sortzeko ahalmenik), eta egokia izan behar du ezinbestez, ahal horri erantzun besterik ez

baitu egiten, eta, horregatik, ideia bakun guztiak egokiak dira. Egia da gudan ideia horiek eragiten dituzten gauzak ez ditugula izendatzen ideion *kausa* balira bezala, ideia horiek gauzetan dauden izaki errealak balira bezala baino. Zeren sua, ukimenerako mingarria dela esan badaiteke ere, argitsua eta beroa dela esaten dugu, argia eta berotasuna suaren baitan egiazki dagoen zerbait balira bezala, gure baitan ideia horiek kitzikatzeko ahalak baino areago, eta horregatik suaren baitako edo suaren koallitateak deritze. Baina hauek, izatez, gure baitan ideiak kitzikatzeko ahalak besterik ez direnez, zentzu honetan ulertu behar zait *bigarren koallitateak* gauzetan euretan daudela esanez edo euron ideiez gudan berauek kitzikatzen dituzten objektuak direla baieztatuz mintzo naizenean. Hitz egiteko erok, nahiz eta herritar nozioetara egokituta, hori gabe ez liguketelako ezer ulertuko, hala ere ez dute egia-tan besterik adierazten, gure baitan zenbait sentipen edo ideia kitzikatzeko gauzetan existitzen diren ahal horiexek baino. Izan ere, suak ikusmenean eta ukimenean eragiten dituen inpresioak hartzeko organo egokirik ez izatea gertatuz gero, edo organo horiekin loturiko gogamenik izan ezean suarengandiko edo eguzkiarengandiko inpresio horien bidez argiaren eta berotasunaren ideiak hartzeko, munduan ez legoke inolako argirik ez berotasunik, oinazerik ez legokeen bezalaxe, oinazea sentitzeko kultura sentikorrik ez balego, eguzkiak orain arte bezala segitu arren eta Etna mendiak garra inoiz baino gorago jaurtiki arren. Zein bere ideiaz ezagutzen ditugun solidotasuna, hedadura eta beronen akabera den irudia, higidura eta atsedenearekin batera, orain egon dauden bezalaxe errealki leudeke munduan, berauek hautemateko kultura sentikorrik egon ala ez egon, eta horregatik badugu arrazoirik horiek materiaren aldakuntza errealtzat eta gorputzetatik hartzen ditugun sentipen ezberdinen kausa kitzikatzailatzat hartzeko. Baina hau ez denez hemen dagokigun ikerketa, honetan sakonago sartu barik, ideia konplexuen artean zein diren egokiak eta zein desagokiak azaltzera pasako naiz.

### 3. *Modu guztiak egokiak dira.*

Bigarrenik, *moduez ditugun ideia konplexuak* gogamenak ezein arketipo errealekiko edo beste lekuren batean existitzen den ezein eredu finkorekiko erreferentziarik gabe biltzen dituen ideia bakunen nahitako bildumak direnez, *ideia egokiak* dira eta, izan ere, ezin dira besterik izan. Zeren egiazki existitzen den zerbaiten kopia

moduan barik, gogamenak eratzen duen arketipo bezala sortzen direnez, gauzak sailkatu eta izendatzeko erabiltzen dituelarik, ezin dute ezeren faltarik eduki, beraietako bakoitzak gogamenak bilaturiko ideien konbinazio hura eta, beraz, perfekzio hura daukalarik halatan, non gogamenak, eurekin konforme geratzen delarik, ezin duen beraietan ezeren faltarik aurkitu. Horrela, hiru angelu egiten dituzten hiru aldeko irudi baten ideia daukadanean, ideia osotua daukat, hura perfektu egiteko beste ezer behar ez dudalarik. Eta argi dago gogamena erabat konforme dagoela ideia honen perfekzioarekin eta ez du somatzen inoren adimenak eduki izan duenik edo eduki dezakeenik triangelu hitzak esan nahi duen gauzaren ideia osotuagorik edo perfektuagorik —existitzen dela suposatuta-, triangelua, nonahi eta edonola dagoelarik ere, harentzat funtzezko den guztia edo hura osotzeko beharrezko den guztia esanez bere hiru alde eta hiru angeluz definitzen duen ideia konplexuak baino. Baina *substantziez dauka -gun ideietan* besterik gertatzen da. Hauetan, gauzak errealtatean existitzen diren moduan kopiaitu eta haien propietate guztien funtsa den gauzaren osaera irudikatu nahirik, konturatzen gara gure ideiak ez dutela nahi dugun perfekzioa erdiesten; egiaztatzen dugu haietan izatea gustatuko litzaigukeen zerbait falta dutela; eta horregatik desegokiak dira guztiak. Baina *modu mistoak* eta *erlazioak*, eredurik gabeko arketipoak direnez eta euren burua baino iruditu beharrik ez dutenez, egokiak izan behar dute ezinbestez, dena beraientzat baitira. Hautemandako arriskuaren ideia, beldurrak eragindako larridurarik ezarena, egin beharrekoaren gogarpen baketsuarena eta arriskuaren ikararik gabe edo arriskuak galarazi gabe hura bete bideratzearena bildu zituenak konbinazio horrek osaturiko ideia zeukan bere gogamenean; eta, izatez egiazki dena izatea eta bere baitan dituen ideia bakunak baino ez edukitzea beste helbururik bilatzen ez zuelarik, nahitaez eduki behar izan zuen ideia egokia; eta, horretara, hau bere oroimenean *adore* izena iratxikita jarritz besteei ideia hau adierazteko eta aurrerantzean honekin ados datorrela ikusitako edozein ekintzari izen hori emateko, eredu bat zeukan ekintzak beronekin zer neurritan datozen ados neurtzeko eta horren arabera izendatzeko. Ideia honek, horrela eratu eta eredu moduan jarrita, egokia izan behar du ezinbestez, ez baitu bere buruarekiko beste ezerezikiko erreferentziarik, ezta lehenbizi konbinazio hau egin zuenaren gustua eta nahia beste sorbururik ere.

#### 4. *Moduak, ezarritako izenei buruz, desegokiak izan daitezke.*

Gainera, gero beste bat baldin badator eta aurrekoarekin solasean *adore* hitza ikasten badu, honek *adore* izena, besteak izen horri aplikatu dion eta berori darabilenean gogamenean duen ideiatik ezberdinari eman diezaioke. Eta kasu honetan pentsamenduan duen ideia hori bestearen ideiarekin bat etortzea nahi badu, mintzatzean darabilen hitza irakatsi zionaren hitzarekin soinu bat datorren moduan, orduan beronen ideia oso okerra eta desegokia izan daiteke. Izan ere, kasu honetan, bestearen ideia delarik berak pentsatzean daukan ideiarene eredu, bestearen hitza edo soinua mintzatzean eredu duen moduan, bere ideia akastuna eta desegokia da, ideia horrekin lotzen duen eta berorri jarritako izenaz adierazi nahi duen arketipo edo eruditik aldentzen den heinean. Izan ere, izen hori beste gizakiaren ideiarene zeinu litzateke (lehenbizi erabilera propioan honixe atxikia delarik) eta bere ideiarena ere bai, harekin ados etortzea nahi duen heinean. Eta beronen ideia beste harekin erabat ados ez badator, akastuna eta desegokia da.

#### 5. *Orduan, propietatez hitz eginda, beste gogamenen batean dauden ideiei dagozkiela esan nahi duelako.*

Horregatik, guk *moduen* ideia konplexu hauek beste izaki adimendun baten ideiekin lotzen ditugunean eta haiekin ados etortzea nahi dugunean beraiei aplikatzen diegun izenen bidez adieraziz, orduan akastunak, okerrak eta desegokiak izan daitezke, gogamenak euren arketipoa eta eredu izatea nahi duenarekin bat ez datozelako, eta ikuspegi honetatik soilik izan daiteke moduen ideia bat okerra, inperfektua edo desegokia. Eta horregatik ideia mistoez ditugun ideiak beste edozein baino errazago izan daitezke akastunak, baina honek zerikusi gehiago du hizkuntz propietatearekin ezagutzaren doitasunarekin baino.

#### 6. *Substantzien ideiak, esentzia errealei dagozkienez, ez dira egokiak.*

Hirugarrenik, gorago azaldu dut zein *idea* ditugun *substantzietz*. Orain, ideia horiek gogamenean erreferentzia bikoitza dute. 1. Batzuetan, gauzen espezie bakoitzaren esentzia errela bide denari dagozkio. 2. Beste batzuetan, existitzen diren gauzen irudiak edo irudikapenak izatea soilik nahi izaten da, beraietan hauteman daitezkeen



koalitateen bidez. Kasu biotan original edo arkitepo horien kopiak inperfektuak eta desegokiak dira.

Lehenengoari dagokionez, gizakiek substantzien izenak esentzia errealez —horrelako edo halako espeziekoak izatea dakarkieenez— hornituriko gauzak ordezkatzeko egin ohi dituzte, eta, izenek gizakien gogamenean dauden ideiak baino ordezkutzen ez dituztelarik, beren ideiak esentzia erreal horiekin lotu behar dituzte («must refer»), haien arketipo bezala. Gizakiek —batik bat munduaren alde honetan irakasten diren doktrinetan hezi direnak— substantzien zenbait esentzia espezifiko suposatzen dituztela, banako bakoitza, zein bere espezie diferentean, esentzia horren arabera egina eta bertan partaide delarik, hain da frogarik behar ez duena, non arrarotzat joko litzatekeen norbaitek horrela ez jokatzeara. Eta, horretara, eskuarki izen espezifikoak aplikatzen dizkiete esentzia erreal horien bidez bereiziriko gauzei eta izen horien pean substantzia partikularrak sailkatzen dituzte. Ba al da, izan ere, inor, txartzat hartuko ez lukeenik baten batek zalantzatan jartzea berak bere buruari gizaki, gizakiaren esentzia erreala adierazten duen esanahiarekin barik, beste batekin deitzen ez ote dion? Baina, hala ere, esentzia erreal horiek zer diren galdetuz gero, argi dago gizakiak horretaz zeharo ezjakinak direla eta ez dakitela zer diren. Hemendik ateratzen da beren gogamenetan dituzten ideiak, esentzia errealekin lotzen direlarik ezezagun diren arketipo bezala, arras desegokiak direla, esentzia horien inolako irudikapentzat ezin hartzeraino. Substantzietz ditugun ideia konplexuak, azaldu dugun bezala, bilduta existitzen ikusi edo suposatu diren ideia baken bilduma batzuk dira. Baina horrelako ideia konplexua ezin izan daiteke ezein substantziaren esentzia erreala, zeren orduan gorputz horretan aurkitzen ditugun propietateak ideia konplexu horren menpe leudeke eta berorretatik deduzitu ahal izanzen lirateke propietateok, berorrekin duten ezinbesteko lotura ezagutuko litzatekeelarik, triangelu baten ideia guztiak beren baitan espazio bat hartzen duten hiru lerroren ideia konplexuaren menpe dauden eta ideia horretatik deduzigarriak diren moduan. Baina gauza nabaria da substantzietz ditugun ideia konplexuen baitan ez dagoela horrelako ideiarik, hau da, substantziotan aurkitu beharreko beste koalitate guztiak bere menpe dituen ideiarik. Gizakiek burdinaz duten ideia komuna kolore, pisu eta gogortasun jakin bateko gorputzarena da, eta beronen koalitatzat ikusten duten propietate bat xaflakortasuna da. Baina, hala ere, pro-

pietate honek ez du ezinbesteko loturarik ideia konplexu horrekin ez berorren ezein atalekin; eta ez dago arrazoi gehiagorik xaflakortasuna kolore, pisu eta gogortasun horren menpe dagoela pentsatzeko, kolore hori edo pisu hori haren xaflakortasunaren menpe dagoela uste izateko baino. Baina, hala eta guztiz ere, esentzia erreal horiez ezertxo ere ez dakigun arren, ez dago ezer arruntagorik, gizakiek gauzen espezieak esentzia horietan egotea baino. Horrela gizakirik gehienak suposatzen dute atzamarrean darabildan eraztuna osatzen duen materi zati konkretuak esentzia erreala duela, eta beronen eraginez urrezkoa dela eta nik beronen baitan aurkitzen ditudan propietateak ere, hau da, kolorea, pisua, gogortasuna, fundigarritasuna, finkotasuna eta merkurioaren ukitu batez kolorea aldatzea, e.a., esentzia horietan dagozkiola. Ikertzen eta esentzia hau bilatzen ari naizenean, argi oharitzen naiz ez dudala propietate hauek guztiak darizkion esentzia hau aurkitzerik. Gehien ere honako hau imajina dezaket, eraztuna gorputz bat besterik ez denez, koalitate horiek menpean hartzen dituen bere esentzia edo barne osaera ezin dela besterik izan, eraztunaren irudia, tamaina eta atal solidoen lotura baino. Eta hauetako ezeinen pertzepzio bereizirik ez dudanez, haren esentziaren inolako ideiarik ere ez dut, berau delarik eraztunak horitasun partikularra, bolumen bereko edozerk baino pisu handiagoa, eta zilarbiziaren ukituaz kolorez aldatzeko gaitasuna edukitzearen kausa. Norbaitek baldin badio, propietate horiek bere menpe dituen esentzia erreala edo barne osaera, irudia, tamaina eta atal solidoen erakera edo lotura barik, gorputz horren *forma* partikularra deritzana dela, orduan lehen baino urrunago nago haren esentzia errearen ideien bat edukitzetik. Zeren nik badaukat, oro har, atal solidoen irudi, tamaina eta kokaeraren ideia bat, nahiz eta ez dudan goian aipaturiko koalitateak sortzen dituzten irudi, tamaina edo atal-bilketa partikularren ideiarik, koalitateok atzamarrean daukadan materi zati honetan aurkitzen ditudalarik, eta ez idazteko lumari punta ateratzeko erabiltzen dudan beste materi zati horretan. Baina norbaitek diostanean gorputz horren irudi, tamaina eta parte solidoen kokaeraz aparte beste zeozer, *forma substantziala* deritzan zerbait, dagoela gorputz horren esentzian, aitortu beharra dut horretaz ez dudala inolako ideia bereizirik, formaren soinuarena besterik, hau haren esentzia errearen edo osaeraren ideia edukitzetik oso urrun dagoelarik. Substantzia partikular honen esentzia erreaz dudana ezjakite bera dut beste gauza natural guztien esentzia erreaz ere, esen-

tzia horiez inolako ideiarik ez dudala aitortu beharra baitut, eta uste dut beste batzuek ere, beren ezagutza aztertzean, puntu honi dagokionez antzeko ezjakintasuna aurkituko dutela beren baitan.

7. *Gizakiek ez dituztelako ezagutzen substantzien esentzia errealak.*

Orain, atzamarrean daukadan materi zati honi gizakiek erabiltzen den izen orokor bat aplikatu eta *urrea* deitzen diotenean, ez al diote eskuarki gorputz espezie partikular bati dagokion izena ematen, edo ez al da behintzat ematen diotela ulertzen, hain zuzen ere substantzia partikular hori espezie horretakoa izatea eta izen horrez deitzea egiten duen barne esentzia erreal bat daukanari dagokiona? Hau horrela baldin bada, eta argi dago horrelaxe dela, gauzak esentzia hori daukatela adierazten duen izena lehenengo eta behin esentzia horrekin lotu beharko da («must be referred»), eta, beraz, izen hori ematen zaion ideia ere esentzia berorrekin lotu beharko da eta berori irudikatzen saiatu. Baina izenak horrela erabiltzen dituztenek esentzia hori ezagutzen ez dutenez gero, haien substantziei buruzko ideia guztiak, ezinbestez, desegokiak izanen dira, ez daukatelako beren baitan gogamenak edukitzea nahi lukeen esentzia erreal hori.

8. *Substantzien ideiak, berauen koalitategen bilduma bezala hartuta, desegokiak dira.*

Bigarrenik, substantziak bereizteko esentzia erreal ezezagunak suposatzea albo batera uzten dutenak munduan existitzen diren substantziak beraietan koexistitzen aurkitzen dituzten koalitategen sentigarrien ideiak bilduz kopiatzen ahalegintzen dira. Egia da horrela jokatzeko dutenak substantzia horien izaeratik askoz hurbilago iristen direla, zer diren ez dakiten esentzia erreal espezifikokoak asmatzen dituztenak baino. Hala ere, ez dira iristen horrela beren gogamenetan kopiatu nahi lituzketen substantzia horien ideia guztiz egokietara eta kopia horiek ez daukate beren baitan zehazki eta oso-osoan beraien arketipoetan aurki daitekeen guztia. Izan ere, substantzien koalitategen eta ahal horiek, haien ideia konplexuak egiteko erabiltzen ditugunak, hain dira asko eta askotarikoak, non ezein gizakiren ideia konplexuak ezin dezakeen haiek guztiak bere baitan hartu. Begi-bistakoa da substantziez ditugun ideia konplexuek ez dituztela beren baitan hartzen gauzetan euren bilduta dauden ideia bakun *guztiak*, gizakiek bakanki jartzen dituztelako substantziaren batez duten ideiarekin baitan gauza horretan badaude-

la dakiten ideia bakun guztiak. Izan ere, haien izenen esanahia ahalik argien eta arinen bihurtzen ahalegintzen direlarik, substantzia moten ideia espezifikoak, gehienetan, eurretan aurki daitezkeen ideia bakunetariko gutxi batzuek egiten dituzte. Baina ideia horiek, kanpoan utzita-koekin alderatuta, jatorriagatiko lehentasunez barruan sartzeko eta ideia espezifikoa egiteko eskubide gehiagorik ez dutenez, argi dago gure ideiak, arrazoi biongatik, akastunak eta desegokiak direla. Substantziei buruzko ideia konplexuak egiteko erabiltzen ditugun ideia bakun guztiak (mota batzuen irudia eta bolumena soilik kenduta) ahalak dira; eta ahalak beste substantzia batzuekiko erlazioak direnez, ez dugu inoiz ziur jakiterik gorputz batean dauden ahal *guztiak* ezagutzen ditugula, harik eta esperimentazioz jakin arte zer nolako aldagetak har ditzakeen eta beste substantziei eragin diezazkiekeen, beraien aplikazio era ezberdinetan. Eta hau gorputz batean ere egiaztatzen denez, eta askoz gutxiago guztietan, ezinezkoa da guk ezein substantziaz haren propietate guztiak bilduz osaturiko ideiarik edukitzea.

#### *9. Substantzien ahalek egin ohi dituzte haiei buruz ditugun ideia konplexuak*

*Urre* hitzaz adierazten dugun substantzia mota horren zati bati lehenbizi erreparatu zionak materi zati horretan ikusitako bolumena eta irudia ezin izan zituen, arrazoiz jokatura behintzat, haren esentzia errearen edo barne osaeraren menpekotzat hartu. Horregatik, bi horiek ez ziren inoiz sartu berak gorputz espezie horri buruz egindako ideiarekin baitan; baina agian errearen kolore berezia eta pisua izan ziren lehenbizi abstraitu zituenak, espezie horren ideia konplexua egiteko. Eta bi hauek ahalak baino ez dira; bata gure begietan modu berezian eragin eta gure baitan horia deitzen diogun ideia sortarazten duena, eta bestea balantza batean bolumen bereko beste gorputz baten kontra jarrita, gorputz hori gorantz eramaten duena. Beste gizaki batek agian hauei fundigarritasunaren eta finkotasunaren ideiak gehitu zizkien, suak errearen baitan duen eraginarekin erlazonaturiko bi ahal pasibo; beste batek, harikortasuna eta *aqua regia*-tan disolbagarritasuna, beste gorputz batzuen eragiketarekin erlazonaturiko beste bi ahal, eragiketok errearen kanpoko irudia aldatu edo zati sentigaitzetan banantzen dutelarik. Ideia hauek, edo eurretako zati batek, batera bilduta, eratzen dute eskuarki gizakien gogamenetan *urrea* deitzen diogun gorputz espeziea.

10. *Substantziek kontatu ezin adina ahal dituzte, guk haietaz ditugun ideia konplexuetan barne hartzen ez ditugunak.*

Baina, oro har gorputzen propietateak edo espezie honenak bereziki aztertu dituen inork ezin du zalantzatan jarri *urrea* deritzanak bere ideia konplexuaren baitan ez dauden beste hainbat eta hainbat propietate dituela. Espezie hau arreta handiagoz aztertu duten batzuek urrearen baitan hamar bider propietate gehiago kontu litzakete, guztiak kolorea eta pisua bezain banaezinak urrearen barne osaeratik; eta baten batek gizaki ezberdinek metal honetan aurkitu dituzten propietate guztiak ezagutuko balitu, baliteke urrearen ideia konplexuan gaurdaino edozein gizakik sartu dituenak baino ehun bider ideia gehiago sartzea; eta, hala eta guztiz ere, metal honetan oraindik aurkitzeke dagoenaren milarena ere ez litzateke hori. Izan ere, gorputz batek beste batengandik jaso eta hari eragin diezazkion aldaketek, behar bezalako aplikazioen ondoren, guk dakiguna ez ezik, imajina dezakeguna ere txiki uzten dute. Eta hau ez zaio paradoxa handiegia irudituko gogoan hartzen duenari zein urrun gauden oraindik gizakiok hain irudi konposatua ez den triangeluaren propietateak ezagutzetik, nahiz eta gutxi ez diren jada matematikariek aurkituak.

11. *Substantzien ideiak, berauen koalitateak bilduz erdietsita -koak direnez, desagokiak dira guztiak.*

Horretara, bada, substantziez ditugun ideia guztiak inperfektuak eta desagokiak dira. Eta hau berdin litzateke irudi matematikoei dagokienez ere, baldin ideia konplexuak beste irudi batzuekin erlazionatuz baino erdietsi ezin bagenitu. Zein ziurgabeak eta inperfektuak ez ote lirateke elipseari buruz, adibidez, guk egindako ideiak, hartaz geneukakeen ideia *osoa* haren propietate batzuetara mugatuko balitz? Geure ideia argian irudi horren esentzia osoa sartuz, orde, hartatik haren propietateak deduzitzen ditugu eta frogapenez ikusten dugu irudi horri darizkiola eta banaezinki datxezkiola.

12. *Idea bakunak, ἔκτυπα edo kopiak izan arren, egokiak dira*

Horrela gogamenak hiru motatako ideia abstraktuak edo esentzia nominalak ditu.

Lehenik, ideia *bakunak*, ἔκτυπα edo kopiak direnak, baina hala ere egiatan egokiak, zeren, gogamenean sentipen hori eragiteko gauzetan dagoen ahala adieraztea beste zereginik ez dutenez, sentipen

hori sortzen denean, ezin daiteke ahal horren ondorio besterik izan. Horrela idazten ari naizen paperak, argipean egonik (argiaren nozio arruntaren arabera mintzo naiz), gizakiengan zuria deitzen diodan sentipena eragiteko ahalmena duenez, sentipen hori ezin daiteke gogamenetik at dagoen zerbaitek eragindako ondorioa besterik izan, gogamenak ez baitu bere baitan horrelako ideiarik sortarazteko ahalik; eta, horretara, sentipen horrek ahal horren efektua baino esan nahi ez duelarik, ideia bakun hori erreala eta egokia da; gogamenean daukadan zuriaren sentipena, paperak sentipen hori eragiteko duen ahalaren efektua delarik, hobeaziki egokitzen zaio ahal horri; edo osterantzean ahal horrek beste ideia ezberdin bat sortaraziko luke.

13. *Substantzien ideiak*´ ἐκτυπα *edo kopiak dira, eta desag* okiak.

*Substantzien* ideia konplexuak ere kopiak dira, baina ez perfektuak, ez egokiak. Gogamenarentzat garbi dago hori, argi hautematen baitu ezin duela ziurtatu existitzen den edozein substantziaz egiten duen ideia bakunen zehinai bildumak substantzia horretan dagoen guztiari bete-betea erantzuten dionik. Izan ere, beste substantzia guztiek honengan izandako eragiketa guztiak egiaztatu ez dituelarik, ez eta beste substantziek hari edo hark besteei eragindako aldaketak ikusi ere, ezin du haren ahalmen aktibo eta pasibo guztien bilduma egokirik eduki; eta, beraz, ez dauka existitzen den ezein substantziaren ahalmenen eta erlazioen ideia konplexu egokirik, horrelakoxea delarik substantziez daukagun ideia konplexua. Eta, azkenean, geure ideia konplexuaren baitan substantzia baten bigarren koalitate guztien bilduma bete-betea eduki ahal bagenu edo bagenu, ez genuke, haatik, gauza horren esentziaren ideia. Izan ere, guk hauteman ditzakegun ahalak edo koalitateak substantzia horren esentzia erreala ez direlarik, horren menpe daudenak eta horri darizkionak baizik, koalitate horien ezein bilduma, dena dela, ezin da gauza horren esentzia erreala izan. Honek argi uzten du substantziez ditugun ideiak ez direla egokiak, ez direla gogamenak haiek izatea nahi lukeen bezalakoak. Gainera, giza-kiak ez du oro har substantziari buruzko inolako ideiarik eta substantzia bera zer den ere ez daki.

14. *Moduen eta erlazioen ideiak arketipoak dira eta egokiak izan behar dute ezinbestez.*

Hirugarrenik, *moduen eta erlazioen* ideia konplexuak orijinalak eta arketipoak dira; ez dira kopiak, ez eta gogamenak ideiokin

ados eta euroi bete-betean erantzuten ikusi nahi lukeen ezein existentzia errearen ereduaren arabera egindakoak ere. Hauek, gogamenak berak batera bilduriko ideia bakunen bildumak direnez eta bildumotako bakoitzak gogamenak bertan egotea nahi lukeen guzti-guztia daukanez bere baitan, existi litezkeen esentzia eta moduen arketipoak dira; eta horrela modu horiek irudikatzeko zeregin bakarra dutenez eta modu horiei dagozkienez, existitzen direnean, adostasun betea daukate ideia konplexu horiekin. Moduen eta erlazioen ideiek, beraz, ego-kiak izan beharra daukate ezinbestez.





## XXXII. KAPITULUA

### Idea egiazkoez eta faltsuez

1. *Egiatasuna eta faltsutasuna proposizioei dagozkie zehazki, ez ideiei.*

Egiatasuna eta faltsutasuna, propietatez hitz eginda, proposizioei soilik dagozkien arren, *ideiez* egiazkoak edo faltsuak direla esan ohi dugu maiz (eta zein hitz ez ote da erabiltzen laxotasun handiz eta euren esanahi hertsia eta zehatzetik nahiko aldenduta?). Nik, hala ere, uste dut, ideiak eurak egiazkoak edo faltsuak direla esaten denean, proposizio ezkutu edo tazitu bat dagoela beti, izendapen horren oinarri dena, ideiak horrela izendatzen diren abagune konkrituak aztertuz gero ikusiko dugun moduan. Horietan guztietan nolabaiteko baieztapen edo ezeztapen bat aurkituko dugu, izendapen horren arrazoi dena. Zeren gure ideiei buruz, gogameneko *agerpenak* edo pertzepzioak besterik ez direlarik, ezin da esan, zehazki eta soilki eurak kontsideratuz, egiazkoak edo faltsuak direnik, gauza baten izen soilak egiazkoa ala faltsua dela esan litekeen baino areago.

2. *Ideiak eta hitzak, zinez ideiak eta hitzak diren heinean, egiazkoak direla esan daiteke.*

Benetan ere ideiak eta hitzak, egia hitzaren adiera metafisikotan, egiazkoak direla esan daiteke, era batera edo bestera existitzen diren beste gauza guztiak egiazkoak direla, hau da, existitzen diren modukoak direla esaten den bezalaxe, nahiz eta egiazkoak deituriko

gauzetan, zentzu beronetan deituta ere, egia horren eredutzat hartzen diren gure ideiekiko erreferentzia sekretu bat egon agian, hau proposizio mental batean gauzatzen delarik, normalean gu horretaz ohartzen ez bagara ere.

3. *Idea bat bera ere, gogameneko agerpen denez, ez da egiazkoa edo faltsua.*

Baina hemen gure ideiak egiazkoak edo faltsuak izateko gai direnentz ez dugu aztertzen egia zentzu metafisikoan hartuta, hitzok eskuarki hartzen duten adieran baizik. Eta, horretara, nik diot gogamenean ditugun ideiak han dauden pertzepzioak edo agerpenak besterik ez direnez, haietako bat bera ere ez dela faltsua, eta, horregatik, zentauroaren ideiak, gure adimenean agertzean, ez duela faltsutasun handiagorik, zentauro hitzak ahoskatzen edo paperean idazten dugunean duena baino. Zeren, egitasuna zein faltsutasuna baieztapen edo ezeztapen hitzezko edo mental batean datzalarik beti, gure ideietako bat bera ere ezin daiteke faltsua izan, gogamenak haietaz judizioa egin arte, hau da, haiei buruz zerbait baieztatu edo ezeztatu arte.

4. *Euretatik kanpoko zerbaiti buruzko ideiak egiazkoak edo faltsuak izan daitezke*

Gogamenak bere ideietako bat euretatik kanpoko zerbaitekin lotzen duenean («refers to»), orduan ideia horri egiazkoa edo faltsua dei dakioke, gogamenak, lotura edo erreferentzia horretan, ideia horrek gauza horrekiko duen adostasunaz uste tazitua eratzen duela; eta uste hori egiazkoa ala faltsua gertatzen den neurrian, ideiei ere egiazkoak ala faltsuak deritze. Hau jarraian datozen kasuetan gertatzen da gehienbat:

5. *Gizakien ideiak eskuarki beste gizaki batuen ideekin, existentzia errealekin eta ustezko existentzia errealekin lotu («refer») ohi dira .*

Lehen kasuan, gogamenak uste du bere ideietako bat *ados* datorrela *beste gizaki baten gogamen*ean izen berarekin dagoen beste ideia batekin, adibidez, gogamenak ulertzen edo juzgatzen duenean duenean justiziaz, neurritasunaz, erlijioaz berak dituen ideiak, beste gizaki batzuek izen horiek emanez adierazten dituzten ideia berak direla.

Bigarren kasuan, gogamenak uste du bere baitan duen ideia *existentzia erreale*n batekin datorrela *ados*. Horrela gizakiaren eta zentauroaren ideiak, substantzia errealei dagozkien ideiak direla supo-

satuz gero, bata egiazkoa da eta bestea faltsua, batak adostasuna baitu egiazki existitzen den zerbaitekin, eta besteak ez.

Hirugarrenean, gogamenak bere ideiaren bat zerbaiten osaera eta *esentzia errealarakin*, gauza horren propietate guztiak menpean dituenarekin, lotzen du («refers»); eta kasu honetan substantziei buruzko gure ideia gehienek, denak ez badira, faltsuak dira.

#### 6. *Erreferentzia horien kausa.*

Gogamenak erraz egin ditzake suposizio horiek tazituki bere ideiei buruz. Baina puntu hau aztertuz gero, aurkituko dugu hori nagusiki, soilik ez bada, bere ideia *abstraktu* konplexuei buruz egiten duela. Izan ere, gogamenaren berezko joera ezagutzera da eta argi ikusten du, ezagutza hori gauza partikularrei buruzkoa bakarrik balitz, oso astiro eginen lukeela aurrera eta amaigabeko lana lukeela; horregatik, ezagutzarako bidea laburtzeko eta pertzepzio bakoi-tzean gauza gehiago hartzeko, ezagutu nahi dituen gauzak aitzin-gibel begiratzuz edo besteekin haietaz hitz eginez harturiko ezagutza errazago zabaltzeko oinarri bezala lehenbizi zera egiten du, alegia, gauzok mordoetan bildu eta espezieetan sailkatu, haietako bat eza-gutuz gero, ezagutza hori espezie horretako beste guztiei ziurtasun osoz hedatu ahal izateko moduan, horretara, urrats luzeagoak eginez jarduera nagusi duen ezagutzarantz. Horixe da, beste leku batean azaldu dudan moduan, guk gauzak, izenak erantsita, ideia zabaletan edo genero eta espezieen, hau da, klase eta moten barruan biltzeko daukagun arrazoia.

#### 7. *Gauzen izenek beren baitan haien esentzien ezagutza dara - matela suposatzen da.*

Horregatik, gogamenaren higidurak arretaz begiratu eta eza-gutzarako normalean zein bide hartzen duen ikusten jartzen bagara, uste dut aurkituko dugula gogamenak kontenplazioan edo diskurtso-an erabil dezakeela uste duen ideia bat erdiesten duelarik, lehenbizi ideia hori abstraitu eta izen bat jartzen diola eta ideia bere biltegian, oroimenean, gordetzen duela espezie bateko gauzen esentzia barne hartuz, izen hori beti esentzia horren seinale izango delarik. Horregatik maiz, norbaitek berak ezagutzen ez duen motako gauza-ren bat ikustean, berehala galdetzen du gauza hori zer den, galdera hori eginez izena besterik ez duelarik bilatzen, izenak bere baitan

espeziearen edo beronen esentziaren ezagutza balekar bezala, izena benetan ere beronen seinale moduan erabiltzen eta eskuarki beroni erantsita suposatzen delarik.

8. *Gizakiek uste dute beren ideiak gauzei dagozkiela betean, baita izenen ohiko esanahiari ere.*

Baina ideia *abstraktu hori* gogamenean existitzen den gauzaren eta ematen zaion izenaren bitartean dagoen zerbait delarik, gure ideietan datza hala gure ezagutzaren zuzentasuna nola gure hizkeraren propietatea eta ulergarritasuna. Eta horrexegatik ausartzen dira gizakiak uste izatera beren gogamenetan dituzten ideiak ideia horiek aipatzen dituzten eta eurengandik at existitzen diren gauzekin bat datozenak direla, eta, halaber, beraiei ematen dizkien izenekin ados datozenak, hizkuntza horri dagokion erabilera eta propietatea bitarteko direla. Izan ere, euren ideien adostasun bikoitz hori gabe, ohartzen dira gauzei buruz euren baitan direnez oker pentsatuko luketela, alde batetik, eta eurei buruz mintzatzean inork ezin ulertzeko moduan hitz eginen luketela, bestetik.

9. *Idea bakunak faltsuak izan litezke izen bereko beste batzuekiko, baina horrelakoak izateko ezgaienak dira.*

Lehenbizi, orduan, diot ezen, gure ideien egia beste gizaki batzuek dituzten eta eskuarki izen beraz adierazten diren izenekiko adostasunaren arabera ebazten denean, ideia horietako edozein izan litekeela faltsua. Hala ere, ideia guztietarik bakunak dira ezgaienak errakuntza eragiteko. Izan ere, gizakiak bere sentimenez eta egunero-ko behaketaren bidez erraz jakin dezake zein diren eskuarki erabiltzen diren izenek ordezkatzeko dituzten ideia bakunak, izenok gutxi direlarik eta halakoak, non gizakiak, eurei buruz duda-mudan edo erratuta egonez gero, bere okerra erraz zuzendu lezakeen ideion objektu direnen bidez. Horregatik bakanki erratzen da inor ideia bakunei jartzen dizkien izenetan, edo, bestela esanda, berdearen ideiari nekez jartzen dio gorri izena, edo garratzaren ideiari gozo izena; eta are nekezago nahasten dituzte gizakiek sentimen ezberdinei dagozkien ideiak, kolore bati gustu baten izena emanez, e.a. Bistakoa da, beraz, izenen bat emanez izendatzen dituzten ideia bakunak, beste batzuek izen berak erabiltzen dituztenean dauzkaten eta adierazi nahi dituzten berberak direla.

10. *Modu mistoen ideiak errazago izan daitezke faltsuak zentzu honetan.*

Idea konplexuek, honetan, faltsuak izateko ahalbide gehiago dute, eta *modu mistoen* idea konplexuek substantzienak baino askoz gehiago, zeren substantzietan (berezi edozein hizkuntzatan erabilitako izen komunez eta mailegatu gabekoez izendatzen direnetan) normalean mota bat bestetik bereizteko balio duten zenbait koalitate sentigarri nabarmenek erraz eragozten diete, hitzen erabileran arduraz dabilatzanei bederen, hitzok inola ere ez dagokien substantzia motei aplikatzea. Baina modu mistoetan duda-muda gehiago izan ohi dugu, ez baita hain erraz zenbait ekintzari buruz zehaztea zer izen eman behar zaien, *justizia* ala *ankerkeria*, *esku zabaltasuna* ala *zarrastelkeria*. Eta, era horretan, gure ideiak, izen bereko beste giza-kienekin erlazionatzean, faltsuak izan daitezke, eta gogamenean daukagun eta *justizia* izenaz adierazten dugun ideiak agian beste izen bat behar luke.

11. *Edo behintzat faltsutzat hartuak izan daitezke.*

Baina modu mistoei buruzko gure ideiak direla edo ez direla beste nolanahikoak baino gaiago beste gizakien izen bereko ideietatik ezberdinak izateko, hau behintzat gauza ziurra da, alegia, mota horretako faltsutasuna beste edonolako ideiei baino eskuarkiago aplikatzen zaiela modu mistoei buruzko gure ideiei. Gizaki batek *justiziaz*, *esker onaz* edo *loriaz* ideia faltsua duela uste denean, izen horiek beste giza-kiene gogamenetan zeinu diren ideiekin bat ez datozelako baino ez da.

12. *Eta zergatik?*

Honen arrazoia hauxe dela uste dut: modu mistoen ideia abstraktuak gizakiek ideia bakunen bilduma zehatz horietan egindako nahitako konbinazioak direnez eta, beraz, espezie bakoitzaren esentzia gizakiek soilik eratua denez halatan, non ez daukagun horien nonbait existitzen den eredu sentigarririk, izena edo izen horren definizioa besterik, ez daukagu gure ideia edo modu misto hauek egokitze-ko eta adosteko beste eredurik, izen horiek ustez euren esanahi zehatzenean darabiltzatenen ideiak baino; eta, horretara, gure ideiak *haie- nekin* ados datozen edo *haienetatik* aldentzen diren heinean, egiazko- tzat edo faltsutzat jotzen dira gureak. Eta hauxe da esan nahi nuena gure ideiek beren izenekiko duten egia edo faltsutasunari buruz.

13. *Existentzia errealarari dagozkionez, gure ideietako bat ere, substantzienak izan ezik, ezin daiteke faltsua izan.*

Bigarrenik, gauzen existentzia errealekiko gure ideien egia edo faltsutasunari dagokionez, beraien egiaren eredutzat existentzia erreala ezartzen denean, haietako ezein ere ezin da faltsutzat jo, substantziez ditugun ideia konplexuak izan ezik.

14. *Lehenik, ideia bakunak zentzu honetan ez direla faltsuak eta zergatik ez diren.*

Gure ideia bakunak Jainkoak guk hartzeko eratuak direnez gero horretarako kanpoko objektuei, haren jakituriaren araberrako baina guretzat ulergaitz diren lege eta eren bidez ideioi sortarazteko ahala emanez, haien egia gudan eragiten duten agerpenetan baino ez datza eta hark kanpoko objektuetan jarritako ahal horiei egokitu beharra dute, zeren bestela ezin izanen lirateke gure baitan sortu eta, horregatik, ahal horiei erantzunez, izan behar dutena dira, hau da, ideia egiazkoak. Eta ezin dakieke faltsutasunik egotzi, baldin gogamenak (gizaki gehienetan gertatzen den moduan) ideia horiek gauzetan euren daudela irizten badio. Izan ere Jainkoak bere jakituriaren barruan gauzetan seinale eta bereizpide moduan ipini dituenek guk gauza bat besteetatik bereizi eta geure erabilerrako behar duguna aukeratu ahal izateko, ez du gure ideia bakunaren izaera aldatzen urdinaren ideia bioleta lorean bertan ala geure gogamenean soilik dagoela pentsatzeak, bioletan bertan bere atalen ehundura eta argiaren partikulen islakera jakin baten bidez ideia hori eragiteko ahala besterik ez dagoelarik. Zeren objektuak daukan ehundura horrek etengabe urdinaren ideia bera eragiten digunez, geure begien bidez hura beste edozein gauzatatik bereizteko balio digu, bereiz marka hori, bioletan bertan aurkitzen den moduan, atalen ehundura berezi bat izan zein gogamenean dugun ideiak adierazten duen kolorea bera izan. Eta era berean agerpen horrexek eragiten du urdina deitzea, ideia hori gudan zerk sortzen duen, benetako koloreak ala gauzaren ehundura bereziak, berdin delarik, *urdin* izenak ez baitu besterik esan nahi, bioleta batean dagoen bereiz marka, geure begiez soilik bereiz daitekeena baino, funtsean zernahi delarik ere; hau jakitea, edonola ere, gure ahalez haraindi dago eta zer den bereizteko ahalmenen jabe izateak beharbada emendio gutxiago eginen liguke.

15. *Gizaki batek urdinaz duen ideia, hala ere, beste batek due - netik ezberdina izan daiteke.*

Gure ideia bakunei ezin dakieke faltsutasunik egotzi, baldin gure organoen egitura ezberdinagatik *objektu berak gizaki ezberdinen adimenetan ideia ezberdinak sortaraziko balitu* aldi berean, adibidez, baldin bioletak gizaki bati bere begiez ikusten duenean eragiten dion ideia, ilen batek beste baten adimenean eragindako bera balitz ere, eta alderantziz. Zeren, hau jakiterik ez legokeenez gero, gizaki baten gogamenak ez duelako beste gizaki baten gorputzera pasatzerik haren organoek eragindako agerpenak hautemateko, ez lirateke nahasiko ez ideiak ez izenak eta ez legoke faltsutasunik ez batzuetan ez besteetan. Izan ere, bioletaren ehundurako gauza guztiek hark urdina deituriko ideia eraginen luketenez beti eta ilenaren ehundurakoek hark horia deiturikoa beti, gogameneko agerpenak zernahi direlarik ere, orduan agerpen horietatik iraunkortasun beraz bereizi ahal izanen lituzke gauzak bere erabilerarako, baita urdin eta hori hitzek markaturiko bereizpen horiek ulertu eta adierazi ere, lore bi horietatik bere gogamenean harturiko agerpenak edo ideiak beste gizaki baten gogamene-ko berberak balira bezala. Nik, hala ere, joera handia dut uste izatera objektu berak gizaki ezberdinen gogamenetan eragindako ideia senti- garriak oso hurbilekoak eta bereizgaizki berdinak direla. Iritzi honen alde arrazoi asko ekar daitezkeela uste dut, baina hau nire oraingo egi- tekotik kanpo dagoenez, ez diot gogait eraginen irakurleari horiek azaltzen jarritz; baina ohartxo bakar bat eginen diot esanez iritzi honen kontrakoa, frogatzerik balego, baliagarritasun urrikoa dela, hala gure ezagutzan aurrera egiteko nola bizitzako komenentzietarako, eta horregatik ez du merezi hori azterzeko lana hartzerik.

16. *Idea bakunak, bat bera ere, ezin daitezke faltsuak izan existentzia errealekiko.*

Idea bakunei buruz esana dugunetik, uste dut nabaria dela gure ideia bakunetako bat bera ere ezin dela faltsua izan gugandik at exis- titzen diren gauzekiko. Izan ere, gure gogameneko agerpen eta per- tzeptzio horiek, esan dugun moduan, kanpoko objektuek sentimenen bidez gudan agerpen horiek sortarazteko duten ahalei erantzutean dautzanez eta berautako bakoitza den moduan dagoenez gogamene- an, sortzen duen ahalaren arabera izanik eta hura soilik irudikatzen duelarik, ikuspegi honetatik edo eredu honekiko ezin dira faltsuak

izan. Urdina eta horia, gozoa eta garratza ezin dira sekula ideia faltsuak izan; gogameneko pertzepzio horiek bertan diren modukoak dira, Jainkoak berauek sortarazteko jarritako ahalei erantzuten dienak, eta, horretara, diren huraxe eta euren definizio naturalaren arabera izan behar duten huraxe dira. Izenak, jakina, gaizki aplika daitezke, baina horrek ez dakarkie faltsutasunik ideiei, ingelesik ez dakien batek *purpre* (purpura) denari *scarlet* (gorrimin) deitzean bezala.

17. *Bigarrenik, moduak ez dira faltsuak, eta gauzen esentzieki - ko, izan ere, ezin izan daitezke faltsuak.*

Bigarrenik, moduei buruzko gure ideia konplexuak ere ezin daitezke faltsuak izan, egiazki existitzen den gauzaren baten esentziarekiko, edozein moduri buruz daukadan zeinahi ideia konplexuk ez duelako erreferentziarik existitzen den edo naturak egindako ezein eredurekin; izan ere, ez da suposatzen bere barruan eduki dauzkan ideiak besterik dauzkanik, ez eta irudikatzen duen ideien konbinazioa besterik ordezkatzeko duenik ere. Horrela, gizaki batek bere ondasun eta aberastasunek eskaini liezazkioketen eta bere gizar-te mailak eskatzen dituen jan, edan, jantzi eta bizitzako beste erosotasunak bere buruari ukatzeko ekintzaren ideia daukadanean, ez daukat ideia faltsurik, neuk aurkitzen edo imajinatzen dudana moduan ekintza bat irudikatzen duen ideia bat baizik, eta zentzu honetan ezin dakioke egitasunik ez faltsutasunik egotz. Baina ekintza honi *urritasun* edo *bertute* izena ematen diodanean, orduan dei dakioke ideia faltsua, propietatez hitz eginda urritasun izenari dagokion ideia dela edo bertutearen eta bizioaren neurria den legearekin ados datorrela uste izanez gero.

18. *Hirugarrenik, substantzien ideiak faltsuak izan daitezke existitzen diren gauzekiko*

Hirugarrenik, substantziei buruzko gure ideia konplexuak, gauzetan eurentan dauden ereduekiko erreferentzia dutenak izanik, izan litezke faltsuak. Gauzen esentzia ezezagunen irudikapentzat jotzen direnean faltsuak direla begi-bistakoa da eta ez da behar horretaz ezer esaterik. Uste kimeriko honetan geratu barik, beraz, gauzetan eurentan beti existitzen diren ideia bakunen konbinazioetatik jasota gogamenean dauden ideia bakunen bildumatzat hartuko ditut substantziak, konbinazio hauek gogamenean eraturiko ideia bakunen bildumak diren kopien orijinalak direlarik. Eta gauzen existentziarekiko



duten erreferentzia honetan ideia faltsuak dira hurrengo kasu hauetan. 1) Gauzen existentzia errealean batasunik ez duten gauzak batera biltzen dituztenean, zaldi batean batera existitzen diren forma eta tamainari ideia konplexu berean txakur batek bezala zaunka egiteko ahala batzen zaienean gertatzen den bezala, hiru ideia horiek, gogamenean bildu arren, naturan ez baitira sekula elkartuta aurkitzen; eta horregatik hori zaldiaren ideia faltsua dela esan daiteke. 2) Ikuspegi honetatik, substantzien ideiak faltsuak dira, halaber, beti batera existitzen diren ideia bakunen bilduma batetik etengabe haiekin baturik egon ohi den ideia bakunen bat ukazio bidez kentzen denean. Horretara, baldin urrearen hedadura, solidotasun, fundigarritasun, pisu berezi eta kolore horiari norbaitek berunak eta kobreak dutena baino finkotasun maila handiagoaren ukazioa batzen baldin badie bere pentsamenduan, horrek ideia faltsua daukala esan daiteke, ideia bakun horiei finkotasun perfektu eta absolutuaren ideia batzen dienean bezalaxe. Izan ere, urrearen ideia konplexua, kasu bi horietan, naturan baturik existitzen ez diren ideia bakunez osaturik egonik, ideia faltsua dei dakioke. Baina finkotasuna, behin bere gogamenean batu gabe utziz, behin gainerako guztitik bananduz urreaz duen ideiatik erabat kanpo uzten badu, ideia hau, ene ustez, faltsutzat baino gehiago desegoki eta inperfektutzat hartu behar da, zeren, naturan baturik dauden ideia guztiak hartzen ez baditu ere, elkartuta existitzen direnak baino ez baititu elkarrekin ipintzen.

*19. Egiatasunak eta faltsutasunak ezeztapena edo baieztapena suposatzen dute beti.*

Nahiz eta, hizkera arruntera egokitzearen azaldu dudan gure ideiei zein zentzutan eta zertan oinarrituta dei dakieken batzuetan egiazkoak edo faltsuak, hala ere, auzia hurbilagotik begiratuta, ideia bat egiazkoa edo faltsua dela esaten den kasu guztietan aurkituko dugu hori gogamenak egiazkoa edo faltsua dela ebatziz egindako *judi-zioaren* indarrez gertatzen dela. Zeren, egiatasuna edo faltsutasuna baieztapen edo ezeztapen ageriko edo taziturik gabe ez delarik ezer, bata ere ez da aurkitzen zeinuak, ordezkatzan dituzten gauzekiko adostasun edo desadostasunaren arabera, batzen edo banatzen diren lekuan baino. Guk nagusiki erabiltzen ditugun zeinuak ideiak edo hitzak dira, eta eurekin proposizio ahozkoak edo mentalak egiten ditugu. Egia ordezkari horiek batu edo banatzean datza, berauek

ordezkatzen dituzten gauzak elkarrekin duten adostasun edo desadostasunaren arabera; eta faltsutasuna, horren aurkakoan datza, gero zehatzago azalduko dugun moduan.

20. *Ideiak, berenez, ez dira ez egiazkoak ez faltsuak.*

Gogamenean daukagun edozein ideiari buruz, orduan, gauzen existentziarekin edo beste gizaki batzuen gogamenetan dagoen edozein ideiarekin ados datorrena izan ala ez, ezin daiteke horregatik bakarrik faltsua denik esan, propietatez bederen. Zeren irudikapen horiek beren baitan kanpoko gauzetan egiazki existitzen dena besterik ez badaukate, ezin daitezke faltsutzat jo, zerbaiten irudikapen doiak baitira; eta beren baitan gauzen errealtatetik diferentea den zerbait badute, orduan ere ezin daiteke esan irudikapen faltsuak edo irudikatzen ez dituzten gauzen ideiak direnik. Errakuntza edo faltsutasuna zertan datzan, aldiz, jarraian azaltzen da.

21. *Faltsuak dira: 1) Juzgatzen dugunean beste gizaki baten ideiarekin ados datozela, horrela izan gabe.*

Gogamenak, ideia bat ukanik, *juzgatu* eta ondorioztatzen duenean ideia hori beste gizaki batzuen gogamenean izen beraz adierazita dagoen bera dela, edo hitz horren eskuarki onarturiko esanahiari erantzuten diola, horrela izan gabe, ideia hori faltsua da, gehienbat modu mistoetan gertatzen delarik errakuntza hau, nahiz eta beste ideia batzuetan ere gerta daitekeen.

22. 2) *Juzgatzen dugunean existentzia errealararekin ados datozela, horrela izan gabe.*

Gogamenak, naturak inoiz batera bildu gabeko ideia bakunen bildumaz osaturiko ideia konplexu bat ukanik, juzgatzen duenean egiazki existitzen den kreatura espezie batekin ados datorrela, orduan ere faltsua da, adibidez, urrearen kolore, fundigarritasun eta finkotasunari estainuaren pisua batzen dienean.

23. 3) *Juzgatzen duenean egokiak direla, horrela izan gabe.*

Gogamenak, mota bateko kreaturretan egiazki existitzen diren hainbat ideia bakun bilduz, baina horiek bezain banaezinak diren beste batzuk bildu gabe utziz eraturiko ideia konplexu bat ukanik, *juzgatzen* duenean hau mota bateko gauzen ideia perfektu eta osoa dela, izatez horrela ez den arren, orduan ere faltsua da; adibidez, honako hauen ideiak batu ondoren, alegia substantzia, hori, xaflakor, pisutsu,

eta fundigarriarena, ideia konplexu hau urrearen ideia osotzat jotzen duenean, nahiz eta haren finkotasun berezia eta *aqua regia*-tan disolbagarritasuna gorputz horren gainerako koalitate edo ideietatik, haiek bata bestetik bezain banaezinak izan.

#### 24. 4) *Esentzia erreala irudikatzen dutela juzgatzen denean.*

Are handiagoa da errakuntza *juzgatzen* dudanean ideia konplexu horrek existitzen den edozein gorputzen esentzia erreala daukala egiazki bere baitan, edukitzez, bere esentzia edo osaera errealarari darizkion propietateetarik gutxi batzuk baino ez dauzkanean. Propietate horietako gutxi batzuk diot, propietate horiek gorputz batek beste gauza batzuekiko dituen ahal aktibo eta pasiboetan dautzalarik gehienbat, gorputz batekiko eskuarki ezagutzen direnak, hau da, genero horretako gauzen ideia konplexua egiteko erabili ohi ditugunak, gutxi batzuk baino ez direlako, gorputz hori era askotara aztertu duen gizakiak berorrekiko ezagutzen dituenen aldean; eta gizakirik adituenak ezagutzen dituenak gutxi batzuk baino ez dira, gorputz horretan egiazki daudenekin alderatuta, hau da, berorren barruko edo esentziazko osaeraren menpe daudenekin. Triangeluaren esentzia esparru txiki batean datza, oso ideia gutxitan: espazio bat hartzen duten hiru lerrok egiten dute triangeluaren esentzia. baina esentzia honi darizkion propietateak aise ezagutzeko edo zerrendatzeko baino gehiago dira. Gauza bera gertatzen da substantziei dagokienez ere; haien benetako esentzia ere esparru txiki batean datza, baina barne osaera hari darizkion propietateak kontatu ezin ahala dira.

#### 25. *Ideiei buruz noiz esaten den faltsuak direla.*

Bukatzeko, gizakiak beragandik at dagoen zerbaiten inolako noziorik ez duenez gogamenean hartaz duen ideia bidez izan ezik, (horri berak nahi duen izena jar diezaiokeelarik), era dezake ideia bat, ados ez datorrena ez gauzen arrazoiarekin ez besteen hitzek eskuarki adierazten duten ideiarekin. Baina ezin dezake ideia okerreko edo faltsurik egin hartaz duen ideia bidez baino ezagutzen ez duen gauza bati buruz; adibidez, gizaki baten zango, beso eta gorputzaren ideia eratu, eta horiei zaldi baten burua eta lepoa batzen dizkiedanean, ez dut ezeren ideia faltsurik egiten, ez duelako nigandik at dagoen ezer irudikatzen. Baina hau *gizakia* edo *Tartalo* dela esan eta nigandik kanpoko izaki bat irudikatzen duela edo beste batzuek izen horrekin izendatzen duten ideia bera dela uste izanez gero, erratu egin naiteke kasu

biotan. Eta ikuspegi horrexetatik esaten zaio ideia faltsua, nahiz eta faltsutasuna ez dagoen ideian, baizik honi proposizio mental tazitu baten bidez egozten dizkiogun eta eduki ez dauzkan adostasun eta antzekotasunean. Baina, hala eta guztiz ere, baldin, neure gogamenean horrelako ideia, *gizakiaren* edo *Tartaloren* existentzia edo izena dagokiola pentsatu gabe, eratu ondoren, ideia horri *gizakia* edo *Tartalo* deitu nahi badiot, izen fantastikoa jarri diodala esan ahal izanzen zait, baina inola ere ez judizioan erratu naizela edo ideia faltsua dela.

26. *Ideiei buruz, propietatez mintzatuta, zuzenak edo okerreko -ak direla esan behar da.*

Gure ideiak, nire ustez, gogamenak kontsideratzen dituen moduan hartuta, hau da, edo euren izenei dagokien esanahi zehatzarekiko edo gauzen errealitatearekiko, *zuzenak* edo *okerrekoak* direla esan daiteke, beraien erreferentziatzat erabiltzen diren erduekiko duten adostasunaren edo desadostasunaren arabera. Baina baten batek egiazkoak edo faltsuak direla esan nahi badu, aske da gauzei nahi duen izena jarri eta guztiok daukagun eskubide horretaz baliatzeko; baina, propietatez mintzatuta, *egiatasuna* eta *faltsutasuna* nekez dagozkie ideiei, beren baitan alde edo moldez birtualki proposizio mentalen bat daukaten heinean izan ezik. Gizaki baten gogamenean dauden ideiak, soilki hartuta, ezin dira okerrekoak izan, atal bateraezinak bilduta dituzten ideia konplexuak kenduz gero. Beste ideia guztiak berenez zuzenak dira, eta haiei buruz dugun ezagutza ere zuzena eta egiazkoa da. Baina ideioz zerbaitekin, haien eredu eta arketipo moduan, lotzen ditugunean («come to refer»), orduan faltsuak izan daitezke, euren arketipoekin ados ez datozen neurrian.

# XXXIII. KAPITULUA

## Ideien elkarlotzeaz

### 1. *Gizaki gehienengan arrazoigabeko zerbait dago.*

Ia inor ere ez dago, beste gizakien iritzi, arrazoinamendu eta ekintzetan bitxi deritzon eta izan ere nabarmen den zerbait aurkitzen ez duenik. Edonork du begia norberak ez duen akatsa besteengan ikusteko bezain zorrotz, eta ez duke arrazoi faltarik inoren akats hori gaitzesteko, berak bere iritzietan eta jokabidean arrazoigabetasun handiagoak, sekula hauteman gabekoak eta besteek ere nekez sinestaraziko dizkietenak, eduki arren.

### 2. *Hori beti ez dator norberekeria hutsetik.*

Hori ez dator beti norberekeria hutsetik, honek arrazoigabetasunean zerikusi handia izaten duen arren. Gogamen orekatsuko giza-kiak, beren merezimenduak larresteko bezain harroputzak ez direnak, akats horren errudun izaten dira maiz; eta kasu askotan zelebreak iruditzen zaizkigu baliozko gizaki baten argudiaketak eta harriduraz ikusten dugu egoskor, egun argia baino argiago begi-bistan daukan arrazoiaren aurrean amore eman nahi ezik.

### 3. *Heziketatik ere ez dator.*

Mota honetako arrazoigabetasuna heziketari eta aurreiritziari egotzi ohi zaie, eta gehienetan zuzen egotzi ere, nahiz eta hori egiten dutenek ez diren gaitzaren hondora iristen, ez eta behar bezain garbi

erakusten ere arrazoigabetasun hori nondik datorren edo zertan datzan. Heziketa arrazoiz izendatzen da maiz honen kausa moduan eta aurreiritzia gauza bera adierazteko izen orokor egokia da; baina erokeria mota honen sustrairaino heldu eta gizaki oso orekatsu eta zentzudunengan akats horren sorburua zertan datzan argi utzi nahi duenak aurrerago begiratu beharko duela uste dut.

#### 4. *Gizaki gehienengan erokeri mailaren bat aurkitzen dugu.*

Barkatuko zaidala uste dut horri erokeria bezalako izen latza jarri izana, arrazoiaren kontrako izate horrek erokeria beste izenik ez duela merezi eta izan ere benetako erokeria dela gogoan izanez gero. Eta ia gizaki bat bera ere ez dago horretatik guztiz libre denik eta, batzuetan ohi duen bezala kasu guztietan argudiatu eta jokatu balu, bizitza zibilean barik zoroetxean eduki beharrekotzat ez genukeenik. Hau esatean gizakia grina gartsu eutsezinen menpe dagoen uneetaz barik, bere bizitzako egoera normal eta lasaiez ari naiz. Izen latz hau erabiltzearen eta begiramendurik gabe gizateriaren zatirik handienari egoztearen errutik are libreago utziko nauen beste gauza bat erokeriaren izaerari buruz bidenabar apur bat ikertzean aurkitu dudana da (II Lib., XI kap., 13.), hots, erokeria hemen mintzo garen sustrai beretik sorturikoa eta kausa beraren menpekoea dela. Eta, orain aztertzen ari naizen gaia inola ere kontuan ez nuenean gauza bera kontsideratzeak iradoki zidan pentsamendu hori. Eta baldin hori gizaki guztiak hain orokorki ukitzen dituen ahultasuna bada, baldin gizateria guztiarengana hain unibertsalki hedatzen den akatsa bada, konturik handiena hartu beharko da akats hori bere benetako izenaz aurkezteko eta gizakiak akats horri buruzko prebentzioa eta erremedioak artatsu erabiltzera bultzatzeko.

#### 5. *Ideiak oker lotzetik sortzen da.*

Gure ideietako batzuek halako kidetasun eta elkarren arteko lotura *natural* bat daukate. Gure arrazoimenaren zeregina eta gorentasunik handiena ideia horiek deskubritzea eta berorien existentzian aurkitzen den kidetasun eta elkartasun horretan batuta eustea da. Honez gain, bada ideien beste elkarlotze bat ere *zoriaren* edo *ohitura* - *ren* ondorio dena. Berenez inondiko lotura naturalik ez duten ideiak, halatan baturik gertatzen dira gizaki batzuen gogamenetan, non oso zail egiten den horiek bata bestetik banantzea; beti elkarrekin ageri dira eta eurotako bat adimenera etorritz gero, beronen laguna ere bere-

hala etortzen da; eta horrela elkarlotuak bi baino gehiago badira, talde guztia agertzen da batera eta banaezin beti.

#### 6. *Lotura hau ohituraz egiten da.*

Gogamenak berez lotura gabekoak diren ideien konbinazio sendo hau nahita edo zoriz egiten du, eta horrela gizaki ezberdinen-gan, euron joera, heziketa, interes... ezberdinen arabera, oso ezberdinak izan ohi dira. *Ohiturak* pentsatzeko azturak ezartzen ditu adimen-ean, erabakitzeakoak nahimenean eta mugitzekoak gorputzean, hauek guztiak, dirudienez, ez direlarik animala espirituetan gertatzen diren higidura jarraituak besterik, behin abian jarritz gero, ohiturazko pau-soak eginez segitzen duten higidurak, pausook sarri eginez eta ibilia-ren ibiliaz azkenerako bidea tinko bihurtzea eta bertatik ibiltzeko mugimenduak errazak eta, nolabait esateko, naturalak izatea lortzen delarik. Pentsatzea zer den uler dezakegun neurrian, badirudi horrela-xe sortzen direla ideiak gure gogamenean; edo, horrela sortzen ez badira, ideiak, behin euren bidean jarritz gero, ohiko katean elkarri nola jarraitzen dioten esplikatzeako balio du horrek, gorputzaren higi-dura horiek esplikatzeako balio duen moduan. Edozein doinutara ohi-turik dagoen musikari batek aurkituko du ezen, behin doinu hori bere buruan hasiz gero, nota guztiak bata bestearen ondoren eta ordenan pasako direla bere adimenean, berak ezelako ardurarik ez arretarik jarri gabe, hasitako doinua jotzeko bere atzamarrak, pentsamenduak horretan arretarik jarri gabe eta beste nonbaiten barreiatuta ibili arren, organoaren tekletan zehar mugitzen diren erregularitasun beraz. Ez dut hemen zehaztuko ideia hauen kausa naturala eta, era berean, organo-jolearen atzamarren dantza horrena haren animala espirituen higidura den ala ez, adibide honetan gehienbat badela dirudien arren, baina, edonola ere, honek adimenaren azturez eta ideien elkarlotzeaz zerbait ulertzen lagun diezaguke.

#### 7. *Zenbait antipatia eta berauen efektuak.*

Ohituraz egindako ideien elkarlotzeak gertatzen direla, gertatu, gizakirik gehienen gogamenean, ez dut uste inork auzitan jarriko due-nik, bere baitan eta besteengan zer jazotzen den gogoan badu; eta honixe beharbada egotzi behar zaizkio gizakiengan hauteman dezake-gun sinpatia eta antipatiarik gehienak, naturalak balira bezain indartsu dihardutenak eta haiek bezalako ondorio erregularrak eragiten dituz-tenak; eta horrexegatik deitzen zaie horrela, nahiz eta hasieran ez

duten ideia biren elkarlotze akzidentala beste sorbururik, ideioek hain sendo loturik gertatu zirelarik behin lehen inpresioaren indarragatik behin geroagoko atseginagatik, non handik aurrera ideia bakarra balira bezala beti elkarturik joan diren gizaki horren gogamenean. Antipatiarik gehienak, esan dut, ez denak, haietako batzuk egiazki naturalak direlako, gure jatorrizko osaeraren menpe daudenak eta geurekin batera jaioak. Baina naturaltzat pasatzen ditugunetako asko, zehazki aztertuz gero, oharkabeko inpresio agian goiztiarretatik edo fantasia barrigarrietatik sortuak direla jakin beharko genuke. Eztiz gainez egiteraino asebate den pertsona heldu batek, eztiaren izena entzun besterik ez, berehala nabaritzen du irudimenak nazka eta gora-galea eragiten diola urdailean eta eztiaren ideia jasanezin bihurtzen zaio; larria, zorabioa eta okagalearen beste ideia batzuk ere badatozkio eta ondoezik sentitzen da; baina badaki noiztik duen eta zerk eragin zion ondoez hori. Haurtxoa zela ezti gehiegi jateagatik jazo baltzaio hau, ondorio berberak jasan zituzkeen, baina kausari dagokionez, erratu eta antipatia naturaltzat pasa zukeen.

*8. Gaztetxoek heziketan arduraz jagon behar da elkarlotzearen eragina.*

Hau aipatu badut, ez da izan gure argumenturako antipatia natural eta harturikoen artean zehazki bereizteko premia handirik dagoelako, baizik beste gauza baterako, alegia, haurrak dituztenak, edo haurrak hezteko eginkizuna dutenak kontura daitezen zein inportantea den kontuz ibiltzea eta arduraz jokatzeko gaztetxoek gogamenean elkarlotzerik gerta ez dadin. Haurtzaroa da inpresio iraunkorretarako aldirik egokiena eta, gorputzaren osasunari dagozkionak jende zentzudunak arduraz hartzen eta zaintzen dituen arren, zalantzetan jarriko nuke batez ere gogamenari dagozkionak eta adimenean edo pasioetan amaitzen direnak behar baino ardura gutxiagoz ez ote diren hartzen; are, susmatzen dut adimenari soilik dagozkionak erabat albo batera uzten dituztela gizakirik gehienek.

*9. Ideien elkarlotze okerra errakuntzen kausa nagusi bat da.*

Berez banakoak eta elkarrekiko lokabeak diren ideiak gure gogamenetan lotze honek hain eragin handia dauka eta hain indar handikoa da geure egintza moral eta naturaletan, geure grinetan, arrazoi-namenduetan eta nozioetan euren gu desbideratzeko, non agian ez dagoen beste ezer hau baino zaindu beharrekoagoa denik.



#### 10. *Adibide bat.*

Mamuen eta espirituen ideiek ez dute, ukan, zerikusi handiagorik iluntasunarekin, argiarekin baino; baina haurtzain inuzente batek ideia ezberdin horiek batera sarri aipatzen badizkio umeari, honek beharbada bere bizitza guztian ere ezin izanen ditu bata bestetik banandu, eta iluntasunak aurrerantzean ideia beldurgarri horiek ekarriko dizkio beti eta hain bat eginda ikusiko ditu, non iluntasuna mamua bezain jasanezin gertatuko zaion.

#### 11. *Beste adibide bat.*

Gizon bati beste batek irain handi bat egin dio eta gizon hartaz eta haren egintzaz pentsaketan eta ideia horiei buelta eta buelta, hausnar eta hausnar, oso gogor elkarlotzen ditu ideia biak, ia bat egiteraino; eta ezin du gizon horrengan pentsatu, sufrituriko oinazea eta atsekabea gogamenera etorri gabe, halatan, non bereizi ere ia ezin dituen, batak eta besteak erra bera eragiten diotelarik. Horrelaxe sortzen dira maiz gorrotoak, auzi txiki eta arinetatik, eta horrelaxe zabaltzen dira eta irauten dute haserreak munduan.

#### 12. *Hirugarrenadibidea.*

Gizon bat oinazez edo gaixo egon da gela batean, edo laguna hiltzen ikusi du gela horretan. Horiek, berez, elkarrekin inolako zerikusirik ez duten arren, lekuaren ideia gogamenera datorkionean, oinazearena eta atsekabearena dakartzkio berarekin; eta nahasi egiten ditu biak gogamenean, eta bata bestea bezain jasanezin bilakatzen zaio.

13. *Zergatik denborak osa ditzakeen arrazoimenak ezin osatu dituen gogameneko desoreka batzuk.*

Konbinazio hau ezartzen denean eta dirauen arte, arrazoimenak ez du ahalik beronek eragiten dizkigun ondorioak arinduz guri laguntza emateko. Gure gogameneko ideiek, bertan ditugun artean, beren natura eta zirkunstantzien arabera dihardukete. Eta, horretara, ikusten dugu zergatik denborak osatzen dituen zenbait zirrara, arrazoimenak, nahiz eta iradokizun zuzenak egin eta zuzenak direla onartu, gainditu ezin dituenak, arrazoimena beste kasu batzuetan jaramon egiten dioten pertsonengan ere ez delarik gai izaten horrelako zirraren kontra nagusi ateratzeko. Amaren begien eguneroko atsegina eta arimaren pozkaria izandako haurraren heriotzak bizipoz guztia kentzen dio bihotzetik amari eta imajina ahala oinaze ekartzen. Ama hori

konsolatu nahirik arrazoiez baliatzen bagara, konturatuko gara hori oinaze astoan dagoenari lasaitasuna predikatzea bezala dela eta hezurak euren giltzetatik ateratzean sentitzen duen oinaze izugarria geure diskurtsoaz arinduko diogun esperantza izatea bezala. Harik eta denborak oroimenera datorkion haurren ideiatik poz galdu hura guztiz banandu arte, irudikapen guztiak, noizbait hain arrazoizkoak izandakoak, alferrik dira; eta horregatik ideia horien arteko batasuna ezabatzeko ez zaien pertsonak doluminetan pasatzen dute bizitza osoa eta pena sendaezina eramaten dute hilobiraino.

#### 14. *Ideen elkarlotzearen ondorioen beste adibide bat.*

Nire lagun batek gizon bat ezagutu zuen ebakuntza gogor eta erasokor baten bidez amorrutik erabat sendatu zena. Horrela sendatu zen gizonak, ezkerron eta aintzatespen handienaz, bere sendatzea harrezakeen mesederik handiena zela onartu zuen geroztik bizi guztian; baina, esker onak eta arrazoiak besterik agintzen zioten arren, ebakitzalea ikuste hutsa jasan ezineko egiten zitzaion, haren irudiak beraren eskutik pairaturiko oinaze paregabea zekarkiolako, eusteko baino ere izugarriago eta jasangaitzago zitzaiona.

#### 15. *Adibide gehiago.*

Haur askok, eskolan jasotako zigorrak liburuei egotziz, bi ideia horiek batean lotzen dituzte eta liburua erabat gorrotatzera heltzen dira, gero euren bizi guztian ez direlarik liburuekin adiskidetzen edo haiek erabiltzera edo ikastera hurbiltzen; eta horrela, irakurtzea tortura bihurtzen zaie, bestela agian bizitzako plazer nagusi luketena. Gela batzuk, izatez, aski egokiak dira, baina gizaki batzuek ezin dute haietan ikasi eta forma jakin bateko ontzi batzuk, izatez, oso garbi eta erosoak dira, baina batzuek ez dute haietatik edan nahi, eta hori gauza horiei ideia akzidental batzuk eransteak haientzat desatsegin bihurtzen dituelako gertatzen da. Eta nork ez du ikusi inoiz norbait, bere nagusi ez den bat agertzean, edo beronekin dagoenean, beldurrez, noizbait nagusi izan zuelako. Izan ere, pertsonaren ideari agintaritzaren eta urruntasunaren ideia batzen zaio eta horrela meneko izandakoa ez da bi horiek banantzeko gai.

#### 16. *Adibide bitxi bat.*

Oso ugariak dira horrelako adibideak eta beste bat gehiago eskaintzen badut, bitxia eta atsegina delako da. Gizon gazte batek dan-

tzan ikasi zuen, ezin hobeto ikasi ere, kutxa zahar bat zegoen gela batean hain zuzen. Tresna nabarmen honen ideia hain nahasi zen gaztearen dantza guztietako pauso eta biribilketekin, non gela hartan oso ongi dantza zezakeen, baina kutxa hura bertan zegoela soilik; eta beste inon ere ezin zuen ongi dantzatu, kutxa hura edo antzeko bat bertan eta bazter egokian egon ezean. Baten batek istorio hau naturaletik gorako zenbait ukitu komikoz polito apainduta dagoen susmoa badu, hitz ematen dut kasua ezagutu zuen gizon zentzudun eta balioko batengandik jaso nuela duela zenbait urte hemen kontatzen dudan bezalaxe. Eta hau irakurtzen ari diren pertsona gogoeta zaleen artean gutxi izanen dira, ausartuko nintzateke esatera, historia honen parekoak edo hau justifikatzeko modukoak entzun ez dituztenak edo antzeko adibideak ikusi ez dituztenak.

17. *Elkarlotzearen eragina adimenaren azturetan.*

Horrela harturiko aztura eta akatsak ez dira gutxiagotan gertatzen direnak ez indar txikiagokoak, nahiz eta beraietaz gutxiagotan ohartu. Materiaren eta izakiaren ideiak gogor loturik badaude, behin heziketagaratik edo behin horretaz sarri pentsatzeagaratik, horiek gogamenean horrela konbinaturik dauden bitartean, zer nozio, zer arrazoi-namendu izanen da han espiritu bereiziei buruz? Txiki-txikitatik ohi-turaren eraginez Jainkoaren ideiar irudi eta formaren ideia lotu badio gogamenak, jainkotasunari zer nolako zentzugabekeriak egozteko arriskuan ez ote dago? Utzezintasunaren ideia pertsona bati bereiztezinki loturik badago eta ideia bi horiek gogamenaz jabetzen badira, orduan aldi berean leku bitan dagoen gorputzaren ideia aztertzen ere jarri gabe egia ziurtzat irentsiko da fede inplizituz, pertsona ustez utzezin horrek halaxe diktatu duelako, baiespena eskatzen duen guztian irentsi ere.

18. *Filosofia eta erlijioko sekta diferenteen elkarren aurkako iritzietan ikus daiteke elkarlotzearen eragina*

Ideien konbinazio oker eta ez-natural horietako batzuk filosofia eta erlijioko sekta ezberdinen arteko aurkakotasun bateraezinen onarrian aurkituko ditugu; izan ere, ez dago pentsatzerik doktrina horien jarraitzaileek euren burua nahita engainatzen dutenik eta arrazoimenak argiro eskaintzen dien egia ukatzen dutenik. Kasu honetan interesak zerikusia handia duen arren, ezin da hala ere pentsatu interesa dela sektakide orok, salbuespenik gabe, faltsutasunari ohartuta

eusteko moduko makurkeria unibertsalaren zergatia. Onartu beharra dago batzuek bederen guztiek diotena egin egiten dutela, hau da, egia zintzo bilatu. Horregatik, zerbait dago, egon egin behar du, haien adimena itsutu eta egiatzat hartzen dutena faltsua dela ikusten uzten ez diena. Gizakien arrazoimenez horrela jabetzen dena eta horretara begiak itxita zintzotasunetik eta sen onetik ateratzen dituen mintzagai darabilguna dela aurkituko dugu gaia aztertzen dugunean, hau da, besteekin inolako lokarrik ez duten ideia lokabe batzuk, heziketaren, ohituraren eta ideia horien aldekoen etengabeko ekinaren bidez, heretsiki lotzea euren gogamenetan eta beti batera agertzea; eta, horregatik, ideia bakarra balitz bezain bereiztezin gertatzen zaizkie eta bakarra balitz moduan jokatzten dute. Honexek ematen dio zentzua hizkerara ulertezinari, frogapena absurdukeriei eta koherentzia zentzugabekeriei, eta munduko errore guztietarik handiena dela esan nuke, edo, horrenbestera heltzen ez bada, arriskugarriena behintzat badela, bere helburuak betetzen dituen heinean, gizakiei ikustea eta ezagutzea eragozten die eta. Berez banandurik dauden bi gauza bistara beti batuta agertzen direnean, begiak batuta ikusten baditu nahiz eta lokabe egon, non hasten dira zuzentzen pertsona horiek, eurak ere nire ustez konturatu gabe bataren orde bestea ikusteraino baturik egon diren bi ideia horiei datxezkien errakuntzak? Honek, engainu horren pean dauden bitartean, ez die uzten konbentzitzen, eta euren buruak egiaren aldeko txapeldunei zor zaien moduan txalotzen dituzte, eta bi ideia ezberdin nahasteak, beren gogamenean ohituraz horrela lotuta eta ideia bakar bihurtuta edukiz, burua iritzi faltsuz eta arrazoinamenduak ondorio faltsuz betetzen dizkie.

### 19.Amaiera

Azaldu ditudalarik gure IDEIEN jatorria, motak eta hedapena, gure ezagutzaren (ez dakit hurrengo hitza erabili behar dudan) tresna edo material hauei buruzko beste gogarpen batzuekin batera, hasieran neure buruari jarri nion metodoak orain jarraian zera azaltzea eskatuko luke, alegia, adimenak horiek nola erabiltzen dituen eta euren bidez zer nolako EZAGUTZA erdiesten dugun. Hasieran horixe egin behar nuela pentsatu nuen, baina arazoa hurragotik aztertuta, konturatu nahiz ideia eta HITZEN artean lotura oso handia dagoela eta gure ideia abstraktuek eta hitz orokorrek erlazio iraunkorra dutela elkarrekiko, hainbestearaino, non ezinezko den gure ezagutzaz era argian eta

bereizian hitz egitea, proposizioz osatua baita, aurretik hizkuntzaren natura, erabilera eta esanahia aztertu gabe, horixe izanen delarik, beraz, hurrengo liburuaren gaia.



## *Oharrak*

<sup>1</sup> Aleen neurri bat; Ingalaterran neurri honek 36.367 litro ditu; Estatu Batuetan 35.237 litro. (Itzultzailearen oharra).





# Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
OHARRAK.....	27
BIBLIOGRAFIA .....	33
PEMBROKEKO KONDEARI ESKAINTZA ESKUTITZA.....	41
IRAKURLEARENTZAKO ESKUTITZA .....	45
SARRERA .....	59
I. LIBURUA. Printzipioak ez ideiak ez dira sortzetikoak .....	65
I. <i>Ez dago sortzetiko printzipio espekulatiborik .....</i>	67
II. <i>Ez dago sortzetiko printzipio praktikorik.....</i>	87
III. <i>Printzipio hala espekulatibo nola praktikoei buruzko       beste zenbait gogoeta.....</i>	109
II. LIBURUA. Ideiez .....	129
I. <i>Ideiez oro har eta euren jatorriaz .....</i>	131
II. <i>Ideia bakunez .....</i>	147
III. <i>Sentimenetako ideia bakunak.....</i>	151
IV. <i>Solidotasunaren ideiaz .....</i>	153
V. <i>Sentimen ezberdinetatik datozen ideia bakunez .....</i>	159
VI. <i>Hausnarketatik datozen ideia bakunez.....</i>	161

VII.	<i>Sentipen eta hausnarketa bidez datozkigun ideia bakunez</i> . . . . .	163
VIII.	<i>Sentipenetik datozkigun ideia bakunez beste zenbait gogoeta</i> . . .	169
IX.	<i>Pertzepzioaz</i> . . . . .	181
X.	<i>Eutsimenaz</i> . . . . .	189
XI.	<i>Bereizmenaz eta gog amenaren beste eragiketa batzuez</i> . . . . .	197
XII.	<i>Idea konplexuez</i> . . . . .	207
XIII.	<i>Modu bakunen ideia konplexuez, eta, lehenik, espazioaren ideiarene modu bakunez</i> . . . . .	211
XIV.	<i>Iraupenaren ideia eta honen modu bakunak</i> . . . . .	227
XV.	<i>Iraupenaren eta hedapenaren ('expansion') ideiak, elkarrekin kontsideraturik</i> . . . . .	245
XVI.	<i>Zenbakiaren ideia</i> . . . . .	255
XVII.	<i>Infinitutasunaz</i> . . . . .	261
XVIII.	<i>Beste zenbait modu bakun</i> . . . . .	277
XIX.	<i>Pentsamenduaren moduak</i> . . . . .	281
XX.	<i>Plazerraren eta oinazearen moduak</i> . . . . .	285
XXI.	<i>Ahalaz</i> . . . . .	291
XXII.	<i>Modu mistoez</i> . . . . .	345
XXIII.	<i>Substantziei buruz ditugun ideia konplexuez</i> . . . . .	353
XXIV.	<i>Substantzien ideia kolektiboez</i> . . . . .	377
XXV.	<i>Erlazioaz</i> . . . . .	379
XXVI.	<i>Kausa eta efektuaz eta beste zenbait erlazioz</i> . . . . .	385
XXVII.	<i>Identitateaz eta ezberdintasunaz</i> . . . . .	391
XXVIII.	<i>Beste zenbait erlazioz</i> . . . . .	415
XIX.	<i>Idea argi eta ilunez, bereizi eta nahasiez</i> . . . . .	429
XXX.	<i>Idea errealez eta fantastikoez</i> . . . . .	441
XXXI.	<i>Idea egokiez eta desegokiez</i> . . . . .	445
XXXII.	<i>Idea egiazkoez eta faltsuez</i> . . . . .	457
XXXIII.	<i>Ideen elkartlotzeaz</i> . . . . .	469
OHARRAK	. . . . .	479